**4. koadroa Gizarte Segurantzako afiliazioa, jarduera arloen arabera. EAE**

| | 2020 | 2021 | | Aldakuntza, % Δ | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Afiliazioa | Afiliazioa | % | 20/19 | 21/20 |
| Osasungintzako jarduerak eta gizarte-zerbitzuak | 110.636 | 111.418 | 11,4 | 2,8 | 0,7 |
| Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak | 66.784 | 68.409 | 7,0 | 0,1 | 2,4 |
| Informazioa eta komunikazioa | 23.571 | 24.500 | 2,5 | 1,3 | 3,9 |
| Ur-hornidura eta hondakinak | 6.346 | 6.536 | 0,7 | 0,6 | 3,0 |
| Energia-hornidura | 1.577 | 1.589 | 0,2 | 5,0 | 0,8 |
| Lurraldez kanpoko erakundeak | 57 | 78 | 0,0 | 1,1 | 36,8 |
| | | | | | |
| Jarduera profesional zientifiko-teknikoak | 57.009 | 59.145 | 6,0 | -0,5 | 3,7 |
| Eraikuntza | 56.624 | 57.154 | 5,8 | -0,8 | 0,9 |
| Administrazio Publikoa eta Gizarte Segurantza | 48.530 | 49.517 | 5,1 | -1,4 | 2,0 |
| Garraioa eta biltegiratzea | 42.621 | 43.175 | 4,4 | -1,2 | 1,3 |
| Artearen, aisialdiaren eta entretenimenduaren arloko jarduerak | 15.626 | 17.846 | 1,8 | -10,8 | 14,2 |
| Higiezinen arloko jarduerak | 4.132 | 4.194 | 0,4 | -0,6 | 1,5 |
| | | | | | |
| Manufaktura-industria | 168.494 | 169.893 | 17,3 | -3,8 | 0,8 |
| Ibilgailuen merkataritza eta konponketa | 136.136 | 136.897 | 14,0 | -2,0 | 0,6 |
| Hezkuntza | 75.349 | 79.058 | 8,1 | -0,9 | 4,9 |
| Ostalaritza | 61.007 | 65.650 | 6,7 | -10,4 | 7,6 |
| Etxeko langileak | 28.876 | 28.987 | 3,0 | -2,8 | 0,4 |
| Beste zerbitzu batzuk | 26.131 | 27.128 | 2,8 | -9,0 | 3,8 |
| Erauzketa-industriak | 552 | 553 | 0,1 | -2,5 | 0,2 |
| | | | | | |
| Finantza- eta aseguru-jarduerak | 17.352 | 16.941 | 1,7 | -2,5 | -2,4 |
| Lehen mailakoak | 11.721 | 11.355 | 1,2 | -0,5 | -3,1 |
| | | | | | |
| **Afiliazioa, guztira** | **959.132** | **980.022** | **100,0** | **-2,2** | **2,2** |

*Oharra: Urte bakoitzeko abenduko batez besteko afiliatu kopurua. Erregimen guztiak.*
*Iturria: Gizarte Segurantza. Geuk egina.*

Enplegua hobetzearekin batera, erregistratutako langabeziak behera egin zuen, eta pandemia agertu aurretiko beheranzko joerara itzuli zen. Asko jaitsi zen EAEn (-% 11,1) eta, batez ere, Nafarroan eta Estatuan (-% 21,2 eta -% 20,1). Halaber, langabezia-tasak behera egin zuen hiru eremuetan (ehuneko -1,6 puntu, ehuneko -1,8 puntu eta ehuneko -2,8 puntu). Hala, EAEn eta Estatuan (% 8,4 eta % 13,3) 2019ko datua (% 9,1 eta % 13,8) baino baxuagoa zen, eta Nafarroan erregistro horretara gerturatu zen (% 9,9, eta 2019an % 9,0).

**5. koadroa** **Erregistratutako langabeziaren eta langabezia-tasaren bilakaera**

| | Datua | | | Urte batetik besterako aldakuntza (%) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2019 | 2020 | 2021 | 2019 | 2020 | 2021 |
| **Erregistratutako langabezia (perts. kop.)** | | | | | | |
| EAE | 114.162 | 129.240 | 114.845 | -4,6 | 13,2 | -11,1 |
| Nafarroa | 33.198 | 40.637 | 32.026 | 1,1 | 22,4 | -21,2 |
| Estatua | 3.163.605 | 3.888.137 | 3.105.905 | -1,2 | 22,9 | -20,1 |
| **Langabezia-tasa (%)** | | | | | | |
| EAE | 9,1 | 10,0 | 8,4 | -0,5 | 0,9 | -1,6 |
| Nafarroa | 9,0 | 11,7 | 9,9 | -1,0 | 2,6 | -1,8 |
| Estatua | 13,8 | 16,1 | 13,3 | -0,7 | 2,4 | -2,8 |

*Oharra: urte bakoitzeko abenduan erregistratutako langabezia eta urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoko langabezia-tasa. Langabezia-tasaren aldakuntza ehuneko puntutan adierazi dugu.*

*Iturria: SEPE eta EIN (BAI, Biztanleria Aktiboaren Inkesta). Geuk egina.*

Jarduera ekonomikoaren bilakaerarekin lotutako adierazleek agerian uzten dituzte urte hartako zailtasunak eta, gainera, guztiz ezohikoa izan zen agertokiari (2020) kontrajartzen zaizkio. Hala, urte arteko tasei dagokienez, 2021eko bilakaerak honako hau erakusten du: lehen hiruhilekoan, egonkortasuna (alderatuz, 2020ko lehen hiruhilekoa ia normala izan zen); bigarren hiruhilekoan, gorakada (2020ko bigarrenean alarma-egoera bete-betean geunden); hirugarren hiruhilekoa 2020koa baino hobea, non egoera "ia normala" zen baina kutsatzeen etengabeko olatuek baldintzatu zuten; eta laugarren hiruhilekoan okerrera, esperotakoa baino bilakaera txarragoarekin.

**2. grafikoa** **Sektoreko adierazle nagusien bilakaera. EAE**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*




*[1] Industria Ekoizpenaren Indizeari, Zerbitzuen Indize Koiunturalari, Txikizkako Merkataritzaren Indizeari eta Eraikuntzaren Indize Koiunturalari dagozkie adierazleak.*

*[2] Egutegiaren arabera zuzendutako datuak oinarri hartuta.*

*Iturria: Eustat. Geuk egina.*

Jarduera apurka hobetzen joan zen, baina sektore guztietan ez zuen eragin berbera izan. Beste faktore batzuen artean, honako hauek nabarmendu ziren: hornidura-kateen gorabeherak, lehengaien eta bitarteko produktuen prezioen igoera, eta garraioaren kostuaren igoera. Horiek manufaktura-industrian eta eraikuntzan izan zuten inpakturik handiena. Gainera, produktu energetikoak garestitu egin ziren; faktore horrek eragin orokorragoa izan zuen sektoreetan.

Termometro ekonomikoa[1] EAEko jarduera ekonomikoaren hileko adierazle bat da. 2021ean zehar asko hobetu ziren 2020ko erregistro negatiboak. Apirilean (138,1) eta maiatzean (145,5) eskuratu ziren baliorik altuenak, eta handik aurrera egonkortu egin ziren (131,3 abenduan).

**3. grafikoa Euskadiko ekonomiaren termometroa**




*Oharra: hileko ehun aldagai inguru konbinatzen dituen adierazle sintetikoa. Adierazlea 50 baino baxuagoa bada, ekonomiak behera egin duela esan nahi du; 50 eta 100 artean kokatzen bada, apur bat hazi dela; eta 100etik gorakoa bada, ekonomiak hazkunde sendoa izan duela.*

*Iturria: Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza. Geuk egina.*

[1] Hileko ehun aldagai inguru hartzen ditu kontuan (jarduera eta sektoreko enplegua), eta sektoreko hamabost adierazle monitorizatzen ditu, BPGarekin korrelazio handia dutenak.

Pandemiaren kudeaketak eta pandemiak ekonomia orokorrean, enpleguan, familiako ekonomian eta aurrezteko gaitasunean izandako inpaktuak ziurgabetasuna eragin zuen, eta horrek asko baldintzatu zuen EAEko familien konfiantzaren[1] bilakaera. 2008-2014 arteko krisialdia oso gertu zegoen. Ondorioz, 2020an mesfidantza eta ezkortasuna gailendu ziren pertsonen portaeran. Hala ere, 2021ean zehar, EAEko familien konfiantzaren indizea hobetu egin zen, pandemiaren kudeaketan aurrera egin zelako (txertaketa) eta enplegua sendotu egin zelako. Dena den, azken hiruhilekoan okertu egin zen indize hori, inflazioak gora egingo zuen aurreikuspenarengatik.

**4. grafikoa Kontsumitzaileen konfiantza-indizea. EAE**




*Oharra: honela interpretatu ditugu eskuratutako datuak: indizea positiboa bada (100 arte), egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek; indizea negatiboa bada (-100 arte), berriz, egoerak okerrera egingo duela uste dute familia gehienek.*

*Iturria: Laboral Kutxa. Geuk egina.*

Agertoki horretan, EAEko BPGa oraindik ere "negatiboa" zen lehen hiruhilekoan, bigarrenean asko hobetu zen (2020ko bigarren hiruhilekoan, berriz, geldi zegoen); hirugarren eta laugarren hiruhilekoak, bestalde, orokorrean, ez ziren aurreikuspen ekonomikoek adierazi bezain positiboak izan. Funtsean, 2021ean EAEko BPGak urte arteko % 5,6ko hazkundea izan zuen, eta ezin izan zen pandemiaren aurreko (2019) balioa berreskuratu.

[1] Adierazle aurreratua da: pertsonek hurrengo hamabi hilabeteetan izango dituzten igurikimenak jasotzen ditu. Kontsulta egiten den unearekin alderatuta, egoera hobea, berdina edo okerragoa izango den baloratzen dute.

**5. grafikoa BPGaren bilakaera. EAE**

*(%)*




*Oharra: bolumen-indize kateatua, urtaroen eta egutegiaren arabera zuzendutako datuak oinarri hartuta.*
*Iturria: Hiru hilez behingo kontu ekonomikoak. Eustat. Geuk egina.*

2022rako eta 2023rako aurreikuspenetako ezberdintasunak alde batera utzita, euskal ekonomiaren inguruko (EB-Estatua) suspertzea sendotzen ari da, behin onartuta ez dakigula noiz utziko dioten prezioek gora egiteari, noiz desagertuko diren hornidura-kateetako botila-lepoak eta noiz berreskuratuko den pertsonen estatuko eta nazioarteko mugikortasuna, jarduera guztiak oso-osorik berreskuratzeko.

**6. grafikoa BPGaren bilakaera eta aurreikuspenak. EAE**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*




*Oharra: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak (Eusko Jaurlaritza) 2022ko martxoan egindako aurreikuspenei dagozkie 2022ko eta 2023ko datuak.*
*Iturria: Hiru hilez behingo kontu ekonomikoak (Eustat) eta Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritza). Geuk egina.*

Aurreikuspen hauek beherantz ari gara berrikusten, gerra-egoera dela eta[1]. Eraginak ugariak dira: nazioarteko erantzuna emateko hitzarmenak –zigor ekonomiko -finantzarioak– ezartzearekin lotutako tentsio geopolitikoak; gas-merkatuetan eta energiaren prezioen (eta prezio guztien) gorakadan izandako eragina; eta interes-tasa batzuen igoera posibleak atzeratzea, sistemaren likidezia mantentzeko. Krisi honen iraupena mugatzeko gaitasuna, konponbidearen kostua eta inpaktua gutxitzea izango dira gakoak. Izan ere, jardueraren suspertzea oraindik ere ez zegoen normalizatuta (pandemiaren ondoren) eta inflazioaren joera goranzkoa zen.

**6. koadroa Egindako ekonomia-aurreikuspenak. 2022ko urtarrila-otsaila**

*(%)*

| | Europako Batzordea | | | NDF | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2023 | 2021 | 2022 | 2023 |
| **Eurogunea** | **5,3** | **4,0** | **2,7** | **5,2** | **3,9** | **2,5** |
| Alemania | 2,8 | 3,6 | 2,6 | 2,7 | 3,8 | 2,5 |
| Frantzia | 7,0 | 3,6 | 2,1 | 6,7 | 3,5 | 1,8 |
| Italia | 6,5 | 4,1 | 2,3 | 6,2 | 3,8 | 2,2 |
| Espainia | 5,0 | 5,6 | 4,4 | 4,9 | 5,8 | 3,8 |
| **Munduko ekonomia** | **-** | **-** | **-** | **5,9** | **4,4** | **3,8** |
| AEB | - | - | - | 5,6 | 4,0 | 2,6 |
| Txina | - | - | - | 8,1 | 4,8 | 5,2 |

*Iturria: Europako Batzordea (2022ko otsaila) eta NDF (2022ko urtarrila). Geuk egina.*

[1] Espainiako ekonomiaren proiekzio makroekonomikoen arabera (Espainiako Bankua), BPGa % 4,5 eta % 2,9 haziko da 2022an eta 2023an. KPIHa asko igoko dela adierazten dute (% 3tik % 7,5era 2021ean eta 2022an), eta 2023an apaldu egingo dela (% 2). Europako Batzordeak eta NDFk aurreratu dutenez, gutxienez ehuneko puntu bat egingo du behera, ekonomia bakoitzaren kalte-erantzun mailaren arabera.



LABORAL kutxa

# 2. INGURUNE EKONOMIKOA (NAZIOARTEKOA ETA ESTATUKOA)

## 2.1. NAZIOARTEKO EKONOMIA

**Ezaugarri nagusiak: ekoizpen-jarduera**

Pandemiaren inpaktuak historikoki markatu zuen 2020a, eta munduko ekonomia -% 3,1 murriztu zen. 2021ean indarrez suspertu zen jarduera, mundu mailako % 6,1eko hazkundearekin. Hala, ekitaldi horren amaieran agertu zen COVID-19aren omikron aldaeraren inpaktua mugatua izan zen. Dena den, kontuan izan behar da osasun-krisia eta krisi ekonomikoa oraindik ere ez direla behin betiko konpondu mundu mailan. Gainera, 2022an suspertzea oztopatzen duten mehatxu berriak agertu dira, eta pandemian zehar ekonomia astintzen ari diren eskaintza-shockei gehitu zaizkie.

Testuinguru honetan, suspertze-erritmo oso ezberdinak ikus daitezke bloke ekonomiko handien artean. Hala, aurreko ekitaldian -% 4,5eko beherakada erregistratu ondoren, ekonomia aurreratuak % 5,2 hazi ziren 2021ean. Sortu berri diren merkatuen eta garapen-bidean dauden ekonomiak, berriz, % 6,8 hazi ziren, 2020an -% 2ko beherakada izan ondoren. Hortaz, alderaketa eginda, ekonomia aurreratuek beherakada handiagoa izan zuten 2020an, eta suspertze txikiagoa izan zuten 2021ean.

Herrialde industrializatuei dagokienez, ELGAren ekaineko aurreikuspenen arabera, 2021ean % 5,5eko hazkundea izan zuten, aurreko ekitaldian -% 4,6ko murrizketa erregistratu ondoren. Kontsumo pribatuaren, kontsumo publikoaren eta inbertsioaren hazkunde orokortuari esker (% 6,3ko, % 3,7ko eta % 5eko hazkundeak, hurrenez hurren, 2021ean) gertatu zen gorakada hori.

**7. koadroa Barne Produktu Gordinaren bilakaera**

*(% Δ)*

| Herrialdea | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | 2,3 | -3,4 | 5,7 |
| Japonia | -0,2 | -4,5 | 1,7 |
| Alemania | 1,1 | -4,9 | 2,9 |
| Frantzia | 1,9 | -7,9 | 6,8 |
| Italia | 0,5 | -9,1 | 6,6 |
| Erresuma Batua | 1,7 | -9,3 | 7,4 |
| Kanada | 1,9 | -5,2 | 4,5 |
| **Eurogunea** | **1,6** | **-6,5** | **5,3** |
| **ELGA, guztira** | **1,7** | **-4,6** | **5,5** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2022ko ekaina)*

Ipar Amerikako ekonomiari dagokionez, 2020an -% 3,4ko jaitsiera erregistratu ondoren, 2021ean % 5,7 hazi zen (1984az geroztiko tasarik altuena); izan ere, nabarmen suspertu ziren kontsumo pribatua (% 7,9ko hazkundea) eta inbertsioa (% 6,1eko hazkundea). Kontsumo publikoaren hazkunde-erritmoa, berriz, apaldu egin zen (% 1eko hazkundea 2021ean, eta % 2koa aurreko ekitaldian).

Bestetik, Japoniaren suspertzea ez zen hain handia izan 2021ean, eta % 1,7ko hazkunde apala izan zuen (2020an -% 4,5eko jaitsiera). Izan ere, familien kontsumoa bakarrik igo zen (% 1,3), kontsumo publikoaren hazkundea moteldu egin zen (% 2,1, eta 2020an % 2,3) eta inbertsioak tasa negatiboetan jarraitu zuen, nahiz eta datuak aurreko ekitaldian baino hobeak izan (2021ean -% 1,6 eta 2020an -% 4,6).

Sortu berri diren merkatuen eta garapen-bidean dauden ekonomien eremuan, 2021ean hazkunde handiagoa izan zuen Indiak, Errusiak eta Brasilek baino (% 8,9ko, % 4,7ko eta % 4,6ko hazkundeak, hurrenez hurren). Dena den, kontuan izan behar da Indiak besteek baino beherakada handiagoa izan zuela 2020an (-% 6,6ko, -% 2,7ko eta -% 3,9ko jaitsierak izan zituzten, hurrenez hurren, ekitaldi horretan).

**8. koadroa** **Kontsumo pribatuaren, kontsumo publikoaren eta inbertsioaren bilakaera**

*(% Δ)*

| Herrialdea | Kontsumo pribatua | | | Kontsumo publikoa | | | Inbertsioa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2019 | 2020 | 2021 | 2019 | 2020 | 2021 | 2019 | 2020 | 2021 |
| Estatu Batuak | 2,2 | -3,8 | 7,9 | 2,0 | 2,0 | 1,0 | 3,1 | -1,5 | 6,1 |
| Japonia | -0,5 | -5,2 | 1,3 | 1,9 | 2,3 | 2,1 | 1,0 | -4,6 | -1,6 |
| Alemania | 1,6 | -6,1 | 0,3 | 3,0 | 3,5 | 2,9 | 1,9 | -3,0 | 1,0 |
| Frantzia | 1,8 | -6,8 | 5,3 | 1,0 | -4,0 | 6,4 | 4,1 | -8,4 | 11,4 |
| Italia | 0,2 | -10,6 | 5,2 | -0,5 | 0,5 | 0,6 | 1,2 | -9,2 | 17,0 |
| Erresuma Batua | 1,3 | -10,6 | 6,2 | 4,2 | -5,9 | 14,3 | 0,5 | -9,5 | 5,9 |
| Kanada | 1,4 | -6,1 | 4,9 | 1,7 | 0,0 | 5,8 | 0,0 | -2,8 | 7,1 |
| **Eurogunea** | **1,4** | **-7,9** | **3,6** | **1,8** | **0,8** | **3,9** | **6,8** | **-7,2** | **4,1** |
| **ELGA, guztira** | **1,6** | **-5,5** | **6,3** | **2,4** | **1,3** | **3,7** | **2,1** | **-4,2** | **5,0** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2022ko ekaina)*

Europaren kasuan, 2020an -% 6,5eko beherakada handia erregistratu ondoren, Eurogunea k % 5,3ko hazkunde nabarmena izan zuen 2021ean, kontsumo pribatuak eta inbertsioak izandako gorakaden ondorioz (% 3,6ko eta % 4,1eko hazkundeak, hurrenez hurren), eta kontsumo publikoaren hazkundea nabarmen areagotu izanaren ondorioz (% 3,9ko igoera, eta aurreko urtean % 0,8koa).

## Kanpo-merkataritza

Jardueraren suspertze-testuinguru horretan, 2021ean indarrez berreskuratu zuen haren hazkundea kanpo-merkataritzak; ELGAko herrialdeen esportazioek zein inportazioek egin zuten gora, nabarmen.
Zehazki, kanpora egindako salmentak % 8,4 hazi ziren, eta kanpotik egindako erosketak % 9,6 (aurreko ekitaldian -% 9,6 eta -% 9ko jaitsierak, hurrenez hurren).

Herrialdeen arabera, honako taula honetan jasotako herrialde guztietan (ELGAkoak) igo ziren kanpora egindako salmentak eta kanpotik egindako erosketak, Erresuma Batuan izan ezik, EBtik irteteko prozesuaren eraginez. Bereziki, Japoniako esportazioen hazkundea (% 11,8ko gorakada) eta Ipar Amerikako inportazioen suspertzea (% 14ko igoera) nabarmendu ziren.

**9. koadroa** **Ondasun eta zerbitzuen truke-bolumenaren aldakuntzak**

*(% Δ)*

| Herrialdea | Inportazioak | | | Esportazioak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2019 | 2020 | 2021 | 2019 | 2020 | 2021 |
| Estatu Batuak | 1,2 | -8,9 | 14,0 | -0,1 | -13,6 | 4,5 |
| Japonia | 1,0 | -6,9 | 5,1 | -1,5 | -11,7 | 11,8 |
| Alemania | 2,9 | -9,2 | 9,0 | 1,1 | -10,1 | 9,5 |
| Frantzia | 2,4 | -13,0 | 7,8 | 1,6 | -17,0 | 8,6 |
| Italia | -0,5 | -12,7 | 14,3 | 1,8 | -14,2 | 13,4 |
| Erresuma Batua | 2,9 | -15,8 | 3,8 | 3,4 | -13,0 | -1,3 |
| Kanada | 0,4 | -10,8 | 7,7 | 2,3 | -9,7 | 1,4 |
| **ELGA, guztira** | **2,4** | **-9,0** | **9,6** | **1,9** | **-9,6** | **8,4** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2022ko ekaina)*

## Prezioak

Petrolioa nabarmen garestitu zen (Brent upelak 41,5 dolar balio zuen 2020an, eta 71,1 dolar 2021ean) honako faktore hauen eraginez: ekonomiaren suspertzea, lehengaien prezioaren igoera izugarria, eta pandemiaren eraginez eskaintzaren eta eskariaren artean sortutako desorekak, beste batzuen artean. Horren ondorioz, kontsumo-prezioen hazkunde-erritmoa indartu egin zen, modu orokortuan, aintzat hartutako herrialde guztietan, Japonian izan ezik.

Hala, ELGAren arabera, 2021ean kontsumoko prezio-indizearen hazkundea % 4,7ra igo zen Estatu Batuetan, eta % 2,6ra Eurogunean (% 1,2ko eta % 0,3ko hazkundeak, hurrenez hurren, 2020an).

**10. koadroa** **Kontsumoaren prezio-indizearen bilakaera**

*(% Δ)*

| Herrialdea | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | 1,8 | 1,2 | 4,7 |
| Japonia | 0,5 | 0,0 | -0,2 |
| Alemania | 1,4 | 0,4 | 3,2 |
| Frantzia | 1,3 | 0,5 | 2,1 |
| Italia | 0,6 | -0,1 | 1,9 |
| Erresuma Batua | 1,8 | 0,9 | 2,6 |
| Kanada | 2,0 | 0,7 | 3,4 |
| **Eurogunea** | **1,2** | **0,3** | **2,6** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2022ko ekaina)*

Dena den, suspertze ekonomikoa errazteko eta sustatzeko, Estatu Batuetako Erreserba Federalak eta Europako Banku Zentralak politika moldakorrak mantendu zituzten, eta 2021ean zehar gutxieneko mailan mantendu zituzten haien esku-hartze tasak: % 0,25 eta % 0, hurrenez hurren.

### Lan-merkatua

2021ean jarduera ekonomikoa suspertzearen ondorioz, langabezia-tasak jaitsiera ia orokortua izan zuen. Italian baino ez zen hazi langabezia, apur bat, eta egonkor mantendu zen Japonian eta Erresuma Batuan. Estatu Batuetako langabezia-tasa % 8,1ekoa zen 2020an eta % 5,4ra jaitsi zen 2021ean; Eurogunean, berriz, % 8tik % 7,7ra jaitsi zen. Hala, ELGAko herrialdeetan tasa hori % 6,2ra jaitsi zen (% 7,1ekoa zen aurreko ekitaldian).

**11. koadroa** **Langabezia-tasa**

*(biztanleria aktiboaren %)*

| Herrialdea | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | 3,7 | 8,1 | 5,4 |
| Japonia | 2,4 | 2,8 | 2,8 |
| Alemania | 3,2 | 3,9 | 3,6 |
| Frantzia | 8,5 | 8,1 | 7,9 |
| Italia | 9,9 | 9,3 | 9,5 |
| Erresuma Batua | 3,8 | 4,5 | 4,5 |
| Kanada | 5,7 | 9,5 | 7,4 |
| **Eurogunea** | **7,6** | **8,0** | **7,7** |
| **ELGA, guztira** | **5,4** | **7,1** | **6,2** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2022ko ekaina)*



LABORAL kutxa

## Diru- eta aurrekontu-politika

Pandemiaren egoerak hobera egin zuenez, 2021ean txikiagoa izan zen gastu publikoa egiteko beharra, 2020arekin alderatuta. Dena den, defizit altuek jarraitu zuten gailentzen, aurreko ekitaldian baino txikiagoak baziren ere. Hala, Estatu Batuek haien BPG nominalaren -% 11,8 adinako defizita zuten 2021ean; Euroguneak -% 5,1ekoa eta ELGAk -% 7,4koa (2020an -% 15,4, -% 7,1 eta -% 10,4, hurrenez hurren).

**12. koadroa Administrazio Publikoen finantzaketa-beharrak (finantzaketa-ahalmena (+) edo finantzaketa-beharra (-), BPG nominalaren ehunekoaren arabera)**

*(BPGaren %)*

| Herrialdea | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | -6,4 | -15,4 | -11,8 |
| Japonia | -3,0 | -9,0 | -5,7 |
| Alemania | 1,5 | -4,3 | -3,8 |
| Frantzia | -3,1 | -8,9 | -6,4 |
| Italia | -1,5 | -9,6 | -7,2 |
| Erresuma Batua | -2,3 | -12,8 | -8,3 |
| Kanada | 0,0 | -11,4 | -5,0 |
| **Eurogunea** | **-0,7** | **-7,1** | **-5,1** |
| **ELGA, guztira** | **-3,1** | **-10,4** | **-7,4** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2022ko ekaina)*

Politika monetarioari dagokionez, aurrez esan dugun moduan, 2021ean zehar % 0,25ean eta % 0an mantendu ziren Erreserba Federalaren eta Europako Banku Zentralaren erreferentziazko tasak, hurrenez hurren.

**7. grafikoa Interes-tasen aldakuntza**




*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2022ko ekaina)*

## Europar Batasuna

Europako Batzordearen udaberriko aurreikuspenen arabera, 2021ean Europar Batasunak % 5,4ko hazkundea izan zuen, 2020an pandemiaren inpaktuaren harira erregistratutako -% 5,9ko erorikoaren ondoren. Barne-eskaria % 4,5 hazi zen (aurreko ekitaldian -% 5,7ko jaitsiera), esportazioak %10,7 eta inportazioak % 9,3 (2020an -% 8,4ko eta -% 8,2ko murrizketak, hurrenez hurren).

Nabarmentzekoa da, barne-eskariari dagokionez, hazkundea orokortua izan zela 2021ean; kontsumo pribatua zein kontsumo publikoa % 3,8 hazi ziren (aurreko ekitaldian -% 7,3ko beherakada eta % 1,1eko igoera txikia, hurrenez hurren) eta, inbertsioa, % 4,2 (-% 6,2ko jaitsiera 2020an).

**13. koadroa Adierazle nagusiak (EB)**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|
| **Jarduera** | | | |
| – Kontsumo pribatua | 1,6 | -7,3 | 3,8 |
| – Kontsumo publikoa | 2,0 | 1,1 | 3,8 |
| – Kapital Finkoaren Eraketa Gordina | 6,5 | -6,2 | 4,2 |
| – Barne-eskaria | 2,5 | -5,7 | 4,5 |
| – Esportazioak | 3,0 | -8,4 | 10,7 |
| – Inportazioak | 4,6 | -8,2 | 9,3 |
| – BPG | 1,8 | -5,9 | 5,4 |
| **Prezioak eta soldatak** | | | |
| – BPGaren deflatorea | 1,9 | 1,9 | 2,3 |
| – Kontsumo pribatuaren deflatorea | 1,4 | 0,7 | 2,5 |
| – Banakako lan-kostu errealak | -0,1 | 2,4 | -2,7 |

*Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2022ko udaberria)*

Herrialdeen araberako azterketak erakusten duenez, 2021ean Batasuneko kide guztiak itzuli ziren hazkunde-ibilbidera. Irlandak eta Kroaziak izan zituzten hazkunderik handienak, % 10etik gorakoak, eta Alemaniak txikiena, ez baitzen % 3ra iritsi. Alemaniako ekonomiari dagokionez, Batasuneko traktore ekonomiko nagusia denez, kontuan izan behar da "Covidaren bigarren olatuan" murgilduta eta "itxita" hasi zuela 2021. urtea; ondorioz, haren BPGa murriztu egin zen lehen hiruhilekoan. Ondoren, bazirudien suspertzen hasiko zela, baina ekitaldiaren amaieran "laugarren olatua" eta murrizketak iritsi ziren (Batasuneko beste herrialde batzuetan finkatutakoak baino zorrotzagoak), eta horrek 2021eko hazkundea oztopatu zuen. Gainera, Alemania bereziki kaltetu zuten mundu mailako hornidura-katearen tirabirek.

**14. koadroa** **Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkundea (Europar Batasuna)**

*(Urte arteko aldakuntzaren %)*

| Herrialdea | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|
| Irlanda | 4,9 | 5,9 | 13,5 |
| Kroazia | 3,5 | -8,1 | 10,2 |
| Malta | 5,9 | -8,3 | 9,4 |
| Estonia | 4,1 | -3,0 | 8,3 |
| Grezia | 1,8 | -9,0 | 8,3 |
| Eslovenia | 3,3 | -4,2 | 8,1 |
| Hungaria | 4,6 | -4,5 | 7,1 |
| Frantzia | 1,8 | -7,9 | 7,0 |
| Luxenburgo | 3,3 | -1,8 | 6,9 |
| Italia | 0,5 | -9,0 | 6,6 |
| Belgika | 2,1 | -5,7 | 6,2 |
| Polonia | 4,7 | -2,2 | 5,9 |
| Errumania | 4,2 | -3,7 | 5,9 |
| Zipre | 5,3 | -5,0 | 5,5 |
| **EB** | **1,8** | **-5,9** | **5,4** |
| Espainia | 2,1 | -10,8 | 5,1 |
| Lituania | 4,6 | -0,1 | 5,0 |
| Herbehereak | 2,0 | -3,8 | 5,0 |
| Portugal | 2,7 | -8,4 | 4,9 |
| Suedia | 2,0 | -2,9 | 4,8 |
| Danimarka | 2,1 | -2,1 | 4,7 |
| Letonia | 2,5 | -3,8 | 4,5 |
| Austria | 1,5 | -6,7 | 4,5 |
| Bulgaria | 4,0 | -4,4 | 4,2 |
| Finlandia | 1,2 | -2,3 | 3,5 |
| Txekiar Errepublika | 3,0 | -5,8 | 3,3 |
| Eslovakia | 2,6 | -4,4 | 3,0 |
| Alemania | 1,1 | -4,6 | 2,9 |

*Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2022ko udaberria)*

Per capita BPGari dagokionez, erosketa-ahalmenaren parekotasuna kontuan hartuta, 2021ean oraindik ere ezberdintasun handiak zeuden Batasuneko herrialdeen artean. Zentzu horretan, Luxenburgok zuen mailarik altuena (277; EB-27 osoari dagokion balioa 100 da), eta Bulgariak txikiena (55); hala, bata bestea baino 5 aldiz handiagoa zen. Herrialde hauek gainditu zuten Batasuneko batezbestekoa (neurri ezberdinetan): Irlanda (221), Danimarka (133), Herbehereak (132), Suedia (123), Belgika (122), Austria (121), Alemania (119), Finlandia (113) eta Frantzia (104). Gainerako herrialdeak batezbestekotik behera geratu ziren. Horrekin lotuta, aipatzekoa da EBn bata bestearen segidan kide berriak sartzearen ondorioz nabarmen jaitsi zela Batasuneko batez besteko per capita BPGa.

**15. koadroa Europar Batasuneko *per capita* BPGa (PPS) 2021**

| Herrialdea | EB-27=100 |
|---|---|
| Luxenburgo | 277 |
| Irlanda | 221 |
| Danimarka | 133 |
| Herbehereak | 132 |
| Suedia | 123 |
| Belgika | 122 |
| Austria | 121 |
| Alemania | 119 |
| Finlandia | 113 |
| Frantzia | 104 |
| **EB-27 guztira** | **100** |
| Malta | 98 |
| Italia | 95 |
| Txekiar Errepublika | 92 |
| Eslovenia | 90 |
| Zipre | 88 |
| Lituania | 88 |
| Estonia | 87 |
| Espainia | 84 |
| Polonia | 77 |
| Hungaria | 76 |
| Portugal | 74 |
| Errumania | 73 |
| Letonia | 71 |
| Kroazia | 70 |
| Eslovakia | 68 |
| Grezia | 65 |
| Bulgaria | 55 |

*Iturria: Eurostat (2022ko maiatza).*

## Aurreikuspenak

2014an hasitako Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerra-gatazka gora joan zen 2022ko otsailean, eta horrek erronka berri bat ekarri dio munduko ekonomiaren hazkundeari. Zentzu horretan, 2022ko otsailaren amaieran Errusiak Ukrainaren aurka hasitako inbasioak agertoki berri bat ekarri du, ziurgabetasunez betea. Energiaren prezioek gora egin dute, bereziki, gasarenak (ez hainbeste petrolioarenak); Europak (eta, bereziki, herrialde batzuek) gasarekiko mendekotasuna dute. Gainera, beste lehengai batzuen kasuan ere (esaterako, nekazaritzako elikagaiak eta metal jakin batzuk) tentsio handiak daude, eta prezioak gora egiten ari dira. Halaber, mundu mailako hornidura kalteen arazoek oraindik ere jarraitzen dute, eta larriagotu egin litezke. Bestetik, gainerako ekonomiek Errusiaren aurka presioa egiteko hartutako neurriek ez diote Errusiari bakarrik eragiten modu negatiboan; ekonomia horien hazkunde propioa ere oztopatzen dute.

Hala, 2021aren amaierako prezio altuek gora egin dute 2022an, energiaren prezioen gorakadaren ondorioz, eta inflazioa kezka bat gehiago bihurtu da, ziurgabetasunez betetako agertoki batean.
Testuinguru honetan, nazioarteko erakunde nagusien aurreikuspen ekonomikoen arabera, hazkunde-erritmoa apaldu egingo da, argi eta garbi. NDFk 2022ko apirilean aurreikusi zuenez, munduko ekonomia % 3,6 haziko da 2022an eta 2023an, eta % 3,4 2024ean eta 2025ean.

ELGAk ekainean egindako aurreikuspenen arabera, herrialde industrializatuen hazkundea % 2,7ra jaitsiko da 2022an eta % 1,6ra 2023an. Ekitaldi honetan inflazio-tasak ia % 7koak izango dira Estatu Batuetan eta Eurogunean, Ukrainaren inbasioak eragindako prezio energetikoen gorakadaren ondorioz.

Hortaz, ziurgabetasunez eta arriskuz betetako agertokia dugu aurrean. Izan ere, Errusiako gerra gehitu zaie oraindik ere konpontzeko zeuden arazoei, pandemiarekin, hornidura-kateko gorabeherekin eta estanflazioan sartzeko aukerarekin lotutakoei. Gainera, politika monetario eta zerga-politika moldakorrak kentzen joango dira agertoki honetan.

**16. koadroa Ekonomia-aurreikuspenak (industrializatutako herrialdeak)**

*(%)*

| Kontzeptua | 2022 | 2023 |
|---|---|---|
| – BPG erreala (% ∆) | | |
| • Estatu Batuak | 2,5 | 1,2 |
| • Japonia | 1,7 | 1,8 |
| • Eurogunea | 2,6 | 1,6 |
| • ELGA, guztira | 2,7 | 1,6 |
| – Inflazioa (kontsumoaren prezio-indizea) (%∆) | | |
| • Estatu Batuak | 7,0 | 3,5 |
| • Japonia | 1,9 | 1,9 |
| • Eurogunea | 7,0 | 4,6 |
| – Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren %) | | |
| • Estatu Batuak | 3,6 | 3,8 |
| • Japonia | 2,6 | 2,5 |
| • Eurogunea | 7,1 | 7,4 |
| • ELGA, guztira | 5,2 | 5,3 |
| – Defizit publikoa (BPGaren %) | | |
| • Estatu Batuak | -6,7 | -5,3 |
| • Japonia | -6,9 | -4,6 |
| • Eurogunea | -4,1 | -3,0 |
| • ELGA, guztira | -5,0 | -3,8 |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2022ko ekaina)*

## 2.2. ESPAINIAKO EKONOMIA

### Ezaugarri nagusiak

2020an, pandemiaren inpaktuaren ondorioz, aurrekaririk gabeko "shock"-a bizi izan genuen eta Estatuko BPGak jaitsiera historikoa izan zuen, -% 10,8koa. 2021ean, jarduera suspertzen hasi zen eta Espainiako ekonomia % 5,1 hazi zen. Dena den, kontuan izan behar dugu Estatuko Barne Produktu Gordina oraindik ere oso urrun dagoela pandemiaren aurreko mailatik.

Eskariaren ikuspegitik, 2021ean mundu mailako hazkundeari ekarpen positiboa egin zioten barne-eskariak zein kanpo-sektoreak. Barne-eskaria ehuneko 4,7 puntutan kokatu zen (2020an ehuneko -8,6 puntu negatibo), eta kanpo-sektorea ehuneko 4 hamarrenetan (aurreko ekitaldian ehuneko -2,2 puntu negatibo). Ondorioz, 2021ean nabarmen hazi zen Espainiako ekonomia.

Lan-merkatuari dagokionez, 2021ean % 3 hazi zen okupatutako biztanleen kopurua (aurreko ekitaldian -% 2,9 jaitsi zen). Izan ere, enplegua modu orokortuan hazi zen lau sektore handietan. Bestetik, biztanleria langabetua -% 2,9 murriztu zen (2020an % 8,7 areagotu zen). Hala, 2021ean 3.429.600 pertsonara jaitsi zen langabetu kopurua, eta langabezia-tasa % 14,8koa izan zen (% 15,5ekoa aurreko ekitaldian).

Prezioei dagokienez, 2021aren itxieran (abendutik abendura), KPIaren urte batetik besterako aldakuntza % 6,5era igo zen (2020aren itxieran, -% 0,5ekoa zen). Urteko batezbestekoa, berriz, % 3,1era igo zen (aurreko ekitaldiko batezbestekoa -% 0,3koa izan zen).

Azkenik, aurrekontuen gauzatzeari dagokionez, Administrazio Publikoek BPGaren -% 6,76ko defizita izan zuten 2021ean (finantza-erakundeei emandako laguntza kontuan hartu gabe). Hala, ehuneko hiru puntu baino gehiago hobetu zen aurreko ekitaldian eskuratutako datua (2020an -% 10,08ko defizita izan zen). Izan ere, pandemiak sortutako osasun-krisiari erantzuteko beharrak guztiz baldintzatu zuen 2020ko emaitza.

### Agregatu makroekonomiko nagusiak

Espainiako ekonomiak 2021eko ondoz ondoko hiruhilekoetan zehar erakutsitako profilak suspertze argia erakusten du. Honakoak izan ziren Estatuko BPGaren urteko arteko aldakuntzak: lehen hiruhilekoan -% 4,1; bigarrenean % 17,8; hirugarrenean % 3,5; eta laugarrenean % 5,5. Honekin lotuta, kontuan izan behar da 2021eko bigarren hiruhilekoari dagokion urte arteko datuak erreferentzia gisa hartzen duen aldia 2020ko itxialdi gogorreneko aldia dela.

Aurreko txostenetan egin bezala, jarraian ikuspegi hauen arabera aztertuko dugu jardueraren bilakaera: eskaria (norakoa), eskaintza (jarduera) eta errenta (banaketa).

- 2021ean, Estatuko guztizko BPGa 1.205.063 milioi eurokoa[1] izan zen. Azkeneko kontsumoari dagozkio 927.810 milioi (656.894 familiena, 12.840 familien zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeena eta 258.076 administrazio publikoena), inbertsioari 242.024 (119.029 eraikuntzan, 77.630 ekipo-ondasunetan, 3.835 landatutako baliabide biologikoetan eta 41.530 jabetza intelektualaren produktuetan) eta izakinen aldakuntzari 17.026. Hala, barne-eskaria 1.186.860 milioi eurokoa izan zen. Esportazioen (420.812 milioi euro) eta inportazioen (402.609 milioi euro) arteko aldea kanpo-eskaria da; eta horiek kontutan hartuta kalkulatzen da guztizko eskaria.
- Barne-eskariak mundu mailako hazkundeari egindako ehuneko 4,7 puntuko ekarpen positiboari, kanpo-eskariak egindako ehuneko 5 hamarreneko ekarpen positiboa gehitu behar zaio. Etxeko eskariari dagokionez, kontsumo pribatua nabarmen igo zen (% 4,7 2021ean, eta -% 12,2 aurreko ekitaldian). Kontsumo publikoaren hazkunde-erritmoa, berriz, apur bat moteldu zen (% 3,1, eta % 3,3 urtebete lehenago). Halaber, inbertsioa ere nabarmen igo zen (% 4,3, eta 2020an -% 9,5). Izan ere, eraikuntzarekin lotutako inbertsioaren beheranzko erritmoa apaldu egin zen (-% 2,8, eta aurreko ekitaldian -% 9,6) eta ekipo-ondasunekin lotutakoak gora egin zuen berriz ere (2021ean % 16, eta 2020an -% 12,9ko jaitsiera).
- Sektorearen araberako banaketari erreparatuta, 32.875 milioi euro dagozkio lehen sektoreari, 184.587 milioi euro industriari, 62.486 milioi euro eraikuntzari eta 809.203 milioi euro hirugarren sektoreari. Zenbateko horiek zerga garbiei (115.912 milioi euro) gehituta, guztizko ekoizpena kalkulatzen da.
- Lehen sektoreak -% 3,7ko jaitsiera izan zuen (2020an % 4,3) eta eraikuntzak aurreko urtean baino jaitsiera apalagoa izan zuen, -% 3,4koa (urtebete lehenago, -% 11,3koa). Gainerako sektore guztiek goranzko ibilbideari ekin zioten berriro: % 5,2 industria eta % 6 zerbitzuak (-% 10,1 eta -% 11,5eko jaitsierak 2020an, hurrenez hurren).

[1] Prezio korronteak.

### 17. koadroa Barne-produktu gordina eta haren osagaiak (Eskaria eta Eskaintza)

*(urte arteko tasaren %, bolumen kateatua)*

| | Eragiketak | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|
| ESKARIA | Azken kontsumoaren gastua | -8,2 | 4,2 |
| | – Etxebizitzena | -12,2 | 4,7 |
| | – EZIAGGE-ena | -1,5 | 1,3 |
| | – Administrazio publikoena | 3,3 | 3,1 |
| | Kapital finkoaren eraketa gordina | -9,5 | 4,3 |
| | – Eraikuntza | -9,6 | -2,8 |
| | – Ekipo-ondasunak eta armamentu-sistemak | -12,9 | 16,0 |
| | Izakinen aldakuntza* | -0,5 | 0,5 |
| | Barne-eskaria* | -8,6 | 4,7 |
| | Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa | -20,1 | 14,7 |
| | Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa | -15,2 | 13,9 |
| **Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan** | | **-10,8** | **5,1** |
| ESKAINTZA | Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza | 4,3 | -3,7 |
| | Industria | -10,1 | 5,2 |
| | Eraikuntza | -11,3 | -3,4 |
| | Zerbitzuak | -11,5 | 6,0 |
| | Produktuen gaineko zerga garbiak | -11,0 | 6,7 |

*(*): Merkatuko prezioen BPGaren hazkundeari egindako ekarpena.*
*Iturria: EIN.*

- Errentaren ikuspegitik, guztizko BPGaren % 47,5 hartu zuen soldatapekoen ordainketak, % 42,1 ustiapenaren soberakin gordinak eta, gainerako % 10,4a, ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiek.

### 18. koadroa Barne Produktu Gordinaren banaketa (Errenta)

*(% Δ nominala)*

| Eragiketak | 2019 | 2020 | 2021 | 2021 (M eurotan) |
|---|---|---|---|---|
| Soldatapekoen ordainketa (1) | 5,5 | -5,6 | 5,4 | 572.970 |
| Ustiapenaren soberakin gordina (2) | 1,8 | -11,9 | 6,5 | 507.304 |
| Ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiak (3) | 1,1 | -20,3 | 22,7 | 124.789 |
| Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan (4) | 3,4 | -9,8 | 7,4 | 1.205.063 |

*(4) = (4)+(1)+(3).*
*Iturria: EIN.*

## Kanpo-merkataritza

2021ean jarduera suspertu egin zen mundu mailan eta, hortaz, nazioarteko merkataritza ere bai. Testuinguru horretan, Estatuko esportazioek eta inportazioek gora egin zuten: % 14,7 eta % 13,9, hurrenez hurren. Aurreko ekitaldian, -% 20,1 eta -% 15,2 egin zuten behera, hurrenez hurren.

Hala, esportazioen joera inportazioena baino hobea izan zela kontuan izanda, kanpo-eskariak mundu mailako hazkundeari egindako ekarpena positiboa izatera pasatu zen: ehuneko 5 hamarren positibo 2021ean eta ehuneko -2,2 puntu negatibo 2020an. Hiruhilekoaren arabera, kanpo-eskariak mundu mailako hazkundeari egindako ekarpena negatiboa izan zen lehen hiruhilekoan, nulua bigarrenean eta positibo gorakorra azken bietan.

## Laneko prezioak eta kostuak

Pandemiaren inpaktuaren ondorioz aurreko ekitaldian erortze historikoa izan ondoren, 2021ean gora egin zuen jarduera ekonomikoak. Testuinguru horretan, 2021ean zehar Brent petrolio upelaren balioa % 71,2 hazi zen. Estatuko prezioek urte arteko hazkunde-tasa positiboak izan zituzten, urtarrilean hasi eta ekitaldi osoan zehar, goranzko joera argiarekin, bereziki, urtearen amaierako zatian. Estatuko KPIaren urte batetik besterako aldakuntza % 0,5ekoa izan zen urtarrilean, nulua otsailean, % 1,3koa martxoan, % 2,2koa apirilean, % 2,7koa maiatzean eta ekainean, % 2,9koa uztailean, % 3,3koa abuztuan, % 4koa irailean, % 5,4koa urrian, % 5,5ekoa azaroan eta % 6,5ekoa abenduan.

Gauzak hala, 2021aren amaieran (abendutik abendurako urte arteko tasa) % 6,5era igo zen inflazioa (2020aren amaieran, -% 0,5). Ondorioz, ekitaldi osoan zehar % 3,1 igo ziren prezioak (-% 0,3 jaitsi ziren aurreko ekitaldian). Dena den, azpiko inflazioak aurreko ekitaldiko hazkunde-erritmo bera mantendu zuen ia (2021ean % 0,8 eta 2020an % 0,7).

ELGAren arabera, 2021ean Eurogunearen inflazio-tasa (kontsumo-prezioen indizearen aldakuntzaren bidez neurtua) % 2,6koa izan zela kontuan izanda (2020an % 0,3koa), euroa duten herrialdeen blokea baino ehuneko bost hamarren positiboagoa izan zen Espainiako ekonomia (aurreko ekitaldian, ehuneko sei hamarren negatiboko aldea izan zen).

Ondasunen taldeei dagokienez, petrolioaren garestitzearen ildo beretik, etxebizitzen atzetik (% 11,1), garraioa izan zen prezioen bigarren hazkunde handiena jasan zuena (% 7,3); elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak izan ziren hurrengoak (% 1,8). Lehengai jakin batzuen eta erregaien garestitzeak eragin zituen gorakada horiek. Hauek izan ziren hurrengoak: jantziak eta oinetakoak, eta beste batzuk gisa izendatutako taldea (% 1 bi kasuetan); etxeko tresneria, eta hotelak, kafetegiak eta jatetxeak (% 0,9 bi kasuetan); osasungintza (% 0,7); alkoholik gabeko edariak eta tabakoa (% 0,3); eta aisialdia eta kultura, eta irakaskuntza (% 0,2 bi kasuetan). Aitzitik, komunikazioen kasuan jaitsi egin zen prezioen maila (-% 3).

**19. koadroa　　Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) eta Industriako Prezioen Indizea (IPRI)**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|
| KPI | | | |
| – Indize Orokorra[(1)] | 0,8 | -0,5 | 6,5 |
| – Indize Orokorra[(2)] | 0,7 | -0,3 | 3,1 |
| Elikagaiak | 1,0 | 2,1 | 1,7 |
| Elikagaiak ez direnak | 0,6 | -1,0 | 3,6 |
| • Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak | 1,0 | 2,4 | 1,8 |
| • Alkoholdun edariak, tabakoa | 0,7 | 0,5 | 0,3 |
| • Jantziak eta oinetakoak | 0,9 | 1,0 | 1,0 |
| • Etxebizitza | -1,5 | -3,5 | 11,1 |
| • Etxeko tresneria | 0,7 | 0,4 | 0,9 |
| • Osasuna | 0,8 | 0,4 | 0,7 |
| • Garraioak | 1,1 | -3,8 | 7,3 |
| • Komunikazioak | 0,8 | -1,2 | -3,0 |
| • Aisialdia eta Kultura | -0,5 | -0,6 | 0,2 |
| • Irakaskuntza | 1,0 | 0,6 | 0,2 |
| • Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak | 2,0 | 1,1 | 0,9 |
| • Beste batzuk | 1,4 | 1,4 | 1,0 |
| Azpikoa | 0,9 | 0,7 | 0,8 |
| IPRI | | | |
| – Indize orokorra | -0,4 | -4,3 | 17,3 |
| • Kontsumo-ondasunak | 0,2 | 1,1 | 3,3 |
| • Ekipo-ondasunak | 1,0 | 0,9 | 2,1 |
| • Bitarteko ondasunak | -0,3 | -1,7 | 13,2 |
| • Energia | -1,7 | -13,3 | 42,7 |

*(1): Abendutik abendura.*
*(2): Urteko batez besteko aldakuntza.*
*Iturria: EIN.*

Prezio industrialei dagokienez, 2021ean eten egin zen indize orokorraren beheranzko joera, eta nabarmen igo zen, % 17,3 (2019an -% 0,4 murriztu zen eta 2020an -% 4,3). Honako hauek eragin zuten indize orokorraren hazkundea: energiaren prezioen igoera izugarria (% 42,7ko hazkundea, eta aurreko ekitaldian -% 13,3ko jaitsiera); bitarteko ondasunen prezioen igoera (% 13,2ko hazkundea, eta aurreko ekitaldian -% 1,7ko jaitsiera); eta kontsumo-ondasunen eta ekipo-ondasunen prezioen igoeraren indartzea (2021ean % 3,3 eta % 2,1, eta 2020an % 1,1 eta % 0,9, hurrenez hurren).



LABORAL kutxa

Laneko kostuei dagokienez, produktibitateak -% 1,5eko jaitsiera izan zuen 2021ean (KPIaren % 5,1eko igoerak eta lanaldi osoko lanpostu kopuruaren % 6,6ko igoerak eraginda), eta soldatapeko bakoitzeko ordainketak -% 0,6ko jaitsiera. Ondorioz, lan-kostu unitarioak % 0,9ko hazkunde txikia izan zuen 2021ean (% 4,3ko hazkundea aurreko ekitaldian).

**20. koadroa Errenten eta soldata-kostuen adierazleak**

*(% Δ)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|
| BPG erreala | 2,1 | -10,8 | 5,1 |
| Enplegua guztira* | 2,6 | -7,6 | 6,6 |
| Produktibitatea | -0,5 | -3,2 | -1,5 |
| Soldatapekoen ordainketa | 5,5 | -5,6 | 5,4 |
| Soldatapeko enplegua* | 2,9 | -6,7 | 6,0 |
| Soldatapeko bakoitzeko ordainketa | 2,6 | 1,1 | -0,6 |
| Lan-kostu unitarioa | 3,1 | 4,3 | 0,9 |

*(*): Kontabilitate Nazionaleko enpleguaren datuak erabili dira: lanaldi osoko lanpostu baliokideak.*

*Iturria: Guk geuk eginiko balioespena, EINen datuetatik abiatuta.*

### Lan-merkatua

Estatuko BPGak nabarmen gora egin zuenez (% 5,1eko hazkundea, aurreko ekitaldian -% 10,8ko jaitsiera historikoa izan ondoren, pandemiaren inpaktuaren ondorioz), 2021ean berriro ere hazi zen okupazioa, eta langabeziak behera egin zuen. Hala, langabezia-tasa murriztu egin zen.

Zehazki, Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) Biztanleria Aktiboa Inkestaren (BAI) arabera, biztanleria okupatuak % 3 egin zuen gora 2021ean (2020an, -% 2,9). Biztanleria aktiboaren guztizkoak, berriz, % 2,1 egin zuen gora (aurreko ekitaldian -% 1,3).

Gauzak hala, 2020an % 57,4koa izatetik 2021ean % 58,5ekoa izatera pasatu zen jarduera
-tasa. Gizonezkoen zein emakumezkoen tasek egin zuten gora (% 62,9tik % 63,6ra eta % 52,2tik % 53,7ra, hurrenez hurren).

Aipatu bezala, enplegua % 3 hazi zen 2021ean, 19.773.600 pertsona okupatura iritsi arte. Igoera hori orokorra izan zen eta sektore guztiei eragin zien. Hala, % 4,9 hazi zen lehen sektoreari lotutako enplegua (-% 4 aurreko ekitaldian), % 3,8 eraikuntzari lotutakoa (-% 2,6 aurreko ekitaldian), % 3,3 zerbitzuei lotutakoa (-% 3 aurreko ekitaldian) eta % 0,1 baino ez industria-sektorekoa (2020an -% 2,3). Dena den, kontuan izan behar da, termino absolutuei dagokienez, zerbitzuek izan zutela sektoreko enpleguaren hazkunderik handiena, alde handiarekin (2020an baino 484.500 pertsona okupatu gehiago). Hala, 2021ean sortutako enpleguaren % 85 zerbitzuen sektoreari zegokion.

**21. koadroa Lan-magnitude nagusien bilakaera. Urteko batezbestekoak**

*(mila pertsona eta %)*

| Kontzeptua | 2021 | % Δ 2019 | % Δ 2020 | % Δ 2021 |
|---|---|---|---|---|
| Biztanleria aktiboa | 23.203,2 | 1,0 | -1,3 | 2,1 |
| Biztanleria okupatua | 19.773,6 | 2,3 | -2,9 | 3,0 |
| – Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza | 802,7 | -1,9 | -4,0 | 4,9 |
| – Industria | 2.700,1 | 2,0 | -2,3 | 0,1 |
| – Eraikuntza | 1.291,5 | 4,6 | -2,6 | 3,8 |
| – Zerbitzuak | 14.979,3 | 2,4 | -3,0 | 3,3 |
| Biztanleria langabetua | 3.429,6 | -6,6 | 8,7 | -2,9 |
| Langabezia-tasa* | 14,8 | -7,5 | 10,1 | -4,8 |

*(*): Biztanleria aktiboaren %.*
*Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2011. 2022ko martxoko datuak).*

Okupatutako biztanleriari dagokionez, soldatapeko langileak zein soldatapekoak ez zirenak areagotu egin ziren 2021ean, baina soldatapekoak neurri handiagoan (% 3,2 eta % 1,8, hurrenez hurren). Kontratu motari dagokionez, 2021ean areagotu egin ziren aldi baterako kontratua zein kontratu mugagabea zuten soldatapeko langileak (% 7,6 eta % 1,8, hurrenez hurren). Aldiz, lanaldi motaren arabera, enpleguaren hazkundea handiagoa izan zen lanaldi osoaren kasuan (% 3,2), lanaldi partzialaren kasuan baino (% 1,6).

Azterketa biztanleria langabetuan zentratuta, 2021ean -% 2,9 murriztu zen hura (aurreko ekitaldian % 8,7 hazi zen), 3.429.600 langabetura iritsi arte. Hala, 2014an hasitako beheranzko joerak jarraipena izan zuen, 2020an eten egin baitzen, pandemiaren inpaktuaren ondorioz. Hortaz, langabezia tasa % 14,8ra jaitsi zen 2021ean (2020an % 15,5), baina EBko altuenetakoa izaten jarraitu zuen.

**22. koadroa Enplegua, lan-egoeraren eta kontratu motaren arabera Urteko batezbestekoak**

*(mila pertsona eta %)*

| Kontzeptua | 2021 | % ∆ 2019 | % ∆ 2020 | % ∆ 2021 |
|---|---|---|---|---|
| Biztanleria okupatua | 19.773,6 | 2,3 | -2,9 | 3,0 |
| Soldatapekoak | 16.625,6 | 2,7 | -3,4 | 3,2 |
| – Sektore pribatua | 13.176,5 | 2,8 | -4,7 | 2,8 |
| – Sektore publikoa | 3.449,1 | 2,3 | 2,3 | 4,6 |
| Soldatapekoak ez direnak* | 3.148,0 | 0,5 | -0,5 | 1,8 |
| – Enplegu-emaileak | 944,2 | -0,6 | -7,0 | 6,4 |
| – Autonomoak | 2.082,1 | 0,9 | 2,9 | -1,1 |
| – Kooperatibistak | 26,4 | -1,5 | -12,5 | 18,4 |
| – Familia-laguntza | 80,2 | 3,4 | -6,8 | 14,2 |
| Soldatapekoak, kontratu mugagabea | 12.455,8 | 3,5 | -0,5 | 1,8 |
| Soldatapekoak, aldi baterako kontratua | 4.169,8 | 0,6 | -11,4 | 7,6 |
| Lanaldi osoko okupazioa | 17.031,9 | 2,3 | -2,2 | 3,2 |
| Lanaldi partzialeko okupazioa | 2.741,6 | 2,3 | -6,9 | 1,6 |

*(*): Batura ez dator bat guztizkoarekin, bertan sailkatu ezin direnak ere sartu baitira.*
*Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2011. 2022ko martxoko datuak).*

## Sektore publikoa eta interes-tasak

Ekitaldi honetako martxoaren amaieran Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak emandako informazioaren arabera, 2021ean BPGaren -% 6,76 adinako defizita erregistratu zuten Administrazio Publikoek (finantza-erakundeei emandako laguntzak kontuan hartu gabe). Hala, ehuneko hiru puntu baino gehiago hobetu zen aurreko ekitaldian erregistratutako saldo negatiboa: -% 10,08ko defizita 2020an, pandemiari aurre egiteko gastu publikoa areagotu izanak eta familiei, langileei eta enpresei laguntzeko neurri sozialek baldintzatuta. 2021ean ekonomia suspertu izanak eta enplegua sortu izanak bultzatu zuen defizitaren murrizketa; serie historikoko murrizketarik handiena izan zen, finantza-laguntzarik gabe.

Askotariko erakundeak aintzat hartuta, 2021ean Tokiko Udalbatzek bakarrik eskuratu zuten saldo positiboa haien kontuetan (% 0,27). Dena den, Autonomia Erkidegoek ere aurrekontuen oreka eskuratu zuten ia (-% 0,03). Aitzitik, Administrazio Zentralaren defizit handia nabarmentzen da (-% 5,99), baita Gizarte Segurantzarena ere, neurri txikiagoan (-% 1,02).

Hala ere, urte arteko bilakaerari dagokionez, nabarmentzekoa da eragile guztiek hobetu zutela haien aurrekontu-betearazpenen balantzea (defizita murriztuta edo superabita handituta), bereziki, Administrazio Zentralak eta Gizarte Segurantzak; bi kasu horietan, ehuneko puntu eta erdi baino gehiago murriztu zuten haien defizit negatiboa, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

**23. koadroa Defizit publikoa**

*(BPGaren %)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Administrazio zentrala | -7,51 | -5,99 |
| Autonomia-erkidegoak | -0,22 | -0,03 |
| Tokiko udalbatzak | 0,26 | 0,27 |
| Gizarte Segurantza | -2,62 | -1,02 |
| **Administrazio Publikoak guztira** | **-10,08** | **-6,76** |
| Finantza-erakundeei laguntzea | -0,19 | -0,11 |
| **Finantza-laguntza duten Administrazio Publikoak guztira** | **-10,27** | **-6,87** |

*Iturria: Ogasun Ministerioa (2022ko martxoak 31)*

Azkenik, gogoratu beharrekoa da 2021aren amaieran Erreserba Federalaren eta Europako Banku Zentralaren erreferentziazko tasak ekitaldiaren hasierako maila berean mantendu zirela (% 0,25 eta % 0, hurrenez hurren), eta ekitaldian zehar ez zela aldaketarik izan.

**8. grafikoa Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala**




*Iturria: EBZ, Erreserba Federala*

## Aurreikuspenak

Ukrainaren aurkako inbasioaren shock geopolitikoak inpaktua eragin badu ere, Ekonomia eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioak 2022ko apirilaren amaieran argitaratutako agertoki makroekonomikoaren arabera, Espainiako ekonomia indarrez haziko da 2022-2025 aldian zehar, enpleguaren, inbertsioaren eta turismoaren suspertzeak bultzatuta, baita Suspertze Planetik eratorritako inbertsioek eta eraberritzeek bultzatuta ere.

Gauzak hala, 2022an zehar BPGa % 4,3 haziko dela aurreikusten da. Dena den, Estatuko ekonomiaren hazkundea indarra galtzen joango da pixkanaka, eta % 1,8an kokatuko da 2025ean. Bestetik, lanaldi osoko enplegua % 3 haziko da 2022an, eta langabezia-tasa % 12tik gora mantenduko da ekitaldi honetan oraindik ere (% 12,8).

**24. koadroa Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2022)**

| Kontzeptua | Urte batetik besterako aldakuntza-tasa |
|---|---|
| **BPG eta ESKARI-AGREGATUAK** | |
| • Nazio mailako azken kontsumo pribatuaren gastua | 4,1 |
| • Administrazio publikoen azken kontsumoko gastua. | 2,0 |
| • Kapital finkoaren eraketa gordina | 9,3 |
| – Barne-eskaria (BPGaren hazkundeari egindako ekarpena) | 4,6 |
| – Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa | 7,8 |
| – Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa | 9,1 |
| – Kanpo-saldoa (BPGaren hazkundeari egindako ekarpena) | -0,3 |
| – BPG | 4,3 |
| **LAN MERKATUA** | |
| – Enpleguaren aldakuntza %-tan(*) | 3,0 |
| – Langabezia-tasa | 12,8 |

*(*): Lanaldi osoko enplegua edo baliokidea*

*Iturria: Ekonomia eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioa (2022ko apirilak 29)*

# 3. IKUSPEGI OROKORRA

2021ean, mundu mailan, berreskuratu egin zen jarduera. Testuinguru horretan, EAEko BPGa % 5,6 igo zen, aurreko ekitaldian pandemiaren inpaktuaren ondorioz -% 9,9ko atzerakada handia izan ondoren.

**25. koadroa  Bilakaera orokorra**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|---|---|
| **EAE** | | | | | |
| – BPG | 2,8 | 3,1 | 2,2 | -9,9 | 5,6 |
| – Enplegua | 0,3 | 2,1 | 1,4 | -2,0 | 1,1 |
| – Langabezia-tasa(1) | 11,3 | 10,0 | 9,2 | 9,5 | 9,8 |
| – KPI(2) | 1,1 | 1,0 | 1,2 | -0,3 | 6,4 |
| **NAFARROA** | | | | | |
| – BPG | 3,2 | 2,9 | 2,7 | -8,3 | 5,9 |
| – Enplegua | 4,2 | 1,2 | 2,4 | -3,6 | 1,9 |
| – Langabezia-tasa(1) | 10,2 | 10,0 | 8,2 | 10,1 | 10,6 |
| – KPI(2) | 0,6 | 1,3 | 1,3 | -0,6 | 6,6 |
| **ESPAINIA** | | | | | |
| – BPG | 3,0 | 2,3 | 2,1 | -10,8 | 5,1 |
| – Enplegua | 2,6 | 2,7 | 2,3 | -2,9 | 3,0 |
| – Langabezia-tasa(1) | 17,2 | 15,3 | 14,1 | 15,5 | 14,8 |
| – KPI(2) | 1,1 | 1,2 | 0,8 | -0,5 | 6,5 |

*(1): Biztanleria aktiboaren %.*
*(2): Aldakuntza abendutik abendura.*
*Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN (BAI, Biztanleria Oinarria, 2011).*

Hala, aintzat hartuta EAEko hazkundea apur bat handiagoa izan zela Eurogunekoa baino (% 5,3ko hazkundea, ELGAren arabera), 2021ean aurrerapauso txiki bat eman zen Europako ekonomia nagusiekin bat etortzeko prozesuari dagokionez.

Bestetik, FUNCAS Aurrezki Kutxen Fundazioak 2022ko maiatzean egindako aurreikuspenak aintzat hartuta, 2021ean Espainiako autonomia-erkidego guztiak hazi ziren, modu orokorrean. Hazkunderik handiena Balear eta Kanariar uharteek izan zuten (% 10,8 eta % 7, hurrenez hurren), hain zuzen ere, 2020an pandemiaren ondorioz beherakada handiena izan zutenek. Izan ere, bi erkidego horiek turismoaren mendekotasun handia dute, eta ekitaldi hartan jendeak ezin izan zuen mugitu. Jarraian, hazkunderik handiena izan zuten erkidegoak honakoak izan ziren, Estatuko batezbestekotik gora: Asturias, Madril eta Katalunia, % 5etik gertu (% 5,5, % 5,3 eta % 5,2, hurrenez hurren). Aitzitik, hazkunderik txikienak Extremadurak, Gaztela Mantxak (% 4,2 bi kasuetan), Murtziak (% 4) eta Aragoik (% 3,8) izan zituzten.

Lan-merkatuari dagokionez, EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, 2021ean % 1,3 igo zen okupazio-tasa Euskal Herrian (% 1,1 EAEn eta % 1,9 Nafarroan). Estatuan handiagoa izan zen hazkundea (% 3).

Hala, langabezia-tasa Estatuan baino ez zen jaitsi (2020an % 15,5ekoa izatetik 2021ean % 14,8koa izatera). EAEn apur bat igo zen (% 9,5etik % 9,8ra), baita Foru Erkidegoan ere (% 10,1etik % 10,6ra) eta, hortaz, Euskal Herrian ere pixka bat igo egin zen (2020an % 9,7koa izatetik 2021ean % 10koa izatera).

**9. grafikoa BPGaren bilakaera**




*Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN.*

Prezioei dagokienez, petrolio-upela garestitzen joan zen, pixkanaka. Agertoki horretan, 2021ean, ondoz ondoko hilabeteetan prezioen urte arteko tasak positiboak eta gorakorrak izan ziren EAEn, Nafarroan zein Estatuan. Zehazki, 2021ean, inflazio-tasa metatua (abendutik abendura) % 6,4ra igo zen EAEn, % 6,6ra Nafarroan eta % 6,5era Estatuan (2020aren itxieran -% 0,3, -% 0,6 eta -% 0,5, hurrenez hurren).

Azkenik, aipatzekoa da 2022ko lehen hiruhilekoan EAEko BPGak urte arteko % 5,7ko hazkundea izan zuela. Hala, jarraitu egin zuen 2021eko bigarren hiruhilekoan hasitako suspertze-ibilbideak. Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak ekitaldi honetako martxoan egindako aurreikuspenetan % 4,5keko hazkundea aurreikusi du 2022 osorako, eta hazkunde txikiagoa, % 4,1ekoa, 2023rako.

## 3.1. PRODUKZIOA

2020an, pandemiaren inpaktuaren ondorioz, BPGak jaitsiera historikoa izan zuen EAEn, -% 9,9koa. Horren ondoren, 2021ean, EAEko ekonomia % 5,6 hazi zen. Nafarroan eta Estatuan ere hazi egin zen ekonomia (2021ean % 5,9 eta % 5,1eko hazkundeak, hurrenez hurren; eta, aurreko ekitaldian, -% 8,3 eta -% 10,8ko jaitsierak).

**26. koadroa Barne produktu gordinaren (BPG) bilakaera**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa erreala)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|
| **EAE (*)** | | | |
| – Nekazaritza | 5,9 | -15,0 | 1,8 |
| – Industria | 1,4 | -11,2 | 8,5 |
| – Eraikuntza | 2,4 | -8,2 | 2,4 |
| – Zerbitzuak | 2,5 | -9,0 | 5,0 |
| – Guztira | 2,2 | -9,9 | 5,6 |
| **NAFARROA(*)** | | | |
| – Nekazaritza | 1,0 | -2,2 | 2,1 |
| – Industria | 2,2 | -9,5 | 6,5 |
| – Eraikuntza | 3,4 | -7,6 | 4,3 |
| – Zerbitzuak | 2,9 | -7,9 | 6,1 |
| – Guztira | 2,7 | -8,3 | 5,9 |
| **ESPAINIA(*)** | | | |
| – Nekazaritza | -2,5 | 4,3 | -3,7 |
| – Industria | 1,4 | -10,1 | 5,2 |
| – Eraikuntza | 5,3 | -11,3 | -3,4 |
| – Zerbitzuak | 2,3 | -11,5 | 6,0 |
| – Guztira | 2,1 | -10,8 | 5,1 |

*(*): Oinarrizko prezioetarako balio erantsi gordina sektoreen kasuan, merkatu-prezioetarako BPGa guztizkoaren kasuan.*

*Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.*

Azterketa hiruhilekoen arabera sakonduta, EAEk 2021ean zehar izandako urte arteko profilak suspertzea erakusten du, baina erritmo heterogeneoarekin: lehenengo hiruhilekoan jarduera -% 2,9 jatsi zen, bigarrenean % 18,6ko hazkunde nabarmena izan zuen (konfinamenduko aldirik gogorrenarekin alderatuta), hirugarrenean % 3,9ra jaitsi zen hazkunde-erritmoa eta laugarren hiruhilekoan berriz indartu zen hazkundea, % 4,7ra arte. Nafarroako ekonomiaren kasuan, urte arteko hazkundeen profila antzekoa izan zen hiruhilekoen arabera: -% 2,2 lehen hiruhilekoan, % 18,5 bigarrenean, % 4,1 hirugarrenean eta % 4,9 laugarrenean.

Eskaintza kontuan hartuta, Estatuko lehen sektoreak eta eraikuntzak izan ezik, oro har, lau sektore nagusiek gora egin zuten 2021ean EAEn, Nafarroan eta Estatuan.

EAEn, lau sektore handiak hazi egin ziren 2021ean: industria-sektorea % 8,5, zerbitzuak % 5, eraikuntza % 2,4 eta lehen sektorea % 1,8 (-% 11,2, -% 9, -% 8,2 eta -% 15eko jaitsierak 2020an, hurrenez hurren).



LABORAL kutxa

Halaber, Nafarroan ere 2021ean gora egin zuten industriak (% 6,5), zerbitzuek (% 6,1), eraikuntzak (% 4,3) eta lehen sektoreak (% 2,1) (-% 9,5, -% 7,9, -% 7,6 eta -% 2,2ko jaitsierak, hurrenez hurren, aurreko ekitaldian).

Industria-sektoreari dagokionez, Industria Produkzioaren Indizeak (IPI) goranzko ibilbidea berreskuratu zuen EAEn zein Nafarroan, hazkunde handiarekin (2021ean % 10,5 eta % 10,4, eta 2020an -% 13,4 eta -% 10,9, hurrenez hurren). Halaber, industria-sektoreko enplegua ere hazi egin zen bi eremu geografikoetan: % 7 EAEn (% 0,2 Eustaten BJAren arabera) eta % 4,1 Foru Erkidegoan. Gainera, azken eremu geografiko horretan, klima industriala zifra positiboetara itzuli zen (2021ean 1 eta aurreko ekitaldian -10). Aldi berean, aurreikusitako eskarien bilakaera positiboa indartu egin zen (10, eta urtebete lehenago 4), baina uneko eskariek balantze negatiboarekin jarraitu zuten, aurreko ekitaldian baino apalagoa izan arren (-4, eta 2020an -22).

**27. koadroa Industria Sektoreko Adierazleak**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|
| **EAE** | | | |
| – Industria Produkzioaren Indizea (IPI) (1) | 1,6 | -13,4 | 10,5 |
| – Industria-enplegua(2) | -5,0 | -0,4 | 7,0 |
| – Industria-enplegua(3) | -1,5 | -1,4 | 0,2 |
| **NAFARROA** | | | |
| – Industria Produkzioaren Indizea (IPI) (1) | 9,8 | -10,9 | 10,4 |
| – Industria-giroa(4) | 3 | -10 | 1 |
| – Egungo eskaerak(4) | 10 | -22 | -4 |
| – Aurreikusitako eskaerak(4) | 7 | 4 | 10 |
| – Industria-enplegua(2) | -0,4 | 1,1 | 4,1 |

*(1): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.*
*(2): EIN.*
*(3): BJA (Eustat)*
*(4): Erantzunen saldoak.*
*Iturria: Eustat, EIN eta Nafarroako Estatistika Institutua.*

Eraikuntzaren kasuan, EAEko guztizko ekoizpen-indizea % 7,2 igo zen 2021ean (aurreko ekitaldian -% 8,1 jaitsi zen), gora egin baitzuten eraikuntzak (% 7,8) eta obra zibilak (% 3,6). Halaber, lizitazio ofizialak ere gora egin zuen, % 63,1eko hazkunde nabarmenarekin (2020an -% 21eko jaitsiera). Hasitako eta amaitutako etxebizitzek tasa negatiboetan jarraitu zuten, baina aurreko ekitaldian baino askoz ere neurri txikiagoan (2021ean -% 8,1 eta -% 1,8, eta 2020an -% 31,3 eta -% 16,9, hurrenez hurren). Dena den, sektoreko enpleguaren jaitsiera-erritmoa -% 12,1eraino areagotu zen (% 5,4ko igoera, Eustaten BJAren arabera).

Nafarroan ere gora egin zuen lizitazio ofizialak, % 69,1eko hazkunde nabarmenarekin (urtebete lehenago, -% 44,7ko murrizketa). Halaber, areagotu egin ziren hasitako etxebizitzak (% 12,6, eta 2020an -% 11,8) eta indartu egin zen amaitutako etxebizitzen hazkunde-erritmoa (% 22,6, eta aurreko ekitaldian % 14,7). Gauzak hala, Nafarroako sektoreko enplegua % 17,9 hazi zen 2021ean, 2020an -% 3,7ko jaitsiera izan ondoren.

**28. koadroa Eraikuntza Sektoreko Adierazleak**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|
| **EAE** | | | |
| – Ekoizpen-indizea (1) | 8,7 | -8,1 | 7,2 |
| – Etxegintza | 9,2 | -8,4 | 7,8 |
| – Obra zibila | 5,7 | -6,1 | 3,6 |
| – Zementuaren itxurazko kontsumoa* | 9,8 | -13,4 | 9,6 |
| – Lizitazio ofiziala(2) | 8,2 | -21,0 | 63,1 |
| – Hasitako etxebizitzak(3) | 1,8 | -31,3 | -8,1 |
| – Amaitutako etxebizitzak(3) | 7,5 | -16,9 | -1,8 |
| – Enplegua(4) | 5,2 | -3,2 | -12,1 |
| – Enplegua(5) | 2,6 | -2,9 | 5,4 |
| **NAFARROA** | | | |
| – Zementuaren itxurazko kontsumoa* | 9,8 | -13,4 | 9,6 |
| – Lizitazio ofiziala(2) | -3,2 | -44,7 | 69,1 |
| – Hasitako etxebizitzak(3) | 14,4 | -11,8 | 12,6 |
| – Amaitutako etxebizitzak(3) | 20,8 | 14,7 | 22,6 |
| – Enplegua(4) | -9,0 | -3,7 | 17,9 |

*(*): Oficemen-eko bazkideen (Ipar Eremua: Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) zementuaren itxurazko kontsumoari egiten dio erreferentzia.*

*(1): Eraikuntzaren koiunturazko indizea (EUSTAT). Oinarria 2010=100*

*(2): SEOPAN.*

*(3): Eustat eta Etxebizitza Ministerioa.*

*(4): EIN.*

*(5): BJA (Eustat)*

*Iturria: Eustat, EIN, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila eta Nafarroako Gobernua.*

Zerbitzuei dagokienez, sektorea heterogeneoa denez, aldeak daude aztertutako azpisektoreetako adierazleen artean. Dena den, 2021ean goranzko bilakaera gailendu zen.

Horretan, EAEn, aztertutako azpisektoreen adierazle guztiek goranzko bidea hartu zuten 2021ean: hoteletako gaualdiak % 73,4 hazi ziren, aire-trafikoko bidaiariak % 57,6, xehekako merkataritzaren salmentak % 3,6 eta portuetako salgaiak % 6,6 (-% 61,5, -% 71,6, -% 4,9 eta -% 15,8ko jaitsiera orokortuak 2020an, hurrenez hurren). Testuinguru horretan, sektoreko enplegua % 0,5 hazi zen 2021ean (% 1,2ko igoera Eustaten BJAren arabera).

Era berean, Nafarroan, aztertutako azpisektoreko adierazle guztiak tasa positiboetara itzuli ziren 2021ean: hoteletako gaualdiak % 78,6 areagotu ziren, aire-trafikoko bidaiariak % 33,9, autobideetako ibilgailu arinen trafikoa % 26,2 eta ibilgailu astunena % 8,2 (-% 63,1, -% 65,5, -% 26,3 eta -% 9,4ko jaitsierak aurreko ekitaldian, hurrenez hurren). Hala, Nafarroako sektoreko enpleguak % 0,1eko igoera apala izan zuen 2021ean (-% 5,2ko jaitsiera 2020an).

**29. koadroa Zerbitzuen Sektoreko Adierazleak**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|
| **EAE** | | | |
| – Hoteletako gaualdiak | 3,7 | -61,5 | 73,4 |
| – Aire-trafikoko bidaiariak | 8,5 | -71,6 | 57,6 |
| – Txikizkako merkataritzaren salmenten indizea | 0,9 | -4,9 | 3,6 |
| – Portuetako salgaiak | -0,1 | -15,8 | 6,6 |
| – Enplegua(1) | 2,9 | -2,1 | 0,5 |
| – Enplegua(2) | 2,8 | -2,3 | 1,2 |
| **NAFARROA** | | | |
| – Hoteletako gaualdiak | 3,0 | -63,1 | 78,6 |
| – Aire-trafikoko bidaiariak | 18,5 | -65,5 | 33,9 |
| – Ibilgailu arinen trafikoa autobideetatik | 4,7 | -26,3 | 26,2 |
| – Ibilgailu astunen trafikoa autobideetatik | 1,6 | -9,4 | 8,2 |
| – Enplegua(1) | 5,7 | -5,2 | 0,1 |

*(1): EIN.*

*(2): BJA (Eustat)*

*Iturria: AENA, EUSTAT, EIN, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Estatistika Institutua.*

## 3.2. ESKARIA

### Barne-eskaria

Suspertze ekonomikoak markatutako agertoki horretan (2021ean EAEn BPGa % 5,6 hazi zen, aurreko ekitaldian -% 9,9ko jaitsiera historikoa erregistratu ondoren), barne-eskaria % 5,1 hazi zen (-% 9,6ko jaitsiera 2020an).

Barne-eskariaren osagaiak kontuan hartuta, kontsumo pribatua zein inbertsioa hazi egin ziren 2021ean, % 5,3 eta % 6,3ko igoerekin, hurrenez hurren; aurreko ekitaldian -% 12,4 eta -% 11,7 murriztu ziren horiek. Kontsumo publikoaren hazkundea, berriz, apaldu egin zen 2021ean (% 3ko hazkundea, eta % 3,8koa 2020an).

**30. koadroa Barne-eskariaren adierazleak**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|
| **EAE** | | | |
| – Kontsumo pribatua | 1,7 | -12,4 | 5,3 |
| – Kontsumo publikoa | 3,1 | 3,8 | 3,0 |
| – Kapital Eraketa Gordina | 3,3 | -11,7 | 6,3 |
| – Barne-eskaria | 2,3 | -9,6 | 5,1 |

*Iturria: Eustat.*

Era berean, Nafarroako ekonomiak ere gora egin zuen 2021ean (% 5,9; aurreko ekitaldian, -% 8,3ko jaitsiera). Hala, barne-eskariak ehuneko 4,9 puntu positiboko ekarpena egin zion hazkunde globalari (ehuneko -7,5 puntu negatibo 2020an). Osagaiei dagokienez, kontsumo pribatua eta, bereziki, inbertsioa hazi egin ziren (% 4,9 eta % 8 2021ean, eta -% 8,9 eta -% 13,2 aurreko ekitaldian, hurrenez hurren). Kontsumo publikoaren hazkunde-erritmoak, berriz, behera egin zuen (% 2,9 2021ean, eta % 5,1 aurreko ekitaldian).

**31. koadroa Kontsumo- eta inbertsio-adierazleak**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|
| **EAE** | | | |
| – Kontsumo-ondasunen IPIa[1] | 2,8 | -6,6 | 11,9 |
| – Turismoen matrikulazioa | -2,4 | -22,0 | -19,8 |
| – Ibilgailu industrialen matrikulazioa | -16,6 | -22,3 | 7,1 |
| – KPI[2] | 1,2 | -0,3 | 6,4 |
| – Soldata-igoera[3] | 1,92 | 1,53 | 0,94 |
| – Ekipo-ondasunen IPIa[1] | 2,0 | -12,5 | 13,3 |
| **NAFARROA** | | | |
| – Turismoen matrikulazioa | -5,2 | -28,5 | -18,7 |
| – KPI[2] | 1,3 | -0,6 | 6,6 |
| – Soldata-igoera[3] | 2,18 | 1,76 | 1,54 |
| – Ibilgailu industrialen matrikulazioa | -8,2 | -32,1 | 9,1 |

*(1): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.*

*(2): Aldakuntza-tasa abendutik abendura.*

*(3): Hitzarmenetan itundua.*

*Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN eta Enplegu eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa.*

## Kanpo-merkataritza

2021ean nabarmen suspertu zen jarduera eta, testuinguru horretan, EAEko kanpo-merkataritzak igoera handia izan zuen: % 21,5 hazi ziren esportazioak eta % 32,7 inportazioak (-% 17,1 eta -% 21,3ko jaitsierak, hurrenez hurren, aurreko ekitaldian). Osagaien arabera, eragiketa energetikoak eta ez-energetikoak suspertu ziren, baina lehenengoak indar handiagoz (% 40,9 kanpora egindako salmenta energetikoak, eta % 20,6 ez-energetikoak; % 62,1 kanpotik egindako erosketa energetikoak, eta % 26,4 ez-energetikoak).

Zehazki, guztizko esportazioak 25.665,4 milioi eurora iritsi ziren (1.365,1 milioi euro energia-esportazioei dagozkie), hau da, urte arteko % 21,5eko igoera izan zuten. Guztizko inportazioak, berriz, 21.059,9 milioi eurora igo ziren (horietatik 4.567,8 milioi euro energia-inportazioei dagozkie), hau da, urte arteko % 32,7eko hazkundea izan zuten. Hala, 2021ean, esportazioek eta inportazioek pandemiaren aurreko maila, 2019an erregistratutakoa, gainditu zuten.

Dinamika horrekin bat, merkataritza-balantzaren saldo positiboa 4.605,5 milioi eurora murriztu zen 2021ean (2020an 5.255,8 milioi eurokoa zen). Inportazioen gaineko esportazioen estaldura-tasa, berriz, nabarmen murriztu zen (% 121,9, eta aurreko ekitaldian % 133,1).

**32. koadroa Kanpo-merkataritzaren bilakaera Euskal Herrian**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021* | % Δ 21/20 |
|---|---|---|---|---|
| **EAE** | | | | |
| – ESPORTAZIOAK, guztira | 25.485,8 | 21.124,2 | 25.665,4 | 21,5 |
| – Energia-esportazioak, guztira | 2.014,4 | 968,8 | 1.365,1 | 40,9 |
| – Esportazio ez-energetikoak, guztira | 23.471,4 | 20.155,4 | 24.300,3 | 20,6 |
| – INPORTAZIOAK, guztira | 20.158,7 | 15.868,4 | 21.059,9 | 32,7 |
| – Energia-inportazioak, guztira | 5.383,9 | 2.817,1 | 4.567,8 | 62,1 |
| – Inportazio ez-energetikoak, guztira | 14.774,8 | 13.051,3 | 16.492,1 | 26,4 |
| – SALDOA, GUZTIRA | 5.327,2 | 5.255,8 | 4.605,5 | -12,4 |
| **NAFARROA** | | | | |
| – ESPORTAZIOAK, guztira | 10.205,4 | 8.917,7 | 9.497,2 | 6,5 |
| – INPORTAZIOAK, guztira | 5.465,0 | 4.646,4 | 5.672,5 | 22,1 |
| – SALDOA, GUZTIRA | 4.740,4 | 4.271,3 | 3.824,7 | -10,5 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: Eustat (Aduana eta Zerga Berezien Sailaren datuen arabera), eta Nafarroako Estatistika Institutua.*

Merkataritza-bloke handiei dagokienez, Eurogunea jarraitu zuen EAEko kanpo-sektorearen merkataritza-bazkide nagusia izaten. Eurogunera egin ziren esportazioen % 56,1, eta handik egin ziren inportazioen % 45,7. Kontuan izan beharrekoa da Alemaniara eta Frantziara saltzen dela guztizkoaren % 32, eta handik erosten dela guztizkoaren % 24,3.

2021ean trukatutako produktuei dagokienez, esportazioen % 45,2 makineria eta garraio-ekipamendua izan zen, eta % 33, berriz, manufaktura-artikuluak. Inportazioen kasuan ere makineria eta garraio-ekipamendua gailendu zen, baina kasu honetan hurrengoak manufaktura-artikuluak, erregaiak eta lubrikatzaile mineralak izan ziren, % 24,5, % 23,9 eta % 21,7ko kuotekin, hurrenez hurren.

**33. koadroa EAEko esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sekzioen arabera**

*(M euro)*

| Kontzeptua | ESPORTAZIOAK | | | | | INPORTAZIOAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2019 | 2020 | 2021* | % | % Δ 21/20 | 2019 | 2020 | 2021* | % | % Δ 21/20 |
| **GUZTIRA (guztizkoak)** | **25.485,8** | **21.124,2** | **25.665,4** | **100,0** | **21,5** | **20.158,7** | **15.868,4** | **21.059,9** | **100,0** | **32,7** |
| HERRIALDEEN ARABERA (guztizkoak) | | | | | | | | | | |
| – Frantzia | 3.961,1 | 3.362,4 | 4.120,2 | 16,1 | 22,5 | 1.779,8 | 1.602,0 | 2.025,1 | 9,6 | 26,4 |
| – Alemania | 3.873,1 | 3.660,7 | 4.092,3 | 15,9 | 11,8 | 3.039,4 | 2.669,2 | 3.101,9 | 14,7 | 16,2 |
| – Italia | 1.182,0 | 1.104,0 | 1.350,7 | 5,3 | 22,3 | 970,6 | 858,9 | 1.145,4 | 5,4 | 33,4 |
| – Erresuma Batua | 2.363,3 | 1.355,8 | 1.694,8 | 6,6 | 25,0 | 631,6 | 513,8 | 677,6 | 3,2 | 31,9 |
| – Eurogunea | 13.171,0 | 11.627,1 | 14.394,8 | 56,1 | 23,8 | 8.793,4 | 7.698,7 | 9.628,7 | 45,7 | 25,1 |
| – ELGA | 21.047,7 | 17.832,8 | 21.659,1 | 84,4 | 21,5 | 13.753,8 | 11.343,5 | 14.211,4 | 67,5 | 25,3 |
| – Beste helmuga batzuk | 4.438,1 | 3.291,4 | 4.006,3 | 15,6 | 21,7 | 6.404,9 | 4.524,9 | 6.848,5 | 32,5 | 51,4 |
| SEKZIOEN ARABERA (guztizkoak) | | | | | | | | | | |
| – Elikagaiak eta animalia biziak | 752,1 | 724,7 | 951,7 | 3,7 | 31,3 | 874,9 | 834,1 | 1.003,3 | 4,8 | 20,3 |
| – Edariak eta tabakoak | 227,6 | 249,3 | 268,7 | 1,0 | 7,8 | 14,5 | 23,4 | 49,1 | 0,2 | 109,8 |
| – Jateko ez diren erregai gordinak, erregaiak salbu | 292,8 | 276,4 | 384,0 | 1,5 | 38,9 | 1.425,7 | 1.248,7 | 1.987,4 | 9,4 | 59,2 |
| – Erregaiak eta lubrifikatzaile mineralak eta horiei lotutako produktuak | 2.014,4 | 968,8 | 1.365,1 | 5,3 | 40,9 | 5.383,9 | 2.817,1 | 4.567,8 | 21,7 | 62,1 |
| – Olioak, koipeak eta argizariak (animalienak eta landareenak) | 141,1 | 158,7 | 258,0 | 1,0 | 62,6 | 144,8 | 185,0 | 270,9 | 1,3 | 46,4 |
| – Produktu kimikoak eta haiei lotutako produktuak, beste inon zehaztu gabeak | 919,4 | 815,4 | 1.141,4 | 4,4 | 40,0 | 1.585,3 | 1.404,2 | 1.731,1 | 8,2 | 23,3 |
| – Artikulu manufakturatuak, batez ere materialaren arabera sailkatuak | 7.639,8 | 6.558,1 | 8.481,5 | 33,0 | 29,3 | 4.500,8 | 3.817,2 | 5.043,0 | 23,9 | 32,1 |
| – Makineria eta garraio-ekipamendua | 12.571,6 | 10.435,7 | 11.606,0 | 45,2 | 11,2 | 5.153,0 | 4.471,7 | 5.160,5 | 24,5 | 15,4 |
| – Hainbat artikulu manufakturatu | 806,1 | 742,6 | 934,8 | 3,6 | 25,9 | 1.061,3 | 1.026,2 | 1.225,7 | 5,8 | 19,4 |
| – NMSUren beste kontzeptu batean sailkatu gabeko salgaiak eta elikagaiak | 121,0 | 194,6 | 274,3 | 1,1 | 41,0 | 14,6 | 40,8 | 21,2 | 0,1 | -48,0 |

*(*): Behin-behineko datuak.*

*Iturria: Eustat (Aduana eta Zerga Berezien Sailaren datuen arabera).*

Nafarroako kanpo-merkataritzaren kasuan ere, 2021eko joera nagusia hazkundearen suspertzea izan zen. Hala, nabarmen hazi ziren kanpora egindako salmentak eta kanpotik egindako erosketak (% 6,5 eta % 22,1, hurrenez hurren). Zehazki, 2021ean Nafarroako esportazioak 9.497,2 milioi eurora iritsi ziren, hau da, % 6,5 hazi ziren aurreko ekitalditik. Nafarroako inportazioak, berriz, 5.672,5 milioi eurora igo ziren, hau da, urte arteko % 22,1eko igoera izan zuten. Hala, kanpotik egindako erosketek pandemiaren aurreko bolumena (2019koa) gainditu zuten, eta kanpora egindako salmentek baxuagoak izaten jarraitu zuten.

Bilakaera horrekin bat, Nafarroako merkataritza-balantzaren saldo positiboa 3.824,7 milioi eurora murriztu zen 2021ean (2020an 4.271,3 milioi eurokoa zen). Inportazioen gaineko esportazioen estaldura-tasa, berriz, % 167,4ra jaitsi zen (% 191,9 aurreko ekitaldian).

EAEren kasuan bezala, Nafarroarentzat ere Europa (EB-27) izan zen kanpo-merkataritzaren jatorri eta helmuga nagusia. 2021ean, Europara egin zituzten esportazioen % 62,6, eta handik inportatu zuten guztizkoaren % 74,6. Zentzu horretan, Frantziara eta Alemaniara egin ziren kanpo-salmenten % 18,2 eta % 14,1, eta haietatik egin ziren kanpoko erosketen % 11,3 eta % 26,1, hurrenez hurren.

Muga-zergen partidei dagokienez, 2021ean garraiorako materiala izan zen esanguratsuena, esportazioen % 39,1 eta inportazioen % 17,5 hartu baitzuen. Horrek neurri handian baldintzatu zuen Nafarroako kanpo-merkataritzaren etorkizuna.

**34. koadroa** **Nafarroako esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sektoreen arabera**

*(M euro)*

| Kontzeptua | ESPORTAZIOAK | | | | | INPORTAZIOAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2019 | 2020 | 2021* | % | % Δ 21/20 | 2019 | 2020 | 2021* | % | % Δ 21/20 |
| **GUZTIRA (guztizkoak)** | **10.205,4** | **8.917,7** | **9.497,2** | **100,0** | **6,5** | **5.465,0** | **4.646,4** | **5.672,5** | **100,0** | **22,1** |
| HERRIALDEEN ARABERA (guztizkoak) | | | | | | | | | | |
| – Frantzia | 1.779,5 | 1.554,8 | 1.729,6 | 18,2 | 11,2 | 574,7 | 536,3 | 639,8 | 11,3 | 19,3 |
| – Alemania | 1.688,3 | 1.451,7 | 1.340,1 | 14,1 | -7,7 | 1.423,2 | 1.138,6 | 1.482,6 | 26,1 | 30,2 |
| – Italia | 999,8 | 790,2 | 743,0 | 7,8 | -6,0 | 326,4 | 283,4 | 357,9 | 6,3 | 26,3 |
| – Erresuma Batua | 580,5 | 539,5 | 582,0 | 6,1 | 7,9 | 114,2 | 112,0 | 72,9 | 1,3 | -34,9 |
| – Portugal | 430,3 | 396,7 | 464,2 | 4,9 | 17,0 | 235,2 | 191,6 | 246,9 | 4,4 | 28,9 |
| – EB-27 guztira | 6.612,9 | 5.578,4 | 5.945,9 | 62,6 | 6,6 | 4.016,0 | 3.505,2 | 4.233,4 | 74,6 | 20,8 |
| – Europako gainerakoak | 981,4 | 971,3 | 1.095,6 | 11,5 | 12,8 | 306,2 | 240,7 | 230,0 | 4,1 | -4,4 |
| – Estatu Batuak | 496,2 | 534,0 | 735,4 | 7,7 | 37,7 | 172,2 | 127,0 | 134,9 | 2,4 | 6,2 |
| – Beste helmuga batzuk | 2.114,9 | 1.834,0 | 1.720,3 | 18,1 | -6,2 | 970,6 | 773,6 | 1.074,2 | 18,9 | 38,9 |
| SEKTOREEN ARABERA (guztizkoak) | | | | | | | | | | |
| – Lehen sektorea | 718,7 | 737,1 | 853,0 | 9,0 | 15,7 | 443,3 | 411,4 | 404,8 | 7,1 | -1,6 |
| – Nekazaritzako elikagaien industria | 629,2 | 641,5 | 583,6 | 6,1 | -9,0 | 229,9 | 227,6 | 221,4 | 3,9 | -2,7 |
| – Industria kimikoa | 259,3 | 209,9 | 177,0 | 1,9 | -15,7 | 377,5 | 387,9 | 634,8 | 11,2 | 63,7 |
| – Material plastikoak, kautxua | 341,0 | 356,0 | 390,3 | 4,1 | 9,6 | 299,4 | 256,3 | 320,3 | 5,6 | 25,0 |
| – Metal komunen manufaktura | 745,7 | 687,9 | 895,8 | 9,4 | 30,2 | 539,1 | 484,0 | 751,1 | 13,2 | 55,2 |
| – Makinak, material elektrikoa | 2.167,3 | 2.040,5 | 2.151,8 | 22,7 | 5,5 | 1.737,0 | 1.402,0 | 1.719,2 | 30,3 | 22,6 |
| – Garraiorako materiala | 4.665,2 | 3.615,7 | 3.713,0 | 39,1 | 2,7 | 1.156,8 | 944,6 | 995,5 | 17,5 | 5,4 |
| – Gainerakoak | 679,0 | 629,0 | 732,6 | 7,7 | 16,5 | 681,9 | 532,5 | 625,2 | 11,0 | 17,4 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.*



LABORAL kutxa

## 3.3. PREZIOAK ETA SOLDATAK

Pandemiaren inpaktuaren ondorioz aurreko ekitaldian erortze historikoa izan ondoren, 2021ean nabarmen egin zuen gora jarduerak. Testuinguru horretan, 2021ean zehar Brent petrolio upelaren balioa % 71,2 hazi zen eta prezioek urte arteko aldakuntza-tasa positiboak izan zituzten EAEn eta Nafarroako Foru Erkidegoan, 2021eko urtarrilean hasi eta ekitaldi osoan zehar, goranzko joera argiarekin. Hala, KPIaren urte arteko hazkunde -erritmoa hiletik hilera azkartzen joan zen bi eremu geografikoetan, otsailean eta uztailean izan ezik EAEren kasuan, eta otsailean eta ekainean izan ezik Nafarroaren kasuan. Ekitaldiko azken hiru hilabeteetan aldiz, % 5eko tasak edo handiagoak eskuratu ziren bi kasuetan.

Hala, 2021ean metatutako inflazio-tasa (abendutik abendura) % 6,4ra igo zen EAEn eta % 6,6ra Nafarroan (-% 0,3 eta -% 0,6 izan zen aurreko ekitaldiaren amaieran, hurrenez hurren). Ekitaldi osoko urteko batez besteko tasa % 3,1ekoa izan zen EAEn (-% 0,1 izan zen 2020an) eta % 3,4koa Nafarroan (-% 0,6 izan zen aurreko ekitaldian).

**35. koadroa Prezioen bilakaera EAEn eta Nafarroan**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| EAE | 2019 | 2020 | 2021 | NAFARROA | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **KPI** | | | | **KPI** | | | |
| Orokorra(1) | 1,0 | -0,1 | 3,1 | Orokorra(1) | 1,2 | -0,6 | 3,4 |
| Orokorra(2) | 1,2 | -0,3 | 6,4 | Orokorra(2) | 1,3 | -0,6 | 6,6 |
| Elik. eta alkoh. gabeko edariak | 2,1 | 1,8 | 4,7 | Elik. eta alkoh. gabeko edariak | 3,2 | 1,5 | 5,1 |
| Alkoholdun edariak, tabakoa | -0,2 | -0,1 | 1,7 | Alkoholdun edariak, tabakoa | 0,7 | 0,2 | 0,7 |
| Jantziak eta oinetakoak | 0,9 | 0,7 | 1,1 | Jantziak eta oinetakoak | 0,8 | 0,7 | 1,1 |
| Etxebizitza | -5,2 | 0,2 | 24,1 | Etxebizitza | -4,0 | -1,7 | 24,6 |
| Etxeko tresneria | 1,1 | 0,5 | 3,2 | Etxeko tresneria | 0,4 | 0,8 | 3,0 |
| Osasuna | 1,3 | 0,1 | 1,3 | Osasuna | 1,5 | 0,9 | 1,9 |
| Garraioak | 5,7 | -4,1 | 10,2 | Garraioak | 5,8 | -5,0 | 10,2 |
| Komunikazioak | 0,7 | -4,0 | -0,3 | Komunikazioak | 0,2 | -4,2 | -0,4 |
| Aisialdia eta Kultura | 0,6 | -2,2 | 1,5 | Aisialdia eta Kultura | 0,7 | -2,1 | 4,0 |
| Irakaskuntza | 1,4 | 0,4 | 1,6 | Irakaskuntza | 0,2 | 1,7 | -5,5 |
| Hotelak eta jatetxeak | 1,8 | 1,0 | 3,0 | Hotelak eta jatetxeak | 0,5 | 0,9 | 3,1 |
| Beste batzuk | 1,5 | 0,8 | 2,3 | Beste batzuk | 1,0 | 2,0 | 2,0 |
| **Industria Prezioen Indizea (IPRI)** | | | | **Nekazariek Jasotako Prezioen Indizea** | | | |
| Orokorra | 1,4 | -3,1 | 7,3 | Orokorra | -1,0 | 2,0 | 1,5 |
| Kontsumoa | -0,3 | 1,9 | 2,9 | Nekazaritza-produktuak | -0,6 | 0,0 | 5,2 |
| Ekipamendua | 1,6 | 0,8 | 0,1 | Baso-produktuak | 6,7 | 7,3 | 5,8 |
| Bitartekoak | 0,0 | -0,5 | 7,1 | Animalia-produktuak | -1,8 | 4,2 | -4,3 |
| Energia | 5,0 | -15,1 | 20,6 | | | | |

*(1): Urteko batez besteko aldakuntza.*
*(2): Abendutik abendura.*
*Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.*

Arreta 2021eko abenduko urte arteko aldakuntzan jarrita, eta ondasunen taldeak aintzat hartuta, petrolioaren garestitze nabarmenaren harira, garraioak nabaritu zuen prezioen bigarren hazkunderik handiena EAEn zein Nafarroan (% 10,2 bi eremu geografikoetan). Bi kasuetan, etxebizitzak izan ziren lehenengoak (% 24,1 EAEn eta % 24,6 Foru Erkidegoan). Garraioaren atzetik, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak (% 4,7 EAEn eta % 5,1 Nafarroan) kokatu ziren, lehengai jakin batzuen eta erregaien garestitzearen ondorioz. Aitzitik, ekitaldiaren itxieran, EAEn behera egin zuen komunikazioen prezioak (-% 0,3), eta Nafarroan komunikazioen zein irakaskuntzaren prezioak (-% 0,4 eta -% 5,5, hurrenez hurren).

EAEko industriako prezioak aztertuta, indize orokorra % 7,3 hazi zen 2021ean (2020an -% 3,1 murriztu zen). Izan ere, energiaren prezioak nabarmen egin zuen gora (% 20,6ko igoera, eta aurreko ekitaldian -% 15,1eko jaitsiera), eta apur bat gutxiago bitarteko ondasunen (% 7,1; aurreko ekitaldian -% 0,5eko jaitsiera) eta kontsumoko ondasunen prezioak (2021ean % 2,9; 2020an % 1,9). Bestetik, ekipo-ondasunen prezioaren hazkunde -erritmoa % 0,1era jatsi zen (% 0,8koa izan zen aurreko ekitaldian).

Nafarroako nekazariek jasotako prezioei dagokienez, hauen hazkundea % 1,5era jaitsi zen 2021ean (% 2koa 2020an). Izan ere, nekazaritza-produktuen prezioek gora egin zuten arren (% 5,2ko hazkundea 2021ean, eta aldakuntza nulua 2020an), animalia-produktuen prezioak jaitsi egin ziren (-% 4,3) eta baso-produktuen prezioen hazkundea moteldu egin zen (% 5,8ko hazkundea, eta aurreko ekitaldian % 7,3koa).

**36. koadroa Soldata-adierazleak**

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|
| **EAE** | | | |
| Soldata-kostuak (urte arteko aldakuntza-tasa) | | | |
| – Soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko | 3,4 | 5,0 | -2,4 |
| – Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko | 1,4 | -1,9 | 4,9 |
| Hitzarmenak | | | |
| – Hitzarmen kopurua | 601 | 255.164 | 1,92 |
| – Eragina jasandako langileak | 504 | 267.818 | 1,53 |
| – Adostutako soldata-igoera | 387 | 198.378 | 0,94 |
| **NAFARROA** | | | |
| Soldata-kostuak (urte arteko aldakuntza-tasa) | | | |
| – Soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko | 2,4 | 5,6 | -1,9 |
| – Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko | 1,9 | -0,1 | 2,3 |
| Hitzarmenak | | | |
| – Hitzarmen kopurua | 225 | 92.725 | 2,18 |
| – Eragina jasandako langileak | 183 | 102.306 | 1,76 |
| – Adostutako soldata-igoera | 138 | 86.814 | 1,54 |

*Iturria: Lan Kostuaren Hiruhilekoko Inkesta (EIN) eta Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa (2022ko otsaileko hitzarmenetako datuak).*

Azkenik, lan-kostuei dagokienez, 2021ean ordu efektibo bakoitzeko soldata-kostua -% 2,4 jaitsi zen EAEn, eta -% 1,9, Nafarroan (2020an, hurrenez hurren, % 5 eta % 5,6 hazi ziren). Langile eta hilabete bakoitzeko soldata-kostua, berriz, % 4,9 hazi zen EAEn eta % 2,3 Foru Erkidegoan (aurreko ekitaldian -% 1,9 eta -% 0,1eko jaitsierak, hurrenez hurren).

## 3.4. LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA

### Lan-merkatua Euskal Herrian

2020an erortze historikoa izan zuen jarduerak, pandemiaren inpaktuaren ondorioz. 2021ean, berriz, ekonomiaren gorakada orokorra izan zen, eta okupazioa berriz ere hazi zen EAEn, Nafarroan eta Estatuan. Dena den, langabetuen kopuruak Estatu mailan bakarrik egin zuen behera, eta hazten jarraitu zuen EAEn eta Nafarroan.

Lehenik eta behin, biztanleria aktiboari erreparatuko diogu. 2021ean % 1,7 hazi zen Euskal Herrian, eta 1.346.000 pertsonatara iritsi zen. Horietatik 1.211,3 mila pertsona okupatuak ziren (% 1,3ko igoera) eta 134,7 mila pertsona langabezian zeuden (aurreko ekitaldian baino % 5,3 gehiago). Estatu mailan ere 2021ean hazi egin ziren biztanleria aktiboa (% 2,1) eta okupazioa (% 3), baina eremu horretan behera egin zuen langabezian zegoen biztanle kopuruak (-% 2,9).

Sexua aintzat hartuta, Euskal Herrian emakume langileen hazkundeak (% 2,8) eragin zuen biztanleria okupatuaren hedapena 2021ean, gizon okupatuen kopuruak behera egin baitzuen (-% 0,1). Estatuan, berriz, okupazioaren igoera orokorra izan zen bi sexuen kasuan (% 4 eta % 2,1, hurrenez hurren). Biztanleria langabetuari dagokionez, 2021ean Euskal Herrian kopuru hori hazi izana langabezian zeuden gizonen hazkunde nabarmenak eragin zuen (% 13,1), langabezian zeuden emakumeen kopuruak behera egin baitzuen (-% 2). Estatuan, aldiz, gizon zein emakume langabetuen kopuruak egin zuen behera (-% 4,8 eta -% 1,1, hurrenez hurren). Hala, 2021ean modu orokorrean egin zuen gora biztanleria aktiboak, bi sexuen kasuan, bai Euskal Herrian (% 1,1 eta % 2,3, hurrenez hurren), bai Estatuan (% 1,2 eta % 3,1eko hazkundeak, hurrenez hurren).

Dinamika hori jarraituz, 2021ean % 56,6ra igo zen jarduera-tasa Euskal Herrian (2020an % 55,5ekoa zen), gora egin baitzuen EAEn (% 56, eta aurreko ekitaldian % 55,1) zein Nafarroan (% 58,6, eta aurreko ekitaldian % 57,1). Bestetik, Estatuko jarduera-tasa % 57,4ra igo zen 2020an eta % 58,5era 2021ean. Dena den, Euskal Herriaren eta Estatuaren arteko diferentzialak ehuneko 1,9 puntukoa izaten jarraitu zuen 2021ean.

Sexuen arabera, jarduera-tasa modu orokortuan igo zen 2021ean, bai Euskal Herrian, bai Estatuan. Bestetik, datuak alderatuz gero, Foru Erkidegoko jarduera-tasa EAEkoa baino handiagoa zela ikus daiteke, gizonen zein emakumeen kasuan. Estatuan, bestalde, gizonen eta emakumeen jarduera-tasa (% 63,6 eta % 53,7, hurrenez hurren) Euskal Herrian baino handiagoak erregistratu ziren (% 60,6 eta % 52,9, hurrenez hurren).

Euskal Herriko biztanleria langabetua aztertuz gero, 2021ean % 5,3 hazi zen langabetu kopurua eta 134,7 mila pertsonara iritsi zen. Hala, jarraitu egin zuen 2020an pandemiaren etorrerarekin hasitako goranzko joerak (% 6,4). Zehazki, 2021ean langabetuen kopurua % 4,4 hazi zen EAEn (2020an % 2,7) eta % 8 Nafarroan (aurreko ekitaldian % 20,1). Aitzitik, Estatuan -% 2,9 murriztu zen biztanleria langabetua (aurreko ekitaldian % 8,7ko hazkundea).

Hala, biztanleria langabetuaren bilakaerari dagokionez, aurrez COVID-19aren inpaktuari buruzko kapituluan aipatu duguna aintzat hartzea komeni da, hau da, ABEEEak funtsezko tresnak izan zirela enpleguaren galera gelditzeko. Tresna horiek izan ezean, langabetu kopuruaren igoera askoz ere handiagoa izango zen.

Modu horretan, 2021ean bilakaera heterogeneoa izan zuen langabezia-tasak. Euskal Herrian gora egin zuen (% 10, eta 2020an % 9,7), eta Estatuan behera (% 14,8, eta urtebete lehenago % 15,5). Dena den, aurreko ekitaldiarekin alderatuta langabezia-tasa handitu egin zen EAEn (% 9,8, eta aurreko urtean % 9,5) zein Nafarroan (% 10,6, eta aurreko urtean % 10).

**37. koadroa Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia**

*(urteko batezbestekoak, milakotan)*

| Eremua | | 2020 | | | 2021 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Gizonak | Emakumeak | Guztira | Gizonak | Emakumeak | Guztira |
| EAE | Potentzialki aktiboak | 884,4 | 958,2 | 1.842,6 | 881,0 | 955,3 | 1.836,3 |
| | Aktiboak | 521,6 | 492,7 | 1.014,4 | 528,6 | 500,2 | 1.028,8 |
| | Okupatuak | 476,3 | 441,2 | 917,6 | 477,6 | 450,1 | 927,7 |
| | Langabeak | 45,3 | 51,5 | 96,8 | 51,0 | 50,1 | 101,1 |
| | Jarduera-tasa | 59,0 | 51,4 | 55,1 | 60,0 | 52,4 | 56,0 |
| | Langabezia-tasa | 8,7 | 10,5 | 9,5 | 9,6 | 10,0 | 9,8 |
| | Erregistratutako langabezia* | 58,9 | 70,3 | 129,2 | 51,2 | 63,6 | 114,8 |
| Nafarroa | Potentzialki aktiboak | 266,6 | 275,2 | 541,8 | 266,9 | 274,7 | 541,5 |
| | Aktiboak | 166,5 | 143,0 | 309,5 | 166,8 | 150,4 | 317,2 |
| | Okupatuak | 149,9 | 128,5 | 278,4 | 147,7 | 135,8 | 283,6 |
| | Langabeak | 16,6 | 14,5 | 31,1 | 19,0 | 14,6 | 33,6 |
| | Jarduera-tasa | 62,5 | 52,0 | 57,1 | 62,5 | 54,8 | 58,6 |
| | Langabezia-tasa | 10,0 | 10,1 | 10,0 | 11,4 | 9,7 | 10,6 |
| | Erregistratutako langabezia* | 17,4 | 23,2 | 40,6 | 13,3 | 18,7 | 32,0 |
| Euskal Herria | Potentzialki aktiboak | 1.151,0 | 1.233,4 | 2.384,4 | 1.147,9 | 1.230,0 | 2.377,8 |
| | Aktiboak | 688,1 | 635,7 | 1.323,9 | 695,4 | 650,6 | 1.346,0 |
| | Okupatuak | 626,2 | 569,7 | 1.196,0 | 625,3 | 585,9 | 1.211,3 |
| | Langabeak | 61,9 | 66,0 | 127,9 | 70,0 | 64,7 | 134,7 |
| | Jarduera-tasa | 59,8 | 51,5 | 55,5 | 60,6 | 52,9 | 56,6 |
| | Langabezia-tasa | 9,0 | 10,4 | 9,7 | 10,1 | 9,9 | 10,0 |
| | Erregistratutako langabezia* | 76,3 | 93,5 | 169,8 | 64,5 | 82,3 | 146,8 |
| Espainia | Potentzialki aktiboak | 19.241,9 | 20.336,9 | 39.578,8 | 19.270,8 | 20.383,4 | 39.654,2 |
| | Aktiboak | 12.108,9 | 10.624,4 | 22.733,3 | 12.250,6 | 10.952,6 | 23.203,2 |
| | Okupatuak | 10.429,7 | 8.772,7 | 19.202,4 | 10.651,7 | 9.121,9 | 19.773,6 |
| | Langabeak | 1.679,3 | 1.851,6 | 3.530,9 | 1.598,9 | 1.830,7 | 3.429,6 |
| | Jarduera-tasa | 62,9 | 52,2 | 57,4 | 63,6 | 53,7 | 58,5 |
| | Langabezia-tasa | 13,9 | 17,4 | 15,5 | 13,1 | 16,7 | 14,8 |
| | Erregistratutako langabezia* | 1.663,0 | 2.225,1 | 3.888,1 | 1.281,9 | 1.824,0 | 3.105,9 |

*(*): Abendua.*
*Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2011. 2022ko martxoko datuak) eta SEPE.*

Zehazki, EAEn eta Nafarroan langabezia-tasak gora egin zuen gizonen kasuan (2021ean % 9,6 eta 2020an % 8,7, eta % 11,4 eta % 10, hurrenez hurren), baina behera emakumeen kasuan (2021ean % 10 eta aurreko ekitaldian % 10,5, eta % 9,7 eta % 10,1 hurrenez hurren). Estatu mailan, berriz, jaitsiera orokortua izan zen bi sexuen kasuan (gizonezkoen tasa % 13,9koa zen 2020an eta % 13,1ekoa 2021ean; eta emakumezkoena % 17,4tik % 16,7ra pasatu zen). Hala, Euskal Herrian hazi egin zen gizonezkoen langabezia-tasa (% 10,1 eta aurreko ekitaldian % 9) eta murriztu emakumeena (% 9,9 eta aurreko urtean % 10,4).

Txostenaren aurreko edizioetan bezala, jarraian labur aztertuko dugu langabeziaren bilakaera, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan (SEPE) erregistratutako langabeziaren ikuspegitik. Horretarako, aintzat hartu beharko da, kasu zehatz honetan, eskainitako informazioa abenduari dagokiola, eta ez ekitaldi osoari. Zentzu horretan, aipatutako iturriaren arabera, SEPEren Euskal Herriko bulegoetan 146,8 mila langabetu zeuden erregistratuta 2021eko abenduan, aurreko urtean baino -% 13,5 gutxiago. Horietatik 114,8 mila pertsona EAEkoak ziren eta 32 mila pertsona Nafarroakoak; eremu horietan, hurrenez hurren, -% 11,1eko eta -% 21,2ko urte arteko jaitsierak izan zituzten. Estatu mailan, 2021eko abenduan erregistratutako langabeziak -% 20,1 egin zuen behera, 3.105,9 mila pertsonara iritsi arte.

**38. koadroa Langabezia-tasa adin-tarteen arabera. Urteko batezbestekoak**

*(%)*

| Eremua | Urtea | 16-19 | 20-24 | 25-54 | 55 eta gehiago | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | 2019 | 39,1 | 25,4 | 7,9 | 8,9 | 9,2 |
| | 2020 | 41,4 | 32,0 | 8,7 | 6,8 | 9,5 |
| | 2021 | 50,0 | 29,1 | 8,4 | 8,3 | 9,8 |
| Nafarroa | 2019 | 45,5 | 20,1 | 7,9 | 4,9 | 8,2 |
| | 2020 | 23,5 | 26,4 | 9,6 | 7,0 | 10,0 |
| | 2021 | 40,9 | 20,3 | 10,2 | 8,0 | 10,6 |
| Euskal Herria | 2019 | 40,4 | 24,1 | 7,9 | 8,0 | 8,9 |
| | 2020 | 37,3 | 30,5 | 8,9 | 6,9 | 9,7 |
| | 2021 | 48,4 | 26,8 | 8,8 | 8,2 | 10,0 |
| Espainia | 2019 | 45,2 | 29,8 | 12,9 | 12,2 | 14,1 |
| | 2020 | 54,3 | 35,1 | 14,5 | 12,1 | 15,5 |
| | 2021 | 50,8 | 31,6 | 13,5 | 12,9 | 14,8 |

*Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2011. 2022ko martxoko datuak).*

Biztanleria Aktiboaren Inkesta berriro ere aintzat hartuta (urteko batezbesteko datuak), kontuan hartu behar da langabezia-tasa nabarmen aldatzen dela adinaren arabera; hala, gazteenek dituzte maila altuenak. Hala, Euskal Herriko 16 eta 19 urte artekoen artean langabezia-tasa % 48,4koa zen 2021ean. Zerrendan hurrengoak 20 eta 24 urte artekoak izan ziren (% 26,8), ondorengoak 25 eta 54 urte artekoak (% 8,8) eta, azkenik, 55 urte edo gehiago zituztenak (% 8,2).

Urte arteko aldakuntzei dagokienez, Euskal Herrian langabezia-tasa igo egin zen gazteenen artean (2021ean % 48,4 eta 2020an % 37,3) eta adin nagusiena zutenen artean (% 8,2, eta aurreko urtean % 6,9). Aldiz, behera egin zuen 20 eta 24 urte artekoen kasuan (2020an % 30,5 eta 2021ean % 26,8) eta 25 eta 54 urte artekoen kasuan, gutxiago izan arren (% 8,9tik % 8,8ra).

Estatu mailan, pertsona helduenen kasuan izan ezik, langabezia-tasak modu orokorrean egin zuen behera, eta gazteenek izan zuten tasarik altuena (2021ean % 50,8).

**39. koadroa** **Enpleguaren bilakaera, sektore ekonomikoen arabera. Urteko batezbestekoak**

*(m pertsona)*

| Eremua | Urtea | Lehen sektorea | Industria | Eraikuntza | Zerbitzuak |
|---|---|---|---|---|---|
| EAE | 2019 | 10,2 | 190,7 | 52,9 | 682,3 |
| | 2020 | 8,4 | 190,0 | 51,2 | 668,0 |
| | 2021 | 8,1 | 203,3 | 45,0 | 671,3 |
| Nafarroa | 2019 | 10,2 | 74,9 | 16,2 | 187,6 |
| | 2020 | 9,4 | 75,7 | 15,6 | 177,8 |
| | 2021 | 8,4 | 78,8 | 18,4 | 177,9 |
| Euskal Herria | 2019 | 20,4 | 265,6 | 69,1 | 869,9 |
| | 2020 | 17,8 | 265,7 | 66,8 | 845,8 |
| | 2021 | 16,5 | 282,1 | 63,4 | 849,2 |
| Espainia | 2019 | 797,3 | 2.763,1 | 1.277,9 | 14.941,0 |
| | 2020 | 765,3 | 2.698,2 | 1.244,1 | 14.494,8 |
| | 2021 | 802,7 | 2.700,1 | 1.291,5 | 14.979,3 |

*Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2011. 2022ko martxoko datuak). (EJSN-09).*

Biztanleria okupatuaren bilakaera sektoreen arabera aztertuta, 2021ean Euskal Herrian murriztu egin zen sektoreko enpleguaren bolumena lehen sektorean eta eraikuntzan (-% 7,3 eta -% 5,1eko jaitsierak, hurrenez hurren). Industrian eta zerbitzuetan, berriz, gora egin zuen (% 6,2 eta % 0,4ko igoerak, hurrenez hurren). Kopuru absolutuei dagokienez, eraikuntzaren sektorean suntsitu zen gehien enplegua (2020an baino 3.400 pertsona okupatu gutxiago); Euskal Herriko enpleguaren % 5,2 dagokio sektore horri. Hazkunde handiena, berriz, industria-sektoreak izan zuen (aurreko ekitaldian baino 16.400 pertsona okupatu gehiago); Euskal Herriko enpleguaren % 23,3 dagokio jarduera horri.

Aitzitik, estatu mailan, 2021ean sektore guztietan hazi zen sektoreko enpleguaren bolumena, modu orokortuan (% 4,9 lehen sektorearen kasuan, % 3,8 eraikuntzan, % 3,3 zerbitzuen sektorean eta % 0,1 industrian). Kasu honetan, hazkunde absoluturik handiena hirugarren sektoreak izan zuen (2020an baino 484.500 pertsona okupatu gehiago).

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan erregistratutako kontratuak aintzat hartuta, 2021ean nabarmen areagotu ziren, oro har, kontuan hartu ditugun geografia-eremu guztietan. Hala, ekitaldi horretan 1.224.063 kontratu jakinarazi zituzten Euskal Herrian. Hortaz, igoera nabarmena izan zen, % 21,4koa (% 22,5ekoa EAEn eta % 18,8koa Foru Erkidegoan). Estatuan, berriz, 19.384.359 kontratu jakinarazi zituzten, aurreko ekitaldian baino % 21,6 gehiago.

Kontratu mota kontuan hartuta, orokorrean, kontratu mugagabeak (% 33,8 eta % 36,7 Euskal Herrian eta Estatuan, hurrenez hurren) eta aldi baterako kontratuak (% 20,3 eta % 20, hurrenez hurren) areagotu izanak eragin zuen guztizko kontratazioa haztea. Kontuan hartu behar da jakinarazitako kontratuen % 90 inguru aldi baterakoak zirela.

**40. koadroa SEPEren bulegoetan erregistratutako kontratuak**

| Eremua | Urtea | Mugagabeak | | | Aldi baterakoak | | | | KONTRATUAK, GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Mugagabea | Konbertsioak | Guztira | Obra eta Zerbitzua | Behin-behinekoak | Gainerakoak | Guztira | |
| EAE | 2019 | 51.433 | 32.498 | 83.931 | 272.401 | 471.146 | 180.697 | 924.244 | 1.008.175 |
| | 2020 | 36.502 | 22.946 | 59.448 | 179.023 | 322.650 | 142.234 | 643.907 | 703.355 |
| | 2021 | 46.829 | 33.716 | 80.545 | 210.160 | 404.749 | 166.272 | 781.181 | 861.726 |
| Nafarroa | 2019 | 14.009 | 11.593 | 25.602 | 91.337 | 193.380 | 88.498 | 373.215 | 398.817 |
| | 2020 | 10.446 | 8.836 | 19.282 | 75.109 | 137.937 | 72.702 | 285.748 | 305.030 |
| | 2021 | 12.644 | 12.164 | 24.808 | 78.036 | 183.447 | 76.046 | 337.529 | 362.337 |
| Euskal Herria | 2019 | 65.442 | 44.091 | 109.533 | 363.738 | 664.526 | 269.195 | 1.297.459 | 1.406.992 |
| | 2020 | 46.948 | 31.782 | 78.730 | 254.132 | 460.587 | 214.936 | 929.655 | 1.008.385 |
| | 2021 | 59.473 | 45.880 | 105.353 | 288.196 | 588.196 | 242.318 | 1.118.710 | 1.224.063 |
| Espainia | 2019 | 1.323.913 | 835.521 | 2.159.434 | 8.193.202 | 10.341.952 | 1.817.633 | 20.352.787 | 22.512.221 |
| | 2020 | 936.513 | 609.097 | 1.545.610 | 6.241.088 | 6.777.227 | 1.379.136 | 14.397.451 | 15.943.061 |
| | 2021 | 1.235.476 | 877.865 | 2.113.341 | 6.998.685 | 8.683.539 | 1.588.794 | 17.271.018 | 19.384.359 |

*Iturria: SEPE.*

Bestetik, aipamen txiki bat egin behar dugu autonomoei buruz. Horrekin lotuta, EINek egindako BAIren arabera, Estatuan 48.100 pertsonako igoera izan zuen norberaren konturako langileen kopuruak 2020 eta 2021 artean (urteko batezbestekoak kontuan hartuta). Euskal Herrian, aldiz, 2.400 pertsonako jaitsiera izan zuen kopuru horrek.

Gizarte eta lan arloko giroari dagokionez, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 2021ean hitzarmen gutxiago negoziatu zituzten, eta kontuan hartutako hiru eremu geografikoetako langile gutxiagori eragin zieten hitzarmen horiek. Zehazki, 2021ean negoziatutako hitzarmenen jaitsiera hauek izan ziren: EAEn -% 23,2, Nafarroan -% 24,6 eta Estatu mailan -% 23,1. Bestalde, hitzarmen horien eraginpeko langileak -% 25,9 murriztu ziren EAEn, -% 15,1 Foru Erkidegoan eta -% 16,7 Estatu osoan.

**41. koadroa Hitzarmen kolektiboak eta grebak**

| Eremua | Urtea | Hitzarmen kolektiboak: Kopurua | Eragindako langileak | Adostutako soldata-igoera | Grebak*: Parte hartu zuten langileak | | Greba bakoitzeko langileak | Lan egin gabeko lanaldiak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | 2019 | 601 | 255.164 | 1,92 | 286 | 77.020 | 269 | 388.624 |
| | 2020 | 504 | 267.818 | 1,53 | 178 | 25.723 | 145 | 59.377 |
| | 2021 | 387 | 198.378 | 0,94 | 224 | 14.051 | 63 | 141.267 |
| Nafarroa | 2019 | 225 | 92.725 | 2,18 | 102 | 5.412 | 53 | 18.668 |
| | 2020 | 183 | 102.306 | 1,76 | 37 | 1.249 | 34 | 3.653 |
| | 2021 | 138 | 86.814 | 1,54 | 59 | 2.130 | 36 | 5.068 |
| Espainia | 2019 | 5.539 | 11.397.608 | 2,24 | 898 | 264.454 | 294 | 858.401 |
| | 2020 | 4.187 | 10.043.541 | 1,73 | 487 | 151.496 | 311 | 540.579 |
| | 2021 | 3.218 | 8.367.095 | 1,70 | 606 | 199.026 | 328 | 422.815 |

** Ez ditu jasotzen greba orokorretako datuak. 2021eko datuak urtarrila-abendua bitarteko aurrerapenari dagozkio.*
*Iturria: Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa. 2022ko otsaileko hitzarmenen datuak. 2022ko martxoko greben datuak.*

Laneko gatazkei dagokienez, 2021ean hazi egin ziren grebak, oro har: % 25,8 EAEn, % 59,5 Nafarroan eta % 24,4 Estatuan. Grebek eragindako pertsona kopuruak ere gora egin zuen Nafarroan eta Estatuan (% 70,5 eta % 31,4, hurrenez hurren), baina behera EAEn (-% 45,4). Lan egin gabeko lanaldiak, berriz, areagotu egin ziren EAEn (% 137,9) eta Nafarroan (% 38,7), eta murriztu Estatuan (-% 21,8).

## Biztanleria

2020an (eskuragarri dagoen azken behin betiko datua) % 0,7 hazi zen Euskal Herriko biztanle kopurua. EAEn (% 0,6) zein Nafarroan (% 1,1) hazi zen biztanleria. Zehazki, 2.881.701 biztanlera iritsi ziren ekitaldi horretan: 2.220.504 biztanle EAEn eta gainerako 661.197ak Foru Erkidegoan. Estatu mailan ere biztanle kopurua hazi egin zen 2020an (% 0,9), 47.450.795 biztanlera iritsi arte.

2020an 19.779 jaiotza (aurreko ekitaldian baino % 5 gutxiago) eta 30.914 heriotza (aurreko ekitaldian baino % 13,9 gehiago) erregistratu ziren Euskal Herrian. Hori kontuan hartuta, saldo begetatiboa negatiboa izan zen, -11.135 pertsonakoa. Hala, 2014an hasitako hazkunde begetatibo negatiboen ibilbidea indartu egin zen.

**42. koadroa Biztanleriaren mugimendu naturala. Jaiotza- eta heriotza-tasak, 2020**

| Eremua | Jaiotzak | Heriotzak | Hazkunde begetatiboa | Jaiotza-tasa (‰) | Heriotza-tasa (‰) |
|---|---|---|---|---|---|
| Araba | 2.398 | 3.267 | -869 | 7,2 | 9,8 |
| Bizkaia | 7.319 | 13.245 | -5.926 | 6,3 | 11,4 |
| Gipuzkoa | 5.026 | 7.740 | -2.714 | 6,9 | 10,6 |
| EAE | 14.743 | 24.252 | -9.509 | 6,6 | 10,9 |
| Nafarroa | 5.036 | 6.662 | -1.626 | 7,6 | 10,1 |
| Euskal Herria | 19.779 | 30.914 | -11.135 | 6,9 | 10,7 |
| Espainia | 341.315 | 493.776 | -152.461 | 7,2 | 10,4 |

*Iturria: Biztanleriaren mugimendu naturala (EIN). 2021eko abenduko datuak.*

Hala, Euskal Herrian jaitsi egin zen jaiotza-tasa (2020an ‰ 6,9 eta 2019an ‰ 7,3). Heriotza-tasa, berriz, nabarmen hazi zen (2020an ‰ 10,7 eta aurreko ekitaldian ‰ 9,5). Estatuko jaiotza-tasa handiagoa izan zen (‰ 7,2), eta heriotza-tasa apur bat txikiagoa (‰ 10,4).

Ezkontzei dagokienez, 5.008 besterik ez ziren izan Euskal Herrian 2020an; hortaz, jaitsiera handia izan zuten, -% 44,8koa. Estatuan, aldiz, 87.481 ezkontza erregistratu zituzten; kasu horretan ere handia izan zen jaitsiera, -% 45,8koa.

Behin puntu honetara iritsita, 2020an izandako hildako kopuruaren hazkunde nabarmenaren (eta, ondorioz, heriotza-tasaren igoeraren) eta ezkontza kopuruaren jaitsiera bortitzaren gaineko argibide batzuk eman behar ditugu.
Horrekin lotuta, aipatzekoa da COVID-19aren lehen olatuen inpaktuak eragin zuela heriotzen hazkundea, orduan bereziki hilgarria baitzen gaixotasuna. Ezkontzen jaitsiera, berriz, konfinamenduan zehar ezkontzarik ospatu ezinak (edo oso modu mugatuan egin beharrak) eragin zuen, baita konfinamendua amaitzean ezarritzako neurri murriztaileek ere.



LABORAL kutxa

**43. koadroa Euskal Herriko biztanleriaren mugimenduaren bilakaera**

| Urtea | Biztanleria | Ezkontzak | Jaiotzak | Jaiotza-tasa (‰) | Heriotzak | Heriotza-tasa (‰) | Hazkunde begetatiboa | Migrazio-saldoa* (autonomia artekoa) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2010 | 2.815.263 | 10.665 | 27.948 | 9,9 | 24.344 | 8,6 | 3.064 | 2.904 |
| 2011 | 2.826.657 | 10.304 | 27.902 | 9,9 | 24.990 | 8,8 | 2.912 | 4.362 |
| 2012 | 2.837.659 | 10.171 | 27.264 | 9,6 | 25.657 | 9,0 | 1.607 | 3.875 |
| 2013 | 2.836.159 | 9.286 | 25.191 | 8,9 | 25.043 | 8,8 | 148 | 2.920 |
| 2014 | 2.829.775 | 9.595 | 25.562 | 9,0 | 25.677 | 9,1 | -115 | 4.078 |
| 2015 | 2.829.733 | 9.861 | 24.856 | 8,8 | 27.191 | 9,6 | -2.335 | 3.138 |
| 2016 | 2.830.181 | 9.763 | 24.141 | 8,5 | 26.951 | 9,5 | -2.810 | 3.305 |
| 2017 | 2.837.392 | 9.733 | 22.823 | 8,0 | 27.478 | 9,7 | -4.655 | 1.052 |
| 2018 | 2.846.642 | 9.187 | 21.498 | 7,6 | 27.582 | 9,7 | -6.084 | 682 |
| 2019 | 2.861.990 | 9.079 | 20.820 | 7,3 | 27.134 | 9,5 | -6.314 | 147 |
| 2020 | 2.881.701 | 5.008 | 19.779 | 6,9 | 30.914 | 10,7 | -11.135 | -539 |

** 2017tik aurrera, 0 adinari eragiten zion barne-migrazioaren akatsa zuzentzen da.*
*Iturria: Biztanleriaren mugimendu naturala (EIN). Migrazio-mugimenduak (EIN) 2021eko abenduko datuak.*

Azkenik, nabarmendu behar da 2020an Euskal Herriak migrazio-saldo (autonomia artekoa) negatiboa izan zuela, -539 pertsonakoa, immigrazio kopurua txikiagoa izan zelako emigrazio kopurua baino. Zehazki, EAEk -1.221 pertsonako migrazio-saldo negatiboa izan zuen, eta Nafarroak, berriz, 682 pertsonako migrazio-saldo positiboa.




# 3. INDUSTRIA

# 1. IKUSPEGI OROKORRA

Pandemiak gehien kaltetutako sektoreetako bat izan zen industria-sektorea. Baina, gaur egun, jarduera berreskuratzeko prozesuan daude euskal enpresak. Hala erakusten du egindako azterketak, datuak pandemiaren aurrekoetara itzultzen ari direla erakusten baitu.

Eremu geografikoen arabera, 2021ean nabarmen hobetu zen sektoreko balio erantsi gordina EAEn, % 8,5 (2020an -% 11,2). Nafarroan antzeko igoera izan zuen, % 6,5ekoa (2020an -% 9,5 murriztu zen).

2021eko hiruhilekoei erreparatuta, urteko bigarren hiruhilekoan izandako hobekuntza handia nabarmentzen da, % 30,2koa (-% 1,1 lehenengo hiruhilekoan), eta urtean zehar balio positiboekin jarraitu zuen (% 5,5 hirugarren hiruhilekoan eta % 4,3 laugarrenean). Nafarroako bilakaera antzekoa izan zen, baina apalagoa (-% 1,2; % 26,1; % 3,5; eta % 1,5).

2021ean industria-jarduerak EAEn eta Nafarroan izandako hobekuntza Estatukoa baino altuagoa izan zen (% 5,9 2021ean eta 2020an -% 12,1). Hiruhilekoen arabera, Estatuko portaera antzekoa izan zen, eta hobekuntza nabarmena izan zen bigarren hiruhilabetean (-% 0,3; % 29,3; % 0,4; -% 0,1).

### Ekoizpen-indizeak

Industria Ekoizpenaren Indizeak (IPI) ere goranzko bilakaera argia izan zuen EAEn, Nafarroan eta Estatuan.

EAEren kasuan, IPIa % 10,5 hazi zen 2021ean (2020an -% 13,4), Nafarroan % 10,4 hazi zen (2020an -% 10,9) eta Estatuan antzeko bilakaera izan zuen, baina apalagoa, eta IPIa % 7,1 hazi zen (2020an -% 9,2).

**44. koadroa** **Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera**

*(%)*

| Urtea | EAE IPI(*) | Nafarroa IPI(*) | Estatua IPI(*) |
|---|---|---|---|
| 2014 | 1,5 | 3,9 | 1,5 |
| 2015 | 3,2 | 2,2 | 3,3 |
| 2016 | 2,9 | 0,7 | 1,6 |
| 2017 | 5,9 | -2,1 | 2,9 |
| 2018 | 2,2 | -0,5 | 0,7 |
| 2019 | 1,6 | 9,8 | 0,7 |
| 2020 | -13,4 | -10,9 | -9,2 |
| 2021 | 10,5 | 10,4 | 7,1 |

*(*): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.*
*Iturria: Geuk egina, Eustaten, Nafarroako Estatistika Institutuaren (NEI), EINen eta Iberdrolaren datuetatik abiatuta.*

**45. koadroa** **Euskal Herriko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen jomuga ekonomikoaren arabera**

*(%)*

| Urtea | Bitarteko ondasunak | | Ekipo-ondasunak | | Kontsumo-ondasunak | | Energia | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | EAE* | Nafarroa | EAE* | Nafarroa | EAE* | Nafarroa | EAE* | Nafarroa |
| 2014 | 2,4 | 10,0 | 1,8 | 3,4 | 0,0 | 3,2 | 0,1 | -5,9 |
| 2015 | 1,1 | -0,8 | 7,0 | 4,9 | 3,4 | 2,4 | 1,4 | 6,9 |
| 2016 | 2,3 | 0,9 | 8,5 | -0,3 | 1,6 | 0,8 | -3,6 | 12,8 |
| 2017 | 7,8 | 7,4 | 3,2 | -4,5 | 5,4 | -0,5 | 3,0 | 2,7 |
| 2018 | 0,5 | 7,3 | 4,2 | -2,8 | 4,9 | 0,9 | 1,4 | -12,1 |
| 2019 | 0,1 | -2,1 | 2,0 | 18,4 | 2,8 | 0,0 | 5,6 | 45,5 |
| 2020 | -15,4 | -6,7 | -12,5 | -18,0 | -6,6 | -7,6 | -11,9 | -12,3 |
| 2021 | 10,4 | 6,6 | 13,3 | 13,8 | 11,9 | 5,5 | 0,3 | 19,4 |

*(*): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.*
*Iturria: Geuk egina Eustaten eta Nafarroako Estatistika Institutuaren (NEI) datuetatik abiatuta.*

Industria Ekoizpenaren Indizearen (IPI) bilakaera helmuga ekonomikoen arabera aztertuta, guztiek izan zituzten aldakuntza positiboak, EAEn zein Nafarroan.

EAEren kasu zehatzean, IPIa % 10,4 hazi zen bitarteko ondasunetan, % 13,3 ekipo-ondasunetan, % 11,9 kontsumo-ondasunetan eta % 0,3 energian. Bereziki, bitarteko ondasunen eta ekipo-ondasunen ekoizpenean izandako hobekuntza nabarmena aipatu behar da: 2020an -% 15,4koa izatetik 2021ean % 10,4 izatera lehenengo kasuan, eta -% 12,5etik % 13,3ra bigarren kasuan.

Nafarroaren kasuan ere bilakaera positiboa izan zen, eta bereziki nabarmendu zen ekipo-ondasunekin eta energiarekin lotutako ekoizpen-indizearen igoera handia, zeina % 13,8koa izan zen ekipo-ondasunen kasuan (2020an -% 18,0) eta % 19,4koa energiaren kasuan (2020an -% 12,3).



LABORAL kutxa

Bitarteko ondasunen ekoizpenak ere gora egin zuen eta balio positiboak eskuratu zituen 2021ean (% 6,6). Gauza bera gertatu zen kontsumo-ondasunen ekoizpenarekin, 2021ean % 5,5era iritsi baitzen (2020an -% 7,6).

Industria Ekoizpenaren Indizea (IPI) EAEko jarduera-adarren arabera aztertuta, ikus daiteke susperraldia orokorra izan zela sektore guztietako ekoizpenean, honakoetan izan ezik: Koke-fabrikak eta petrolio-finketa (2021ean -% 0,1) eta Produktu informatikoak eta elektronikoak (-% 4,4). Horrek argi erakusten du sektorea suspertzen ari dela, pandemiak markatutako 2020. urtearen eta hark ekoizpenean izandako ondorio negatiboen ondoren.

Bereziki nabarmentzen dira honakoek izandako hazkunde handiak: Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza (2021ean % 33,7 eta 2020an -% 20,5) eta Altzariak eta beste manufaktura batzuk (2021ean % 27,0 eta 2020an -% 7,0).

**46. koadroa EAEko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera***

*(%)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|
| Erauzketa-industriak | -2,5 | 2,6 | 3,9 |
| Elikagai, edari eta tabakoaren industriak | 0,3 | -7,1 | 7,0 |
| Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza | 2,4 | -20,5 | 33,7 |
| Zura, papera eta arte grafikoak | 3,2 | -6,5 | 3,8 |
| Koke-fabrikak eta petrolio-finketa | -15,3 | -15,9 | -0,1 |
| Industria kimikoa | -2,4 | -9,3 | 13,7 |
| Farmaziako produktuak | 27,5 | 10,1 | 15,1 |
| Kautxua eta plastikoak | 2,0 | -13,4 | 11,0 |
| Metalurgia | 0,5 | -19,9 | 12,0 |
| Informatika- eta elektronika-produktuak | -3,1 | -9,7 | -4,4 |
| Material eta ekipo elektrikoa | 5,9 | -9,1 | 5,9 |
| Makineria eta ekipamendua | 1,3 | -7,0 | 14,8 |
| Garraiorako materiala | 1,0 | -15,1 | 10,5 |
| Altzariak eta beste manufaktura batzuk | 4,1 | -7,0 | 27,0 |
| Energia elektrikoa, gasa eta lurruna | 14,7 | -12,0 | 0,7 |

*(*): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.*
*Iturria: Eustat.*

**47. koadroa Nafarroako Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera**

*(%)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|
| Nekazaritzako elikagaien industria | 3,6 | -6,5 | 3,6 |
| Metalurgia eta produktu metalikoak | 6,1 | -10,9 | 17,8 |
| Papera, zura eta altzariak | 0,0 | -9,5 | 13,4 |
| Garraiorako materiala | 13,3 | -22,6 | -5,2 |
| Beste manufaktura-industria batzuk | -1,2 | -2,1 | 4,9 |

*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI).*

Nafarroan, 2021ean behatutako joera EAEkoaren oso antzekoa izan zen. Hala, industria-sektoreen hobekuntza orokortua nabarmendu zen, bereziki, hauena: Metalurgia eta produktu metalikoak (2020an -% 10,9koa izatetik 2021ean % 17,8koa izatera pasatu zen IPIa) eta Papera, zura eta altzariak (-% 9,5etik % 13,4ra).

Beste manufaktura-industria batzuen ekoizpena ere hazi zen, baina hobekuntza gainerako adarretan baino txikiagoa izan zen. Hala, 2020an -% 2,1ekoa izatetik 2021ean % 4,9koa izatera pasatu zen.

### Enpresen emaitzak

Industria-jarduerak izandako hobekuntzak eragina izan zuen euskal enpresen emaitzen kontuan ere, jarraian ikus daitekeen moduan:

**48. koadroa Ratio batzuen bilakaera, euskal industria-enpresen lagin baterako**

*(%)*

| Ratioak | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|---|---|
| Bitarteko kontsumoak/salmentak | 55,6 | 53,8 | 58,8 | 59,0 | 60,1 |
| Langileen kostuak/salmentak | 22,0 | 22,3 | 19,9 | 20,0 | 21,1 |
| Finantza-karga garbia/salmentak | 1,1 | 0,9 | 0,8 | -0,6 | -0,9 |
| Mozkinak/salmentak | 5,0 | 8,0 | 5,7 | -0,2 | 3,0 |
| Mozkinak/berezko funtsak | 7,4 | 15,6 | 10,5 | -0,4 | 6,3 |
| Cash flow/salmentak | 9,9 | 12,7 | 9,7 | 5,3 | 7,7 |
| Salmentak/langileak (m euro) | 196,3 | 174,5 | 230,9 | 214,4 | 226,9 |

*Iturria: CNMV eta geuk egina.*

Aztertutako euskal industria-enpresa nagusien jardueraren analisiak erakusten duenez, 2020arekin alderatuta suspertu egin zen jarduera, eta irabaziak/salmentak eta irabaziak/berezko funtsak ratioak (zergen aurretik kalkulatuta) asko hobetu ziren. 2021ean % 3,0koa eta % 6,3koa izan ziren ratio horiek, hurrenez hurren. Dena den, aipatu beharrekoa da 2021ean erregistratutako tasak baxuagoak izan zirela 2019koak baino, hau da, pandemia hasi aurrekoak baino.

Testuinguru horretan, 2021ean gora egin zuten bitarteko kontsumoak/salmentak eta langile-kostuak/salmentak adierazleek ere. % 60,1 eta % 21,1ekoak izan ziren, hurrenez hurren.

**10. grafikoa Industria-errentagarritasuna**




*Iturria: Geuk egina.*

Aurrez aipatutako euskal industria-enpresa nagusien laginaren emaitzetan ikusten den susperraldia bat dator Espainiako Bankuaren Hiruhilekoko Balantzeen Zentralak emandako emaitzekin. Emaitza horiek Espainiako 926 enpresa ez-finantzariok osatutako lagin batetik ateratakoak dira, 2021eko lau hiruhilekoetan bildutako datuen araberakoak. Enpresa horiek enpresa ez-finantzarioen sektorearen balio erantsi gordinaren % 11,3 ordezkatzen dute.

Zentzu horretan, Balantzeen Zentralaren hiruhilekoko lagineko emaitzek agerian uzten dute 2021ean enpresen jarduerak gora egin zuela aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Izan ere, enplegua zein soberakin arruntak hazi egin ziren. Ondorioz, neurri batean leheneratu egin zen aurreko urtean COVID-19aren krisiaren inpaktuaren ondorioz erregistratutako jaitsiera handia. Dena den, ekitaldiaren azken zatian hazi egin ziren energiaren kostuak, eta horrek gelditu egin zuen enpresen soberakinen susperraldia energia gehien kontsumitzen duten adarretan.

Ohiko irabaziek gora egin zuten eta, ondorioz, errentagarritasun mailak ere igo egin ziren aurreko urtearekin alderatuta, baina pandemiaren aurreko balioetara iritsi gabe. Bestetik, aktiboarekiko zorpetze-ratioak hazten jarraitu zuen. Aldiz, soberakin arruntekiko kalkulatutako zorpetze-ratioa –emaitza ekonomiko gordina gehi diru-sarrera finantzarioak– jaitsi egin zen, enpresen emaitzek bilakaera positiboa izan zutelako. Etekinak hobetu izanari esker eta zor biziaren batez besteko kostua jaitsi izanari esker, interesak ordaintzera bideratutako ohiko emaitzen ehunekoak beheranzko joera hartu zuen. Azkenik, 2021ean, ziurgabetasuna murrizten joan zen pixkanaka, aurreko urtean erregistratutako hazkunde handiaren ondoren. Testuinguru horretan, likidezia-ratioa jaitsi egin zen enpresa gehienetan.

**49. koadroa Emaitzen kontua. Urte arteko bilakaera (enpresa berei dagozkien hazkunde-tasak, aurreko urteko aldi berarekiko)**

| OINARRIAK | Hiruhilekoko Balantzeen Zentrala(*) | | |
|---|---|---|---|
| | 2019 I-IV / 2018 I-IV | 2020 I-IV / 2019 I-IV | 2021 I-IV / 2020 I-IV |
| **Enpresa kopurua/Nazioko guztizko estaldura** | **1.031/% 13,0** | **943/% 11,6** | **926/% 11,3** |
| 1. Produkzioaren balioa (diru-laguntzak barne) | 0,0 | -19,7 | 18,1 |
| Negozio-zifraren zenbateko garbia eta ustiapenaren bestelako diru-sarrerak | -1,3 | -20,1 | 21,4 |
| 2. Bitarteko kontsumoak (tributuak barne) | -0,6 | -19,0 | 21,3 |
| Erosketa garbiak | -2,0 | -25,1 | 33,0 |
| Beste ustiapen-gastu batzuk | 2,4 | -10,3 | 8,0 |
| S.1. BALIO ERANTSI GORDINA FAKTOREEN KOSTUAREKIKO (1-2) | 1,4 | -21,1 | 10,9 |
| 3. Langile-gastuak | 3,3 | -4,2 | 2,4 |
| S.2. USTIAPENAREN EMAITZA EKONOMIKO GORDINA (S.1.-3) | -0,6 | -38,3 | 23,6 |
| 4. Diru-sarrera finantzarioak | 4,7 | -19,7 | 24,2 |
| 5. Gastu finantzarioak | -5,8 | -10,4 | -7,0 |
| 6. Amortizazioak eta ustiapen-hornidurak | 1,1 | 0,1 | -2,9 |
| S.3. OHIKO EMAITZA GARBIA (S.2 + 4 –5 –6) | 2,1 | -56,0 | 68,1 |
| 7. Besterentzeen eta narriaduraren ondoriozko emaitzak | -44,6 | — | — |
| 8. Arrazoizko balioaren aldakuntzak eta gainerako emaitzak | -20,8 | 41,7 | — |
| 9. Mozkinen gaineko zergak | -26,9 | -50,1 | 58,6 |
| S.4. EKITALDIAREN EMAITZA (S.3 + 7 + 8 -9) | -12,8 | -80,0 | 141,3 |
| EKITALDIAREN EMAITZA / BEG (S.4 / S.1) | 38,0 | 10,0 | 25,8 |
| ERRENTAGARRITASUNAK | | | |
| R.1. Aktibo garbiaren ohiko errentagarritasuna (zergen aurretik) | 6,8 | 4,3 | 4,7 |
| R.2. Jasotako finantzaketa interesak/kostua duten besteren baliabideak | 2,0 | 1,8 | 1,6 |
| R.3. Baliabide propioen ohiko errentagarritasuna (zergen aurretik) | 10,4 | 6,2 | 7,1 |
| R.4. Aldea: errentagarritasuna – kostu finantzarioa (R.1. - R.2.) | 4,8 | 2,5 | 3,1 |

*(*): Zutabe horietako datu guztiak hiruhilekoko datuen batezbesteko haztatu moduan kalkulatu dira.*
*Iturria: Espainiako Bankua.*

## 2. ENERGIA

2021eko azaroan Aldaketa Klimatikoari buruzko Konferentzia (COP26) egin zuten Nazio Batuek Glasgowen, "Aldaketa klimatikoari aurre egiteko mundua batzen" lelopean. Mundu mailako 120 lider eta 40.000 parte-hartzaile baino gehiago bildu ziren bertan. Goi-bilera garatu zen bi asteetan zehar aldaketa klimatikoaren alderdi guztietan jarri zuen arreta munduak; oinarri zientifikoak, soluzioak, neurriak hartzeko borondate politikoa eta klimaren alde egiteko jarraibide argiak.

Egiaztatuta dago mundu mailako negutegi efektuko gasen isurketa oso urrun dagoela bizitzeko moduko klima bat mantentzeko behar den mailatik. Eta aldaketa klimatikoak gehien kaltetzen dituen herrialde zaurgarrienei ematen zaien laguntzak gutxiegi izaten jarraitzen du. Dena den, COP26k oinarri berriak eskaintzen ditu Pariseko Hitzarmenaren ezarpena finkatzeko, munduari etorkizun jasangarriago baterantz bideratzea ahalbidetzen dion ekintzen bidez, karbono-isurpen txikiekin.

Nazio Batuek argitaratutako informazioaren arabera[1], COP26ren emaitza nagusiak hauekin lotuta daude:

- Larritasuna onartzea. Herrialdeek berretsi egin zuten Pariseko Hitzarmenaren helburua: munduko batez besteko tenperatura industriaren aurreko maila baino 2 °C gehiagora mugatzea eta 1,5 °C ez gainditzeko ahaleginak egitea. Gainera, "larrituta eta oso kezkatuta" zeudela adierazi zuten, orain arte tenperatura 1,1 °C areagotzea eragin duten giza jarduerak direla eta. "Igoera horren eraginak, dagoeneko, eskualde guztietan nabari dira. Eta gaur egungo karbonoaren aurrekontuak, Pariseko Hitzarmeneko jomugako tenperatura lortzera bideratuta daudenak, ez dira oso handinahiak…".

- Klimaren aldeko ekintzak indartzea. "Hamarkada kritiko honetan" lan egitea premiazkoa dela azpimarratu zuten herrialdeek. Karbono dioxidoaren isurpenak % 45 murriztu behar dira, mendearen erdialderako emisio garbiak zero izan daitezen lortzeko. Dena den, gaur egungo plan klimatikoak eta nazio mailan zehaztutako ekarpenak ez dira oso handinahiak. Hortaz, datorren urtean (eta ez 2025ean, aurreikusi bezala) plan nazional indartsuagoak aurkeztera estutu ditu herrialdeak Klimaren aldeko Glasgowko Hitzarmenak.

[1] https://www.un.org/es/climatechange/cop26

– Erregai fosilak alde batera uztea. Glasgowko erabakirik polemikoena hartu zuten, ziur asko: herrialdeek xedapen bat onartu zuten eta, bertan, karbonoa energia-iturri gisa murrizteko eskatu zuten, baita erregai fosilei pixkanaka "eraginkorrak ez diren" laguntzak kentzeko ere. Bi alderdi horiek funtsezkoak dira, baina ordura arte ez ziren inoiz ere modu esplizituan aipatu aldaketa klimatikoari buruzko Nazio Batuen elkarrizketetan hartutako erabakietan, nahiz eta berotze globalaren eragile nagusiak ikatza, petrolioa eta gasa izan.

– Klimaren aldeko ekintzak finantzatzea. Garapen-bidean dauden herrialdeei urtean 100.000 milioi euro emateko promesa bete gabe iritsi ziren herrialde garatuak Glasgowra. Herrialde garatuek adierazi zutenez, 2023. urtean finantzaketa-helburu hori beteko den konfiantza dute.

– Egokitzeko laguntza areagotzea. Garapen-bidean dauden herrialdeei laguntzeko finantzazioa bikoizteko eskatzen du Glasgowko Hitzarmenak, aldaketa klimatikoaren eraginen aurrean egokitzeko eta erresilientzia indartzeko. Hala, ez dira herrialde behartsuenek behar dituzten funts guztiak estaltzen, baina nabarmen hazten da finantzazioa, bizitzak eta bizirauteko bitartekoak babesteko. Gaur egun, klimarekin lotutako funtsen % 25 inguru bakarrik ordezkatzen du (funtsen % 75 negutegi efektuko gasen isurpenak murrizteko teknologia berdeetara bideratzen dira).

– Pariseko Hitzarmenaren aplikazio-arauak osatzea. Pariseko Hitzarmenaren aplikazio-arauekin lotuta zintzilik zeuden gaiei buruzko akordio batera iritsi ziren herrialdeak. Horien artean daude karbonoaren merkatuekin lotutako arauak. Emisioen helburuak lortzeko zailtasunak dituzten herrialdeei aukera ematen diete arau horiek euren helburuak gainditu dituzten beste estatu batzuei haien murrizketak erosteko.

– Galerei eta kalteei arreta jartzea. Aldaketa klimatikoak gero eta gehiago eragiten die pertsonei, bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeetan. Hori kontuan hartuta, sare bat indartzea adostu zuten herrialdeek (Santiagoko Sarea), arrisku klimatikoei aurre egiteko laguntza teknikoa, ezagutzak eta baliabideak ematen dituzten hornitzaileekin lotzeko herrialde zaurgarriak. Gainera, "Glasgowko elkarrizketa" berri bat aurkeztu zuten, aldaketa klimatikoaren eragin kaltegarriekin lotutako galerak eta kalteak saihestera, murriztera eta horiei aurre egitera bideratutako jarduerak finantzatzeko akordioak lantzeko.

- Hitzarmen berriak. COP26 bileran beste hitzarmen asko ere itxi zituzten (herrialdeen parte-hartze ezberdinekin). Hitzarmen horien aplikazioak oso eragin positiboak izan ditzake arlo hauetan: basoak (galera gelditu eta leheneratzea), metanoa (emisioak mugatzea), kotxeak (zero emisioko kotxeak 2040rako nazioartean eta 2035erako merkatu liderretan), ikatza (laguntza finantzarioa Hegoafrikari, mundu mailan karbono emisioen indize altuena duen elektrizitate -ekoizleari, ikatza albo batera uzten joateko) eta, azkenik, finantzaketa pribatua (finantza-erakunde pribatuek eta banku zentralek mugimenduak iragarri zituzten milaka milioi dolar mundu mailan zero emisio garbi lortzeko helburura bideratzeko).

EBren energia-politikari dagokionez, hiru helburu nagusi izaten jarraitzen du: hornikuntza-segurtasuna, lehiakortasuna eta jasangarritasuna. Dena den, 2030erako, EBk gai izan beharko luke honakoetarako:

- Negutegi-efektuko gasen emisioak 2030erako, gutxienez, % 55 murrizteko, eta 2050erako % 80-95, 1990eko mailarekin alderatuta.
- Energiaren % 32, gutxienez, berriztagarria izatea.
- Eta eraginkortasun energetikoa, gutxienez, % 32,5 hobetzea lortzea.

Halaber, 2021eko apirilean, Europako Kontseiluak eta Parlamentuak behin-behineko akordio bat erdietsi zuten Klimari buruzko Europako Legearen gainean. 2030erako emisioak gutxitzeko helburua legealdian lortzea da haren helburua. EBko ministroek 2021eko ekainean ezarri zuten akordioa.

Anbizio klimatiko handiago honek, EBko industria eraldatu beharraz gain, honakoak lortuko ditu:

- Hazkunde ekonomiko jasangarria bultzatzea.
- Enplegua sortzea.
- Osasun eta ingurumen arloan onurak sortzea EBko hiritarrentzat.
- EBko ekonomiak mundu mailan duen epe luzeko lehiakortasunari laguntzea, teknologia ekologikoen arloko berrikuntza sustatzearen bidez.

Mundu mailan estrategikotzat jotzen zen lehendik ere aldaketa klimatikoaren aurka egitea eta politika energetiko eraginkorrak garatzea, baina 2022ko otsailean lehertutako Errusia-Ukraina gerra-gatazkak oso egoera konplikatuan kokatu du Europa, aintzat hartuta atzerriko gasarekiko mendekotasuna duela eta, bereziki, Errusiakoarena. Gertaera horrek agerian utzi du EBk aurrerapauso gutxi eman dituela eztabaida “zaharrei” dagokienez. Eztabaida horiek aipatzen zuten EBk zaurgarritasun ekonomikoa zuela etorkizuneko prezioen igoeraren aurrean, bereziki, gasaren eta petrolioaren prezioen igoeren aurrean. Era berean, energiaren inportazioekiko mendekotasuna aipatzen zen; gainera, sarritan, politikoki ezegonkorrak diren eremuetatik ekartzen da energia.

## 2.1. EAEKO BALANTZE ENERGETIKOA

Energiaren Euskal Erakundea (EEE) arduratzen da jarraian aurkeztuko dugun balantze energetikoa egiteaz[1]. Eurostaten metodologia erabiltzen du EAEko balantze energetikoa kalkulatzeko. Balantze horretan, energia mota ezberdinen jarraipen xehea azaltzen da: jatorria (erauzketa edo inportazioa), eraldaketa eta kontsumoa. Hala, balantzea bi ataletan bereizten da. Lehenengo atalean (1-5 puntuak) lehen mailako iturrien energia-hornikuntza jasotzen da, erauzketak (1. Lehen mailako energiaren ekoizpena) eta inportazioak (2. Sarrera guztiak) kontuan izanda. Kopuru horien guztizkoa stocken mugimenduarekin (3), esportazioekin (4) eta itsas-garraioarekin (5) doitzen du, eta emaitza barne-kontsumorako eskuragarri dagoen energia da (6. puntua=1+2+3-4-5). Balantzearen bigarren atalak energiaren eraldaketa-prozesuak eta kontsumorako erabilgarri dagoen energia hartzen ditu kontuan (12=6-7+8+9-10-11), konbertsio-prozesuen (7 eta 8), trukeen (9), energia-sektorearen kontsumoaren (10) eta galeren (11) ostean. Kontsumorako eskuragarri dagoen energiari (12) azken kontsumo ez-energetikoa (13) kendu ondoren, azken kontsumo energetikoa geratzen zaigu (14).

[1] 2021eko balantzea, behin-behineko datuak.



LABORAL kutxa

**50. koadroa EAEko balantze energetikoa (2021)**

*(ktep)*

| Sektorea | Ikatza eta deribatuak | Petrolioa eta deribatuak | Gas naturala | Energia deribatuak | Energia berriztaga -rriak | Energia elektrikoa | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Lehen mailako energiaren ekoizpena | 0 | 0 | 0 | 20 | 701 | 0 | 722 |
| 2. Sarrera guztiak | 0 | 7.795 | 3.726 | 0 | 4 | 696 | 12.247 |
| 3. Stocken mugimendua | 0 | -280 | 218 | 0 | 0 | 0 | -62 |
| 4. Irteera guztiak | 0 | 4.708 | 1.706 | 0 | 66 | 0 | 6.480 |
| 5. Bunkerrak (itsas-garraioa) | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| *6. Barne-kontsumo gordin erabilgarria | 26 | 2.808 | 2.237 | 20 | 639 | 696 | 6.427 |
| 7. Eraldaketara sarrerak | 0 | 7.652 | 1.006 | 8 | 144 | 0 | 8.810 |
| 7.1. Zentral termoelektrikoak | 0 | 126 | 622 | 0 | 42 | 0 | 791 |
| 7.2. Kogenerazioa | 0 | 10 | 303 | 8 | 102 | 0 | 422 |
| 7.3. Koke-fabrikak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 7.4. Findegiak | 0 | 7.516 | 81 | 0 | 0 | 0 | 7.597 |
| 8. Eraldaketatik irteerak | 0 | 7.430 | 0 | 0 | 0 | 566 | 7.995 |
| 8.1. Zentral termoelektrikoak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 336 | 336 |
| 8.2. Kogenerazioa | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 230 | 230 |
| 8.3. Koke-fabrikak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 8.4. Findegiak | 0 | 7.430 | 0 | 0 | 0 | 0 | 7.430 |
| 9. Trukeak | 0 | 0 | 0 | 0 | -88 | 88 | 0 |
| 10. Sektore energetikoaren kontsumoa | 0 | 249 | 165 | 0 | 0 | 94 | 507 |
| 11. Garraio eta banaketako galerak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 44 | 44 |
| **12. Azken kontsumorako erabilgarri dagoena | 26 | 2.336 | 1.067 | 12 | 408 | 1.212 | 5.062 |
| 13. Azken kontsumo ez-energetikoa | 0 | 139 | 0 | 0 | 0 | 0 | 139 |
| *****14. Azken kontsumo energetikoa** | 26 | 2.198 | 1.067 | 12 | 408 | 1.212 | 4.923 |

*Behin-behineko datuak.*
** 6=1+2+3-4-5*
*** 12=6-7+8+9-10-11*
****14=12-13*
*Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EEE)*

EEEk emandako informazioaren arabera eta 2021eko balantze energetikoaren (behin -behineko datuak) arabera, EAEko energiaren amaierako kontsumoa 4.923 mila tepekoa izan zen (2020arekiko +% 10,1); ia 2019ko maila bera (-% 1,3). Barne-kontsumo gordina, berriz, 6.427 mila tepekoa izan zen, aurreko urtetik % 9,2 hazita; hala, adierazle hau ere pandemiaren aurreko balioetara hurbildu zen (2019arekiko -% 1,6).

**51. koadroa EAEko azken kontsumoa energia moten arabera**

*(ktep)*

| Sektorea | 2019 | 2020 | 2021 | % ∆ 21/20 |
|---|---|---|---|---|
| Ikatza eta deribatuak | 23 | 17 | 26 | 52,9 |
| Petrolioa eta deribatuak | 2.285 | 2.036 | 2.198 | 8,0 |
| Gas naturala | 1.030 | 914 | 1.067 | 16,7 |
| Energia deribatuak | 20 | 13 | 12 | -7,7 |
| Energia berriztagarriak | 410 | 382 | 408 | 6,8 |
| Energia elektrikoa | 1.221 | 1.110 | 1.212 | 9,2 |
| **Guztira** | **4.989** | **4.472** | **4.923** | **10,1** |

*Iturria: EEE. Geuk egina.*

Informazioa energia-iturriaren arabera banatuta, ia energia-iturri guztien kontsumoak egin zuen gora. Espero zen hori gertatzea, 2020an pandemiaren bilakaeragatik mugatuta egon ondoren, "nolabaiteko normaltasuna" berreskuratu zelako. Salbuespen bakarra energia deribatuak izan ziren, 2021ean % 7,7 murriztu baitziren; hala, are gehiago murriztu zen guztizkoaren gaineko ekarpena (guztizkoaren % 0,2). Energia deribatuen antzeko partaidetza izan zuten ikatza eta deribatuek (% 0,5), baina haien kontsumoak gora egin zuen (+% 52,9). Gainerako energia guztiek ere gora egin zuten. Hala, ekitaldia urte arteko hazkundeekin amaitu zuten honakoek: petrolioa eta deribatuak (% 44,6ko partaidetza eta +% 8), energia elektrikoa (% 24,6 eta +% 9,2), gas naturala (% 21,7 eta +% 16,7) eta, azkenik, energia berriztagarriak (% 8,3 eta +% 6,8). Hala, alde gutxi izan ziren 2019arekin alderatuta, energia mota bakoitzaren kontsumoari zein pisu erlatiboari dagokienez.

**11. grafikoa EAEko azken kontsumoa energia moten arabera (ktep)**




*Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EEE)*

Informazioan sakonduta eta energiaren sektorekako kontsumoari dagokionez, 2021ean industria (% 37,2) eta garraioa (% 41,6) mantendu ziren energiaren kontsumitzaile handi gisa. Lehenengoak urte arteko hazkunde nabarmen handiagoa izan zuen (+% 19,5) bigarrenak baino (+% 5,9). Etxebizitzen sektoreak, % 12,3ko pisu erlatiboarekin, % 6,3 areagotu zuen energia-kontsumoa. Zerbitzuen sektoreak, berriz, ekarpen txikiagoa izan arren (% 8,1), apur bat areagotu zituen haren balioak (+% 1,3). Lehen sektoreak baino ez zuen beheranzko aldakuntza izan (-% 9,3), kontsumo oso txikia izan arren (% 0,8). Gauzak hala, eta 2019arekin alderatuta, industria-ehunak eta etxebizitzen ehunak bakarrik gainditu zuten covidaren aurreko maila.

**52. koadroa EAEko azken kontsumoa sektoreen arabera**

*(ktep)*

| Sektorea | 2019 | 2020 | 2021 | % ∆ 21/20 |
|---|---|---|---|---|
| Lehen sektorea | 42 | 43 | 39 | -9,3 |
| Industria | 1.753 | 1.531 | 1.830 | 19,5 |
| Garraioa | 2.165 | 1.935 | 2.050 | 5,9 |
| Zerbitzuak | 436 | 395 | 400 | 1,3 |
| Etxebizitzak | 593 | 568 | 604 | 6,3 |
| **Guztira** | **4.989** | **4.472** | **4.923** | **10,1** |

*Iturria: EEE. Geuk egina.*

Halaber, eta aurreko txostenetan azaldu bezala, 2030erako Euskadiko Energia Estrategiak zehaztuko du datozen urteetarako euskal politika energetikoa. Hala, EEEk argitaratutako informazioaren arabera, estrategia horren epe luzerako helburua geroz eta jasangarriagoa izango den sistema energetikoa lortzea da: lehiakorragoa, hornidura bermatzen duena eta karbono maila baxukoa.

Horretarako, hauek dira 2050erako finkatutako helburuak:

- Euskadiren negutegi-efektuko gasen emisioak, gutxienez, % 40 murriztea 2030erako, eta % 80 2050erako, 2005eko mailarekin alderatuta.
- 2050erako, amaierako kontsumoaren % 40 energia berriztagarria izatea.
- Euskal Herriaren klima-aldaketarekiko erresilientzia bermatzea.

Klima-aldaketaren arintzea eta negutegi-efektuko gasen emisioen murrizketa hain zuzen ere aurreztearekin, energia-eraginkortasunarekin eta energia berriztagarriekin oso lotuta dagoenez, 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategiak hurrengo jarraibideak ezartzen ditu Estrategia Energetikoaren helburuak lortzeko:

- Energia-eraginkortasuna hobetzea eta eskari energetikoa kudeatzea.
- Energia berriztagarriak sustatzea.
- Hirietan energia-eraginkortasun eta energia berriztagarriekin lotutako irizpideak sustatzea, "emisiorik gabeko eraikuntzara" hurbiltzeko.
- Intermodalitatea eta negutegi-efektuko gas gutxien isurtzen dituzten garraiobideak sustatzea.
- Petrolioaren deribatuen kontsumoa ordezkatzea.
- Karbono baxuko eredu energetiko baten alde egitea.
- Emisiorik gabeko garraiorako aurrerapausoak ematea.
- Lehen sektorearen emisioak murriztea.
- Berrikuntza sustatzea, eta ezagutza zientifikoa hobetzea eta transferitzea.

Halaber, Euskadiko Energia Estrategiaren ildotik eta Europako Itun Berdearekin (European Green Deal) bat eginez, 2021eko maiatzean Basque Green Deal aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak: garapen ekonomiko justu eta jasangarri baterako euskal eredua. Europar Batasunak proposatutako Europako Itun Berdearen espiritua berreskuratzean datza, 2050ean Europar Batasunak neutraltasun klimatikoa lortzea ahalbidetuko duen hazkunde-estrategia baten gisa.

Eusko Jaurlaritzak argitaratutako informazioaren arabera, Basque Green Dealek barne hartzen ditu emisioak murrizteko eta energia berriztagarriak sortzeko helburuak, baina ez da alderdi horietara mugatzen. Izan ere, industria eta teknologia palanka nagusi dituen eredu ekonomiko gisa jaio da. Hortaz, zientzia, teknologia, ekonomia zirkularra, industria, trantsizio energetikoa edo elikagaien katea bera helburu baten bueltan lerrokatzen dira: garapen justua eta jasangarria.

Hauek dira Europako Itun Berdearen oinarri nagusiekin lerrokatutako lan-ildoak:

- Energia berriztagarrien aldeko apustua:
    - Ekiola, energia fotovoltaikorako kooperatibak sortzea
    - Energia berriztagarriei buruzko Lurralde Plan Sektoriala
    - Parke eoliko berriak
    - Gauzatu Energia programa, Euskadiko udalerrietan energia berrien arloko inbertsioak finantzatzeko
- Industria jasangarria:
    - Ekonomia Zirkularrari buruzko Hub-a
    - Basque Ecodesign Centre
    - Karbono-aztarna murrizteko tresna

- Mugikortasun jasangarria
  - Hidrogenoaren euskal estrategia
  - Energy Intelligence Center
  - Basquevolt gigafaktoria
  - Mubi, elektromugikortasunaren zentroa
  - Renove plana
- Biodibertsitatea babestea eta kutsadura murriztea
  - Ondare Naturalaren gaineko legea
  - Uraren, lurzoruaren eta airearen ingurumen-adierazleak hobetzea
  - 2030erako saneamendu-sistemaren % 100 hasita izatea
- "Landatik mahairako" elikadura
  - Nekazaritza ekologikoari eta KM0 produktuei laguntzeko programak
  - Elikagaiak alferrik galtzearen aurkako egitasmoa
  - Landa-garapenari eta kostaldeko garapenari laguntzea
  - Belaunaldien arteko erreleboa lehen sektorean

Halaber, eredu honek araudi-testuinguru berri bat behar du. Hala, Eusko Jaurlaritza lanean ari da dagoeneko Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Lege berri bat egiteko, Europako zuzentarauekin eta adierazleekin lerrokatuta egongo dena. Honakoak dira lege honen helburu nagusiak:

- 2050ari begira, negutegi efektuko gasen isurpenean neutraltasuna lortzeko esparru juridikoa ezartzea eta klimarekiko erresilienteagoa den lurralde bat lortzeko aurrerapausoak ematea, aldaketa klimatikoaren arloko mekanismoak eta erakundearteko koordinazio-organoak sortuz.
- Aldaketa klimatikoaren inpaktuekiko egokitzapena sustatzea, euskal industria bultzatzeko garapen teknologikoa aprobetxatuz, hala, helburu klimatikoak lotuta egon daitezen estrategia energetikoarekin eta industria-politikarekin.

## 2.2. ENERGIA ELEKTRIKOA

Kapituluarekin jarraituz eta energia elektrikoaren eskariaren bilakaerari dagokionez[1], 2021ean Estatu mailan gora egin zuten erreferentziazko bi adierazleek, ekoizpenak eta kontsumoak, 2020a pandemiak markatuta egon ondoren.

Hala, Estatuko energia elektrikoaren eskaria % 2,5 hazi zen, bi urtez jarraian behera egin ondoren, eta 256.482 GWh-ra iritsi zen. Hala ere, 2019ko maila baino % 3,1 beherago kokatu zen. Bestetik, 259.905 GWh ekoitzi ziren, aurreko urtean baino % 3,4 gehiago; hala, pandemiaren aurreko balioetara hurbildu zen (-% 0,4).

Sorkuntzaren aldetik, energia berriztagarrien ekoizpenak marka historikoa eskuratu zuen 121.371 GWh ekoitzita. Hala, 2021ean, sortutako energia elektriko guztiaren % 46,7 izan zen berriztagarria (2020an % 44). Energia eolikoa izan zen energia-iturri elektriko nagusia, eta % 23,3ko partaidetza izan zuen Espainian ekoitzitako guztizkoaren gainean. Energia hidraulikoak (% 11,4) eta eguzki-energia fotovoltaikoak (% 8,1) ere pisu erlatibo nabarmenak izan zituzten. Beste berriztagarri batzuek, hondakin berriztagarriek eta eguzki-energia termikoak osatu zuten energia berdeen ekoizpena. Horiek askoz ere presentzia txikiagoa izan zuten ekoizpen-mapan (guztizkoaren % 1,8, % 0,3 eta % 1,8, hurrenez hurren)

Energia ez berriztagarrien[2] guztizko ekoizpena 138.534 GWh-koa izan zen 2021ean. Horien artean, energia nuklearraren ekarpena (guztizkoaren % 22) nabarmentzen da, baita ziklo konbinatuarena ere (% 17,5). Halaber, kogenerazioak nolabaiteko pisu erlatiboa izan zuen (% 10), eta gainerako energiek ordezkaritza txikia izan zuten, hala nola ikatzak (% 1,9), turbina ponpaketak eta diesel motorrek (% 1 biek) edo hondakin ez berriztagarriek (% 0,9).

Azterketa hori bera Euskal Herrira ekarrita, eta Iberdrolak emandako informazioaren arabera, 2021ean nabarmen hazi zen energia elektrikoaren ekoizpena, eta 2.562,6 milioi kWh-ra iritsi zen (+% 51,7). Guztizko kontsumoa, berriz, egonkor mantendu zen (+% 1), eta 7.160,1 milioi kWh-ra iritsi zen. Horren guztiaren ondorioz, auto-sorkuntzaren tasa orain arteko altuena izan zen (% 35,8).

---

[1] Red Eléctrica de Españaren urteko txostena, 2021.
[2] Ez-berriztagarriak: turbina-ponpaketa, nuklearra, ikatza, fuel-olioa/gasa, ziklo konbinatua, kogenerazioa eta hondakin ez-berriztagarriak.

**53. koadroa** **Energia elektrikoaren ekoizpena eta eskaria Euskal Herrian**

*(M kWh)*

| Urtea | Ekoizpena, guztira Hidraulikoa 1 | Termikoa 2 | Eolikoa 3 | Mini hidraulikoa 4 | Kogenerazioa 5 | Guztira: (1+2+3+4+5) 6 | Kontsumo guztia 7 | Auto-sorkuntzaren % (6/7) x 100 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2014 | 321,0 | 0 | 328,5 | 12,4 | 350,7 | 1.012,5 | 7.583,7 | 13,35 |
| 2015 | 351,3 | 0 | 326,2 | 10,5 | 438,0 | 1.126,2 | 7.707,5 | 14,61 |
| 2016 | 306,3 | 0 | 319,1 | 11,8 | 422,8 | 1.060,0 | 7.742,7 | 13,69 |
| 2017 | 225,5 | 141,1 | 311,9 | 9,0 | 402,7 | 1.090,3 | 7.578,5 | 14,39 |
| 2018 | 360,9 | 0 | 315,7 | 12,5 | 457,7 | 1.146,8 | 7.930,7 | 14,46 |
| 2019 | 340,1 | 106,3 | 312,8 | 10,5 | 459,8 | 1.229,5 | 7.189,7 | 17,10 |
| 2020 | 283,3 | 664,5 | 347,9 | 23,8 | 370,0 | 1.689,6 | 7.090,5 | 23,80 |
| 2021 | 297,7 | 1.267,9 | 555,1 | 26,6 | 415,3 | 2.562,6 | 7.160,1 | 35,8 |

*Iturria: Iberdrola. Geuk egina.*

Informazioan sakonduta, ikus daiteke energia elektrikoaren guztizko ekoizpenak gora egin zuela, energia mota guztiek izan zutelako urte arteko hazkundea. Dena den, energia eolikoaren (+% 59,6) eta, batez ere, termikoaren (+% 90,8) bilakaera nabarmendu zen gainerakoen aurretik. Testuinguru horretan, energia hidraulikoak (+% 5,1), mini-hidraulikoak (+% 11,8) eta kogenerazioak (+% 12,2) ere bilakaera positiboa izan zuten, baina hirurek pisua galdu zuten ekoizpen-mapan (% 11,6, % 1 eta % 16,2; eta 2020an, berriz, % 16,8, % 1,4 eta % 21,9). Aldiz, pisua irabazi zuten energia termikoak (% 49,5; eta 2020an % 39,3) eta, neurri txikiagoan, eolikoak (% 21,7; eta 2020an % 20,6).

Zentzu horretan, nabarmendu beharrekoa da agertoki-aldaketa horren arrazoia Bizkaiko igoera esponentziala izan zela energia termikoaren kasuan (+% 2.914), eta Nafarroako igoera handia energia eolikoaren kasuan (+% 622). Gainerako energiei dagokienez, erregistratutako aldakuntzak ezberdinak izan ziren lurraldearen arabera. Hala, ekarpenak oso ezberdinak izan ziren energia motaren eta aztertutako eremu geografikoaren arabera. Gipuzkoan energia eolikoa kokatu zen ekoizpenaren buruan (% 66,7), eta kogenerazioa (% 18,1) eta mini-hidraulikoa (% 15,2) kokatu ziren jarraian. Araban kogenerazioak ordezkatu zuen ekoizpen-jardueraren erdia baino gehiago (% 57,4). Jarraian energia eolikoa (% 24,7) eta hidraulikoa (% 16,3) kokatu ziren eta, azkenik, mini-hidraulikoa (% 1,6). Bizkaian, berriz, energia termikoari zegokion ekoizpenaren % 80,7. Distantzia handira sailkatu ziren energia hidraulikoa (% 13,8) eta eolikoa (% 5,5). Nafarroako ekoizpen-mapari dagokionez, energia termikoari zegokion pisu handiena (% 56,2). Jarraian energia eolikoa zegoen (% 33,2) eta, azkenik, presentzia txikiagoarekin, energia hidraulikoa (% 6,8) eta kogenerazioa (% 3,8).

Kontsumoari dagokionez, azken bi ekitaldietan ez bezala, apur bat igo zen eskaria (+% 1) eta 7.160,1 milioi kWh-n kokatu zen, batez ere, Arabako hazkundeari esker (+% 9,5). Gipuzkoako hazkundea txikiagoa izan zen (+% 1,6). Nafarroan (-% 1,7) eta Bizkaian (-% 0,7), berriz, kontsumoak behera egin zuen 2021ean.

**54. koadroa** **Energia elektrikoaren kontsumo garbia lurraldearen arabera**

*(M kWh)*

| Lurraldea | 2018 | 2019 | 2020 | 2021(1) | % Δ 21/20 |
|---|---|---|---|---|---|
| Araba | 1.295,2 | 1.166,3 | 977,1 | 1.069,6 | 9,5 |
| Bizkaia | 2.753,2 | 2.410,1 | 2.532,1 | 2.514,8 | -0,7 |
| Gipuzkoa | 1.912,2 | 1.710,8 | 1.661,4 | 1.687,6 | 1,6 |
| EAE | 5.960,5 | 5.287,3 | 5.170,6 | 5.272,0 | 2,0 |
| Nafarroa | 1.970,2 | 1.902,4 | 1.919,9 | 1.888,1 | -1,7 |
| Euskal Herria(2) | 7.930,7 | 7.189,7 | 7.090,5 | 7.160,1 | 1,0 |

*(1): Behin-behineko datuak.*

*(2): Fakturatutako energia elektrikoa. Ez da kontuan hartzen Iberdrola ez den beste hornitzailerik, ezta Iberdrolaren kontsumoa ere.*

*Iturria: Iberdrola.*

Kapituluarekin amaitzeko, Iberdrola Taldearen bilakaerari buruzko informazioa aurkeztuko dugu jarraian. Enpresa horrek ia 100 milioi pertsonari hornitzen die energia hamarnaka herrialdetan, eta ia 40.000 langile ditu.

Hala, eta enpresak argitaratutako datuak aintzat hartuta, 2021ean Iberdrola Taldeak inoiz baino etekin garbi handiagoa eskuratu zuen, 3.885 milioi eurokoa, 2020an erregistratutakoa baino % 8 handiagoa. Taldearen EBITDA-k urte arteko % 20ko hazkundea izan zuen, gutxi gorabehera, eta 12.000 milioi eurotik gertu kokatu zen. Batez ere, sareen eta energia berriztagarrien bilakaerak eragin zuen hazkunde hori.

Halaber, inbertsioen atalean ere inoizko zifrarik altuena eskuratu zuen konpainiak 2021ean, eta 10.000 milioi eurora gerturatu ziren (barne hartzen ditu 409 milioi euroko inbertsio ez organikoak). Inbertsioen % 85 Sareen Negoziora eta sorkuntza berriztagarriko jardueretara bideratu zituzten. 2021eko ekitaldi osoan zehar, Taldeak hainbat transakzio itxi zituen “Greenfield M&A” estrategiaren baitan, inbertsio organikoko planaren osagarri gisa, energia berriztagarrietan duten mundu mailako presentzia hedatzeko helburuz eta epe ertainean eta epe luzean hazkundea ziurtatzeko helburuz.

Inbertsioen jomugako merkatuei dagokienez, 2021ean Estatu Batuak (guztizkoaren % 28) eta Espainia (% 24) nabarmendu ziren, taldeak horietan egin baitzituen inbertsio nagusiak, 2.736 milioi euro eta 2.386 milioi euro, hurrenez hurren.

Merkatu energetikoei gogor eragin dieten azken gertakari geopolitikoei dagokionez, Taldeak adierazi du, batetik, inbertsio-ahalegina mantentzeko konpromisoa duela, Ukrainako gerraren inpaktu ekonomikoa ahultzeko. Eta, bestetik, adierazi du prezio finkoko bezeroekin dituen egungo kontratuetan prezioa mantentzeko erabakia hartu duela; zazpi milioi familiak dute mota horretako kontratua entitatearekin.

# 3. SIDERURGIA

## 3.1. IKUSPEGI OROKORRA

Osasun-krisiak mundu osoan izan zuen eztandak inflexio-puntu bat markatu zuen martxa ekonomikoan, eta pandemiaren ondorioak arintzeko inoiz ikusi gabeko neurriak hartu ziren. Siderurgiaren moduko industrientzat benetan zalantzazkoa zen egoera batean, txertoen banaketaren azelerazioak eta jardueren pixkanakako irekierak arnas pixka bat eman zioten sektoreari, erresilientzia-gaitasuna agerian utziz. Eskariaren gorakadak eta balio-kate osoko inbentario urrien mailak lehengaien prezioen igoera ekarri zuten, antzemandako arazo operatibo eta logistikoak neurri batean atzean utzita. Egoera horri, aurrekaririk gabeko energia-kostuen igoera gehitu zitzaion, eta horrek produkzio-geldialdia ere eragin zuen konpainia askoren artean, oso sektore elektrointentsiboa baita.

Ildo horretan, EBk neurri sorta bat onartu zuen, besteak beste, Europako altzairua babesteko neurriak 3 urtez luzatzea, Europako industriaren bideragarritasuna eta enpleguari eustea bermatzeko eta Txinak egindako presio komertzial gero eta handiagoaren aurrean babes handiagoa izateko. Bitartean, AEBk lasaitu egin zituen Trumpen administrazioan ezarritako muga-zergen neurriak.

Ingurumen-jasangarritasunaren esparruan, Batasuneko agintarien jarduera-ildo nagusia industriaren berotegi-efektuko gasen emisio-maila altuen inpaktua arintzera bideratu da, klima-aldaketaren aurkako borrokan EBren lidergo-posizioa indartzen duen «*Fit for 55*» plan berria ezartzea bultzatuz.

Era berean, eta automobilgintzako ingeniaritza-programa handinahiaren barruan (Steel E-Motive programa), joan den ekitaldian World Auto Steel[1]-en bidez abiarazita, garrantzi handiko aurrerapenak egin dira, hala nola tentsio handiko bateria-pakete bat edo segurtasun-egitura bat garatzea ibilgailu elektriko eta autonomoentzat, hori guztia mugikortasun jasangarriagoa sustatzeko.

Siderurgia-jarduerak gorabehera handiak izan baditu ere, urtearen balantzea positiboa izan zen, produkzio- eta eskaera-maila errekorra izan baitzen, besteak beste, eraikuntzaren eta ekipo-ondasunen sektoreen dinamismoak eraginda –Altzairu-eskatzaile handienetako bat–, beste bezero nagusietako bat, automobilgintza, erdi-eroaleen krisiaren eraginpean geratu zen bitartean.

---

[1]World Steel Associationen baitako automobilgintzako taldea da WorldAutoSteel, mundu osoko 21 altzairu ekoizle handik osatua.

Testuinguru horretan, eta World Steel Association-ek argitaratutako datuen arabera, 2021ean altzairu gordinaren ekoizpena, maila globalean, 1.951,2 milioi tonara igo zen, industrian erregistro historiko bat markatuz eta urte arteko % 3,8ko hazkundea eraginez.

Altzairuaren ekoizpenaren bilakaeraren banaketa geografikoari dagokionez, saldo positibo orokorra izan zuen, Txinarentzat izan ezik, azken urtean % 3 murriztu baitzen haren ekoizpen-bolumena. Asiako erraldoia, aleazioaren fabrikazioan mundu mailan aitzindaria, 1.032,8 milioi tonarekin (guztizkoaren % 52,9), ekoizpenean izandako etenaldi etengabeek ahuldu zuten, «Zero COVID» politika aplikatzearen ondorioz. Aldiz, tradizio siderurgiko handia duten beste herrialde batzuek, hala nola AEBk, Kanadak, Japoniak edo Indiak, hazkunde handiekin itxi zuten urtea (% 18, % 15,7 eta % 17,8, hurrenez hurren) eta 100-120 milioi tona inguruko ekoizpen-mailarekin. Europan, datuen irakurketa antzekoa da: Alemania (40,1 milioi tona), Italia (24,4), Espainia (14,2) eta Frantzia (13,9) bi digituen gainetik hazi dira; ez ordea Erresuma Batua (7,2 milioi tona, % 1,4), kaltetuta geratu baitzen Europar Batasunarekiko aldebiko akordioak hoztu egin zirelako, Erresuma Batuak proiektu komunitarioa bertan behera utzi ondoren.

**55. koadroa Altzairu gordinaren ekoizpena**

| Herrialdea | 2020 | | | 2021 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | M Tm | % Δ | % | M Tm | % Δ | % |
| AEB eta Kanada | 83,7 | -16,9 | 4,5 | 98,8 | 18,0 | 5,1 |
| Japonia | 83,2 | -16,2 | 4,4 | 96,3 | 15,7 | 4,9 |
| Txina | 1.064,7 | 7,0 | 56,7 | 1.032,8 | -3,0 | 52,9 |
| India | 100,3 | -10,0 | 5,3 | 118,2 | 17,8 | 6,1 |
| Alemania | 35,7 | -9,8 | 1,9 | 40,1 | 12,3 | 2,1 |
| Italia | 20,4 | -12,1 | 1,1 | 24,4 | 19,6 | 1,3 |
| Frantzia | 11,6 | -19,4 | 0,6 | 13,9 | 19,8 | 0,7 |
| Erresuma Batua | 7,1 | -1,4 | 0,4 | 7,2 | 1,4 | 0,4 |
| Espainia | 11,0 | -19,1 | 0,6 | 14,2 | 29,1 | 0,7 |
| EB-27* | 127,9 | -11,7 | 6,8 | 147,6 | 15,4 | 7,6 |
| **Mundu osoa** | **1.879,4** | **0,3** | **100,0** | **1.951,2** | **3,8** | **100,0** |

*(*): 2020ko otsailaren 1era arte, EB-28.*
*Iturria: World Steel Association (lehen IISI).*

Ekitaldian ez zen aldaketa nabarmenik izan altzairu gordinaren munduko produkzio-maparen osaeran, eta Asiako kontinentea izan zen berriro ere liderra, guztizkoaren ia hiru laurdeneko jarduera-bolumenarekin (% 71,9). Europako ekonomia handien agregatuak munduko produkzioaren % 13,2 osatu zuen, eta Amerikak, berriz, guztizkoaren % 8,4.

**12. grafikoa Altzairuaren mundu mailako ekoizpena**




*Iturria: World Steel Association.*

Produktu siderurgikoen munduko kontsumoari dagokionez, oro har, eskaria % 2,7 handitu zen, eta 1.833,7 milioi tona kontsumitu ziren. Aztertutako herrialdeen artean, eta ekoizpen-eremuan bezala, Txina dago altzairuaren kontsumo globalaren buruan, % 5,4ko jaitsierarekin itxi baitzuen ikasturtea eta 1.000 milioi tonako mugaren azpitik kokatu baitzen; gainerako herrialdeen ezaugarria, berriz, dinamismo handia izan zen, eta urtea % 10etik gorako hazkundeekin amaitu zuten; beraz, oro har, azken hamarkadako eskaera-maila handiena izan zen.

**56. koadroa Siderurgia-produktuen kontsumoa**

| | 2020 | | | 2021 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | M Tm | % Δ | % | M Tm | % Δ | % |
| AEB eta Kanada | 92,2 | -16,6 | 5,2 | 111,7 | 21,1 | 6,1 |
| Japonia | 52,6 | -16,8 | 2,9 | 57,5 | 9,3 | 3,1 |
| Txina | 1.006,3 | 10,4 | 56,4 | 952,0 | -5,4 | 51,9 |
| India | 89,3 | -13,0 | 5,0 | 106,1 | 18,8 | 5,8 |
| Alemania | 31,2 | -11,1 | 1,7 | 35,2 | 12,8 | 1,9 |
| Italia | 20,4 | -18,4 | 1,1 | 25,9 | 27,0 | 1,4 |
| Frantzia | 12,2 | -16,4 | 0,7 | 13,9 | 13,9 | 0,8 |
| Erresuma Batua | 9,0 | -11,8 | 0,5 | 10,8 | 20,0 | 0,6 |
| Espainia | 11,6 | -12,1 | 0,6 | 13,1 | 12,9 | 0,7 |
| EB-27* | 131,0 | -11,5 | 7,3 | 152,8 | 16,6 | 8,3 |
| **Mundu osoa** | **1.784,9** | **0,5** | **100,0** | **1.833,7** | **2,7** | **100,0** |

*(*): 2020ko otsailaren 1era arte, EB-28.*
*Iturria: World Steel Association (lehen IISI).*

## 3.2. ESPAINIAKO SIDERURGIA

Industria-jardueraren suspertzeak eta altzairua kontsumitzen duten sektoreen eskariaren bultzadak markatutako ekitaldi batean, nahiz eta urtearen azken zatian moteldu egin zen energia-prezioen etengabeko igoeraren ondorioz, Espainiako siderurgia-sektoreak hazkunde-bideari heldu zion berriro, 2020. urtea oso gogorra izan ondoren. Zehazki, Estatuko siderurgiaren magnitude nagusiek sektorearen martxa ona berretsi zuten, ekoizpen-bolumenaren gorakada nabarmenarekin (% 27,6), esportazioarekin (% 18,6), inportazioarekin (% 12) eta kontsumoarekin (% 11,9), ia zifra guztietan Covid aurreko balioak gainditzen dituzten datuekin.

**57. koadroa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak***

*(mila Tm)*

| Urtea | Produkzioa | Esportazioa | Inportazioa | Ageriko kontsumoa |
|---|---|---|---|---|
| 2014 | 14.280 | 9.969 | 8.307 | 11.840 |
| 2015 | 14.888 | 9.628 | 8.989 | 13.043 |
| 2016 | 13.658 | 9.415 | 9.447 | 12.957 |
| 2017 | 14.441 | 9.710 | 9.972 | 13.258 |
| 2018 | 14.320 | 9.649 | 10.761 | 13.838 |
| 2019 | 13.588 | 9.494 | 10.286 | 13.236 |
| 2020 | 11.141 | 7.974 | 8.988 | 11.691 |
| 2021 | 14.220 | 9.461 | 10.070 | 13.081 |

*(*): Ekoizpena eta ageriko kontsumoa altzairu gordinari dagozkio, eta kanpo-merkataritza, berriz, siderurgia-produktu guztiei.*

*Iturria: Unesid.*

Balio absolutuei dagokienez, 14.220 mila tona altzairu gordin ekoitzi zituzten, aurreko ekitaldian baino askoz ere handiagoa (3.079 mila tona gehiago). Edonola ere 2007an lortutako balio haietatik oso urrun (4.779 mila tona gutxiago), urte hartan erregistratu baitzuten altzairuaren inoizko ekoizpen mailarik altuena. Kanpo-merkataritzari dagokionez, munduko ekonomiak apurka-apurka zabaltzeak mesede egin zion jarduerari, eta Espainiako altzairuaren esportazioak 9.461 mila tonakoak izan ziren (1.487 mila tona gehiago), krisiaren aurreko zifrak gaindituz (2007an baino 1.657 mila tona gehiago); inportazioak, berriz, 10.070 mila tonakoak dira (2020an baino +1.082 mila tona, eta 2007an baino -4.968 tona). Azkenik, produktuaren itxurazko kontsumoa 13.081 mila tonakoa izan zen, hau da, jaitsiera nabarmena 2007ko balioekin alderatuta (10.320 mila tona gutxiago).



LABORAL kutxa

**13. grafikoa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak**




*Iturria: Unesid.*

Inportatutako lehengaien bilakaerari buruzko informazioa oso baldintzatuta egon zen zenbait faktoreren konbinazioa zela eta: indartzen hasi zen eskaria (ekonomia berriz irekitzea) eta eskaintzaren eskasia (hornikuntza-kateko itoguneak eta inbentarioen murrizketa). Horren ondorioz, lehengai industrialen prezioetan aurrekaririk ez duen rally inflazionista sortu zen. Testuinguru horretan, azpimarratzekoa da koke bihur daitekeen harrikatzaren kontsumoak izandako gorakada ikusgarria (1.421 mila tona, % 294,2), biurteko bat minimoetan egin ondoren. Igoera nabarmena izan zen burdina-mineralean eta pelletetan (% 58,5) eta txatarrean (% 21,8) ere. Prezioei dagokienez, inflazioaren testuinguru garrantzitsu batean, burdina-meak eta txatarrak maximo historikoak markatzea lortu zuten (155,3 eta 444,3 euro/Tn, hurrenez hurren), koke bihur daitekeen harrikatzaren igoera handiarekin (177,9 euro/Tn.).

**58. koadroa Inportatutako lehengaiak**

| Urtea | Koke bihur daitekeen harrikatza | | Burdin-mea eta pelleta | | Txatarra | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kontsumoa (m Tm) | Prezioa (euro/Tm) | Kontsumoa (m Tm) | Prezioa (euro/Tm) | Kontsumoa (m Tm) | Prezioa (euro/Tm) |
| 2012 | 2.260 | 174,0 | 4.506 | 99,9 | 4.346 | 372,9 |
| 2013 | 2.528 | 128,9 | 6.259 | 102,9 | 4.925 | 318,1 |
| 2014 | 1.632 | 105,2 | 5.699 | 73,7 | 4.960 | 331,7 |
| 2015 | 1.720 | 102,0 | 6.288 | 50,7 | 5.144 | 292,2 |
| 2016 | 1.768 | 107,5 | 6.010 | 52,0 | 4.004 | 263,5 |
| 2017 | 1.767 | 207,3 | 6.572 | 76,3 | 4.242 | 321,0 |
| 2018 | 1.621 | 191,7 | 6.556 | 74,5 | 4.040 | 345,1 |
| 2019 | 780 | 188,2 | 5.557 | 91,6 | 4.024 | 304,4 |
| 2020 | 360 | 118,8 | 3.564 | 101,9 | 3.385 | 298,0 |
| 2021 | 1.421 | 177,9 | 5.650 | 155,3 | 4.122 | 444,3 |
| Hazkundea % 20-21 | 294,2 | 49,7 | 58,5 | 52,4 | 21,8 | 49,1 |

*Iturria: Unesid.*

Industria siderurgiko nazionalaren hobekuntzak ez zuen islarik izan sektoreari atxikitako enpleguan, plantillen beheranzko berregokitzapena luzatu baitzuen. Guztira 20.864 enplegatu zeuden UNESIDeko kide diren enpresetan, hau da, aurreko ekitaldian baino % 1,5 gutxiago (322 lanpostu gutxiago). Ildo horretan, ekoizpen-jarduera berreskuratzeak eta aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen figura aplikatzeak enpleguaren beherakada txikiagoa ekarri zuten, baina, aldiz, energia-kostuen garestitzearen eragin negatiboa jasan zuen; kasu batzuetan, ekoizpen-lantegi asko gelditu egin ziren. Horri dagokionez, administrazio publikoek hainbat neurri jarri zituzten abian argiaren prezio neurrigabeari erantzuteko, hala nola gasaren muga, baina oraingoz ez du nahi zuen eraginik izan.

Hala eta guztiz ere, industriak urrats sendoak ematen jarraitzen du modernizazioan, berrikuntzan eta emakumeen kolektiboa sektore siderurgikoan pixkanaka txertatzen. Ildo horretan, UNESIDek bultzatutako "Altzairuzko emakumeak" programak "*funtsezko zeregina du talentua erakartzeko eta, zehatzago, talentu femeninoa edo STEM emakumeak industria-inguruneetara eta, zehazki, altzairugintza-sektorera erakartzeko –historikoki, postu teknikoak gizonezkoen generoarekin lotuta egon dira–, eta bertan, sarrera-arrapala bultzatu behar da.*"

Era berean, altzairuaren industria etengabe ari da aldatzen, eta, beraz, digitalizazioari edo 4.0 industria-iraultzari eta antzeko beste gai batzuei aurre egin behar die. Horregatik, Europako Batzordeak ESSA (European Steel Skills Agenda) proiektua onartzea bultzatu zuen, 4 milioi euroko aurrekontuarekin, kualifikazio handiagoko eta merkatuan eskatzen diren IKT konpetentzia berriekin guztiz bat datorren eskulana bermatzeko.

Trantsizio ekologikoaren erronka da industriak jorratu beharreko ardatz nagusietako bat. Azken urteotan, azkartu egin da ekonomia zirkularreko estrategiekin bat datorren ekoizpen-eredu iraunkorragoa bermatzera bideratutako neurri berrien onarpena eta abiaraztea. 2021ean, burdingintza nazionalak 11,1 milioi tona txatar birziklatu zituen, altzairu berri bihurtuta, azken bosturtekoan izan den kopururik handiena. Era berean, aurrerapen nabarmenak egin dira hondakinen eta uraren erabilera eraginkorrean.

Azkenik, eta Europako funtsen hedapenari eta lan-erreformari eta beste erregulazio-gai batzuei begira, UNESIDek deitoratu egiten du funts horien ezarpenaren moteltasuna, gai burokratikoak direla medio, eta akordioak arinago hartzea eskatu du, "*inbertsioa errazteko egonkortasun erregulatzailea izateko, ezinbestekoa izango baita hurrengo urteetan, enpresei aurreikuspenak egiteko eta erabaki informatuak hartzeko aukera emanez.*"

## 3.3. EUSKAL SIDERURGIA

Txertaketa-kanpainaren hedapen zabalak –batez ere ekonomia garatuetan– siderurgia-industriaren susperraldia eragin zuen, eta altzairua kontsumitzen duten sektore nagusien eskaria pixkanaka suspertu zen, bai maila globalean, bai nazionalean. Horri esker, euskal siderurgia-enpresak suspertu egin ziren, bereziki nazioarteko erakusketa garrantzitsua dutenak.

Erakunde eta elkarte sektorial nagusien aurreikuspenen arabera, susperraldia neurrizkoa izango da ekitaldi honetan, ziurgabetasun handiko testuinguru batean. Testuinguru horretan, inflazio iraunkorra dago, energiaren eta ikatzaren prezio altuekin, eta hornidura-katean arazoak daude. Horrek funtsezko sektoreei eragiten die, hala nola automobilgintzaren industriari, hain zuzen ere ustez, are gehiago atzeratuko da automobilgintzaren sektorearen susperraldia.

**14. grafikoa Euskal Herriko siderurgia-establezimendu nagusien kokapena**




*Iturria: Geuk egina.*

Arreta euskal siderurgia-enpresen kanpo-merkataritzan jarrita, eta sektorearen jarduera osoan ikusitakoaren ildotik, 2021ean egindako esportazioen bolumena 2.243,2 mila tonakoa izan zen, aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino % 24,7 handiagoa. Estatu osoan (% 18,6) baino bilakaera zertxobait hobea izan zen. Diruari dagokionez, atzerrirako salmentak 2.162,6 mila eurokoak izan ziren (% 70,2); hala, azken hamarkadan lortutako zifra handiena lortu zuten.

Inportazioek joera horri eutsi zioten, bai bolumenari, bai balioari dagokienez. Kanpora egindako erosketen guztizko zenbatekoa 3.409,4 mila tonakoa izan zen (% 23,4), eta hazkunde handiagoa izan zuen dirutan (% 71,3), inportatutako altzairu gordinaren 2.441,3 mila euroko saldora iritsi baitzen.

**59. koadroa EAEko siderurgia-industriaren kanpo-merkataritza**

| Urtea | Inportazioak | | Esportazioak | |
|---|---|---|---|---|
| | m Tm | M euro | m Tm | M euro |
| 2012 | 3.371,8 | 1.829,7 | 2.348,5 | 1.843,6 |
| 2013 | 4.085,3 | 1.856,8 | 2.340,8 | 1.690,9 |
| 2014 | 4.330,5 | 1.951,4 | 2.791,9 | 1.852,9 |
| 2015 | 4.595,9 | 1.879,8 | 2.810,3 | 1.745,3 |
| 2016 | 3.375,0 | 1.467,3 | 2.436,7 | 1.406,0 |
| 2017 | 3.540,5 | 1.831,4 | 2.114,2 | 1.497,4 |
| 2018 | 3.430,9 | 2.012,2 | 2.237,3 | 1.829,6 |
| 2019 | 3.493,3 | 1.933,6 | 2.187,7 | 1.663,0 |
| 2020 | 2.763,0 | 1.425,2 | 1.798,1 | 1.270,6 |
| 2021 | 3.409,4 | 2.441,3 | 2.243,2 | 2.162,6 |

*Iturria: Eusko Jaurlaritza, Ogasun eta Ekonomia Saila eta Eustat.*

Siderurgia-jarduerak duen garrantzi ekonomikoa Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) Industria Kontuetan emandako informazioarekin osatu dugu. Aurreko txostenetan bezala, garrantzitsua da kontuan izatea estatistika-sailkapena ezin dela zuzenean alderatu kapitulu honetan jasotakoarekin; izan ere, hau Eustatek merkataritza eta/edo produktuen sailkapen baten aurrean egiten duen A-86 sailkapena da, eta siderurgia integralari, ez-integralari, altzairu bereziei eta soldadurarik gabeko hodiei dagokie.

Osasun-krisiaren eztandak eta horrek eragindako neurri murriztaileek gogor markatutako ekitaldi batean espero zitekeen bezala, pandemiaren zabalkundea komunitate nahiz nazio mailan geldiarazteko, sektore ekonomikoen talde handi bat kaltetu zen jardueraren paralisiaren ondorioz, eta horrek industriaren magnitude nagusietan izan zuen eragina. Eskuragarri dauden azken datuen arabera, galdategien eta forjaketa eta estanpazioaren arloko siderurgia-industriak 2020an 1.392 mila euroko BEGa (Balio Erantsi Gordina) sortu zuen, 2019an baino % 14,5 baxuagoa. Ingeniaritza metalikoaren eta metalezko artikuluen jarduerek proportzio berean egin zuten behera, 2.185 mila euroko ekarpenarekin; beraz, sektore siderometalurgikoko jarduera 3.577 mila eurokoa izango zela zenbatetsi da, euskal BEG industrialaren guztizkoaren % 27,4, guztira 66.666 pertsonari emanez enplegua.

**60. koadroa** **Siderurgia-jarduerak EAEko industriari egindako ekarpena**

| Kontzeptua | BEGa (M euro) | | | Enplegua (pertsona kopurua) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2018 | 2019 | 2020 | 2018 | 2019 | 2020 |
| Siderurgia eta burdinarekin egiten ez den metalurgia | 860 | 729 | 603 | 9.799 | 9.753 | 9.296 |
| Galdaketa | 408 | 430 | 359 | 6.963 | 6.963 | 6.532 |
| Metalezko eraikuntzak | 451 | 487 | 429 | 9.951 | 10.016 | 9.444 |
| Forjaketa eta estanpazioa | 471 | 468 | 429 | 7.185 | 7.057 | 6.757 |
| Ingeniaritza mekanikoa | 1.163 | 1.154 | 965 | 20.229 | 20.610 | 20.161 |
| Metalezko artikuluak | 934 | 917 | 791 | 15.408 | 15.339 | 14.476 |
| **Multzo siderometalurgikoa, guztira** | **4.286** | **4.185** | **3.577** | **69.535** | **69.738** | **66.666** |
| **Industria** | **15.084** | **15.295** | **13.073** | **206.349** | **207.004** | **200.699** |
| Partaidetza (%) | | | | | | |
| – *Siderurgia/Industria* | *5,7* | *4,8* | *4,6* | *4,7* | *4,7* | *4,6* |
| – *Siderometalurgia/Industria* | *28,4* | *27,4* | *27,4* | *33,7* | *33,7* | *33,2* |

*Iturria: Industria Kontuak (Eustat).*

## Altzairu arrunta eta altzairu bereziak

Aurreko ekitaldian hondoa jo ondoren, 2021ean altzairu mota nagusien eskariaren zati handi bat berreskuratu zen. Altzairuaren itxurazko kontsumoa 13.081 mila tonara iritsi zen (% 11,9), produktu-kategoria guztiek izandako portaera onak eraginda, eta bereziki nabarmena izan zen lingoteen eta amaitugabeen gorakada (% 121,2); horien ekarpena oso txikia izan zen kontsumitutako guztizkorako (% 3,6). Era berean, produktu lau hotz eta estalien (% 6,5), produktu lau beroen (% 8,2) eta produktu luze amaituen (% 17,3) eskaerak ondo egin zuen aurrera, 2020ko datuekin alderatuta.

**61. koadroa** **Altzairuaren ageriko kontsumoa, produktuen arabera**

*(m Tm)*

| Produktuak | Ageriko kontsumoa | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2019 | 2020 | 2021 | % ∆ 21/20 |
| Amaitutako produktu motaren arabera* | | | | |
| – Lingoteak eta amaitugabeak | 293 | 215 | 477 | 121,2 |
| – Produktu luze amaituak | 3.196 | 2.841 | 3.334 | 17,3 |
| – Produktu lau beroak | 5.007 | 4.241 | 4.591 | 8,2 |
| – Produktu lau hotzak eta estaliak | 4.740 | 4.392 | 4.679 | 6,5 |

*(*): Altzairu arruntak eta bereziak barne.*

*Iturria: Unesid.*

Bestalde, beroan ijeztutako produktuen ekoizpenari dagokionez, altzairua eskatzen duten sektoreei mesede egiten dien giroan, bi segmentuek beren jardueraren bultzada irmoa aurreikusten dute. Zehazkiago, produktu lauek % 40 inguruko igoera izan zuten, 4.686 mila tonako ekoizpen-bolumenarekin, eta horrek covid aurreko balioak gainditzea ere lortu zuen. Produktu luzeei dagokienez, 8.847 mila tona ekoitzita (% 16,1), segmentu guztien portaera dinamikoa erakusten du, trenbideetako materialarena izan ezik, ekitaldian % 1,9 jaitsi baitzen.

**62. koadroa Beroan ijeztutako produktuen ekoizpena***

*(m Tm)*

| Produktuak | Produkzioa | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2019 | 2020 | 2021 | % ∆ 21/20 |
| **Beroan ijeztutako produktu luzeak** | **8.906** | **7.619** | **8.847** | **16,1** |
| – Trenbideetako materiala | 273 | 256 | 251 | -1,9 |
| – Egiturazko profilak | 2.662 | 2.360 | 2.668 | 13,0 |
| – Alanbre-burdin biribildua | 2.929 | 2.525 | 3.029 | 20,0 |
| – Hormigoirako biribilak | 1.510 | 1.343 | 1.464 | 9,0 |
| – Beste merkataritza-profil batzuk | 1.532 | 1.135 | 1.435 | 26,5 |
| **Beroan ijeztutako produktu lauak** | **4.391** | **3.352** | **4.686** | **39,8** |

*(*): Bi altzairu-kalitateak barne: altzairu arrunta eta altzairu berezia.*
*Iturria: Unesid.*

*CIE Automotive*

Euskal siderurgiako enpresarik garrantzitsuenetakoa da CIE Automotive, eta produktu lauek osatzen duten haren jardueraren ardatz nagusia. 2002an sortu zen enpresa, Afora (Acerías y Forjas de Azkoitia) eta Egaña enpresek bat egin zutenean, eta automobilgintzako osagaien eta azpimultzoen fabrikazioan erreferentziazko talde bilakatu zen. Konpainiak adierazten duenaren arabera, egungo testuinguru globalizatuan eskaintza multiteknologiko eraginkorra egitean oinarritzen da haren estrategia, eta horretarako, ekoizpen-zentro ugari ditu, honako herrialdeetan presentzia eraginkorrarekin: Amerika (Brasil, AEB eta Mexiko), Europa (Espainia, Frantzia, Portugal, Alemania, Italia, Txekiar Errepublika, Errumania, Lituania, Errusia eta Eslovakia), Asia (India eta Txina) eta Afrika (Maroko). Guztira, 24.472 lanpostu sortzen ditu.

Taldearen 2021eko memoriaren arabera, konpainiaren jardueraren bilakaeran eragin handia izan zuten bata bestearen atzetik gertatutako kutsatze-boladen eta hornidura-kateko tentsioen larritzearen ondorioz sortutako etengabeko geldialdiek eta ekoizpen-doikuntzek. Hala eta guztiz ere, konpainiak krisiaren gorabeherei eustea lortu zuen, bere negozio-eredu bereziari eta bezero-zorro zabal eta dibertsifikatuari esker. Horren ondorioz, 3.269,1 milioi euro fakturatu zituen (% 13,4) eta 574,7 milioi euroko (% 33,3) EBITDA lortu zuen, 267,5 milioi euroko irabazi garbiarekin, hau da, aurreko ekitaldiko emaitza positiboak % 44 handitu zituen.

Konpainiaren ezohiko jarduera 2025eko Plan Estrategiko Operatibo berriaren onarpenarekin berretsi zen. Plan hori CIEk iraunkortasunaren eta mugikortasun elektrikorako trantsizioaren arloan aurre egin behar dien erronkei erantzutera bideratuta dago, eta enpresaren beraren hitzetan, horrek desapalankamendu adierazgarria eta 1.500 milioi euroko inbertsioa ahalbidetuko du hazkunde inorganikoko eragiketei ekiteko. Hala, plan berriak funtsezko 4 ardatz izango ditu, besteak beste, elektrifikazioa, 4.0 industria, erosotasuna eta nazioartekotzea.

Ingurumenari dagokionez, lehengaiak, ura eta energia ekoizpen-prozesuan eraginkortasunez erabiltzearen eta karbono-aztarna murriztearen aldeko apustua sendotu da, Parisko 2015eko Klimaren Goi-bileran eta Nazio Batuen 2030 Agendan lortutako akordioei argi eta garbi erreferentzia eginez. Ildo horretan, helburuak betetzen direla bermatzeko hainbat neurri jarri dira abian, hala nola ingurumena kudeatzeko sistemak ezartzea, operatibaren ingurumen-aztarnaren irismena kalkulatzea edo klima-aldaketaren arriskuen mapa bat egitea.

Sortutako krisiari erantzuteko Europako Batzordeak Next Generation EU funtsak onartu izanak aukera paregabea eman du trantsizio digitalaren eta ekologikoaren eremuan. Besteak beste, I+G, IT edo eraginkortasun energetikoaren esparruko ekintza batzuen bidez gauzatu da. Hori alde batera utzita, konpainiak, inguruko beste eragile eta erakunde batzuekin lankidetzan, hainbat proiektu abiarazi ditu bateria elektrikoen (Basquevolt) edo hidrogenodun propultsio-sistemen (FCEV) balio-katean.

### Soldadurarik gabeko hodiak

Unesidek soldadurarik gabeko hodien kanpo-merkataritzari buruz emandako informazioaren arabera, urtearen balantzea nahiko ona izan zen, krisiaren aurreko balioak lortu ez ziren arren. 2021ean, soldadurarik gabeko hodien atzerrirako salmenten bolumena 195 mila tonakoa izan zen (% 12,8); kanpoko erosketen kasuan, berriz, 121 mila tonakoa izan zen (% 10,9).

**63. koadroa Soldadurarik gabeko hodien kanpo-merkataritza**

*(m Tm)*

| Urtea | Esportazioa | Inportazioa |
|---|---|---|
| 2012 | 260 | 149 |
| 2013 | 223 | 106 |
| 2014 | 275 | 120 |
| 2015 | 226 | 113 |
| 2016 | 196 | 117 |
| 2017 | 271 | 130 |
| 2018 | 280 | 170 |
| 2019 | 228 | 159 |
| 2020 | 173 | 109 |
| 2021 | 195 | 121 |

*Iturria: Unesid.*

Soldadurarik gabeko hodien nazioarteko merkataritzak aldaketak izan zituen esportatzaileen mapan; hala ere, Europar Batasuna izan zen berriz ere nagusi, 76 mila tona esportatuta (% 31,8), eta, ondoren, distantzia jakin batera, AEB, 53 mila tonako esportazio-bolumenera iritsita (% 60,5). Europan, nabarmentzekoa da merkataritzako bazkide nagusiek, hala nola Italiak (% 71,8), Alemaniak (% 35,4) eta Frantziak (% 58,3) erakutsitako portaera ona.

Asiako merkatuak portaera desberdina izan zuen, Txinak galdu egin zuen euskal esportazioen helmuga gisa zuen lehen postua (-% 77,4) eta aldiz, Hego Koreak (% 11,8) eta Arabiar Emirerri Batuek (% 5,4) gora egin zuten, eta negatiboan itxi zuten ekitaldia garrantzi handiko beste eskualde batzuek ere, hala nola Singapurrek (-% 22,7), Saudi Arabiak (-% 56) edo Bahreinek (-% 68,3).

**64. koadroa Soldadurarik gabeko hodien esportazioak, helmugako herrialdeen arabera**

*(m Tm)*

| Eremua | 2019 | 2020 | 2021 | % | % ∆ 21/20 |
|---|---|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | 66,1 | 33,0 | 53,0 | 31,9 | 60,5 |
| Italia | 15,8 | 12,9 | 22,1 | 13,3 | 71,8 |
| Alemania | 17,2 | 15,6 | 21,1 | 12,7 | 35,4 |
| Frantzia | 15,0 | 8,8 | 13,9 | 8,4 | 58,3 |
| Hego Korea | 6,8 | 5,5 | 6,2 | 3,7 | 11,8 |
| Arabiar Emirerri Batuak | 6,9 | 4,7 | 5,0 | 3,0 | 5,4 |
| Portugal | 3,5 | 3,4 | 4,4 | 2,6 | 26,4 |
| Herbehereak | 6,6 | 7,2 | 3,3 | 2,0 | -54,0 |
| Erresuma Batua | 6,6 | 3,2 | 2,3 | 1,4 | -27,4 |
| Singapur | 3,0 | 2,7 | 2,1 | 1,2 | -22,7 |
| Txina | 8,1 | 8,4 | 1,9 | 1,1 | -77,4 |
| Australia | 2,5 | 2,6 | 1,4 | 0,9 | -44,6 |
| Saudi Arabia | 4,6 | 2,9 | 1,3 | 0,8 | -56,0 |
| Hungaria | 1,5 | 1,8 | 1,2 | 0,7 | -29,8 |
| Indonesia | 2,1 | 2,3 | 1,2 | 0,7 | -49,8 |
| Bahrain | 2,3 | 3,4 | 1,1 | 0,7 | -68,3 |
| EB-28 guztira | 71,2 | 57,6 | 76,0 | 45,7 | 31,8 |
| **Mundua, guztira** | **200,6** | **147,5** | **166,1** | **100,0** | **12,6** |

*Iturria: Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren kanpo-merkataritzako estatistikak.*

*Tubacex*

Azken bi ekitaldiek mugarri bat ezarri dute Tubacex Taldearen negoziorako; izan ere, bere bezero diren sektore nagusien (oil & gas, powergen, industria kimikoa, eta abar) mundu-jardueraren paralisiak erabat hondatu zuen negozioa. Horrekin batera, minimoetara iritsitako eskaera-zorro batek eta Araban duen produkzio-lantegi nagusian greba 8 hilabete baino gehiagoz luzatu izanak markatu zuten altzairu herdoilgaitzaren soldadurarik gabeko hodiak egiten dituen enpresarentzat benetan zaila izan zen urtea. 2022-2025 Plan Estrategiko berriaren osaerak hazteko eta dibertsifikatzeko bide berriak aurkezten ditu energia berriztagarrien eremuan, eta horiek ezinbestekoak dira negozioaren bideragarritasuna mantentzeko etorkizunari begira.

Konpainiak aurkeztutako emaitzen arabera, benetan gorabeheratsua izan zen ekitaldi batean, salmentak 365 milioi eurokoak izan ziren, 2020an erregistratutakoa (479,6 milioi euro) baino % 23,9 gutxiago. Bestalde, ustiapeneko irabazi gordina (EBITDA) erdira jaitsi zen (-% 54), eta 17,5 milioi euroko zifra lortu zuen. Maila positiboan, nabarmendu behar da emaitzak hobetu egin zirela hiruhilekoz hiruhileko, jarduera ekonomikoa leheneratu ahala, eta laugarren hiruhilekoan energia-kostu handiek izan zuten inpaktuagatik izan ez balitz, emaitzen goranzko ibilbide handiagoa espero zitekeela.



LABORAL kutxa

Tubacexen salmenten banaketa geografikoak Asia mantendu zuen merkatu nagusi gisa, gas-sektorearekiko esposizio handiagoarekin bat etorriz; hain zuzen ere, taldeko salmenta guztien % 40 bildu zuen. Europa bigarren lekuan finkatu zen salmenten % 35ekin, eta AEBk eta Kanadak ekarpena % 20ra igo zuten, zilbor-heste erako hodien segmentuaren eta segmentu nuklearraren zorroak izandako portaera onak bultzatuta.

**15. grafikoa Salmenten banaketa geografikoa 2021ean**




*Iturria: Tubacex taldea.*

*Tubos Reunidos*

Aurreko ekitaldian Tubos Reunidos taldeak jasandako egoera zailak jarraipena izan zuen 2021ean; izan ere, elektrizitatearen eta lehengaien prezioen etengabeko igoerak, hornidura-katearen etenak eta osasun-krisiaren iraunkortasunak kolpe gogorra eman zieten ekitaldian negozioa berreskuratzeko itxaropenei.

Testuinguru zail horretan, konpainiaren izaera estrategikoa eta eskualdeko enplegagarritasunean eta jarduera esportatzailean duen garrantzia nabarmendu ziren. Hori dela eta, Tubos Reunidosek, joan den urtarrilean Enpresa Estrategikoen Kaudimenari Laguntzeko Funtsaren (FASEE) Kontseilu Kudeatzaileari krisiaren ondorioak arintzeko laguntza ekonomiko publikoa eskatu ondoren, hark partaidetza-mailegu bat eman zion, SEPIren 112,8 milioi eurokoa, negozioa berriztagarriei eta hidrogenoari lotutako proiektuetara bultzatzeko eta finantza-egitura berrantolatzeko.

Taldearen emaitzek koiuntura horren eragina jasotzen dute; izan ere, negozio-zifra zertxobait igo zen 2020aren aldean (% 0,5) 243 milioi eurora iritsi arte, 12,9 milioi euroko ustiapen-emaitza positiboarekin, aurreko ekitaldiko egoera kaltegarria iraulita (-137,5 milioi euro).

Bere jarduera garatzeko, Taldeak bost ekoizpen-lantegi ditu guztira, Euskal Herrian eta AEBn banatuta, 2 altzairutegi integratu eta 2 I+G zentro. Guztira 1.347 langileri eman zien enplegua, aurreko ekitaldian baino % 4,4 gehiagori (57 langile gehiago), neurri batean 2020an enplegua aldi baterako erregulatzeko aktibatutako espedienteen zenbatekoa murriztearen ondorioz.

Salmenten osaketa orokorrari dagokionez, aipatu behar da konpainiak 10 bulego komertzial dituela guztira, eta 18 herrialdetan dituela agentzia komertzialak: Horiei esker, 63 herrialdeei eskaintzen die zerbitzu egokia, mundu osoan banatuta dituen bezeroekin. Merkatu nazionalera egindako salmentak fakturazioaren guztizkoaren % 12 izan ziren, eta gainerako % 88a atzerrira esportatu zuen. Horien artean, Europar Batasunak bildu zuen salmenten erdia (% 51), eta, ondoren, distantzia nabarmenera, AEB eta Kanada (% 25), Ekialde Urruna (% 19), Ekialde Hurbila eta Afrika (% 3) zeuden.

**65. koadroa Negozio arloak eta enpresa-unitateak. Tubos Reunidos taldea. 2021**

| Negozio arloak | Unitateak/establezimenduak |
|---|---|
| Soldadurarik gabeko altzairuzko hodiak | Tubos Reunidos Industrial (Amurrio, Araba)<br>Productos Tubulares (Trapagaran, Bizkaia)<br>Acecsa (Iruñea, Nafarroa) |
| Hariztaketa | Tubos Reunidos Premium Threads (Iruña Oka, Araba) |
| Akabera eta hariztaketa | RDT, Inc (Beasley, Texas) |
| Banaketa | Madrid (Madril, Espainia)<br>Bilbao (Bilbo, Espainia)<br>TR América (Houston, Ameriketako Estatu Batuak)<br>TR Beijing Office (Pekin, Txina)<br>TR Francia (Metz, Frantzia)<br>TR Italia (Milan, Italia)<br>TR Jakarta (Cilandak-Jakarta, Indonesia)<br>TR Dubai Office (Dubai)<br>TR Services Prefabricados (Cádiz, Espainia)<br>TR Services Projects (Bartzelona, Espainia)<br>TR Seúl (Hego Korea)<br>TR México (Mexico)<br>TR Colombia (Kolonbia) |

*Iturria: Urteko Txostena-Jardueren Memoria. Tubos Reunidos taldea*

# 4. ONTZIGINTZA

## 4.1. NAZIOARTEKO EGOERA

2021ean, nazioartean jarduera berreskuratzearekin batera, munduko itsas-merkataritza % 3,3 hazi zen eta 11.982 milioi tona merkantzia garraiatzera iritsi ziren. Hala, ia berreskuratu egin zuten pandemiaren aurreko maila.

Halaber, itsasontzi berrien mundu mailako kontratazioa ere hazi egin zen 2021ean, eta ia bikoiztu egin zuen aurreko ekitaldian eskuratutako bolumena (pandemiaren inpaktuak neurri handian baldintzatua eta kaltetua): 124,7 milioi tona pisu hil, eta 2020an 68 milioi tona pisu hil. Horrekin lotuta, nabarmentzekoa da 2021ean egindako enkarguen maila 2013az geroztiko erregistrorik altuena dela. Aitzitik, itsasontzi berrien entregak -% 2,8 murriztu ziren, 86,6 milioi tona pisu hilera arte.

**66. koadroa Munduko merkataritza-flota**

*(MGT)*

| Urtea | Tonak | % Δ |
|---|---|---|
| 2011 | 910,1 | 8,3 |
| 2012 | 991,2 | 8,9 |
| 2013 | 1.027,0 | 3,6 |
| 2014 | 1.067,1 | 3,9 |
| 2015 | 1.107,8 | 3,8 |
| 2016 | 1.148,0 | 3,6 |
| 2017 | 1.182,8 | 3,0 |
| 2018 | 1.221,3 | 3,3 |
| 2019 | 1.263,0 | 3,4 |
| 2020 | 1.324,7 | 4,9 |
| 2021 | 1.353,8 | 2,2 |

*Iturria: ANAVE.*

Munduko merkataritzako ontzidiari dagokionez, 2021ean 1.353,8 milioi tona gordin eskuratu ziren, hau da, urte arteko hazkundea % 2,2koa izan zen, aurreko ekitaldietako hazkundeak baino apur bat baxuagoa (ia % 3ko hazkundeak 2017, 2018 eta 2019an, eta ia % 5ekoa 2020an).

Arreta ontzidiaren jatorrizko herrialdeetan jarrita, ohiko moduan, Panama izan zen aktore nagusia, eta munduko merkataritzako ontzidiaren % 16,4 bildu zuen 2021ean. Distantzia apur batera, Liberia eta Marshall Uharteak izan ziren hurrengoak, % 13,6ko eta % 11,8ko partaidetzekin, hurrenez hurren. Europa mailan Malta nabarmendu zen, guztizkoaren gaineko % 5,9ko kuotarekin. Hala, alde handiarekin gainditu zituen Greziaren (% 2,7) eta Zipreren (% 1,7) pisu erlatiboak.

**67. koadroa** **Munduko merkataritza-flota, jatorrizko herrialdearen arabera**

| Herrialdea | 2019 | | 2020 | | 2021 | | % ∆ 21/20 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | MGT | % | MGT | % | MGT | % | |
| Panama | 210,0 | 16,6 | 211,4 | 16,0 | 221,4 | 16,4 | 4,8 |
| Liberia | 151,9 | 12,0 | 171,6 | 13,0 | 184,0 | 13,6 | 7,2 |
| Marshall Uharteak | 145,1 | 11,5 | 155,4 | 11,7 | 159,6 | 11,8 | 2,7 |
| Hong Kong | 124,2 | 9,8 | 127,3 | 9,6 | 128,8 | 9,5 | 1,1 |
| Singapur | 82,5 | 6,5 | 89,0 | 6,7 | 84,9 | 6,3 | -4,6 |
| Malta | 74,3 | 5,9 | 79,9 | 6,0 | 79,4 | 5,9 | -0,6 |
| Txina | 50,7 | 4,0 | 54,1 | 4,1 | 57,2 | 4,2 | 5,7 |
| Bahamak | 54,9 | 4,3 | 55,0 | 4,2 | 53,3 | 3,9 | -3,1 |
| Grezia | 39,7 | 3,1 | 39,5 | 3,0 | 37,1 | 2,7 | -6,1 |
| Japonia | 27,2 | 2,2 | 28,7 | 2,2 | 27,9 | 2,1 | -2,8 |
| Zipre | 22,0 | 1,7 | 22,5 | 1,7 | 22,5 | 1,7 | -0,1 |
| Danimarka | 20,2 | 1,6 | 21,2 | 1,6 | 22,1 | 1,6 | 4,3 |
| Erresuma Batua | 31,7 | 2,5 | 24,5 | 1,8 | 21,3 | 1,6 | -12,8 |
| Indonesia | 15,4 | 1,2 | 16,6 | 1,3 | 18,0 | 1,3 | 8,5 |
| Portugal | 14,7 | 1,2 | 15,5 | 1,2 | 17,1 | 1,3 | 10,1 |
| Norvegia | 14,9 | 1,2 | 16,3 | 1,2 | 16,8 | 1,2 | 3,5 |
| Italia | 14,1 | 1,1 | 14,0 | 1,1 | 13,7 | 1,0 | -2,6 |
| Hego Korea | 9,4 | 0,7 | 10,9 | 0,8 | 12,2 | 0,9 | 11,9 |
| Bermuda | 10,2 | 0,8 | 9,7 | 0,7 | 10,2 | 0,8 | 4,5 |
| India | 9,5 | 0,7 | 9,2 | 0,7 | 9,1 | 0,7 | -0,9 |
| Estatu Batuak | 8,6 | 0,7 | 9,0 | 0,7 | 8,9 | 0,7 | -1,6 |
| Alemania | 7,7 | 0,6 | 7,7 | 0,6 | 7,0 | 0,5 | -8,7 |
| Frantzia | 5,8 | 0,5 | 6,0 | 0,5 | 6,3 | 0,5 | 4,7 |
| Holanda | 6,8 | 0,5 | 6,5 | 0,5 | 6,1 | 0,4 | -6,8 |
| Belgika | 5,9 | 0,5 | 5,4 | 0,4 | 4,4 | 0,3 | -19,9 |
| Espainia | 2,2 | 0,2 | 2,4 | 0,2 | 2,4 | 0,2 | -0,2 |
| Suedia | 2,1 | 0,2 | 2,0 | 0,2 | 2,1 | 0,2 | 2,9 |
| Finlandia | 1,6 | 0,1 | 1,6 | 0,1 | 1,6 | 0,1 | -0,6 |
| Kroazia | 1,3 | 0,1 | 1,2 | 0,1 | 1,0 | 0,1 | -18,3 |
| Beste herrialde batzuk | 98,8 | 7,8 | 110,5 | 8,3 | 117,6 | 8,7 | 6,4 |
| EB, guztira | 251,6 | 19,9 | 251,7 | 19,0 | 224,3 | 16,6 | -10,9 |
| **Mundu osoa** | **1.263,0** | **100,0** | **1.324,7** | **100,0** | **1.353,8** | **100,0** | **2,2** |

*Iturria: ANAVE.*

Itsasontzi motaren arabera, 2021ean ere solteko salgaien itsasontziek hartu zuten mundu mailako merkataritza-ontzidiaren zatirik handiena, % 35,8. Jarraian, honako hauek kokatu ziren: petrolioa garraiatzekoak, edukiontziak garraiatzekoak, merkataritzako beste ontzi batzuk, gasa garraiatzekoak eta kargaontziak, % 21,6, % 18,7, % 12,7, % 6,3 eta % 5eko partaidetzekin, hurrenez hurren.

Urte arteko bilakaerari dagokionez, aurreko ekitaldietan bezala, gasa garraiatzeko ontziek izan zuten hazkunderik handiena. Dena den, aintzat hartu behar da ontzi mota horiek mundu mailako guztizko merkataritza-ontzidiaren % 6 baino ez dutela ordezkatzen.

**68. koadroa Munduko merkataritza-flota, itsasontzi motaren arabera**

*(MGT)*

| Itsasontzi mota | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|---|
| Petrolioa garraiatzekoak | 267,2 | 271,2 | 287,5 | 292,3 |
| Gasa garraiatzekoak | 71,2 | 77,5 | 82,3 | 85,9 |
| Solteko salgaienak | 438,6 | 451,9 | 473,8 | 484,0 |
| Kargaontziak | 62,3 | 63,5 | 64,8 | 67,3 |
| Edukiontziak garraiatzekoak | 224,7 | 237,1 | 246,9 | 252,8 |
| Beste merkataritzako ontzi batzuk | 157,2 | 161,8 | 169,3 | 171,5 |
| **Merkataritzako ontziak guztira** | **1.221,3** | **1.263,0** | **1.324,7** | **1.353,8** |

*Iturria: ANAVE.*

Azkenik, merkataritzako ontzidiaren batez besteko adina apur bat igo zen; 2020an 19,1 urte zituzten, batez beste, eta 2021ean 19,3. Izan ere, desegiteko adina igo egin zen, enpresa armadoreak ez baitziren animatu ontzi zaharrenak kentzera, pleiten egoera ona zelako (bereziki, edukiontziak garraiatzekoen kasuan). Ontzi motaren arabera, metanoa garraiatzeko ontziak izan ziren ontzidiko gazteenak (10,2 urte), eta hozkailuak, berriz, zaharrenak (31,8 urte).

## 4.2. ONTZIGINTZA ESPAINIAN

Jarduera ekonomikoa suspertzearekin batera, 2021ean % 15,8 hazi zen ontzi berrien Estatu mailako ekoizpena (aurreko ekitaldian -% 36,9ko jaitsiera), eta 117 mila tona konpentsatura iritsi ziren[1]. Ekoizpen faseei dagokienez, uretaratutako tonajeak -% 25,8 egin zuen behera, baina besteetan igoera orokortua izan zen: entregatutako tonajea % 184,4 igo zen eta hasitako tonajea % 9,8.

[1] Atal honetako informazioa tona konpentsatuetan jasotzen da, kontrakoa adierazi ezean.

**69. koadroa Espainiako itsasontzien ekoizpena**

*(mCGT) (1)*

| Urtea | Tonaje haztatua(2) | Hasitako tonajea | Uretaratutako tonajea | Entregatutako tonajea | Konpentsazio-koefizientea(3) |
|---|---|---|---|---|---|
| 2012 | 107 | 86 | 124 | 93 | 0,55 |
| 2013 | 161 | 153 | 161 | 169 | 0,48 |
| 2014 | 154 | 181 | 137 | 159 | 0,43 |
| 2015 | 179 | 280 | 169 | 99 | 0,92 |
| 2016 | 103 | 84 | 103 | 124 | 0,48 |
| 2017 | 130 | 142 | 122 | 133 | 0,75 |
| 2018 | 201 | 136 | 246 | 178 | 0,98 |
| 2019 | 160 | 188 | 123 | 207 | 0,87 |
| 2020 | 101 | 92 | 124 | 64 | 0,48 |
| 2021 | 117 | 101 | 92 | 182 | 0,49 |

*(1): CGT: tona gordin konpentsatuak. Erregistroko tonaje gordin konpentsatuaren neurria, tona gordinekin erlazionatuta, itsasontzi mota eta neurri bakoitzerako koefiziente baten bidez. Koefiziente horrek eraikitzeko konplexutasuna hartzen du aintzat, itsasontzia egiteko erabilitako lanorduak oinarri hartuta.*

*(2): Tonaje haztatua = (Hasitako tonajea + 2 Uretaratutako tonajea + Entregatutako tonajea)/4.*

*(3): Ratioa (tona gordinak/tona gordin konpentsatuak).*

*Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.*

Espainiako ontziolen eskari-zorroari dagokionez, 2021ean jarraitu egin zuen 2018an hasitako beheranzko ibilbideak. Hala, -% 18,3 murriztu zen, 291 mila tonara arte. Izan ere, esportazioak murriztu egin ziren (-% 20,8), eta Estatuko zorroak igoera apala izan zuen (% 2,6). Hala, kanpo-merkatuak Estatuko guztizko zorroarekiko zuen partaidetza-kuota apur bat jaitsi zen (2021ean guztizkoaren % 87, eta % 89 aurreko ekitaldian).

**70. koadroa Eskarien zorroa urtearen amaieran**

| Urtea | Barne-merkatua | | Esportazioak | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | mCGT | % | mCGT | % | mCGT |
| 2012 | 15 | 5 | 298 | 95 | 313 |
| 2013 | 21 | 8 | 238 | 92 | 259 |
| 2014 | 19 | 7 | 271 | 93 | 290 |
| 2015 | 171 | 37 | 288 | 63 | 459 |
| 2016 | 209 | 45 | 259 | 55 | 468 |
| 2017 | 233 | 46 | 273 | 54 | 506 |
| 2018 | 126 | 28 | 322 | 72 | 448 |
| 2019 | 27 | 7 | 350 | 93 | 377 |
| 2020 | 38 | 11 | 318 | 89 | 356 |
| 2021 | 39 | 13 | 252 | 87 | 291 |

*Iturria: Geuk egina, Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusiaren datuak oinarri hartuta. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.*

Ontziei dagokienez, kontuan izan behar da 2021aren amaieran Estatuko guztizko eskaera-zorroa osatzen zuten 45 itsasontzietatik hamar zirela merkatu nazionalera bideratutakoak; gainerako 35ak kanpo-merkatura bideratutako itsasontziak ziren.



LABORAL kutxa

**71. koadroa** **Eskarien zorroa itsasontzi motaren arabera, urtearen amaieran. 2021**

| Itsasontzi mota | Barne-merkatua | | Esportazioak | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Itsasontzi kopurua | CGT | Itsasontzi kopurua | CGT | Itsasontzi kopurua | CGT |
| Petrolio gordina garraiatzekoak | 1 | 5.948 | 0 | 0 | 1 | 5.948 |
| Petrolio- eta kimika-produktuak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Kargaontziak | 0 | 0 | 4 | 13.868 | 4 | 13.868 |
| Hozkailuak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Ferryak | 2 | 7.360 | 1 | 36.868 | 3 | 44.228 |
| Bidaiariak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Arrantza-ontziak | 3 | 10.814 | 9 | 53.680 | 12 | 64.494 |
| Beste itsasontzi batzuk | 4 | 14.613 | 21 | 148.123 | 25 | 162.736 |
| **Guztira** | **10** | **38.735** | **35** | **252.539** | **45** | **291.274** |

*Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.*

Estatuko eskari-zorroa itsasontzi motaren arabera aztertuta, 2021aren amaieran honakoek osatzen zuten barne-merkatua: petrolio-ontzi bat, bi ferry, hiru arrantza-ontzi eta beste mota bateko lau ontzi. Kanpo-zorroa, berriz, honakoek osatzen zuten: karga orokorreko lau ontzi, ferry bat, bederatzi arrantza-ontzi eta beste mota bateko hogeita bat ontzi.

Azkenik, nabarmentzekoa da 2022an Navantiak elkarlanerako akordio bat sinatu duela Repsolekin, itsaso bidezko garraioa deskarbonizatzeko soluzio berritzaileak garatzeko. Hala, Repsolek karbono-aztarna baxua duten erregai likido berriak (bioerregai aurreratuak, hondakin eta erregai sintetikoetatik abiatuta ekoitziak) hornituko ditu Navantiak ekoitzitako motorretan, propultsio bidezkoetan zein sorkuntza-motorretan, eta bi enpresek batera ebaluatuko dute erregai horien portaera. Epe motz eta ertainean itsasoko sektorea deskarbonizatzeko alternatiba sendoa dira erregai berri hauek.

Halaber, nabarmentzekoa da Navantia Seanergies marka aurkeztu dutela, energia berdeen, itsasoko energia eolikoaren eta hidrogenoaren arloan duten jarduera bultzatzeko.

## 4.3. ONTZIGINTZA EUSKAL HERRIAN

Estatu mailako hazkundearen ildo beretik, 2021ean % 13,3 hazi zen Euskal Herriko ontzigintza-sektorearen ekoizpena (aurreko ekitaldian -% 16,7ko jaitsiera), 17 mila tona gordinera arte. Ekoizpen fase guztietan egin zuen gora jarduerak, uretaratutako tonajearen kasuan izan ezik, -% 18,8 egin baitzuen behera. Hala, entregatutako tonajea % 280 hazi zen, eta hasitako tonajea % 4,8.

**72. koadroa Ontzigintza Euskal Herrian**

(mGT)

| Urtea | Tonaje haztatua | Hasitako tonajea | Uretaratutako tonajea | Entregatutako tonajea |
|---|---|---|---|---|
| 2012 | 35 | 16 | 49 | 23 |
| 2013 | 28 | 17 | 19 | 55 |
| 2014 | 27 | 36 | 24 | 23 |
| 2015 | 42 | 77 | 35 | 19 |
| 2016 | 23 | 13 | 26 | 28 |
| 2017 | 25 | 15 | 30 | 26 |
| 2018 | 23 | 17 | 20 | 35 |
| 2019 | 18 | 16 | 17 | 20 |
| 2020 | 15 | 21 | 16 | 5 |
| 2021 | 17 | 22 | 13 | 19 |

*Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.*

Tonaje konpentsatuari dagokionez, Euskal Herriko ontzigintza-sektoreko ekoizpena ere hazi egin zen 2021ean (% 13,8), baina Estatuan baino gutxiago (% 15,8). Ondorioz, Euskal Herriko ontzigintza-sektoreak Estatuko guztikoaren gainean zuen partaidetza-kuota murriztu egin zen apur bat (2021ean % 28 eta 2020an % 29).

**73. koadroa Ontzigintza Euskal Herrian. Estatuko partaidetza. Tonaje konpentsatua**

| Kontzeptua | 2020 | | 2021 | |
|---|---|---|---|---|
| | mCGT | Espainiako % | mCGT | Espainiako % |
| Tonaje haztatua | 29 | 29 | 33 | 28 |
| Hasitako tonajea | 41 | 45 | 41 | 41 |
| Uretaratutako tonajea | 32 | 26 | 25 | 28 |
| Entregatutako tonajea | 12 | 19 | 39 | 21 |

*Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.*

Tonaje konpentsatuaren ikuspegitik jarraituz, 2021ean ez zen aldatu hasitako tonajea. Uretaratutako tonajea, aldiz, -% 21,9 murriztu zen, eta entregatutako tonajea % 225 hazi zen.

Dinamika hori Estatuan erregistratutako dinamikarekin lotzen badugu, ikus daiteke Euskal Herriak guztizko nazionalaren gainean zuen pisu erlatiboa jaitsi egin zela hasitako tonajearen kasuan (2020an % 45 eta 2021ean % 41). Uretaratutako tonajearen pisu erlatiboa, berriz, igo egin zen (2021ean % 28, eta aurreko ekitaldian % 26), baita entregatutako tonajearena ere (% 21, eta aurreko urtean % 19).

**16. grafikoa** **Ontzigintzako eskaera-zorroaren eta ekoizpen haztatuaren bilakaera (mCGT)**




*Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.*

Euskal ontziolen eskari-zorroari dagokionez, 2021aren amaieran % 8 hazi zen, 108 mila tona konpentsatura arte. Hala, jarraitu egin zuen aurreko ekitaldian hasitako hazkunde-ibilbideak (2020an % 53,8).

**74. koadroa** **Eskarien zorroa Euskal Herrian**

| Urtea | mCGT |
|---|---|
| 2012 | 114 |
| 2013 | 100 |
| 2014 | 119 |
| 2015 | 148 |
| 2016 | 161 |
| 2017 | 171 |
| 2018 | 73 |
| 2019 | 65 |
| 2020 | 100 |
| 2021 | 108 |

*Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.*

Azterketa Euskal Herriko ontzigintza-sektoreko enpresen egoerara ekarrita, Sestaoko La Naval enpresa hartuko dugu aintzat lehenik. Honen likidazio-prozesuan Belgikako VGP konpainiari esleitu zitzaizkion La Navalen lursailak, eta 2022an instalazioak egokitzeko lanetan hasi da hura, hau da, tailerrak eta draga eraisten. Horrekin lotuta, kontuan izan behar da instalazioen etorkizuna baldintzatuta dagoela. Izan ere, lursailaren % 51, gutxienez, manufaktura-jardueretarako erabiltzeko betebeharra dute. Gainera, instalazioak babesten dituzten dikeak eremu babestu gisa izendatuta daude. Hortaz, ontziak eraikitzeko edo sektoreko lan osagarriak egiteko bakarrik erabil daitezke instalazioak, hala nola ontziak konpontzeko edo itsasoko energia eolikorako ekipamenduak eraikitzeko. Nolanahi ere, txosten hau egiteko unean instalazioen etorkizuneko erabilera airean dago oraindik.

**75. koadroa** **Eskarien zorroa, amaitutako ontziak eta hasitako ontziak, enpresen arabera**

*(CGT unitateak)*

| Enpresa | Eskarien zorroa | | Amaitutako itsasontziak | | Hasitako itsasontziak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| Astilleros Murueta | 45.536 | 28.168 | 1.881 | 28.656 | 10.932 | 5.948 |
| Astilleros Balenciaga | 35.384 | 28.860 | 5.987 | 6.448 | 15.309 | 13.589 |
| Astilleros Zamakona | 19.254 | 50.517 | 4.003 | 3.671 | 15.583 | 21.718 |
| CNN Sestao | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |

*Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.*

Euskal ontziola txikiagoei dagokienez, Astilleros Muruetaren kasuan, bereziki, nabarmentzekoa da 2022aren hasieran Europako lehen petrolio-ontzi hibridoa uretaratu zutela: “Bahía Levante”. Portuan emisiorik ez duen Europa osoko lehenengo petrolio-ontzi hibridoa da. Bateria-sistema bat du zerbitzu osagarrietarako eta, lehorrean, konexio elektrikoa.



LABORAL kutxa

Astilleros Balenciaga enpresari dagokionez, nabarmentzekoa da 2021eko uztailean "Edda Brint" ontzia uretaratu zuela, emisiorik gabeko bi SOV (Service Operation Vessel) ontzietan lehena. Edda Wind enpresa norvegiarrarentzat dira bi ontzi horiek. Ontzi inudeak izango dira turbina eolikoetako teknikarientzat, offshore turbina eolikoak martxan jartzeko eta mantentzeko lanetan zehar. Hidrogenoan oinarritutako propultsioaren etorkizuneko instalaziorako prestatuta daude ontzi horiek.

Astilleros Zamakonaren kasuan, aipatzekoa da 2022aren hasieran Itsas Salbamenduarentzako atoiontzi berriari gila jarri ziola (ontzi bat eraikitzen hasi direla adierazteko ospakizun sinbolikoa). Dronekin lan egiteko prestatuta dagoen Itsas Salbamenduaren lehen ontzia izango da itsas zabaleko atoiontzi hori. 9 metro arteko gidaririk gabeko aparatu horiek aireratzeko ontzigaina izango du, eta aldi berean bi dron jasotzeko gaitasuna izango duen hangarra. Hala, itsasoko erreskate-lanetan aurre egin beharreko egoera guztietan moldatzeko gaitasuna hobetuko da.

Azkenik, ekitaldi honetako ekainaren bukaeran Euskal Herriko Itsas Foroaren eta Euskal Herriko Itsas Industri Elkartearen XXV. Batzar Orokorra egin zen. Bertan, sektorearen egoera errepasatu zuten. Lehenengo finantza-krisiak, gero pandemiak eta orain Ukrainako gerrak kaltetu egin dute sektorea. Aipatutako batzarrean, ekologian, berrikuntzan eta erresilientzian zentratu zuten industria honen ikuspegi berria, 2024ra arte indarrean egongo den Plan Estrategikoak markatzen duen moduan. Zentzu horretan, aipatutako bileran nabarmendu zutenez, 2021ean zehar Industria Ministerioaren programen berrikuntzarako laguntzen % 50 baino gehiago jaso zuten euskal ontziolek. Hala, euskal ontzigintza-industriaren klusterra sektorearen jasangarritasunera eta deskarbonizaziora bideratuta dago.

## 5. AUTOMOBILGINTZA

Automobilgintzaren industriak 2021ean jarduera berreskuratzea espero zuela zirudien, baina egoera larria izaten jarraitu zuen. Sektoreak 2019rako akidura-sintomak erakusten zituen karbonoaren neutraltasuna lortzeko eraldaketa betean murgilduta, konektagarritasunarekin eta 5Garekin, ibilgailu autonomoarekin eta etorkizuneko planetarako propultsio alternatiboekin. Gainera, aurreko urte batzuetako zailtasunak dituen sektoreari 2020an pandemiaren eragina gehitu zitzaion.

Horrez gain, eta nahi izan zitekeenaren kontrara, 2021ean egoera are gehiago zaildu zen jardueraren garapenerako mehatxu berriak sortu ondoren. Mundu mailako mikrotxipen eskasia, logistika-arazo ugariak eta hornidura batzuen garestitzea izan ziren automobilgintzak aurre egin beharreko erronkak, besteak beste.

Gauzak horrela, eta mikrotxipen hornidura ezari aurre egiteko, Europak eta Estatu Batuek osagai horien esportatzaile nagusi diren Asiako herrialdeekiko mendekotasuna saihesteko plan eta estrategiak iragarri zituzten. Zehazki, Europar Batasunak mikrotxipak ekoizteko zentroen irekiera sustatzeko lege bat jarri zuen abian, 2030erako Europak ekoiz dezan mundu mailako erdieroaleen % 20 (gaur egun ekoizpena % 10ekoa da). Apustu hori oso beharrezkoa zen, kontuan hartuta elektrifikazioa dela garraioaren etorkizuna, eta ibilgailu hibridoek eta elektrikoek behar dituztela gehien erdieroale eta eskasian dauden beste material batzuk.

Eta, horrez gain, 2022ko otsailean Errusia-Ukraina gerra piztu zen, zalantzarik gabe eragin handia izango zuena munduko ekonomian, hornigaien eta, batez ere, energiaren prezioen igoera nabarmenarekin, maximo historikoetan egonik. Hala, bere krisi berezian murgilduta zegoen sektore bati zailtasun handiagoak erantsiko zizkion.

## 5.1. NAZIOARTEKO EGOERA

Arestian adierazitakoarekin bat etorriz, 2021ean ibilgailuen munduko ekoizpena pixka bat hobetu zen, 80,1 milioi ibilgailutara iritsita, aurreko ekitaldian baino % 3,1 gehiago, baina pandemia aurreko balioetatik oso urrun (2019ko datuekin alderatuta, -% 13,1). Mikrotxipen faltak eta mundu mailako arazo logistiko ugariek ekoizpen-erritmoa kaltetzea eragin zuten eta fabrika-jarduera ia hamarkada bat atzeragoko balioetara itzuli zen, urtez urte ekoizpen-erritmoa igotzetik zetorren industrian.

Hala ere, produkzio-eremuan gertatutakoari buruzko azterketa zehatzagoa eginez gero, ikus daiteke herrialde ekoizle nagusien jardueran desberdintasunak daudela. Ekoizpen-mapan Txina nabarmendu zen, eta ez bakarrik munduko ibilgailu-fabrika nagusia delako, munduko ekoizpenaren herena hartzen baitu, baizik eta 2021ean 2019ko ekoizpen-mailak gainditzen zituen herrialde bakarra zelako (+% 1,3). Ildo horretan, azpimarratu behar da Txina izan zela pandemiak kaltetutako lehen herrialdea, baita nolabaiteko normaltasuna hartu zuen lehena ere, gainerako ekonomiei aurrea hartuz. Bigarren eta hirugarren postuetan, Asiako erraldoiaren ekoizpen-mailetatik oso urrun, AEB (9,1 milioi ibilgailu; % 11,4ko partaidetza) eta Japonia (7,8 milioi ibilgailu; % 9,8) zeuden, urte arteko aldakuntza kontrajarriekin (+% 3,9 eta -% 2,7). India (4,4 milioi ibilgailu; % 5,5eko partaidetza) eta Hego Korea (3,5 milioi ibilgailu; % 4,3ko partaidetza) zeuden jarraian ibilgailuak ekoizten dituzten lehen bost herrialdeen rankingean. Indiak, hain zuzen ere, 2021ean jardueraren hazkunde esponentziala erregistratu zuen (+% 30,1), eta Koreak berriz, bere ekoizpena pixka bat murriztu zuen (-% 1,3).

Jarraian, nazioarteko ekoizpenaren testuinguruan nolabaiteko pisua izanik, Europako bi herrialde, Amerikako bi eta Asiako bat zeuden. Hau da, Alemania (3,3 milioi ibilgailu; % 4,1eko partaidetza), Mexiko (3,1 milioi; % 3,9), Brasil (2,2 milioi; % 2,8), Espainia (2,1 milioi; % 2,6) eta Thailandia (1,7 milioi; % 2,1). Jarduerari dagokionez, elkarren aurkako portaerak ikus daitezke. Hala, ekitaldia negatiboa izan zen Alemaniaren kasuan (2020arekiko -% 11,6), Mexikorenean (-% 1,0) eta Espainiarenean (-% 7,5), eta aldekoa, berriz, Brasilen (+% 11,6) eta Thailandiaren kasuan (+% 18,1).

10 herrialde ekoizle nagusien atzetik herrialde ugari zeuden: Errusia, adibidez, 1,6 milioi unitateko ekoizpenarekin, edo Eslovakia, milioi batekoarekin. Guztien artean urte arteko aldakuntza oso heterogeneoak ikus daitezke. Horren guztiaren ondorioz, 2021ean Asia-Ozeanian ekoitzi ziren ibilgailu guztien % 58,3; Amerikan eta Europan, % 20 inguru, eta, azkenik, Afrikan, % 1,2.

Beraz, ekonomiaren arabera, hainbeste desiratutako susperraldiak abiadura oso desberdinetan egin zuen aurrera. Hala, kontrako joerak ikus daitezkeen testuinguru batean, bilakaera ona zuten ekoizleek erritmo desberdinetako bilakaera zutela egiazta daiteke. Bat ez datorren joera gisa Txina nabarmendu zen, bere ekoizpena covid aurreko balioen gainetik kokatu zuen herrialde bakarra izan baitzen.

**76. koadroa    Ibilgailuen ekoizpena Herrialde nagusiak**

*(unitateak)*

| Herrialde nagusiak | 2019 | 2020 | 2021 | % Δ 21/20 | % Δ 21/19 |
|---|---|---|---|---|---|
| Alemania | 4.947.316 | 3.742.570 | 3.308.692 | -11,6 | -33,1 |
| Espainia | 2.822.632 | 2.268.185 | 2.098.133 | -7,5 | -25,7 |
| Errusia | 1.719.146 | 1.435.551 | 1.566.317 | 9,1 | -8,9 |
| Frantzia | 2.175.350 | 1.316.371 | 1.351.308 | 2,7 | -37,9 |
| Turkia | 1.461.244 | 1.297.878 | 1.276.140 | -1,7 | -12,7 |
| Txekiar Errepublika | 1.433.961 | 1.159.151 | 1.111.432 | -4,1 | -22,5 |
| Eslovakia | 1.107.902 | 990.598 | 1.000.000 | 0,9 | -9,7 |
| Erresuma Batua | 1.381.405 | 987.044 | 932.488 | -5,5 | -32,5 |
| Italia | 915.291 | 777.057 | 795.856 | 2,4 | -13,0 |
| **Europa** | **21.575.118** | **16.942.248** | **16.330.509** | **-3,6** | **-24,3** |
| AEB | 10.892.884 | 8.821.026 | 9.167.214 | 3,9 | -15,8 |
| Mexiko | 4.013.137 | 3.177.251 | 3.145.653 | -1,0 | -21,6 |
| Brasil | 2.944.988 | 2.014.055 | 2.248.253 | 11,6 | -23,7 |
| Kanada | 1.916.585 | 1.376.127 | 1.115.002 | -19,0 | -41,8 |
| **Amerika** | **20.160.401** | **15.692.927** | **16.151.639** | **2,9** | **-19,9** |
| Txina | 25.750.650 | 25.225.242 | 26.082.220 | 3,4 | 1,3 |
| Japonia | 9.684.507 | 8.067.943 | 7.846.955 | -2,7 | -19,0 |
| India* | 4.524.366 | 3.381.819 | 4.399.112 | 30,1 | -2,8 |
| Hego Korea | 3.950.614 | 3.506.774 | 3.462.404 | -1,3 | -12,4 |
| Thailandia | 2.013.710 | 1.427.074 | 1.685.705 | 18,1 | -16,3 |
| Indonesia | 1.286.848 | 690.176 | 1.121.967 | 62,6 | -12,8 |
| **Asia-Ozeania** | **49.333.841** | **44.276.549** | **46.732.785** | **5,5** | **-5,3** |
| **Afrika** | **1.113.651** | **800.001** | **931.056** | **16,4** | **-16,4** |
| **Mundua, guztira** | **92.183.011** | **77.711.725** | **80.145.988** | **3,1** | **-13,1** |

*(*): Indian marka batzuk ez daude kontabilizatuta.*
*Iturria: OICA.*

Azterketa hori ibilgailuen matrikulazioetara eramanda, 2021ean zifra globala 80 milioi unitatetik gorakoa zen. Aipatutako ekoizpen-arazoez gain, egoera ekonomikoa ere txarra zen, erosle potentzialen artean nahasmena zegoen erosi beharreko motorren inguruan, eta horrek atzeratu egin zuen erosteko asmoa. Egoera horren aurrean, munduko matrikulazio kopurua % 5 igo zen 2021ean aurreko urtearekin alderatuta, baina pandemia aurreko balioetatik oso urrun (2019arekin alderatuta, -% 9,4).

Herrialde bakoitzaren pisu espezifikoari dagokionez, Txina zen ibilgailuen merkatu nagusia, 26,3 milioi matrikulaziorekin, 2020an baino % 3,8 gehiago eta covid aurreko balioak baino % 1,9 gehiago, guztizkoaren % 31,8 lortuta. Ekoizpen-atalean bezala, AEB zegoen rankingeko bigarren postuan, 15,4 milioi ibilgailu matrikulatu baitziren 2021ean (% 18,6ko partaidetza); Japonia eta India, berriz, hirugarren eta laugarren postuetan kokatu ziren, baina askoz ere neurri txikiagoarekin (4,4 milioi matrikulazio eta 3,8 milioi, hurrenez hurren). Matrikulatutako 2 milioi ibilgailuko atalasearen gainetik Europako hiru herrialde zeuden: Alemania (2,9 milioi), Frantzia (2,1 milioi) eta Erresuma Batua (2 milioi), Brasilez gain (2,1 milioi). Merkatu nagusien 10eko rankinga osatzeko, Errusia eta Hego Korea zeuden, 1,7 milioi ibilgailurekin.

Europan, Italia eta Espainia dira matrikulazio gehien izan zituzten hurrengo merkatuak, 1,6 milioi eta 1 milioi matrikulazio, hurrenez hurren. Era berean, Amerikan, Kanada (1,7 milioi) eta Mexiko (1 milioi) zeuden matrikulazioen rankingaren goiko aldean, eta Asia-Ozeania-Ekialde Ertainean, Australia nabarmendu zen (milioi bat matrikulazio) baita Indonesia eta Thailandia ere, nahiz eta milioi bateko mugaren azpitik izan.

2021eko merkatuen jarduerari dagokionez, eta ekoizpenaren atalean adierazitakoaren arabera, herrialdeen araberako portaera desberdinak izan ziren. Hala, eta Txina salbuetsita (goranzko joera izan baitzuen), gainerako merkatuek 2019ko erregistroen azpitik jarraitu zuten, 2021ean matrikulazio gehienek gora egin zuten arren. Ildo horretan, Japonia, Alemania eta Hego Korea nabarmendu ziren, denborazko bi konparazioetan matrikulazioetan beheranzko desbideratzeak izan zituztelako.

Hala eta guztiz ere, Asia-Ozeania-Ekialde Ertainak, 43 milioi matrikulazio ingururekin, munduko merkatuaren erdia hartu zuen (% 51,6), neurri handi batean Txinaren pisuari eta dinamismoari esker, Txinak presentzia handiagoa hartu baitzuen nazioartean (ehuneko 3,5 puntu gehiago 2019an baino). Amerikari dagokionez, 22 milioi matrikulazio izan ziren 2021ean (guztizkoaren % 26,6), 17 milioi inguru Europan (% 20,4) eta milioi bat unitate baino zertxobait gehiago Afrikan (% 1,4).

**77. koadroa Ibilgailuen matrikulazioa. Herrialde nagusiak**

*(unitateak)*

| Herrialde nagusiak | 2019 | 2020 | 2021 | % Δ 21/20 | % Δ 21/19 |
|---|---|---|---|---|---|
| Alemania | 4.017.059 | 3.266.759 | 2.973.319 | -9,0 | -26,0 |
| Frantzia | 2.755.728 | 2.100.030 | 2.142.284 | 2,0 | -22,3 |
| Erresuma Batua | 2.736.559 | 1.964.660 | 2.044.091 | 4,0 | -25,3 |
| Errusia | 1.778.841 | 1.631.163 | 1.741.965 | 6,8 | -2,1 |
| Italia | 2.132.630 | 1.564.756 | 1.664.483 | 6,4 | -22,0 |
| Espainia | 1.501.244 | 1.030.746 | 1.034.063 | 0,3 | -31,1 |
| Turkia | 491.947 | 796.150 | 772.722 | -2,9 | 57,1 |
| Polonia | 656.258 | 510.153 | 554.613 | 8,7 | -15,5 |
| Belgika | 642.000 | 509.994 | 462.536 | -9,3 | -28,0 |
| EB-27+ EFTA+Erresuma Batua | 18.424.199 | 14.079.756 | 14.133.619 | 0,4 | -23,3 |
| Europa | 20.930.716 | 16.712.898 | 16.874.893 | 1,0 | -19,4 |
| AEB | 17.488.154 | 14.881.356 | 15.408.565 | 3,5 | -11,9 |
| Brasil | 2.787.850 | 2.058.437 | 2.119.851 | 3,0 | -24,0 |
| Kanada | 1.976.440 | 1.586.474 | 1.704.850 | 7,5 | -13,7 |
| Mexiko | 1.360.008 | 977.650 | 1.046.705 | 7,1 | -23,0 |
| Amerika | 25.384.924 | 20.814.832 | 22.001.152 | 5,7 | -13,3 |
| Txina | 25.796.931 | 25.311.069 | 26.274.820 | 3,8 | 1,9 |
| Japonia | 5.195.216 | 4.598.615 | 4.448.340 | -3,3 | -14,4 |
| India | 3.816.858 | 2.938.575 | 3.759.398 | 27,9 | -1,5 |
| Hego Korea | 1.795.134 | 1.905.972 | 1.734.581 | -9,0 | -3,4 |
| Indonesia | 1.030.486 | 532.077 | 887.205 | 66,7 | -13,9 |
| Thailandia | 1.007.552 | 792.146 | 748.580 | -5,5 | -25,7 |
| Asia-Ozeania-Ekialde ertaina | 43.713.696 | 40.322.544 | 42.663.736 | 5,8 | -2,4 |
| Afrika | 1.197.846 | 924.046 | 1.145.007 | 23,9 | -4,4 |
| **Mundua, guztira** | **91.227.182** | **78.774.320** | **82.684.788** | **5,0** | **-9,4** |

*Iturria: OICA.*

## 5.2. SEKTOREA ESPAINIAN

Pandemiak 2020an eragindako ondorio ekonomikoen ondoren, bazirudien automobilgintzako industria nazionalak nolabaiteko baikortasuna berreskuratu zuela, 2021ean nolabaiteko normaltasunera itzuliko zelakoan, osasun-egoera nabarmen hobetu eta NextGenerationEU funtsen moduko berreskuratze-planak abian jarri ondoren. Hala ere, mikrotxipen eskasiak eta ondorioak gutxitzeko aplikatutako aldi baterako lan-erregulazioek berriro geldiarazi zuten sektorearen susperraldia. Hala eta guztiz ere, 2021ean, industria honek bildu zuen BPGaren[1] % 7,7, eta bi milioi enplegu inguru sortu zituen (enpleguaren % 9 inguru).

[1] Sektorearen fakturazioak BPGan zuen partaidetza (ibilgailuen eta osagaien fabrikatzaileak), automobilgintzarekin lotutako gainerako sektoreen ekarpena zenbatetsita (banaketa, aseguruak, finantzak, etab.), fakturazioak BPGan zuen partaidetza % 10etik gorakoa izan zen.



LABORAL kutxa

Beraz, egiturazko zein koiunturazko kontrako faktore ugari aldi berean elkartzeak arriskuan jarri zuen automobilgintzako industria nazionalaren lehiakortasuna; izan ere, 2021ean 60.908 milioi euroko fakturazioa lortu zuen, hau da, aurreko urtean baino % 1 gehiago (69.500 milioi euro 2019an). Hala eta guztiz ere, 2021ean fabrikatzaileek berrikuntza eta garapen teknologikoan egindako inbertsioak hazten jarraitu zuen, 1.500 milioi euro ingurura iritsita. Kopuru horrek bermatzen du industriak etorkizuneko mugikortasunarekiko duen eraldaketarekiko konpromisoa.

Edonola ere, eta automobilgintza-enpresek beren jarduera garatzen duten ingurunearen konplexutasuna gorabehera, Espainiak bigarren postuan mantentzea lortu zuen Europako rankingean, Alemaniaren atzetik, eta munduko sailkapeneko bederatzigarren postuan. Izan ere, Estatuko lurzoruan ibilgailuen ekoizpena 2 milioi unitateren gainetik kokatu zen, hornikuntza-faltak lantegietan eragindako aldi baterako geldialdien isla.

Zehazki, 2021ean 2.098.133 ibilgailu ekoitzi ziren, 2020an baino % 7,5 gutxiago. Hala ere, 2019ko datuekin alderatuta, ekoizpen-erritmoa nabarmen murriztu zen (-% 25,7), eta ekoitzitako unitateen kopurua nabarmen okertu da (-724.499).

Informazioa ibilgailu motaren arabera banakatuta, turismoen eta lur orotako ibilgailuen ekoizpenak, % 80 inguruko pisu espezifikoarekin, % 7,7ko murrizketa izan zuen (2019arekin alderatuta -% 26,1) eta 1.662.174 unitate ekoitzi ziren. Merkataritza-ibilgailu arinek, % 18,3ko partaidetzarekin, % 10,9ko jaitsiera izan zuten (-% 26,8koa 2019ko balioekin alderatuta) 383.736 unitatera iritsi arte. Aldiz, industria-ibilgailuek eta autobusek presentzia txikiagoa izan zuten produkzio-mapan (% 2,5), joera nagusitik aldenduta, eta ekoizpen-mailak igo egin ziren (+% 41,5); hala, ekoizpena 52.223 unitatera igo zen.

Testuinguru horretan, ibilgailu alternatiboen ekoizpena (ibilgailu elektrikoak, hibrido entxufagarriak, hibrido ez-entxufagarriak, PGL eta gas naturala) handitzen joan zen pixkanaka, eta ekoizpen osoaren % 11,6 izatera iritsi zen. Horrela, 2021ean zero emisioko eta emisio gutxiko 242.380 ibilgailu ekoitzi ziren, 2020ko bolumenak % 33,8 handituta.

**78. koadroa** **Espainiako automobil-industriaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpoko merkataritza**

*(unitateak)*

| Azpisektorea | Produkzioa | | | Esportazioak | | | Matrikulazioak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | %∆ | 2020 | 2021 | %∆ | 2020 | 2021 | %∆ |
| Turismoak eta lur orotakoak | 1.800.664 | 1.662.174 | -7,7 | 1.588.889 | 1.455.634 | -8,4 | 851.210 | 859.476 | 1,0 |
| Merkataritza-ibilgailu arinak | 430.616 | 383.736 | -10,9 | 335.280 | 320.053 | -4,5 | 158.120 | 151.823 | -4,0 |
| Industria-ibilgailuak eta autobusak | 36.905 | 52.223 | 41,5 | 27.279 | 45.040 | 65,1 | 21.416 | 22.764 | 6,3 |
| **Guztira** | **2.268.185** | **2.098.133** | **-7,5** | **1.951.448** | **1.820.727** | **-6,7** | **1.030.746** | **1.034.063** | **0,3** |

*Iturria: Anf*ac.

Esportazioei dagokienez, eta industriaren izaera esportatzailea kontuan hartuta (% 80), 2021ean esportazioak % 6,7 murriztu ziren, 1.820.727 ibilgailu esportatu ziren guztira. Hala, esportazio-merkatuaren dimentsioa arrunt batetik urrun geratu zen (2019arekin alderatuta, -% 21,2). Aurretik ekoizpenaren atalean adierazitakoarekin bat etorriz, turismoak eta lur orotariko ibilgailuak zeuden esportazio-maparen buruan (guztizkoaren % 80), ondoren merkataritza-ibilgailu arinak zeuden (% 17,6) eta, azkenik, industria-ibilgailuak (% 2,5). Urte arteko bilakaera negatiboa izan zen lehenengo bientzat (-% 8,4 eta -% 4,5, hurrenez hurren) eta positiboa hirugarrenentzat (+% 65,1). 2019ko datuekin alderatuta, bilakaera bera izan zen, eta murrizketak areagotu egin ziren turismoetan, lur orotako ibilgailuetan eta merkataritza-ibilgailu arinetan (-% 23,6 eta -% 17,4), baina igo egin ziren industria-ibilgailuen eta autobusen esportazioak (+% 143,7).

Azterketa hori bera matrikulazioetara eramanez, urte arteko bilakaeran merkatuaren tamainan aldaketa esanguratsurik ikusten ez den arren, 1.034.063 matrikulazio zenbatu ziren guztira (+% 0,3), ekitaldi arrunt batekin alderatuz gero eskaera asko murriztu zela egiazta daiteke (-% 31,1). Hala, pisu handieneko segmentuak, turismoen eta lur orotako ibilgailuenak (guztizkoaren % 83,1) eta ordezkaritza txikiagoko segmentuak, ibilgailu industrial eta autobusenak (% 2,2), 2020ko maila apur bat gainditzea lortu zuten (+% 1 eta +% 6,3, hurrenez hurren), baina % 14,7ko partaidetza duten merkataritza-ibilgailu arinek matrikulazioak murriztu zituzten (-% 4). Hala ere, aztertutako hiru segmentuetan, 2019ko datuekin alderatuta, bi digituko beherakadak izan ziren: % 30 inguru turismoentzat eta lur orotako ibilgailuentzat, eta % 20 inguru ibilgailu industrialentzat eta autobusentzat.

Informazioan eta merkataritza-marken jardueran sakonduz, Seat eta Peugeot dira oraindik merkatuko liderrak, 70.523 eta 67.266 unitate saldu baitziren, eta urte arteko hazkundeak % 2,5 ingurukoak izan ziren. Toyotak eta Volkswagenek hirugarren eta laugarren postua lortu zuten, 62.329 eta 61.724 matrikulaziorekin, hurrenez hurren; izan ere, urte batetik bestera gora egin zuen lehenak (+% 8,2) eta salmentak nabarmen jaitsi dira bigarrenaren kasuan (-% 7,6).

Gauzak horrela, lau marka horiek matrikulazio nazional guztien % 25 hartzen dute, baina dinamismoagatik Asiako bi enpresa nabarmentzen dira: Hyundai (+% 26,7) eta Kia (+% 20,2), baita Xikoda (+% 16,6) ere, bi digituko igoerekin itxi baitute ekitaldia.

Hala eta guztiz ere, Volkswagen taldeak jarraitzen du mapa nazionalaren buruan, 193.418 ibilgailu saldu baitzituzten haren marka nagusiek; orain gutxi sendotutako Stellantis taldeak[1], PSA Taldearen eta Fiat-Chryslerren markak biltzen dituenak, 172.919 unitate saldu zituen guztira, eta % 2,8ko hazkundea izan zuen 2020arekiko.

**79. koadroa Turismoen matrikulazioa marken arabera**

*(unitateak)*

| Marka nagusiak | 2019 | 2020 | 2021 | %∆ 21/20 | %∆ 21/19 |
|---|---|---|---|---|---|
| Seat | 111.982 | 68.721 | 70.523 | 2,6 | -37,0 |
| Volkswagen | 94.328 | 66.817 | 61.724 | -7,6 | -34,6 |
| Audi | 51.114 | 37.285 | 34.732 | -6,8 | -32,0 |
| Škoda | 29.388 | 22.667 | 26.439 | 16,6 | -10,0 |
| Volkswagen taldea | 286.812 | 195.490 | 193.418 | -1,1 | -32,6 |
| Peugeot | 97.939 | 65.699 | 67.266 | 2,4 | -31,3 |
| Opel | 69.101 | 30.223 | 30.350 | 0,4 | -56,1 |
| Citroën | 67.151 | 43.820 | 47.072 | 7,4 | -29,9 |
| Fiat | 47.115 | 28.516 | 28.231 | -1,0 | -40,1 |
| Stellantis Taldea: | 281.306 | 168.258 | 172.919 | 2,8 | -38,5 |
| Renault | 86.420 | 56.138 | 51.700 | -7,9 | -40,2 |
| Toyota | 71.696 | 57.580 | 62.329 | 8,2 | -13,1 |
| Hyundai | 62.766 | 45.405 | 57.508 | 26,7 | -8,4 |
| KIA | 59.523 | 47.624 | 57.235 | 20,2 | -3,8 |
| Ford | 57.168 | 34.776 | 29.336 | -15,6 | -48,7 |
| Dacia | 55.692 | 39.395 | 36.771 | -6,7 | -34,0 |
| Mercedes | 53.719 | 42.375 | 33.676 | -20,5 | -37,3 |
| Nissan | 51.554 | 34.761 | 26.058 | -25,0 | -49,5 |
| BMW | 46.887 | 35.229 | 35.193 | -0,1 | -24,9 |
| Gainerako markak | 387.701 | 273.715 | 277.920 | 1,5 | -28,3 |
| **Guztira** | **1.501.244** | **1.030.746** | **1.034.063** | **0,3** | **-31,1** |

*(*) Taldeko marka nagusiak soilik daude sartuta.*
*Iturria: Anfac.*

Hain zaila izandako 2021 urtean, fabrikatzaile askok hamarkada bat atzeragoko bolumenetan kokatzen dituzte salmentak. Gainera, eskaintzaren eta eskariaren arteko desorekak, horniduretako stocken hausturak eta horren ondoriozko produkzio-geldialdiek eraginda, ez zen matrikulazioen bultzada areagotu, eta erosleek denbora luzez itxaron behar izan zuten.

[1] Stellantis Taldea: Lehengo PSA Taldea (Peugeot, Citroën, DS eta Opel/Vauxhall) alde batetik, eta Fiat, Lancia, Alfa Romeo, Maserati, Abarth, Chrysler, Dodge, RAM eta Jeep bestetik.

Arestian aipatu bezala, esportazioak ere 2020ko (-% 6,7) eta 2019ko (-% 21,2) erregistroen azpitik kokatu ziren, alde batetik, ekoizpenaren narriaduraren ondorioz, eta, bestetik, industria nazionalaren bezero diren merkatu nagusietako eskariaren uzkurduraren ondorioz. Hala eta guztiz ere, Europak produktu nazionalaren helmuga nagusia izaten jarraitu zuen, esportatutako 10 ibilgailutatik 9 lortuta. Izan ere, egonkortasunak markatutako merkataritza-harremanak ditu. Hala, 2021ean ez zen produktu nazionala inportatzen duten herrialde nagusien rankinga aldatu.

**80. koadroa Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak**

*(unitateak)*

| Herrialdea | 2019 | 2020 | 2021 | %∆ 21/20 | %∆ 21/19 |
|---|---|---|---|---|---|
| Frantzia | 437.550 | 397.641 | 336.052 | -15,5 | -23,2 |
| Alemania | 480.687 | 386.341 | 318.536 | -17,6 | -33,7 |
| Erresuma Batua | 327.186 | 241.848 | 222.696 | -7,9 | -31,9 |
| Italia | 250.455 | 225.748 | 221.066 | -2,1 | -11,7 |
| Turkia | 35.560 | 71.791 | 84.499 | 17,7 | 137,6 |
| Belgika | 87.695 | 66.116 | 53.049 | -19,8 | -39,5 |
| Herbehereak | 53.573 | 43.989 | 40.274 | -8,4 | -24,8 |
| Polonia | 55.702 | 42.129 | 39.716 | -5,7 | -28,7 |
| Austria | 49.516 | 38.259 | 34.218 | -10,6 | -30,9 |
| Portugal | 47.194 | 36.341 | 32.901 | -9,5 | -30,3 |
| **10 herrialde nagusiak, guztira** | **1.825.118** | **1.550.203** | **1.383.007** | **-10,8** | **-24,2** |
| Gainerakoak | 484.952 | 401.245 | 407.720 | 1,6 | -15,9 |
| **Esportazioak, guztira** | **2.310.070** | **1.951.448** | **1.820.727** | **-6,7** | **-21,2** |

*Iturria: Anfac.*

Horrela, esportazioen dinamismo-galera argi eta garbi islatzen da produktu nazionalaren xede diren bi herrialde nagusien arteko merkataritza-fluxuen narriaduran, hala nola Frantzia (esportazioen % 18,5) eta Alemania (% 17,5), bi digituko uzkurdurak izan baitzituzten (-% 15,5 eta -% 17,6). Ordezkaritza handiena duen bigarren binomioak, hau da, Erresuma Batuak eta Italiak (% 12 biek), % 7,9ko eta % 2,1eko murrizketak izan zituzten beren balioetan. Aldiz, nabarmentzekoa da Turkiara zuzendutako esportazioen jarduera ona, nabarmen handitu baitziren 2021ean (+% 17,7).

Hala eta guztiz ere, Europan esportazioek izandako portaera ez zen oso ona izan produktu nazionalarentzat, baina nabarmendu behar da gainerako kontinenteetan, parte-hartzea askoz txikiagoa izanik, aldeko emaitzak izan zituztela. Ozeanian, Afrikan eta Asian esportazioak nabarmen hazi ziren (+% 55,3, +% 40,4 eta +% 20,6, hurrenez hurren), eta AEBn ere joera bera izan da, baina askoz apalagoa (+% 3,2).

Merkataritza-balantzari dagokionez, esportazioen balioak gora egin zuen (+% 7,8), aurreikusitako partida guztien gehikuntzaren ondorioz, motorrak eta abiadura-kaxak izan ezik, guztira 44.106 milioi eurora iritsiz. Inportazioek, bestalde, oso antzeko jarduera erakutsi zuten, ekitaldia 32.031 milioi eurorekin itxiz, 2020ko balioak baino % 8,9 gehiago.



LABORAL kutxa

Horren guztiaren ondorioz, merkataritza-saldoa 12.075 milioi eurokoa izan zen, eta handitu egin zen 2020ko balioekin alderatuta (+% 5,1), nahiz eta partida nagusian beheranzko bilakaera txikia izan (-% 1,5) (turismoak eta lur orotakoak).

**81. koadroa Automobilgintza-sektoreko esportazioak eta inportaziok (ibilgailuak gehi osagarriak)**

*(M euro)*

| Kontzeptua | Esportazioak | | | Inportazioak | | | Saldoa: Esportazioak - Inportazioak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | %∆ | 2020 | 2021 | %∆ | 2020 | 2021 | %∆ |
| Turismoak eta lur orotakoak | 26.216 | 27.734 | 5,8 | 11.936 | 13.662 | 14,5 | 14.281 | 14.072 | -1,5 |
| Merkataritza-ibilgailuak, industria-ibilgailuak eta autobusak | 5.300 | 6.485 | 22,4 | 2.415 | 2.615 | 8,3 | 2.885 | 3.870 | 34,1 |
| Zatiak, piezak eta osagarriak | 7.673 | 8.354 | 8,9 | 11.162 | 12.153 | 8,9 | -3.489 | -3.799 | 8,9 |
| Motorrak eta abiadura-kaxak | 1.714 | 1.533 | -10,6 | 3.901 | 3.601 | -7,7 | -2.187 | -2.068 | -5,4 |
| **Guztira** | **40.903** | **44.106** | **7,8** | **29.414** | **32.031** | **8,9** | **11.489** | **12.075** | **5,1** |

*Iturria: Anfac.*

Egoera nahasi horretan, fabrika nazionalek munduko merkatuan duten posizioa sendotzearen aldeko apustua egiten jarraitu zuten, deskarbonizatzeko eta eredu elektriko berriak ekoizpen-lerroetan txertatzeko helburuarekin, eta, aldi berean, mix produktiboari eutsi zioten eskariari erantzuteko. Anfacen arabera, Espainiak, gutxienez, 700.000 ibilgailu elektriko ekoitzi behar ditu 2030erako Europako merkatu-kuota mantendu nahi badu edo are % 15era arte handitu nahi badu.

Eta, sektorerako apustu handi gisa mugikortasun elektriko berrirako eraldaketa horretan, kontsumitzailea oraindik zalantzati dago motorizazio berrien prezioa zaharrena baino askoz ere altuagoa delako (haiek oso zigortuta daude, bestalde) eta ibilgailu elektrikoa kargatzeko puntuak behar bezala ez direlako hedatzen.

Espero zitekeen bezala, ziurgabetasunak eta automobilgintza-enpresek beren jarduera garatzeko izan duten agertoki konplexuak isla izan dute industria osagarriaren jardueran; izan ere, enpresa-sarea mila ingurukoa da panorama nazionalean.

2021ean ere, Covid-19ak ekonomia orokorra eta automobilgintzako laguntzailea kolokan jarri zituen, neurri batean erdieroaleen hornidura ezagatik, sektorearentzat garrantzi berezia baitu, eta horri pixkanaka beste faktore exogeno batzuk gehitu zitzaizkion, hala nola garraioaren eta energiaren prezioen igoera. Hala eta guztiz ere, 2021ean, automobilgintzako hornitzaile nazionalek fakturazioa handitzea lortu zuten (+% 6,2), eta fakturazioa 32.085 milioi eurora igo zen, aurreko urtekoa gainditzen duen arren, balio aurre-pandemikoetatik (36.000 milioi euro inguru) urrun samar.

**82. koadroa Automobilgintzako ekipoen eta osagaien Espainiako industriaren zifra nagusiak**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | %∆ 21/20 | %∆ 21/19 |
|---|---|---|---|---|---|
| Fakturazioa | 35.822 | 30.200 | 32.085 | 6,2 | -10,4 |
| Merkatu nazionaleko salmentak | 15.068 | 12.300 | 12.416 | 0,9 | -17,6 |
| - Ekipo originala | 9.798 | 7.740 | 7.291 | -5,8 | -25,6 |
| - Ordezkoak | 5.270 | 4.560 | 5.125 | 12,4 | -2,8 |
| Esportazioak | 20.754 | 17.879 | 19.669 | 10,0 | -5,2 |
| I+G+b inbertsioa | 1.458 | 1.075 | 1.164 | 8,3 | -20,2 |
| Enplegua (langile kopurua) | 225.400 | 212.500 | 201.450 | -5,2 | -10,6 |

*Iturria: Sernauto.*

Kanpoko merkataritza-jarduerari dagokionez, 2021ean esportazioak 20.000 milioi euro ingurura iritsi ziren, 2020an baino % 10 gehiago (covid aurreko balioen azpitik % 5,2). Aurreko ekitaldietan adierazi den bezala, esportazioak dira sektorearen susperraldiaren benetako eragileak, 2021ean etxeko merkatuko salmenten aldaketa txikia izan baitzen (+% 0,9), covid aurreko dimentsiotik oso urrun (-% 17,6). Zehatzago, ekipo originalaren salmentek (salmenta nazionalen % 58,7) bolumenen % 5,8ko narriadura izan zuten (-% 25,6koa 2019aren aldean), eta ordezkoen merkatuak hazkunde nabarmena erakusten du (+% 12,4); hain zuzen ere, balio aurre-pandemikoetatik oso hurbil kokatzen du.

Ohikoa den bezala, Europar Batasuna izan zen automobilgintzako osagarrien industriako esportazioen helburu nagusia, kanpoko salmenten % 66,4ren (13.051 milioi euro) erantzulea izanik. Urtetik urterako balioa % 9,8 handitu zuen, pixkanaka 2019ko mailetara hurbilduz (-% 3,2).

Informazioa herrialdeka banakatuta, Alemania (3.376 milioi euro) izan zen bazkide komertzial nagusia (2020rekiko +% 11), Frantziari lehen postua kenduta, 3.083 milioi eurora iritsi baitzen Frantzia (-% 2,8, urte batetik bestera). Ondoren, Portugal eta Italia zeuden, 1.676 milioi eurorekin eta 1.033 milioi eurorekin, hurrenez hurren, eta bi digituko urte arteko hazkundeak izan zituzten (+% 10,9 eta +% 17,8).

Europar Batasunetik kanpo, merkatuen dimentsioagatik nabarmendu ziren Erresuma Batua (1.100 milioi euro; -% 8,6) eta AEB (1.087 milioi euro; +% 14,5), nahiz eta azken urtean jarduera oso desberdinak izan. Marokok (832 milioi euro eta -% 1,2), Txinak (583 milioi euro, +% 18,5) eta Mexikok (399 milioi euro eta +% 38), osatu zuten, besteak beste, esportazio nazionalen mapa.



LABORAL kutxa

I+G+b arloko inbertsioari dagokionez (1.164 milioi euro 2021ean), hazten jarraitu zuen eta % 8,3 hazi zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta, hau da, fakturazioaren % 3,6. Egoera zaila izan arren, industria hornitzaileak I+G+b arloan inbertitzearen aldeko apustua egiten jarraitzen du, ibilgailu osoan osagaiek duten pisu espezifiko handia dela-eta, industria osagarriak ibilgailuaren balioaren % 75 ematen baitu.
Zifra horrek industriaren buruan jartzen du sektorea, kontuan hartuta I+G+b arloan inbertitutako bolumena industriaren batez bestekoa halako hiru dela.

Etorkizuneko perspektibei dagokienez, Sernautoren[1] arabera, sektorea aurrekaririk gabeko eraldaketan murgilduta dago, eta hainbat erronka ditu aurretik. Alde batetik, fabrikatzaileek produktu jakin batzuen eskuragarritasun- eta hornidura-arazoei aurre egiten jarraitu beharko dute, eta lehengaien kostuen eta prezioaren igoera kudeatu beharko dute; bestetik, auto elektrikoaren garapenak agintzen du plan guztien gainean, automobilgintzaren industriak Europan eta munduan duen posizioari eusteko.

Horretarako, Sernautok ibilbide-orri bat definitu du, eta 23 neurritan zehazten da, bost jarduera-ardatzetan: merkatua, inbertsioa, erregulazioa eta fiskalitatea, I+G+b eta talentua.

## 5.3. AUTOMOBILGINTZAKO HORNIDURA-INDUSTRIA EAEN

Mercedes-Benzek Gasteizen duen fabrikak, Vito furgonetak eta V klasea nahiz Vito E eta EQV elektrikoak ekoizten dituenak, urte zaila itxi zuen; izan ere, lantegiak geldialdi batzuk izan zituen erdieroalerik ez dagoelako, eta horrek, gainera, aldi baterako lan-erregulazioko espediente batzuk aplikatu behar izatea eragin zuen, hornidura ezaren eragina minimizatzeko.

Kontrako zirkunstantzia horiek hitzarmen kolektiboa negoziatzen ari ziren garai berean gertatu ziren, eta horrek airean utzi zuen Mercedes-Benz Alemaniak euskal lantegia elektrifikaziorantz eraldatzeko iragarritako 1.200 milioi eurotik gorako inbertsio historikoa. Horrela, 2022ko uztailean, urte eta erdiko negoziazio eta greba latzen ondoren, langileen gehiengoak aurreakordio bat onartu du 2026 arteko hitzarmen baterako.

Lantegian egingo den inbertsioak 5.000 langile zuzenen jarraipena bermatzen du (30.000 zeharka), eta 2022a ekoizpen errekorreko ekitaldi bihur daiteke, nahiz eta ikusteko dagoen aurreikuspen horiek nola alda ditzaketen Errusia-Ukraina gerrak eta horniduren urritasunak.

---

[1] Automobilgintzako Hornitzaileen Espainiako Elkartea.

Automobilgintzaren euskal sektoreak enpresa-sare garrantzitsua du Euskal Herrian; horrez gain, 32 herrialdetan 340 ekoizpen-planta ere baditu, bai garapen-bidean dauden merkatuetan, bai merkatu tradizionaletan. 2021ean, egoera konplexua izan arren, sektorea 18.351 milioiko fakturaziora iritsi zen, hau da, aurreko ekitaldian baino % 10,5 gehiago. Enpleguak, aldiz, behera egin zuen berriro (-% 2,8), eta 38.142 pertsona zenbatu ziren guztira.

**83. koadroa Automobilgintzako euskal hornidura-sektorearen bilakaera**

| Kontzeptua | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021(*) |
|---|---|---|---|---|---|
| Fakturazioa (M euro) | 18.390 | 19.311 | 20.375 | 16.605 | 18.351 |
| Enplegua (pertsona kopurua) | 40.859 | 40.924 | 40.488 | 39.255 | 38.142 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: ACICAE.*

Osagarrien industriak duen profil esportatzaile garbiaren aurrean, salmenten % 90 kanpora bideratzen dira, eta erdiak baino gehiagok Europako mugak gainditzen ditu; hala, esportazioen jardunak erabat baldintzatzen du sektorearen bilakaera. Merkatu-segmentuen arabera, jardueraren % 73 ibilgailu-eraikitzaileentzat zen, % 19 lehen mailako hornitzaileentzat, eta gainerako % 7a, ordezkoen merkatuarentzat.

**17. grafikoa Sektoreko fakturazioaren bilakaera**

*(M euro)*




*Iturria: ACICAE.*

I+G+b arloari dagokionez, euskal enpresek beren fakturazioaren % 2,7 partida horretara bideratu zuten, jakitun baitira azken belaunaldiko osagaien garapenean aurrera egiten jarraitzea dela erronka, etorkizuneko ibilgailuen eskakizunak bete ahal izateko.

Bestalde, ACICAEk 2022ko martxoan argitaratutako informazioaren arabera, i2LGARBI proiektua jarri zen abian, HAZITEK proiektu estrategikoa. Proiektu horren helburua barne-osagaien kontzeptu berriak garatzea da, sentsorika eta elektronika txertatuz, konfortera, segurtasunera, arintzera, ingurumenaren babesera eta bizi-zikloaren hobekuntzara bideratutako funtzionaltasun berriak integratzeko, fabrikazio-prozesuak eta material aurreratuak erabiliz, betiere. Horrela, ikuspegi bateratu batetik, dauden balio-kateak indartzea eta Euskadin berriak sortzea da helburua.

Nabarmendu beharreko beste proiektu garrantzitsu bat Basquevolt bateria-fabrika bat abian jartzeko aurreikuspena da, Eusko Jaurlaritzak eta inbertsiogileen partzuergo batek (kapitalaren % 83) bultzatuta. Besteak beste, Iberdrola, CIE Automotive, Enagás, EIT InnoEnergy eta CIC energiGUNE daude partzuergoan. Etorkizunean egingo den baterien euskal fabrika horrek 700 milioiko inbertsioa ekarriko du eta 800 lanpostu zuzen sortzea aurreikusten du. Fabrikaren lehen ekoizpen-lerroa 2025erako aurreikusita dago

Hala ere, ez da ildo horretako proiektu bakarra, Euskal Herriak beste bi proiektu bultzatu nahi baititu, bata Mercedes Benz buru duena, Gasteizko ibilgailuen ekoizpen-plantaren beharrak hornitzeko; eta bigarrena, Irizarren eskutik, bere autobus elektrikoetarako.

Hala eta guztiz ere, eta 2022ko lehen hiruhilekorako eskuragarri dagoen informazioaren arabera, gerra-gatazkak eta haren deribatuek eragindako ziurgabetasun globalak eta osagaien krisiak produkzio-kadentzia baldintzatzen jarraitzen dute, eta industria nazionaleko merkatu nagusien eskaria geldiarazten dute. Beraz, faktore horien bilakaerak, gorabehera berririk ezean, datozen urteetako susperraldi sektoriala markatuko du.

# 6. MAKINA-ERREMINTAK ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIAK

## 6.1. MAKINA-ERREMINTEN EUROPAKO INDUSTRIA

2021eko ekitaldia positiboa izan zen makina-erreminten Europako industriarentzat, neurri handi batean, urteko laugarren hiruhilekoan erregistratutako salmenten hazkundeari esker. CECIMOk, Makina-erreminten eta lotutako Fabrikazio Teknologien Industrien Europako Elkarteak, argitaratutako informazioaren arabera, egia da historikoki nahiko ohikoa dela laugarren hiruhilekoan eskariak haztea, baina 2021eko laugarren hiruhilekoko eskariaren hazkundea oso handia izan zen, eta pandemiaren aurreko mailara iristea lortu zuen.

Hala, 2021ean ia % 20 hazi zen makina-erreminten mundu mailako ekoizpena eta 72,1 bilioi eurora iritsi zen. CECIMOren kideek izandako hazkundea, berriz, zerbait txikiagoa izan zen (+% 11,6), eta 22,6 bilioi euroko fakturazioa izan zuten. Esportazioei dagokienez, CECIMOko kideen artean 17,1 bilioi euroko balioa eskuratu zuten, 2020an baino % 13 handiagoa. Inportazioek ere gora egin zuten eta 9,6 bilioi eurora iritsi ziren (2020arekin alderatuta +% 19,4). Horren guztiaren emaitza gisa, CECIMOko kideek munduko ekoizpen-mapan zuten pisu erlatiboa apur bat murriztu zen eta % 30 inguruan kokatu zen.

Hala, azken aurreikuspen ekonomikoen arabera (2022ko apirila), jarduera guztiz berreskuratuko da 2023an. Gogoratu beharrekoa da 2019an ekoizpena apur bat jaitsi zela (-% 2,3), eta 2020ko ekitaldia oso konplikatua izan zela CECIMOko kideentzat, ekoizpenak jaitsiera historikoa izan baitzuen, ia % 26koa. Hala, 2022rako makina-erreminten merkatuak nolabaiteko dimentsioa berreskuratzea espero da. 2022an, gutxi gorabehera % 19ko hazkundea izango dela aurreikusten da, eta 2023an beste % 11koa.

2022ko otsaileko gertakariei, hau da, Errusia-Ukraina gerra-gatazkari dagokionez, printzipioz ez luke inpaktu handirik izan behar sektorearen merkataritza-jardueran, baina tentsio geopolitikoa areagotzen du eta ziurgabetasun handiagoa eragiten du merkatuetan. Nolanahi ere, industria arloko gainerako jardueren kasuan bezala, energiaren kostu gorakorrak, hornidura-kateen arazoek edo material batzuen prezioen igoerak inpaktua izango dute sektoreko emaitzetan.

## 6.2. MAKINA-ERREMINTAK ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIAK

Makina-erreminten eta fabrikazio-teknologien Estatuko industriaren bilakaera aztertuta, eta AFMk[1] emandako informazioaren arabera, 2021ean, oro har, emaitza positiboak izan ziren, baina ñabardurekin. Hala, sektoreko fakturazioa nabarmen hazi zen (2020arekin alderatuta +% 18,7), eta 1.571,2 milioi eurora iritsi zen. Emaitzak ezberdinak izan ziren azpisektoreen arabera.

Abioen azpisektorearekin hasiko gara. % 43,4ko pisu espezifikoa izan zuen 2021eko ekitaldian, eta fakturazioak hazkunde handia izan zuen, % 22 ingurukoa. Hala, abioen azpisektorea, 681,9 milioi euroko fakturazioarekin, ia pandemiaren aurreko mailan kokatu zen. Fresatzeko makinak izan ziren bilakaera nabarmen horren eragile nagusiak, eta mundu mailako lider bilakatu ziren, haien teknologiarengatik eta merkatuan zuten partaidetzagatik.

Automobilgintza-sektoreak zalantzak izan zituen inbertitzeko garaian, eta horrek kalte egin zion deformazioaren azpisektoreari; hala, azken horren fakturazioa jaitsi egin zen 2021ean (-% 4,9) eta 300 milioi eurotik behera kokatu zen, 2019an erregistratutako balioetatik urrun (-% 25,6).

Gainerako sektoreei dagokienez, guztiek areagotu zuten fakturazioa, neurri handiagoan edo txikiagoan. Hala, osagaiek, % 15,9ko pisu erlatiboarekin, % 27,2 areagotu zuten fakturazioa. Erremintek eta beste makina batzuek, % 8 inguruko partaidetzekin, % 20,6ko eta % 35,1eko hazkundeak izan zituzten, hurrenez hurren. Zerbitzuek, berriz, ekarpena txikiagoa izan arren (% 6,3), nabarmen hobetu zituzten balioak 2021ean (+% 49,3). Denboraren gaineko ikuspegi zabalagotik begiratuta eta 2021ean eskuratutako emaitzak 2019an erregistratutakoekin alderatuta, gehienetan (deformazioan izan ezik) ia guztiz edo guztiz berreskuratu zuten pandemiaren aurreko maila; erreminten, beste makina batzuen eta beste zerbitzu batzuen kasuan, 2019ko balioetatik gora kokatu ziren.

[1] AFM, Makina-erreminta, Osagarri, Osagai eta Erreminten Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea. Espainiako makina-erreminten eta fabrikazio-teknologia aurreratuen enpresen % 90 ordezkatzen ditu.

**84. koadroa** **Makina-erreminten eta fabrikazio-teknologien sektorearen ekoizpena**

*(M euro)*

| Produkzioa | 2020 | 2021 | %∆ 21/20 |
|---|---|---|---|
| Makina-erremintak | 870,5 | 977,80 | 12,3 |
| · Abioa | 559,4 | 681,9 | 21,9 |
| · Deformazioa | 311,1 | 295,9 | -4,9 |
| Osagaiak | 196,4 | 249,9 | 27,2 |
| Erremintak | 108,4 | 130,7 | 20,6 |
| Beste makina batzuk | 95,6 | 129,2 | 35,1 |
| Beste zerbitzu batzuk | 66,43 | 99,2 | 49,3 |
| **Ekoizpenaren guztizkoa(*)** | **1.324,1** | **1.571,2** | **18,7** |

*(*): Makina-erreminta nazionaletan txertatutako osagaiak eta osagarriak salbu.*
*Iturria: AFM.*

Kanpo-salmenten bilakaera aztertuko dugu jarraian. Datuek erakusten dutenez, esportazioak asko hazi ziren. Deformazioaren azpisektorea izan zen salbuespena, esportazioen bolumena murriztu egin baitzen kasu horretan (-% 17,6). Hala, oro har, sektoreko esportazioak nabarmen areagotu ziren (+% 23,4) 2021ean eta 1.241,4 milioi eurora iritsi ziren.

Makina motaren arabera banakatuta, abioen makineria nabarmentzen da, esportazioak % 33,1 hazi baitziren. Esportazio-jardueraren % 51,3 zegokion abioen makineriari; deformazioari, berriz, % 15,6. Gainerako sektoreek emaitza positiboarekin amaitu zuten ekitaldia, eta denek hazkunde handia izan zuten kanpo-jardueran. Osagaiek, % 13,7ko ordezkaritzarekin, % 39,2ko hazkundea izan zuten; erreminten bolumena, % 5,6ko partaidetzarekin, % 22,3 hazi zen; beste makina batzuek ere, % 8,5ko pisu erlatiboarekin, hazkunde nabarmena izan zuten (+% 45,4); eta, azkenik, beste zerbitzu batzuek, ekarpen txikiena izan arren (% 5,2), taldeko urte arteko aldakuntza onena izan zuten (+% 63,7).

**85. koadroa** **Makina-erreminten eta fabrikazio-teknologien sektorearen esportazioa**

*(M euro)*

| Esportazioak | 2020 | 2021 | %∆ 21/20 |
|---|---|---|---|
| Makina-erremintak | 714,7 | 831,5 | 16,3 |
| · Abioa | 479,0 | 637,4 | 33,1 |
| · Deformazioa | 235,7 | 194,1 | -17,6 |
| Osagaiak | 122,2 | 170,1 | 39,2 |
| Erremintak | 57,3 | 70,1 | 22,3 |
| Beste makina batzuk | 72,7 | 105,7 | 45,4 |
| Beste zerbitzu batzuk | 39,1 | 64,0 | 63,7 |
| **Esportazioen guztizkoa** | **1.006,0** | **1.241,4** | **23,4** |

*(*):Makina-erreminta nazionaletan txertatutako osagaiak eta osagarriak salbu.*
*Iturria: AFM.*

## 6.3. MAKINA-ERREMINTA EUSKAL HERRIAN

Azterketa makina-erreminten sektorera mugatuko dugu. Sektore horrek posizio esanguratsua du Europa mailan (3. postua) eta mundu mailan (10. postua). Sektoreko zifra nagusien arabera, 2019-2020 biurtekoa konplikatua izan zen industriarentzat, baina 2021ean suspertu egin zen.

Bezero-sektore handi gehienetan egin zuen gora eskariak, eta horrek eragin zuen joera-aldaketa nabarmen hori. Automobilgintza eta aeronautika izan ziren salbuespenak, horien makineriako inbertsioak atzeratzen jarraitu baitzuten. Aurrez aipatu dugun moduan, abioen azpisektorearen bilakaera onak eragin zuen eskariaren hazkundea.

**86. koadroa Espainiar Estatuko makina-erreminten sektorearen aldagai nagusien bilakaera**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | %∆ 21/20 |
|---|---|---|---|---|
| 1. Produkzioa | 1.085,8 | 870,5 | 977,9 | 12,3 |
| 2. Barne-salmentak | 287,8 | 252,3 | 239,3 | -5,2 |
| 3. Esportazioak | 922,5 | 714,7 | 831,5 | 16,3 |
| 4. Inportazioak | 520,9 | 314,7 | 332,6 | 5,7 |
| 5. Ageriko kontsumoa (*) | 698,0 | 480,7 | 510,8 | 6,3 |
| 6. Esportazio-proportzioa = 3/1 | % 84,96 | % 82,10 | % 85,03 | 3,6 |
| 7. Inportazio-proportzioa = 4/5 | % 74,63 | % 65,47 | % 65,11 | -0,5 |

*(*): Ekoizpena – esportazioak (erabilitako makineria salbu) + inportazioak.*
*Iturria: AFM.*

Testuinguru horretan, beste behin ere barne-merkatua ez zen bat etorri, bolumenak behera egin baitzuen (-% 5,2; 239,3 milioi euro). Esportazioak, berriz, % 16,3 hazi ziren eta nolabaiteko dimentsioa berreskuratu zuten (831,5 milioi euro) 2020ko ekitaldian historikoki balio baxuak eskuratu ondoren. Inportazioek ere gora egin zuten, baina modu apalagoan (+% 5,7; 332,6 milioi euro). Ondorioz, ageriko kontsumoa % 6,3 hazi zen eta 510,8 milioi eurora iritsi zen.

Nabarmentzekoa da Estatuko makina-erreminten industriak joera esportatzaile handia duela. Hala, esportazioen proportzioa (esportazioak/ekoizpena) % 85,03koa izan zen 2021ean; inportazioen proportzioa (inportazioak/ageriko kontsumoa), berriz, askoz baxuagoa izan zen (% 65,11).

**18. grafikoa** **Makina-erreminten sektoreko merkataritza-balantza**

*(M euro)*




*Iturria: AFM.*

Estatuko produktuen jomugako merkatuei dagokienez, Estatu Batuak, Italia eta Alemania izan ziren industria nazionalaren merkataritzako bazkide nagusiak, % 10 inguruko partaidetzarekin. Txina eta Frantzia laugarren eta bosgarren postuetan kokatu ziren, % 9,5 eta % 6,0ko pisu espezifikoekin, hurrenez hurren. India, Turkia, Portugal, Mexiko eta Erresuma Batua sailkatu ziren jarraian, % 5,4 eta % 2,8 arteko kuotekin.

Merkataritza-fluxuen bilakaerari dagokionez, Frantziaren portaera nabarmentzen da, haren balioak asko jaitsi baitziren (-% 20,9). Era berean, balioek behera egin zuten Mexikon (-% 13,3), Portugalen (-% 11,1) eta Erresuma Batuan (-% 6,8). Aitzitik, igoera handiak izan zituzten Italian (+% 64,3), Txinan (+% 58,3) edo Indian (+% 37,9).

**87. koadroa** **Espainiako makina-erreminten esportazioen jomugako 10 herrialde nagusiak**

*(M euro)*

| Herrialdea | 2019 | 2020 | 2021* | %∆ 21/20 |
|---|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | 93,5 | 70,8 | 83,1 | 17,4 |
| Italia | 74,6 | 50,4 | 82,8 | 64,3 |
| Alemania | 118,9 | 81,4 | 82,6 | 1,5 |
| Txina | 68,7 | 50,1 | 79,3 | 58,3 |
| Frantzia | 69,9 | 62,8 | 49,7 | -20,9 |
| India | 30,3 | 32,7 | 45,1 | 37,9 |
| Turkia | daturik ez | daturik ez | 43,4 | -- |
| Portugal | 69,7 | 38,6 | 34,3 | -11,1 |
| Mexiko | 57,6 | 39,0 | 33,8 | -13,3 |
| Erresuma Batua | 17,0 | 25,0 | 23,3 | -6,8 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: AFM.*

Azterketa hori bera inportazioen kapitulura ekarrita, 2021ean Alemania eta Italia kokatu ziren inportazioen maparen buruan, argi eta garbi, inportazioen guztizkoaren % 24,1 eta % 19,2arekin, nahiz eta biek ia % 3ko jaitsierak izan. Txina eta Japonia kokatu ziren hirugarren eta laugarren postuetan, % 9,8 eta % 6,4ko partaidetzekin. Dena den, aurkako bilakaerak izan zituzten (+% 26,5 eta -% 15,8). Hainbat herrialdek % 5 inguruko pisu espezifikoa izan zuten, hala nola Frantziak, Turkiak, Taiwanek edo Belgikak. Gehienek nahiko hazkunde handiak izan zituzten haien balioetan.

**88. koadroa Makina-erreminten inportazio espainiarreko 10 herrialde nagusiak**

*(M euro)*

| Herrialdea | 2019 | 2020 | 2021* | %∆ 21/20 |
|---|---|---|---|---|
| Alemania | 146,9 | 82,4 | 80,1 | -2,8 |
| Italia | 100,1 | 65,9 | 64,0 | -2,9 |
| Txina | 36,1 | 25,7 | 32,5 | 26,5 |
| Japonia | 45,7 | 25,3 | 21,3 | -15,8 |
| Frantzia | 24,3 | 16,5 | 16,3 | -1,2 |
| Turkia | 16,4 | 9,7 | 15,2 | 56,7 |
| Taiwan | 24,7 | 10,3 | 14,4 | 39,8 |
| Belgika | daturik ez | daturik ez | 14,1 | -- |
| Hego Korea | 12,3 | 9,4 | 11,9 | 26,6 |
| Suitza | 17,5 | 12,7 | 9,9 | -22,0 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: AFM.*

Halaber, makina-erreminten sektorea haren eraldaketa-prozesuan murgilduta dago. Hiru zutabe ditu eraldaketa-prozesu horrek: pertsonak, digitalizazioa eta jasangarritasuna. Hala adierazi du AFMk: "Sektore giltzarria gara industriaren eraldaketarako eta jasangarritasunaren aldeko konpromisoa indartzeko apustua egiten dugu: jasangarritasun ekonomikoa, teknologikoki sofistikatuak, digitalizatuak eta konektatuak diren produktuak eta zerbitzuak eskainiz, balio erantsi altuarekin. Ingurumen arloko jasangarritasuna, ezagutza eskainiz, industria-prozesuek haien eraginkortasuna areagotu dezaten baliabideak erabiltzean, eta ingurunean eragiten duten inpaktua modu neurgarrian eta irmoan gutxitu dezaten. Eta jasangarritasun soziala, gizarte oso prestatua sortuz, ongi ordaindutako eta egonkortasun handiko lanpostuekin".

Eta etorkizuneko aurreikuspenei dagokienez, AFM nahiko baikor agertzen bada ere, honako hau dio: "Zailtasun batzuek konplikatu egin dute agertokia. Horien artean daude: Europako egoera geopolitikoak sortutako ziurgabetasun maila; osagai kritikoen, materialen eta energiaren garestitzea eta gabezia; eta garraioaren murrizketak eta kostua".

## 6.4. ESKU-ERREMINTA

ESKUIN Burdindegi eta industria-hornikuntzaren klusterreko enpresa fabrikatzaileek[1] bi digituko urte arteko hazkundeak izan zituzten 2021eko ekitaldian, aztertutako magnitude nagusietan. Ekoizpena 443,8 milioi eurora iritsi zen. 2020an, berriz, 358,6 milioi erregistratu ziren eta 2019an ere baxuagoa izan zen ekoizpena, 380,5 milioi eurokoa.

Zehatzago esanda, barne-merkatuak hazkunde handia izan zuen eta 202,5 milioi euroko fakturaziora heldu zen (+% 16,8); ondorioz, bezero-segmentu guztiek bilakaera ona izatea eragin zuen. Hala, industria-sektoreak, % 47,6ko kuotarekin, % 14,4 areagotu zituen salmentak. Eraikuntzak, berriz, barne-salmenten guztizkoaren gaineko % 44ko partaidetzarekin, hazkunde handiagoa izan zuen (+% 18,5). Nekazaritzak ere, partaidetza txikiagoarekin (% 8,4), bi digituko hazkundea izan zuen (+% 21,4); hortaz, taldeko urte arteko aldakuntzarik onena izan zuen.

**89. koadroa Sektorearen magnitude nagusien bilakaera.**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021(*) | % 21/20 |
|---|---|---|---|---|
| Produkzioa | 380,5 | 358,6 | 443,8 | 23,8 |
| Barne-salmentak | 197,5 | 173,3 | 202,5 | 16,8 |
| -Industria | 97,2 | 84,2 | 96,4 | 14,4 |
| -Eraikuntza | 87,4 | 75,1 | 89,0 | 18,5 |
| -Nekazaritza | 12,9 | 14,0 | 17,0 | 21,4 |
| Esportazioak | 183,0 | 185,2 | 241,2 | 30,1 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: ESKUIN –Burdindegi eta industria-hornikuntzaren klusterra–.*

Esportazioei dagokienez, horiek ere joera nagusiari jarraitu zioten eta urte arteko % 30,1eko hazkundea izan zuten. Hala, 2021ean, kanpora egindako salmentek erraz gainditu zuten 200 milioi euroko langa. Merkatuen arabera, EBk jaso zuen esportazio-jardueraren zatirik handiena: kanpora egindako salmenten guztizkoaren % 78,6. Frantzia izan zen produktu nazionalaren jomugako herrialde nagusia, % 18ko ordezkaritzarekin. Honako hauek osatu zuten esportazioen mapa: Amerika, esportazioen % 8,8rekin; Ekialde Ertaina, % 5,1ekin; Afrika eta Errusia eta Ekialdeko Europa, biak % 2,8rekin; eta, azkenik, Asia eta Ozeania (% 1,8).

[1] Espainian eskuzko erremintak eta burdindegiko produktuak fabrikatzen dituzten 22 enpresa ordezkatzen ditu ESKUIN Burdindegi eta industria-hornikuntzaren klusterrak.

# 7. PAPERA

## 7.1. NAZIOARTEKO EGOERA

Confederation of European Paper Industries-ek (CEPI) emandako informaziotik abiatuta, Paper eta Ore Fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak (ASPAPEL) emandako datuen arabera, 2021ean 90.190 mila tonara igo zen nazioartean ekoitzitako paper eta kartoi kopurua; hau da, aurreko urtean baino % 5,8 gehiago ekoitzi zen. Hortaz, eten egin zen aurreko bi ekitaldietan erregistratutako beheranzko ibilbidea.

**90. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena (CEPIko kideak)**

| Urtea | m Tm | % ∆ |
|---|---|---|
| 2016 | 90.982 | 0,1 |
| 2017 | 92.173 | 1,3 |
| 2018 | 92.200 | 0,0 |
| 2019 | 89.581 | -2,8 |
| 2020 | 85.208 | -4,9 |
| 2021* | 90.190 | 5,8 |

*(*): Behin-behineko datuak.*

*Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetan oinarrituta.*

Paperaren ekoizpena herrialdeen arabera aztertuta, eta datuak 2020ari dagozkiola kontuan izanda, Txinaren eta Estatu Batuen artean ekoitzi zuten guztizko bolumenaren erdia baino gehiago (% 53,2). Europari dagokionez, Alemania eta Suedia gailendu ziren, baina haien partaidetzak askoz txikiagoak izan ziren (% 6,6 eta % 2,9, hurrenez hurren).

**91. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena, herrialdeka**

*(m tona)*

| Herrialdea | 2020* | % ∆ |
|---|---|---|
| Alemania | 21.358 | -3,3 |
| Austria | 4.717 | -5,4 |
| Belgika | 1.610 | -8,8 |
| Bulgaria | 245 | 14,0 |
| Danimarka | 71 | 7,6 |
| Espainia | 6.269 | -2,6 |
| Finlandia | 8.202 | -15,5 |
| Frantzia | 6.872 | -6,2 |
| Grezia | 265 | -3,3 |
| Hungaria | 804 | 1,8 |
| Italia | 8.672 | -3,2 |
| Holanda | 2.869 | -0,9 |
| Polonia | 4.933 | 1,2 |
| Portugal | 2.127 | -5,5 |
| Erresuma Batua | 3.628 | -5,8 |
| Txekiar Errepublika | 909 | 3,1 |
| Eslovakia | 696 | -4,9 |
| Suedia | 9.333 | -2,9 |
| Norvegia | 933 | -11,6 |
| Suitza | 961 | -6,5 |
| Brasil | 10.348 | -2,4 |
| Kanada | 8.553 | -10,8 |
| Txina | 103.994 | -4,3 |
| Estatu Batuak | 67.955 | -1,7 |
| India | 14.459 | -6,4 |
| Japonia | 22.887 | -9,9 |
| Errusia | 9.429 | 4,5 |

*(*): Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2020ko informazioa baino ez dago eskuragarri.*

*Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.*

Arreta orearen ekoizpenean jarrita, 2020an Estatu Batuak, Brasil, Kanada eta Txina izan ziren protagonistak; lauren artean osatu zuten guztizko ekoizpenaren ia bi heren (% 63,4). Europan, Suediak eta Finlandiak % 8 inguruko kuotak eskuratu zituzten bi kasuetan.

**92. koadroa Ore-ekoizpena, herrialdeen arabera**

*(m tona)*

| Herrialdea | 2020* | % Δ |
|---|---|---|
| Alemania | 2.269 | -2,5 |
| Austria | 1.581 | -2,9 |
| Belgika | 415 | -17,0 |
| Bulgaria | 167 | -20,5 |
| Danimarka | 0 | -- |
| Espainia | 1.650 | -0,4 |
| Finlandia | 10.343 | -9,4 |
| Frantzia | 1.545 | -3,4 |
| Grezia | 0 | -- |
| Hungaria | 0 | -- |
| Italia | 182 | -44,0 |
| Holanda | 35 | 2,9 |
| Polonia | 1.190 | 0,8 |
| Portugal | 2.495 | -5,9 |
| Erresuma Batua | 208 | -5,5 |
| Txekiar Errepublika | 566 | 6,0 |
| Eslovakia | 725 | 5,4 |
| Suedia | 11.678 | 0,1 |
| Norvegia | 833 | 0,6 |
| Suitza | 72 | -20,9 |
| Brasil | 20.953 | 6,4 |
| Kanada | 14.365 | -7,8 |
| Txina | 14.270 | 11,0 |
| Estatu Batuak | 43.373 | -4,2 |
| India | 2.050 | 0,0 |
| Japonia | 7.053 | -15,7 |
| Errusia | 8.625 | 2,9 |

*(*): Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2020ko informazioa baino ez dago eskuragarri.*

*Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.*

## 7.2. SEKTOREA ESPAINIAN

ASPAPELen Txosten Estatistikoaren arabera, 2021ean paperaren eta kartoiaren ekoizpena % 6,2 hazi zen Espainian, 6.658,9 mila tonara arte. CEPIren eremuan nahiko antzekoa izan zen dinamika (paperaren eta kartoiaren ekoizpena % 5,8 hazi zen).

Era berean, paperaren esportazioak eta inportazioak (2.823,3 mila eta 3.067,7 mila tona, hurrenez hurren) ere igo egin ziren 2021ean Espainian (hurrenez hurren, % 8,9ko eta % 6,6ko hazkundeak), paperaren ageriko kontsumoa % 5,3 hazi baitzen (6.903,3 mila tona). Hala, 2021ean Estatuko paperaren merkataritza-balantzaren saldo negatiboa -244,4 mila tonara murriztu zen (2020an -284,4 mila tonakoa izan zen saldo negatiboa).

**93. koadroa** **Paperaren eta kartoiaren ekoizpena eta kontsumoa. Espainia, guztira.**

*(m Tm)*

| Urtea | Produkzioa | Inportazioa | Esportazioak | Ageriko kontsumoa |
|---|---|---|---|---|
| 2012 | 6.176,7 | 2.938,2 | 2.957,0 | 6.157,9 |
| 2013 | 6.181,5 | 2.950,8 | 3.047,4 | 6.084,9 |
| 2014 | 6.035,7 | 3.136,7 | 2.915,1 | 6.257,4 |
| 2015 | 6.195,2 | 3.208,3 | 2.796,2 | 6.607,3 |
| 2016 | 6.218,6 | 3.256,0 | 2.830,1 | 6.644,5 |
| 2017 | 6.217,8 | 3.266,6 | 2.681,4 | 6.802,9 |
| 2018 | 6.156,6 | 3.288,4 | 2.584,9 | 6.860,1 |
| 2019 | 6.436,6 | 3.088,4 | 2.651,1 | 6.873,9 |
| 2020 | 6.268,5 | 2.877,3 | 2.592,9 | 6.552,9 |
| 2021 | 6.658,9 | 3.067,7 | 2.823,3 | 6.903,3 |

*Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.*

**19. grafikoa** **Paperaren sektorearen aldagai nagusien bilakaera Espainian**

*(Indizea: 1985= 100)*




*Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.*

Bloke geografiko handien arabera, aurreko ekitaldietan bezala, 2021ean ere EB izan zen Estatuaren merkataritza-bazkide nagusia. EBtik egin ziren kanpo-erosketen % 91, eta EBra egin ziren kanpo-salmenten % 60. Zehatzago, Frantziari dagokio inportazioen % 16, eta, Alemaniari eta Finlandiari inportazioen % 15, bi kasuetan. Bestetik, Portugali eta Frantziari dagozkie esportazioen % 21 eta % 20, hurrenez hurren.

Paper motak aintzat hartuta, 2021ean hazkunde orokortua izan zuen ekoizpenak. Prentsarako eta inprimatzeko eta idazteko paperaren ekoizpena eta beste paper batzuen ekoizpena % 15,9 igo zen bi kasuetan; uhin-kartoiarena % 5,1 hazi zen; beste ontzi eta enbalaje batzuetara bideratutakoa % 4,6; higienikoak eta sanitarioak % 1,3; eta kartoi iztukatuarena % 0,9.

**94. koadroa Ekoizpena eta kontsumoa, paper motaren arabera**

*(m Tm)*

| Mota | Produkzioa | | Inportazioa | | Esportazioak | | Ageriko kontsumoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | % ∆ 21/20 | 2021 | % ∆ 21/20 | 2021 | % ∆ 21/20 | 2021 | % ∆ 21/20 |
| Prentsa eta inprimatzea eta idazketa | 740,2 | 15,9 | 882,3 | 3,5 | 898,0 | 15,5 | 724,5 | 1,5 |
| Higienikoak eta sanitarioak | 813,2 | 1,3 | 152,8 | 1,6 | 221,4 | 5,5 | 744,6 | 0,2 |
| Uhin-kartoirako | 3.694,6 | 5,1 | 1.012,9 | 10,3 | 973,8 | 1,8 | 3.733,7 | 7,3 |
| – Uhinetarako | 1.680.1 | 8,5 | 311,3 | 13,6 | 331,1 | -4,7 | 1.660,2 | 12,6 |
| – Test Liner eta Kraft Liner | 1.591,3 | 2,6 | 676,8 | 8,6 | 570,1 | 7,8 | 1.697,9 | 3,2 |
| – Bikoak eta larruak | 423,2 | 1,5 | 24,8 | 19,7 | 72,5 | -9,4 | 375,6 | 4,9 |
| Kartoi iztukatua | 322,8 | 0,9 | 484,2 | 0,8 | 156,3 | -10,3 | 650,7 | 3,9 |
| Beste ontzi eta enbalaje batzuk | 552,6 | 4,6 | 399,8 | 15,7 | 475,7 | 15,2 | 476,7 | 3,3 |
| Beste paper batzuk | 535,5 | 15,9 | 135,7 | 3,9 | 98,0 | 56,4 | 573,2 | 8,2 |
| **Papera eta kartoia, guztira** | **6.658,9** | **6,2** | **3.067,7** | **6,6** | **2.823,3** | **8,9** | **6.903,3** | **5,3** |

*Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.*

Paper-orearen azpisektoreari dagokionez, 2021ean 1.777 mila tona ekoitzi ziren, aurreko urtean baino gehiago (% 7,7). Era berean, igo egin ziren orearen inportazioa (1.129,3 mila tona, % 3,5eko igoera) eta esportazioa (1.084,4 mila tona, % 5,6ko igoera); baita ageriko kontsumoa ere (1.821,9 mila tona, aurreko ekitaldian baino % 6,3 gehiago).

Gauzak horrela, orearen Estatuko merkataritza-balantzaren saldo negatiboa -44,9 mila tonara murriztu zen 2021ean (-63,9 mila tonako saldo negatiboa zuen 2020an), eta estaldura-tasa % 96koa izan zen (aurreko ekitaldian % 94,1ekoa).

Berreskuratutako paperaren ageriko kontsumoa % 4,4 hazi zen 2021ean eta 5.354,8 mila tonatan kokatu zen.

**95. koadroa Ekoizpena eta kontsumoa, ore motaren arabera**

*(m Tm)*

| Mota | Produkzioa | | Inportazioa | | Esportazioak | | Ageriko kontsumoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | % ∆ 21/20 | 2021 | % ∆ 21/20 | 2021 | % ∆ 21/20 | 2021 | % ∆ 21/20 |
| Ore birjinak, guztira | 1.777,0 | 7,7 | 1.129,3 | 3,5 | 1.084,4 | 5,6 | 1.821,9 | 6,3 |
| Paper zaharra (ageriko bilketa) | 4.403,2 | 0,4 | 1.655,5 | 12,8 | 704,0 | -2,5 | 5.354,8 | 4,4 |

*Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.*

Txosten honen aurreko edizioetan egindakoaren ildotik, jarraian, berreskuratutako paperaren erabilera aztertuko dugu, adierazle hauetan oinarrituta: ageriko bilketa-tasa, erabilera-tasa eta birziklapen-tasa. Ageriko bilketa-tasa (paper zaharraren ekoizpena/paperaren eta kartoiaren kontsumoa): 2021ean % 63,8 (2020an % 66,9). Erabilera-tasa (paper zaharraren kontsumoa/paperaren eta kartoiaren ekoizpena): 2021ean % 80,4 (aurreko ekitaldian % 81,8).

Birziklapen-tasa (paper zaharraren kontsumoa/paperaren eta kartoiaren kontsumoa): 2021ean % 77,6 (aurreko ekitaldian % 78,3).

## 7.3. SEKTOREA EUSKAL HERRIAN

CEPIren eremuan (% 5,8) eta Estatuan (% 6,2) erregistratutako igoeren ildotik, Euskal Herrian ere gora egin zuen paperaren sektoreko paperaren eta kartoiaren ekoizpenak 2021ean. % 6,9ko igoera erregistratu zen; hala, 1.478,8 mila tonara egin zuen gora ekoizpenak. Hala, Euskal Herriko hazkunde erlatiboa handiagoa izan zen Estatukoa baino eta, ondorioz, Euskal Herriko paperaren sektorearen partaidetza-kuota apur bat igo zen (2021ean Espainiako ekoizpenaren % 22,2, eta aurreko ekitaldian, % 22,1).

**96. koadroa Paperaren eta orearen ekoizpena Euskal Herrian**

*(m Tm)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | % ∆ 21/20 |
|---|---|---|---|---|
| Papera eta kartoia, guztira | 1.453,5 | 1.383,9 | 1.478,8 | 6,9 |
| Orea, guztira | 490,9 | 446,3 | 510,9 | 14,5 |

*Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.*

Oreari dagokionez, Estatuko igoerarekin bat (% 7,7), Euskal Herrian % 14,5 igo zen orearen ekoizpena 2021ean, hau da, 510,9 mila tonara arte hazi zen. Ondorioz, Estatuko ekoizpenaren gaineko kuota handitu egin zen: 2021ean % 28,8 eta 2020an eta % 27.

Kanpo-merkataritzako elkartrukeei dagokienez, eta kasu honetan aurkezten diren zifrak monetarioak direla aintzat hartuta, 2021ean hazi egin ziren Euskal Herriko paperaren eta orearen esportazioak zein inportazioak. Hala, kanpora egindako salmentak % 19,1 igo ziren, 970.895 mila eurora arte, eta kanpotik egindako erosketak % 20,1 hazi ziren, 633.559 mila eurora arte. Gauzak hala, merkataritza-balantzaren saldo positiboa 337.336 mila eurora arte hazi zen (aurreko ekitaldian 287.440 mila eurokoa zen).

Azkenik, paperaren sektoreko Euskal Herriko enpresa nagusiak azaltzen dira jarraian, modu sintetikoan, eta bakoitza non dagoen eta zer paper mota ekoizten duten adierazten da.

**97. koadroa Euskal Herriko paperaren sektoreko enpresa nagusiak**

| Enpresak | Kokapena | Produkzioa |
|---|---|---|
| Papresa | Errenteria | Prentsarako papera |
| Smurfit Kappa Nervión | Iurreta | Orea, kraft papera |
| Smurfit Kappa Navarra | Zangoza, Cordovilla | Orea, kraft papera, uhin-kartoia eta zakuak |
| Sca Hygiene Spain (Essity Operations Allo) | Allo | Tisu papera |
| Papelera Guipuzcoana de Zikuñaga (Iberpapel) | Hernani | Inprimatzeko eta idazteko orea eta papera |
| Munksjö Paper DECOR (Ahlstrom-Munksjo Paper) | Berastegi | Laminatuetarako oinarri-papera |
| Papelera del Oria | Zizurkil | Inprimatzeko eta idazteko papera |
| Papelera del Ebro | Viana | Uhin-papera eta -kartoia |
| Bertako | Uharte | Uhin-papera eta -kartoia |
| Newark San Andrés (Solidus Solutions San Andrés) | Atarrabia | Uhin-kartoia |

*Iturria: Fomento de la Producción. "Las 2.500 mayores empresas españolas", eta enpresen memoriak.*

# 8. KAUTXUA

## 8.1. NAZIOARTEKO EGOERA

International Rubber Study Group taldearen arabera, nazioartean jarduera suspertzearekin batera, 2021ean % 9,6 hazi zen kautxuaren mundu mailako kontsumoa, 29,6 milioi tonara arte.

Kautxu mota kontuan hartuta, kontsumoaren suspertzea orokortua izan zen. 2021ean, mundu mailan % 9,4 hazi zen kautxu naturalaren kontsumoa, 13,9 milioi tonara arte. Eta kautxu sintetikoaren kontsumoa % 9,8 igo zen, 15,7 milioi tonara arte.

**98. koadroa Kautxu naturalaren eta sintetikoaren munduko kontsumoa**

*(M Tm)*

| Kontzeptua | Kautxu naturala | | | Kautxu sintetikoa | | | Guztira | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | % Δ 21/20 | 2020 | 2021 | % Δ 21/20 | 2020 | 2021 | % Δ 21/20 |
| Guztira | 12,7 | 13,9 | 9,4 | 14,3 | 15,7 | 9,8 | 27,0 | 29,6 | 9,6 |

*Iturria: International Rubber Study Group.*

## 8.2. KAUTXUAREN ERALDAKETA-SEKTOREA ESPAINIAN ETA EAEN

2020an nabarmen egin zuen behera jarduerak, pandemiaren inpaktuaren ondorioz. Ondoren, 2021ean, kautxuaren eraldatuen ekoizpena eta haren ageriko kontsumoa asko igo ziren Espainian. Dena den, pneumatikoen eta birkautxutatuaren azpisektoreak hazkunde handiagoa izan zuen pieza teknikoen (kautxu industriala) eta kautxuaren eraldatuen azpisektoreek baino.

Zehazki, Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionalak emandako informazioaren arabera, 2021ean 863.107 tonara igo zen sektorearen ekoizpena Estatuan, hortaz, urte arteko % 17ko igoera izan zuen. Ageriko kontsumoa, berriz, % 16,2 hazi zen, 632.034 tonara arte.

Ildo beretik, sektorearen fakturazioa % 14 hazi zen, 4.928,8 milioi eurora arte. Izan ere, gora egin zuten pieza teknikoaren azpisektorearen salmentek (% 4,6) eta, batez ere, pneumatiko eta birkautxutatuaren salmentek (% 18,8).

Dena den, kontuan hartu behar da pneumatikoen eta birkautxutatuaren azpisektoreak izandako hazkunde handia pneumatikoen salmentak ekipo originalaren eta, bereziki, ordezko ekipoen merkatuetan izandako partaidetzaren ondorioa izan zela.

Kautxuaren eraldatze-sektore osoari dagokionez, sektoreko ekoizpena % 17 igo zen eta sektoreko enplegua -% 2 murriztu zen. Testuinguru horretan, 2021ean, kautxuaren sektore nazionalaren ekoizpena % 19,5 hazi zen, langile bakoitzeko 41,5 tonara arte.



LABORAL kutxa

Automobilgintza-sektoreak kautxuaren eraldaketa-industrian duen garrantzi nabarmena kontuan izanik, kapitulu honen amaieran (pneumatikoen eta birkautxutatuaren azpisektorearen gaineko blokean) sektore horren aipamen labur bat egingo dugu, aurreko txostenetan bezala.

**99. koadroa Kautxuaren eraldaketa-sektorearen oinarrizko datuak [(1)] Espainian**

*(Tm)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | % ∆ 21/20 |
|---|---|---|---|
| 1. Produkzioa | 737.392 | 863.107 | 17,0 |
| 2. Ageriko kontsumoa | 543.996 | 632.034 | 16,2 |
| 3. Esportazioa | 734.834 | 841.103 | 14,5 |
| 4. Inportazioa | 541.438 | 610.030 | 12,7 |
| 5. Saldo komertziala | 193.396 | 231.073 | 19,5 |
| 6. Esportazioaren batez besteko prezioa[(2)] | 4,03 | 4,09 | 1,5 |
| 7. Inportazioaren batez besteko prezioa[(2)] | 4,80 | 5,10 | 6,1 |
| 8. Esportazioa/Ekoizpena (%) | % 99,7 | % 97,5 | -2,2 |
| 9. Inportazioa/Ageriko kontsumoa (%) | % 99,5 | % 96,5 | -3,0 |
| 10. Enplegua | 21.204 | 20.774 | -2,0 |
| 11. Produktibitatea (1/10)[(3)] | 34,8 | 41,5 | 19,5 |

*(1): Honako hauek barne: EJSN 22.11 (pneumatikoak eta birkautxutatua) eta EJSN 22.19 (kautxuzko beste produktu batzuk: kautxuzko eta latexezko pieza teknikoa).*

*(2): Euro/kg.*

*(3): Tm/Enplegatu/urte.*

*Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.*

Kanpo-merkataritzari dagokionez, kautxuaren eraldatuen kanpo-salmenten eta kanpo-erosketen bolumenak hazi egin ziren 2021ean: 841.103 eta 610.030 tona, aurreko urtean baino % 14,5 eta % 12,7 bolumen handiagoa, hurrenez hurren. Hala, merkataritza-superabita 231.073 tonakoa izan zen,% 19,5 handiagoa.

Azpisektoreetan arreta jarrita, hazkundea orokorra izan zen. Pneumatikoen eta birkautxutatuaren esportazioak % 13,1 igo ziren, eta pieza teknikoenak, % 20,4. Inportazioen kasuan, igoerak % 14,8 eta % 7,6koak izan ziren, hurrenez hurren.

**100. koadroa Kautxuaren eraldatuen kanpo-merkataritza, azpisektore handien arabera**

*(Tm)*

| Produktua | Esportazioa | | | Inportazioa | | | Saldoa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | % ∆ 21/20 | 2020 | 2021 | % ∆ 21/20 | 2020 | 2021 | % ∆ 21/20 |
| Pneumatikoak eta birkautxutatua | 593.818 | 671.376 | 13,1 | 379.734 | 436.112 | 14,8 | 214.084 | 235.264 | 9,9 |
| Pieza teknikoa | 141.016 | 169.727 | 20,4 | 161.704 | 173.918 | 7,6 | -20.688 | -4.191 | -79,7 |
| **Guztira** | **734.834** | **841.103** | **14,5** | **541.438** | **610.030** | **12,7** | **193.396** | **231.073** | **19,5** |

*Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.*

Era berean, dirutan ere asko hazi ziren kautxuaren eraldatuen kanpo-salmentak eta kanpo-erosketak 2021ean (% 16,1 eta % 19,5, hurrenez hurren).

**101. koadroa Kautxuaren eraldatuen kanpo-merkataritza, azpisektore handien arabera**

*(M euro)*

| Produktua | Esportazioa | | | Inportazioa | | | Saldoa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | % ∆ 21/20 | 2020 | 2021 | % ∆ 21/20 | 2020 | 2021 | % ∆ 21/20 |
| Pneumatikoak eta birkautxutatua | 2.011,1 | 2.279,3 | 13,3 | 1.358,6 | 1.674,9 | 23,3 | 652,5 | 604,5 | -7,4 |
| Pieza teknikoa | 948,6 | 1.157,8 | 22,0 | 1.242,9 | 1.434,6 | 15,4 | -294,3 | -276,8 | -5,9 |
| **Guztira** | **2.959,8** | **3.437,1** | **16,1** | **2.601,5** | **3.109,5** | **19,5** | **358,3** | **327,7** | **-8,5** |

*Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.*

EAEko kautxuaren eraldatze-sektorea aintzat hartuta, eta kautxuari eta plastikoari buruzko Eustaten Industria Ekoizpenaren Indizea (IPI) kontuan hartuta, 2021ean % 11 egin zuen gora IPIak (2020an -% 13,5 jaitsi zen, pandemiaren inpaktuaren ondorioz).

Dinamika horren ildotik, kanpoko trukeei dagokienez, EAEko kautxuaren eta manufakturen esportazioak eta inportazioak (1.373.796 eta 559.794 mila euro, hurrenez hurren) ere nabarmen igo ziren 2021ean (% 18,9 eta % 31ko hazkundeak, hurrenez hurren). Hala, kautxuaren eta manufakturen merkataritza-balantzaren saldo positiboa % 11,7 hazi zen.

Datu horiek Estatuko datuekin alderatuta, ikuspegi monetariotik, Estatuko guztizkoaren gaineko EAEko kanpo-merkataritzaren partaidetza igo egin zen esportazioen (2021ean guztizkoaren % 40 eta aurreko ekitaldian, berriz, % 39,1) zein inportazioen kasuan (2021ean guztizkoaren % 18 eta 2020an, aldiz, % 16,4).

## 8.3. PNEUMATIKOEN ETA BIRKAUTXUTATUAREN AZPISEKTOREA

Azterketa pneumatikoen eta birkautxutatuaren azpisektorera mugatuta, Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionalaren arabera, 2021ean % 20,8 egin zuen gora sektoreko ekoizpenak, 673.009 tonara arte. Ageriko kontsumoa, berriz, % 27,6 hazi zen eta 437.745 tonatan kokatu zen.

Kanpo-merkataritzak ere bilakaera positiboa izan zuen 2021ean. Izan ere, pneumatikoen eta birkautxutatuaren esportazioak % 13,1 areagotu ziren eta 671.376 tonara iritsi ziren. Inportazioak, berriz, % 14,8 hazi ziren, 436.112 tonara arte. Hala, esportatzeko joera % 99,8koa izan zen eta inportatzeko joera % 99,6koa.

Zentzu horretan, pneumatikoen eta birkautxutatuaren azpisektorearen hazkundeari buruz lehen esandakoa gogoratzea komeni da. Erdieroaleen gabeziak kalte egin zion hazkundeari, ibilgailuen ekoizpena mugatu zuelako, baina kontsumorako pneumatikoen aldaketak bultzatu zuen hazkundea.



LABORAL kutxa

**102. koadroa Pneumatikoen eta birkautxutatuaren ekoizpena, kontsumoa eta kanpo-merkataritza**

*(Tm)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | % ∆ 21/20 |
|---|---|---|---|
| 1. Produkzioa | 557.077 | 673.009 | 20,8 |
| 2. Esportazioa | 593.818 | 671.376 | 13,1 |
| 3. Inportazioa | 379.734 | 436.112 | 14,8 |
| 4. Ageriko kontsumoa | 342.993 | 437.745 | 27,6 |
| 5. 2/1 x 100 | 106,6 | 99,8 | -6,4 |
| 6. 3/4 x 100 | 110,7 | 99,6 | -10,0 |

*Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.*

Kautxuaren sektorearen eta automobilgintza-sektorearen arteko lotura estua kontuan izanda, azken horren bilakaera aztertuko dugu jarraian, labur. Hala, Automobilen eta Kamioien Fabrikatzaileen Espainiako Elkartearen (ANFAC) arabera, 2021ean % 0,3ko hazkunde apala izan zuten ibilgailuen matrikulazioek, eta 1.034.063 unitatetan kokatu ziren (2020an -% 31,3ko jaitsiera). Ibilgailuen ekoizpenaren eta esportazioaren (2.098.133 eta 1.820.727 unitate, hurrenez hurren) jaitsiera-erritmoa, berriz, nabarmen gutxitu zen: -% 7,5 eta -% 6,7. Aurreko ekitaldian, berriz, -% 19,6 eta -% 15,5, hurrenez hurren.

**103. koadroa Ibilgailuen ekoizpena eta salmenta Espainian**

*(unitateak)*

| Kontzeptua | Produkzioa | | | Esportazioa | | | Matrikulazioak(1) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | % ∆ 21/20 | 2020 | 2021 | % ∆ 21/20 | 2020 | 2021 | % ∆ 21/20 |
| Turismoak | 1.800.664 | 1.662.174 | -7,7 | 1.588.889 | 1.455.634 | -8,4 | 851.210 | 859.476 | 1,0 |
| Industria-ibilgailuak(2) | 467.521 | 435.959 | -6,8 | 362.559 | 365.093 | 0,7 | 177.365 | 172.628 | -2,7 |
| Autobusak eta autokarrak | 0 | 0 | -- | 0 | 0 | -- | 2.171 | 1.959 | -9,8 |
| **Guztira** | **2.268.185** | **2.098.133** | **-7,5** | **1.951.448** | **1.820.727** | **-6,7** | **1.030.746** | **1.034.063** | **0,3** |

*(1): Matrikulazioen kontzeptua barne-salmentena baino zabalagoa da; saldu gabe edo stockean dauden ibilgailuak ere barne hartzen ditu. Turismoen matrikulazioen zifrak lur orotako ibilgailuen matrikulazioak ere aintzat hartzen ditu.*

*(2): Honako hauek barne hartzen ditu: pick-upa, traktokamioiak, industria-ibilgailu arinak eta astunak, furgonetak eta merkataritza-ibilgailu arinak.*

*Iturria: ANFAC.*

Azkenik, txosten honen aurreko edizioetan egindako lanari jarraipena emateko, Euskal Herrian kokatzen diren pneumatikoen fabrikatzaile nagusien inguruko aipamen bat egingo dugu: Michelin eta Bridgestone.

Michelinen Euskal Herriko fabrikak Gasteizen, Araian (Araban; izatez, logistika-zentro bat da) eta Lasarten (Gipuzkoan) daude, eta haietan garatzen du jarduera. 2021ean enpresa-taldeak saihestu egin zuen automobilgintzako hornigaien krisia, eta pandemiaren aurreko zifrak berreskuratu zituen mundu mailan.

Hala, 1.845 milioi euroko irabazi garbiak izan zituen 2021ean. Emaitza horrek hirukoiztu egiten du 2020 urte kritikoan eskuratutako emaitza (625 milioi euro), eta apur bat hobetzen du 2019koa (1.730 milioi euro).

Ordezko pneumatikoek eta obra zibilak izandako joera onak konpentsatu egin zuen txip erdieroaleen gabeziak ibilgailu berrien ekoizpena mugatu izana, eta horregatik izan zen emaitza ona. Euskal Herrian, 2021ean Lasarteko lantegiak ekoizpen historikoa lortu zuen, ia bi milioi gurpilekoa. Kontuan izan behar da lantegi hori, batez ere, motoentzako pneumatikoak ekoiztera bideratuta dagoela (pandemiaren eta konfinamenduen ondoren hazkunde handia izaten ari den segmentua) eta, bereziki, ordezkapenekoak (guztizkoaren % 90). Hortaz, haren jarduerari ez dio horrenbeste eragiten ibilgailu berrien merkatuaren bilakaerak. Gasteizko lantegiari dagokionez, haren bilakaera ez zen hain ona izan. Izan ere, kasu honetan, lehen jarrialdiko pneumatikoen pisua handiagoa da (gurpilen ekoizpenaren % 40 turismo berrientzat da). Hortaz, ibilgailuen fabrikazioan izandako geldialdiek gehiago eragin zioten honen ekoizpenari, eta 2021aren azken hiruhilekoan ia milioi laurden gurpil gutxiago ekoitzi zituzten. Edonola ere, konpainiak haren inbertsio-plana mantendu zuen (40 milioi euro inguru 2022an), batez ere, ekoizpen-katean hobekuntzak egitera bideratuta, prozesuak digitalizatuz eta eraginkortasuna hobetuz. Halaber, $CO_2$ emisioak deuseztatze aldera, gurpilak egiteko erabiltzen diren plantxa guztiak elektrifikatzeko proiektua nabarmentzen da.

Bridgestonek Basaurin eta Usansolon ditu Euskal Herriko fabrikak. 2020an galerak izan ondoren (-177 milioi euro), enpresa-taldeak irabaziak izan zituen berriz ere 2021ean (3.006 milioi euro), Premium negozio-estrategia indartu izanari esker eta ordezko pneumatikoen eskariaren hazkundearen aurrean izandako erantzun azkarrari esker. Basauriko fabrikari dagokionez, harekin lotutako bi jarduketa nabarmendu behar dira. Lehenik eta behin, aipatu beharrekoa da Eusko Jaurlaritzaren Bind 4.0 programako hiru startupen proiektuak garatu dituela fabrika horrek. Bestetik, “BKanpus Bilbao” 4.0 prestakuntza-proiektua garatu du fabrika honek. Langabetuak prestatzea da proiektu horren helburua, manufaktura-sektorean lan egin dezaten. Hala, bide berri bat ireki nahi da Euskal Herriko industria arloko prestakuntzaren eremuan.

# 9. SEKTORE ELEKTRONIKO-INFORMATIKOA

## 9.1. JOERA TEKNOLOGIKOAK[1]

Kapitulu hau garatu aurretik, kontuan izan behar da lan hau egin den datan "Espainiako IKT sektorearen, hedabideen eta ikus-entzunezko zerbitzuen gaineko urteko txostena" (gai honetako erreferentziazko azterlantzat hartzen dena) ez zegoela eguneratuta eta, ondorioz, aurten ezin dugula Estatuko sektoreko informazio kuantitatiboa eskaini. Horren ordez, arlo honi eragiten dioten joera teknologiko nagusiak aurkeztea erabaki dugu. Etorkizuneko eraginkortasunari dagokionez inpaktu handiena eskaintzen dutenei jarriko diegu arreta. Joera teknologiko hauek arrakastaz lantzen dituzten enpresek lehiakortasun-abantaila iraunkorra eskuratuko dute, ezagutza eta trebetasun teknologikoetan oinarritua.

***Datuen bidez bultzatutako negozio-eredua: Konpetentzia teknologikoetatik ekosistema-zerbitzuetara aldatzea***

Sarri, datuen malgutasunean eta irudi oso bat emateko duten gaitasunean oinarritzen da datuen benetako balioa. Zentzu horretan, datuetan oinarritutako negozio-ereduen balio erantsiaren erdia baino gehiago ekosistemetatik dator. Hala, erakundeek aintzat hartu beharko lukete eskura dituzten datuek nola erantsi diezaioketen balioa haien ekosistemari.

***Teknologia berdera bideratutako inbertsioa: Trantsizio berdea, lehiakortasun-abantailaren iturri gisa***

Gaur egun, garai berri baten sorrera dugu aurrean: Aro Berdea. Aldaketa klimatikoari aurre egiteko beharrak bultzatu du aro berri honen sorrera eta, aldi berean, hornidura-kateen bidezko mendekotasun geopolitikoak murrizteko bultzadak indartu du. Trantsizio horrek aurrez pentsatu ere egin gabeko aukerak ekarri ditu, eta enpresek lehiakortasun-abantaila eskura dezakete aukera horietatik.

---

[1] Azterlan honetan oinarritutako informazioa: *"Joera teknologikoak: Etorkizuneko lehiakortasun-abantailetarako berrikuntzak"*, Arthur D. Little (ADL) nazioarteko aholkularitzak 2022ko ekainean argitaratua.

***Gizakiaren eta makinaren arteko fusioa: Lanbide gehienetan aldaketa bat egon liteke, eta jarduerak hibrido bihurtu***

Berrikuntza teknologikoa funtsezko aldaketa eragiten ari da negozioetan eta gizartean. Hala, lan-harreman erabat berriak ezartzen ari dira gizakiaren eta makinen artean. Hala, laster, zeregin jakin batzuk adimen artifizialeko makinei eta algoritmoei esleituko zaizkie. Horrek balio erantsi handiagoko zereginetan zentratzeko aukera emango die langileei. Gainera, zereginak gertatzen eta gauzatzen diren lekua ere aldatzen ari da, eta metabertsoaren gisako garapenek errotiko aldaketa ekarriko dute. Hala, espazio sinbiotiko berriak sortuko dira, non gizakiak eta makinak elkarrekin lan egiteko gai izango diren, arazorik gabe.

***Lidergo digital azkarra: Eraldaketa digitalak trebetasun berriak behar ditu arrakasta izateko***

Lidergo-estiloak aldatu egin behar dira eraldaketa digitala, pandemiaren inpaktua, azkar eraldatzen diren merkatuak eta enpresa birtualak menderatzeko. Lider digital arrakastatsuek, haien erakundea zuzentzeko eta garatzeko, teknologiaren boterea ulertzen eta aprobetxatzen dute, eta sormena eta etorkizunean oinarritutako begirada erabiltzen dituzte enpresa bultzatzeko.

***Gamifikazioa, eraldaketarako: Jolas-elementuak erabiltzea erakundearen ingurunean jokabide positiboa bultzatzeko***

Gamifikazioa ikuspegi moderno bat da, jolas-elementuak erabiltzen dituena langileak norabide jakin batzuetan “motibatzeko”. Horretarako, diseinu ludikoko elementuak dibertigarriak dira, informazio gardenak motibatu egiten du, atzeraelikadura berehalakoa da eta arrakastak unean bertan ospatzen dira.

***Adimen artifizialak ahaldundutako negozioa: Ikaskuntza-mekanismoen erabilera ohikoak ez diren jarduera konplexuak automatizatzeko***

Determinatzaile tradizionalekin (zenbakizkoak eta egituratutako datu-iturri kuantitatiboak) lan egiteaz gain, Adimen Artifizialak probabilitateekin eta egituratu gabeko testuzko datu kualitatiboekin ere egin dezake lan. Hortaz, funtzio kognitiboak gauzatzeko erabil daiteke eta, automatizatzea ahalbidetzeaz gain, prozesu horiek guztiz autonomoak izan daitezen ere ematen du aukera.



LABORAL kutxa

***Teknologiaren eta pribatutasunaren arteko oreka: Pribatutasunarekin lotutako eskubideak betetzen direla bermatzea eta, aldi berean, aukerak areagotzea***

Jendeak aukeratu egin nahi du informazio pertsonala norekin partekatu nahi duen, informazio hori nola prozesatzen den eta zertarako erabiltzen den. Orain arte, enpresetako pribatutasun-politikek, batez ere, "ohartarazpena eta onarpena" izan dituzte oinarrian, baina ikuspegi hori ez da nahikoa. Ikuspegi berriak behar dira, printzipio berrietan oinarrituak. Printzipio horiek aukera eman behar diete enpresei estandar arautzaileak betetzen dituztela ziurtatzeko eta, hala, pribatutasunarekin eta datuen tratamenduarekin lotutako arazoak saihesteko.

***Tokenizazioa, aktibo komertzialen forma berria: Finantzetarako merkatu eta aukera berriak sortzen***

Aktibo zehatz eta baliotsu bat aktibo "sinboliko" digital bilakatzeko prozesuari esaten zaio tokenizazioa. Deszentralizatutako finantza-sistema bat dago, blockchain teknologian oinarritua, aktibo digital horien merkataritza eraginkorra ahalbidetzen duena, bitartekari tradizionalik gabe. Hala, gauzen interneten (IoT), hiperkonektagarritasunaren eta ordainketen automatizazio-soluzioen arloan emandako aurrerapen teknologikoek azkartu egin dute tokenizaziorako joera. Ondorioz, produktuetan oinarritutako negozio-ereduetatik zerbitzuetan oinarritutako negozio-ereduetarako trantsizioa izango da hurrengo pausoa.

***Hiperkonektagarritasuna: Denbora errealeko komunikazioek negozioei nola eragiten dieten ulertzea***

Denbora errealean datuak eskuratzeko aukera ematen die hiperkonektagarritasunak kontsumitzaileei eta erakundeei. Hala, berehala har ditzakete erabakiak, eta prozesuak gardenagoak dira. Etorkizunera begira, hamarkada honen amaierarako 6Ga agertuko da, eta horrek honako hauek ekarriko ditu: integrazio teknologiko handiagoa, erabiltzailearekin tirabirarik gabeko interakzioak, erabilera-esperientzia murgilgarriagoak eta komunikatzeko modu berriak. Izan ere, datuen transmisio-tasa segundoko 1 TB baino handiagoa izatea espero da.

***Hurrengo mailako softwarearen garapena: Epe luzerako lidergoa ziurtatzeko estrategia bat eraikitzea***

Softwarearen garapenaren arloa oso azkar aldatzen da, hainbat joera heterogeneoren araberakoa baita: gauzen Internet, edukiontzietan oinarritutako mikrozerbitzuak eta arkitekturak, hodeiko software natiboa, zerbitzaririk gabeko konputazioa, lan egiteko modu azkarrak, DevOps, eta kode baxua/koderik gabe. Hortaz, enpresek lidergo teknologikoa mantendu edo lortu nahi badute, alderdi giltzarriak ulertu eta inplementatu

behar dituzte. Zentzu horretan, abangoardian mantentzeko, honako hauek ulertu behar dira: softwarearen industria, hura bultzatzen duen teknologiarekin lotutako joerak, erakunde arloko joerak eta aldaketarako eskaria sortzen duten testuinguruak.

***Zibersegurtasunaren konbergentzia, informazioaren teknologien eta teknologia operatiboen bidez: Aukera gehiago, arrisku gehiago***

Informazioaren teknologien eta teknologia operatiboen arteko bereizketa tradizionala eta fisikoa amaitzeko ordua da. Honako hauek dira horretarako arrazoiak: teknologia operatiboen sistemek sare korporatiboarekin duten etengabeko interkonexio sakona, eta horrek zibererasoentzako sortzen dituen aukerak; eraso horiek kalte handia egin diezaiokete negozio osoari.

Konektagarritasunak aukera ematen du konektatutako gailu guztietara datuak helarazteko, gailu horiek urrunetik kontrolatzeko eta urrunetik horietara sartu ahal izateko. Ondorioz, arrisku zibernetikoak areagotzen ari dira. Hortaz, barneko teknologia operatiboen sareak zaurgarriak bilakatzen ari dira zibergaizkileen kanpoko erasoen aurrean. Dena den, mehatxu hori hor egon arren, enpresa askok oraindik ere ez dute informazioaren teknologien gaineko ezagutzarik haien ekoizpen-lantaldeetan, haien teknologia-sistema operatiboentzat berreskuratze- eta kontingentzia-planak garatu ahal izateko. Babes osoa eskaini ahal izateko, hortaz, "muturretik muturrerainoko" zibersegurtasunaren ikuspegiak behar dira. Ikuspegi teknikotik, amaierako puntu guztiak eta komunikazio-bide guztiak estali behar dituzte, kudeaketa-sistema koordinatuen bidez. Eta homogeneotasuna bermatu behar dute enpresaren "site" guztietan. Erakundearen ikuspegitik, informazioaren teknologiak eta teknologia operatiboak barne hartu eta elkarren artean konektatu behar dituzte.

## 9.2. SEKTOREA EAEN[1]

Txosten honen aurreko edizioetan aipatu bezala, 2019an Euskal Herriko Ezagutzaren eta Teknologia Aplikatuen Industrien Elkarteak (GAIA) berrantolaketa bat egin zuen lehentasunezko teknologia bideratzaileetan fokua jarrita. Ikuspegi berri horretan, azpisektore horietako lidergoa honako teknologietan espezialistak diren enpresei dagokie: Adimen Bisuala, Zibersegurtasuna, Gauzen Internet (IoT) eta Adimen Artifiziala.

Hala, GAIAk argitaratutako informazioaren arabera, 2021ean 300 enpresak osatu zuten sektoreko enpresa-taldea, aurreko ekitaldian baino 11 enpresa gutxiagok. Testuingurua nahasia izan zen, eta honako hauek gainjarri ziren: ekonomiaren suspertzea, pandemiaren bosgarren eta seigarren olatuak eta inflazioaren hazkundea; azken horren ondorioz, nabarmen igo ziren lehengaien, energiaren eta osagaien kostuak.

**104. koadroa Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko enpresen bilakaera EAEn**

| Urtea | Enpresak |
|---|---|
| 2012 | 260 |
| 2013 | 265 |
| 2014 | 245 |
| 2015 | 243 |
| 2016 | 254 |
| 2016* | 279 |
| 2017* | 258 |
| 2018* | 254 |
| 2019* | 267 |
| 2020* | 311 |
| 2021* | 300 |

*(*): GAIA+AVIC.*
*Iturria: GAIA. Geuk egina.*

Sektorearen ekoizpenari dagokionez, 2021ean 5.724 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtekoa baino % 7 handiagoa. Kontuan izan behar da hazkundea ez zela berdina izan klusterrak barne hartzen dituen askotariko "familien" artean. Zehazki, IKT enpresek hazkunde nabarmena erregistratu zuten; aholkularitza- eta ingeniaritza-enpresek hazkunde oso txikia izan zuten; eta elektronika arloko enpresek hazkunde ezberdina izan zuten osagaien eta erdieroaleen eskuragarritasunaren arabera.

[1] Euskal Herriko Ezagutzaren eta Teknologia Aplikatuen Industrien Elkarteak (GAIA) emandako informazioarekin osatu dugu atal hau. Elkarteko kide diren eta EAEko sektorearen egoera orokorra azaltzen duten enpresei dagokie atal honetako informazioa.

**105. koadroa Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko ekoizpenaren bilakaera EAEn**

| Urtea | Produkzioa M eurotan | % Δ |
|---|---|---|
| 2012 | 2.742,0 | -5,8 |
| 2013 | 2.702,1 | -1,5 |
| 2014 | 2.768,0 | 2,4 |
| 2015 | 2.909,0 | 5,1 |
| 2016 | 3.530,0 | 21,3 |
| 2016* | 4.742,0 | -- |
| 2017* | 4.958,0 | 4,6 |
| 2018* | 5.171,0 | 4,3 |
| 2019* | 5.352,0 | 3,5 |
| 2020* | 5.350,0 | 0,0 |
| 2021* | 5.724,0 | 7,0 |

*(*): GAIA+AVIC.*
*Iturria: GAIA. Geuk egina.*

Sektorearen esportazioak % 6,7 igo ziren 2021ean, 2.373 milioi eurora arte. Hala, agerian geratu zen sektorearen kaudimena. Izan ere, mugikortasun-murrizketak eta segurtasun -protokoloak izan arren, sektorea modu berritzailean egokitu zen nazioarteko bezeroei arreta emateko.

**106. koadroa Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko esportazioen bilakaera EAEn**

| Urtea | Esportazioak (M euro) | % Δ | Esportazioak/ Ekoizpena |
|---|---|---|---|
| 2012 | 1.053,0 | 11,7 | 38,4 |
| 2013 | 1.076,8 | 2,3 | 39,8 |
| 2014 | 1.084,2 | 0,7 | 39,2 |
| 2015 | 1.117,0 | 3,0 | 38,4 |
| 2016 | 1.179,6 | 5,6 | 33,4 |
| 2016* | 1.966,0 | -- | 41,5 |
| 2017* | 2.045,4 | 4,0 | 41,3 |
| 2018* | 2.164,0 | 5,8 | 41,8 |
| 2019* | 2.350,0 | 8,6 | 43,9 |
| 2020* | 2.223,0 | -5,4 | 41,6 |
| 2021* | 2.373,0 | 6,7 | 41,5 |

*(*): GAIA+AVIC.*
*Iturria: GAIA. Geuk egina.*

Agertoki horretan, 2021ean % 6,3 hazi zen sektoreari lotutako enplegua, eta 22.038 pertsona okupatu izatera iritsi ziren (1.306 kontratazio berri). Hala, jarraipena eman zitzaion 2015ean hasitako goranzko ibilbideari. Dena den, behar profesionalak estaltzeko zailtasunak, bereziki, IKTen azpisektorean, mugatu egiten du hazteko gaitasuna.

**107. koadroa Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko enpleguaren bilakaera EAEn**

| Urtea | Langileak | % Δ |
|---|---|---|
| 2012 | 10.807 | -5,3 |
| 2013 | 10.797 | -0,1 |
| 2014 | 10.564 | -2,2 |
| 2015 | 11.007 | 4,2 |
| 2016 | 11.447 | 4,0 |
| 2016* | 18.517 | -- |
| 2017* | 19.276 | 4,1 |
| 2018* | 20.030 | 3,9 |
| 2019* | 20.528 | 2,5 |
| 2020* | 20.732 | 1,0 |
| 2021* | 22.038 | 6,3 |

*(*): GAIA+AVIC.*
*Iturria: GAIA. Geuk egina.*

I+G arloan egindako inbertsioari dagokionez, 2021ean GAIAk 153 milioi euro bideratu zituen helburu horretara, aurreko ekitaldian baino % 6,2 gehiago. Hala, sektore hori trantsizio energetikorako eta digitalerako elementu giltzarrietako bat dela berretsi zen.

Etorkizunari begira, hazkundea mugatzen duten hainbat faktore daude: Errusia-Ukraina gerraren inpaktua, inflazio handia, erdieroaleen gabezia, lehengaien eta salgaien kostu altua, edota kontratazioen garestitzea. Dena den, 2022an sektorea hazi egingo dela aurreikusten du GAIAk. Izan ere, sektoreak protagonismoa izango du "datuaren aro ekonomiko berrian".

## 10. ERAIKUNTZA

Pandemiaren agerpena kolpe handia izan zen eraikuntza-jarduerarentzat, baina, aurreko krisialdian ez bezala (higiezinen burbuilaren leherketa 2008an), sektorea zutik mantendu zen eta erresilientzia-gaitasun handia erakutsi zuen. Egia da aurreko krisiaren epizentroa sektorea bera izan zela. Oraingo honetan, ordea, kanpoko faktore global bat izan zen eragilea, Covid-19a. Ondorioz, suspertzea azkarragoa izan zen, testuinguru ekonomikoa aurkakoa izan arren.

Hala, 2021ean leheneratu egin ziren sektoreko adierazleak, eta pandemiaren kaltea gainditu zuten. Batetik, sektorearen sendotasunari esker gertatu zen hori eta, bestetik, honakoei esker: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoetarako (MRR) Europako funtsak jaso izana, eraikinak birgaitzeko bultzada publikoa, eta etxebizitza berriak eta azpiegiturak sustatzeko proiektuak.

Dena den, suspertze ekonomikoa finkatzen zihoan heinean, beste mehatxu batek astindu zuen sektorea: prezioen igoerak. Lehengai nagusien eta eraikuntzarako materialen (egurra, aluminioa, altzairua, zementua…) prezioak inoiz ez bezala igo ziren, batetik, mundu mailako eskari handiagatik –pandemian zehar ezkutuan egon zen eskaria azaleratu baitzen– eta, bestetik, itsaso bidezko nazioarteko garraioak garestitze historikoa izan zuelako. Gainera, Errusia-Ukraina gerra-gatazkaren ondorioz 2022an energiaren prezioak izandako garestitzea eta horren inpaktua gehitu behar zaizkio agertoki konplikatu horri.

Hala, lehengaien, garraioaren eta energiaren gainkostuaren aurrean, epe motzean egoera hobetu ezean sektorearentzako ondorioak oso txarrak izan daitezkeela ohartarazi du Seopanek[1]. Hortaz, sektoreari laguntzeko neurri gisa, honakoak premiatzen ditu elkarteak: 3/2022 Errege Dekretu Legeak (prezioen berrikuspenaren arloko aparteko neurriak obretako kontratu publikoetan) barne hartzen dituen neurrien eraginkortasuna edo lehiaketa irekietan eskaintzak aurkezteko epea luzatzea.

Gainera, ziurgabetasun-testuinguru honetan, ekoizpen-eredu jasangarriago baterantz mugitzen ari da sektorea. Hainbat erronka uztartzen dira bide horretan: eraginkortasun energetikoa, digitalizazioa edota langile kualifikatuen gabezia.

[1] Enpresa eraikitzaileen eta azpiegituren lizitatzaileen elkartea

Hala, lizitazio ofizialaren suspertze handia nabarmendu zen Estatuan (+% 63,0); 2019an esleitutako diru kopurua gainditu zuen. Halaber, 2021ean hazi egin zen amaitutako etxebizitzen (+% 8,6) eta hasitako etxebizitzen (+% 28,5) kopurua. Horrek mesede egin zion zementuaren ageriko kontsumoari; Ofecemenek[1] argitaratutako datuen arabera, % 11,0 hazi ziren haren balioak. Gainerako adierazleak bezala, enplegua ere igo egin zen 2021ean (+% 3,8), 2020ko egoera oso zailaren ondoren.

**108. koadroa Eraikuntza-sektorearen adierazle batzuen bilakaera**

*(% Δ)*

| Kontzeptua | Euskal Herria | | Espainia | |
|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| Enplegua | -3,2 | -12,2 | -2,6 | 3,8 |
| Zementuaren ageriko kontsumoa (*) | -13,4 | 9,6 | -8,6 | 11,0 |
| Amaitutako etxebizitzak | -8,2 | 6,6 | 10,7 | 8,6 |
| Hasitako etxebizitzak | -24,8 | -0,6 | -19,5 | 28,5 |
| Lizitazio ofiziala | -27,0 | 64,2 | -20,1 | 63,0 |

*(*): Oficemen-eko Ipar Eremuko (Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) bazkideen zementuaren itxurazko kontsumoari egiten dio erreferentzia.*
*Iturria: Guk geuk egina, EIN, Seopan eta Oficemen datuetatik abiatuta.*

Azterketa hori bera Euskal Herrira ekarrita, jarduera modu partzialean berreskuratu zela ikus daiteke. Izan ere, bost adierazle nagusietatik hiruk balio positiboekin itxi zuten urtea. Hala, lizitazio-jardueraren bilakaera nabarmentzen da, % 64,2 hazi baitzen aurreko ekitaldiko datuekin alderatuta. Aldiz, etxebizitzen kasuan aurkako bi joera izan ziren. Hasitako etxebizitzen kopuruak ez zuen ia aldaketarik izan 2019arekiko (-% 0,6), baina amaitutako etxebizitzak ugaritu egin ziren (+% 6,6). Hala, zementuaren ageriko kontsumoa ere handitu egin zen (+% 9,6). Sektoreari lotutako enplegua, ordea, % 12,2 murriztu zen. Orokorrean, Estatukoa baino jarduera txikiagoa izan zen.

**109. koadroa Eraikuntzaren Indize Koiunturala (EAE).**

*(% Δ)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021(*) |
|---|---|---|---|
| Okupatutako langileen indizea | 3,1 | -2,0 | 0,4 |
| Ekoizpen-indizea | 8,7 | -8,1 | 7,2 |
| Etxegintza | 9,2 | -8,4 | 7,8 |
| Obra zibila | 5,6 | -6,0 | 3,6 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Indize Koiunturala (EIK)(2010eko oinarria).*

[1] Espainiako zementu-fabrikatzaileen elkartea.

EAEko Eraikuntza Indize Koiunturalarekin lotutako informazioa aztertuta, erreferentziazko lau adierazleetan ikus daiteke eraikuntza-jardueraren suspertzea. Izan ere, lau adierazle horiek gora egin zuten, 2020an intentsitate ezberdinetako murrizketak izan ondoren. Hala, Etxegintzak (+% 7,8) eta Ekoizpen Indizeak (+% 7,2) erregistratu zituzten urte arteko aldakuntzarik onenak. Obra Zibila ere suspertu egin zen (+% 3,6), eta Okupatutako Langileen Indizeak igoera apal bat izan zuen (+% 0,4).

**110. koadroa Administrazio zentralaren, autonomikoaren eta tokikoaren arteko lizitazio ofizialaren banaketa**

*(M euro)*

| Eremua | 2020 | | | | 2021 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zentrala | Autonomikoa | Tokikoa | Guztira | Zentrala | Autonomikoa | Tokikoa | Guztira |
| Araba | 23,7 | 80,3 | 55,9 | 159,9 | 78,4 | 149,5 | 98,0 | 326,0 |
| Bizkaia | 39,6 | 86,8 | 450,3 | 576,8 | 67,6 | 120,7 | 506,5 | 694,7 |
| Gipuzkoa | 55,6 | 35,3 | 196,3 | 287,2 | 80,7 | 286,5 | 281,5 | 648,7 |
| EAE | 118,9 | 202,3 | 702,6 | 1.023,8 | 226,6 | 556,7 | 886,1 | 1.669,3 |
| Nafarroa | 7,2 | 140,6 | 95,5 | 243,2 | 16,2 | 247,3 | 147,8 | 411,3 |
| Euskal Herria | 126,1 | 342,9 | 798,1 | 1.267,1 | 242,8 | 803,9 | 1.033,9 | 2.080,6 |
| Espainia | 3.315,0 | 5.012,3 | 6.213,9 | 4.541,1 | 7.899,2 | 6.839,1 | 8.960,6 | 598,9 |

*Iturria: Seopan.*

Lizitazio ofizialaren bilakaera aztertuta, datuek argi erakusten dute jarduerak igoera handia izan zuela aintzat hartutako eremu geografiko guztietan, eta agente lizitatzaile guztien kasuan. Estatuko datuekin hasita, lizitatutako bolumena 23.698,9 milioi eurokoa izan zen; hau da, 2020an baino 9.157,8 milioi euro gehiago (+% 63,0). Agertoki bera errepikatu zen Euskal Herrian; lizitazio-jarduera 2.080,6 milioi eurokoa izan zen, 2020an baino 813,6 milioi euro handiagoa (+% 64,2). Aztertutako lurralde guztietan izan zuten goranzko bilakaera, neurri handiagoan edo txikiagoan. Gipuzkoan (+% 125,9) eta Araban (+% 103,9) izan zuten hazkunderik handiena, Nafarroaren (+% 69,1) eta Bizkaiaren (+% 20,5) aurretik. Ondorioz, Euskal Herriko lizitazio-maparen osaera aldatu egin zen. Bizkaiaren pisua % 45,5etik % 33,4ra murriztu zen. Gipuzkoak, berriz, alderantzizko bilakaera izan zuen: % 22,7tik % 31,2ra igo zen haren partaidetza. Testuinguru horretan, Araba (% 12,6tik % 15,7ra) eta Nafarroa (% 19,2tik % 19,8ra) nahiko egonkor mantendu ziren Euskal Herriko guztizkoari egiten dioten ekarpenari dagokionez.

**111. koadroa. Lizitazio ofizialaren urtetik urterako aldakuntza eta administrazioen arteko banaketa (2021)**

| Eremua | % | | | | % ∆ 21/20 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zentrala | Autonomikoa | Tokikoa | Guztira | Zentrala | Autonomikoa | Tokikoa | Guztira |
| Araba | 24,1 | 45,9 | 30,1 | 100,0 | 231,1 | 86,3 | 75,2 | 103,9 |
| Bizkaia | 9,7 | 17,4 | 72,9 | 100,0 | 70,4 | 39,1 | 12,5 | 20,5 |
| Gipuzkoa | 12,4 | 44,2 | 43,4 | 100,0 | 45,0 | 712,2 | 43,4 | 125,9 |
| EAE | 13,6 | 33,3 | 53,1 | 100,0 | 90,5 | 175,2 | 26,1 | 63,1 |
| Nafarroa | 3,9 | 60,1 | 35,9 | 100,0 | 125,6 | 75,9 | 54,8 | 69,1 |
| Euskal Herria | 11,7 | 38,6 | 49,7 | 100,0 | 92,5 | 134,5 | 29,5 | 64,2 |
| Espainia | 33,3 | 28,9 | 37,8 | 100,0 | 138,3 | 36,4 | 44,2 | 63,0 |

*Iturria: Seopan.*

Lizitazio-jarduera agente inbertitzailearen arabera banakatuz gero, honakoa ikus daiteke: Estatuan Administrazio Zentralaren inbertsioa hazi zen gehien (+% 138,3); eta distantzia handira kokatu ziren Tokiko Administrazioa (+% 44,2) eta Administrazio Autonomikoa (+% 36,4). Euskal Herrian, aldiz, Administrazio Autonomikoaren lizitazio - jarduera hazi zen gehien (+% 134,5), Administrazio Zentralaren (+% 92,5) eta Tokiko Administrazioaren (+% 29,5) aurretik. Horren guztiaren ondorioz, lizitazio-jardueraren ekarpena aldatu egin zen. Estatu mailan, lizitazio-mapa nahiko orekatua izan zen: % 37,8ko, % 33,3ko eta % 28,9ko kuotak izan zituzten Tokiko Administrazioak, Zentralak eta Autonomikoak. Euskal Herrian banaketa ez zen hain uniformea izan: % 49,7ko, % 38,6ko eta % 11,7ko pisu erlatiboak izan zituzten Tokiko Administrazioak, Autonomikoak eta Zentralak.

Lizitazio-jardueraren bilakaera erakunde lizitatzailearen arabera aztertuta, Gipuzkoan, Administrazio Autonomikoaren jauzi kuantitatiboa nabarmendu zen (+% 712,2); Administrazio Zentralaren (+% 45,0) eta Tokiko Administrazioaren (+% 43,4) hazkundeak txikiagoak izan ziren. Araban, Nafarroan eta Bizkaian, berriz, Administrazio Zentralak izan zuen hazkunderik handiena, haren hornidura nabarmen igo baitzen (+% 231,1; +% 125,6; eta +% 70,4); hurrengoak Administrazio Autonomikoa (+% 86,3; +% 75,9; eta +% 39,1) eta Tokiko Administrazioa (+% 75,2; +% 54,8; eta +% 12,5) izan ziren.

Hala, Bizkaian Tokiko Administrazioa izan zen erakunde lizitatzaile nagusia (lizitatutako guztizkoaren % 72,9). Urrun kokatu ziren Administrazio Autonomikoa, % 17,4ko partaidetzarekin, eta Administrazio Zentrala, % 9,7ko pisu erlatiboarekin. Gipuzkoan, Administrazio Autonomikoak eta Tokiko Administrazioak antzeko partaidetza izan zuten (% 44,2 eta % 43,4); Administrazio Zentralak osatu zuen lizitazio-jarduera, ordezkaritza askoz ere baxuagoarekin (% 12,4). Araban, inbertsioaren zatirik handiena Administrazio Autonomikoarena (% 45,9) izan zen; Tokiko Administrazioa (% 30,1) eta Administrazio Zentrala (% 24,1) izan ziren hurrengoak. Nafarroari dagokionez, Administrazio Autonomikoa kokatu zen lizitazio-jardueraren buruan (% 60,1) eta Tokiko Administrazioa (% 35,9) izan zen hurrengoa; Administrazio Zentralaren ekarpena askoz ere txikiagoa izan zen (% 3,9).

**112. koadroa Lizitazio ofiziala obra motaren arabera (2021)**

| Obra mota | Euskal Herria | | | Espainia | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | M euro | % ∆ 21/20 | % | M euro | % ∆ 21/20 | % |
| Etxebizitzak | 120,4 | -14,2 | 5,8 | 880,2 | 25,7 | 3,7 |
| Gizarte-ekipamendua | 356,3 | 180,9 | 17,1 | 5.130,7 | 64,3 | 21,6 |
| Gainerako etxegintza | 179,7 | -16,4 | 8,6 | 2.445,7 | 27,2 | 10,3 |
| **Etxegintza, guztira** | **656,3** | **36,1** | **31,5** | **8.456,6** | **47,2** | **35,7** |
| Garraioak | 772,0 | 73,3 | 37,1 | 9.360,0 | 123,3 | 39,5 |
| Urbanizazioak | 387,7 | 78,6 | 18,6 | 3.131,6 | 44,9 | 13,2 |
| Hidraulikoak | 149,9 | 52,2 | 7,2 | 2.116,2 | 3,5 | 8,9 |
| Ingurumena | 114,8 | 381,4 | 5,5 | 634,6 | 60,0 | 2,7 |
| **Obra zibila, guztira** | **1.424,4** | **81,4** | **68,5** | **15.242,3** | **73,3** | **64,3** |
| **GUZTIRA** | **2.080,6** | **64,2** | **100,0** | **23.698,9** | **63,0** | **100,0** |

*Iturria: Seopan.*

Lizitazio ofizialaren bilakaera obra motaren arabera aztertua, esleitutako balioak hazi egin zirela ikus daiteke, 2020ko ekitaldian jarduera aldi baterako gelditu ondoren, 2021ean "normaltasunera itzuli" zelako. Horren guztiaren ondorioz, Etxegintza segmentuaren hornidura % 36,1 hazi zen Euskal Herrian eta % 47,2 Estatuan. Obra Zibilari dagokionez, lizitazio ofiziala nabarmen igo zen: % 81,4ko hazkundea Euskal Herrian eta % 73,3koa Estatuan. Testuinguru horretan, garraio-azpiegiturak izan ziren 2021eko inbertsio publikoaren onuradun nagusiak.

Hala, Obra Zibilaren guztizko inbertsioa 1.424,4 milioi eurokoa izan zen Euskal Herrian eta 15.242,3 milioi eurokoa Estatuan, hau da, lizitazio-jardueraren guztizkoaren bi heren. Bestetik, Etxegintzaren azpisektoreak 656,3 milioi euroko hornidurarekin amaitu zuen ekitaldia Euskal Herrian, eta 8.456,6 milioi euroko hornidurarekin Estatuan.

Azterketan sakonduta, lizitazio-bolumena bi kasutan baino ez zela murriztu egiazta daiteke, bi kasuak Euskal Herrian: Etxebizitzetako inbertsioa (-% 14,2) eta Gainerako Etxegintzako inbertsioa (-% 16,4); aitzitik, bi azpisektore horiek gora egin zuten Estatuan (+% 25,7 eta +% 27,2, hurrenez hurren). Gizarte Ekipamenduak, berriz, hazkunde esponentziala izan zuen Euskal Herrian (+% 180,9), eta hazkunde apalagoa Estatuan (+% 64,3).

Obra Zibilari dagokionez, inbertsioa hazi egin zen, orokorrean. Testuinguru horretan, Ingurumen arloko obretan lizitatutako bolumena asko igo zen (+% 381,4 eta +% 60,0, Euskal Herrian eta Estatuan), baita Garraio arloan lizitatutako bolumena ere (+% 73,3 eta +% 123,3). Urbanizazioek (+% 78,6 eta +% 44,9, Euskal Herrian eta Estatuan) eta Obra Hidraulikoek (+% 52,2 eta +% 3,5) ere goranzko joera izan zuten, baina modu apalagoan.

Aintzat hartutako eremu geografiko bakoitzean lizitazio-jarduerak izandako ibilbidea jasotzen dute atxikitako grafikoek, denbora-ikuspegi zabalago batetik. Kontuan izan behar da 2008ko krisia mugarria izan zela sektoreko jardueran.

Adierazle nagusiek jaitsiera historikoa izan zuten eta horrek beste sektore ekonomiko batzuei eragin zien. 2020an, pandemiaren agerpenak berriz ere ziurgabetasuna ekarri zuen jarduera suspertzeko bidean urteak daramatzan sektore honetara. Azkenik, 2021ean, nolabaiteko normaltasuna berrezarri zen sektorean, beste faktore batzuen artean, lizitazio ofizialaren bultzadari esker. Dena den, berriki jazo diren gertakariek, inflazioak eta hornigai-faltak erakusten dutenez, kasurik onenean, datozen hilabeteetan egonkor mantenduko da egoera.

**20. grafikoa Lizitazio ofiziala**




*Iturria: Seopan*

Azterketarekin jarraituz eta etxebizitzen bilakaerari dagokionez, 2020ko geldialdiaren ondoren leheneratu egin ziren adierazle nagusiak, baina partzialki. Hala, hasitako etxebizitzekin hasiko gara. Estatuan 112.444 etxebizitza eraikitzen hasi ziren guztira (12.262 babestuak eta 100.182 libreak). Hortaz, % 28,5 areagotu ziren, etxebizitza libreen (+% 31,9) zein etxebizitza babestuen (+% 6,0) bilakaerari esker. Euskal Herrian, hasitako etxebizitzek aldakuntza txikia izan zuten 2020arekin alderatuta (-% 0,6). Guztira 6.962 etxebizitza eraikitzen hasi ziren (2.137 babestuak eta 4.825 libreak); babestuek goranzko bilakaera izan zuten (+% 11,1), eta libreek beheranzkoa (-% 5,0).

Azterketan sakonduta eta Euskal Herriari dagokionez, bilakaera ezberdinak hauteman ziren lurraldearen arabera. Hasitako etxebizitzek behera egin zuten Bizkaian (-% 12,4), bi segmentuek egin baitzuten okerrera (-% 10,1 eta -% 14,0; babestuak eta libreak). Segmentu librearen pisua apur bat handiagoa izan zen (% 56,9). Gipuzkoan, hasitako 10 etxebizitzatik 7 libreak izan ziren. 2021ean % 26,3 murriztu ziren hasitako etxebizitza libreak; babestuak, berriz, % 70 hazi ziren. Ondorioz, hasitako etxebizitzek % 13,2ko beherakada izan zuten. Araban, hasitako etxebizitzak areagotu egin ziren (+% 17), babes ofizialeko etxebizitzek izandako bilakaerari esker (+% 113,6). Etxebizitza libreek, berriz, behera egin zuten (-% 20,6). Azken horien partaidetza apur bat txikiagoa izan zen (% 48,9; eta, babestuena, % 51,1). Azkenik, Nafarroaren bilakaera alderantzizkoa izan zen. Hasitako babes ofizialeko etxebizitzen bolumenak behera egin zuen (-% 10,6), eta gora egin zuten libreek (+% 19,8); azken horiei dagokie, gainera, jardueraren zatirik handiena (% 81,2).

Hori guztia kontuan hartuta, ekitaldiaren amaierako balantzearen arabera, EAEn 4.081 etxebizitza zeuden hasita (1.596 babestuak eta 2.485 libreak), 2020arekin alderatuta % 8,1eko beherakada izan ondoren. Izan ere, segmentu bakoitzak norabide ezberdina hartu zuten (+% 21,0 eta -% 20,5; babestuak eta libreak). Nafarroan, bestetik, hasitako 2.881 etxebizitzara heldu ziren (541 babestuak eta 2.340 libreak). Lehen aipatu dugun moduan, bi joera izan ziren Nafarroan ere (-% 10,6 eta +% 19,8).

**113. koadroa Hasitako eta amaitutako etxebizitzak***

*(etxebizitza kopurua)*

| Eremua | Kontzeptua | Hasitako etxebizitzak | | | Amaitutako etxebizitzak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2019 | 2020 | 2021 | 2019 | 2020 | 2021 |
| Araba | Babestuak | 401 | 191 | 408 | 121 | 122 | 104 |
| | Libreak | 352 | 491 | 390 | 444 | 327 | 203 |
| Bizkaia | Babestuak | 986 | 911 | 819 | 1.106 | 218 | 783 |
| | Libreak | 2.772 | 1.258 | 1.082 | 1.373 | 1.709 | 1.549 |
| Gipuzkoa | Babestuak | 696 | 217 | 369 | 117 | 222 | 212 |
| | Libreak | 1.202 | 1.375 | 1.013 | 1.592 | 1.354 | 1.031 |
| EAE | Babestuak | 2.083 | 1.319 | 1.596 | 1.344 | 562 | 1.099 |
| | Libreak | 4.326 | 3.124 | 2.485 | 3.409 | 3.390 | 2.783 |
| Nafarroa | Babestuak | 219 | 605 | 541 | 327 | 558 | 360 |
| | Libreak | 2.683 | 1.954 | 2.340 | 1.465 | 1.498 | 2.160 |
| Euskal Herria | Babestuak | 2.302 | 1.924 | 2.137 | 1.671 | 1.120 | 1.459 |
| | Libreak | 7.009 | 5.078 | 4.825 | 4.874 | 4.888 | 4.943 |
| Espainia | Babestuak | 12.496 | 11.569 | 12.262 | 6.615 | 9.038 | 9.957 |
| | Libreak | 96.245 | 75.930 | 100.182 | 71.562 | 77.531 | 84.091 |

*(*): Behin-behineko datuak. 2022ko maiatzeko datuak.*

*Iturria: Sustapen Ministerioa. Espainiako Gobernua. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza. Sustapen eta Etxebizitza Saila. Nafarroako Gobernua. EIN.*

Azterketa amaitutako etxebizitzetara mugatuta, Estatuan guztira 94.048 etxebizitza amaitu zituzten 2021ean (+% 8,6), bi segmentuetan izandako hazkundeak bultzatuta (+% 10,2 eta +% 8,5, babestuak eta libreak); dena den, etxebizitza libreei zegokien jardueraren ia % 90.

Euskal Herrian 6.402 etxebizitza amaitu zituzten 2021eko ekitaldian (+% 6,6); babes ofizialeko segmentuak (+% 30,3) bilakaera hobea izan zuen sustapen librekoak baino (+% 1,1), baina azken horrek askoz ere pisu handiagoa izan zuen (% 77,2). Araban, murriztu egin zen amaitutako etxebizitzen kopurua (-% 31,6), bai babestuen kasuan (104; -% 14,8), bai libreen kasuan (203; -% 37,9). Gipuzkoan joera bera izan zuten amaitutako etxebizitzek, % 21,1 gutxitu baitziren; izan ere, behera egin zuten amaitutako etxebizitza babestuek (212; -% 4,5) eta libreek (1.031; -% 23,9). Bizkaian, bestetik, nabarmen areagotu ziren etxebizitza babestuak (783; +% 259,2) eta gutxitu egin zen sustapen libreko etxebizitzen bolumena (1.549; -% 9,4); hala, nabarmen hazi zen amaitutako etxebizitzen kopurua (+% 21,0). Azkenik, Nafarroan amaitutako etxebizitza libreen kopurua % 44,2 hazi zen, 2.160 unitatera iritsi arte; etxebizitza babestuek, berriz, % 35,5eko galera izan zuten, eta 360 etxebizitza amaitu zituzten.

**21. grafikoa Amaitutako etxebizitza kopurua**




*Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamendua. Nafarroako Gobernua. EIN.*

**114. koadroa Birgaitze babestuaren arloko lanak EAEn***

| Urtea | Birgaitutako etxebizitza kopurua | Emandako diru-laguntzak (eurotan) |
|---|---|---|
| 2020 | 5.853 | 14.376.773 |
| 2021 | 9.947 | 24.767.792 |
| ∆ %21/20 | 69,9 | 72,3 |

*(*): Dirulaguntza jaso duten etxebizitzen eta birgaitutako lokalen kopurua. Behin-behineko datuak.*

*Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Sektorea suspertzen ari dela ikus daiteke EAEn etxebizitza babestuen birgaitze-jardueraren bilakaera ikusita. Erreferentziazko bi adierazleak hobetu egin ziren, aurreko urtearekin alderatuta. Hala, gora egin zuten birgaitutako etxebizitza kopuruak (9.947; +% 69,9) eta birgaitzeko emandako dirulaguntzek (24.767.792 €; +% 72,3). Ondorioz, birgaitutako etxebizitza bakoitzeko emandako dirulaguntzen zenbatekoa 2.489,98 €-koa (+% 1,4) izan zen 2021ean.

**115. koadroa Eraikuntzan lanean ari den biztanleria**

*(m pertsona)*

| Eremua | 2019 | 2020 | 2021 | % ∆ 21/20 |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 6,7 | 4,9 | 4,8 | -2,0 |
| Bizkaia | 30,6 | 31,9 | 28,3 | -11,2 |
| Gipuzkoa | 15,6 | 14,4 | 11,8 | -18,0 |
| EAE | 52,9 | 51,2 | 44,9 | -12,2 |
| Nafarroa | 16,2 | 15,6 | 18,5 | 18,5 |
| Euskal Herria | 69,1 | 66,8 | 63,4 | -5,1 |
| Espainia | 1.277,9 | 1.244,1 | 1.291,5 | 3,8 |

*Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta (2011ko oinarria).*

Sektoreko langile kopuruari dagokionez, Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) emandako informazioak agerian uzten du 2020an hasitako enpleguaren galerak jarraipena izan zuela 2021ean EAEn, baina erritmo apalagoan. Krisiaren inpaktu iraunkorrak eragina izan zuen horretan, baina, sektoreko iturrien arabera, langile kualifikatuen gabeziak ere bai. Hala, sektoreko enpleguak behera egiten jarraitu zuen EAEn (-% 12,3), hiru Lurralde Historikoetan. Gipuzkoak eta Bizkaiak bi digituko murrizketak izan zituzten 2021ean (-% 18,0 eta -% 11,2); Arabak, berriz, beherakada gelditzea lortu zuen, eta urte arteko aldakuntza txikiagoa izan zuen (-% 2,0). Nafarroak, aitzitik, bilakaera oso positiboa izan zuen adierazle honetan (+% 18,5), gainerako lurraldeek ez bezala. Estatuan ere goranzkoa izan zen bilakaera, baina erritmo askoz ere baxuagoan (+% 3,8).

22. grafikoa Eraikuntzan lanean ari den biztanleria










*Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta (2011ko oinarria).*

**116. koadroa Eraikuntzako lehengaien prezioen bilakaera**

| | 1. taldea | 2. taldea | 3. taldea | 4. taldea | 5. taldea |
|---|---|---|---|---|---|
| Urteko indizeak | | | | | |
| 2020 | 103,2 | 105,5 | 102,7 | 104,3 | 102,8 |
| 2021 | 105,3 | 115,2 | 106,4 | 104,9 | 112,1 |
| *% Δ, urtetik urterakoa* | *2,1* | *9,2* | *3,6* | *0,6* | *9,0* |
| Hileko indizea | | | | | |
| 2022ko martxoa | 119,4 | 133,0 | 113,2 | 112,1 | 122,7 |
| *% Δ, honi dagokiona:* | | | | | |
| *22ko martxoa/21eko martxoa* | *15,3* | *21,0* | *8,6* | *7,9* | *12,1* |
| *22ko martxoa/21eko abendua* | *9,5* | *7,6* | *3,8* | *5,3* | *5,4* |

*1. taldea: agregatuak, zementua, karea, hormigoia, morteroa, zeramika, aurrefabrikatuak, igeltsua eta igeltsutik eratorritakoak;*

*2. taldea: altzairua, egurra, sintetikoak, asfaltikoak, kautxua, beira laua, beira zapala, beira barnehutsa, egur-arotzeria, metal-arotzeria, burdineria*

*3. taldea: balbulak eta txorrotak, erradiadoreak eta galdarak, klimatizazioa eta aireztapena, etxetresna elektrikoak, elektrikoak ez diren etxetresnak, gailu eta osagarri elektrikoak, kable elektrikoak*

*4. taldea: beira-zuntza, zuntz optikoa, argiztapenerako gailuak, su-itzalgailu eta maukak, detektagailu eta alarmak, igogailuak, atezainak eta antenak, megafonia, elektronika, lehergailuak*

*5. taldea: pinturak, berniz eta mastikak, lauza zeramikoak, harri apaingarria, sukaldeko altzariak, kobrezko hodiak, plastikozko hodiak, zuntz-zementuzko hodiak, zeramikazko komun-ontziak*

*Iturria: EIN, Eraikuntzako prezioen eta askotariko materialen indizea (oinarria 100=2015eko urtarrila).*

Azterketarekin jarraituz, atxikitako informazioak, eraikuntza-kostuei eta lehengaien prezioei buruzkoak (2022koa), agerian uzten du konplikatua dela sektoreak haren jarduera garatzen duen agertokia. Izan ere, eraikuntza-materialen prezioek aurrekaririk gabeko hazkundea izan dute, kostu energetikoen garestitzearekin, garraioen garestitzearekin eta stock-faltarekin lotuta.

**117. koadroa** **Eraikuntzako lehengaien-materialen prezioen urte arteko hazkundea (2022ko martxoa-2021eko martxoa), taldearen arabera**

Δ %

| 1. taldea | | 2. taldea | | 3. taldea | |
|---|---|---|---|---|---|
| Agregatuak | 6,2 | Altzairua | 51,0 | Balbulak eta txorrotak | 7,5 |
| Zementua | 8,1 | Egurra | 19,5 | Erradiadoreak eta galdarak | 16,9 |
| Karea | 34,6 | Sintetikoak | 23,5 | Klimatizazioa eta aireztapena | 6,2 |
| Hormigoia | 8,0 | Asfaltikoak | 11,1 | Etxetresna elektrikoak | 8,4 |
| Morteroa | 11,0 | Kautxua | 7,1 | Etxetresna ez-elektrikoak | 5,2 |
| Zeramika | 13,2 | Beira zapala | 28,5 | Gailu eta osagarri elektrikoak | 3,3 |
| Aurrefabrikatuak | 11,0 | Beira barnehutsa | 11,9 | Kable elektrikoak | 11,9 |
| Igeltsua | 34,6 | Egur-arotzeria | 19,5 | | |
| Igeltsutik eratorritakoak | 13,2 | Metal-arotzeria | 14,4 | | |
| | | Burdineria | 13,9 | | |
| **4. taldea** | | **5. taldea** | | | |
| Beira-zuntza | 11,1 | Pinturak | 12,6 | | |
| Zuntz optikoa | 11,9 | Bernizak eta mastikak | 13,2 | | |
| Argiztapenerako gailuak | 2,6 | Lauza zeramikoak | 3,7 | | |
| Su-itzalgailuak-mahukak | 6,1 | Harri apaingarria | 7,7 | | |
| Detektagailuak eta alarmak | 28,9 | Sukaldeko altzariak | 21,1 | | |
| Atezainak eta megafonia-antenak | 1,3 | Kobrezko hodiak | 23,5 | | |
| Igogailuak | 5,6 | Plastikozko hodiak | 11,0 | | |
| Elektronika | 1,5 | Zuntz-zementuzko hodiak | 0,0 | | |
| Lehergailuak | 2,9 | Zeramikazko komun-ontziak | | | |

*Iturria: EIN, Eraikuntzako prezioen eta askotariko materialen indizea (oinarria 100=2015eko urtarrila).*

Prezioen hazkundea orokortua izan zen eta, gutxienez, % 7,9 igo ziren prezioak. Honakoak kokatu ziren buruan: altzairua (+% 51), igeltsua eta karea (+% 34,6 biak), detektagailuak eta alarmak (+% 28,9), beira laua (+% 28,5), kobrezko hodiak (+% 23,5) eta sukaldeko altzariak (+% 21,1). Gainera, materialen beste 17 taldek bi digituko hazkundeak izan zituzten 2021eko martxoaren eta 2022ko martxoaren artean.



LABORAL kutxa

**118. koadroa Eraikuntzako kostuen indizearen bilakaera (EAE)**

| | Indizea | | | % ∆ | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020ko abe. | 2021eko abe. | 2022ko mar. | 2020ko abe. 2019ko abe. | 2021eko abe./2020ko abe. | 2022ko mar./2021eko abe. |
| Kostuak, guztira | 106,3 | 112,2 | 118,1 | 1,0 | 5,6 | 5,3 |
| - Etxegintzako kostuak | 106,4 | 111,9 | 117,5 | 1,2 | 5,2 | 5,0 |
| - Obra zibileko kostuak | 105,6 | 113,6 | 120,8 | -0,3 | 7,6 | 6,3 |
| Lehengaien prezioa, guztira | 105,7 | 112,9 | 118,6 | 0,8 | 6,8 | 5,0 |
| Etxegintzako lehengaien prezioa | 105,9 | 112,5 | 117,8 | 1,1 | 6,2 | 4,7 |
| Obra zibileko lehengaien prezioa | 104,8 | 114,6 | 122,0 | -0,9 | 9,4 | 6,5 |
| Esku-lanaren kostua | 108,2 | 110,2 | 116,7 | 1,9 | 1,8 | 5,9 |

*Iturria: EUSTAT, Eraikuntzako kostuen indizea (oinarria 100=2015eko urtarrila).*

EAEri dagokionez, agertokia Estatukoaren antzekoa izan zen, eta eraikuntza-kostuek hazkunde orokortua izan zuten. Hornidura-arazoek eta, batez ere, lehengaien garestitzeak arriskuan jarri zuten proiektu ugari egin ahal izatea. Batetik, obra - kontratuak sinatuta zituzten enpresek zailtasunak zituzten % 30era arteko gainkostuei aurre egiteko. Eta, bestetik, obra publikoen proiektu berriak atzeratu egin litezke, lizitazioen prezioetan zuzenketak aplikatu ezean.

Egoera honen aurrean, Eusko Jaurlaritzak jakinarazi du aparteko neurriak aplikatuko dituela obra publikoen kontratuen prezioen berrikuspenean. Izan ere, lehengaien kostuak asko igo dira eta hainbat lehiaketa publiko esleitu gabe geratu dira.

Hala, urte bukaerako aurreikuspenak ez ziren urte hasierakoak bezain baikorrak, lehengaien prezioen igoera kontuan hartuta. Zalantzarik gabe, igoera horrek gelditu egingo du jardueraren hazkundea. Gainera, eraldaketa-prozesu indartsu baten aurrean dago industria, eta prozesu horretan jasangarritasuna funtsezkoa izango da. Estatuko ekonomia berreskuratzeko orduan eraikuntzak paper garrantzitsua duela dio sektoreak, ingurumen arloko ikuspegi argiarekin eta Europako Itun Berdearen baitako ekonomia zirkularraren eta deskarbonizazioaren estrategiekin modu argian lerrokatuta.

# 11. SEKTOREEN ANALISI EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA

## 11.1. SARRERA

Kapitulu honetan Euskal Herriko industria-sektoreak aztertuko ditugu, analisi finantzariorako erabili ohi diren bi tresnaren bidez: ratio bidezko analisia eta funtsen iturrien eta erabileren egoera. Horretarako, sektore bakoitzeko kontabilitate-egoerari buruzko informazioa –balantzeak eta emaitzen kontuak– bildu dugu.

Sarreraz gain, kapitulu honek hiru atal nagusi ditu. Lehenengo atala metodologikoa da. Oinarri gisa erabilitako informazioa zehazten du, eta analisirako bi tresnak aplikatzeko erabilitako irizpideak azaltzen ditu. Bigarren atalean, ratioen piramidearen aplikazioa azaltzen da, eta, hirugarrenean, funtsen iturrien eta erabileren egoera. Hala, Euskal Herriko industria-sektoreen azterketa ekonomiko-finantzarioa egingo dugu; sektoreen arteko alderaketa egingo dugu, baita Estatuko egoerarekiko alderaketa ere. Horretarako, piramideko ratio nagusiak eta batez besteko inbertsio-diruzaintzak (cash-flow libreak) hartuko ditugu kontuan. Dena den, sektore bakoitzaren ratioen piramideak eta funtsen iturrien eta erabileren egoerak ere gehituko ditugu, bai Euskal Herrikoak, bai Estatu osokoak.

## 11.2. METODOLOGIA

**Datu-bankua**

Piramidea egiteko, kontabilitate-egoerari buruzko oinarrizko datuak behar dira: aztertu beharreko sektore bakoitzaren balantzeak eta emaitzen kontuak. Horretarako, Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak galdetegi bidez jasotako informazioa hartu dugu oinarritzat, tratatu beharreko informazioa homogeneoa izan zedin. Galdetegi horiek enpresa kolaboratzaileek erantzun dituzte, bai Euskal Herrikoek (eskaera zehatza egin zaie egoitza soziala EAEn edo Nafarroan duten enpresei), bai Estatu osokoek (Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak egindako urteroko txostenetako informazioa erabili dugu).

Kontuan izan behar da Balantzeen Zentralaren azken informazio-basea t-2 urtekoa dela (gainera, datu-base bakoitzak dagokion urteko eta aurreko urteko informazioa izaten du). Ondorioz, oinarritzat hartu dugun informazioak urtebeteko atzerapena du txosten honi dagokion urtearekiko. Zehazki, txosten hau egiteko erabilgarri dagoen azken basea 2020koa da, eta 2019ari eta 2020ari dagokien informazioa eskaintzen du.

Industria-jardueraren sektorekako banaketari dagokionez, Balantzeen Zentralaren CB-52 sailkapen berria erabili dugu industria-sektoreen informazio-eskaera egiteko.

Sailkapen hori, bestalde, 2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN-2009) kontuan hartuta eguneratu dute. Sailkapen horrek honako sektore hauek bereizten ditu (19 sektore):

- Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriak
- Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
- Zuraren eta kortxoaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza izan ezik
- Papergintza
- Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa
- Koke-fabrikak eta petrolio-finketa
- Industria kimikoa
- Farmazia-produktuen fabrikazioa
- Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa
- Produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa
- Metalurgia; burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa
- Produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoena izan ezik
- Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa
- Material eta ekipo elektrikoen fabrikazioa
- Beste ezein lekutan sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa
- Ibilgailu motordunen, atoien eta erdi-atoien fabrikazioa
- Bestelako garraio-materialen fabrikazioa
- Altzarien fabrikazioa eta beste manufaktura-industria batzuk
- Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa

Euskal Herriari dagokionez, 2020ko datu-basean aipatutako 19 sektore horietatik 14 sektoreren inguruko informazioa dago eskuragarri. Honako sektore hauen inguruko informazioa ez dago eskuragarri: ehungintza, jantzigintza eta larrugintza; arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa; koke-fabrikak eta petrolio-finketa; farmazia-produktuen fabrikazioa; eta produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa. Sektore horietan 5 enpresa kolaboratzaile baino gutxiago daudenez, datuak ez daude eskuragarri estatistika-sekretua dela-eta.

2019an 8 sektoreren gaineko informazioa zegoen eskuragarri; ez zegoen daturik hauen gainean: zuraren eta kortxoaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza izan ezik; paperaren industria; beste produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa; bestelako garraio-materialen fabrikazioa; altzarien fabrikazioa eta beste manufaktura-industria batzuk; eta makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa. Hala, dagokion urtean eskuragarri dauden sektoreak batuta kalkulatzen da industria-sektore osoaren guztizkoa (bai Euskal Herrian, bai Estatuan).

Azkenik, kontuan izan behar da enpresek beren borondatez ematen dituztela sektore bakoitzaren azterketa egiteko erabiltzen diren datuak. Hori dela eta, ezerk ez du bermatzen datu-baseak denboran zehar irautea, ezta egindako azterketak sektorean inferentziaren bat egiteko balio estatistikoa duenik ere.

**Ratioen piramidea**[1]

*Abiapuntuko datuak: balantzea eta emaitzen kontua*

Piramidea egiteko abiapuntuko informazio gisa, oinarrizko kontabilitate-egoerak erabili ditugu: emaitzen kontua eta balantzea. Informazio hori oso modu sinplean azaldu dugu. Izan ere, aztertutako sektoreen inguruko ikuspegi orokorra eskaintzea da helburua. Azterketa sakonagoa egin ahal izateko eta ondorio sakonagoa ateratzeko, gehiago xehatutako informazioa behar da, eta edukietan aberatsagoa dena.

Emaitzen kontuari dagokionez, honako taula honetan ageri den egitura erabiliko dugu:

| | | |
|---|---|---|
| + | Ustiapeneko ohiko diru-sarrerak | V |
| - | Kostu aldakor operatiboak, ordainketarekin | CV |
| - | Kostu finko operatiboak, ordainketarekin | CF |
| - | Amortizazioak (eta, oro har, ordainketarik gabeko kostu operatiboak) | AM |
| - | Interesak | I |
| ± | Ezohiko emaitzak | RE |
| - | Sozietateen gaineko zerga | IS |
| = | Mozkin garbia | BN |

Balantzearen pasiboari dagokionez, kostu esplizitua duten kanpoko funtsak eta ondare garbia bereiziko ditugu (2007 KPO kontabilitate-plan berriaren arabera). Aktiboari dagokionez, berriz, aktibo finkoa (aktibo ez-korrontea) eta aktibo zirkulatzaile garbia (aktibo korronte garbia) hartuko ditugu kontuan. Aktibo zirkulatzaile garbia kalkulatzeko, aktibo zirkulatzaileari kentzen zaizkio berezko pasiboak (negozioaren jardunak berak sortutako pasiboak, hala nola administrazioarekin amortizatzeko geratzen diren saldoak) eta kostu inplizitua duten pasiboak (hala nola hornitzaileekin amortizatzeko geratzen diren saldoak; saldo horien kostua ordainketa bizkorragatiko deskontu gisa kalkula liteke finantzaketari uko eginez gero). Honako taula honetan ikus daiteke hori guztia:

[1] Gómez-Bezares, F., J. A. Madariaga eta Javier Santibáñez (1999): "Algunas reflexiones y novedades acerca de la pirámide de ratios", *Boletín de Estudios Económicos*, 167.zenbakia, 1999ko abuztua; 329-359 orrialdeak.



LABORAL kutxa

| | |
|---|---|
| AKTIBO ZIRKULATZAILE GARBIA | EPE LABURREKO KANPOKO FUNTSAK KOSTU ESPLIZITUAREKIN |
| AKTIBO FINKOA | EPE LUZEKO KANPOKO FUNTSAK |
| | ONDARE GARBIA |

Proposatutako ratioen piramidea aurkeztu aurretik, kontzeptu interesgarri batzuk azalduko ditugu.

*Leverage operatiboa*

Mozkin operatiboaren (finantza-kostuak eta zergak kontuan hartu gabe) eta "saldutako euro bakoitzeko marjina gordinaren" arteko erlazioa jasotzen du. Erabiliko den formulaziora iristeko, nomenklatura gehigarri batzuk behar dira:

MB = Marjina gordina. Ohiko diru-sarreren eta kostu aldakorren arteko diferentzia (amortizazioa kostu finkotzat hartuko dugu):

$$MB = V - CV$$

MBP = Saldutako euro bakoitzeko marjina gordina. Marjina gordinaren eta salmenten zifraren arteko zatidura. Saldutako euro bakoitzak uzten duen marjina adierazten du, kostu aldakorrak soilik ordaindu ondoren:

$$MBP = \frac{MB}{V}$$

BAII = Interesen eta zergen aurreko mozkina. Ohiko diru-sarreren eta kostu operatiboen (aldakorrak eta finkoak, ordainketarekin eta ordainketarik gabe) diferentzia konparatzearen emaitza da:

$$BAII = V - CV - CF - AM = MB - (CF + AM)$$

VPM = Itopuntuko salmentak. Kostu operatiboak (aldakorrak eta finkoak, ordainketarekin eta ordainketarik gabe) estaltzeko beharrezkoa den salmenta-zifra da, eta bat dator BAII = 0 egiten duen salmenta kantitatearekin. Kostu aldakorrak salmentekiko linealak direla pentsatuz gero (MBP salmenta-mailarekiko independentea izanik), honako hau dugu:

$$BAII = 0 = MB - (CF + AM)$$

$$MB = (CF + AM)$$

$$\frac{MB}{V} \cdot V = MBP \cdot V = (CF + AM)$$

$$V = VPM = \frac{CF + AM}{MBP}$$

Eta, era horretan, leverage operatiboaren formulaziora iritsiko ginateke:

$$BAII = MB - (CF + AM) = \frac{MB}{V} \cdot V - MBP \cdot VPM = MBP \cdot V - MBP \cdot VPM$$

$$BAII = MBP \cdot (V - VPM)$$

Hortaz, saldutako euro bakoitzeko marjina gordina handitzea lortzen bada (kostu finkoak konstante mantenduz), interesen eta zergen aurreko mozkina handitzea lortzen da (apalankamendu-efektua).

*Leverage finantzarioa*

Funts Propioetan inbertitutako euro bakoitzeko errentagarritasunaren, aktiboaren errendimenduaren, kanpoko funtsen kostuaren eta zorpetzearen arteko erlazioa neurtzen du. Formulazio matematikoa lortzeko, kontzeptu batzuk definitu behar dira:

t = Zerga-tasa

BAIdI = Interesen aurreko eta zergen ondorengo mozkina.

$$BAIdI = BAII \cdot (1 - t) = (V - CV - CF - AM) \cdot (1 - t)$$

Bestalde, ekitaldian ezohiko emaitzarik ez dagoela aintzat hartuta[1], BAIdI-i zergen interes garbiak kenduz lortzen da mozkin garbia:

$$BN = BAIdI - I \cdot (1 - t)$$

Jarraian, leverage finantzarioaren formulazioan agertuko diren hiru ratio definituko ditugu:

r = Errendimendu operatiboa. Aktiboan inbertitutako euro bakoitzeko lortutako errentagarritasun garbia da, nola finantzatzen den kontuan hartu gabe. Kontuan hartu behar da aktiboaren zenbatekoa bat datorrela aktibo zirkulatzaile garbiaren eta aktibo finkoaren baturarekin:

$$r = \frac{BAIdI}{ACN + AF}$$

i = Kanpoko finantzaketaren kostu garbia, kostu esplizituarekin. Kanpoko funtsen hornitzaileek eskatutako errendimendua da, dagozkion interesen

[1] Aurrerago jorratuko dugu ezohiko emaitzek sorrarazten duten arazoa.

ordainketak sozietateen gaineko zergan eragiten duen zerga-aurrezkia kenduta:

$$i = \frac{I(1-t)}{FACP + FALP} = \frac{I(1-t)}{FA}$$ [1]

e = Ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko lortutako errendimendu ekonomikoa.

$$e = \frac{BN}{PN}$$

Aurrekoa abiapuntutzat hartuta, leverage finantzarioaren formulazioa osa daiteke. Hona hemen adierazpena:

$$e = r + (r - i)\frac{FACP + FALP}{PN} = r + (r - i)\frac{FA}{PN}$$

e = Errendimendu operatiboa + Leverage finantzarioa

Ondorengo taulan, sektore bakoitzerako aplikazio praktikoan erabiliko dugun ratioen oinarrizko piramidea ikus daiteke.

[1] FA izena erabiliko dugu FACP eta FALPen batura laburtzeko. Nolanahi ere, gogoratu FACPk kostu esplizitudun epe laburreko kanpoko funtsei egiten diela erreferentzia, eta ez epe laburreko kanpoko funts guztiei.




Goi-erpinean, ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko errentagarritasuna ageri da, eta aktiboaren errendimenduaren eta leverage finantzarioaren batura gisa deskonposatuta dago. Ondoren, batugai horiek nola osatzen diren azaltzen du adar bakoitzak. Ikus daitekeenez, aktiboa eta pasiboa, hots, inbertsioa eta finantzaketa bereizten ditu piramideak. Azken batean, “r” ratioak aktiboaren errendimendua neurtzen du, finantzatzeko modua edo finantza-egitura kontuan hartu gabe. Eskuineko adarrak, berriz, leverage finantzarioaren bidez finantzaketak ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko errendimenduari egiten dion ekarpena kalkulatzen du.

Beste kontu bat ere aipatu beharra dago: piramidearen analisian ezohiko emaitzak nola tratatuko ditugun. Normalean, emaitza horiek errepikatzen diren ala ez aztertzen da enpresetan aplikatutako analisian.

Emaitzak errepikakorrak eta, beraz, aurreikusteko modukoak badira, piramidearen "r" mailan txerta daitezke, aktiboaren errendimendu bakarra kalkulatuta edo bi kalkulatuta: ohiko errendimendua eta ezohiko errendimendua.

Dena den, emaitzak errepikakorrak diren ala ez zehazteko ezintasunaren aurrean, sektorekako azterketa egiteko garaian, atal honen amaieran jasotako irudian agertzen den soluzioa erabiliko dugu sektore bakoitzerako. Hau da, "e" mailan txertatuko ditugu, eta ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko hiru errentagarritasun mota bereiziko ditugu: ohikoa –e1–, berezko ezohikoa –e2– eta zerga-eraginari lotutako ezohikoa –e3–. Arrazoi sendo bat dugu azken adar hori erabiltzeko: zerga sektorialen (T) zifren agregatuak e1 ratioa distortsiona dezake. Sektorearen berezko negozioari lotutako errentagarritasuna jasotzen du e1 ratioak. Horregatik, % 28,5eko batez besteko zerga-tasa komuna ezarri diegu sektore guztiei, eta tasa horrekiko diferentziak e3 adarrera eraman ditugu.

Kapituluaren amaieran, aztertutako industria-sektore guztietako ratioen piramideak erantsi ditugu, Euskal Herrikoak zein Estatu osokoak, 2019. eta 2020. urteei dagozkienak. Dena den, eraginkortasun-arrazoiak direla-eta, piramideko ratiorik garrantzitsuenak baino ez ditugu aukeratu hurrengo atalean azalduko dugun ekonomia- eta finantza-azterketa sektoriala egiteko.

Zehazki, ondare garbiaren errentagarritasun-ratioak (e) hautatu ditugu Euskal Herriko industria-sektoreen analisirako, ohikoak (e1) zein ezohikoak (e2 eta e3). Ondoren, ondare garbiaren ohiko errentagarritasunaren osagaien azterketa xehea egin dugu, hau da, aktibo garbiaren errentagarritasunarena (r, eta haren osagaiak: BAIdI/V eta V/(AF+ACN)) eta leverage finantzarioarena ((r-i) x (FA/PN)) eta haren osagaiena: (r-i) eta FA/PN). Azkenik, Euskal Herriko eta Estatuko industria-sektoreen arteko alderaketa egiteko, ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna (e1) eta horren osagaiak hartu ditugu kontuan: aktibo garbiaren errentagarritasuna (r) eta leverage finantzarioa ((r-i) x (FA/PN)).


e
e3
+
e1
+
e2
T(t=0,285)-T(t efektiboa)
÷
PN
REdI
÷
PN
RE
x
(1-t)
r
+
$(r-i)\frac{FA}{PN}$
$\frac{BAIdI}{V}$
x
$\frac{V}{AF+ACN}$
(r-i)
x
$\frac{FA}{PN}$
BAIdI
÷
V
÷
AF+ACN
r
-
i
FA
÷
PN
(I-t)
x
BAII
I(I-t)
÷
FA
V-VPM
x
MBP
I
x
(1-t)
V
-
VPM
CF+AM
÷
MBP
MB
÷
V
V
-
CV

**Funtsen iturrien eta erabileren egoera**[1]

Analisirako bigarren tresna, alderdi finantzarioan oinarritzen da. Hau da, funtsen kutxa edo fluxuak hartzen ditu kontuan, ratioen piramideak ez bezala. Ratioen piramideak mozkinean oinarritutako azterketa ekonomikoa egiten du. Ondorengo taulan, funtsen iturri eta erabileren egoeraren aurkezpen orokorra ageri da. Ikus daitekeenez, funtsen iturri eta erabileren egoera hiru kontzepturen kalkuluan oinarrituta dago:

- TINV: t urteko Inbertsio Diruzaintza, sektoreko aktiboak liberatzen duen euro kopuruarekin bat datorrena –haren premiei erantzun ondoren, eta nola finantzatzen den kontuan hartu gabe–. “Free cash-flow” izen anglosaxoiaz ezagunagoa da. Erraz kalkulatzen da: ohiko eragiketetan (GFO) sortutako euroei ezohiko eragiketetan (GFE) sortutakoak gehitu behar zaizkie, eta, ondoren, aktibo zirkulatzaile garbian eta ibilgetuan egindako inbertsioak kendu.
- TFA: t urteko Kanpoko Funtsen Diruzaintza, sektorearen eta kanpoko funtsen hornitzaileen arteko erlazioaren ondorioz sortzen diren funtsen sarrera eta irteeren arteko diferentzia adierazten duena.
- TPN: t urteko Ondare Garbiaren Diruzaintza; aurrekoaren kontzeptu berdina da, baina ondare garbiari aplikatua.

Hiru kontzeptuen baturak –urte jakin baterako– zero izan behar du. Azken batean, aktiboak euroak liberatzen baditu (TINV>0), kanpoko funtsen eta/edo ondare garbiaren hornitzaileek eraman dutelako da. Aktiboak bere kabuz bere premiei erantzuterik izan ez badu, kanpoko funtsen eta/edo ondare garbiaren hornitzaileek dagokien diru kopurua jarri beharko dute. Laburtuz, balioa zero izateak finantza-egoera orekatua dela esan nahi du, baina inola ere ez du esan nahi sektorea osasuntsu dagoenik.

Jarduera-sektoreetarako proposatutako eskema orokorra aplikatzeko garaian, kontuan hartu behar da ratioen piramidean zerga agregatuen zifrak nola tratatu diren. Hala, % 28,5eko tasa orokorra ezarriko dugu, eta jasandakoarekiko diferentziak aldi horretan izandako funtsen ezohiko sorkuntzara (GFE) eramango ditugu. Aipatzekoa da, halaber, TPNa diferentziaren bidez kalkulatzen dela, abiapuntuko informazioak ez baitu aukerarik ematen beste era batera egiteko.

[1] Gómez-Bezares, F., J. A. Madariaga eta Javier Santibáñez (2002): “El estado de fuentes y empleos de fondos: una herramienta imprescindible en el análisis financiero”, *Harvard – Deusto Finanzas & Contabilidad*, 49. zk., iraila-urria, 2002, 18-28 or.

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | + $V_t$ | Ohiko salmentak |
| | | - $C_t$ | Kostu operatiboak, ordainketarekin |
| | | - $AM_t$ | Amortizazioa |
| | | = $BAII_t$ | Interesen eta zergen aurreko mozkina |
| | | * (1-t) | Zerga-eragina (t = zerga-tasa = 0,285) |
| | | = $BAIdI_t$ | Interesen aurreko eta zergen ondorengo mozkina |
| | | + $AM_t$ | Amortizazioa |
| | | - $IF_t$ | Alegiazko diru-sarrerak (ustiapenen + ibilget. lanen dirulaguntzak) |
| | + $GFO_t$ | | Funts operatiboak sortzea |
| | | + $RE_t$ | Ezohiko emaitzak |
| | | * (1-t) | Zerga-eragina (t = 0,285) |
| | | = $REdI_t$ | Ezohiko emaitzak, zergen ondoren |
| | | +$EF_t$ | Zerga-ondorioa: (0,285 – t efektiboa) * Zergen aurreko mozkina |
| | + $GFE_t$ | | Ezohiko funtsak sortzea |
| | | + $ACN_{t-1}$ | Hasierako aktibo zirkulatzaile garbia |
| | | - $ACN_t$ | Amaierako aktibo zirkulatzaile garbia |
| | - $\Delta ACN_t$ | | Aktibo zirkulatzaile garbia areagotzea |
| | - $INV_t$ | | Aktibo finkoan inbertitzea (Δ AF garbia +AM- Ibilget. lanak) |
| + $TINV_t$ | | | Diruzaintzaren fluxua, inbertsio-erabakiak |
| | + $EFA_t$ - $AFA_t$ | | Jaulkipena den kanpoko funtsen amortizazioa, kostuarekin |
| | | + $I_t$ | Kanpoko funtsen interesak |
| | | * (1-t) | Zerga-eragina (t = 0,285) |
| | - (1-t) * $I_t$ | | Funtsak kentzea, interesengatik |
| + $TFA_t$ | | | Diruzaintzaren fluxua, finantzaketa-erabakiak kanpoko funtsekin |
| + $TPN_t$ | | | Diruzaintzaren fluxua, finantzaketa-erabakiak ondare garbiarekin (Δ PN-BN + ustiap. dirulaguntzak) |
| = 0 | | | = 0 |

Bestalde, aurrez aipatu dugun moduan, sektore baten inguruko informazioa ematen duen enpresen laginak ez du zertan denboran zehar berbera izan behar. Hortaz, urte ezberdinetarako multzo homogeneo bat eratze aldera, sektore bakoitzeko funtsen iturrien era erabileren batez besteko egoera azalduko dugu. Batezbestekoa kalkulatzeko, kontzeptu bakoitzaren eta lagina osatzen duten enpresa kopuruaren arteko zatiketa egin dugu

Kasu honetan ere, kapituluaren amaieran, aztertutako industria-sektore guztietako funtsen iturrien era erabileren egoerak erantsi ditugu, Euskal Herrikoak zein Estatu osokoak, 2019. eta 2020. urteei dagozkienak. Dena den, funtsen iturrien eta erabileren egoeraren analisi sektorialari eskainitako azken atalean, eraginkortasun-arrazoiengatik, baliorik esanguratsuenak baino ez ditugu kontuan hartu: TINV, TFA eta TPN.

**119. koadroa Espainiako Bankuko Balantzeen Zentraleko enpresa laguntzaileen kopurua**

| SEKTOREA | Euskal Herria 2020 | Estatua 2020 |
|---|---|---|
| Nekazaritzako elikagaiak | 29 | 466 |
| Zura eta kortxoa | 6 | 51 |
| Papera | 7 | 82 |
| Kimika | 11 | 156 |
| Kautxua eta plastikoa | 15 | 132 |
| Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk | 6 | 109 |
| Metalurgia | 23 | 88 |
| Produktu metalikoak | 51 | 315 |
| Material eta ekipo elektrikoa | 9 | 59 |
| Beste makineria eta ekipo batzuk | 42 | 223 |
| Ibilgailu motordunak | 16 | 108 |
| Beste garraio-material batzuk | 6 | 37 |
| Altzarien fabrikazioa | 7 | 112 |
| Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 7 | 105 |
| **Industria, guztira** | **235** | **2.043** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

## 11.3. RATIOEN PIRAMIDEA

2020ko ekitaldiaren gainean eskuragarri dauden azken datuen arabera, eta ondare garbiaren errentagarritasunari (e) dagokionez, Euskal Herriko industria-sektoreen artean dauden alde hauek nabarmendu behar dira:

- 2020an honako sektore hauek izan zuten ondare garbiaren errentagarritasunik handiena: kautxua eta plastikoa (% 16,9), makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 12,2) eta altzarien fabrikazioa (% 8,6).

- Sektore hauetako ondare garbiaren errentagarritasuna ere industriako batezbestekoa (% 0,4) baino altuagoa izan zen, baina ez aurrekoena bezain altua: kimika (% 7,5), ibilgailu motordunak (% 6,1), beste ezein lekutan sailkatu gabeko makineria eta ekipoak (% 5,9), papera (% 5,1) eta produktu metalikoak (% 3,0).

- Gainerako sektoreen ondare garbiaren errentagarritasuna batezbestekoa baino baxuagoa izan zen honako sektore hauetan: beste produktu mineral ez-metaliko batzuk (% 0,1), beste garraio-material batzuk (-% 1,7), zura eta kortxoa (-% 5,9), nekazaritzako elikagaiak (-% 7,8), metalgintza (-% 11,6) eta material eta ekipo elektrikoak (-% 17,7).

Ondare garbiaren errentagarritasun horren analisia eginez gero, ohikoa (e1), berezko ezohikoa (e2) eta zerga-eraginari lotutako ezohikoa (e3) bereizita, 2020 ekitaldiko honako alderdi hauek azpimarra daitezke:

- Espero zitekeen bezala, ondare garbiaren errentagarritasuna, batez ere, ohiko errentagarritasunean (e1) oinarritzen da. Ezohikoek (e2 eta e3), berriz, osagarri gisa jokatzen dute.

- Batetik, aipatzekoa da honako sektoreek ondare garbiaren ohiko errentagarritasun (e1) maila positiboa eskuratu zutela: nekazaritzako elikagaiak (% 14,5), kautxua eta plastikoa (% 13,0), makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 10,6), beste produktu mineral ez-metaliko batzuk (% 10,2) eta altzarien fabrikazioa (% 8,2); sektore horiek industriaren batezbestekotik (% 5,3) gora geratu ziren, modu argian. Bestetik, material eta ekipamendu elektrikoen sektoreak (-% 4,4) maila negatiboa eskuratu zuen, industriaren batezbestekotik oso urrun.

- Ondare garbiaren ezohiko errentagarritasunari (e2) dagokionez, sektore hauek eskuratutako errentagarritasun maila baxua nabarmentzen da: nekazaritzako elikagaiak (-% 20,8), beste produktu mineral ez-metaliko batzuk (-% 8,7), material eta ekipamendu elektrikoa (-% 7,5) eta metalurgia (-% 5,2); sektore horiek industriaren batezbestekotik (-% 4,7) behera geratu ziren. Beste aldean kokatu zen kimika-sektorea; haren errentagarritasuna nabarmendu egin zen, sektore guztien artean positibo bakarra izan zelako, % 0,2koa. Gainerako sektoreen errentagarritasuna industriaren batezbestekoa baino altuagoa izan zen, baina negatiboa.

- Azkenik, nabarmentzekoa da sektore gehienek zerga-eraginari lotutako ondare garbiaren ezohiko errentagarritasun (e3) altua lortu zutela, batezbestekoa (-% 0,3) baino askoz handiagoa: kautxua eta plastikoa (% 4,8), produktu metalikoak (% 2,4), altzarien fabrikazioa (% 1,9), makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 1,8), beste ezein lekutan sailkatu gabeko makineria eta ekipoak (% 1,7), papera (% 1,4), kimika (% 0,8) eta ibilgailu motordunak (% 0,6). Aitzitik, zerga-eraginari lotutako ondare garbiaren ezohiko errentagarritasun oso negatiboa izan zuten sektore hauek: material eta ekipamendu elektrikoak (-% 5,9), metalurgia (-% 4,6) eta zura eta kortxoa (-% 4,0).



LABORAL kutxa

**120. koadroa** **Ondare garbiaren errentagarritasuna Euskal Herriko industria-sektoreetan**

| SEKTOREA | e (%) | | e1 (%) | | e2 (%) | | e3 (%) | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2019 | 2020 | 2019 | 2020 | 2019 | 2020 | 2019 | 2020 |
| Nekazaritzako elikagaiak | 1,1 | -7,8 | 0,5 | 14,5 | -0,5 | -20,8 | 1,2 | -1,5 |
| Zura eta kortxoa | -- | -5,9 | -- | -2,0 | -- | 0,0 | -- | -4,0 |
| Papera | -- | 5,1 | -- | 4,3 | -- | -0,5 | -- | 1,4 |
| Kimika | 7,5 | 7,5 | 6,9 | 6,5 | 0,0 | 0,2 | 0,6 | 0,8 |
| Kautxua eta plastikoa | 17,2 | 16,9 | 13,9 | 13,0 | -1,6 | -0,9 | 4,9 | 4,8 |
| Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk | -- | 0,1 | -- | 10,2 | -- | -8,7 | -- | -1,4 |
| Metalurgia | -2,7 | -11,6 | 7,6 | -1,9 | -5,3 | -5,2 | -4,9 | -4,6 |
| Produktu metalikoak | 9,7 | 3,0 | 3,7 | 4,3 | 5,3 | -3,7 | 0,8 | 2,4 |
| Material eta ekipo elektrikoa | 18,8 | -17,7 | -8,1 | -4,4 | -1,9 | -7,5 | -8,8 | -5,9 |
| Beste makineria eta ekipo batzuk | 12,1 | 5,9 | 9,5 | 4,7 | -0,3 | -0,5 | 2,9 | 1,7 |
| Ibilgailu motordunak | 12,2 | 6,1 | 10,6 | 5,9 | -0,2 | -0,4 | 1,8 | 0,6 |
| Beste garraio-material batzuk | -- | -1,7 | -- | 5,8 | -- | -6,4 | -- | -1,1 |
| Altzarien fabrikazioa | -- | 8,6 | -- | 8,2 | -- | -1,5 | -- | 1,9 |
| Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa | -- | 12,2 | -- | 10,6 | -- | -0,2 | -- | 1,8 |
| **Industria, guztira** | **6,1** | **0,4** | **7,4** | **5,3** | **-1,1** | **-4,7** | **-0,1** | **-0,3** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

Ondare garbiaren errentagarritasuna (e) aztertu ondoren (ohikoa –e1– zein ezohikoa –e2 eta e3–), ondare garbiaren ohiko errentagarritasunaren (e1) osagaien analisi zehatzagoa egingo dugu: aktibo garbiaren errentagarritasuna (r) eta leverage finantzarioa ((r-i) x (FA/PN)).

**121. koadroa** **Aktibo garbiaren errentagarritasuna Euskal Herriko industria-sektoreetan**

| SEKTOREA | r (%) | | BAIdI / V (%) | | V / (AF + ACN) | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2019 | 2020 | 2019 | 2020 | 2019 | 2020 |
| Nekazaritzako elikagaiak | 1,2 | 5,5 | 7,0 | 4,9 | 1,814 | 1,137 |
| Zura eta kortxoa | -- | -0,6 | -- | -0,7 | -- | 0,918 |
| Papera | -- | 2,8 | -- | 3,0 | -- | 0,912 |
| Kimika | 6,6 | 5,6 | 6,6 | 5,7 | 1,005 | 0,974 |
| Kautxua eta plastikoa | 10,0 | 9,1 | 9,0 | 9,6 | 1,117 | 0,941 |
| Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk | -- | 7,3 | -- | 16,1 | -- | 0,453 |
| Metalurgia | 5,1 | 0,1 | 2,4 | 0,1 | 2,169 | 1,708 |
| Produktu metalikoak | 3,1 | 3,3 | 1,9 | 4,0 | 1,602 | 0,807 |
| Material eta ekipo elektrikoa | -2,4 | -0,5 | -2,5 | -0,9 | 0,980 | 0,586 |
| Beste makineria eta ekipo batzuk | 8,1 | 4,0 | 7,1 | 3,4 | 1,145 | 1,164 |
| Ibilgailu motordunak | 8,4 | 5,0 | 2,4 | 1,6 | 3,500 | 3,218 |
| Beste garraio-material batzuk | -- | 3,6 | -- | 4,4 | -- | 0,815 |
| Altzarien fabrikazioa | -- | 5,8 | -- | 4,1 | -- | 1,411 |
| Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa | -- | 8,4 | -- | 2,4 | -- | 3,500 |
| **Industria, guztira** | **4,8** | **3,6** | **2,8** | **3,2** | **1,733** | **1,121** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

Lehenik eta behin, aktibo garbiaren errentagarritasunari (r) dagokionez, Euskal Herrian 2020 aztertutako industria-sektoreei buruzko alderdi hauek aipatu behar dira:

- Orokorrean, 2020an ere funts propioen errentagarritasunaren osagai nagusia aktibo garbiaren errentagarritasuna izaten jarraitu zuen. Izan ere, leverage finantzarioaren garrantzia txikiagoa da (aurrerago sakonago aztertuko dugu hori).
- 2020an honako sektore hauek izan zuten aktibo garbiaren errentagarritasunik handiena: kautxua eta plastikoa (% 9,1), makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 8,4) eta beste produktu mineral ez-metaliko batzuk (% 7,3). Bost sektore kokatu ziren batez besteko aktibo garbiaren errentagarritasunetik (% 3,6) behera: produktu metalikoak (% 3,3), papera (% 2,8), metalurgia (% 0,1), material eta ekipamendu elektrikoak (-% 0,5) eta zura eta kortxoa (-% 0,6).

- Aktibo garbiaren errentagarritasuna osatzen duten elementuei dagokienez, BAIdI/V ratioa (irabaziaren pisua interesen aurretik eta zergen ondoren, ustiapeneko ohiko diru-sarreren gainean) aztertuko dugu lehenik eta behin. Hala, sektore hauek eskuratutako maila altua nabarmendu behar da: beste produktu mineral ez-metaliko batzuk (% 16,1) eta kautxua eta plastikoa (% 9,6), batezbestekotik (% 3,2) oso gora. Aitzitik, batezbestekotik oso behera kokatu ziren material eta ekipamendu elektrikoak (-% 0,9), zura eta kortxoa (-% 0,7) eta metalurgia (% 0,1).

- Ustiapeneko ohiko diru-sarreren eta aktibo garbiaren arteko erlazioa neurtzen duen V/(AF+ACN) ratioari dagokionez, nabarmentzekoa da honako sektore hauek lortu zuten maila altua: makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (3,500), ibilgailu motordunak (3,218) eta metalurgia (1,708). Sektore guzti hauek, batezbestekoaren (1,121) gainetik kokatu ziren. Gainerako sektore gehienak beste muturrean kokatu ziren. Horien artean, beste produktu mineral ez-metaliko batzuk (0,453) eta Material eta ekipamendu elektrikoa (0,586) nabarmendu behar dira.

**122. koadroa Leverage finantzarioa Euskal Herriko industria-sektoreetan**

| SEKTOREA | (r - i) x (FA / PN) (%) | | (r - i) | | FA / PN (%) | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2019 | 2020 | 2019 | 2020 | 2019 | 2020 |
| Nekazaritzako elikagaiak | -0,7 | 9,0 | 0,003 | 0,037 | -254,1 | 240,1 |
| Zura eta kortxoa | -- | -1,4 | -- | -0,021 | -- | 65,3 |
| Papera | -- | 1,5 | -- | 0,017 | -- | 86,4 |
| Kimika | 0,3 | 0,9 | 0,058 | 0,047 | 4,6 | 18,8 |
| Kautxua eta plastikoa | 3,8 | 4,0 | 0,095 | 0,084 | 40,4 | 47,6 |
| Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk | -- | 2,9 | -- | 0,053 | -- | 54,5 |
| Metalurgia | 2,5 | -2,0 | 0,027 | -0,024 | 91,4 | 82,1 |
| Produktu metalikoak | 0,6 | 1,0 | 0,011 | 0,018 | 55,9 | 59,5 |
| Material eta ekipo elektrikoa | -5,7 | -3,8 | -0,035 | -0,016 | 160,6 | 235,0 |
| Beste makineria eta ekipo batzuk | 1,4 | 0,7 | 0,071 | 0,010 | 19,9 | 70,9 |
| Ibilgailu motordunak | 2,1 | 0,9 | 0,069 | 0,037 | 30,6 | 24,8 |
| Beste garraio-material batzuk | -- | 2,2 | -- | 0,017 | -- | 128,1 |
| Altzarien fabrikazioa | -- | 2,4 | -- | 0,044 | -- | 55,2 |
| Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa | -- | 2,1 | -- | 0,069 | -- | 30,6 |
| **Industria, guztira** | **2,5** | 1,7 | 0,069 | 0,018 | 71,4 | 94,2 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

Leverage finantzarioaren analisiari dagokionez ((r - i) x (FA / PN)), 2020. urtean honako alderdi hauek azpimarra daitezke Euskal Herriko industria-sektoreetan:

- Leverage finantzarioak, oro har, pisu txikia du aktibo garbiaren errentagarritasunean, ondare garbiaren errentagarritasuna zehazteko orduan. Testuinguru horretan, nabarmentzekoa da nekazaritzako elikagaiek (% 9,0) sektorean eskuratu duten maila altua, industria-sektoreko batezbestekoa (% 1,7) baino askoz altuagoa, eta 2019an eskuratutako maila (-% 0,7) baino askoz altuagoa ere bai. Batezbesteko mailatik behera, eta balio negatiboarekin, honako sektore hauek aurkitzen dira: material eta ekipamendu elektrikoak (-% 3,8), metalurgia (-% 2,0) eta zura eta kortxoa (-% 1,4).
- Leverage finantzarioaren osagaiak kontuan izanda, eta aktibo garbiaren errentagarritasunaren eta kostu esplizitua duen kanpoko finantzaketaren kostu garbiaren (r-i) arteko ezberdintasuna aztertuta, azpimarratzekoa da sektore hauek lortutako maila: kautxua eta plastikoa (0,084) eta makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (0,069). Industria-sektoreko batez besteko mailatik (0,018) gora kokatu ziren biak. Aitzitik, batezbestekoaren azpitik eta balio negatiboekin sektore hauek baino ez ziren kokatu: metalurgia (-0,024), zura eta kortxoa (-0,021) eta material eta ekipamendu elektrikoak (-0,016).
- Azkenik, zorpetze maila neurtzen duen FA/PN ratioari dagokionez (kanpoko funtsek ondare garbian duten eragina), bereziki, sektore hauek nabarmendu ziren, eskuratutako maila altuagatik: nekazaritzako elikagaiak (% 240,1; eta 2019an -% 254,1, askoz baxuagoa) eta material eta ekipamendu elektrikoak (% 235,0). Batezbestekoa (% 94,2) baino askoz gorago kokatu ziren biak. Aitzitik, beste

muturrean kokatu ziren kimika (% 18,8) eta ibilgailu motordunak (% 24,8), batezbestekoa baino nahiko ratio baxuagoekin. Nolanahi ere, aipatzekoa da sektore gehienak (11) batez besteko zorpetze mailatik behera kokatu zirela.

**123. koadroa Euskal Herriko eta Estatu osoko industria-sektoreen arteko alderaketa, 2020**

| SEKTOREA | e1 (%) | | r (%) | | (r - i) x (FA / PN) (%) | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Euskal Herria | Estatua | Euskal Herria | Estatua | Euskal Herria | Estatua |
| Nekazaritzako elikagaiak | 15,0 | 8,4 | 5,5 | 5,5 | 9,0 | 2,8 |
| Zura eta kortxoa | -2,0 | 2,7 | -0,6 | 2,3 | -1,4 | 0,4 |
| Papera | 4,3 | 4,4 | 2,8 | 3,8 | 1,5 | 0,6 |
| Kimika | 6,5 | 9,7 | 5,6 | 7,8 | 0,9 | 2,0 |
| Kautxua eta plastikoa | 13,0 | 16,2 | 9,1 | 10,3 | 4,0 | 5,9 |
| Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk | 10,2 | 4,7 | 7,3 | 3,6 | 2,9 | 1,1 |
| Metalurgia | -1,9 | -2,2 | 0,1 | -0,4 | -2,0 | -1,8 |
| Produktu metalikoak | 4,3 | 8,9 | 3,3 | 5,7 | 1,0 | 3,2 |
| Material eta ekipo elektrikoa | -4,4 | 1,9 | -0,5 | 1,6 | -3,8 | 0,3 |
| Beste makineria eta ekipo batzuk | 4,7 | 11,1 | 4,0 | 7,9 | 0,7 | 3,3 |
| Ibilgailu motordunak | 5,9 | 4,4 | 5,0 | 3,1 | 0,9 | 1,4 |
| Beste garraio-material batzuk | 5,8 | 5,9 | 3,6 | 1,9 | 2,2 | 4,0 |
| Altzarien fabrikazioa | 8,2 | 7,2 | 5,8 | 5,1 | 2,4 | 2,1 |
| Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 10,6 | 5,2 | 8,4 | 3,0 | 2,1 | 2,2 |
| **Industria, guztira** | **5,3** | **6,6** | **3,6** | **4,5** | **1,7** | **2,2** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

Azkenik, Euskal Herriko industria-sektoreen egoera ekonomiko-finantzarioa Estatukoen egoerarekin alderatuta, pare bat ideia aipatu behar dira:

- 2020an, Estatuko batezbestekoa (% 6,6) baino funts propioen ohiko errentagarritasun (e1) altuagoa izan zuten honako sektore hauek, gainerako sektoreek ez bezala: nekazaritzako elikagaiak (% 15,0), kautxua eta plastikoa (% 13,0), makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 10,6), beste produktu mineral ez-metaliko batzuk (% 10,2), altzarien fabrikazioa (% 8,2) eta ibilgailu motordunak (% 5,9).
- Aktibo garbiaren errentagarritasunaren kasuan ere gauza bera gertatu zen sektore hauetan: nekazaritzako elikagaiak, kimika, kautxua eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metaliko batzuk, altzarien fabrikazioa eta makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa. Sektore horien kasuan, funts propioen ohiko errentagarritasuna Estatukoa baino altuagoa izan zen. Leverage finantzarioa ere altuagoa da Euskal Herrian, ondorengo sektore hauetan: nekazaritzako elikagaiak, kautxua eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metaliko batzuk eta altzarien fabrikazioa.



LABORAL kutxa

23. grafikoa Ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna eta haren osagaiak (aktibo garbiaren errentagarritasuna eta leverage finantzarioa) Euskal Herriko industria-sektoreetan, 2020




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

**24. grafikoa Euskal Herriko industria-sektoreetako ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna (e1), Estatukoarekin alderatuta, 2020**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

## 11.4. FUNTSEN ITURRIEN ETA ERABILEREN EGOERA

Azterketa egiteko, eskuragarri dauden 2020 ekitaldiko azken datuak izan ditugu kontuan, baita inbertsio-diruzaintza (TINV) ere. Inbertsio diruzaintza bat dator aktiboak liberatzen duen euro kopuruarekin, haren premiei erantzun ondoren eta nola finantzatzen den kontuan hartu gabe (free cash-flow). Hala, desberdintasun esanguratsuak topatu ditugu Euskal Herriko industria-sektoreen artean. Zehazki, aipatzekoak dira alderdi hauek:

- 2020an inbertsio-diruzaintza handiena izan zuen sektorea beste produktu mineral ez-metaliko batzuen sektorea izan zen (31,69 milioi euro enpresako). Hurrengo sektoreak makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (20,33) eta papera (8,92) izan ziren, hirurak ere industria-sektorearen batezbestekotik (-6,56 milioi euro enpresako) gora.

- Batezbestekotik gertuago eta balio positiboetan, honako sektore hauek kokatu ziren: metalurgia (3,21), kimika (0,63), altzarien fabrikazioa (0,30) eta kautxua eta plastikoak (0,25). Ez zen gauza bera gertatu beste garraio-material batzuen sektorean (-25,46) eta material eta ekipamendu elektrikoen sektorean (-129,39). Horiek balio negatiboetan kokatu ziren, eta industria-sektoreko batezbestekotik oso behera.

**124. koadroa Funtsen iturrien eta erabileren egoera Euskal Herriko industria-sektoreetan**

*(M euro)**

| SEKTOREA | TINV | | TFA | | TPN | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2019 | 2020 | 2019 | 2020 | 2019 | 2020 |
| Nekazaritzako elikagaiak | -3,31 | -2,99 | 2,29 | 3,09 | 1,02 | -0,10 |
| Zura eta kortxoa | -- | -0,02 | -- | 0,00 | -- | 0,02 |
| Papera | -- | 8,92 | -- | -0,69 | -- | -8,23 |
| Kimika | 0,52 | 0,63 | -0,16 | 0,49 | -0,35 | -1,11 |
| Kautxua eta plastikoa | 3,70 | 0,25 | 7,52 | 5,02 | -11,23 | -5,27 |
| Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk | -- | 31,69 | -- | -31,58 | -- | -0,12 |
| Metalurgia | 8,99 | 3,21 | -5,53 | -5,88 | -3,45 | 2,67 |
| Produktu metalikoak | -0,51 | -6,10 | -0,18 | 4,11 | 0,69 | 1,99 |
| Material eta ekipo elektrikoa | 43,88 | -129,39 | -45,05 | 95,57 | 1,17 | 33,82 |
| Beste makineria eta ekipo batzuk | 4,72 | -3,66 | 1,69 | 5,78 | -6,41 | -2,12 |
| Ibilgailu motordunak | 20,33 | -0,30 | -3,05 | -0,73 | -17,29 | 1,03 |
| Beste garraio-material batzuk | -- | -25,46 | -- | 22,09 | -- | 3,37 |
| Altzarien fabrikazioa | -- | 0,30 | -- | 1,48 | -- | -1,77 |
| Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa | -- | 20,33 | -- | -3,05 | -- | -17,29 |
| **Industria, guztira** | **6,61** | **-6,56** | **-2,38** | **5,49** | **-4,23** | **1,07** |

*(*): Sektoreko batezbestekoak.*

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

Sektorearen eta kanpoko funtsen hornitzaileen arteko erlazioaren ondorioz sortzen diren funtsen sarrera eta irteeren arteko diferentzia adierazten duen kanpoko funtsen diruzaintzari (TFA) erreparatuz gero, ondorengo hauek aipatu behar dira:

- Material eta ekipamendu elektrikoen (95,57) eta beste garraio-material batzuen (22,09) sektoreek izan zuten saldo handiena, biak ere industriaren batez besteko saldotik (5,49 milioi euro, enpresako) oso gora. Gainerako sektore gehienak batezbestekotik behera kokatu ziren eta, bereziki, metalurgia (-5,88) eta beste produktu mineral ez-metaliko batzuk (-31,58) nabarmendu ziren.

Azkenik, sektorearen eta ondare garbiaren hornitzaileen arteko erlazioaren ondoriozko funtsen sarrera eta irteeren arteko diferentzia adierazten duen ondare garbiaren diruzaintzari (TPN) dagokionez, honakoak aipatu behar dira 2020ari buruz:

- Material eta ekipamendu elektrikoen sektoreak izan zuen saldorik altuena, enpresako 33,82 milioi eurokoa. Hala, gainerako sektoreetatik urrun kokatu zen, eta industriaren batezbestekotik (1,07 milioi euro enpresako) oso gora.

- Nabarmentzekoa da, material eta ekipamendu elektrikoen sektoreaz gain, beste lau sektorek baino ez zutela saldo positiboa izan: beste garraio-material batzuk (3,37), metalurgia (2,67), produktu metalikoak (1,99), ibilgailu motordunak (1,03) eta zura eta kortxoa (0,02). Gainerakoek saldo negatiboa izan zuten, eta, bereziki, honakoak nabarmendu ziren: makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (-17,29), papera (-8,23) eta kautxua eta plastikoa (-5,27).

**125. koadroa Euskal Herriko eta Estatu osoko industria-sektoreen arteko alderaketa, 2020**

*(M euro)**

| SEKTOREA | TINV | | TFA | | TPN | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Euskal Herria | Estatua | Euskal Herria | Estatua | Euskal Herria | Estatua |
| Nekazaritzako elikagaiak | -2,99 | 1,50 | 3,09 | 0,94 | -0,10 | -2,44 |
| Zura eta kortxoa | -0,02 | -0,72 | 0,00 | 1,00 | 0,02 | -0,28 |
| Papera | 8,92 | 7,74 | -0,69 | -5,14 | -8,23 | -2,60 |
| Kimika | 0,63 | 6,18 | 0,49 | -2,20 | -1,11 | -3,98 |
| Kautxua eta plastikoa | 0,25 | 2,27 | 5,02 | -1,38 | -5,27 | -0,90 |
| Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk | 31,69 | 2,13 | -31,58 | -1,34 | -0,12 | -0,79 |
| Metalurgia | 3,21 | 11,58 | -5,88 | -15,08 | 2,67 | 3,49 |
| Produktu metalikoak | -6,10 | -0,88 | 4,11 | 0,93 | 1,99 | -0,05 |
| Material eta ekipo elektrikoa | -129,39 | -17,82 | 95,57 | 12,01 | 33,82 | 5,82 |
| Beste makineria eta ekipo batzuk | -3,66 | 0,61 | 5,78 | 1,17 | -2,12 | -1,78 |
| Ibilgailu motordunak | -0,30 | -2,48 | -0,73 | 3,99 | 1,03 | -1,51 |
| Beste garraio-material batzuk | -25,46 | -15,69 | 22,09 | 16,06 | 3,37 | -0,36 |
| Altzarien fabrikazioa | 0,30 | -0,20 | 1,48 | 0,46 | -1,77 | -0,26 |
| Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 20,33 | -1,03 | -3,05 | 0,96 | -17,29 | 0,06 |
| **Industria, guztira** | **-6,56** | **0,81** | **5,49** | **0,25** | **1,07** | **-1,05** |

*(*): Sektoreko batezbestekoak.*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

Azkenik, Euskal Herriko industria-sektoreetako funtsen iturri eta erabileren egoeraren eta Estatukoaren arteko alderaketari dagokionez, honako alderdi hauek aipatu behar dira 2020. urtean:

- 2020an, beste urte batzuetan ez bezala, sektore askok inbertsio-diruzaintza (TINV) negatiboa izan zuten. Sektore hauetan bakarrik izan zen inbertsio -diruzaintza handiagoa Euskal Herrian, Estatuan baino: beste produktu mineral ez -metaliko batzuk, makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa, papera, altzarien fabrikazioa eta zura eta kortxoa. Aztertutako gainerako sektoreetan aurkakoa gertatu zen.

- Kanpoko funtsen diruzaintzari (TFA) dagokionez, Euskal Herriko sektore gehienek diruzaintza handiagoa izan zuten Estatukoek baino; bereziki, Material eta ekipamendu elektrikoen sektorea nabarmendu zen.

- Azkenik, ondare garbiaren diruzaintzari (TPN) dagokionez, antzeko zerbait pasatu zen, eta sektore gehienek Estatuan baino ondare garbiaren diruzaintza handiagoa izan zuten Euskal Herrian. Zentzu horretan, kasu honetan ere material eta ekipamendu elektrikoen sektorea nabarmendu behar da, haren ondare garbiaren diruzaintza Estatuan erregistratutakoa baino askoz handiagoa baita.

25. grafikoa Funtsen iturrien eta erabileren egoera Euskal Herriko industria-sektoreetan, 2020

*(M euro)**




*(*): Sektoreko batezbestekoak.*

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

**26. grafikoa** **Euskal Herriko eta Estatuko industria sektoreen inbertsio-diruzaintzaren (TINV) fluxuaren alderaketa, 2020**

*(M euro)**




*(*): Sektoreko batezbestekoak.*

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

**126. koadroa** **Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriaren sektoreko ratioen piramidea**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

**127. koadroa** **Zuraren eta kortxoaren industria (altzariak, saskigintza eta espartzugintza izan ezik) sektoreko ratioen piramidea**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

**128. koadroa** **Paperaren industriaren sektoreko ratioen piramidea**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

**129. koadroa** **Industria kimikoaren sektoreko ratioen piramidea**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

**130. koadroa** **Kautxu eta plastikozko produktuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

**131. koadroa** **Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

**132. koadroa** **Metalurgia sektoreko ratioen piramidea (burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa)**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

**133. koadroa Produktu metalikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea (makineria eta ekipoa izan ezik)**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

**134. koadroa Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

**135. koadroa** **Beste makineria eta ekipo batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

**136. koadroa Ibilgailu motordunen, atoien eta erdi-atoien fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

Emaitzak kategoriaren arabera aztertuta, ikus daiteke zerealek eta industria-laboreek izandako garestitzeak antzekoak izan zirela hainbat eremutan (lehenengoaren kasuan, heren baten ingurukoa, eta guztiz ezohikoa). Nafarroan apur bat igo zen bazken balioa, eta Estatuan apur bat merkatu ziren; barazkiekin, ordea, kontrakoa gertatu zen. Alderik nagusiena ardogintzan izan zen; Estatuan % 16 garestitu zen eta, Nafarroan, % 28,4.

Prezioen bilakaera nahiko antzekoa izatea normala da, prezioak monitorizatzen diren merkatu batzuei eta besteei eragiten dieten joerak, neurri handi batean, globalak eta komunak direlako, tokiko faktore puntualak alde batera utzita. Orokorrean, Nafarroako kategorien balio ekonomikoaren egitura Espainiakoen nahiko antzekoa da, aurreko urteetako datuak kontuan hartuta. Esan bezala, 2021eko datuak denbora-tarte luze baten ondoren eskainiko dira. Estatuarekin alderatuta, Nafarroan pisu apur bat handiagoa du abeltzaintzak, nekazaritzak baino.

Eta, abeltzaintzaren barruan, Nafarroan garrantzi handixeagoa du esneak, eta txikiagoa txerrikiak. Dena den, alderik handienak landare-ekoizpenaren egituran ikus daitezke; Espainian pisu erlatibo askoz ere handiagoa du frutak, eta txikiagoa zerealek eta bazkek. Gainera, Nafarroan badago oliba-ekoizpena, baina Espainian baino askoz ere neurri txikiagoan.

**Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza**

Nafarroako nekazaritzako elikagaien sektoreari dagokionez, azken urteetan etengabe hazten ari ziren esportazioak, batez ere, landareenak, baina prozesatu industrialena ere bai; eta, neurri txikiagoan, animalia-produktuena. Joera horrek jarraitu egin zuen 2021ean, elikagaien industriaren atalean izan ezik –bolumen ekonomikoari dagokionez, Nafarroako hiru atalen artean gehien esportatzen duena–; atal horretan behera egin zuten esportazioek.

Inportazioen kasuan, azken ekitaldietan eta, bereziki, 2020an, eten egin zen goranzko joera orokorra. 2021ean berriro ere behera egin zuen, animalia-ekoizpenaren kasuan izan ezik. Eremu honetan, industriaren eta landareen azpisektorean inportazioek askoz baxuagoak izaten jarraitu zuten esportazioek baino –hortaz, superabita zuen balantzak–. Abeltzaintzaren azpisektorean, berriz, azken hiru urte hauetan bakarrik lortu dute saldo positiboa izatea.

Dena den, Nafarroan, hiru azpisektoreen joera orokorra ez zen asko apurtu. Merkataritza-bolumenak hazi egin ziren, esportazioak azkarrago hazi ziren eta balantza hobetu egin zen, beherakada zehatz eta puntual batzuk izan arren. Nekazaritzako elikagaien sektoreak kanpo-merkataritzan zuen pisua askoz ere handiagoa izan zen sektore horrek ekonomiaren guztizkoaren gainean zuen bolumen ekonomikoaren pisua baino.

**160. koadroa Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. Euskal Herria**

*(M euro)*

| Muga-zerga atala | Eremua | Esportazioak 2020 | Esportazioak 2021 | Inportazioak 2020 | Inportazioak 2021 |
|---|---|---|---|---|---|
| Animalia biziak eta animalia-erreinuko produktuak | EAE | 227,2 | 241,7 | 372,0 | 410,7 |
| | Nafarroa | 203,8 | 251,9 | 141,4 | 166,7 |
| | Euskal Herria | 431,0 | 493,6 | 513,4 | 577,4 |
| Landare-erreinuko produktuak, gantzak eta olioak | EAE | 257,9 | 412,1 | 609,5 | 946,9 |
| | Nafarroa | 520,7 | 557,0 | 260,5 | 197,9 |
| | Euskal Herria | 778,6 | 969,1 | 870,0 | 1.114,8 |
| Elikagaien industrietako produktuak | EAE | 644,2 | 835,5 | 317,9 | 463,0 |
| | Nafarroa | 631,3 | 583,6 | 226,4 | 221,4 |
| | Euskal Herria | 1.275,5 | 1.419,1 | 544,3 | 684,4 |
| Nekazaritzako elikagaien sektorea | EAE | 1.129,2 | 1.489,4 | 1.299,4 | 1.820,7 |
| | Nafarroa | 1.355,8 | 1.392,5 | 628,3 | 586,0 |
| | Euskal Herria | 2.485,0 | 2.881,9 | 1.927,7 | 2.406,7 |
| Nekazaritzako elikagaien sektoreak esportazio-inportazioen guztizkoan duen partaidetzaren % | EAE | 5,4 | 7,1 | 8,3 | 11,6 |
| | Nafarroa | 15,4 | 14,7 | 13,6 | 10,3 |
| | Euskal Herria | 8,4 | 9,5 | 9,5 | 11,3 |

*Iturria: Eustat eta Nafarroako Estatistika Institutua, Aduanen Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.*

EAEren kasuan, nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritzaren egoera oso ezberdina da, eta 2021ean areagotu egin zen hori. Izan ere, Nafarroan behera egin zuten bitartean, EAEn gorakada oso handia izan zuten elikagaien industriaren esportazioek, aurreko urteetan Nafarroan baino goranzko joera apalagoa izan ondoren. Igoera hori landareen adarrari batu zitzaion, horiek antzeko bilakaera izan baitzuten azken 3 ekitaldietan. Aldi berean, inportazioek ere gora egin zuten bi adarretan (Nafarroan, berriz, behera egin zuten). Dena den, landareen adarra indar handiagoz hazi zen industria-elikagaien adarra baino; izan ere, landareen balantza, berez, inportatzaileagoa da. Inportazioen atalean ere, 2021eko fenomenoa berria izan zen industria-elikagaien adarrarentzat; landareen kasuan, berriz, aurrekariak izan ziren aurreko urteetan.

Hori guztia dela eta, defizita areagotu egin zen landareen adarrean eta, ondorioz, EAEren balantzan, aintzat hartutako 3 sektoreen batura baita. Dena den, beherakada hori apaldu egin zen, industria-elikagaien adarrean esportazioak gehiago hazi zirelako inportazioak baino; ondorioz, azkartu egin zen azpisektorearen superabit-joera. Animalia-adarrak askoz ere aldakuntza txikiagoa izan zuen, eta salerosketa-bolumen txikiagoa, Nafarroan bezala. Baina, Nafarroan ez bezala, EAEn defizit eremuan mantendu zen, merkataritza - balantzari dagokionez.

Gauzak hala, bi erkidegoek oso bilakaera ezberdina izan zuten. Hortaz, biak batera kontuan hartuta, balantza orokorrak okerrera egin zuen (aurretik, goranzko joera zuen superabitak). Landare-adarraren defizita areagotu egin zen, industria-elikagaien goranzko superabita gutxiago hazi zen urte horretan, eta abeltzaintza-adarra defizit eremuan mantendu zen.

## Biztanleria okupatua

Azkenik, lehen sektorearen errealitate orokorrera hurbiltzeko beste modu bat enplegu-datuei erreparatzea da. Kasu honetan hiruhileko datuak aztertuko ditugu, Estatukoak eta lurraldeetakoak, Biztanleria Aktiboaren Inkestak ematen dituenak. Atxikitako taulan urte bakoitzeko bigarren hiruhilekoko datuak bakarrik ageri dira, Foru Erkidegokoak, EAEko Lurralde Historikoetakoak eta Estatu osokoak.

BAIk emandako Espainiako eta Nafarroako datuak guztiz bat datoz azken urteetako joerarekin. Ikusten den joera orokorra indartsua eta egonkorra da, nahiz eta nekazaritzako eta abeltzaintzako lan asko teknifikatu diren. Dena den, azken bi hamarkadetako datuei begiratuta, Nafarroako joera orokorra beheranzkoa dela ikus daiteke, baina ez oso azkarra. Espainian, berriz, bilakaera askoz ere lauagoa edo egonkorragoa da, bereziki, 2008ko krisialdiaren baitan izan zen beherakadaz geroztik. Sektorean pisu handia dute aldi baterako enpleguek, eta horrek eragiten du erresistentzia hori, baita ikus daitezkeen gorabehera nabarmenak ere.

Badira urte osoan eta epe luzean nekazaritzako jardueretan lan egiten duten langileak, baina beste asko kanpaina zehatzetarako kontratatzen dituzte, esaterako, mahastietako uzta-garairako. Gainera, gaur egun, langile asko prest daude haien diru -sarrerak lan mota hauekin osatzeko, lan finkorik ez badute. Gaur egun ohikoagoa da hori, lehen baino; izan ere, gaur egun jende gehiagok du aldi baterako mugitzeko gaitasuna.

**161. koadroa Enplegua lehen sektorean***

*(m pertsona)*

| Urtea | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE | Nafarroa | Euskal Herria | Espainia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2012 | 2,2 | 7,7 | 2,2 | 12,1 | 8,6 | 20,7 | 722,3 |
| 2013 | 4,6 | 7,6 | 3,2 | 15,4 | 15,5 | 30,9 | 753,1 |
| 2014 | 3,0 | 6,2 | 4,4 | 13,6 | 13,4 | 27,0 | 739,3 |
| 2015 | 1,8 | 6,2 | 2,5 | 10,5 | 9,4 | 19,9 | 740,4 |
| 2016 | 3,7 | 5,4 | 1,9 | 11,0 | 9,8 | 20,8 | 760,2 |
| 2017 | 3,8 | 7,7 | 3,8 | 15,3 | 10,1 | 25,4 | 832,6 |
| 2018 | 3,2 | 2,9 | 2,8 | 8,9 | 14,2 | 23,1 | 822,5 |
| 2019 | 3,4 | 4,2 | 3,4 | 11,0 | 12,5 | 23,5 | 809,3 |
| 2020 | 3,6 | 2,2 | 2,6 | 8,4 | 9,6 | 18,0 | 763,4 |
| 2021 | 1,3 | 6,7 | 1,4 | 9,2 | 9,4 | 18,6 | 811,1 |

*(*): Urte bakoitzeko ekaineko datuak eskaini ditugu, sektoreko enpleguaren urtarokako bilakaera aztertzeko adierazgarriagoak direla uste dugulako.*

*Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta. EIN.*

**33. grafikoa Enpleguaren bilakaera lehen sektorean***

*(m pertsona)*




*(*): Urte bakoitzeko ekaineko datuak eskaini ditugu, sektoreko enpleguaren urtarokako bilakaera aztertzeko adierazgarriagoak direla uste dugulako.*
*Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta.*

Kontratu mota horien pisuak ekainaren amaiera (erreferentzia gisa hartzen den epea) baino lehen edo ondoren izan dezake eragina, eta urtetik urtera ere asko alda daiteke. Izan ere, uztaldi horiek urteko hilabete batzuetan edo besteetan egon daitezke zentratuta, laborearen bilakaera biologikoa atzeratu egin daitekeelako, edo ez, hainbat faktoreren arabera, esaterako, faktore meteorologikoen arabera. Gainera, uztaldiek gehiago edo gutxiago iraun dezakete eskuratutako produktu kopuruaren arabera, edo beste faktore batzuen arabera. Adibidez, pandemiaren harira, labore batzuen kasuan bilketa-prozesua luzatzen saiatu ziren, lan horiek egiten zituzten pertsonak denboran zehar gehiago banatu ahal izateko.

EAEren kasuan, 2021eko zifrek beheranzko joera eten zuten Bizkaian; Gipuzkoan eta Araban, berriz, areagotu egin zen beheranzko bilakaera. Laginaren tamainarekin lotutako kontuek izan dezakete eragina horretan. Izan ere, printzipioz, familiei egiten zaien BAI inkestak ez du kontuan hartzen kontratazioen esleipen geografikoa aldatu egin daitekeela, kontratazioetan bitartekari-lanak egiten dituen erakundearen egoitzaren arabera. Bizkaiko eta EAEko beste lurralde batzuen arteko aldeak handitu izanaren ondorioz, aztertu egin beharko dira 2022ko ondoz ondoko datuak, fenomeno hori interpretatu ahal izateko

## 2. NEKAZARITZA-AZPISEKTOREA

Nekazaritzak sektore indartsua izaten jarraitzen du EAEn zein Nafarroako Foru erkidegoan, batez ere, askotariko ekoizpen-gamak duen tradizio handiagatik. Esaterako, eremu horretako gastronomiak balio berritua eta altua eskuratu du azken urteetan, turismoaren gorakadaren baitan. Era berean, honako joerek ere laguntzen dute sektoreak balorazio altua izan dezan, bai herritarren aldetik, bai administrazioen aldetik: bizimodu osasungarriaren nozioa, paisaiako elementurik errotuenak mantentzea, gertuko elikagaien merkataritzaren zentzu ekologikoa eta beste batzuk.

Dena den, Euskal Herriko nekazaritza ere presio konplexuen menpe dago, abeltzaintzaren kasuan baino neurri txikiagoan izan arren. Honako erronka hauek ditu aurrean: belaunaldi-erreleboa, etengabeko egokitzapen eta hobekuntza teknologikoak egiteko eskakizuna eta, gero eta neurri handiagoan, aldaketa klimatikoaren ondoriozko aldaketa meteorologikoak; horiek ziurgabetasun maila handia eragiten dute. Lehorteek, beroak, ekaitzek, urtaroko fenomenoen dislokazioak (gero eta beharrezkoagoa) eta gaixotasun eta izurrien portaera berriek, sarri, plangintza hausten dute edo labore zehatz batzuen ekoizpena murrizten dute. Eta beti ez da posible izaten eskaintzaren murrizketa prezioen igoerarekin konpentsatzea; izan ere, produktuak inportatzeko mehatxupean daude, edo aipatutako faktore horien ondorioz kalitatea ere murriztu egiten da.

2020an pandemiaren inpaktua jaso zuen sektoreak, beste sektore guztiek bezala. 2021ean ere eragin zioten pandemiaren gorabeherek, baina neurri txikiagoan, eta ez ekonomiako beste sektore batzuei bezainbeste. Izan ere, nekazaritzako ekoizpenak premiazkoak dira eta, kasu batzuetan, salmentak areagotu egin ziren, etxean gehiago kontsumitzen zelako. Nabarmentzekoa da sektoreak zirkunstantzia horien guztien aurrean izandako erresilientzia, baita produktuen barietate zabalaren bizirauteko gaitasuna eta egokitzeko aparteko gaitasuna ere; zientziak eta teknologiak ere gero eta paper handiagoa dute sektorean. Eremuen arabera, isurialde mediterraneoak, Arabako eta Nafarroako zatirik handiena hartzen duenak, indar berezia erakutsi zuela esan daiteke. Eremu horretan ustiapenak handiagoak dira, eta handienak gero eta teknifikatuago daude.

2021ean, nabarmentzekoa da energiaren prezioek izandako inpaktua, are 2022an iritsi den krisi geopolitiko berria gertatu aurretik ere. Urteko albisterik nagusiena prezioen gorakada handia izan zen, batez ere, zerealena, eta beste ekoizpen batzuena ere bai. Tona kopuruari dagokionez, landare-produktu batzuen goranzko joera indartu egin zen; EAEn, aitzitik, landareek behera egin zuten tona kopuruari eta balioari dagokienez. Labore zurkaren kasuan, emaitzak hobetu egin ziren izurriteek kaltetutako urtearen ondoren (EAEko mahastien kasuan) eta fruta nagusiek hainbat urtez behera egin ondoren (fruta-arbolen kasuan). EAEn, eskura ditugu prezioen estimazioak, eurotan, kategorien arabera. Bereziki nabarmentzen dira honakoen diru-sarreren urte arteko hazkundeak, dagoeneko aipatu ditugun arrazoiengatik: zerealak (+% 33,7), fruta (+% 27,5) eta mahastia (% 40,4). Nekazaritza-azpisektore osoan, hazkundea % 16,9koa izan zen.

## 2.1. EKOIZPENAK, AZALERAK ETA ERRENDIMENDUAK

Kopuruari dagokionez, EAEn % 5,5 hazi zen ekoizpena. Zerealak -% 4,6 murriztu ziren, barazkiak -% 8,1 eta erremolatxa -% 7,3. Beste industria-labore batzuek, berriz, gora egin zuten, hala nola koltzak edo ekiloreak (% 20,5), lekaledunek (% 22,2) edo patatak (% 8,7). Era berean, frutak % 32,5 areagotu ziren (bereziki, sagardotarako sagarrak) eta, mahastia, % 26,8. Nafarroan, ekoizpen nagusiak kategorien arabera multzokatzen dituzten datuei erreparatuta, kasu batzuetan antzeko bilakaerak ikus daitezke: tona kopuru orokorra -% 4,7 jaitsi zen, baina zerealek antzeko beherakada izan zuten (-% 5,5). Lekaledunek (% 14,4) eta tuberkuluek (% 20,6) izandako hazkundeak ere antzekoak izan ziren. Aitzitik, industria-laboreek ez zuten gora egin, eta -% 14,7 murriztu ziren; barazkiek gora egin zuten, baina pisuari dagokionez gutxiago (% 1,5), guztiko balioaren etengabeko hazkunde ekonomikoarekin alderatuta; fruta-arbolak EAEn baino askoz ere gutxiago hazi ziren (% 8,2); eta, mahastiek, aurrera egin beharrean, atzera egin zuten (-% 13,2).

**162. koadroa** **Euskal Herriko nekazaritza-ekoizpen adierazgarrienak***

*(m Tm)*

| Produktua | 2020 | 2021 | % ∆ 21/20 | % Euskal Herria / Espainia 2021 |
|---|---|---|---|---|
| **Zerealak** | | | | |
| – Garia | 566,2 | 561,7 | -0,8 | 6,8 |
| – Garagarra | 451,2 | 358,7 | -20,5 | 4,0 |
| – Oloa | 79,4 | 90,2 | 13,6 | 7,5 |
| – Artoa | 184,0 | 198,7 | 8,0 | 4,5 |
| **Bazka-laboreak** | | | | |
| – Artoa | 219,3 | 245,1 | 11,8 | 6,0 |
| – Alpapa | 274,5 | 216,9 | -21,0 | 2,4 |
| **Barazkiak** | | | | |
| – Zainzuria | 8,0 | 7,3 | -8,8 | 11,6 |
| – Letxuga | 19,5 | 21,0 | 7,7 | 2,0 |
| – Espinaka | 15,5 | 18,8 | 21,3 | 21,4 |
| – Tomatea | 177,7 | 186,1 | 4,7 | 3,9 |
| – Piperra | 23,8 | 34,0 | 42,7 | 2,2 |
| – Orburua | 15,2 | 12,6 | -17,1 | 5,9 |
| – Azalorea | 50,2 | 35,9 | -28,5 | 17,3 |
| – Brokolia | 71,9 | 59,8 | -16,8 | 11,1 |
| – Tipula | 26,6 | 32,5 | 22,2 | 2,3 |
| – Leka | 16,9 | 14,8 | -12,4 | 9,8 |
| – Ilar berdea | 21,9 | 29,4 | 34,2 | 23,8 |
| **Fruta-arbolak** | | | | |
| – Sagardo-sagarra | 7,0 | 13,2 | 88,6 | 14,2 |
| – Mahai-sagarra | 10,9 | 13,9 | 27,5 | 2,8 |
| – Udarea | 13,8 | 16,0 | 15,9 | 5,2 |
| – Mertxika | 8,0 | 6,3 | -21,3 | 0,9 |
| – Arbendola | 3,8 | 3,7 | -2,6 | 1,2 |
| **Ardoa eta muztioa (m Hl)** | **1.472,2** | **1.383,0** | **-6,1** | **3,5** |
| **Patata** | **63,1** | **71,4** | **13,2** | **3,3** |
| **Azukre-erremolatxa** | **125,3** | **117,6** | **-6,1** | **4,8** |

*(*): Balioespenak.*
*Iturria: Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren hileko buletina.*

Alde horiek (batzuk oso markatuak) agerian uzten dute nekazaritzak oso egitura ezberdina duela honako bi habitat hauetan: atlantikoa, EAEn; eta Ebroko mediterraneoa, Nafarroan. Bi eremu horiek oso baldintza ezberdinak dituzte nekazaritzarako.

Bi erkidegoetako emaitzak bateratzean, Nafarroako datuek markatu ohi dute joera orokorra. Izan ere, produktu gehienen kasuan, Nafarroak izaten du pisu nagusia.

Taulako datuei dagokienez, hainbat alderdi nabarmendu behar dira; batzuk, dagoeneko, aipatu ditugu. Zerealetan, 2021ean garbi ikusi zen garagarraren beheranzko joera; gainerako produktu nagusiek, aldiz, tinkoago eutsi zioten.

Bestetik, laginean jasotako bazken artean ere nabarmentzekoa da erabilera horretarako alpaparen joera beheranzkoa izan zela, eta bazka-artoak, aldiz, gora egin zuela. Orokorrean, artoa suspertzen eta areagotzen ari den produktua da, bai bazkarako erabiltzen dena, bai ogia egiteko edo arto gozo gisa kontsumitzeko erabiltzen dena.

Hemen jasotako barazkien artean, tomatea da tona kopuru handiena izan zuena. Dena den, ez zuen beste batzuek adinako hazkundea izan, 2021ean bereziki larriagotu zen izurrite baten eraginez. Aitzitik, piperra suspertu egin zen, aurreko urteetan beherakada handiak izan ondoren. Bestetik, Nafarroako baratzean presentzia handia duen beste barazki batek, brokoliak, behera egiten jarraitu zuen, eta horrek konpentsatu egin zuen gorakada handiak izan zituen aurreko zikloa. Azalorea da pisu handia duen beste barazkietako bat, eta honek goranzko joera eten zuen, bat-batean. Arto gozoaren kasuan aipatu dugun moduan, ilar berdeak ere hazkunde handia izan zuen, % 34koa; barazkien artean, piperrak baino ez zuen gainditu hazkunde hori. Tipulak azken urteetan izandako goranzko joera ere nabarmentzekoa da.

Fruta-arbolen artean, aurreratu dugun moduan, ia % 90 hazi zen sagardotarako sagarraren ekoizpena. Hazkunde horren zatirik handiena EAEri dagokio, baina Nafarroari ere bai, neurri batean. Honek lotura du bi urtez behingo efektuarekin. Kanpaina batean emaitza eskasak izaten dira kopuruari dagokionez, eta hurrengo urtean uzta handia izaten da. Azken urteetan, gure eremuan, beste labore batzuen kasuan ere hauteman da efektu hori, hala nola olibadien kasuan. Mahaiko sagarra eta udarea hobetu egin ziren bi erkidegoetan, baina mertxikak behera egiten jarraitu zuen, aurreko ekitaldietan bezala.

Ardoaren agregatuaren kasuan, emaitza garbia negatiboa da, Nafarroako Erriberak pisua handiagoa duelako Arabar Errioxak (EAEko ekoizpen eremu nagusia) baino, kopuruari dagokionez. Lehen eremu horretan atzerakada handia izan zen, baina azpisektore honetan gertatu ohi denaren barruan, eta epe luzeko bilakaeran ohikoa den gorabeheren tartetik irten gabe. Arabako mahastiek gora egin zuten, neurri handi batean, onddo batek eragindako izurritea gainditu zutelako.

Patata kantitatea apur bat hazi zen bi lurraldeetan. Azukre-erremolatxak, berriz, neurri oso ezberdineko jaitsierak izan zituen batean eta bestean, eta bi eremuen agregatuak behera egin zuen. Kasu honetan ere, Nafarroak pisu handiagoa du.

Era berean, Estatuko ekoizpenaren testuinguruan gure erkidegoek garrantzia zer produktutan eskuratzen duten ikusteko aukera ematen digute datuek. Ikus daitekeenez, hainbat barazkik bi digituko kuotak eskuratu zituzten (ilarra, espinaka, azalorea, zainzuria eta brokolia), baita sagardotarako sagarrak ere, fruten atalean.

**163. koadroa Euskal Herriko produktu esanguratsuenekin landatutako azalera***

*(ha)*

| Produktua | 2020 | 2021 | % ∆ 21/20 | % Euskal Herria / Espainia 2021 |
|---|---|---|---|---|
| **Zerealak** | | | | |
| – Garia | 97.804 | 108.880 | 11,3 | 5,2 |
| – Garagarra | 94.898 | 84.039 | -11,4 | 3,3 |
| – Oloa | 16.397 | 18.531 | 13,0 | 3,7 |
| – Artoa | 16.183 | 16.828 | 4,0 | 4,7 |
| **Bazka-laboreak** | | | | |
| – Bazka-artoa | 5.597 | 5.548 | -0,9 | 5,0 |
| – Alpapa | 6.518 | 5.547 | -14,9 | 2,4 |
| **Barazkiak** | | | | |
| – Zainzuria | 2.020 | 1.840 | -8,9 | 13,3 |
| – Letxuga | 804 | 898 | 11,7 | 2,7 |
| – Espinaka | 812 | 881 | 8,5 | 18,4 |
| – Tomatea | 2.406 | 2.580 | 7,2 | 4,6 |
| – Piperra | 1.036 | 1.079 | 4,2 | 4,5 |
| – Orburua | 1.279 | 939 | -26,6 | 6,2 |
| – Azalorea | 2.086 | 1.792 | -14,1 | 20,4 |
| – Brokolia | 4.895 | 5.295 | 8,2 | 15,1 |
| – Tipula | 442 | 458 | 3,6 | 1,7 |
| – Leka | 1.279 | 1.371 | 7,2 | 16,7 |
| – Ilar berdea | 2.839 | 3.551 | 25,1 | 21,2 |
| **Patata** | **1.943** | **1.976** | **1,7** | **2,9** |
| **Azukre-erremolatxa** | **1.310** | **1.133** | **-13,5** | **4,3** |

*(*): Balioespenak.*
*Oharra: Ez ditugu sartu mahastizaintzaren eta fruta-arbolen azalerei buruzko datuak, horien argitalpenaren nahitaezko maiztasun mugatuagatik (bost urtetik behin).*
*Iturria: Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren hileko buletina.*

Orokorrean, azaleraren adierazleek ere aukera ematen dute zirkunstantzia horiek hautemateko, produktuz produktu, kasu batzuetan izan ezik; esaterako, brokoliaren kasuan, hektarea gehiago hartzen jarraitu bazuen ere, urteko ekoizpena txikiagoa izan zen. Gariaren edota bazka-artoaren kasuan ere ikusten dira kontraesan horiek. 2021ean nabarmentzekoa da ilar berdearen azaleraren hazkundea areagotu egin zela, erremolatxaren azaleraren gutxitzea sendotu zela edota garagar-sailak garia ereiteko ordezkatu zituztela, normalean baino neurri handiagoan.

Aztertutako bi datuetan (azalera eta tona kopurua) oinarrituta, hektarea bakoitzeko errendimenduaren jarraipena egin daiteke, Estatuko datua barne. Ministerioaren estatistiken gainean kalkuluak eginez ateratako ratio hauek alde deigarriak erakusten dituzte kasu batzuetan, esaterako, piperraren kasuan: errendimendua askoz baxuagoa da EAEn eta Nafarroan. Gure eremuan gailentzen den piper-barietateak baldintzatzen du hori, barazki honek barietate asko baititu.

EAEko eta Nafarroako nekazaritzan, 2021ean, asko hobetu zuten errendimendua piperrak edota tipulak. Tomatearen kasuan ez zen lortu errendimendua hobetzea. Estatu mailan, berriz, jauzi positibo esanguratsua izan zuten labore gutxietako bat izan zen tomatea; seguru aski, gure inguruan barazki masibo horri eragin zion izurriteak eragin txikiagoa izan zuelako Estatuan.

Epe luzean, adierazle mota honek erakusten dituen bilakaerak egonkorrak dira, labore bakoitzaren ezaugarri biologikoek baldintzatzen baitute, neurri handi batean. Dena den, arreta pizten dute, esaterako, erremolatxaren errendimenduaren gorabehera handiek edota tipularen errendimenduaren hazkundeak, bereziki, EAEn eta Nafarroan; edo zainzuriaren datuaren goranzko joera jarraituak, Estatu mailan.

**164. koadroa Nekazaritza-produktu esanguratsuenek lortutako errendimenduak***

*(Tm/ha)*

| Produktua | Euskal Herria | | Espainia | |
|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| **Zerealak** | | | | |
| – Garia | 5,8 | 5,2 | 4,2 | 3,9 |
| – Garagarra | 4,8 | 4,3 | 4,0 | 3,6 |
| – Oloa | 4,8 | 4,9 | 2,5 | 2,4 |
| – Artoa | 11,4 | 11,8 | 11,9 | 12,3 |
| **Bazka-laboreak** | | | | |
| – Bazka-artoa | 39,2 | 44,2 | 36,9 | 37,0 |
| – Alpapa | 42,1 | 39,1 | 38,4 | 38,7 |
| **Barazkiak** | | | | |
| – Zainzuria | 4,0 | 4,0 | 4,7 | 4,5 |
| – Letxuga | 24,3 | 23,4 | 28,9 | 31,9 |
| – Espinaka | 19,0 | 21,4 | 16,2 | 18,3 |
| – Tomatea | 73,9 | 72,1 | 74,8 | 85,0 |
| – Piperra | 23,0 | 31,5 | 66,3 | 66,0 |
| – Orburua | 11,9 | 13,4 | 13,4 | 14,1 |
| – Azalorea | 24,1 | 20,1 | 24,2 | 23,7 |
| – Brokolia | 14,7 | 11,3 | 20,9 | 15,4 |
| – Tipula | 60,1 | 71,0 | 51,6 | 52,7 |
| – Leka | 13,2 | 10,8 | 19,9 | 18,3 |
| – Ilar berdea | 7,7 | 8,3 | 7,4 | 7,4 |
| **Patata** | **32,5** | **36,2** | **31,9** | **31,9** |
| **Azukre-erremolatxa** | **95,7** | **103,8** | **94,4** | **91,6** |

*(*): Balioespenak.*
*Iturria: Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren hileko buletina.*

## 2.2. NEKAZARITZAKO PREZIOAK

Prezioa aldagai gakoa da nekazaritzaren bilakaeran, eta produktu bakoitzaren elastikotasuna oso ezberdina da. Hau da, produktu guztiek ez dute gaitasun bera kostuen igoera posibleak preziora pasatu eta kontsumitzaileak hori onartu eta ordain dezan. Honako taula honetan ekoizpen-ustiapenek eskuratutako prezioak ageri dira kasu guztietan, eta ez azken kontsumitzaileri bideratutako salmenta-prezioak. Aztertutako eremuen artean, lagin honek jasotzen dituen produktuak Nafarroak monitorizatzen ditu xehetasun maila handienaz. Estatuaren edo EAEren kasuan, prezioen adierazleak multzokatuago daude, kategorien arabera edo lehen sektoreko azpisektoreen arabera. Hori dela eta, Nafarroako merkatuetan eskuratutako prezioak erabiliko ditugu erreferentzia gisa.

2021ean, energiaren prezioek gora egin zutenez, ekonomiaren joera orokorra inflazionista izan zen, eta horrek nekazaritzari ere eragin zion. Hala, areagotu egin ziren honako kostu hauek: garraioa, uzta jasotzeko makinen funtzionamendua, laboreei gehitzen zaizkien gehigarri industrialak (esaterako, ongarriak edo pestizidak, beste batzuen artean), ureztatzeko erabiltzen den energia edota ekoizpen batzuen (hala nola, negutegietakoak) egokitzapen termikoa.

Hala, ez da harritzekoa hemen aukeratutako produktuen artean urte arteko aldakuntza negatibo bakarrak hauenak izatea: tomatea, piperra, brokolia, lekak, sagarra, udarea, eta sasoi erdiko patata; horietako batek ere ez zuen bi digituko aldakuntzarik izan.

Lehen ikusi dugunarekin ere bat dator, hau da, orburuaren edo azalorearen prezioak igo izanarekin; horien eskaintza kuantitatiboa murriztu egin zen 2021ean. Fruta-arbolen arloan hainbat urtetan gertatu da hori mertxikarekin; produktu hori ongi baloratuta dago, baina EAEn eta Nafarroan gero eta gutxiago ekoizten da, ziur asko, konpetentzia handia dagoelako beste eskualde batzuekin.

Baina garestitze deigarrienak ardo beltzarena eta zerealena izan ziren; kategoria horiek inpaktu handia dute EAEko eta Nafarroako nekazaritza-azpisektorean, ekoizpen handia dutelako. Ohiko neurri eta maiztasuneko aldakuntzak dira, bereziki, produktu horien kasuan. Baina, zerealen kasuan, goranzko joera epe luzeagokoa dela dirudi, eta nazioarte mailakoa; gainera, ondorio ekonomikoa du, eta elikagaien industriaren bidez igarotzen da ekonomiara.



LABORAL
kutxa

Prezio horiei epe luzeko ikuspegiarekin begiratuta, deigarria da hainbat ekitalditan zehar produktu batzuek (hala nola tomateak, lekak edo ilarrak) izandako balorazio baxuaren jarraikortasuna, eta beste produktu batzuek (hala nola letxugak) egindako jauzia.

**165. koadroa Nekazaritza-produktu esanguratsuenen prezioak(*)**

| Produktua | Nekazariek jasotako prezioak (euro/100 kg) | | |
|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | % ∆ 21/20 |
| **Zerealak** | | | |
| – Garia | 18,90 | 24,09 | 27,5 |
| – Garagarra | 16,69 | 23,01 | 37,9 |
| – Oloa | 15,77 | 20,81 | 32,0 |
| – Artoa | 19,21 | 25,17 | 31,0 |
| **Bazka-laboreak** | | | |
| – Alpapa | 12,24 | 12,76 | 4,2 |
| **Barazkiak** | | | |
| – Aza (burua) | 25,65 | 28,15 | 9,7 |
| – Zainzuria | 224,95 | 231,91 | 3,1 |
| – Letxuga | 60,46 | 69,16 | 14,4 |
| – Espinaka | 58,91 | 63,33 | 7,5 |
| – Tomatea | 12,73 | 12,26 | -3,7 |
| – Piperra | 80,57 | 76,34 | -5,3 |
| – Orburua | 67,40 | 80,20 | 19,0 |
| – Azalorea | 40,75 | 46,00 | 12,9 |
| – Brokolia | 60,60 | 55,70 | -8,1 |
| – Tipula | 15,40 | 15,52 | 0,8 |
| – Leka | 42,61 | 39,47 | -7,4 |
| – Ilar berdea | 25,49 | 25,65 | 0,6 |
| **Fruta-arbolak** | | | |
| – Sagarra | 56,71 | 52,86 | -6,8 |
| – Udarea | 66,42 | 66,26 | -0,2 |
| – Mertxika | 67,00 | 84,12 | 25,6 |
| – Arbendola | 86,25 | 106,27 | 23,2 |
| **Ardoa (euro/Hl)** | | | |
| – Ardo zuri berria | 77,61 | 87,60 | 12,9 |
| – Ardo beltz berria | 51,64 | 75,83 | 46,8 |
| **Patata (sasoi erdikoa)** | **35,40** | **34,58** | **-2,3** |
| **Patata (berantiarra)** | **27,38** | **31,15** | **13,8** |

*(*): Balioespenak.*

*Iturria: Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko, Toki Administrazioko eta Ingurumeneko Departamentua.*

## 3. ABELTZAINTZA-AZPISEKTOREA

Euskal Herriko abeltzaintza-azpisektorean mantendu egin ziren joerak eta elikagaien industrian irteera argiagoa duten produktu batzuk indartu egin ziren. Beste produktu minoritario batzuek behera egin zuten edo zailtasunak izan zituzten. Dena den, 2021eko lurralde mailako adierazle batzuetan ikus daitezke eraginak –eta albiste berri eta positiboak–. Esaterako, esnearen prezioak ezohiko igoera izan zuen; funtsezko eta oinarrizko produktua den arren, denbora askoan geldi egon dira prezioak. Momentuz, hemen aztertu ditugun adierazleen artean, Gipuzkoako behi-esnearen etxaldeen laginean bakarrik ikus daiteke hazkunde hori.

Zerealen prezioen eragina ere areagotu egin zen, horietatik eratortzen baita ganaduarentzako elikagaien zati handi bat. Azken horren ondorioz, duela zenbait urtetatik arrisku larrian dago haragi-negozioaren jarraitutasuna behi- eta ardi -ustiapenetan. Pandemiaren ondorioek baino eragin handiagoa izan du sektorean energiaren garestitzeak, 2021eko zati handi batean gertatu denak, 2022ko espero gabeko krisialdi berria lehertu aurretik.

Nafarroako abeltzaintza-sektorean, 2021ean, nabarmendu beharreko bi berritasun izan ziren. Batetik, behi-haragiarekin lotutako hilketa berri asko gehitu ziren estatistikara. Bestetik, txerri-abelburuen zenbatekoa bat-batean hazi zen. Etxalde berriak ireki edo atxiki ziren lurraldean, eta baliteke igoera horiek honekin lotura izatea. Lehenengo kasuan, hazkundea ez zen bat-batekoa izan; aurreko urtean hautemandako igoera baten jarraipen naturala izan zen. Dena den, 2021eko hazkundea askoz ere nabarmenagoa izan zen.

Testuinguruan kokatzeko, Estatuko abeltzaintzaren egoeraren gaineko datuak nabarmendu behar dira: zenbatekoei dagokienez, animalia-ekoizpena % 1,6 hazi zen; haragiaren eta abereen multzoak % 2,4 egin zuen gora, eta gainerako produktuak -% 1 jaitsi ziren. Behi-haragiaren tona kopurua % 5,3 hazi zen, txerrikia % 3,4 eta ardikia eta ahuntz-haragia % 4,6. Aldiz, hauek behera egin zuten: hegaztiak -% 4,2, zaldi-haragia -% 11,9 eta beste haragi batzuk, untxia barne, -% 7,8. Esnearen kasuan, ohikoa den moduan, kopurua oso gutxi aldatu zen (+% 0,6), eta oilo-arrautzek -% 6,4 egin zuten behera. Erabilitako pentsu-kantitatea % 1,6 hazi zen.

Urte arteko aldakuntzak honako hauek ziren: % 3,7 (animalia-ekoizpena), % 3,8 (haragia eta abereak), -% 3,5 (gainerako produktuak), % 10,6 (behi-haragia), -% 1,1 (txerrikia), % 16,3 (ardikia eta ahuntz-haragia), % 0,7 (hegaztiak), -% 10,3 (zaldi-haragia), -% 3,5 (beste haragi batzuk), % 5 (esnea), -% 3,2 (arrautzak) eta % 5,6 (haragia ez diren beste batzuk). Albaitaritza-gastuak % 2,7 igo ziren eta, pentsuak, % 14,3 –aurrez aipatutako eragina islatzen du horrek–.

Estatuan, animalia-ekoizpenaren prezioen urte arteko aldakuntza orokorra % 2koa izan zen, honela banatuta: % 1,4 haragia eta abereak, eta % 4,2 gainerako ekoizpenak. Kasu honetan bai, badirudi horietako batzuetan eragina izaten ari dela kostuen igoera azkar eta orokortua. Behi-haragiaren prezioa % 5 hazi zen eta txerrikiarena -% 2,2 jaitsi. Gainerako produktuak garestitu egin ziren. Gora egin zuten zaldi-haragiak (% 1,8), ardikiak eta ahuntz-haragiak (% 11,2), hegaztiek (% 5,1), beste haragi batzuek –untxia barne– (% 4,6), esneak (% 4,3), arrautzek (% 3,4) eta haragia ez diren beste produktu batzuek (% 5,6).

Epe luzean, Estatuan, txerrikia da balioa azkarren irabazten ari den produktua. Behi-haragiak eta hegazti-haragiak goranzko joera dute, baina ekonomiaren garestitze orokorraren atzetik doa horien garestitzea. Badirudi ardia eta ahuntz-haragia suspertzen ari direla pixkanaka. Bestetik, esneak gora egin du ondoz ondoko hainbat ekitalditan.

Nafarroan urte arteko aldakuntzak izan ziren nekazariek jasotako prezioetan, eta merkatuek zuzenean jaso zituzten aldakuntza horiek: +% 3 txahala, -% 6,1 behia, +% 21,5 arkumea, +% 17,4 antxumea, -% 5,8 txerri gizendua, +% 14,9 baserriko oilaskoa, +% 1,9 untxia, +% 1,4 behi-esnea, +% 1,7 ardi-esnea eta +% 4,5 arrautzak.

EAEko urte arteko aldakuntzek beste sailkapen bat izan zuten kopuruari, prezioari eta balioari dagokienez. Prezioetatik hasita, abeltzaintza-sektorea, oro har, % 3,3 garestitu zela kalkulatzen da. Behi-haragia -% 0,3 jaitsi zen, ardikia eta ahuntz-haragia +% 7,2, txerrikia -% 5,6, behi-esnea +% 3,4, arrautzak +% 6,4, ardi-esnea +% 1 eta beste abere -produktu batzuk +% 11,6. Nekazaritza- eta abeltzaintza-sektore osoko bitarteko kontsumoen prezioak +% 10,6 igo ziren.

Kopuruen kasuan, aldakuntzak honakoak izan ziren: % 5,5 erkidegoko abeltzaintza orokorrean, -% 4 behi-haragian, +% 3,4 ardikian eta ahuntz-haragian, % 4,8 txerrikian, -%1,6 behi-esnean, +% 9,1 arrautzetan, -% 3 ardi-esnean eta +% 0,2 beste abere -produktu batzuetan. Kontsumoen bolumena 0,1 hazi zen.

Azkenik, balio ekonomikoari dagokionez, abeltzaintza-sektorean, oro har, % 2,9ko hazkundea izan zen. Behi-haragia -% 4,2 jaitsi zen, ardikia eta ahuntz-haragia +% 3,6, txerrikia -% 1,1, behi-esnea +% 1,8, arrautzak +% 16, ardi-esnea -% 2 eta beste abere -produktu batzuk +% 11,9.

2021ari dagokionez eskuragarri dagoen beste adierazle bat animalia-ekoizpenaren kanpo-merkataritzarena da: Nafarroan % 23,6 hazi ziren esportazioak eta % 17,9 inportazioak; EAEn esportazioek +% 6,4ko hazkundea izan zuten, eta inportazioek +% 10,4koa. Biak batera aintzat hartuta, Euskal Herri gisa, esportazioak +% 14,5 areagotu ziren, eta inportazioak +% 12,5.

## 3.1. ABELTZAINTZA-ERROLDA

Abeltzaintza-erroldari dagokionez, aurrez aipatu dugun moduan, 2021ean Nafarroan % 20,9 hazi zen 4 azienda nagusienen artean ugariena, hau da, txerri-azienda. Hamarkadaren erdialdetik goranzko joera zuen, baina gorabeherekin. Orain bi gehieneko historiko kateatu dira, eta datuak eskuragarri dauden aldiko igoerarik handiena gertatu da. Ezberdintasuna agerikoa da espezie horren eta ardi-aziendaren artean; azken horiek askoz ere gehiago ziren antzina, baina etengabe behera egiten ari dira aztertutako tarte osoan. Ardi-aziendaren murrizketa askoz ere motelagoa eta linealagoa izan da (2021ean -% 1,6) txerrikiaren goranzko joera aldakorra baino. Bi azienda horien kasuan ez bezala, behi-aziendaren zenbatekoa ia guztiz egonkor mantendu zen (2021ean -% 0,1). Ahuntz-aziendaren magnitudea, berriz, askoz ere txikiagoa da, baina 2021ean espezie horrek izan zuen hazkunderik nabarmenena: % 11,9.

EAEko aldakuntzak askoz ere txikiagoak izan ziren 2021ean: -% 1,9 behi-aziendan, -% 1,6 ardi-aziendan, +% 2,1 ahuntz-aziendan eta +% 2,5 txerri-aziendan. Hala, bi erkidegoen datu bateratuak honakoak lirateke: -% 1 behi-aziendan, -% 1,4 ardi-aziendan, +% 5,2 ahuntz-aziendan eta +% 19,9 txerri-aziendan.

4 espezie horiek antzeko bilakaera izan zuten Estatuan (% 4,3, -% 2,3, -% 2,3 eta % 5,4, hurrenez hurren). Dena den, Estatuko lagina handiagoa denez eta erkidegoek barne hartzen dituzten habitatak eta egoerak oso anitzak direnez, gorabeherak askoz ere txikiagoak izan ziren, eta joera linealagoa izan zen, baita txerri-aziendaren gorakadan ere. Nolanahi ere, Nafarroak Estuaren gainean duen kuota ardi-aziendaren kasuan jarraitzen du nabarmenena izaten.

Lehen aipatu dugun moduan, baliteke txerri-azienda handitu izanaren arrazoia tamaina handiko hainbat etxalde gehitu izana izatea. Izan ere, urte bakar batean ia 144.000 buru gehiago zenbatu ziren. Hori ez dator bat txerri-aziendaren hilketen datuekin. Izan ere, azken bosturtekoan oso baxuak izan dira datu horiek, jardueraren zati handi bat Nafarroatik irten zenetik. Jarduera handieneko urteetan eskuratutako gehieneko zifren hogeiren bat ingurukoa da gaur egungo tona kopurua.

**166. koadroa** **Abeltzaintza-errolda (urte bakoitzeko azaroaren 30ean)**

*(abelburuak)*

| Eremua | Urtea | Behi-azienda | Ardi-azienda | Ahuntz-azienda | Txerri-azienda |
|---|---|---|---|---|---|
| EAE | 2016 | 136.510 | 253.660 | 28.732 | 32.348 |
| | 2017 | 137.339 | 239.265 | 27.438 | 34.895 |
| | 2018 | 134.611 | 229.795 | 26.695 | 35.773 |
| | 2019 | 136.126 | 219.080 | 26.058 | 35.801 |
| | 2020 | 136.502 | 217.300 | 26.801 | 36.053 |
| | 2021 | 133.917 | 213.788 | 27.351 | 36.965 |
| Nafarroa | 2016 | 115.737 | 508.138 | 12.985 | 647.096 |
| | 2017 | 122.293 | 498.116 | 13.010 | 650.250 |
| | 2018 | 122.566 | 480.251 | 12.947 | 610.897 |
| | 2019 | 120.170 | 475.306 | 13.012 | 650.029 |
| | 2020 | 123.450 | 467.020 | 12.755 | 685.605 |
| | 2021 | 123.384 | 460.620 | 14.270 | 828.608 |
| Euskal Herria | 2016 | 252.247 | 761.798 | 41.717 | 679.444 |
| | 2017 | 259.632 | 737.381 | 40.448 | 685.145 |
| | 2018 | 257.177 | 710.046 | 39.642 | 646.670 |
| | 2019 | 256.296 | 694.386 | 39.070 | 685.830 |
| | 2020 | 259.952 | 684.320 | 39.556 | 721.658 |
| | 2021 | 257.301 | 674.408 | 41.621 | 865.573 |
| Espainia | 2016 | 6.257.057 | 15.962.892 | 3.088.035 | 29.231.595 |
| | 2017 | 6.465.747 | 15.963.106 | 3.059.731 | 29.971.357 |
| | 2018 | 6.510.592 | 15.852.525 | 2.764.790 | 30.804.102 |
| | 2019 | 6.600.333 | 15.478.615 | 2.659.112 | 31.246.043 |
| | 2020 | 6.636.428 | 15.439.218 | 2.651.041 | 32.676.652 |
| | 2021 | 6.922.951 | 15.081.347 | 2.589.761 | 34.454.090 |
| Euskal Herria/Espainia % | 2021 | % 3,7 | % 4,5 | % 1,6 | % 2,5 |

*Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.*

## 3.2. ABERE-EKOIZPENA ETA EMAITZA EKONOMIKOAK

### Esne-ekoizpena eta emaitza ekonomikoak

2021ean gehieneko berriak eskuratu zituzten Nafarroan behi-esnearen eta ardi -esnearen litro kopuruari dagokionez: 247,8 milioi litro eta 15,9 milioi litro, hurrenez hurren. Horiek antzeko bilakaera izan dute hamarkadan zehar, eta pixkanaka hazten joan dira, erritmo konstantean, hamarkadaren erdialdean izan ezik; orduan, hazkunde-erritmoak jauzi bat edo azelerazio puntual bat izan zuen. Azken bosturtekoan hazkundea motela izan da eta, ardi-esnearen kasuan, ia laua izan da 2021era arte; urte horretan % 9,2ko igoera erregistratu zen. Aitzitik, behi-esnea % 0,6 hazi zen. Ondoz ondoko laugarren urtez egin zuen gora, baina oso gutxi, kuoten bidez zorrotz kontrolatuta dagoen produktu bati dagokion moduan. Ahuntz-esnearen datua askoz ere eskasagoa izan zen (368.000 litro) eta ez zen izan eskuragarri dugun datu-segidako baliorik altuena. Dena den, 2015az geroztiko baliorik altuena izan zuen, eta % 83,7ko hazkundea.

EAEn behi-esnearen bolumenak (179,3 milioi) geldi jarraitu zuen, aurreko hamarkada osoan zehar bezala. Araban hazkunde oso txikiak izan zituen ondoz ondoko 3 urtetan, eta 2021ean behera egin zuen Bizkaian (-% 1,5) eta Gipuzkoan (-% 3). EAEko datua -% 1,5ekoa da, eta Euskal Herri osokoa -% 0,3koa.

Ardi-esnearen kasuan, 9,7 milioi litro ekoitzi ziren EAEn, erdia baino gehiago Bizkaian; Nafarroan, berriz, 15,9 milioi litro ekoitzi ziren. Dena den, azken honek distantzia eskuratu zuen; izan ere, ondoz ondoko hirugarren urtez EAEko bolumena jaitsi egin zen, aldi honetan -% 1,6 –eta 3 lurraldeetan–, eta Nafarroakoa, aldiz, % 9,2 igo zen. Lurralde guztiak aintzat hartuta, aldakuntza % 4,8koa izan zen. Hamarkada osoko balantzea behi-esnearen kasuan aipatutakoaren antzekoa izan zen. Aldiaren erdialdean ekoizpenak jauzi handia egin zuen Nafarroan, eta EAEko lurraldeetan bilakaera laua izan zen. Dena den, kasu guztietan, gaur egungo bolumena apur bat altuagoa da duela hamarkada batekoa baino, behi-esnearen kasuan ez bezala.

Ahuntz-esnearen presentzia askoz ere txikiagoa da. Kasu honetan, Nafarroan ekoizten denaren hirukoitza ekoizten da EAEn, eta erdia baino gehiago Bizkaian: EAEn 1,1 milioi litro eta Foru Erkidegoan 0,4 milioi litro. Espezie honen kasuan, Bizkaiko goranzko joera azkartu egin zen, baita Arabakoa ere. Gipuzkoan gora egin zuen, baina mugimendu askorik gabe. Eta Nafarroan, beheranzko joera izan ondoren, hazkunde handia izan zuen 2021ean.

**167. koadroa Esne-ekoizpena**

*(m litro)*

| Urtea | Eremua | Behia | Ardia | Ahuntza | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| 2019 | Araba | 50.957 | 2.931 | 162 | 54.050 |
| | Bizkaia | 58.499 | 1.696 | 506 | 60.701 |
| | Gipuzkoa | 71.458 | 5.428 | 175 | 77.060 |
| | EAE | 180.914 | 10.055 | 842 | 191.811 |
| | Nafarroa | 242.154 | 14.661 | 270 | 257.085 |
| | Euskal Herria | 423.068 | 24.716 | 1.112 | 448.896 |
| 2020 | Araba | 51.065 | 2.974 | 198 | 54.237 |
| | Bizkaia | 58.594 | 1.559 | 574 | 60.727 |
| | Gipuzkoa | 72.431 | 5.349 | 171 | 77.951 |
| | EAE | 182.090 | 9.882 | 943 | 192.916 |
| | Nafarroa | 246.329 | 14.564 | 200 | 261.093 |
| | Euskal Herria | 428.419 | 24.446 | 1.144 | 454.009 |
| 2021 | Araba | 51.391 | 2.940 | 294 | 54.625 |
| | Bizkaia | 57.702 | 1.525 | 639 | 59.865 |
| | Gipuzkoa | 70.241 | 5.258 | 200 | 75.699 |
| | EAE | 179.334 | 9.723 | 1.133 | 190.190 |
| | Nafarroa | 247.830 | 15.905 | 368 | 264.103 |
| | Euskal Herria | 427.164 | 25.628 | 1.144 | 454.293 |

*Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Sektoreen Estatistika eta Analisi Zerbitzua. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua*

Ekoitzitako esnearen erabilerari buruzko datuak ematen dira EAEn. Behi-esnearen eta ardi-esnearen beherakada ia orokortuarekin bat etorriz, behera egin zuten ia erabilera guztiek. Salbuespen bakarra izan zen: esne-behiaren zuzeneneko salmentak (kontsumitzaileei) gora egin zuen. 2021ean berritasun bat izan zen ardi-esnearen kasuan, erabilera nagusia ez baitzen gazta izan; datuak eskuragarri ditugunetik lehen aldiz, esne -zentralei zuzenean saldutako eneak gainditu zuen.

**168. koadroa EAEn ekoitzitako esnearen erabilera**

*(m litro)*

| Erabilera | 2019 | 2020 | 2021 | % ∆ 21/20 |
|---|---|---|---|---|
| **Behi-azienda** | **180.914** | **182.089** | **179.334** | **-1,5** |
| – Zekor-hazkuntza | 4.794 | 4.662 | 4.563 | -2,1 |
| – Pertsonen kontsumoa ustiategian | 1.184 | 1.140 | 1.094 | -4,0 |
| – Zuzeneko salmenta kontsumitzaileei | 3.565 | 3.469 | 3.589 | 3,5 |
| – Salmenta esne-zentralei | 171.371 | 172.818 | 170.088 | -1,6 |
| **Ardi-azienda** | **10.055** | **9.882** | **9.723** | **-1,6** |
| – Gazta | 5.248 | 4.715 | 4.572 | -3,0 |
| – Pertsonen kontsumoa ustiategian | 38 | 34 | 32 | -5,9 |
| – Zuzeneko salmenta kontsumitzaileei | 486 | 456 | 444 | -2,6 |
| – Salmenta esne-zentralei | 4.282 | 4.678 | 4.674 | -0,1 |
| **Guztira** | **190.969** | **191.971** | **189.057** | **-1,5** |
| – Zekor-hazkuntza | 4.794 | 4.662 | 4.563 | -2,1 |
| – Gazta | 5.248 | 4.715 | 4.572 | -3,0 |
| – Pertsonen kontsumoa ustiategian | 1.222 | 1.174 | 1.126 | -4,1 |
| – Zuzeneko salmenta kontsumitzaileei | 4.051 | 3.925 | 4.033 | 2,8 |
| – Salmenta esne-zentralei | 175.653 | 177.496 | 174.762 | -1,5 |

*Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Sektoreen Estatistika eta Analisi Zerbitzua.*

Esne-behiaren negozioa hainbat institutuk monitorizatzen dute Euskal Herriko 4 lurraldeetan, eta horrek aukera ematen du epe luzeko aldakuntzak ikusteko. Laginean jasotako ustiategi kopuruaren adierazlea bera esanguratsua da, beheranzko joera baitu. Itxierak eta bat-egiteak izan direla adierazten du horrek. Bizkaiko, Nafarroako eta Gipuzkoako laginek egin dute behera; Arabakoa, berriz, egonkor mantendu da. 2021ean, aldiz, gora egin zuen Bizkaian monitorizatutako ustiategi kopuruak.

Ustiategi bakoitzeko behi kopurua da aldera daitekeen beste adierazle bat. 2021ean EAEko 3 lurraldeetan egin zuen gora adierazle horrek. Hala, Araban jarraitu egin zuen goranzko joerak, eta beste bi lurraldeak suspertu egin ziren. Nafarroan, hainbat urtez bilakaera geldi egon ondoren, 2021ean jaitsi egin zen zifra. Adierazle honen kasuan, nabarmenak dira Nafarroako zifra altua eta Gipuzkoako zifra baxua. Ustiategi bakoitzeko hektarea kopuruari dagokionez ere, Gipuzkoa atzean dago, nahiz eta 2020-2021 aldian hazten hasi, eta Araba da nabarmenena (nahiz eta hektarea bakoitzeko behi kopuru txikiena izan). Ustiategi bakoitzeko behiei dagokienez, hazkunde jarraitua duen bakarra Nafarroa da. Izan ere, Gipuzkoak goranzko joera zuen, baina 2021ean eten egin zen.

Ekoizpenaren eta bazkaren gastuen adierazlea esanguratsuagoa da. Hektarea bakoitzeko ratioa apur bat igo zen 2021ean lurralde guztietan. Behi bakoitzeko litro kopuruak gora egin izan du lurralde guztietan, emaitza antzekoekin. Baina 2021ean behera egin zuen modu orokortuan, gutxi izan arren.

2021eko daturik ezohikoena hau izan zen: behi-esnearen prezioak gora egin zuen Gipuzkoako laginean. Horrek erakusten du kostuak preziora pasatzea galarazten zioten oztopoak gainditzea lortu zuela produktu honek EAEn, 2021eko azken hilabeteetan, behintzat. Dena den, hemen ageri diren datuak hartu ziren datetan, Gipuzkoan bakarrik hauteman zen berritasun garrantzitsu hori.

**169. koadroa Esnea ekoizten duten eliteko behi-ustiategi batzuek osatutako lagin baten emaitzak**

| Kontzeptua | Lurgintza (Gipuzkoa) | | Lorra (Bizkaia) | | Abere (Araba) | | INTIA-ITG (Nafarroa) | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| **Datu teknikoak** | | | | | | | | |
| – Lagineko ustiategi kopurua | 33 | 29 | 53 | 56 | 39 | 40 | 41 | 40 |
| – Behi kopurua | 2.143 | 1.680 | 3.827 | 4.038 | 4.427 | 4.612 | 5.476 | 5.553 |
| – Ha. NAE/ustiategi | 25,8 | 27,2 | 33,9 | 33,4 | 73,1 | 73,6 | 58,7 | 56,5 |
| – Behi/ustiategi | 64,9 | 57,9 | 72,2 | 72,1 | 114 | 115,3 | 133,6 | 138,8 |
| – Behi/ha. | 2,5 | 2,1 | 2,1 | 2,2 | 1,5 | 1,6 | 2,3 | 2,5 |
| – Ekoizpen- eta bazka-gastuak (euro/ha) | 364,46 | 404,31 | 216,64 | 261,68 | 546,54 | 597,37 | 655,7 | 682,3 |
| **Prezioak eta etekinak** | | | | | | | | |
| – Esnearen prezioa (euro/1.000 litro) | 352,88 | 466,21 | 358,31 | 365,39 | 349,00 | 360,55 | 342,17 | 354,7 |
| – Esne-ekoizpena litro/behi | 8.596 | 8.523 | 9.292 | 9.112 | 10.519 | 10.200 | 10.158 | 10.138 |

*Iturria: EAEko lurralde bakoitzeko nekazaritzako eta abeltzaintzako zentro kooperatiboek eta Nafarroako Teknologien eta Nekazaritzako Elikagaien Azpiegituren Institutua Elkarte Anonimoak (INTIA, ITG dibisioa) eskainitako estatistikak.*

Behi-esnea ekoizten duten ustiategien batezbesteko ekonomikoen gaineko datu xeheak eskaintzen dira Nafarroan. Nabarmentzekoa da ustiategi bakoitzeko diru-sarrerak asko hazi direla azken urteetan, aipatutako aurrerapenekin bat etorriz. Baina gastuak ere asko igo dira eta, GLU edo Gizakiaren Lan Unitate bakoitzeko marjina garbia kontuan hartzen badugu, 2016 eta 2017 artean hobekuntza handia izan zela ikus daiteke, % 70etik gorako hazkundea izan baitzen. Gero, ordea, ondoz ondoko 4 ekitalditan behera egin zuen ratio horrek eta urte artan eskuratutako zifra gorena baino % 24,4 beherago dago orain. Elikadura-kostuen hazkundea oso nabarmena izan zen 2021ean eta, gainera, kostu finkoak ere asko hazi ziren, azken bosturtekoan gertatzen ari den moduan.

**170. koadroa ABEREk eta INTIA-ITGk kudeatutako ardi-esne ustiategien batez besteko emaitza ekonomikoak**

| Kontzeptua | ABERE | | INTIA-ITG | |
|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| **Datu tekniko-ekonomikoak** | | | | |
| – Ustiategien laginak | 25 | 24 | 24 | 26 |
| – Eskulana (GLU) ustiategiko | 1,5 | 1,8 | 2,1 | 1,9 |
| – Ardi kopurua ustiategiko | 376 | 368 | 375 | 361 |
| – Azalera Ha. | 71,9 | 75,6 | 29,6 | 25,5 |
| – Esne-ekoizpena (litro/ardi) | -- | -- | 156 | 163 |
| – Esnearen prezioa (euro/1.000 litro) | -- | -- | 1.495,25 | 1.498,15 |
| **Ekoizpena eta emaitzak (euro)** | | | | |
| Produktu gordina | 109.637 | 121.976 | 102.543 | 103.500 |
| - Elikadura-gastuak | 24.657 | 31.846 | 28.707 | 30.796 |
| - Gastu aldakorrak | 16.455 | 17.945 | 11.527 | 10.742 |
| = Marjina gordina | 68.524 | 72.184 | 68.488 | 68.509 |
| + Diru-laguntzak | 25.990 | 25.451 | 6.179 | 6.546 |
| + Beste diru-sarrera batzuk | 1.836 | 5.406 | - | - |
| - Gastu finkoak eta langileenak | 66.177 | 56.555 | 41.404 | 40.481 |
| = Marjina garbia | 30.173 | 46.486 | 27.084 | 28.028 |
| **Emaitza unitarioak (euro)** | | | | |
| – Marjina garbia / ardia | 80,25 | 126,32 | 72,22 | 77,59 |
| – Marjina garbia / GLU | 19.466,74 | 25.825,60 | 13.211,53 | 14.522,22 |

*Iturria: Abere eta Nafarroako Teknologien eta Nekazaritzako Elikagaien Azpiegituren Institutua (INTIA, ITG dibisioa).*

Aitzitik, Nafarroako ardi-esnearen azpisektoreko negozioaren batez besteko zifrek ez zituzten gorabehera horiek izan, nahiz eta negozioa askoz ere mugatuagoa izan eta, hortaz, lagina txikiagoa izan –elikadura-gastuak eta gastu finkoak ere ez ziren nabarmen hazi–. Hala, sektorea egonkorra dela esan daiteke, eta hamarkadan zehar geldi egon dela, magnitudeak apenas aldatu gabe. Dena den, kasu honetan GLU bakoitzeko marjina garbiak gora egin du apur bat bi urtetan. Gastuekiko erlazioari dagokionez, marjina garbia handiagoa da ardi-esnearen kasuan, behi-esnearen kasuan baino; baina gastu finkoen pisua ere handiagoa da gastu aldakorrena baino. Jarduera honetan, normala den moduan, dimentsioak eta magnitudeak askoz ere txikiagoak dira, eta hazkundeak, oro har, apalagoak. Hala ere, 2021ean ardi bakoitzeko 163 litro eskuratu ziren, eta hori 2014ko zifra baino nabarmen handiagoa da, esaterako, orduan 129 litro eskuratu baitziren animalia bakoitzeko.

Esnetarako ardien kasuan egin daiteke alderaketa. Izan ere, Arabako Abere institutuak ere antzeko logika erabiliz monitorizatzen ditu ustiategi mota horiek, eta 2021ean nabarmentzeko moduko kontraste bat izan zen. Ustiategi bakoitzeko bolumen ekonomikoak altuagoak dira Araban, baina, Nafarroako laginean ez bezala, beheranzko joera zuten, 2021ean gora egin zuten arte. Izan ere, produktu gordina gehiago hazi zen gastu aldakorrak baino eta, gainera, gastu finkoek behera egin zuten. Hala, marjina garbia hobetu egin zen eta egoera positiboa izatera itzuli zen, 6 urte lehenago bezala, antzeko datuekin.

### Haragi-ekoizpena: emaitza ekonomikoak

Nafarroako esnetarako ardiak salbuespena dira. Izan ere, haragitarako ardien kasuan –batzuetan ustiategi berberak arduratzen dira– bai, hautematen da elikadura-gastuak nabarmen hazi direla azken bi urteetan, behien kasuan bezala.

Nafarroan, haragitarako ardiei eta 2021eko ekitaldiari dagokienez, nabarmentzekoa da arkumearen prezioa asko hazi zela, aurreko bi ekitaldietan marjina garbi negatiboa izan ondoren: hamarkada osoan zehar kiloko 3,60 eta 4 euro artean mugitu zen prezioa, eta 2021ean 4,43ra igo zen. Merkatuak onartutako igoera horrek aukera eman dio azpisektoreari batez besteko emaitzaren joera aldatzeko. Haragitarako ardien ustiategi kopurua eta esnetarako ardien ustiategi kopurua ia berdina da. Behien kasuan ez da hori gertatzen; izan ere, haragitarako behien ustiategiak esnetarakoen heren bat baino ez dira, eta duela hamarkada bat zeudenen erdiak baino ez daude gaur egun. Horrek erakusten digu azpisektore hori dela azken urteetan gehien sufritu duena; ustiategi batzuk itxi eta beste batzuk elkartu behar izan dituzte.

**171. koadroa** **Abere eta INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden haragitarako behi- eta ardi-ustiategien emaitzak**

| Kontzeptua | ABERE | | INTIA-ITG | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Haragitarako behiak | | Haragitarako behiak | | Haragitarako ardiak | |
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| **Datu tekniko-ekonomikoak** | | | | | | |
| – Ustiategien laginak | 72 | 66 | 26 | 19 | 27 | 27 |
| – Eskulana (GLU) | 0,9 | 0,9 | 1,0 | 1,0 | 1,2 | 1,2 |
| – Behi/Ardi kopurua ustiategiko | 61,4 | 63,69 | 60 | 66 | 713 | 739 |
| – Azalera Ha. | 96,0 | 97,8 | 37,2 | 36,6 | 42,6 | 42,5 |
| – Txahal/arkume ekoizpena, kg. behi/ardiko(*) | -- | -- | 230,6 | 231,8 | 21,5 | 19,4 |
| – Txahal/arkume salneurria kiloko | -- | -- | 3,83 | 3,98 | 3,61 | 4,43 |
| **Ekoizpena eta emaitzak (euro)** | | | | | | |
| – Produktu gordina | 41.223 | 44.551 | 61.984 | 79.670 | 57.620 | 68.746 |
| - Elikadura-gastuak | 22.142 | 23.119 | 35.855 | 43.491 | 35.855 | 40.659 |
| - Gastu aldakorrak | 7.772 | 4.458 | 13.093 | 14.281 | 9.818 | 10.226 |
| = Marjina gordina | 11.308 | 16.973 | 24.615 | 32.445 | 24.615 | 30.834 |
| + Diru-laguntzak | 26.890 | 28.215 | 10.007 | 10.547 | 12.668 | 12.974 |
| - Gastu finkoak eta langileenak | 27.615 | 29.813 | 29.569 | 35.291 | 24.852 | 26.162 |
| = Marjina garbia | 13.902 | 23.973 | -4.618 | -2.845 | -237 | 4.672 |
| **Emaitza unitarioak (euro)** | | | | | | |
| – Marjina garbia behia/ardia | 226,24 | 376,40 | -76,53 | -42,81 | -0,33 | 6,32 |
| – Marjina garbia GLU | 21.041 | 23.201 | -4.636 | -2.787 | -231 | 4.473 |

*(*): Haragi kiloak: Behi-haragi kiloak, kanalean. Ardi-aziendaren kasuan, kiloak bizirik.*

*Iturria: Abere eta Nafarroako Teknologien eta Nekazaritzako Elikagaien Azpiegituren Institutua, Elkarte Anonimoa (INTIA, ITG dibisioa).*

Behi-haragiaren jardueran Arabako zein Nafarroako laginetako informazioa dugu. Egituraz defizitariotzat hartzeko fasean dago: zifrek erakusten dutenez, dirulaguntzak aplikatu aurretiko marjinak negatiboak izan dira eskuragarri dugun datuen segida osoan, hau da, hamarkada batean baino gehiagoan.

Nafarroako laginean, dirulaguntzek neurri batean baino ez zuten arindu egoera hori, eta hainbat ekitalditan kontuak koadratu ahal izan ziren. Dena den, laginak galerak izan zituen 2014an, 2016an eta 2018tik aurrera. 2021ean, dirulaguntzak gehitu aurretiko eta ondorengo emaitza ez zen aurreko hiru urteetan bezain txarra izan.

Arabako laginean, batez besteko marjina garbi negatiboa ez zen hain handia izan, eta dirulaguntzak handiagoak izan ziren. Hortaz, marjina garbia positiboa izan da hamarkada osoan zehar. 2021ean kostuaren igoeraren zatirik handiena xurgatu ahal izan zuen produktu gordinak eta, dirulaguntza apur bat handiagoen laguntzarekin, marjina garbia mantendu egin zen. Dena den, 2020a bezala, ez zen ekitaldi onenetako bat izan. Eskuragarri dugun datuen segidan etengabe gertatzen da batez besteko jardueraren bolumena askoz txikiagoa denean. Dena den, Arabako laginean, Nafarroako gastu finkoen antzekoak dituzte.

Arkumearekin ez bezala, behi-haragiaren kasuan ez dute lortu kostuen igoera guztiak prezioetara igarotzea. INTIA-ITGren laginak erakusten duenez, kiloko batez besteko prezioa geldi dago 2012az geroztik, 3,90 eta 4,05 arteko tarte estuan. 2020an 3,83 eurora erori zen, ziur asko, pandemiaren hasieran balio-katean izandako zirkunstantzien ondorioz. 2021ean beherakada hori gainditzea lortu zuten, eta kiloko 3,98 eurora igo zen prezioa.

Normala den moduan, ustiategiek zailtasun handiak dituzte egoera honi aurre egiteko eta behi-aziendaren esnearekin bakarrik konpentsa dezakete galera, edo, kasu batzuetan, beste jarduera osagarri batzuekin.

Dena den, nabarmendu beharrekoa da hamarkadan zehar guztizko gastuek ez dutela goranzko joera izan Nafarroan, eta nahiko tarte egonkorrean mantendu direla. Baina diru-sarrerak ezohiko maila baxura jaitsi ziren 2017 eta 2020 artean. 2021ean diru-sarrerek gora egin zuten eta aldi horren aurreko mailan kokatu ziren, baina gastuak ia neurri berean igo ziren, eta aipatutako tartetik irten ziren. Araban, aitzitik, kostuen joera goranzkoa izan zen, nahiz eta gorabeherak izan. Dena den, azken bi laginketetan, 2020an eta 2021ean, kostu finkoak apaldu egin ziren.

Azkenik, Nafarroako txerri-ustiategiak ere monitorizatzen ditu INTIA-ITGk, zehazki, ziklo osoa egiten duten 14 ustiategi eta txerrikumeak hazten dituzten 7. Bi laginak murrizten joan dira, baina lehenengoak jauzi handia eman zuen 2020an. Hori ez zen bat etorri laginak barne hartzen dituen ustiategi kopuruaren murrizketarekin, ziur asko, horietako hainbatek bat egitearen ondorioz.

Hala, 2020an, % 62,2 hazi zen ustiategi bakoitzeko animalia kopurua, eta diru-sarrerak eta batez besteko gastuak ere igo egin ziren. 2021ean mantendu egin ziren maila horiek. Deigarria bada ere, 2021ean % 20 baino gehiago areagotu zen erkidegoko txerri-azienda kopurua; aurreko urtean % 5,5 baino ez zen hazi.

**172. koadroa INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden txerri-ustiategien emaitzak**

| Kontzeptua | Txerrikumeen ekoizpena[1] | | Ziklo itxia[2] | |
|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| **Ezaugarri tekniko-ekonomikoak** | | | | |
| – Aztertutako ustiategi kopurua | 7 | 7 | 14 | 14 |
| – Urdanga kopurua ustiategiko | 189 | 187 | 517 | 516 |
| – Urdanga bakoitzeko saldutako txerrikumeak | 24 | 25 | 1 | 1 |
| – Urdanga bakoitzeko saldutako txerri gizenduak | 0,4 | 0,3 | 20 | 21 |
| – Urdanga bakoitzeko saldutako txerriak, guztira | 24 | 25 | 21 | 22 |
| – Saldutako txerrikumeen batezbesteko pisua (kg) | 23,6 | 23,3 | 14,9 | 12,5 |
| – Saldutako txerri gizenduen batezbesteko pisua (kg) | 114,3 | 116,7 | 111,3 | 112,6 |
| – Saldutako txerrikume + txerri gizendu kopurua | 4.551 | 4.689 | 10.907 | 11.495 |
| – Txerrikumearen batezbesteko salneurria (euro) | 50,17 | 49,0 | 37,02 | 32,92 |
| – Txerri-kiloaren batezbesteko salneurria (euro) | 1,27 | 1,20 | 1,29 | 1,20 |
| – GLU guztira | 1,3 | 1,24 | 3,6 | 3,7 |
| **Emaitza ekonomikoak (euro)** | | | | |
| – Produktu gordina | 256.920 | 245.542 | 1.585.985 | 1.578.217 |
| • Gastu aldakorrak | 166.486 | 173.365 | 1.036.733 | 1.239.551 |
| – Marjina gordina | 90.434 | 72.176 | 549.252 | 338.666 |
| • Gastu finkoak | 61.830 | 63.261 | 299.545 | 311.789 |
| – Marjina garbia | 28.604 | 8.915 | 249.706 | 26.877 |

*(1): 3 ustiategik 26,04 kg-ko batezbesteko pisua duten txerrikumeak ekoizten dituzte, eta 4 ustiategik titia kendutako 7,56 kg-ko txerrikumeak saltzen dituzte.*

*(2): Ustiategi horiek saltzen duten % 80 baino gehiago txerri gizendua da.*

*Iturria: Nafarroako Teknologien eta Nekazaritzako Elikagaien Azpiegituren Institutua, Elkarte Anonimoa (INTIA, ITG dibisioa).*

Dena den, 2020an ez bezala, horrek ez zuen balio izan marjina gordinean gehieneko berri bat eskuratzeko. Emaitza horren goranzko joera eten egin zen eta etekinaren zatirik handiena galdu egin zen; hala ia ezerezean geratu zen. Txerrikumeen ekoizpenean ere gauza bera gertatu zen; kasu horretan ez zen hauteman aipatutako ekoizpenaren hazkundea. Elikadura-gastuak ez dira banakatzen, baina, ziur asko, pentsuen garestitzea izan zen giltzarria. Gainera, behi-azienden kasuan ez bezala, ez zuten lortu igoeraren zati txiki bakar bat ere salmenta-preziora igarotzea. Aitzitik, batez besteko prezioa 9 eta 10 zentimo artean jaitsi zen, modalitate batean eta bestean, hurrenez hurren. Jaitsiera txikia izan zen eta aurreko urteko igoeraren zatirik handiena finkatu egin zen, baina igoera horrek ez zituen kostuak xurgatzen.



LABORAL kutxa

Hala, azken urteetako agertokia aldatu egin zen. Izan ere, azken urteetan txerri-azienden negozioak askoz indar handiagoa zuen beste espezie batzuen haragi-jarduerek baino. 2021ean, ordea, txerri-aziendak izan ziren kalte handiena jasan zutenak, hain justu inbertsioak areagotu zituztenean, ustiategi bakoitzeko animalia kopurua handitu baitzuten.

Txerrikumeen ekoizpenaren kasuan, deigarria da produktu gordinaren jaitsiera eta guztizko gastuen igoera okertzen ari direla, aurreko urteko ildo beretik. Hala, 2021ean murriztu egin zen marjina eta zerora hurbildu zen.  Hau da, atzean dauden arrazoiak ez dira ekitaldi bakar bateko arrazoi koiunturalak, eta ikusi egin beharko da bilakaera horrek jarraitzen duen ala egonkortu egiten den.

**Abereen hilketa**

Ustiategien laginketan ikusten zen txerri-azienden kopurua nabarmen hazten hasia zela (batez ere, Nafarroan), abeltzaintza-errolda orokorrean baino gehiago eta lehenago. Abereen hilketen adierazlea, ordea, ez zen apenas handitu 2021ean. Kapituluaren hasieran aipatu dugun moduan, 2017az geroztik txerri-azienden hilketa-zifrak asko murriztu dira, lerro hori kendu delako edo jarduera hori Nafarroatik kanpora atera delako. 2020an are gehiago jaitsi zen zifra, baina 2021ean apur bat igo zen.

EAEn aldakuntza gutxi izan ziren eta, orokorrean, hilketen kopuruak egonkortuta daude. Dena den, txerri-aziendak susperraldian jarraitu zuen eta joan den hamarkadako zifrarik altuena eskuratu zuen; ardi-azienda apur bat gelditu zen, baina aurreko urteko ezohiko igoera finkatu zuen; zaldi-azienda, oso urria, asko murriztu zen; eta gainerakoek hamarkadan zehar erakusten joan ziren balioen antzekoak izan zituzten.

Laginak aintzat hartzen dituen 6 espezieek EAEn baino pisu handiagoa dute Nafarroan, untxiak izan ezik. 2006az geroztik, hegaztien hilketari tona kopuru handiagoa dagokio Foru Erkidegoan, txerri-azienden hilketari baino. Gaur egun ere gainerako espezieetan baino askoz altuagoa jarraitzen du izaten hegaztien kasuan: 2006 eta 2018 artean % 150 hazi zen; aldi horretan asko hedatu zen. Hala ere, azken ekitaldietan behera egiten hasi da –2021ean barne–. Behi-azienden kanaleko pisuaren zifrak, berriz, gora egiten jarraitzen du 2019az geroztik, hamabost urtetan zehar beherazko joera jarraitua izan ondoren. Horrek erakusten du hiltegietako jardueraren adierazlea, neurri handi batean, ez dela aztertu behar Nafarroako animalien benetako hazkuntzarekin korrelazioan; egiaz, hazkuntza da abeltzaintzako ekoizpen-jardueraren oinarria.

**173. koadroa Euskal Herrian hildako aziendaren kanaleko pisua**

*(Tm)*

| Urtea | Behi-azienda | Ardi-azienda | Ahuntz-azienda | Txerri-azienda | Zaldi-azienda | Hegaztiak | Untxiak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2012 | 21.548 | 3.806 | 29 | 40.856 | 2.725 | 97.062 | 4.418 | 170.443 |
| 2013 | 21.067 | 4.217 | 30 | 37.607 | 2.596 | 102.444 | 4.323 | 172.284 |
| 2014 | 19.715 | 4.093 | 44 | 37.706 | 2.655 | 103.667 | 4.423 | 172.303 |
| 2015 | 12.461 | 3.868 | 44 | 34.827 | 3.359 | 103.518 | 4.612 | 162.689 |
| 2016 | 18.029 | 4.071 | 42 | 23.379 | 3.532 | 116.739 | 4.440 | 170.233 |
| 2017 | 17.808 | 3.741 | 63 | 3.318 | 3.765 | 112.612 | 4.105 | 145.412 |
| 2018 | 18.117 | 3.825 | 60 | 3.551 | 3.328 | 125.866 | 4.282 | 159.028 |
| 2019 | 19.438 | 3.575 | 54 | 3.291 | 3.775 | 118.535 | 3.681 | 152.349 |
| 2020 | 22.152 | 3.428 | 50 | 3.305 | 3.828 | 111.515 | 4.477 | 148.755 |
| 2021 | 25.802 | 3.008 | 55 | 3.556 | 3.362 | 110.253 | 4.618 | 150.652 |
| % EH/Espainia 2021 | 3,6 | 2,5 | 0,5 | 0,1 | 39,6 | 6,8 | 9,7 | 2,0 |

*Iturria: Abeltzaintzako inkestak. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.*

Nolanahi ere, nabarmendu beharrekoa da 2007az geroztik zaldi-azienden hilketak goranzko joera izan zuela erkidegoan, hamarkada batez, eta gero egonkortu egin zela. Aitzitik, untxien eta ardi-azienden hilketen joera oso laua izan zen hamarkada batean zehar, baina azken bi urteetan untxiek gora egin dute eta ardi-aziendek behera, nahiz eta 2021ean arkumearen prezioa nahiko mardula izan.

Estatistika honetan deigarria izan daitekeen beste alderdi bat zera da, Euskal Herriak Estatuan duen pisua askoz ere handiagoa dela azienda tradizional edo nagusi horiez gaindiko espezieen hilketaren kasuan, hau da, hegaztien, zaldi-azienden edota untxiaren kasuan. Zaldi-produktuei dagokienez, Nafarroan duten pisua aintzat hartuta, Estatuko guztizkoaren % 40koa da ia kuota. Untxiek EAEn duten garrantzia dela eta, Euskal Herriak Estatuko guztikoaren gainean duen kuota % 9,7koa da, eta hegaztiena % 6,8koa. Beste muturrean, hiltegietan lehen aipatu dugun aldaketa izan zenetik, txerri-aziendak Estatuko guztizkoaren gainean duen kuota baxua da, ezohiko moduan.

**34. grafikoa** **Euskal Herriko abere-ekoizpena, espezieen araberako bilakaera**

*(Indizea1990=100)*




*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua*

# 4. BASOGINTZAREN AZPISEKTOREA

Basoen ustiapenak pisu ekonomiko handiagoa du EAEn, Nafarroan edo Estatuan baino; izan ere, zuhaitzez estalitako azalera, proportzionalki, askoz ere handiagoa da.

2021eko datuei dagokienez, nabarmendu beharreko alderdirik nagusiena zera da, lehen sektoreko jarduera honek goranzko bidea hartu zuela berriro ere, banda marroiaren gaixotasunaren ondorioz bi urtez behera egin ondoren. Euskadin gehien dagoen espezieari eragin zion gaixotasun honek, radiata edo insignis pinuari.

Eusko Jaurlaritzako lehen sektorearen behatokiaren arabera, ekoizpenaren balioa % 34 igo zen 2020arekin alderatuta. Prezioak +% 16,7 igo ziren, eta mozketen bolumena, mozteko lizentzien igorpena aintzat hartuta, % 24,6 hazi zen. Momentuz ez da berreskuratu 2018ko gehieneko maila, ez orokorrean, ez lurraldeka. Baina aurreko hamarkadako goranzko bilakaerarekin bat datorren balioa eskuratu da.

Hain zuzen ere, nabarmentzekoa da 2021ean baimendutako mozketen bolumenak alde handiz bikoiztu zuela 2007koa. 2009an, merkatuak arrazoi meteorologikoengatik eroritako egurra erosi zuen, masan, eta Euskadiko mozketen zifra punturik baxuenera iritsi zen. Ordutik, 2018ra arte, mozketen hazkundea handia izan zen, baina, nagusiki, txandakako 4 ekitalditan kontzentratu zen. 2019an eta 2020an, sektoreak banda marroia izenez ezagutzen den arazoaren olatu larrira egokitu behar izan zuen eta, hortaz, 2020ko mozketak 2017ko mailara itzuli ziren.

**174. koadroa EAEn egurra mozteko lizentziak**

*(m3 a.g. = metro kubiko, azal eta guzti)*

| Urtea | Eremua | Koniferoak | Hostotsuak | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| 2019 | Araba | 110.487 | 11.799 | 122.285 |
| | Bizkaia | 1.070.210 | 198.776 | 1.268.987 |
| | Gipuzkoa | 1.117.938 | 10.552 | 1.128.490 |
| | EAE | 2.298.636 | 221.128 | 2.519.762 |
| 2020 | Araba | 53.095 | 22.162 | 75.257 |
| | Bizkaia | 869.151 | 140.527 | 1.009.678 |
| | Gipuzkoa | 689.583 | 6.974 | 696.557 |
| | EAE | 1.611.829 | 169.662 | 1.781.491 |
| 2021 | Araba | 101.309 | 25.991 | 127.301 |
| | Bizkaia | 957.614 | 204.203 | 1.161.818 |
| | Gipuzkoa | 911.823 | 18.971 | 930.794 |
| | EAE | 1.970.749 | 249.166 | 2.219.913 |

*Iturria: Estatistika eta Analisi Sektorialen Zerbitzua, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.*



LABORAL kutxa

Krisialdi biologiko horrek landaketa askori eragin die, eta onera ekarri behar izan dituzte. Zati batean, zuhaitz hostotsuek eta eukaliptoak hartu dituzte espazio horiek. Horregatik, espezie horren mozketak gora egin du berriro, bereziki, Bizkaian, lurralde horretan baitu presentziarik handiena. Espezie hori erakargarria da komertzialki, hazkunde-ziklo laburragoa baitu. Dena den, hura ugaritzearen aurkako egitasmoak daude.

Lurraldekako bereizketari dagokionez, gogoratu beharrekoa da aipatu dugun goranzko bilakaera hori, radiata pinuan oinarritua, batez ere, Bizkaian eta Gipuzkoan ari dela gertatzen. Orokorrean, bi lurralde horietan, nahiko antzekoak dira guztizko bolumenak eta bilakaerak. Araban oreka handiagoa dago hostotsuen eta koniferoen artean. Dena den, basogintzak beste bi lurralde historikoetan baino presentzia askoz txikiagoa du. Izan ere, jakina den moduan, biztanleriaren eta giza jardueraren banaketa oso ezberdina da, hedadura handiagoa izan arren, eta mendiko eremuetan baso trinkoak izan arren. Bizkaiaren berezitasuna zera da, bertan egiten direla zuhaitz hostotsuen mozketa gehienak; neurri handi batean, aipatutako eukaliptoaren ondorioz gertatzen da hori. Gipuzkoaren kasuan, aipatu beharrekoa da espezie horren sarrera mugatzeko neurriak daudela.

**175. koadroa EAEn egurra mozteko lizentziak**

*(m3 a.g. = metro kubiko, azal eta guzti)*

| Espeziea | 2020 | 2021 | % ∆ 21/20 |
|---|---|---|---|
| – Pinu gorria | 954 | 2.076 | 117,6 |
| – Larizio pinua | 86.068 | 58.400 | -32,1 |
| – Pinaster pinua | 17.471 | 28.638 | 63,9 |
| – Halepensis pinua | 16,5 | 25,0 | 51,5 |
| – Radiata pinua (insignis) | 1.432.560 | 1.754.784 | 22,5 |
| – Beste konifero batzuk | 74.760 | 126.825 | 69,6 |
| **Koniferoak, guztira** | **1.611.829** | **1.970.748** | **22,3** |
| – Makala | 10.485 | 1.876 | -82,1 |
| – Eukaliptoa | 132.662 | 208.101 | 56,9 |
| – *Querqus* | 18.686 | 22.388 | 19,8 |
| – Beste hostotsu batzuk | 7.829 | 16.801 | 114,6 |
| **Hostotsuak, guztira** | **169.662** | **249.166** | **46,9** |
| **GUZTIRA** | **1.781.491** | **2.219.914** | **24,6** |

*Iturria: Estatistika eta Analisi Sektorialen Zerbitzua, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Mozketen hazkunde orokorraren eta banda marroiaren arazoaren ondorioz, gero eta arreta handiagoa jasotzen ari da sektore hau. Berezitasun nabarmenak ditu lehen sektoreko jardueren barruan edota Euskadiko lehengaien ustiapenaren testuinguruan, baita lurraldearen erabileraren, habitat naturalen edo paisaiaren beraren kudeaketaren ikuspegitik ere, agerikoa den moduan. Egurra baliabide berriztagarria da, eta gero eta araudi gehiago daude haren inguruan, ingurumenaren jasangarritasunaren eta landa eremuko ekonomiaren gaineko kezken eraginez.

Adibidez, zuhaitzen mozketa kontrapisua izan daiteke eta osagarria da lehen sektoretik eta lehen sektoreko beste jarduera batzuetatik bizi direnentzat, jarduera horiek baldintzatzaile negatibo nabarmenen mende daudenean; esaterako, abeltzaintzaren kasuan. Basogintza, 2021ean, BPGaren % 1,5 ingurukoa izan zen, eta enpleguaren % 2,4. Zifra horiek ez dira batere mespretxagarriak.

EAEn, guztizko gainazalaren erdia baino gehiago da basoa, eta hori Europako eremu gutxitan gertatzen da. Habitat mota horrekin lotura fisiko zuzena duten biztanleen proportzioa oso altua da, eta horrek areagotu egiten du haren garrantzi sozioekonomikoa eta ingurumen arloko garrantzia.

Zuhaitzez estalitako azaleraren erdia baino apur bat gehiago koniferoek osatzen dute –eta gainerakoa zuhaitz hostotsuek hartzen dute–. Hala, koniferoek eta insignis pinuak, ikusi dugun moduan, garrantzi ekonomiko handia dute. Zuhaitz hostotsuen artean, eukaliptoaren kasu bereziaz gain, beste espezie batzuk daude, ekologiarentzat interesgarriagoak direnak, bertakoak direlako, zaurgarriagoak direlako edo balio handiagoa dutelako gizakiaren ongizaterako edo bertako faunaren eta floraren ongizaterako. Ingurunearekiko kezka gero eta handiagoa den honetan, elkarteek eta erakundeek gero eta gehiago nabarmentzen dute mozketak egin ondoren berriro landatu behar dela, eta mozketak hertsiki kontrolatuta eta kudeatuta daude.

# 5. ARRANTZA-SEKTOREA

## 5.1. IKUSPEGI OROKORRA

Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza-sektoreak 2021ean ez zuen Covid-19aren krisiarekin lotutako eraginik jasan, 2020an ez bezala. Dena den, emaitzak 2020koen nahiko antzekoak izan ziren, gutxienez, baxurako arrantzan. Arrantza-sektoreko behin betiko bolumen ekonomikoak bi urteko atzerapenez argitaratzen dira, gutxi gorabehera. Baina, baxurako arrantzaren kasuan, hilero, Euskadiko portuetako arrantzaleen kofradien salmenta-zifrak egoten dira eskuragarri. Kofradiek eskaintzen duten argazkia partziala da, beste konpainia batzuek lonjatik pasatu gabe eramaten dutelako arraina; esaterako, hori gertatzen da legatzaren kasuan merkantziaren zati handi batekin.

Beste herrialde batzuetako ontziek arrantzatutako arraina ere sartzen da euskal portuetan, eta horrek ekonomiari eta sektoreari eragiten dio. Era berean, euskal ontzi batzuek, egoera puntual batzuetan, beste erkidego batzuetako lonjetan lehorreratzen eta saltzen dute arraina; hori gertatu zen, bereziki, 2020an eta 2021ean antxoarekin.

Nolanahi ere, baxurako azpisektoreak aurrean dituen askotariko zailtasunak islatzen ditu lonjako salmenten bilakaerak; eta zailtasun horiek hazten ari direla esan liteke. Alturako arrantzan atunontzi izoztaileen negozioa gailentzen da. Negozio horrek baldintzatzaile oso zehatzak ditu, baina baxurako arrantzan gakoak diren aldagai askok eragina dute freskoko alturako arrantzan ere.

**176. koadroa Euskal Herriko ontzidiaren egitura**

| Sektorea | Urtea | Unitate kopurua | Potentzia (ZP) | EGT* | Tripulatzaile kopurua |
|---|---|---|---|---|---|
| Altura | 2018 | 44 | 148.008 | 52.928 | 1.093 |
| | 2019 | 44 | 146.618 | 53.794 | 1.019 |
| | 2020 | 44 | 147.340 | 55.066 | 950 |
| | 2021 | 44 | 147.340 | 55.066 | 947 |
| Baxura | 2018 | 156 | 48.494 | 10.017 | 1.131 |
| | 2019 | 154 | 48.858 | 10.030 | 1.126 |
| | 2020 | 153 | 48.220 | 9.904 | 1.118 |
| | 2021 | 149 | 48.257 | 10.014 | 1.135 |
| Euskal Herria, guztira | 2018 | 200 | 196.502 | 62.945 | 2.224 |
| | 2019 | 198 | 195.477 | 63.824 | 2.145 |
| | 2020 | 196 | 195.560 | 64.969 | 2.068 |
| | 2021 | 193 | 195.597 | 65.080 | 2.082 |

*(*): Erregistro Gordineko Tonak.*
*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.*

Zirkunstantziarik nabarmenetako bat honako hau da: 2019az geroztik sektoreko enpleguaren afiliazioak beheranzko joera argia du; ordura arte beheranzko bilakaera hori ez zen hain handia. Balorazio hori sektore osoari dagokio –lehorreko langileak barne–, baina arrantzara irteten diren tripulazioaren kasuan, bereziki, baxurako azpisektorean, igoera txiki bat izan zen 2021ean, nahiz eta urte horretan ontzidia itsasontzi gutxiagok osatzen zuten. Normala den moduan, itsasontzi zaharrenei ematen zaie baja, eta horiek txikiagok izaten dira. Itsasontzi handiagoak ari dira sartzen, eta horrek azaltzen du hemen agertzen diren gainerako adierazleak (adibidez, potentzia) zergatik ez diren urtero murrizten. 2021ean gora egin zuten guztizko potentziak eta tona kopuruak ere, itsasontzi barruko langile kopuruak bezalaxe.

Brexita izan zen baldintzatzaileetako bat. Brexitaren ondorioz, EBko estatu guztien kuotak jaitsi egin beharko dira arrantza-interes handiena duen eremuetan. Izan ere, 2026an, haren inguruko eremuen gaineko burujabetza berreskuratuko du Erresuma Batuak, trantsizio-epe baten ondoren. Dena den, ez dakigu zer gertatuko den egoera berrian, eta horrek ziurgabetasuna sortzen du.

Kuotak espezieen errealitate biologikora hobeto doitzeko eta handitzeko eskatzen dute euskal kofradiek. Arrain-bankuetan hildako gehien eragiten dituzten arrantza-teknikak erabiltzen dituzten ontzidien aurka jarduteko ere eskatzen dute; kasu batzuetan, ontzi horiek euskal lonjetan husten dute arraina. Era berean, erkidegoen arabera banatutako kuotak eskatzen dituzte, erkidego horietako bakoitzeko ontzidiek elkarren artean hainbeste ez lehiatzeko. Eskaera hori gero eta premiazkoagoa da, euskal ontzidia mendebaldeko itsaso kantauriarrerantz mugitzen hasi denetik. Horrek, aldi berean, 2021eko beste arazo espezifiko batera garamatza: erregaiak nabarmen garestitzen hasi dira, eta salmenta-prezio altuagoak lortzeko balio badu bakarrik merezi du urrunago bidaiatzeak.

2020an, antxoaren arrantza-aldia aldatu egin zen konfinamendu-aldiengatik. Ondorioz, atzeratu egin behar izan zuten eta euskal ontziek Asturiaseko edo Kantabriako portuetara mugitu behar izan zuten; han saldu zuten arrantzatutakoaren zati handi bat. Prezio onean saldu zuten; izan ere, mendebaldeko eremu horietan eta beranduagoko data horietan tamaina eta kalitate handiagoko antxoa lortu zuten. Posible da aldaketa klimatikoak aldaketa horiei eragitea: adibidez, hegaluzea kantauriar kostaldera gerturatu da eta haren hazkunde-zikloan goizegi jaten ditu antxoak; horrek zaildu egiten du antxoak haztea eta garatzea.

Bestetik, hegaluzea gertuago arrantzatu ahal izatea salbazioa izan da azken ekitaldietan, eta positiboa izaten ari da ontzidiarentzat; baina, antxoarekin gertatzen den moduan, kuotak mugatuak dira eta gero eta denbora-tarte laburragoan ari dira arrantzatzen –baita Euskadin ohikoa den arrantza-modalitatean ere (hegaluzeak banan-banan arrantzatzen dituzte)–.



LABORAL kutxa

Ondorioz, eskaintza denbora-tarte labur batean kontzentratzen da eta horrek zaildu egiten du prezioak igotzea. Antxoaren kasuan, berriz, tamaina txikiak zailtzen du prezioen igoera, kontserba-industriari ez baitzaio tamaina hori gustatzen. Hala ere, 2021ean bi espezie horien arrantza-aldiak, "kanpaina izar" gisa ezagutzen direnak, apur bat hobetu ziren 2020arekin alderatuta.

Dena den, azterketa honek euskal lonjetan egindako salmentak bakarrik hartzen ditu kontuan eta, hortaz, antxoaren zifrak oso txikiak dira, aurreko urtean bezala. 2018a oso ekitaldi positiboa izan zen arrantzaleentzat, baina hurrengo urteetako gertakarien ondorioz, murriztu egin dira sektorearen diru-sarrerak. Zehazki, 2019an berdelaren arrantzak behera egin zuelako; 2021ean berdelak eta txitxarroak egin zutelako behera; eta 2020an pandemiaren hasieraren ezustekoarengatik. Berdela errentagarritasun baxuko arraina da, baina tona kopuru handiagoa eskura daiteke eta baliabide nagusia da –sardinaren edo txitxarroaren gainetik, horien tona kopurua txikiagoa izaten baita– hegaluzea eta antxoa arrantzatu ezin diren urteko denboraldi gero eta luzeagoetan. Hegaluzea, zehazki, gero eta hilabete gutxiagotan zehar arrantzatzen da; lehen 4 hilabete inguruan arrantzatzen zen, eta orain ia 2 hilabetetan bakarrik.

## 5.2. BAXURAKO ARRANTZA

### Baxurako ontzidia

Baxurako ontzidien eta kofradien jarduera, batez ere, 5 portutako lonjetan dago kontzentratuta: Hondarribia, Getaria, Pasaia, Bermeo eta Ondarroa. Dena den, oraindik ere dezente ontzi daude beste portu batzuei atxikita, esaterako, Oriokora edo Santurtzi eta Zierbenekora, Bilboko sarreran. 2015az geroztik multzoaren guztizkoak nahiko egonkorrak dira, baina portu batzuek irabazi egin dute, eta beste batzuek galdu. Hondarribia nabarmentzen da gehien adierazlerik garrantzitsuenetan, eta indartzen ari da, baina Bermeok jarraitzen du ontzi gehien izaten. Baxurako ontzi kopurua (ez arrantza kopurua) jaisten ari da, nahiz eta Bizkaiko portu txikiagoetako ontziak bere baitan hartu; Euskadiko arrantza-negozio handienaren ontzidia portu horretan dago, alturako atunontzi izoztaileena. Getariaren balantzea egonkorragoa da.

**177. koadroa EAEko baxurako ontzidia, portuen arabera (2021)**

| Portua | Unitate kopurua | Potentzia (ZP) | EGT | Tripulatzaile kopurua |
|---|---|---|---|---|
| – Hondarribia | 31 | 14.892 | 3.388 | 378 |
| – Getaria | 25 | 11.405 | 2.489 | 264 |
| – Orio | 4 | 3.110 | 565 | 64 |
| – Pasaia | 16 | 2.680 | 544 | 65 |
| – Donostia | 3 | 240 | 26 | 6 |
| GIPUZKOA, GUZTIRA | 79 | 32.327 | 7.012 | 171 |
| – Bermeo | 33 | 8.483 | 1.737 | 30 |
| – Zierbena | 5 | 864 | 175 | 12 |
| – Armintza (Lemoiz) | 5 | 291 | 40 | 29 |
| – Lekeitio | 6 | 1.424 | 211 | 72 |
| – Ondarroa | 11 | 3.545 | 585 | 44 |
| – Santurtzi(*) | 10 | 1.323 | 254 | 777 |
| BIZKAIA, GUZTIRA | 70 | 15.930 | 3.002 | 358 |
| **EAE, guztira** | **152** | **48.257** | **10.014** | **1.135** |

*(*): Estatistika-sekretua gordetzeko, Bilboko eta Plentziako itsasontzien datuak Santurtziko datuekin bateratu ditugu.*

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.*

Nabarmentzekoa da azken 3 urteetan, neurketa batzuetan, Ondarroak eta Pasaiak gora egin dutela –baxurako arrantzaz gain, beste jarduera berezi batzuk ere badituzte hauek; lehenengoaren kasuan, freskoko altura eta, bigarrenaren kasuan, bakailao-ontziak eta legatzaren arrantza–; Oriok, berriz, jaitsiera garbia izan du. Hamarkadaren lehenengo zatian Bizkaiko portuen multzoak behera egin zuen, eta Gipuzkoakoak eutsi egin zion. Azken ekitaldietan, ordea, badirudi paperak alderantzikatzen ari direla ontzi kopuruari dagokionez, nahiz eta Gipuzkoa oraindik ere aurretik egon adierazle guztietan; Gipuzkoako baxurako ontzien batez besteko tamaina handiagoa da Bizkaiko portuetako ontziena baino. Hori lotuta dago lurralde bakoitzean gailentzen diren teknikekin: inguraketa eta horrekin lotutako beste batzuk Gipuzkoan –ontzi bakoitzaren dimentsioak askoz handiagoak dira–, eta arte xeheak Bizkaiko portuetan.

**178. koadroa EAEko baxurako ontzidia, modalitatearen arabera, 2021**

| Modalitatea | Unitate kopurua | Potentzia ZP | EGT | Tripulatzaile kopurua |
|---|---|---|---|---|
| – Inguraketa, Beita bizia eta Xaxiangoa/Kazakoa(*) | 46 | 28.510 | 6.362 | 668 |
| – Arte xeheak, Artefaktuak eta Zapo-sarea(*) | 30 | 2.742 | 372 | 78 |
| – Tretza | 9 | 1.131 | 189 | 26 |
| GIPUZKOA, GUZTIRA | 85 | 32.383 | 6.923 | 772 |
| – Inguraketa, Beita bizia eta Xaxiangoa/Kazakoa(*) | 18 | 7.417 | 1.045 | 147 |
| – Arte xeheak, Artefaktuak eta Zapo-sarea(*) | 40 | 5.635 | 1.475 | 144 |
| – Tretza | 11 | 3.424 | 589 | 63 |
| BIZKAIA, GUZTIRA | 69 | 16.476 | 3.109 | 354 |
| **EAE, guztira** | **154** | **48.859** | **10.032** | **1.126** |

*(*): Estatistika-sekretua gordetzeko, artefaktuekin eta zapo-sarearekin aritzen diren ontziak arte xeheen modalitatean sartu dira. Halaber, beita bizia eta xaxiangoa/kazakoa erabiltzen dutenak inguraketaren modalitatean multzokatu dira.*

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.*



LABORAL kutxa

### Baxuran lehorreratutako arrantza

Jarraipeneko datu azkarrenak eta ohikoenak lonjetako enkanteetakoak izaten dira. Datu horiek 6 portu eta 6 espezie nagusitan zentratzen dira, eta enkantean saldutako tona kopuruari eta balio ekonomikoari buruzkoak izaten dira. Aipatu bezala, euskal portuetako ontzi batzuek beste portu batzuetan saltzen dute, eta atzerriko ontzi batzuek EAEko lonjetan saltzen dute. Hori agerian geratu da, bereziki, azken bi urteetan. Izan ere, euskal ontzien antxoa gehiago saldu da Kantauri itsasoko beste lonja batzuetan, EAEko lonjetan baino. Ondorioz, guztizko negozio-zifrak (geroago doitzen direnak) handiagoak dira kasu guztietan. Dena den, enkanteko diru-sarrerak sektorearen osasunaren adierazle nagusiak dira, gutxienez, baxuran. Era berean, bizirauteko oinarri nagusia dira.

Lehenik eta behin, azken hamarkadan lehorreratutako eta lonjetan enkantean espezieen arabera saldutako tona kopuruaren bilakaera aintzat hartuta, ikus dezakegu 2021eko zifra izan zela txikiena, 2020koa baino are baxuagoa, nahiz eta bi ekitaldiei eragin zien antxoaren arazoak. 2021eko ezberdintasuna zera izan zen, horrez gain ohikoa baino baxuagoa izan zela berdelaren kanpaina (hamarkadako 3 baxuenen artean kokatu zen, nahiz eta ez zen izan 2019koa baino askoz ere txikiagoa). Berdela izan ohi da tonaje handieneko arraina, antxoarekin txandakatuz eta, urteren batean, sardinarekin ere bai. Txitxarroa da “bigarren baliabideko” beste arrain bat, berdelaren garai berean arrantzatzen dena, espezie gakoen arrantza-aldietatik kanpo; txitxarroa ere gutxieneko zifretara jaitsi zen 2021ean. Antxoa guztiak euskal lonjetan saldu izan balira ere, 2019ko emaitzaren antzekoa errepikatuko zitekeen berriro ere. 2018an balio “gailurra” eskuratu ondoren, atzerakada oso nabarmena izan zen 2019an.

**35. grafikoa** **Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantzaren balioa (mila €), espezieen eta portuen arabera, 2021**




*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.*

Hegaluzea ari da sektoreari eusten, baina gainerako espezie nagusi guztien arrantza eskasia fase batetik igarotzen ari da, kasu batzuetan eta besteetan prezioak hobeto edo okerrago erantzuten ari diren aintzat hartu gabe. Lonjako diru-sarreren erdia baino gehiago hegaluzeari zegokion 2021ean, bigarren urtez jarraian, eta salmenten emaitza ekonomikoak aurreko urtekoen oso antzekoak izan ziren; berdelaren eta txitxarroaren diru-sarrerak murriztu izana izan zen salbuespen bakarra. Prezioak igo egin ziren, eta horrek leundu egin zuen espezie horien eta multzo osoaren gaineko eragina. Hala, tona kopurua % 15,7 murriztu bazen ere, multzoak enkantean jasotako diru-sarrerak % 4,3 murriztu ziren.

Azterketa hori lurraldeen arabera eginda, normalean berdelak pisu handiagoa izaten du Bizkaian eta hegaluzeak Gipuzkoan. Dena den, 2021ean tona kopurua gehiago jaitsi zen Gipuzkoan; balioari dagokionez, berriz, Bizkaian apur bat igo zen. Azalpena ez da Bizkaian prezioek hobeto erantzun zutela; gainera, batez beste, Gipuzkoan baino gutxiago hazi ziren. Baina Bizkaiak 2020an jasan zuen guztizkoen gaineko kalterik handiena, lurralde horretan askoz handiagoa delako antxoaren arrantzaren eragina eta hura mendebalderago dauden autonomia-erkidegoetako lonjetara pasatu zelako.

Balio ekonomikoa honela banatu zen 2021ean: Getaria (guztizkoaren % 27,5), Ondarroa (% 22,3), Pasaia (% 20,6), Hondarribia (% 18,7) eta Bermeo (% 10,4). Bost portu horietako enkanteek batu zuten EAEko estatistikaren guztizkoaren % 99,5.

**179. koadroa Baxurako ontzidiaren bidez lehorreratutako arrantza, guztira**

| Lurraldea | 2020 | | 2021 | | %∆ 21/20 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Tm | (m euro) | Tm | (m euro) | Tm | (m euro) |
| Gipuzkoa | 20.659 | 41.476 | 16.449 | 38.758 | 2,3 | -6,6 |
| Bizkaia | 14.411 | 19.153 | 13.132 | 19.261 | 44,7 | 0,6 |
| EAE | 35.071 | 60.629 | 29.581 | 58.019 | 19,8 | -4,3 |

*Oharra: Kofradietako salmentak.*
*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.*

Getarian beste portu batzuetan baino apalagoa izan zen jaitsiera. Izan ere, azken hamarkadetan portu horretan izan du pisu erlatiborik handiena hegaluzeak, eta espezie horren zifrak ongi mantentzen ari dira. Hondarribiaren arrantzaren egitura antzekoa da. Harekin alderatuta, Getariako lonjan gutxiago egin zuen behera berdelaren tonajeak eta, batez ere, hegaluzearen tonajea igo zen. Hondarribian, berriz, askoz gehiago jaitsi zen lehena, eta apur bat bigarrena. Azken 5 urteetako jaitsiera orokorra geroago jasan du Hondarribiak.

Ondarroan espezieen mixa erabat ezberdina izan zen eta jaitsiera handia 2019an gertatu zen. Hemen hegaluzearen pisua txikia izan ohi da normalean, Gipuzkoako portu handietan ez bezala. Hala, argi eta garbi, antxoaren jaitsiera izan zen aurreko urteetan zifrak nabarmen kaltetu zituena. 2021ean, berriz, apur bat suspertu zen Euskadin lehorreratutako antxoaren tona kopurua, eta pixka bat berreskuratu zen guztizko balioa.

Pasaian, baxurako negozioak lonjako enkanteetan lortutako diru-sarreren erdia baino gehiago "gainerako espezieak" atalari zegokion. Legatza lonjako enkanteetatik kanpo bideratu ohi da, bereziki, 2014az geroztik. Gero, haren ordez, berdela eta sardina joan ziren pisu handiagoa hartzen, baina jaisten joan dira eta, horiekin batera, guztizko tonajea. Dena den, gainerako espezieen multzoak prezioen irteera ona izan zuen eta, horri esker, ia berdindu egin zen 2020ko emaitza. Hala ere, berdelaren eta antxoaren beherakada handia, urte horretatik zetorrena, finkatu egin zen.

Bermeon berdelaren nagusitasuna argia da tona kopuruari dagokionez eta 2021ean, aipatu dugun moduan, behera egin zuen espezie horrek. Baina, aldi berean, portu horretan suspertu egin zen antxoaren zifra –baina Ondarroan baino askoz ere gutxiago–. Azken portu horretan ez bezala, hegaluzearen pisua trinkoa da, herri honetan jarduten duen alturako hegaluzeen negozioaren babesean.

2021ean, Lekeitiori atxikitako ontzien artean gertatu zen jaitsierarik handiena. Hala, aurreko urteko tona kopuruaren bosten batekin geratu ziren. Era berean, aurreko urteko balioaren % 70 baino gehiago eskuratu zuten, berdelak beherakada handia izan zuelako eta aurreko urtean herri honetako ontziei lotzen zitzaizkien hegaluzeagatiko diru-sarrerak ia desagertu egin zirelako. Dena den, Lekeitioko portuan ohikoa da irregulartasuna aditzera ematen duten datuak agertzea, beste portu batzuen (hala nola Ondarroa edo Bermeo) osagarri gisa aritzen delako negozio batzuetan, edo bertako lonja beste jarduera tronkal batzuetara bideratuta dagoelako, euskal ontzien baxurako arrantzaren salmentaz gain.

**180. koadroa Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantza osoa, portuen arabera, 2021**

*(Tm)*

| Kontzeptua | Guztira | % | Espezie nagusiak | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Antxoa | Hegaluzea | Txitxarroa | Legatza[1] | Sardina | Berdela [2] | Beste batzuk[3] |
| – Hondarribia | 4.687 | 15,8 | 272 | 2.546 | 0,6 | 6 | 365 | 1.221 | 277 |
| – Pasaia | 4.586 | 15,5 | 45 | 242 | 91 | 390 | 1.291 | 1.303 | 1.225 |
| – Getaria | 7.176 | 24,3 | 1.031 | 3.523 | 14 | 0,0 | 979 | 1.419 | 211 |
| – Ondarroa | 9.942 | 33,6 | 1.822 | 894 | 704 | 19 | 2.923 | 2.554 | 1.027 |
| – Lekeitio | 105 | 0,4 | 0 | 0,2 | 0,2 | 4 | 0 | 84 | 17 |
| – Bermeo | 3.059 | 10,3 | 369 | 937 | 21 | 52 | 12 | 1.578 | 90 |
| – Bizkaiko beste batzuk | 26 | 0,1 | 1 | 1 | 2 | 5 | 0 | 5 | 11 |
| GIPUZKOA, GUZTIRA | 16.449 | 55,6 | 1.348 | 6.311 | 105 | 397 | 2.634 | 3.943 | 1.713 |
| BIZKAIA, GUZTIRA | 13.132 | 44,4 | 2.192 | 1.832 | 727 | 80 | 2.935 | 4.221 | 1.145 |
| **EUSKAL HERRIA, GUZTIRA** | **29.581** | **100,0** | **3.540** | **8.142** | **832** | **477** | **5.567** | **8.163** | **2.858** |
| *Gipuzkoako %* | | | *8,2* | *38,4* | *0,6* | *2,4* | *16,0* | *24* | *10,4* |
| *Bizkaiko %* | | | *16,7* | *14,0* | *5,5* | *0,6* | *22,3* | *32,1* | *8,7* |
| *Euskal Herriko %* | | | *12,0* | *27,5* | *2,8* | *1,6* | *18,8* | *27,6* | *9,7* |

*(1): Legatza, merlenka eta tarteko legatza sartzen dira hemen.*
*(2): Berdela eta betaundia sartzen dira hemen.*
*(3): Barne hartzen ditu hegalaburra eta gainerako espezieak.*
*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.*

Datu multzo hau era gurutzatuan aztertuz gero, espezieen arabera, ikus daiteke 2021ean Ondarroa izan zela berriz ere tona kopuru handiena hartu zuen portua, Getariaren aurretik, arrantza-aldi horren urte onetan ohikoa izaten zen moduan. Dena den, esan dugun moduan, ez dakigu nola gertatuko den normaltasunerako itzulera, eta posible da aldaketa biologikoen edo klimatikoen ondorioz arrainak Euskaditik kanpoko portuetan enkantean jartzearen joera finkatzea. Hain zuzen ere, fase batzuetan Euskadiren arrantza eremuaren itxiera dekretatzera iritsi ziren antxoaren arrantzari dagokionez, Bizkaiko golkoaren hondoan ale txikiegiak zeudelako; mendebalderago, hori ez zen hainbeste gertatu. Aitzitik, hegaluzearen pisuaren banaketa oso egonkor mantendu zen eta amaierako zifra aurreko 4 urteetakoen antzekoa izan zen. Getaria kokatu zen buruan, apur bat atzerago Pasaia eta distantzia handira Bermeo.

Txitxarroaren kasuan, Ondarroa kokatu zen buruan eta, neurri batean, eutsi egin zion jaitsierari. Dena den, Pasaiako zatia hobeto mantendu zen, eta ia ezerezean geratu ziren Getaria eta Hondarribia. Beste urte batzuetan ere gertatu zen hori, bi portu horiek txitxarrorik ez arrantzatzea erabaki baitzuten, beste espezie batzuen ordezkoa delako, nolabait.



LABORAL kutxa

Lonjan enkantean saltzen den legatza orain dela 10 urte baino 7 aldiz zifra baxuagoetan kokatu zen, eta Pasaian zentratuta jarraitu zuen; Ondarroaren eta Bermeoren ekarpenek nolabaiteko garrantzia zuten duela bost urte, baina orain murriztuta geratu dira.

**181. koadroa Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantzaren balioa, portuen arabera, 2021**

*(m euro)*

| Kontzeptua | Guztira | % | Espezie nagusiak | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Antxoa | Hegaluzea | Txitxarroa | Legatza[1] | Sardina | Berdela[2] | Beste batzuk[3] |
| – Hondarribia | 10.821 | 18,7 | 151 | 9.029 | 0,3 | 33 | 235 | 1.167 | 206 |
| – Pasaia | 11.953 | 20,6 | 36 | 875 | 113 | 1.692 | 1.292 | 1.556 | 6.389 |
| – Getaria | 15.984 | 27,5 | 981 | 12.599 | 13 | 0,5 | 692 | 1.414 | 285 |
| – Ondarroa | 12.958 | 22,3 | 1.868 | 3.264 | 875 | 88 | 2.406 | 3.008 | 1.449 |
| – Lekeitio | 167 | 0,3 | 0,0 | 0,8 | 0,1 | 11 | 0 | 75 | 80 |
| – Bermeo | 6.006 | 10,4 | 280 | 3.300 | 18 | 283 | 11 | 1.589 | 525 |
| – Bizkaiko beste batzuk | 130 | 0,2 | 2 | 3 | 2 | 23 | 0 | 8 | 92 |
| GIPUZKOA, GUZTIRA | 38.758 | 66,8 | 1.168 | 22.503 | 126 | 1.725 | 2.219 | 4.137 | 6.880 |
| BIZKAIA, GUZTIRA | 19.261 | 33,2 | 2.150 | 6.568 | 895 | 405 | 2.417 | 4.680 | 2.146 |
| **EUSKAL HERRIA, GUZTIRA** | **58.019** | **100,0** | **3.318** | **29.071** | **1.021** | **2.130** | **4.636** | **8.817** | **9.026** |
| *Gipuzkoako %* | | | *3,0* | *58,1* | *0,3* | *4,5* | *5,7* | *10,7* | *17,8* |
| *Bizkaiko %* | | | *11,2* | *34,1* | *4,6* | *2,1* | *12,5* | *24,3* | *11,1* |
| *Euskal Herriko %* | | | *5,7* | *50,1* | *1,8* | *3,7* | *8,0* | *15,2* | *15,6* |

*(1): Legatza, merlenka eta tarteko legatza sartzen dira hemen.*
*(2): Berdela eta betaundia sartzen dira hemen.*
*(3): Barne hartzen ditu hegalaburra eta gainerako espezieak.*
*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.*

Sardina behera egiten joan da; hala, 2012an ia 4 aldiz handiagoak ziren espezie horri zegozkion zifrak. Txitxarroaren kasuan aipatu dugunaren nahiko antzekoa da patroia: Ondarroan dezente mantendu zen, Pasaia bigarren lekuan kokatu zen, eta Hondarribian eta Getarian asko jaitsi zen 2016az geroztik. Antzeko zerbait gertatu zen "gainerako espezieak" atalean, baina kasu honetan Pasaia kokatu zen Ondarroaren aurretik.

Berdelaren banaketa berdinagoa izan zen 5 portu nagusien artean. Portu horiek txandakatzen joaten dira espezie honen arrantza handienari dagokionez, eta 2021ean Ondarroa gailendu zen. Normalean, negozioa "osatzeko" erabiltzen da. Ondorioz, tona kopurua irregularra izaten da urtetik urtera, baita portu bakoitzaren kuota ere. Gainera, 2021ean bereziki baxua izan zen. Dena den, Ondarroak eta Pasaiak, berriz ere, emaitzak hobeak izan zituzten Hondarribiak, Bermeok eta Getariak baino.

Hamarkada osoari begiratuta, tona kopuruari dagokionez Ondarroa dago buruan, baina 2018an enkantean saldutako tona kopuruaren erdia galdu du. Getaria da bigarren portua, balioari zein pisuari dagokienez, eta haren jaitsiera motelagoa izan da; 2012 eskuratutako tona kopuruaren erdira iritsi zen 2021ean. Hirugarren portuak, Hondarribiak, orain dela hamar urte baino zifra apur bat baxuagoak eskuratu zituen. Antzeko zerbait pasatu zen Pasaian, eta bietan beherakada igartzen da 2018az geroztik, baina ez aurreko beste bi portuetan bezain bortitza. Baxurako arrantzan hamarkada honetan zehar goranzko joera oso apala izan duen portu bakarra Bermeokoa izan da.

Balioari dagokionez, Getaria Ondarroaren aurretik kokatu zen azkenean, azken horren jaitsiera izan baitzen bortitzena 2017 eta 2020 artean, nahiz eta 2021ean apur bat gora egin. Bizkaiko ekialdeko portuak Hondarribiaren eta Pasaiaren antzeko zifrak eskuratu zituen; azken bi horiek hamarkadaren hasierako antzeko mailan mantendu ziren. Baina horiek ere joan dira behera egiten; lehena, 2017az geroztik eta, bigarrena, 2019az geroztik. Hondarribia bigarren postutik laugarrenera pasatu zen 2021ean. Bermeo hamarkadako batez besteko balioa baino apur bat gorago kokatu zen, baina urrunago eta aurreko 4ren atzetik.

Euroei eta tona kopuruari buruzko datu horietatik abiatuta, prezioak eskuratzen dira. Prezioekin lotuta, gaur egun, espezieak 3 multzotan bana daitezke. Lehenengo multzoan legatza egongo litzateke, posiziorik gorenean; 9 urtetan 2 eurotik 5,3 euro ingurura igo zen kiloaren prezioa, eta 2021ean 4,5era jaitsi zen. Bigarren multzoan hegaluzea eta "beste batzuk" egongo lirateke, kiloko 3 eta 4 euro arteko prezioekin; hegaluzearen prezioa egonkorragoa da. Eta, hirugarren multzoan, berdela, txitxarroa eta sardina leudeke, kiloko 1 euro inguruko prezioarekin; multzo honi antxoa batu zaio, etengabeko beherakadaren ondorioz, eskaintza gehiago kontzentratzen ari delako denboran eta arraina ez delako behar adina garatzen. "Gainerako espezieak" atalak produktuen nahasketa ezberdina izan ohi du Gipuzkoan eta Bizkaian. Izan ere, Gipuzkoan, batez besteko prezioa 4 euro ingurukoa izan da azken hamarkadan zehar eta, Bizkaian, ia ez da 2 eurora iristen. Hori da prezioen alde nagusia, lonjak lurraldeka banatuz gero.

**182. koadroa Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldien bilakaera**

| Kontzeptua | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Antxoa** | | | | | |
| – Lehorreratzeak (Tm) | 16.754 | 15.112 | 13.285 | 2.584 | 3.540 |
| – Batez besteko prezioa (euro/kg) | 1,62 | 1,29 | 1,30 | 1,13 | 0,94 |
| – Balioa (mila euro) | 27.059 | 19.427 | 17.231 | 2.918 | 3.318 |
| **Hegaluzea** | | | | | |
| – Lehorreratzeak (Tm) | 6.322 | 8.448 | 7.969 | 7.924 | 8.142 |
| – Batez besteko prezioa (euro/kg) | 3,97 | 3,58 | 3,51 | 3,61 | 3,57 |
| – Balioa (mila euro) | 25.082 | 30.282 | 27.944 | 28.619 | 29.071 |

*Oharra: Kofradietako salmentak.*
*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.*

Baxurako arrantzaren ardatza izan ohi diren bi kanpainak edo arrantza-aldiak alderatuta, argi ikusten da antxoaren egoera berezia, dagoeneko aipatu duguna; izan ere, euskal ontzien lehorreratze eta enkante asko kanpoko portuetara lekualdatu dira. 2021ean, hegaluzearen kasuan bezala, tona kopurua eta balioa apur bat suspertu ziren, eta prezioak behera egin zuen. Arrantza-aldien kontrolak eta kuotak gero eta zorrotzagoak dira, baina aurreko urteetan egoera okerragoa izan zen, hain zuzen ere, urtetan zehar ez zelako izan beharrezko kontrol biologikorik, eta debekualdi edo murrizketa gogorrak behar izan ziren.

Hamarkadaren testuinguruan, 2014an hegaluzearen pisuak behea jo zuen enkanteetan, eta kofradien balio ekonomikoaren % 15 bakarrik egokitu zitzaion. 2021ean, aitzitik, % 50eko langa gainditu zuen eta mendekotasun handia sortu. Arrain hau gabe, azpisektore osoa ia bideraezina izango litzateke bere osotasunean, nahiz eta portu batzuetan ia ez duten hegaluzerik arrantzatzen, hala nola Pasaian.

Bi arrain horien murrizketa-faseak igarotakoan, bilakaera oso ezberdina izan zen. Batetik, hegaluzea arrantzatzea errazagoa delako, hegoalderago dagoelako. Eta, bestetik, antxoa (hegaluzearen harrapakina) gure eremuan, urtearen zati luze batean zehar, ez delako behar adina garatuta egoten; hala, kontserba-industriek eskatzen dituzten estandarretatik behera egoten dira sarritan. Bestalde, antxoaren diru-sarrerek goia jo zuten 2013an eta % 35etik gertu kokatu ziren; ezohiko egoera berri honetan, berriz, % 6 inguruan kokatu dira. Berdelaren eta "beste batzuk" multzoaren pisua % 10 eta % 20 artean mugitu da azken hamarkadan zehar, eta aipatutako gainerako espezieak, gaur egun, % 10aren azpitik daude. Dena den, urte puntualen batean, esaterako, 2014an, garrantzi handieneko bigarren arraina izatera iritsi zen sardina.

**36. grafikoa Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldiak**







*Oharra: Kofradietako salmentak.*

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.*

## 5.3. ALTURAKO ARRANTZA

Esan bezala, aurreko ataletan aztertutako datuak euskal lonjetan enkantean saldutako euskal ontzien baxurako arrantzari buruzkoak dira. 2020an 60 milioi euro baino zerbait gehiago zegokien horiei, eta beste salmenta-kanal posible batzuk batuta, guztizko diru-sarrerak 78,5 milioi eurokoak izan ziren ekitaldi horretan eta azpisektore horrentzat. Baina hori euskal arrantzaren salmenten % 20,2 baino ez da. Izan ere, urte horretan, beste % 6,2 freskoko alturako arrantzak eman zuen –legatza eta beste espezie batzuetara bideratuta, eta Ondarroan zentratuta–, eta % 73,6 altura handiak –Bermeon zentratutako atunontzi izoztaileek eta Pasaian amarratutako bakailao-ontzi urriek osatua–. Faktoreen kostuaren araberako Balio Erantsi Gordinari dagokionez, baxurari % 29,9 zegokion, freskoko alturari % 8,6 eta altura handiari % 61,4. Alturako arrantzak garrantzia izan arren, urteko jarraipen estatistikoa egitea zailagoa da, datuak atzerapenarekin argitaratzen direlako.

Baxurako arrantzaren kasuan, 2021ean 3 ontzi gutxiago zeuden, 149, baina langile kopurua hazi egin zen (17 pertsona gehiago) eta neurri-adierazleek ere gora egin zuten. Alturan, aldiz, ontzi kopuru bera mantendu zen eta ez zen ordezkapenik egin, 2020ko magnitude tekniko berdinak mantendu zirela ikusita, baina 4 langile gutxiago zeuden altura handian, eta 1 gehiago freskoko alturan. 2020ko egoera oso ezberdina izan zen, 66 langile galdu baitzituen altura handiak, eta 3 freskoko alturak.

Alturako tripulatzaile kopurua txikiagoa izan arren (ia baxurako kopurura heldu zen 2019an, baina apur bat jaitsi da), alturako arrantzak baxurakoa bikoizten du adierazle hauei dagokienez: potentzia, ontzien tonajea, harrapaketak eta salmentak. Izan ere, distantzia handira mugitu behar dute, batez ere, hegaluze handiak arrantzatzeko. Atlantikoan hegaluzea edo atunzuria arrantzatzen dute, batez ere. Izan ere, hegalaburraren arrantza mugatuta dago, berreskuratzeko. Gainerako atun-espezieak (atun argia, atuntxikia eta atun moja) arrantzatzeko, berriz, beste eremu ozeaniko batzuetara mugitu behar dute, hala nola Indiako Ozeanora.

**183. koadroa Euskal Herriko alturako ontzidiaren egitura, 2021**

| | Unitate kopurua | Potentzia ZP | EGT | Tripulatzaile kopurua |
|---|---|---|---|---|
| - Altura handia - atunontzi izoztaileak | 26 | 134.176 | 49.980 | 750 (*) |
| - Altura handia - bakailao-ontziak | 2 | 3.805 | 1.650 | (*) |
| - Altura handia, guztira | 28 | 137.981 | 51.629 | 750 |
| - Freskoko altura | 16 | 9.359 | 3.437 | 197 |
| **Altura, guztira** | **44** | **147.340** | **55.066** | **947** |

*(*): Estatistika-sekretua gordetzeko, 2 bakailao-ontzien datua eta atunontzi izoztaileen datua freskoko altura handiaren guztizkoan sartu dira.*

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.*




# 5. ZERBITZUAK

# 1. IKUSPEGI OROKORRA

2021ean % 5,1 hazi zen Estatuko BPGa. Testuinguru horretan, EAEn % 5,6 eta Nafarroan % 5,9 egin zuen gora.

Zerbitzuen sektorea bere osotasunean aintzat hartuta, 2021ean % 5 hazi zen EAEn, % 6,1 Foru Erkidegoan eta % 6 Estatuan (aurreko ekitaldian, -% 9, -% 7,9 eta -% 11,5eko jaitsierak, hurrenez hurren).

Horretara iritsita, txosten honen aurreko edizioetan bezala, komeni da gogora ekartzea sektorearen heterogeneotasunak zaildu egiten duela sektore osoa batera aztertzea. Hala ere, enplegua da adierazle egonkorrenetako bat. Horrekin lotuta, aipatzekoa da 2021ean hirugarren sektoreko okupazio-tasa % 0,5 igo zela EAEn, % 0,1 Nafarroan (% 0,4 Euskal Herri osoan) eta % 3,3 Estatuan.

# 2. HEZKUNTZA

## 2.1. UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN IKASLEEN BILAKAERA

2021/2022 ikasturtean unibertsitatekoak ez diren ikasleak apur bat murriztu ziren (-% 0,8) Euskal Herrian. Hala, 479.905 ikasle zenbatu ziren guztira, aurreko ikasturtean baino 3.945 gutxiago. Haur Hezkuntzako ikasleen jaitsiera (-% 2,7) finkatu egin zen, jaiotza kopurua murriztu izanaren ondorioz. Eta beheranzko joera hori Lehen Hezkuntzara ere igaro zen (-% 1,6). Goragoko hezkuntza mailei dagokienez, Batxilergoko matrikulazioa apur bat jaitsi zen (-% 0,3). Aldiz, gora egin zuten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) matrikulazioak eta, neurri handiagoan, Lanbide Heziketakoak, % 0,4 eta % 2,2ko hazkundeekin, hurrenez hurren.

### Haur Hezkuntza

Haur Hezkuntza aztertuz hasiko gara. 2021/2022 ikasturtean 98.232 ikasle matrikulatu ziren guztira, aurreko ikasturtean baino 2.768 ikasle gutxiago. Lehenengo aldiz, 100.000 ikasletik behera kokatu zen zifra hori. Beheranzko bilakaera hori (-% 2,7) sare publikoan eta, batez ere, pribatuan gertatu zen (-% 1,8 eta -% 3,9). Azken horren partaidetzak okerrera egin zuen Haur Hezkuntzako ikastetxeen mapan (% 43,5, eta ikastetxe publikoek % 56,5).

**184. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Haur Hezkuntza**

| Eremua | 2020/2021 ikasturtea | | | 2021/2022 ikasturtea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoa | Pribatua | Guztira | Publikoa | Pribatua | Guztira |
| Araba | 7.909 | 5.083 | 12.992 | 7.715 | 4.782 | 12.497 |
| Bizkaia | 19.381 | 19.307 | 38.688 | 18.812 | 18.502 | 37.314 |
| Gipuzkoa | 13.716 | 12.649 | 26.365 | 13.387 | 12.125 | 25.512 |
| EAE | 41.006 | 37.039 | 78.045 | 39.914 | 35.409 | 75.323 |
| Nafarroa | 15.502 | 7.453 | 22.955 | 15.564 | 7.345 | 22.909 |
| Euskal Herria | 56.508 | 44.492 | 101.000 | 55.478 | 42.754 | 98.232 |

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Informazioa eremu geografikoen arabera aztertuta, hiru Lurralde Historikoek portaera-patroi bera izan zuten, eta matrikulazioek behera egin zuten gradualki. Zehazki, Bizkaian, % 3,6 jaitsi zen Haur Hezkuntzako ikasle kopurua; ikastetxe pribatuetan (-% 4,2) zein publikoetan (-% 2,9) egin zuen behera. Bi sareek ikasle kopuru oso antzekoa zuten. Gipuzkoan joera bera gailendu zen (-% 3,2), eta ikasle kopuruak behera egin zuen sare publikoan (-% 2,4; % 52,5eko pisu espezifikoa) zein pribatuan (-% 4,1; % 47,5eko partaidetza).

Diagnostiko bera eginez, Arabaren kasuan, Haur Hezkuntzako ikasleak murriztu egin ziren (-% 3,8). Jaitsiera handiagoa izan zen sare pribatuan, publikoan baino (-% 5,9 eta -% 2,5, hurrenez hurren). 10 ikasletik 6k ikastetxe publikoa aukeratu zuten. Nafarroan ikastetxe publikoek lortu zuten matrikulazioen bolumena mantentzea (+% 0,4), baina sare pribatuan % 1,4 murriztu ziren matrikulazioak. Hala, nahiz eta ikasle gehienak sare publikoan matrikulatu (% 67,9), ikasturteak balantze negatiboa izan zuen Foru Erkidegoan (-% 0,2).

Ondorioz, 2021/2022 ikasturtean Haur Hezkuntzan 75.323 ikasle zeuden guztira EAEn, aurreko ikasturtean baino 2.722 gutxiago. Nafarroako Foru Erkidegoan 22.909 ikasle zeuden hezkuntza maila honetan, 2020/2021 ikasturtean baino 46 gutxiago.

**185. koadroa Euskalduntze maila Haur Hezkuntza**

*(%)*

| Eremua | 2020/2021 ikasturtea | | | | | 2021/2022 ikasturtea | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A | B | D | X | Guztira | A | B | D | X | Guztira |
| Araba | 2,9 | 28,7 | 68,3 | 0,0 | 100 | 2,8 | 27,3 | 69,9 | 0,0 | 100 |
| Bizkaia | 2,3 | 19,9 | 76,9 | 1,0 | 100 | 1,7 | 19,5 | 77,8 | 1,0 | 100 |
| Gipuzkoa | 2,0 | 3,0 | 95,0 | 0,0 | 100 | 1,9 | 3,0 | 95,1 | 0,0 | 100 |
| EAE | 2,3 | 15,6 | 81,6 | 0,5 | 100 | 1,9 | 15,2 | 82,4 | 0,5 | 100 |
| Nafarroa* | 16,4 | 0,8 | 28,2 | 54,5 | 100 | 15,6 | 1,3 | 27,0 | 56,1 | 100 |
| Euskal Herria | 5,5 | 12,3 | 69,5 | 12,7 | 100 | 5,1 | 12,0 | 69,4 | 13,5 | 100 |
| Pribatua | 5,2 | 25,7 | 56,6 | 12,5 | 100 | 4,6 | 25,4 | 57,1 | 13,0 | 100 |
| Publikoa | 5,8 | 1,7 | 79,5 | 13,0 | 100 | 5,5 | 1,6 | 79,0 | 13,9 | 100 |

*Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren araberako ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.*
*A: eredu honetan gaztelania da irakaskuntzarako hizkuntza, Euskara eta Literatura ikasgaian izan ezik.*
*B: Irakaskuntza elebiduna.*
*D: eredu honetan euskara da irakaskuntzarako hizkuntza, Gaztelania eta Literatura ikasgaian izan ezik.*
*X: Euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntza.*
*(*): Nafarroaren kasuan, euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntzari ofizialki G deitzen zaio.*
*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Hezkuntza-ereduen araberako ikasleen banaketari dagokionez, ez zen aldaketa handirik hauteman aurreko ikasturteekin alderatuta. Hala, hiru Lurralde Historikoetan D eredua (eredu honetan euskara da irakaskuntzarako hizkuntza, Gaztelania eta Literatura ikasgaian izan ezik) gailentzen da Haur Hezkuntzako ikasleen artean. Zehazki, Bizkaian, ikasle gehienak D ereduan matrikulatu ziren (% 77,8); hurrengoa B eredua (irakaskuntza elebiduna) izan zen, % 19,5eko partaidetzarekin; eta A ereduak (eredu honetan gaztelania da irakaskuntzarako hizkuntza, Euskara eta Literatura ikasgaian izan ezik) eta X ereduak (euskararekin inolako harremanik ez duen irakaskuntza) ez zuten ia ordezkaritzarik izan (% 1,7 eta % 1, hurrenez hurren).

Gipuzkoan, D ereduak historiako gehieneko balioak eskuratu zituen ia (matrikulazioen % 95,1), ordezkaritza txikia duten gainerako ereduen kaltetan.

Araban, D ereduaren partaidetza ia % 70ekoa izan zen, B ereduaren pisu erlatiboa % 27,3koa zen eta A ereduaren presentzia oso txikia izan zen (% 2,8). Aitzitik, Nafarroako agertokia erabat ezberdina izan zen. Ikasleen % 56,1ek X ereduan ikasten zuten, % 27k D ereduan, % 15,6k A ereduan eta, azkenik, B ereduan oso gutxik, % 1,3k.

Hala, EAEko euskalduntze maila (D eredua gehi B eredua) % 97,6koa izan zen eta, Nafarroakoa, baxuagoa, % 28,3koa. Ondorioz, Euskal Herri osoko euskalduntze maila % 81,4koa izan zen.

### Lehen Hezkuntza

Azterketarekin jarraituz eta Lehen Hezkuntzako matrikulazioari dagokionez, Euskal Herrian 168.326 ikasle matrikulatu ziren azken ikasturtean, hau da, aurrekoan baino 2.721 ikasle gutxiago (-% 1,6). Ikasleen banaketari dagokionez, sare publikoaren pisu erlatiboa apur bat handiagoa izan zen ikastetxe pribatuena baino (% 55,4 eta % 44,6).

**186. koadroa** **Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Lehen Hezkuntza**

| Eremua | 2020/2021 ikasturtea | | | 2021/2022 ikasturtea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoa | Pribatua | Guztira | Publikoa | Pribatua | Guztira |
| Araba | 12.720 | 8.331 | 21.051 | 12.533 | 8.372 | 20.905 |
| Bizkaia | 31.810 | 32.533 | 64.343 | 31.302 | 31.770 | 63.072 |
| Gipuzkoa | 21.917 | 20.920 | 42.837 | 21.387 | 20.469 | 41.856 |
| EAE | 66.447 | 61.784 | 128.231 | 65.222 | 60.611 | 125.833 |
| Nafarroa | 28.271 | 14.545 | 42.816 | 28.040 | 14.453 | 42.493 |
| Euskal Herria | 94.718 | 76.329 | 171.047 | 93.262 | 75.064 | 168.326 |

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Lurraldeko datuei dagokienez, lurralde guztietan egin zuen behera Lehen Hezkuntzako ikasle kopuruak. Matrikulazio kopuruak Araban izan zuen jaitsierarik txikiena (-% 0,7). Zehazki, sare publikoan (10 ikasletik 6 dagozkio) behera egin zuten matrikulazioek (-% 1,5). Sare pribatuan, aldiz, igoera oso txikia izan zuten (+% 0,5), eta ez zen nahikoa izan ikasturtea emaitza positiboarekin amaitzeko. Gipuzkoan, bestetik, sare pribatuak (-% 2,2) eta publikoak (-% 2,4) antzeko jaitsierak izan zituzten matrikula kopuruari dagokionez; lurralde honetan sare publikoaren pisua apur bat handiagoa da pribatuarena baino, ikasle kopuruari dagokionez (% 51,1 eta % 48,9).

Bizkaian, sarearen araberako banaketa nahiko antzekoa da (% 50,4 pribatuan eta % 49,6 publikoan), eta bat egin zuen joera nagusiarekin: ikasle kopuruak behera egin zuen ikastetxe pribatuetan (-% 2,3) zein publikoetan (-% 1,6).

Nafarroan, Lehen Hezkuntzako ikasleen % 66 irakaskuntza publikoan daude matrikulatuta. Kasu honetan ere behera egin zuen ikasle kopuruak, baina jaitsiera ia hautemanezina izan zen (-% 0,8 eta -% 0,6 sare publikoan eta pribatuan, hurrenez hurren).

**187. koadroa Euskalduntze maila Lehen Hezkuntza**

*(%)*

| Eremua | 2020/2021 ikasturtea | | | | | 2021/2022 ikasturtea | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A | B | D | X | Guztira | A | B | D | X | Guztira |
| Araba | 4,7 | 33,7 | 61,6 | 0,0 | 100 | 4,4 | 32,6 | 62,9 | 0,0 | 100 |
| Bizkaia | 3,4 | 23,6 | 71,4 | 1,6 | 100 | 3,2 | 22,4 | 72,8 | 1,6 | 100 |
| Gipuzkoa | 2,5 | 5,5 | 92,0 | 0,0 | 100 | 2,5 | 4,8 | 92,7 | 0,0 | 100 |
| EAE | 3,3 | 19,2 | 76,7 | 0,8 | 100 | 3,2 | 18,3 | 77,8 | 0,8 | 100 |
| Nafarroa | 19,1 | 0,2 | 26,2 | 54,5 | 100 | 19,0 | 0,2 | 26,3 | 54,4 | 100 |
| Euskal Herria | 7,2 | 14,5 | 64,1 | 14,2 | 100 | 7,2 | 13,7 | 64,8 | 14,4 | 100 |
| Pribatua | 7,1 | 28,7 | 50,2 | 14,0 | 100 | 7,0 | 27,9 | 51,0 | 14,1 | 100 |
| Publikoa | 7,4 | 3,0 | 75,2 | 14,4 | 100 | 7,3 | 2,3 | 75,9 | 14,5 | 100 |

*Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren araberako ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Lehen Hezkuntzako euskalduntze mailari dagokionez, aurreko ikasturteetan bezala, hazi egin zen D ereduan ikasten zuten ikasleen kopurua. Gora egin zuen eredu bakarra izan zen. Hain zuzen ere, Gipuzkoan ikasleen % 92,7k aukeratu zuten D eredua, % 4,8k B eredua eta % 2,5ek A eredua. Bizkaian, D ereduaren bilakaera antzekoa izan zen; ikasleen % 72,8k aukeratu zuten, eta B eredua (% 22,4) eta A eredua (% 3,2) izan ziren hurrengoak. Araban ere gora egin zuen D ereduak (% 62,9). B (% 32,6) eta A (% 4,4) ereduek, berriz, pisua galtzen jarraitu zuten. Nafarroako Foru Erkidegoko mapa linguistikoa oso ezberdina izan zen. X eredua kokatu zen buruan (% 54,4), ondoren D eredua (% 26,3), gero A eredua (% 19) eta, azkenik, B eredua, oso-oso pisu txikiarekin (% 0,2).

Hala, % 96,1ekoa izan zen EAEko euskalduntze-tasa, eta % 26,5ekoa baino ez Nafarroakoa. Lurralde guztiak kontuan izanda, Euskal Herriak % 78,5eko euskalduntze -tasa izan zuen.

### Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari (DBH) dagokion informazioa aztertuko dugu jarraian. 2021/2022 ikasturtean Euskal Herrian 116.271 ikasle matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean baino 510 gehiago. Testuinguru horretan, sare publikoak matrikulazio kopurua igotzea lortu zuen (+% 1,5), eta sare pribatuak ikasleak galdu zituen (-% 0,6). Hala, ikasleen banaketak oso orekatua izaten jarraitu zuen, nahiz eta zertxobait altuagoa izan sare publikoan (% 50,7).

**188. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. DBH**

| Eremua | 2020/2021 ikasturtea | | | 2021/2022 ikasturtea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoa | Pribatua | Guztira | Publikoa | Pribatua | Guztira |
| Araba | 6.740 | 6.858 | 13.598 | 6.849 | 6.863 | 13.712 |
| Bizkaia | 19.509 | 24.097 | 43.606 | 19.553 | 23.838 | 43.391 |
| Gipuzkoa | 14.593 | 15.613 | 30.206 | 14.741 | 15.492 | 30.233 |
| EAE | 40.842 | 46.568 | 87.410 | 41.143 | 46.193 | 87.336 |
| Nafarroa | 17.294 | 11.057 | 28.351 | 17.847 | 11.088 | 28.935 |
| Euskal Herria | 58.136 | 57.625 | 115.761 | 58.990 | 57.281 | 116.271 |

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Bestalde, datuek erakusten dutenez, hiru Lurralde Historikoetan pisu apur bat handiagoa du irakaskuntza pribatuak (ikasleen % 50,1, % 51,2 eta % 54,9 Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian, hurrenez hurren). Nafarroan, berriz, ikastetxe publikoek DBHko ikasle gehiago jasotzen dituzte (% 61,7 publikoek eta % 38,3 pribatuek). Ikasleen bilakaera ezberdina izan zen eremu geografikoaren eta sarearen arabera. Hala, Gipuzkoan eta Bizkaian matrikulazioek gora egin zuten sare publikoan (+% 1,0 eta +% 0,2, hurrenez hurren). Sare pribatuan, berriz, apur bat jaitsi ziren (-% 0,8 eta -% 1,1, hurrenez hurren). Araban eta Nafarroan, aitzitik, bi sareetan hazi zen matrikulazioen bolumena, baina sare publikoan gehiago (+% 1,6 eta +% 3,2, hurrenez hurren); sare pribatuko bilakaera apalagoa izan zen (+% 0,1 eta +% 0,3, hurrenez hurren).

Hala, EAEn, DBHn matrikulatutako ikasleen kopuruak behera egin zuen pixka bat, 87.336 ikaslera arte, hau da, aurreko ikasturtean baino 74 gutxiago. Nafarroan, berriz, 28.935 ikasle zenbatu ziren, 2020/2021 ikasturtean baino 584 ikasle gehiago.



LABORAL kutxa

**189. koadroa Euskalduntze maila DBH**

(%)

| Eremua | 2020/2021 ikasturtea | | | | | 2021/2022 ikasturtea | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A | B | D | X | Guztira | A | B | D | X | Guztira |
| Araba | 12,2 | 35,0 | 52,8 | 0,0 | 100 | 11,7 | 34,2 | 54,0 | 0,0 | 100 |
| Bizkaia | 6,8 | 26,5 | 65,4 | 1,3 | 100 | 6,4 | 26,2 | 66,1 | 1,3 | 100 |
| Gipuzkoa | 2,6 | 10,0 | 87,4 | 0,0 | 100 | 2,6 | 8,5 | 88,9 | 0,0 | 100 |
| EAE | 6,2 | 22,1 | 71,0 | 0,6 | 100 | 5,9 | 21,3 | 72,1 | 0,6 | 100 |
| Nafarroa | 8,2 | 0,0 | 25,0 | 66,8 | 100 | 7,8 | 0,0 | 24,6 | 67,5 | 100 |
| Euskal Herria | 6,7 | 16,7 | 59,8 | 16,8 | 100 | 6,4 | 16,0 | 60,3 | 17,3 | 100 |
| Pribatua | 8,7 | 30,4 | 45,5 | 15,5 | 100 | 8,4 | 29,5 | 46,3 | 15,8 | 100 |
| Publikoa | 4,6 | 3,2 | 73,9 | 18,2 | 100 | 4,5 | 2,9 | 73,9 | 18,8 | 100 |

*Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren araberako ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.*

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

DBHko hizkuntza-ereduekin lotuta eta EAEri dagokionez, D eredua lehen postuan mantendu zen hiru Lurralde Historikoetan, nahiz eta pisu erlatibo oso ezberdinak izan (% 54, % 66,1 eta % 88,9 Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan).

B ereduak nolabaiteko partaidetza mantendu zuen Araban (% 34,2) eta Bizkaian (% 26,2), baina Gipuzkoako kuota askoz ere txikiagoa izan zen (% 8,5). Bestetik, A ereduaren presentzia txikiagoa izan zen. Araban, DBHko ikasleen % 11,7 matrikulatu ziren eredu horretan, Bizkaian % 6,4 eta Gipuzkoan % 2,6. X eredua Bizkaian bakarrik dago, eta ordezkaritza oso txikia izan zuen (% 1,3). Aitzitik, Nafarroan X ereduak jarraitu zuen nagusi izaten (% 67,5); D eredua (% 24,6) eta A eredua (% 7,8) izan ziren hurrengoak.

Gauzak hala, DBHko euskalduntze maila % 93,4koa izan zen EAEn; Nafarroan baxuagoa izan zen balio hori, % 24,6koa; eta % 76,3koa Euskal Herri osoan.

**37. grafikoa** **Unibertsitatekoak ez diren ikasleen matrikulazioen bilakaera Euskal Herrian**

**Haur hezkuntza + Lehen hezkuntza + DBH**




**Batxilergoa + LH (Oinarrizkoa + Erdi-mailakoa + Goi-mailakoa)**




*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

### Erdi-mailako irakaskuntza

*Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa.*

Arreta erdi-mailako irakaskuntzan eta, zehazki, Lanbide Heziketan jarrita (Oinarrizkoa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa), aurreko ikasturteetako portaera errepikatu zen, eta ikasle kopuruak gora egiten jarraitu zuen. Hala, 2021/2022 ikasturtean 55.615 ikasle matrikulatu ziren erdi-mailako irakaskuntzan, hau da, aurreko ikasturtean baino 1.174 ikasle gehiago (+% 2,2). Bi sareek izan zuten emaitza ona, baina hazkundea handiagoa izan zen ikastetxe publikoetan (+% 3,0), pribatuetan baino (+% 0,9).

**190. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa(*)**

| Eremua | 2020/2021 ikasturtea | | | 2021/2022 ikasturtea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoa | Pribatua | Guztira | Publikoa | Pribatua | Guztira |
| Araba | 3.829 | 2.775 | 6.604 | 3.775 | 2.878 | 6.653 |
| Bizkaia | 10.283 | 10.509 | 20.792 | 10.395 | 10.606 | 21.001 |
| Gipuzkoa | 10.409 | 5.955 | 16.364 | 10.987 | 5.930 | 16.917 |
| EAE | 24.521 | 19.239 | 43.760 | 25.157 | 19.414 | 44.571 |
| Nafarroa | 7.972 | 2.709 | 10.681 | 8.302 | 2.742 | 11.044 |
| Euskal Herria | 32.493 | 21.948 | 54.441 | 33.459 | 22.156 | 55.615 |

*(*): Barne hartzen ditu Lanbide Heziketako espezializazio-ikastaroak.*
*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Datuak lurraldeka aztertuta, Gipuzkoa nabarmentzen da, Lanbide Heziketako matrikulazioek izandako bilakaera onagatik (+% 3,4); igoera hori ikastetxe publikoetan bakarrik gertatu zen (+% 5,6), ikastetxe pribatuetan jaitsiera apal bat izan baitzuten matrikulazioek (-% 0,4). Hala, Gipuzkoan ikasle gehien jasotzen dituen sare gisa finkatu zen irakaskuntza publikoa (% 64,9). Bizkaian, bi sareek antzeko bilakaera izan zuten (+% 1,1 sare publikoan eta +% 0,9 pribatuan), eta haien partaidetza ere nahiko orekatua izan zen (% 49,5 ikastetxe publikoetan eta % 50,5 pribatuetan). Araban, Lanbide Heziketako matrikulazioek gora egin zuten apur bat (+% 0,7), sare pribatuaren bilakaeraren ondorioz (+% 3,7); sare publikoan behera egin zuen matrikula kopuruak (-% 1,4). Aitzitik, Foru Erkidegoan, bi sareek egin zuten gora eta, horri esker, ikasle kopurua +% 3,4 hazi zen. Dena den, ikastetxe publikoek askoz ere hazkunde handiagoa izan zuten (+% 4,1, eta sare pribatuak +% 1,2). Gainera, sare publikoan matrikulatu zen ikasleen zatirik handiena (% 75,2).

Hala, EAEn 44.571 ikasle matrikulatu ziren Lanbide Heziketan, aurreko ikasturtean baino 811 ikasle gehiago. Nafarroan, berriz, 11.044 ikasle zenbatu ziren, aurreko ikasturtean baino 363 gehiago.

Dena den, nabarmendu beharrekoa da, EAEren kasuan, Erdi Mailako Lanbide Heziketan (+% 2,8) eta Goi Mailako Lanbide Heziketan (+% 1,7) bakarrik hazi zela ikasle kopurua; Oinarrizko Lanbide Heziketan jaitsi egin zen (-% 3,6). Emaitza bera izan zen Nafarroaren kasuan. Erdi Mailako Lanbide Heziketan (+% 5,9) eta Goi Mailako Lanbide Heziketan (+% 3,9) hazkundeak izan ziren, baina Oinarrizko Lanbide Heziketan ez (-% 8,4).

**191. koadroa Euskalduntze maila**
**Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa**

(%)

| Eremua | 2020/2021 ikasturtea | | | | | 2021/2022 ikasturtea | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A | B(*) | D | X | Guztira | A | B(*) | D | X | Guztira |
| Araba | 73,0 | 18,6 | 8,4 | 0,0 | 100 | 70,8 | 19,8 | 9,4 | 0,0 | 100 |
| Bizkaia | 67,0 | 20,8 | 12,2 | 0,0 | 100 | 65,0 | 21,9 | 13,1 | 0,0 | 100 |
| Gipuzkoa | 41,5 | 19,8 | 38,7 | 0,0 | 100 | 41,4 | 19,1 | 39,5 | 0,0 | 100 |
| EAE | 58,4 | 20,1 | 21,5 | 0,0 | 100 | 56,9 | 20,5 | 22,6 | 0,0 | 100 |
| Nafarroa | 0,0 | 0,0 | 7,0 | 93,0 | 100 | 0,0 | 0,0 | 7,3 | 92,7 | 100 |
| Euskal Herria | 46,9 | 16,2 | 18,7 | 18,2 | 100 | 45,6 | 16,4 | 19,5 | 18,4 | 100 |
| Pribatua | 60,4 | 16,2 | 11,0 | 12,3 | 100 | 59,3 | 17,0 | 11,4 | 12,4 | 100 |
| Publikoa | 37,8 | 16,1 | 23,8 | 22,2 | 100 | 36,6 | 16,0 | 25,0 | 22,4 | 100 |

*Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren araberako ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.*
*(*): Batxilergorako eta Lanbide Heziketarako, A eta D ereduak baino ez daude legez, baina A ereduko talde batzuek irakasgai batzuk euskaraz ematen dituzte, eta modalitate hori, A eredu indartu gisa ezagutzen dena, B eredura hurbil daiteke.*
*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Hizkuntza-ereduaren araberako ikasleen banaketari dagokionez, alde nabarmenak ikusten dira aurrez aztertu ditugun hezkuntza mailekin alderatuta. Hala, EAEn, Lanbide Heziketako ikasleen % 56,9 A ereduan ari ziren ikasten; D ereduan % 22,6 eta B ereduan % 20,5. Nafarroan, X eredua gehieneko balioetatik gertu egon zen (% 92,7), eta D ereduak osatu zuen mapa linguistikoa (% 7,3).

Informazioa Lurralde Historikoen arabera banatuta, Araban eta Bizkaian A eredua kokatu zen lehen postuan (% 70,8 eta % 65, hurrenez hurren). Hurrengoa B eredua izan zen (% 19,8 eta % 21,9) eta, azkenik, D eredua (% 9,4 eta % 13,1). Gipuzkoan, bestalde, A eta D ereduen partaidetza antzekoa izan zen (% 41,4 eta % 39,5, hurrenez hurren), eta B ereduaren pisu espezifikoa txikiagoa izan zen (% 19,1).

Gauzak hala, Lanbide Heziketan, EAEko euskalduntze maila % 43,1ekoa izan zen, eta Nafarroakoa % 7,3ra jaitsi zen. Ondorioz, Euskal Herriko euskalduntze maila % 35,9koa izan zen.



LABORAL kutxa

## Batxilergoa

Batxilergoari dagokionez, 2021/2022 ikasturtean 41.461 ikasle zenbatu ziren Euskal Herrian, aurreko ikasturtean baino 140 ikasle gutxiago. Bi sareetan egin zuen behera ikasle kopuruak (-% 0,5 ikastetxe publikoetan eta -% 0,2 pribatuetan). EAEn, irakaskuntza pribatuaren partaidetza apur bat handiagoa izan zen (% 51,8). Nafarroan, berriz, alderantzizkoa gertatu zen, irakaskuntza publikoak presentzia handiagoa zuen (% 59,9).

**192. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Batxilergoa**

| Eremua | 2020/2021 ikasturtea | | | 2021/2022 ikasturtea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoa | Pribatua | Guztira | Publikoa | Pribatua | Guztira |
| Araba | 2.646 | 2.428 | 5.074 | 2.562 | 2.391 | 4.953 |
| Bizkaia | 7.710 | 8.710 | 16.420 | 7.705 | 8.730 | 16.435 |
| Gipuzkoa | 5.412 | 5.763 | 11.175 | 5.480 | 5.769 | 11.249 |
| EAE | 15.768 | 16.901 | 32.669 | 15.747 | 16.890 | 32.637 |
| Nafarroa | 5.369 | 3.563 | 8.932 | 5.287 | 3.537 | 8.824 |
| Euskal Herria | 21.137 | 20.464 | 41.601 | 21.034 | 20.427 | 41.461 |

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Informazioa sakonago aztertuz, Araban behera egin zuen Batxilergoko ikasleen kopuruak (-% 2,4), bi sareetan murriztu baitziren matrikulazioak (-% 3,2 publikoan eta -% 1,5 pribatuan). Testuinguru horretan, ikastetxe publikoek ikasle gehiago jaso zituzten (% 51,7, eta pribatuek % 48,3). Bizkaiak, bestalde, eutsi egin zion matrikulazioari (+% 0,1), aldakuntza txikiekin, baina aurkako ikurrarekin sarearen arabera (-% 0,1 publikoan eta +% 0,2 pribatuan); hala, partaidetza handiagoa lortu zuen pribatuak (% 53,1). Gipuzkoan, ikastetxe publikoetan igo ziren gehien matrikulak (+% 1,3, eta +% 0,1 pribatuetan). Hala ere, ikasle apur bat gehiago zeuden sare pribatuan (% 51,3). Nafarroan, aurreko ikasturtean baino ikasle gutxiagorekin amaitu zuten ikasturtea (-% 1,2). 10 ikasletik 6 ikastetxe publikoetan matrikulatu ziren, baina publikoek galera handiagoa izan zuten pribatuek baino (-% 1,5 eta -% 0,7).

Hala, EAEn, 32.637 ikasle matrikulatu ziren Batxilergoan, aurreko ikasturtean baino 32 ikasle gutxiago. Nafarroan, bestalde, 8.824 matrikulazio izan ziren, aurreko ikasturtean baino 108 gutxiago.

**193. koadroa Euskalduntze maila Batxilergoa**

(%)

| Eremua | 2020/2021 ikasturtea | | | | | 2021/2022 ikasturtea | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A | B | D | X | Guztira | A | B | D | X | Guztira |
| Araba* | 29,9 | 18,1 | 52,0 | 0,0 | 100 | 35,3 | 10,9 | 53,8 | 0,0 | 100 |
| Bizkaia | 31,6 | 4,9 | 61,9 | 1,6 | 100 | 29,5 | 5,5 | 63,3 | 1,6 | 100 |
| Gipuzkoa | 16,1 | 5,0 | 78,9 | 0,0 | 100 | 15,2 | 5,2 | 79,6 | 0,0 | 100 |
| EAE | 26,1 | 7,0 | 66,2 | 0,8 | 100 | 25,5 | 6,3 | 67,5 | 0,6 | 100 |
| Nafarroa | 3,8 | 0,0 | 25,6 | 70,6 | 100 | 3,8 | 0,0 | 25,6 | 70,6 | 100 |
| Euskal Herria | 21,3 | 5,5 | 57,5 | 15,8 | 100 | 20,8 | 4,9 | 58,5 | 15,7 | 100 |
| Pribatua | 33,2 | 7,6 | 43,0 | 16,2 | 100 | 31,1 | 8,9 | 43,7 | 16,3 | 100 |
| Publikoa | 9,8 | 3,4 | 71,4 | 15,4 | 100 | 10,9 | 1,1 | 73,0 | 15,1 | 100 |

*Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren araberako ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.*
*(*) Arabako datuak kontuz hartu behar dira ikasturte honetan.*
*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Euskalduntze-tasari dagokionez, beheragoko mailan bezalaxe, D eredua nabarmendu zen EAEn. Nafarroan, berriz, X eredua kokatu zen lehen postuan. Informazioa eremu geografikoen arabera banatuta, Gipuzkoan D ereduak % 79,6eko partaidetza izan zuen. Pisu erlatibo handieneko bigarren eredua, A eredua, distantzia handira kokatu zen (% 15,2), eta B ereduak osatu zuen mapa linguistikoa, % 5,2ko kuotarekin. Halaber, Bizkaian D eredua gailendu zen (% 63,3), eta ikasleen % 29,5ek A eredua hautatu zuten. Gainerako ereduek ordezkaritza oso txikia izan zuten (B ereduak % 5,5 eta X ereduak % 1,6). Araban ere D eredua kokatu zen gainerakoen aurretik, ikasleen % 53,8rekin, eta A ereduaren (% 35,3) eta B ereduaren (% 10,9) balioetatik urrun. Bestetik, Nafarroan X ereduak jarraitu zuen ikasle gehien jasotzen (% 70,6), D eredua izan zen hurrengoa % 25,6ko partaidetza-tasarekin eta, azkenik, A eredua, ordezkaritza oso txikiarekin (% 3,8).

Ondorioz, EAEko euskalduntze maila % 73,7koa izan zen, Nafarroakoa % 25,6koa eta Euskal Herrikoa % 63,4ekoa.

## 2.2. UNIBERTSITATEKO IKASLEEN BILAKAERA

Unibertsitateko ikasleen bilakaerari dagokionez, 2021/2022 ikasturtean, berriro ere, hazi egin zen matrikula kopurua. Izan ere, Euskal Herriko bost unibertsitateetatik lautan bilakaera positiboa izan zuten. Hala, Euskal Herrian unibertsitateko 66.485 ikasle erregistratu ziren guztira (+% 1,7), unibertsitateen mapa osatzen duten bost unibertsitateetan banatuta. Batetik, Nafarroako Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea daude, eskaintza pribatua osatzen dutenak. Eta, bestetik, Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA), eskaintza publikoa osatzen dutenak.

Horietako bakoitzaren bilakaerari dagokionez, Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) bakarrik murriztu zen ikasle kopurua, apur bat (-% 0,4), nahiz eta ikasleen % 52,6 jasotzen duen. Nafarroako Unibertsitateak eta Deustuko Unibertsitateak ikasleen proportzio bera jaso zuten ia (% 14 inguru), eta % 3,6ko eta % 4,3ko hazkundeak izan zituzten. Nafarroako Unibertsitate Publikoan (ia % 11,8ko pisu espezifikoa) eta Mondragon Unibertsitatean (% 8 inguruko partaidetza) ere gora egin zuen ikasle kopuruak (+% 3,3 eta +% 6,6, hurrenez hurren).

Lurraldeen arabera, Bizkaiak jarraitu zuen unibertsitateko ikasle gehien jasotzen dituen lurraldea izaten (guztizkoaren % 40,1); hurrengoak Gipuzkoa (% 25,6), Nafarroa (% 24,1) eta, azkenik, Araba (% 10,2) izan ziren.

Ikasleen bilakaerarekin bat etorriz, unibertsitateetan, oro har, gora egin zuen irakasleen kopuruak ere (+% 4,3), eta 10.724 irakaslera iritsi ziren (444 irakasle gehiago).

194. koadroa Ikasleen eta irakasleen bilakaera Euskal Herriko unibertsitateetan

| Unibertsitatea eta lurraldeak | Ikasleak | | Irakasleak | |
|---|---|---|---|---|
| | 20/21 ikasturtea | 21/22 ikasturtea(*) | 20/21 ikasturtea | 21/22 ikasturtea(*) |
| **Euskal Herriko Unibertsitatea** | **35.092** | **34.955** | **5.726** | **5.666** |
| Araba | 6.926 | 6.766 | 998 | 1.007 |
| Bizkaia | 19.479 | 19.408 | 3.295 | 3.227 |
| Gipuzkoa | 8.687 | 8.781 | 1.433 | 1.431 |
| **Nafarroako Unibertsitatea** | **8.924** | **9.249** | **1.057** | **1.065** |
| Nafarroa | 7.905 | 8.239 | 912 | 920 |
| Gipuzkoa | 1.019 | 1.010 | 145 | 145 |
| **Nafarroako Unibertsitate Publikoa** | **7.567** | **7.813** | **1.001** | **1.064** |
| Nafarroa | 7.567 | 7.813 | 1.001 | 1.064 |
| **Deustuko Unibertsitatea** | **8.769** | **9.147** | **1.945** | **2.138** |
| Bizkaia | 6.983 | 7.245 | 1.639 | 1.818 |
| Gipuzkoa | 1.786 | 1.902 | 306 | 320 |
| **Mondragon Unibertsitatea (1)** | **5.019** | **5.321** | **551** | **791** |
| Gipuzkoa | 5.019 | 5.321 | 551 | 791 |
| **Guztira** | **65.371** | **66.485** | **10.280** | **10.724** |
| Araba | 6.926 | 6.766 | 998 | 1.007 |
| Bizkaia | 26.462 | 26.653 | 4.934 | 5.045 |
| Gipuzkoa | 16.511 | 17.014 | 2.435 | 2.687 |
| EAE | 49.899 | 50.433 | 8.367 | 8.739 |
| Nafarroa | 15.472 | 16.052 | 1.913 | 1.984 |

*(*): Behin-behineko datuak.*

*Iturria: EHU, Nafarroako Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta Nafarroako irakaskuntzaren estatistika.*

Datuak unibertsitateen arabera aztertuta, 5 unibertsitatetik 4tan bilakaera positiboa izan zuten 2021/2022 ikasturtean. Mondragon Unibertsitatea nabarmendu zen, irakasle kopurua % 43,6 areagotu baitzuen, 791 irakaslera arte. Halaber, Deustuko Unibertsitateak 193 irakasle gehiago gehitu zituen lantaldera, eta irakasle kopurua 2.138ra arte hazi zen. Bestetik, Nafarroako Unibertsitate Publikoan (+% 6,3) eta Nafarroako Unibertsitatean, neurri txikiagoan, (+% 0,8) ere gora egin zuen irakasle kopuruak, eta ia balio berdinetan kokatu ziren (1.064 eta 1.065 irakasle, hurrenez hurren). Azkenik, Euskal Herriko Unibertsitatea salbuespena izan zen kasu honetan ere, irakasle kopurua % 1,0 murriztu baitzen; hala, 2021/2022 ikasturtean 60 irakasle gutxiago zeuden.

Jarraian, Euskal Herriko unibertsitateetan, campusetan eta graduetan ikasleek izandako bilakaeraren xehetasunak aurkezten dira.

**195. koadroa Ikasleen banaketa UPV/EHUn**

| Lurralde historikoa | 20/21 ikasturtea | 21/22 ikasturtea(*) | % | % ∆ aurreko urtean |
|---|---|---|---|---|
| **Araba** | **6.926** | **6.766** | **100,0** | **-2,3** |
| Farmazia Fakultatea | 1.333 | 1.276 | 18,9 | -4,3 |
| Filologia, Geografia eta Historia Fakultatea | 2.131 | 2.094 | 30,9 | -1,7 |
| Irakasleen UE | 1.096 | 1.105 | 16,3 | 0,8 |
| Industria Ingeniaritza Teknikoko UE | 880 | 824 | 12,2 | -6,4 |
| Gizarte Laneko UE | 555 | 538 | 8,0 | -3,1 |
| Enpresa Zientzien UE | 459 | 464 | 6,9 | 1,1 |
| Jarduera Fiskoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea | 472 | 465 | 6,9 | -1,5 |
| **Bizkaia** | **19.479** | **19.408** | **100,0** | **-0,4** |
| Zientziak eta Teknologia Fakultatea | 2.636 | 2.653 | 13,7 | 0,6 |
| Arte Ederren Fakultatea | 1.191 | 1.188 | 6,1 | -0,3 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea | 2.625 | 2.586 | 13,3 | -1,5 |
| Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea | 2.454 | 2.410 | 12,4 | -1,8 |
| Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea | 2.248 | 2.315 | 11,9 | 3,0 |
| Industria Ingeniaritzako eta Telekomunikazioetako GET | 1.705 | 1.692 | 8,7 | -0,8 |
| Enpresa Ikasketen UE | 843 | 817 | 4,2 | -3,1 |
| Erizaintzako UE (Leioa) | 684 | 667 | 3,4 | -2,5 |
| Irakasleen UE | 1.980 | 1.964 | 10,1 | -0,8 |
| Lan Harremanen E. | 566 | 560 | 2,9 | -1,1 |
| Industria Ingeniaritza Teknikoko UE | 1.588 | 1.590 | 8,2 | 0,1 |
| Meatze Ingeniaritza Teknikoko UE | 268 | 252 | 1,3 | -6,0 |
| Nautikako GET | 192 | 210 | 1,1 | 9,4 |
| Zuzenbide Fakultatea. Bizkaiko atala | 499 | 504 | 2,6 | 1,0 |
| **Gipuzkoa** | **8.687** | **8.781** | **100,0** | **1,1** |
| Zientzia Kimikoen Fakultatea | 329 | 323 | 3,7 | -1,8 |
| Zuzenbide Fakultatea | 839 | 882 | 10,0 | 5,1 |
| Informatika Fakultatea | 627 | 676 | 7,7 | 7,8 |
| Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | 1.011 | 1.075 | 12,2 | 6,3 |
| Psikologia Fakultatea | 1.097 | 1.055 | 12,0 | -3,8 |
| Arkitekturako GET | 643 | 686 | 7,8 | 6,7 |
| Enpresa Ikasketen UE | 1.091 | 997 | 11,4 | -8,6 |
| Irakasleen UE | 1.113 | 1.101 | 12,5 | -1,1 |
| Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE | 297 | 287 | 3,3 | -3,4 |
| Donostiako Unibertsitate Politeknikoa | 1.160 | 1.196 | 13,6 | 3,1 |
| Erizaintzako UE | 480 | 503 | 5,7 | 4,8 |
| **Guztira** | **35.092** | **34.955** | **100,0** | **-0,4** |

*(*): Behin-behineko datuak.*
Iturria: UPV/EHU.

Aipatu dugun moduan, pisu erlatibo handieneko unibertsitatea Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) izan zen, eta harekin hasiko dugu analisia. 2021/2022 ikasturtean ikasleak galdu zituen (137 ikasle gutxiago); 34.955 izan ziren guztira (-% 0,4).

Bizkaiko campusak ikasleen % 55,5 jaso zituen; matrikulazioak behera egin zuen apur bat (-% 0,4), hau da, 71 ikasleko galera garbia izan zuen. Izan ere, bertako 14 fakultatetatik 9tan murriztu egin zen ikasle kopurua.

Zehatzago, eta aurreko ikasturteetan bezala, jaitsiera handiena Meatze Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolak izan zuen (% 1,3ko partaidetza eta -% 6,0ko jaitsiera). Honako hauetan ere behera egin zuen ikasle kopuruak: Enpresa Zientzien UE (-% 3,1), Leioako Erizaintzako UE (-% 2,5), Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea (-% 1,8), Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (-% 1,5) eta Lan Harremanen Eskola (-% 1,1). Horien partaidetzak hauek izan ziren, hurrenez hurren: % 4,2, % 3,4, % 12,4, % 13,3 eta % 2,9. Era berean, hauen matrikulazioek ere apur bat behera egin zuten: Irakasleen UE (ikasleen % 10,1), Industria Ingeniaritza eta Telekomunikazioen GET (% 8,7) eta Arte Ederren Fakultatea (% 6,1). Hurrenez hurren, -% 0,8, -% 0,8 eta -% 0,3ko jaitsierak izan zituzten.

Aitzitik, 5 fakultatek ikasleak irabazi zituzten 2021/2022 ikasturtean. Hauek dira: Nautikako GET (% 1,1eko partaidetza eta +% 9,4ko igoera), Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (% 11,9ko ordezkaritza eta ikasleen % 3,0ko igoera), Zuzenbide Fakultatea (% 2,6 eta +% 1,0), Zientzia eta Teknologia Fakultatea (% 13,7 eta +% 0,6) eta, azkenik, Industria Ingeniaritza Teknikoko UE (% 8,2 eta +% 0,1).

Gipuzkoako campusean matrikulatu ziren EHUko unibertsitate ikasleen % 25,1. Campus horrek, 2021/2022 ikasturtean, bilakaera positiboa izan zuen, matrikula kopurua % 1,1 hazi baitzen. Izan ere, campuseko eskaintza akademikoa osatzen duten 11 fakultatetik 6tan gora egin zuen matrikulazioak. Hala, honakoak nabarmendu ziren: Informatika Fakultatea (% 7,7ko pisua), Arkitektura GETa (% 7,8) eta Filosofia eta Hezkuntza Fakultatea (% 12,2). Hurrenez hurren, % 7,8, % 6,7 eta % 6,3ko hazkundeak izan zituzten. Aldi berean, joera bera izan zuten honako hauetan: Zuzenbide Fakultatea (+% 5,1), Unibertsitate Politeknikoa (+% 3,1) eta Erizaintzako UE (+% 4,8). Horietan matrikulatu ziren ikasleen % 10,0, % 13,6 eta % 5,7. Bestalde, Enpresa Ikasketen UEn (% 11,4), Psikologia Fakultatean (% 12,0) eta Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UEn (%3,3) jaitsi egin zen ikasle kopurua. % 8,6, % 3,8 eta % 3,4ko jaitsierak izan zituzten, hurrenez hurren. Era berean, behera egin zuen ikasle kopuruak Zientzia Kimikoen Fakultatean (-% 1,8) eta Irakasleen UEn (-% 1,1). Pisu erlatibo oso ezberdinak dituzte bi horiek, % 3,7 eta % 12,5, hurrenez hurren.

Azkenik, Arabako campusean (% 19,4ko partaidetza), fakultate guztietan egin zuen behera matrikulazioak, bitan izan ezik. Industria Ingeniaritza Teknikoko UEk, ikasleen % 12,2 jasotzen duenak, jaitsiera handia izan zuen matrikulazioan (-% 6,4). Honako hauetan ere behera egin zuen: Farmazia Fakultatea (-% 4,3), Gizarte Laneko UE (-% 3,1), Filologia, Geografia eta Historia Fakultatea (-% 1,7) eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea (-% 1,5). Aitzitik, enpresa Zientzien UEn (% 6,9) eta Irakasleen UEn (% 16,3) gora egin zuen ikasle kopuruak (+% 1,1 eta +% 0,8, hurrenez hurren). Dena den, igoera horiek ez ziren nahikoa izan gainerako fakultateetan izandako jaitsierak konpentsatzeko.

Nafarroako Unibertsitateari dagokionez, 2021/2022 ikasturtean 9.249 ikasle matrikulatu ziren, Nafarroako campusean (8.239 ikasle) eta Gipuzkoako campusean (1.010) banatuta.

**196. koadroa Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitatean**

| Lurralde historikoa | 20/21 ikasturtea | 21/22 ikasturtea(1) | % | % ∆ aurreko urtean |
|---|---|---|---|---|
| **Nafarroa** | **7.905** | **8.239** | **100,0** | **4,2** |
| Zuzenbidea | 781 | 819 | 9,9 | 4,9 |
| Medikuntza | 1.216 | 1.191 | 14,5 | -2,1 |
| Filosofia eta Letrak | 439 | 503 | 6,1 | 14,6 |
| Komunikazioa | 902 | 948 | 11,5 | 5,1 |
| Hezkuntza eta Psikologia | 647 | 641 | 7,8 | -0,9 |
| Zientziak | 649 | 691 | 8,4 | 6,5 |
| Farmazia eta Nutrizioa | 697 | 731 | 8,9 | 4,9 |
| Arkitektura | 502 | 558 | 6,8 | 11,2 |
| Teologia | 145 | 128 | 1,6 | -11,7 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientziak | 1.207 | 1.301 | 15,8 | 7,8 |
| Idazkaritza eta Administrazioa | 195 | 195 | 2,4 | 0,0 |
| Erizaintza | 525 | 533 | 6,5 | 1,5 |
| **Gipuzkoa** | **1.019** | **1.010** | **100,0** | **-0,9** |
| Industria Ingeniaritza | 1.019 | 1.010 | 100,0 | -0,9 |
| **Guztira(2)** | **8.924** | **9.249** | **100,0** | **3,6** |

*(1): Behin-behineko datuak.*
*(2): Horiez gain, doktoregoko 1.065 ikasle eta masterreko 766 ikasle daude Nafarroan eta Gipuzkoan.*
*Iturria: Nafarroako Unibertsitatea.*

Nafarroako campusarekin hasiko gara, hark jasotzen baititu ikasle gehienak (% 89,1). Azken ikasturtean gora egin zuen ikasle kopuruak: 334 ikasle gehiago (+% 4,2ko urte arteko aldakuntza). Ia fakultate guztietan ugaritu ziren ikasleak. Medikuntza Fakultatean (-% 2,1), Hezkuntza eta Psikologiakoan (-% 0,9) eta Teologiakoan (-% 11,7) bakarrik egin zuen behera ikasle kopuruak; horien partaidetzak honakoak dira, hurrenez hurren: % 14,5, % 7,8 eta % 1,6.

Goranzko bilakaera izan zuten fakultateen artean, hauek nabarmendu ziren, haien pisu espezifikoarengatik: Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea, % 15,8ko partaidetzarekin eta % 7,8ko matrikulazio-igoerarekin; Komunikazio Fakultatea, % 11,5eko kuotarekin eta % 5,1ko hazkundearekin; eta Zuzenbide Fakultatea, guztizkoaren gaineko % 9,9ko ekarpenarekin eta % 4,9ko hazkundearekin. Dena den, hazkunde handiena izan zuten fakultateak Filosofia eta Letrena eta Arkitekturakoa izan ziren (% 14,6 eta % 11,2ko hazkundeak, hurrenez hurren), nahiz eta pisu erlatibo txikiagoa izan (% 6,1 eta % 6,8, hurrenez hurren). Farmazia eta Nutrizioko (ikasleen % 8,9), Zientzietako (% 8,4) eta Erizaintzako (% 6,5) fakultateetan ere hazi egin zen ikasle kopurua, baina neurri ezberdinetan (+% 4,9, +% 6,5 eta +% 1,5, hurrenez hurren). Aldiz, Idazkaritza Fakultatean (ikasleen % 2,4) ez zen aldaketarik izan ikasle kopuruan.

Gipuzkoan kokatuta dagoen Ingeniaritza Eskolak osatzen du Nafarroako Unibertsitatearen eskaintza. Bertan, aurreko urteko ikasleen bolumen bera izan zuten ia; hau da, guztira 1.010 ikasle izan zituzten, aurreko ikasturtean baino 9 gutxiago.

**197. koadroa Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitate Publikoan (UPNA)**

| Fakultateak eta Unibertsitate Eskolak | 20/21 ikasturtea | 21/22 ikasturtea(1) | % | % ∆ aurreko urtean |
|---|---|---|---|---|
| Nekazaritza Ingeniaritzen GET | 637 | 730 | 9,3 | 14,6 |
| Industria Ingeniaritza eta Telekomunikazioen GET | 2.050 | 2.119 | 27,1 | 3,4 |
| Osasun Zientzien Fakultatea | 912 | 1.017 | 13,0 | 11,5 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea | 1.157 | 1.122 | 14,4 | -3,0 |
| Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea | 1.926 | 1.948 | 24,9 | 1,1 |
| Zientzia Juridikoen Fakultatea | 638 | 621 | 7,9 | -2,7 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien/Zientzia Juridikoen Fakultatea(2) | 229 | 230 | 2,9 | 0,4 |
| Nekazaritza ingeniaritzen/Ekonomia eta Enpresa zientzien GET(3) | 18 | 26 | 0,3 | 44,4 |
| **Guztira(4)** | **7.567** | **7.813** | **100,0** | **3,3** |

*(1): Behin-behineko datuak.*
*(2): Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzaren eta Zuzenbidearen Gradu Bikoitzean matrikulatutako ikasleak jasotzen ditu.*
*(3): Datuen Zientzien eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzaren Gradu Bikoitzeko ikasleak jasotzen ditu.*
*(4): Horiez gain, masterreko 869 ikasle eta doktoregoko 505 ikasle daude Nafarroan.*
*Iturria: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.*

Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA) banaketa aztertuta, 2021/2022 ikasturtean % 3,3 hazi ziren matrikulak; hala, 7.813 ikasle matrikulatu ziren (aurreko ikasturtean baino 246 gehiago). Eskaintza osatzen duten 8 fakultateetatik 6tan egin zuen gora ikasle kopuruak, neurri handiagoan edo txikiagoan. Nekazaritza Ingeniaritzen GETek (+% 14,6) eta Osasun Zientzien Fakultateak (+% 11,5) izandako igoerak nabarmendu ziren; horiek, hurrenez hurren, % 9,3 eta % 13,0ko pisu erlatiboak dituzte.



LABORAL kutxa

Honakoetan matrikulak nahiko egonkor mantendu ziren: Industria Ingeniaritza eta Telekomunikazioen GET (+% 3,4), Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea (+% 1,1) eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien eta Zientzia Juridikoen Fakultatea (+% 0,4). Gainera, lehenengo biek jaso zituzten ikasle gehien (guztizkoaren % 27,1, % 24,9 eta % 2,9, hurrenez hurren). Talde horri Nekazaritza ingeniaritzen/Ekonomia eta Enpresa zientzien GET batu zitzaien; % 0,3ko partaidetzarekin eta 8 ikasle gehiagorekin itxi zuen ikasturtea.

Aitzitik, honakoetan behera egin zuen matrikulazioak: Ekonomia eta Enpresa Zientziak (-% 3,0; ikasleen % 14,4) eta Zientzia Juridikoen Fakultatea (-% 2,7; pisu espezifiko txikiagoa, % 7,9koa).

**198. koadroa Ikasleen banaketa Deustuko Unibertsitatean***

| Lurralde historikoa | 20/21 ikasturtea | 21/22 ikasturtea(1) | % | % ∆ aurreko urtean |
|---|---|---|---|---|
| **Bizkaia** | **6.983** | **7.245** | **100,0** | **3,8** |
| Zuzenbide Fakultatea | 956 | 942 | 13,0 | -1,5 |
| Teologia Fakultatea | 97 | 85 | 1,2 | -12,4 |
| Ingeniaritza Fakultatea | 1.067 | 1.196 | 16,5 | 12,1 |
| Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea | 1.410 | 1.410 | 19,5 | 0,0 |
| Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea | 1.795 | -- | -- | -- |
| EUMBAM (DUri atxikitako zentroa) | 747 | 807 | 11,1 | 8,0 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea | 911 | 895 | 12,4 | -1,8 |
| Osasun Zientzien Fakultatea | -- | 1.024 | 14,1 | -- |
| Hezkuntza eta Kirol Fakultatea | -- | 886 | 12,2 | -- |
| **Gipuzkoa** | **1.786** | **1.902** | **100,0** | **6,5** |
| Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea | 584 | 555 | 29,2 | -5,0 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea | 757 | 769 | 40,4 | 1,6 |
| Zuzenbide Fakultatea | 61 | 87 | 4,6 | 42,6 |
| Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea | 384 | -- | -- | -- |
| Osasun Zientzien Fakultatea | -- | 228 | 12,0 | -- |
| Hezkuntza eta Kirol Fakultatea | -- | 263 | 13,8 | -- |
| **Guztira(2)** | **8.769** | **9.147** | **100,0** | **4,3** |

**Ikasle kopuruari dagozkion datuak ez dira alderagarriak fakultate guztietan, prestakuntza-eskaintza berrantolatu egin zutelako.*

*(1): Behin-behineko datuak.*

*(2): Horiez gain, doktoregoko 352 ikasle eta masterreko 1.192 ikasle daude.*

*Iturria: Deustuko Unibertsitatea*

Deustuko Unibertsitateari dagokionez, matrikulatutako ikasleen kopurua % 4,3 hazi zen oro har, eta 9.147 ikaslera iritsi ziren; hau da, aurreko ikasturtean baino 378 ikasle gehiago.

Bizkaiko campusarekin hasi gara, unibertsitate-ikasleen % 79,2 jasotzen baititu; bertan, igo egin zen ikasle kopurua (+% 3,8). Ingeniaritza Fakultatean (+% 12,1) eta EUMBAMen (+% 8) igo zen ikasle kopurua; horiek % 16,5eko eta % 11,1eko partaidetzak dituzte, hurrenez hurren. Aitzitik, honakoetan murriztu egin zen ikasle kopurua: Teologia Fakultatea (-% 12,4 eta % 1,2ko pisu espezifikoa), Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (-% 1,8 eta % 12,4) eta Zuzenbide Fakultatea (-% 1,5 eta % 13,0). Azkenik, Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateak osatzen du Bizkaiko eskaintza akademikoa; bertako ikasgeletan, aurreko ikasturteko ikasle kopuru bera jaso zuten (1.410).

Gipuzkoako campusean matrikulazioak gora egin zuen (+% 6,5); izan ere, matrikulazioek bilakaera ona izan zuten ikasleen ekarpen txikiena eta handiena duten fakultateetan. Hau da, batetik, Zuzenbide Fakultatean (+% 42,6 eta % 4,6ko ordezkaritza) eta, bestetik, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean (+% 1,6 eta % 40,4). Aitzitik, Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatean % 5,0 murriztu zen ikasle kopurua; hala, aurreko ikasturtean baino 29 ikasle gutxiago zenbatu ziren.

Bizkaiko eta Gipuzkoako campusak berrantolatu egin zituzten eta, horren ondorioz, ikasleen banaketa ezberdina izan zen. Hortaz, ez dugu urte arteko bilakaera aztertuko, baina bai guztizkoari egindako ekarpena. Hala, Bizkaiko campusean, Osasun Zientzien Fakultateak 1.024 ikasle jaso zituen eta, Hezkuntza eta Kirol Fakultateak, 886. Azkenik, Gipuzkoako campusean, 228 ikasle matrikulatu ziren Osasun Zientzien Fakultatean, eta 263 Hezkuntza eta Kirol Fakultatean.

**199. koadroa Ikasleen banaketa Mondragon Unibertsitatean**

| Fakultateak eta Unibertsitate Eskolak | 20/21 ikasturtea | 21/22 ikasturtea(1) | % | % ∆ aurreko urtean |
|---|---|---|---|---|
| **Goi Eskola Politeknikoa** | **1.836** | **1.868** | **100** | **1,7** |
| Industria Antolaketako Ingeniaritza Gradua | 209 | 226 | 12,1 | 8,1 |
| Industria Elektronikoko Ingeniaritza Gradua | 202 | 199 | 10,7 | -1,5 |
| Informatikako Ingeniaritza Gradua | 187 | 171 | 9,2 | -8,6 |
| Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritza Gradua | 14 | 0 | 0,0 | - |
| Ingeniaritza Mekanikoko Gradua | 423 | 416 | 22,3 | -1,7 |
| Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza Gradua | 283 | 278 | 14,9 | -1,8 |
| Energiaren Ingeniaritza | 102 | 112 | 6,0 | 9,8 |
| Ingeniaritza Mekatronikoa | 170 | 223 | 11,9 | 31,2 |
| Prozesu Industrialetako Ekoteknologien Ingeniaritza | 94 | 90 | 4,8 | -4,3 |
| Ingeniaritza Biomedikoa | 152 | 153 | 8,2 | 0,7 |
| **Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea** | **1.166** | **1.248** | **100** | **4,6** |
| Haur Hezkuntza Gradua | 327 | 338 | 27,1 | 3,4 |
| Lehen Hezkuntza Gradua | 650 | 683 | 54,7 | 5,1 |
| Ikus-entzunezko Komunikazio Gradua | 189 | 190 | 15,2 | 0,5 |
| Humanitate Digital Globalak (HDG) | 27 | 37 | 3 | 37,0 |
| **Enpresa Zientzien Fakultatea** | **1.606** | **1.795** | **100** | **11,8** |
| Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua | 495 | 534 | 29,7 | 7,9 |
| Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua | 1.028 | 1.139 | 63,5 | 10,8 |
| Business Data Analytics Gradua | 83 | 122 | 6,8 | 47,0 |
| **Gastronomia Zientzien Fakultatea** | **384** | **410** | **100** | **6,8** |
| Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak | 384 | 410 | 100 | 6,8 |
| **Guztira(2)** | **5.019** | **5.321** | **100** | **6,0** |

*(1): Behin-behineko datuak.*
*(2): Horiez gain, masterreko 753 ikasle daude.*
*Iturria: Mondragon Unibertsitatea*

Azkenik, Mondragon Unibertsitateak osatzen du euskal unibertsitateen mapa. 2021/2022 ikasturtean 5.321 matrikulazio izan zituen (+% 6,0), hau da, aurreko ikasturtean baino 302 ikasle gehiago.

Goi Eskola Politeknikoarekin hasita, eskaini zituen 10 gradutik 6tan behera egin zuen matrikulazioak. Bilakaerarik onena izan zuten graduekin hasiko gara: Ingeniaritza Mekatronikoko Gradua (% 31,2ko hazkundea), Energiaren Ingeniaritza (+% 9,8) eta Industria Antolaketako Ingeniaritza (+% 8,1); % 11,9, % 6,0 eta % 12,1eko partaidetza izan zuten, hurrenez hurren.

Ingeniaritza Biomedikoko Graduak ere bilakaera positiboa izan zuen (+% 0,7) eta ikasleen % 8,2 jaso zituen. Aitzitik, honako gradu hauek behera egin zuten, neurri ezberdinetan: Ingeniaritza Mekanikoa (% 22,3ko partaidetza; -% 1,7), Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza Gradua (% 14,9; -% 1,8), Industria Elektronikoko Ingeniaritza (% 10,7; -% 1,5), Ingeniaritza Informatikoa (% 9,2; -% 8,6) eta Prozesu Industrialetako Ekoteknologien Ingeniaritza (% 4,8; -% 4,3).

Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean 1.248 unibertsitate-ikasle matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean baino +% 4,6 gehiago. Lehen Hezkuntza Gradua nabarmendu zen, ikasleen erdiak baino gehiago jaso baitzituen eta % 5,1 hazi zen ikasle kopurua. Era berean, azken ikasturtean ikasleen kopurua igo egin zen Haur Hezkuntza Graduan (% 27,1; +% 3,4) eta Ikus-entzunezko Komunikazio Graduan (% 15,2; +% 0,5). Gainera, Humanitate Digital Globalen Graduan (HDG) 37 ikasle matrikulatu ziren 2021/2022 ikasturtean.

Enpresa Zientzien Fakultatean 1.795 ikasle matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean baino % 11,8 gehiago; hortaz, oso bilakaera positiboa izan zuen. Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Graduak jaso zituen 10 ikasletik 6, eta % 10,8ko hazkundea izan zuen. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Graduak, berriz, % 29,7ko partaidetzarekin, % 7,9ko hazkundea izan zuen. Joera bera izan zuen Business Data Analytics Gradu berriak ere (% 6,8ko pisu erlatiboa), 122 ikasle jaso baitzituen (aurreko ikasturtean 83 ikasle zituen).

Azkenik, Gastronomia Zientzien Fakultatean gradu bakarra dute, Gastronomia eta Sukaldaritza Arteen Gradua, eta matrikulazioek gora egin zuten 2021/2022 ikasturtean; hala, 410 ikasle erregistratu ziren.

# 3. GARRAIOA

## 3.1. TRENBIDE BIDEZKO GARRAIOA

Trenbide bidezko garraioarekin hasiko dugu garraioari buruzko kapitulua. 2021ean nabarmen igo zen bidaiari kopurua Euskal Herrian, 2020an gutxieneko historikoak eskuratu ondoren. Egoera pixkanaka suspertzen joan zen, nahiz eta pandemiaren olatuek oraindik ere gorabeherak eragiten jarraitzen duten. Agertoki horretan, EuskoTreneko eta Renfeko bidaiariak batuta, bidaiari kopuruak % 20,5ko urte arteko hazkundea izan zuen eta 32.299 mila bidaiariren zifra eskuratu zen.

**200. koadroa Bidaiarien mugimendua***

| Urtea | Bidaiariak (m) | %∆ |
|---|---|---|
| 2017 | 35.483 | 11,0 |
| 2018 | 38.798 | 9,3 |
| 2019 | 40.288 | 3,8 |
| 2020 | 26.795 | -33,5 |
| 2021 | 32.299 | 20,5 |

*(*): Renferen datuak Bilboko eta Donostiako aldirietako bidaiarien zifrari dagozkio.*
*Iturria: Renfe eta EuskoTren.*

Datuetan sakonduta eta konpainia bakoitzaren jarduerari dagokionez, erreferentziazko bi tren operadoreen kasuan urte arteko hazkundea izan zen bidaiari kopuruan. Hala, Renferen kasuan, Bilboko aldirietako bidaiari kopurua % 17,6 igo zen, eta Donostiako aldirietakoa % 15,6. Biak aintzat hartuta, konpainiak 12.462 mila bidaiari garraiatu zituen 2021ean (2020arekin alderatuta +% 16,8 eta 2019arekin alderatuta -% 24,2).

**201. koadroa Bidaiarien mugimendua konpainien arabera**

*(m)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | %∆ 21/20 |
|---|---|---|---|---|
| Renfe-Bilboko sarea | 10.574 | 6.572 | 7.727 | 17,6 |
| Renfe-Donostiako sarea | 5.858 | 4.095 | 4.735 | 15,6 |
| EuskoTren | 23.857 | 16.128 | 19.837 | 23,0 |
| **Guztira** | **40.288** | **26.795** | **32.299** | **20,5** |

*Iturria: Renfe eta EuskoTren.*

EuskoTreneko bidaiari kopuruak ere gora egin zuen (+% 23) eta 19.837 mila bidaiari izan zituen guztira ekitaldian zehar, covidaren aurreko balioak baino % 16,9 beherago. Hala, Euskal Herriko operadore nagusi gisa zuen posizioa indartu zuen EuskoTrenek, bidaiarien % 61,4rekin.

Halaber, aintzat hartu behar da EuskoTren multimodala dela eta errepide eta tranbia bidezko garraio-zerbitzuak dituela. Hala, 2021ean, batez ere, tranbia-zerbitzua hazi zen, 7.762 bidaiarirekin (2020arekiko +% 30,8). Errepide bidezko garraioak ere urte arteko hazkundea izan zuen, 4.487 bidaiarirekin (+% 24,1).

Lehen esan dugunarekin bat etorriz, bi konpainiek 2020an baino diru gehiago bildu zuten, baina pandemiaren aurreko balioetara iritsi gabe. Hala, EuskoTrenek 25.440,4 mila euro bildu zituen 2021ean, aurreko urtean baino nabarmen gehiago (+% 25,7). Renfek, berriz, hazkunde handiagoa izan zuen (+% 63,4), eta 8.375,4 mila euro bilduta itxi zuen ekitaldia.

**202. koadroa Bidaiarien garraioagatiko diru-bilketa**

*(m euro)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | %Δ 21/20 |
|---|---|---|---|---|
| Renfe* | 14.934,8 | 5.124,9 | 8.375,4 | 63,4 |
| EuskoTren** | 33.514,9 | 20.232,6 | 25.440,4 | 25,7 |
| **Guztira** | **48.449,7** | **25.357,5** | **33.815,8** | **33,4** |

*(*): Renferen datuak aldirietako bidaiariei bakarrik dagozkie.*
*(**): Trenaren zein tranbia eta autobusen diru-bilketa hartzen ditu barne. BEZik gabeko datuak.*
*Iturria: Renfe eta EuskoTren.*

Jatorria eta/edo helmuga Euskal Herrian zuten merkantzien bolumenari dagokionez, jarduera horrek hazkunde esponentziala izan zuen EuskoTrenen, baina Renferen bolumenak askoz ere handiagoa izaten jarraitu zuen; azken horrek 1.737,3 mila tona garraiatu zituen 2021ean (+% 4,4) eta covidaren aurreko balioetara gerturatu zen.

EuskoTrenek zifra historikoa lortu zuen merkantzia-jardueran, 69.559 tona garraiatuta; 2012raino egin behar da atzera antzeko zifra bat topatzeko. Nabarmendu beharrekoa da trenbide bidezko merkantzien garraioa helburu estrategikoa dela konpainiarentzat, eta datozen ekitaldietan sendotu egin nahi dutela jarduera hori.

**203. koadroa Jatorria eta/edo helmuga Euskal Herrian duten merkantzien bolumena(*)**

*(m Tm)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | %Δ 21/20 |
|---|---|---|---|---|
| Renfe | 1.781,3 | 1.664,3 | 1.737,3 | 4,4 |
| EuskoTren | 5,5 | 3,7 | 69,6 | 1.803,6 |
| **Guztira** | **1.786,8** | **1.667,9** | **1.806,9** | **8,3** |

*(*): Edukiontziak salbu.*
*Iturria: Renfe eta EuskoTren.*

Enpleguari dagokionez, bi konpainiek murriztu egin zuten langile kopurua (Renfe;-% 2,9 eta EuskoTrenek -%0,8) .Hala, 2021ean, 1.141 langile zituen EuskoTrenek, 2020an baino 69 pertsona gutxiago. Renfek, berriz, aurreko urtean baino 18 langile gutxiago izan zituen, eta 600 langileko mugatik behera kokatu zen.

**204. koadroa Trenbide bidezko garraioan enplegatutako langileak**

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | %∆ 21/20 |
|---|---|---|---|---|
| Renfe | 641 | 612 | 594 | -2,9 |
| EuskoTren | 1.164 | 1.150 | 1.141 | -0,8 |
| **Guztira** | **1.805** | **1.762** | **1.735** | **-1,5** |

*Iturria: Renfe eta EuskoTren.*

Azkenik, nabarmendu beharrekoa da Errusia-Ukraina gerra-gatazka hasi zenetik agertutako krisi energetikoak eta inflazioaren igoerak gogor kaltetu ditzakeela trenbide bidezko bidaiarien garraioa eta, ondorioz, gainerako garraiobideak ere.

### Bilboko Metroa

Pandemia lehertu zenetik urtebete pasatuta, 2021eko ekitaldia trantsizio-urtea izan zen. Egoera ez zen izan 2020koa bezain berezia, baina osasun-krisiaren inpaktuak hor jarraitu zuen, hainbat olatu agertu baitziren eta neurri murriztaileak ezarri behar izan baitziren kutsadurak murrizteko. Hala, Bilboko Metroak 66.780 mila bidaiarirekin amaitu zuen 2021a, urtebete lehenago baino % 19,3 gehiagorekin (10.793 mila erabiltzaile gehiago); dena den, covidaren aurreko zifrak baino % 27,1 beherago kokatu zen.

**205. koadroa Bidaiarien mugimendua Bilboko Metroan**

| Urtea | Bidaiariak (m) | %∆ |
|---|---|---|
| 2012 | 87.615 | -2,2 |
| 2013 | 87.133 | -0,6 |
| 2014 | 87.397 | 0,3 |
| 2015 | 87.536 | 0,2 |
| 2016 | 87.105 | -0,5 |
| 2017 | 88.172 | 1,2 |
| 2018 | 89.919 | 2,0 |
| 2019 | 91.570 | 1,8 |
| 2020 | 55.987 | -38,9 |
| 2021 | 66.780 | 19,3 |

*Iturria: Bilboko Metroa.*

Testuingurua ezohikoa izan zen, eta pandemiaren bilakaerak baldintzatu egin zuen bidaiarien mugimendua. Hala, osasun-egoera konplikatuari (ospitaleetan presio handiagoa) erantzuteko ezarritako neurri murriztaileek (edukiera-mugak, itxiera perimetralak...) urtearen hasierari eta amaierari eragin zieten, eta urtearen erdiko aldia izan zen "normalena". Aisialdi-jarduerak, bilera sozialak eta kultura eta kirol arloko ekitaldi ugari itzuli zirenean, pertsonen mugikortasuna ere hazi egin zen. Hortaz, ekitaldia lurrunkorra izan zen. Bidaiari gehieneko eguna Black Friday (azaroak 26) izan zen berriz ere. 2019an egun horrek aurre hartu zion San Tomas egunari, eta bidaia kopuru handieneko eguna bilakatu zen.

Bilboko Metroaren sarea osatzen duten 42 geltokietan erregistratutako bidaiarien mugimenduari dagokionez, Enbor Komunean 19.645.409 bidaia egin ziren, 2020an baino % 21,4 gehiago; hala ere, 2019ko balioa baino % 29,3 beherago mantendu zen oraindik ere. Zazpikaleak geltokia izan zen bidaiari gehien jaso zituena, 5.081.673 balioztatzerekin; hau da, % 19,4ko hazkundea izan zuen. Hazkunde bera izan zuten Indautxuk (+% 19,9) eta Moyuak (+% 18,5) ere, eta 4.641.773 eta 4.327.358 bidaiarekin amaitu zuten urtea, hurrenez hurren. Bilakaera bera izan zuten 1. lineak (Etxebarri-Plentzia) eta 2. lineak ere (Basauri-Kabiezes), urte arteko hazkundeekin. Areeta-Algorta (348.617) eta Barakaldo-Gurutzeta (330.783) tarteak izan ziren bidaiari gehien jaso zituztenak, beste behin ere.

Bilboko Metroan erabil daitezkeen txartelei dagokienez, haien ordezkaritza ez da asko aldatu. Hala, Creditrans txartela da gehien erabiltzen dena: 10 erabiltzailetik 5ek. Aldi baterako txartelak (% 25) eta Gizatrans dira hurrengoak (bidaiarien % 11,1k aukeratzen dute). Urteko txartelek eta aldizkako txartelek osatzen dute eskaintza, ordezkaritza txikiarekin: erabiltzaileen % 4,3 eta % 1,8, hurrenez hurren.

## 3.2. ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA

Errepide bidezko garraioaren bilakaera aztertzeko, ibilgailuen parkearekin hasiko gara. Trafiko Zuzendaritza Nagusiak (DGT) argitaratutako informazioaren arabera, Estatuko parkea 35.179.760 ibilgailuk osatzen zuten 2021ean, aurreko ekitaldian baino apur bat gehiagok (+% 1,2). Euskal Herrian antzekoa izan zen bilakaera (+% 0,7), 1.884.339 ibilgailuk osatu zuten parkea.

Informazioa lurraldearen arabera banatuta, Bizkaiak % 37,2ko pisu erlatiboa izan zuen 2021ean, eta parkeak urte arteko hazkunde txikia izan zuen (+% 0,5). Gipuzkoak eta Nafarroak partaidetza berdina izan zuten (% 25,7 eta % 25,6) eta, Arabak, pisu erlatibo txikiagoa (% 11,6). Horiek urte arteko hazkunde txikiak izan zituzten (+% 0,6, +% 1,1 edo +% 0,7).

Estatuko eta Euskal Herriko ibilgailuen parkearen zahartze-datuei jarriko diegu arreta orain. Aurreko ekitaldietako goranzko joerari jarraituz, Estatuko parkearen batez besteko adina 13,5 urtekoa izan zen, Euskal Herrikoarena (12,8 urte) baino apur bat altuagoa. Hala, Europar Batasuneko zaharrenetakoa izan zen Espainiakoa. Horrekin lotuta, argi geratu zen beharrezkoa dela ANFAC[1] patronalak bultzatzen duen Plan Auto 2020-40 gisako planak bultzatzea. Beste gauza batzuen artean, ibilgailuen multzoa berriagoa izatea eta emisio baxukoak edo emisiorik gabekoak izatea du helburu plan horrek eta, bereziki, mugikortasun elektrikoa bultzatzen du.

Ibilgailu motari dagokionez, ez zen aldaketa nabarmenik izan parkearen osaeran. Estatuan, espero zen moduan, parkeko 10 ibilgailutik 7 turismoak ziren; horiek hazkunde hautemanezina izan zuten azken ekitaldi horretan, % 0,9koa. Presentzia handieneko bigarren kategoriak, kamioienak (guztizkoaren % 14,4), antzeko bilakaera izan zuen (+% 0,4). Motozikletek, berriz, % 11ko ordezkaritzarekin, hazkunde handiagoa izan zuten (+% 3,5). Azken postuan kokatu ziren traktore industrialak (guztizkoaren % 0,7) eta autobusak (% 0,2), eta horiek apur bat egin zuten gora (+% 1,2 eta +% 1,6, hurrenez hurren).

Euskal Herriaren kasuan, Bizkaia buruan kokatu zen bost ibilgailu motatik hirutan: kamioiak (% 33,9), autobusak (% 48,5) eta turismoak (% 38,7). Bestetik, motozikleten kategorian Gipuzkoa kokatu zen lehen postuan (% 35,4) eta, traktore industrialen kasuan, Nafarroako Foru Erkidegoak izan zuen ekarpenik handiena (% 35,6). Parkearen bilakaerari dagokionez, motozikletek % 4,1eko hazkundea izan zuten. Traktore industrialek (+% 0,9), turismoek (+% 0,4) eta autobusek (+% 0,1) ere gora egin zuten apur bat. Kontrako muturrean kokatu ziren kamioiak, bilakaera negatiboa izan baitzuten ekitaldian (-% 0,4).

---

[1] Automobilen eta Kamioien Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea

### 206. koadroa Ibilgailuen parkea*

*(unitate)*

| Eremua | Kamioiak [1] | | Autobusak | | Turismoak | | Motozikletak | | Traktore industrialak | | Beste batzuk [2] | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| Araba | 28.762 | 28.935 | 481 | 510 | 159.840 | 160.357 | 17.006 | 17.588 | 1.482 | 1.530 | 8.709 | 8.936 | 216.280 | 217.856 |
| Bizkaia | 85.240 | 84.762 | 2.200 | 2.157 | 525.921 | 525.667 | 59.949 | 63.579 | 3.377 | 3.395 | 20.569 | 21.357 | 697.256 | 700.917 |
| Gipuzkoa | 61.025 | 60.467 | 944 | 943 | 332.331 | 333.564 | 64.648 | 66.316 | 3.289 | 3.397 | 18.593 | 19.044 | 480.830 | 483.731 |
| EAE | 175.027 | 174.164 | 3.625 | 3.610 | 1.018.092 | 1.019.588 | 141.603 | 147.483 | 8.148 | 8.322 | 47.871 | 49.337 | 1.394.366 | 1.402.504 |
| Nafarroa | 76.249 | 76.171 | 813 | 833 | 336.139 | 339.474 | 38.106 | 39.662 | 4.656 | 4.592 | 20.509 | 21.103 | 476.472 | 481.835 |
| Euskal Herria | 251.276 | 250.335 | 4.438 | 4.443 | 1.354.231 | 1.359.062 | 179.709 | 187.145 | 12.804 | 12.914 | 68.380 | 70.440 | 1.870.838 | 1.884.339 |
| Espainia | 5.033.212 | 5.052.669 | 63.414 | 64.451 | 24.717.557 | 24.940.071 | 3.736.030 | 3.866.162 | 235.721 | 238.493 | 982.413 | 1.017.914 | 34.768.347 | 35.179.760 |
| EH/Espainia % | 5,0 | 5,0 | 7,0 | 6,9 | 5,5 | 5,4 | 4,8 | 4,8 | 5,4 | 5,4 | 7,0 | 6,9 | 5,4 | 5,4 |

*(*): Behin-behineko datuak.*

*(1): Kamioiak eta furgonetak barne hartzen ditu.*

*(2): Beste ibilgailu batzuk, atoiak eta erdi-atoiak barne hartzen ditu.*

*Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia (DGT)*

Kamioien, traktore industrialen eta autobusen matrikulazio garbiari dagokionez, orokorrean, aurreko biurtekoan ikusitako joera errepikatu zen. Hala, Euskal Herrian okerrera egin zuten erreferentziazko adierazleek, Araban izan ezik. Estatuan, berriz, alderantzizkoa izan zen bilakaera.

Zehatzago esanda, Euskal Herrian, kamioien eta traktore industrialen matrikulazio garbiaren jaitsierak baldintzatu zituen emaitzak; 831 matrikulazio garbi gutxiago izan ziren, eta aztertutako lurralde guztiek izan zuten eragina jaitsiera horretan, neurri handiagoan edo txikiagoan, Arabak izan ezik. Bestetik, Estatuan gora egin zuten matrikulazio garbiek (+23.266), kamioien eta traktore industrialen kasuan (+22.229) zein autobusen kasuan (+1.037). Hala, jarraitu egin zuen urte batzuk lehenago hasitako goranzko joerak. Bestalde, Bizkaian eta Gipuzkoan murriztu egin ziren matrikulazio garbiak (-503 unitate eta -451 unitate), baita Nafarroan ere (-122). Araban ez zen hori gertatu, eta adierazle horrek hobera egin zuen (+250 unitate).



LABORAL kutxa

**207. koadroa Kamioi, traktore industrial eta autobusen matrikulazio garbia***

*(unitate)*

| Eremua | Kamioiak eta traktore industrialak | | Autobusak | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| Araba | -25 | 221 | -51 | 29 | -76 | 250 |
| Bizkaia | -106 | -460 | 80 | -43 | -26 | -503 |
| Gipuzkoa | -762 | -450 | -25 | -1 | -787 | -451 |
| EAE | -893 | -689 | 4 | -15 | -889 | -704 |
| Nafarroa | -217 | -142 | -9 | 20 | -226 | -122 |
| Euskal Herria | -1.110 | -831 | -5 | 5 | -1.115 | -826 |
| Espainia | 17.974 | 22.229 | -2.059 | 1.037 | 15.915 | 23.266 |

*(*): Parkearen urte arteko aldakuntza.*
*Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia (DGT)*

Motorizazio-indizeak aztertuko ditugu orain, eta 1.000 biztanleko ibilgailuen indizearekin hasiko gara. 2021ean ratioa igo egin zen aintzat hartutako lurralde guztietan. Euskal Herrian 1.000 biztanleko 655 ibilgailukoa izan zen tasa, aurreko ekitaldian baino zerbait altuagoa, baina Estatukoa baino nabarmen baxuagoa: 1.000 biztanleko 742 ibilgailu. Informazioa lurraldeka banatuta, Nafarroak izan zuen tasarik altuena: 728 ibilgailu 1.000 biztanleko. Gipuzkoa eta Araba kokatu ziren ondoren, distantzia apur batera, 1.000 biztanleko 666 eta 653 ibilgailurekin, hurrenez hurren. Eta, azkenik, Bizkaia, 1.000 biztanleko 607 ibilgailurekin.

Bigarren adierazleari, hau da, turismo bakoitzeko biztanle kopuruari dagokionez, egonkortasuna gailendu zen, Nafarroan izan ezik, lurralde horretan apur bat jaitsi baitzen tasa (1,9 eta 2020an 2,0). Euskal Herrian tasa mantendu egin zen: turismo bakoitzeko 2,1 biztanle; hala, Estatuko balioa baino altuagoa izan zen (1,9 biztanle turismo bakoitzeko). Halaber, Gipuzkoa eta Bizkaia Euskal Herriko batezbestekotik gora kokatu ziren, turismo bakoitzeko 2,2 biztanlerekin, baita Arabari esleitutako baliotik apur bat gorago ere (2,1 biztanle turismo bakoitzeko).

**208. koadroa Motorizazio-indizeak**

| Eremua | Ibilgailuak/1.000 biztanle | | Biztanleak/Turismoa | |
|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| Araba | 648 | 653 | 2,1 | 2,1 |
| Bizkaia | 601 | 607 | 2,2 | 2,2 |
| Gipuzkoa | 661 | 666 | 2,2 | 2,2 |
| EAE | 628 | 633 | 2,2 | 2,2 |
| Nafarroa | 721 | 728 | 2,0 | 1,9 |
| Euskal Herria | 649 | 655 | 2,1 | 2,1 |
| Espainia | 733 | 742 | 1,9 | 1,9 |

*Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia eta guk geuk egina.*

Azterketarekin jarraitzeko, errepide bidezko merkantzien garraioari jarriko diogu arreta. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak Merkantzien Errepide Bidezko Garraioari buruzko Inkesta Iraunkorrarekin lotuta argitaratutako informazioaren arabera,

egoerak hobera egin zuen apur bat, osasun-krisiaren inpaktuak baldintzatutako ekitaldiaren ondoren. Hala, garraiatutako merkantzien bolumenak gora egin zuen Euskal Herrian (bilakaera ezberdina izan zuen EAEn eta Nafarroan) eta Estatuan.

EAEko datuetan sakonduta, ekitaldian zehar 87.712 mila tona garraiatu ziren –Euskal Herriko merkantzia guztien bi heren baino gehiago–. Hortaz, % 9,4ko hazkundea izan zuen, eskualdearteko garraioaren (+% 12,9) zein eskualde barruko garraioaren (+% 5) hazkundeen ondorioz. Nafarroan, bestalde, % 1,2 murriztu ziren garraiatutako merkantziak; kasu honetan 42.047 mila tonara heldu ziren. Izan ere, eskualde barruko garraioak bilakaera negatiboa izan zuen (-% 5,4) eta, eskualdearteko garraioak, aldiz, hazkunde apala erregistratu zuen (+% 0,9). Hala, Euskal Herrian 129.759 mila tona merkantzia garraiatu ziren, aurreko ekitaldian metatutako bolumena baino % 5,7 gehiago. Estatuan, berriz, 1.264.283 mila tonara heldu ziren; hala, trafikoa % 9,8 hazi zen 2020arekin alderatuta.

**209. koadroa Garraiatutako merkantziak, autonomia-erkidegoaren arabera. Eskualde barruko garraioa eta eskualde arteko garraioa, jatorri eta/edo helmugako autonomia-erkidegoaren arabera.**

*(m Tm)*

| Eremua | EAE | | Nafarroa | | Euskal Herria | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| Eskualde barruko garraioa | 35.372 | 37.142 | 14.217 | 13.454 | 49.589 | 50.596 | 800.956 | 869.430 |
| Eskualdearteko garraioa | 44.806 | 50.569 | 28.338 | 28.593 | 73.144 | 79.163 | 350.527 | 394.853 |
| **Guztira** | **80.178** | **87.712** | **42.555** | **42.047** | **122.733** | **129.759** | **1.151.483** | **1.264.283** |

*Iturria: Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren Estatistika Buletina.*

Informazioa garraio motaren arabera banakatuta eta eskualdearteko garraioarekin hasita, EAEn garraiatutako merkantzien guztizkoaren % 57,7 egokitu zitzaion mota horri, hortaz, nabarmen hazi zen 2020ko datuekin alderatuta (+% 12,9). Nafarroan, berriz, % 68ko ekarpena izan zuen, eta jarduerak ez zuen hainbesteko hazkundea izan (+% 0,9). Eskualde barruko garraioari dagokionez, % 42,3ko kuota izan zuen EAEn, eta garraiatutako merkantzien bolumena % 5 hazi zen. Foru Erkidegoan, aitzitik, murriztu egin zen eskualde barruko jarduera (-% 5,4) eta, ondorioz, jaitsi egin zen guztizkoaren gaineko ekarpena (% 32). Horren guztiaren ondorioz, Euskal Herrian, eskualdearteko garraioan % 8,2 hazi ziren garraiatutako merkantziak, eta hazkunde txikiagoa izan zuen eskualde barruko garraioak (+% 2); lehenengoari esleitutako bolumena askoz ere altuagoa izan zen (% 61 eta % 39).

Errepide bidezko garraioaren gaineko kapitulua amaitzeko, EAEko hiriburuetan lan egiten duten hiru konpainien magnitude nagusien bilakaera aztertuko dugu. Hauek dira hiru konpainia horiek: Bilbobus, DBUS eta Transportes Urbanos de Vitoria (TUVISA). Horrekin lotuta, aipatu beharrekoa da txosten hau egiteko unean (2022ko uztaila) ez genuela 2021eko ekitaldiari buruzko informaziorik TUVISAren inguruan.



LABORAL kutxa

**210. koadroa Hiri-garraioa. Sektorearen oinarrizko datuak.**

| Kontzeptua | Bilbo | | Donostia | | Gasteiz | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| Sareko lineak (*) | 45 | 45 | 41 | 41 | 15 | -- |
| Luzera (km) | 685,3 | 723,7 | 541,0 | 541,0 | 203,5 | -- |
| Autobusen parkea | 141 | 141 | 139 | 142 | -- | -- |
| Plantilla | 606 | 614 | 529 | 544 | -- | -- |

*(*): Eguneko eta gaueko lineak barne hartzen ditu.*
*(--): Txosten hau egitean datuak ez zeuden eskuragarri.*
*Iturria: Transportes Colectivos S.A.; Cía. del Tranvía de San Sebastián, S.A.; Transportes Urbanos de Vitoria, S.A.*

Hala, Bilbobus garraio-konpainiarekin hasiko gara. 2020an jarduera mugatua izan zen, pandemiari aurre egiteko ezarritako neurrien ondorioz, baina 2021ean jarduerak nolabaiteko bultzada izan zuen. Susperraldia erakusten duen lehen adierazlea langile kopuruaren bilakaera da, 8 langile gehiago baitzeuden; guztira, 614. Halaber, autobusen parkea eta autobus-lineak aldatu ez baziren ere (141 eta 45, hurrenez hurren), sarearen luzera hazi egin zen, eta 723,7 kilometrora heldu zen.

DBUSeko langile kopuruari dagokionez, 15 kontratazio berri erregistratu zituen 2021ean, eta 544 langilera iritsi ziren. Halaber, 2021ean DBUSek 3 unitate gehiago gehitu zizkion autobusen flotari, hortaz, 142 unitatek osatu zuten ibilgailuen parkea. Bestetik, konpainiak mantendu egin zuen zerbitzu-sarea, 41 linearekin (32 egunekoak eta 9 gauekoak) eta 541 kilometroko luzerarekin.

TUVISA enpresari dagokionez, 2020an mantendu egin zen sareko linea kopurua: 15 linea, horietatik 10 egunekoak eta 5 gauekoak –azken hauek zerbitzurik gabe martxoaren 15az geroztik–. Sarearen luzera 203,5 kilometrokoa izan zen. 2019ko ekitaldiko parke mugikorraren eta plantillaren gaineko datuen arabera –ez dugu 2020ko daturik–, enpresak 85 autobus eta 345 langile zituen.

**211. koadroa Hiri-garraioaren bilakaera**

| Kontzeptua | Bilbo | | Donostia | | Gasteiz | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| Ibilitako km baliagarriak (m) | 5.988 | 6.289 | 5.893 | 6.925 | 3.363 | -- |
| Garraiatutako bidaiariak (m) | 15.900 | 19.372 | 17.818 | 22.266 | 3.365 | -- |
| Diru-bilketa (m euro) | 7.166 | 8.764 | 12.148 | 15.351 | 3.686 | -- |
| Ustiapenaren emaitza (m euro) | -- | -- | -25.263 | -26.081 | -- | -- |
| Tarifak (euro) | 1,35/0,66 | 1,35/0,66 | 1,85 | 1,85 | 1,4/0,6 | -- |

*(--): Txosten hau egitean datuak ez zeuden eskuragarri.*
*Iturria: Transportes Colectivos SA; DBUS; Transportes Urbanos de Vitoria, SA.*

Halaber, 2021ean Bilbobusek 6.289 kilometro baliagarri egin zituen, aurreko ekitaldian baino 301 gehiago. Hala, 19.372 mila bidaiari garraiatu zituen, 2020an baino % 21,8 gehiago. Ildo beretik, konpainiaren guztizko diru-bilketa antzeko proportzioan hazi zen (+% 22,3) eta 8.764 mila eurora iritsi zen.

DBUSek 6.925 kilometro baliagarri egin zituen 2021ean (2020an baino 1.032 gehiago) eta 22.266 mila erabiltzaile garraiatu zituen (+% 25,0). Horrek inpaktua izan zuen diru-bilketan, eta 15.351 mila euro fakturatu zituen (+% 26,4). Dena den, ustiapenaren emaitza 2020koa baino baxuagoa izan zen (-26.081 mila euro)

TUVISAri dagokionez, ez dugu 2021eko informaziorik, baina adierazle nagusiak indartu egin zirela pentsa dezakegu, mugikortasunaren egoera hobea zela aintzat hartuta. Hala, 2020ko balantzeak (eskuragarri dugun azken urtea) erakusten du adierazle nagusiak asko okertu zirela. Zehatzago esanda, ibilitako kilometro baliagarrien guztizkoak aldakuntza negatiboa izan zuen (-% 25,9) eta 3.363 mila kilometrotan kokatu zen. Garraiatutako bidaiari kopuruak are jaitsiera handiagoa izan zuen (-% 79,2). Horrek enpresaren diru-sarrerei eragin zien, modu negatiboan, 3.686 mila euro fakturatu baitzituen konpainiak, aurreko urtean fakturatutakoaren ia erdia (-% 48,1).

## 3.3. ITSASO BIDEZKO GARRAIOA

Itsaso bidezko garraioari dagokionez, 2020ko ekitaldia kaltetu egin zuen pandemiak, baina 2021ean suspertu egin zen mundu mailako jarduera (+% 3,3), eta 2019ko mailaren antzekoan kokatu zen (-% 0,2). Hala, eta ANAVEk (Espainiako Ontzi Elkartea) argitaratutako informazioaren arabera, 2021ean 11.965 mila tonara heldu zen mundu mailako itsasoko merkataritza; azken hamarkadako bigarren erregistrorik onena izan zen.

**212. koadroa Itsaso bidezko munduko merkataritza**

*(M Tm)*

| Merkantziak | 2019 | 2020 | 2021 | % Δ 21/20 |
|---|---|---|---|---|
| Solteko salgai solido nagusiak (1) | 3.216 | 3.179 | 3.273 | 3,0 |
| Petrolio gordina eta produktuak | 3.096 | 2.826 | 2.842 | 0,6 |
| Beste solteko salgai solido batzuk | 2.036 | 1.990 | 2.094 | 5,2 |
| Edukiontzietako kargak | 1.879 | 1.852 | 1.955 | 5,6 |
| Karga orokor konbentzionala | 927 | 903 | 940 | 4,1 |
| Beste solteko salgai likido batzuk (2) | 833 | 831 | 861 | 3,6 |
| **Guztira** | **11.987** | **11.581** | **11.965** | **3,3** |

*(1): Ikatza, burdin-mea, alea.*
*(2): Gas likidotuak eta produktu kimikoak.*
*Iturria: Anave, Clarkson.*

Mundu mailako merkataritzaren datuak merkantzia motaren arabera aztertuta, argi ikusten da ekitaldia positiboa izan zela guztientzat. Pisu handieneko partidatik hasita, hau da, solteko salgai solidoetatik (guztizkoaren % 27,3), horien trafikoa % 3 hazi zen urtean zehar. Petrolio gordinak eta produktuek % 23,7ko ordezkaritza izan zuten eta apur bat hazi ziren horien balioak (+% 0,6). Beste solteko salgai solido batzuek, berriz, % 17,5eko partaidetzarekin, hazkunde handiagoa izan zuten (+% 5,2); eta antzeko bilakaera izan zuen edukiontzietako kargak (+% 5,6 eta % 16,3ko ordezkaritza).

Azkenik, karga orokor konbentzionalak (% 7,8ko pisua) eta beste solteko salgai likido batzuek (% 7,2) ere nahiko hazkunde nabarmenak izan zituzten (+% 4,1 eta +% 3,6, hurrenez hurren).

**213. koadroa Espainiako itsas merkataritza**

*(m Tm)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | % ∆ 21/20 |
|---|---|---|---|
| Esportazioak | 99.966 | 109.107 | 9,1 |
| Inportazioak | 180.096 | 197.923 | 9,9 |
| Kabotajea | 41.839 | 45.117 | 7,8 |
| **Guztira** | **321.901** | **352.147** | **9,4** |

*Iturria: Anave, Estatuko Portuak.*

Azterketa Estatu mailara eramanda, mundu mailan gertatu bezala, Espainiako itsasoko merkataritzak nolabaiteko bultzada izan zuen 2020ko ekitaldi zailaren ondoren. Hala, 2021ean 352.147 mila tona garraiatu ziren guztira, aurreko ekitaldian baino % 9,4 gehiago. Izan ere, kontuan hartutako magnitude guztiek urte arteko hazkundeak izan zituzten. Trafiko nazionalaren erdia baino gehiago (% 56,2) inportazioei zegokien eta horiek % 9,9 hazi ziren. Antzeko hazkundea izan zuten esportazioek ere (+% 9,1), eta merkantzien trafikoaren % 31ren erantzuleak izan ziren. Kabotajeak ere, % 12,8ko pisu espezifikoarekin, joera nagusiari jarraitu eta balioak handituta amaitu zuen ekitaldia (+% 7,8).

Nazioarteko eta Estatuko merkataritzaren bilakaera aztertuta, 2021ean Bilboko portuan (Bizkaia) eta Pasaiako portuan (Gipuzkoa) garatutako jardueraren balantzea egingo dugu jarraian.

Bilboko portuaren analisiarekin hasita, Bizkaiko dartsenako itsasoko trafikoa partzialki suspertu zen (+% 5,6); guztira 31.299 mila tona garraiatu zituen, oraindik ere pandemiaren aurreko balioetatik urrun. Dena den, Euskal Herriko erreferentziazko portua izaten jarraitu zuen Bizkaikoak, eta jardueraren zatirik handiena jaso zuen (guztizko trafikoaren % 89,8).

Informazioa banatuta, ikus daiteke bi partida nagusiek, hau da, karga (% 34,4) eta deskarga (% 65,2) jarduerek, urte arteko hazkundeak izan zituztela (+% 6,8 eta +% 4,9, hurrenez hurren). Testuinguru horretan, hornidurak, ia hondarreko presentziarekin (% 0,4), hazkunde handiagoa izan zuen (+% 15,3).

**214. koadroa Euskal Herriko portu nagusietako trafikoa**

(m Tm)

| Kontzeptua | Bilbo | | | Pasaia | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2019 | 2020 | 2021 | 2019 | 2020 | 2021 |
| Deskargak | 23.062,9 | 19.466,2 | 20.416,5 | 1.829,9 | 1.792,7 | 2.211,6 |
| Kargak | 12.383,4 | 10.077,9 | 10.766,1 | 1.368,0 | 1.200,7 | 1.282,7 |
| Zuzkidura | 114,7 | 101,1 | 116,5 | 25,1 | 22,8 | 23,9 |
| Tokiko trafikoa | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Arrantza | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 21,9 | 20,5 | 18,8 |
| **Guztira** | **35.561,0** | **29.645,1** | **31.299,0** | **3.244,9** | **3.036,6** | **3.537,0** |

*Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Pasaiako Portuko Agintaritza.*

Azterketa Pasaiako portura ekarrita, Gipuzkoako dartsenak 3.537 mila tona garraiatu zituen. Hala, jarduerak oso bilakaera ona izan zuen 2021ean, eta covidaren aurreko erregistroak gainditzea lortu zuen. Zehatzago esanda, deskarga-jarduerek, pisu erlatibo handienarekin (guztizkoaren % 62,5), bi digituko hazkundea izan zuten (+% 23,4). Kargak (% 36,3), berriz, igoera apalagoa izan zuen (+% 6,8), baita hornidurak ere (+% 4,8); azken horren pisua askoz ere txikiagoa izan zen (% 0,7). Arrantzak, bestalde, ez zuen bilakaera hori izan eta asko murriztu zuen bolumena (-% 8,3). Dena den, portuko jardueran oso txikia da arrantzaren presentzia (% 0,5).

**215. koadroa Merkantzien guztizko trafikoaren osaera**

(m Tm)

| Kontzeptua | Bilbo | | | Pasaia | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2019 | 2020 | 2021 | 2019 | 2020 | 2021 |
| Petrolio-produktuak | 14.644,3 | 12.563,8 | 12.692,5 | -- | -- | -- |
| Merkantzia orokorra | 9.943,6 | 7.719,4 | 8.766,7 | 2.166,6 | 1.984,2 | 2.389,8 |
| Solteko salgai solidoak | 4.681,2 | 3.668,0 | 4.651,3 | 1.031,3 | 1.009,1 | 1.104,4 |
| Beste solteko salgai likido batzuk (*) | 6.177,2 | 5.592,9 | 5.072,0 | -- | -- | -- |
| Gainerakoak | 114,7 | 101,1 | 116,5 | 47,0 | 43,3 | 42,8 |
| **Guztira** | **35.561,0** | **29.645,1** | **31.299,0** | **3.244,9** | **3.036,6** | **3.537,0** |

*(*): Datua gas naturalaren eta beste solteko salgai batzuen baturari dagokio.*
*Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Pasaiako Portuko Agintaritza.*

Bilboko portuko merkantzien guztizko trafikoaren osaerari buruzko datuetan sakonduta, orokorrean hazkundeak izan ziren, eta solteko salgai likidoen jarduerak baino ez zuen behera egin (-% 9,3). Petrolio-produktuek ordezkaritza handiagoa zuten (% 40,6) eta apur bat hazi ziren (+% 1). Merkantzia orokorra eta solteko salgai solidoak (guztizkoaren % 28 eta % 14,9, hurrenez hurren), berriz, neuri handiagoan hazi ziren (+% 13,6 eta +% 26,8).

Gainerako produktuek, askoz ere partaidetza txikiagoarekin (% 0,4), ere lortu zuten 2021ean jarduera areagotzea (+% 15,3).

Pasaiako portuari dagokionez, merkantzia orokorrari dagokio jardueraren zatirik handiena (% 67,6) eta haren balioak asko hazi ziren (+% 20,4).

Joera bera izan zuten solteko salgai solidoek, baina neurri txikiagoan (+% 9,4), eta trafikoaren heren baten erantzuleak izan ziren. Gainerako produktuek, berriz, partaidetza oso txikiarekin (% 1,2), murriztu egin zuten trafikoa 2021ean (-% 1,2).

**216. koadroa Kanpoko trafikoa eta kabotajea**

*(m Tm)*

| Kontzeptua | Bilbo | | | Pasaia | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2019 | 2020 | 2021 | 2019 | 2020 | 2021 |
| Inportazioa | 22.415,6 | 19.024,4 | 19.646,3 | 1.751,3 | 1.763,4 | 2.184,9 |
| Esportazioa | 10.772,5 | 8.855,0 | 9.649,4 | 1.368,0 | 1.200,5 | 1.282,6 |
| Kabotajea | 2.258,2 | 1.664,7 | 1.886,8 | 78,6 | 29,4 | 26,8 |
| **Guztira** | **35.446,3** | **29.544,1** | **31.182,5** | **3.197,9** | **2.993,3** | **3.494,3** |

*Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Pasaiako Portuko Agintaritza.*

EAEko kanpo-merkataritzari eta kabotajeari dagokienez, eta bi portuen balantze bateratua aintzat hartuta, nazioarteko merkataritza asko hazi zen (+% 6,6) eta 34,7 mila tona maneiatu zituzten –horietatik 31,2 mila tona Bilboko portuari zegozkion–. Dena den, ez zituzten covidaren aurreko balioak gainditu. Zehazki, inportazioek, % 63ko pisu erlatiboarekin, aurreko ekitaldiko erregistroak hobetu zituzten (+% 5).
Esportazioek ere gora egin zuten, inportazioek baino apur bat gehiago (+% 8,7). Eta, azkenik, kabotajeak izan zuen urte arteko bilakaerarik onena (+% 13), partaidetza-kuota txikiagoarekin (% 5,5).

Bilboko portuari buruzko informazioan sakonduta, ikus daiteke inportazioek (+% 3,3), esportazioek (+% 9) eta kabotajeak (+% 13,3) lortu zutela haien bolumena handitzea 2021ean. Inportazioak (% 63) eta esportazioak (% 30,9) izan ziren jardueraren zatirik handienaren erantzuleak.

Pasaiako portuan azterketa bera eginda, inportazioek bultzada handia izan zutela ikus daiteke (+% 23,9). Esportazioen hazkundea txikiagoa izan zen (+% 6,8) eta kabotajeak behera egin zuen (-% 8,8). Horren guztiaren ondorioz, inportazioak kokatu ziren buruan, kanpo-trafikoaren % 62,5arekin; segidan esportazioak, % 36,7arekin eta, azkenik, kabotajea, % 0,8arekin.

**217. koadroa Bilboko Portuaren kanpoko trafikoaren osaera. 2021**

*(m Tm)*

| Esportazioak | | Inportazioak | |
|---|---|---|---|
| Beste mineral ez-metaliko batzuk | 1.154,4 | Petrolio gordina | 7.475,0 |
| Gasolina | 1.090,1 | Gas naturala | 3.081,9 |
| Produktu kimikoak | 1.037,0 | Produktu siderurgikoak | 1.738,9 |
| Produktu siderurgikoak | 759,1 | Soja-babak | 1.000,3 |
| Zementua eta klinkerra | 658,9 | Produktu kimikoak | 874,7 |
| Beste petrolio-produktu batzuk | 626,2 | Fuel-olioa | 697,2 |
| Beste batzuk | 4.323,6 | Beste batzuk | 4.778,2 |
| **Guztira** | **9.649,4** | **Guztira** | **19.646,3** |

*Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Geuk egina.*

Esportazioen eta inportazioen informazioa merkantzia motaren arabera banakatuta, eta Bilboko portuari dagokionez, mineral metalikoak (% 12ko partaidetza) eta gasolina (% 11,3ko partaidetza) kokatu ziren buruan, eta biek bilakaera oso positiboa izan zuten (+% 47,3 eta +% 18,7). Produktu kimikoek (+% 17,9) eta produktu siderurgikoek (+% 29,6) ere bilakaera positiboa izan zuten, % 10,7 eta % 7,9ko partaidetzekin. Azkenik, zementua eta klinkerrak eta beste petrolio-produktu batzuek, esportazioen mapan antzeko presentzia izan arren (% 6,8 eta % 6,5), bilakaera ezberdina izan zuten (+% 61,3 eta +% 0,9).

Inportazioei dagokienez, lehenengo bi posizioetan zeuden merkantziek, hau da, petrolio gordinak (kuotaren % 38) eta gas naturalak (% 15,7), ez zuten joera nagusia jarraitu eta balioek behera egin zuten 2021ean (-% 2,6 eta -% 18,2). Distantzia handira kokatu ziren produktu siderurgikoak (% 8,9) eta soja-babak (% 5,1), eta neurri ezberdinetako hazkundeak izan zituzten (+% 17,1 eta +% 3,9). Produktu kimikoek (% 4,5) eta fuel-olioak (% 3,5) osatu zuten esportazioen mapa; biek gora egin zuten.

**218. koadroa Pasaiako Portuaren kanpoko trafikoaren osaera. 2021**

*(m Tm)*

| Esportazioak | | Inportazioak | |
|---|---|---|---|
| Produktu siderurgikoak | 671,3 | Produktu siderurgikoak | 1.047,2 |
| Ibilgailuak eta horien piezak | 343,4 | Papera eta orea | 228,6 |
| Eraikuntza-materialak | 69,1 | Burdina-txatarrak | 167,7 |
| Zementua eta klinkerra | 68,4 | Zerealak eta horien irinak | 143,6 |
| Pentsua eta bazkak | 37,9 | Pentsua eta bazkak | 124,0 |
| Beste salgai batzuk | 92,5 | Beste salgai batzuk | 473,8 |
| **Guztira** | **1.282,6** | **Guztira** | **2.184,9** |

*Iturria: Pasaiako Portuko Agintaritza. Geuk egina.*

Analisia Pasaiako portuko kanpo-merkataritzara mugatuta, esportazioak % 6,8 hazi ziren eta, inportazioak, % 23,9. Esportazioen arloan, produktu siderurgikoek lehen postua indartu zuten; esportazioen % 52,3ren erantzuleak izan ziren, eta nabarmen hazi ziren haien balioak (+% 26,8).

Ibilgailuak eta horien piezak izan ziren pisu handieneko bigarren partida (% 26,8); horien jarduera % 9,1 murriztu zen. Bilakaera bera izan zuten eraikuntza-materialek (-% 19,6); horien ekarpena % 5,4koa izan zen. Aitzitik, zementua eta klinkerraren esportatutako bolumena % 58,3 hazi zen, eta bazkena % 17,7; hala, biak batera aintzat hartuta, % 8,3ko partaidetza izan zuten.

Inportazioei dagokienez, esportazioen kasuan aipatu dugun moduan, produktu siderurgikoak izan ziren trafiko handiena sortu zutenak (% 47,9); aldi berean, horien zifrak ere asko hazi ziren (+% 40,6). Halaber, ekitaldian zehar bilakaera positiboa izan zuten paperak eta oreak (+% 21,7), burdina-txatarrak (+% 89,9) eta zerealek eta horien irinek (+% 35,7); denak aintzat hartuta, inportazioen laurden bat zegokien horiei. Aitzitik, pentsuek eta bazkek bakarrik egin zuten behera (-% 30,1), eta % 5,7ko partaidetza izan zuten.

**219. koadroa Bilboko Portua. Herrialdeen araberako trafikoa2021**

(m Tm)

| Herrialdea | Deskargak | Kargak | Guztira |
|---|---|---|---|
| Errusia | 5.453,6 | 81,2 | 5.534,9 |
| Erresuma Batua | 1.093,0 | 1.726,0 | 2.819,1 |
| Mexiko | 2.605,0 | 135,1 | 2.740,1 |
| Estatu Batuak | 1.414,9 | 1.089,5 | 2.504,5 |
| Espainia | 770,2 | 1.116,6 | 1.886,8 |
| Herbehereak | 573,4 | 1.040,6 | 1.613,9 |
| Belgika | 401,0 | 947,7 | 1.348,7 |
| Brasil | 808,8 | 364,2 | 1.173,0 |
| Irlandako Errepublika | 303,9 | 525,4 | 829,3 |
| Frantzia | 153,4 | 513,9 | 667,2 |
| Txina | 390,1 | 144,3 | 534,4 |
| Alemania | 181,3 | 293,4 | 474,7 |
| Libia | 472,9 | 0,1 | 473,0 |
| Beste batzuk | 5.794,9 | 2.788,0 | 8.582,9 |
| **Guztira** | **20.416,5** | **10.766,0** | **31.182,5** |

*Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Geuk egina.*

Informazioa herrialdeen arabera banakatuta, Bilboko portuan hainbat aldaketa izan ziren kanpoko trafikoaren osaeran. Bigarren urtez jarraian, Errusia kokatu zen rankingaren buruan (% 17,7), Erresuma Batuaren (% 9) aurretik, azken honek Mexikori (% 8,8) bigarren postua kentzea lortu baitzuen. Jarraian, Estatu Batuak (% 8), Espainia (% 6,1) eta Herbehereak (% 5,2) kokatu ziren, aurreko ekitaldiko posizio berdinak mantenduta. Belgikak (% 4,3) eta Brasilek (% 3,8) berriz, postuak trukatu zituzten elkarren artean. Irlandak, Frantziak, Txinak, Alemaniak eta Libiak osatu zuten rankinga, % 1,5 eta % 3 arteko ordezkaritzekin.

**220. koadroa Pasaiako Portua. Herrialdeen araberako trafikoa2021**

*(m Tm)*

| Herrialdea | Deskargak | Kargak | Guztira |
|---|---|---|---|
| Erresuma Batua | 268,9 | 476,2 | 745,1 |
| Herbehereak | 423,6 | 43,6 | 467,2 |
| Belgika | 158,3 | 236,8 | 395,1 |
| Suedia | 338,8 | 3,8 | 342,5 |
| Alemania | 243,6 | 36,5 | 280,2 |
| Finlandia | 151,2 | 4,9 | 156,1 |
| Irlanda | 45,7 | 99,6 | 145,4 |
| Errusia | 79,3 | 0,3 | 79,6 |
| Aljeria | 75,3 | 0,0 | 75,3 |
| Turkia | 16,9 | 58,2 | 75,1 |
| AEB | 57,3 | 1,3 | 58,7 |
| Mexiko | 0,0 | 57,2 | 57,2 |
| Kanada | 0,0 | 50,5 | 50,5 |
| Beste batzuk | 352,7 | 213,7 | 566,4 |
| **Guztira** | **2.211,6** | **1.282,7** | **3.494,3** |

*Iturria: Pasaiako Portuko Agintaritza. Geuk egina.*

Pasaiako portuko merkataritza-bazkide nagusiei dagokienez, Erresuma Batua kokatu zen lehen postuan, merkataritza-fluxuen % 21,3rekin. Jarraian Herbehereak kokatu ziren, bigarren postura igotzea lortuta (% 13,4). Eta, ondoren, Belgika (% 11,3), Suedia (% 9,8), Alemania (% 8), Finlandia (% 4,5) eta Irlanda (% 4,2). Horiek guztiek posizio bat galdu zuten, Finlandiak izan ezik, rankingean gora egin baitzuen azken horrek. 2021ean Europako ohiko merkatuaz kanpoko herrialde berriak batu ziren merkataritzako bazkide nagusien rankingera, esaterako, Aljeria, Turkia, AEB, Mexiko eta Kanada, % 1,4 eta % 2,2 arteko partaidetzekin.

**221. koadroa Bilboko Portua. Magnitude ekonomikoak**

*(m euro)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|
| Zerbitzuengatiko diru-sarrerak eta kanonak | 69.277 | 58.960 | Daturik ez |
| Gastu arruntak | 36.053 | 35.223 | Daturik ez |
| Amortizazioak | 28.744 | 29.957 | Daturik ez |
| Ustiapenaren irabazia | 8.382 | -1.716 | Daturik ez |
| Ekitaldiaren emaitza | 7.551 | 431 | Daturik ez |
| Cash Flow | 36.295 | 30.388 | Daturik ez |
| Ibilgetu materiala | 476.213 | 459.111 | Daturik ez |

*ed: ez dago daturik.*
*Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza.*

Bilboko portuko 2020ko magnitude ekonomiko nagusiei dagokienez (txosten hau egiteko orduan eskuragarri zegoen azken informazioa), negozio-zifra % 14,9 murriztu zen eta 59 milioi euroko fakturazioa eskuratu zuen. Gastu arruntak 35,2 milioi eurokoak izan ziren, % 2,3 murriztu ondoren. Ondorioz, ustiapenaren emaitza 1,7 milioi euro negatibokoa izan zen (-% 120,5).



LABORAL kutxa

Dena den, ekitaldiaren emaitza positiboa izan zen (431 mila euro; -% 94,3), finantza -tresnen besterentzeak (2,5 milioi euro) izandako inpaktu positiboaren ondorioz. Bestetik, 25,5 milioi euroko EBITDA positiboa eskuratu zuen konpainiak, eta 30,4 milioi euroko balioa zuen kaxa sortu zuen.

Azkenik, 2021ean egindako jarduketa eta inbertsio nagusiei dagokienez, Portu Agintaritzak 42,9 milioi euroko inbertsioa egin zuen portua handitzea aurreikusten duen Plan Estrategikoaren barruan; dagoeneko proiektuaren lehen faseko 203.000 metro karratu amaitu dituzte, espazio logistiko berriak instalatuta. Gainera, ibilgailuentzako barne-sarbide berri bat egin dute, trafikoa arintzeko helburuz; 4,2 milioi euroko inbertsioa egin dute horretarako. Bestalde, 10 milioi euroko inbertsioa egin du Repsolek GNL terminal bat eraikitzeko.

Ingurumenaren eta digitalizazioaren arloan, ibilgailuen flotaren berritzea nabarmentzen da; horietatik % 73k erregai alternatiboak erabiltzen dituzte propultsatzeko (elektrikoak, hibridoak eta PGL). Eta honakoak ere nabarmentzen dira: emisio globalak % 30 murriztu izana;
Bilboko Portuko Trantsizio Energetikorako Planaren garapena; informazio-fluxuen optimizazioa; edota Bilbao Portlab berrikuntza-plataformak bultzatutako egitasmoak, portuko enpresekin elkarlanean, portuko eragiketetan eraginkortasun eta jasangarritasun handiagoa bermatze aldera.

38grafikoa Merkantzien eta itsasontzien trafikoa Bilboko Portuan







*Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza.*

**39. grafikoa Merkantzien eta itsasontzien trafikoa Pasaiako Portuan**







*Iturria: Pasaiako Portuko Agintaritza.*

## 3.4. AIRE BIDEZKO GARRAIOA

Azterketa aire bidezko garraiora ekarrita, pandemia gelditzeko helburuz Estatu barruko zein nazioarteko mugikortasunari ezarritako neurri murriztaileek sektoreko jarduerari eragin zioten berriz ere. AENAk argitaratutako informazioaren arabera, Estatuko aireportuetan bidaiarien mugimendua berreskuratu zuten, neurri batean. Baina, oraindik ere, covidaren aurretik erregistratutako bolumenaren erdia da, hortaz, sektorearen erabateko suspertzea atzeratu egin da berriz ere.

**222. koadroa Euskal Herriko aire bidezko garraioa***

| Urtea | Aireontziak | | | Bidaiariak (m) | | | Merkantziak (m) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | % Δ | Euskal Herria/Espainia % | Guztira | % Δ | Euskal Herria/Espainia % | Guztira | % Δ | Euskal Herria/Espainia % |
| 2015 | 63.211 | 5,4 | 3,3 | 4.659,0 | 5,7 | 2,3 | 49.255,0 | 9,3 | 6,9 |
| 2016 | 64.124 | 1,4 | 3,1 | 5.043,1 | 8,2 | 2,2 | 55.116,9 | 11,9 | 6,9 |
| 2017 | 68.033 | 6,1 | 3,1 | 5.505,5 | 9,2 | 2,2 | 62.445,9 | 13,3 | 6,8 |
| 2018 | 72.563 | 6,7 | 3,2 | 6.105,3 | 10,9 | 2,3 | 63.396,9 | 1,5 | 6,3 |
| 2019 | 74.998 | 3,4 | 3,2 | 6.643,8 | 8,8 | 2,4 | 65.473,1 | 3,3 | 6,1 |
| 2020 | 36.672 | -51,1 | 3,3 | 1.903,3 | -71,4 | 2,5 | 64.719,1 | -1,2 | 8,2 |
| 2021 | 47.466 | 29,4 | 3,1 | 2.977,2 | 56,4 | 2,5 | 73.003,8 | 12,8 | 7,3 |

*(*): 2021eko behin-behineko datuak.*
*Iturria: AENA.*

Euskal Herriko lau aireportuen jarduera modu bateratutan aztertuta, erreferentziazko hiru adierazleen ohiko jarduera maila partzialki berreskuratu zen. Loiu (Bilbo), Noain (Iruñea), Hondarribia (Donostia) eta Foronda (Gasteiz) dira lau aireportuak. Hala, aireontzien trafikoa eta bidaiari kopurua berriz aktibatu ziren 2021ean (2020arekin alderatuta, +% 29,4 eta +% 56,4), baina oraindik ere nahiko urrun daude 2019ko zifretatik (-% 36,7 eta -% 55,2). Garraiatutako merkantziek bakarrik lortu zuten 2019ko mailatik gora kokatzea (+% 11,5); 2021ean +% 12,8ko hazkundea izan zuten horiek. Gauzak hala, 2021ean 47.466 eragiketa burutu ziren guztira, ia 3 milioi bidaiari garraiatu ziren eta 73.004 mila tona merkantzia garraiatu ziren.

**223. koadroa Aireportuko aireontzien trafikoa***

*(unitate)*

| Kontzeptua | Bilbo | | Iruñea | | Donostia | | Gasteiz | | Euskal Herria | | Euskal Herria/Espainia % | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| **Trafikoa, guztira** | **20.496** | **26.429** | **3.538** | **5.241** | **2.321** | **3.119** | **10.317** | **12.677** | **36.672** | **47.466** | **3,3** | **3,1** |
| Barnekoa | 14.722 | 19.435 | 3.262 | 4.928 | 2.077 | 2.531 | 4.450 | 6.192 | 24.511 | 33.086 | 3,7 | 3,8 |
| Nazioartekoa | 5.774 | 6.994 | 276 | 313 | 244 | 588 | 5.867 | 6.485 | 12.161 | 14.380 | 2,8 | 2,3 |

*(*): 2021eko behin-behineko datuak.*
*Iturria: AENA.*

Sektoreko magnitude nagusietan sakonduta eta aireontzien trafikoarekin hasita, Euskal Herriko lau aireportuek bi digituko urte arteko hazkundeak erregistratu zituzten. Dena den, eragiketen bolumena 2019koa baino baxuagoa izan zen, Forondaren kasuan izan ezik. Hala, erreferentziazko aireportuarekin hasiko gara, Loiurekin (Euskal Herriko trafiko osoaren % 55,7). Ekitaldian zehar % 28,9 hazi zen lanean aritu ziren aireontzien kopurua; izan ere, bilakaera ona izan zuten barne-trafikoak (+% 32) zein nazioartekoak (+% 21,1), nahiz eta azken hori gutxieneko zifretan mantendu. Gasteizko aireportuak, % 26,7ko ordezkaritzarekin, jarduera areagotzea lortu zuen (+% 22,9), gora egin baitzuten trafiko nazionalak (+% 39,1) eta nazioartekoak (+% 10,5). Hala, 2019ko mailatik gora kokatu zen (kontuan izan behar da merkantzien garraiora zuzendutako aireportua dela eta, hortaz, mugikortasunari ezarritako mugek inpaktu txikiagoa izan zutela). Noaingo aireportuak % 11ko partaidetza izan zuen eta haren trafikoa nabarmen hobetu zen (+% 48,1), batez ere, trafiko nazionalaren bilakaeraren ondorioz (+% 51,1); kanpoko trafikoak hazkunde txikiagoa izan zuen (+% 13,4). Azkenik, Donostiako aireportuari egokitu zitzaion guztizko trafikoaren % 6,6. Gainerako aireportuetan ez bezala, kasu honetan gehiago hazi zen nazioarteko trafikoa (+% 141), barnekoa baino (+% 21,9).

**224. koadroa Merkantzien trafikoa, aireportuen arabera***

*(Tm)*

| Kontzeptua | Bilbo | | Iruñea | | Donostia | | Gasteiz | | Euskal Herria | | Euskal Herria/Espainia % | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| **Trafikoa, guztira** | **384** | **472** | **0,0** | **2,3** | **0,0** | **0,1** | **64.335** | **72.529** | **64.719** | **73.004** | **8,2** | **7,3** |
| Barnekoa | 141 | 226 | 0,0 | 0,5 | 0,0 | 0,1 | 15.253 | 18.852 | 15.394 | 19.079 | 16,6 | 17,8 |
| Nazioartekoa | 244 | 246 | 0,0 | 1,8 | 0,0 | 0,0 | 49.081 | 53.677 | 49.325 | 53.925 | 7,1 | 6,0 |

*(*): 2021eko behin-behineko datuak.*
*Iturria: AENA.*

Merkantzien garraioaren bilakaera aztertuko dugu orain. Arlo horretan, Foronda mantendu zen erreferentziazko aireportu gisa, eta Euskal Herriko jarduera ia osoa jaso zuen (% 99,3). 2021ean, gainera, merkantzien garraioak gora egin zuen (+% 12,7), bilakaera positiboa izan baitzuten nazioarteko segmentuak (+% 9,4) eta, batez ere, segmentu nazionalak (+% 23,6). Loiun ere hazi egin zen trafikoa (+% 22,9), barne-segmentuaren hobekuntzaren ondorioz (+% 60,3), nazioarteko trafikoaren hazkundea askoz ere txikiagoa izan baitzen (+% 0,8). Dena den, 2019an garraiatutako bolumenetik urrun dago oraindik (-% 51,8). Noaingo eta Donostiako aireportuen jarduera oso txikia da merkantzien garraioari dagokionez. Bi aireportu horiek bilakaera ezberdinak izan zituzten: lehenengoaren kasuan emaitza hobea lortu zuen nazioarteko trafikoak eta, bigarrenaren kasuan, segmentu nazionalak.

**225. koadroa Bidaiarien trafikoa, aireportuen arabera***

*(m)*

| Kontzeptua | Bilbo | | Iruñea | | Donostia | | Gasteiz | | Euskal Herria | | Euskal Herria/Espainia % | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| **Trafikoa, guztira** | **1.690** | **2.581** | **84** | **113** | **84** | **155** | **45** | **128** | **1.903** | **2.977** | **2,5** | **2,5** |
| Barnekoa | 1.227 | 2.004 | 78 | 111 | 83 | 154 | 35 | 100 | 1.424 | 2.368 | 4,2 | 4,5 |
| Nazioartekoa | 463 | 577 | 6 | 2 | 1 | 1 | 10 | 28 | 479 | 609 | 1,1 | 0,9 |

*(*): 2021eko behin-behineko datuak.*
*Iturria: AENA.*

Euskal Herriko aireportuetan izandako bidaiarien trafikoa aztertuko dugu orain, eta edukiera handieneko aireportuarekin hasiko gara, Loiurekin –trafikoaren % 86,7–. 2021ean bidaiari kopuruaren bilakaerak balantze positiboa izan zuen (+% 52,7); nazioarteko trafikoa % 24,6 hazi zen eta, nazionala, % 63,3. Joera bera izan zuen Forondako aireportuak (+% 184,4). Kasu honetan, urte arteko aldakuntza apur bat handiagoa izan zen segmentu nazionalean (+% 185,7), nazioartekoan baino (+% 180). Donostiako (+% 84,5) eta Noaingo (+% 34,5) aireportuen kasuan, ekitaldian zehar atzerriko bidaiari gutxi izan ziren, hortaz, segmentu nazionalari esker hazi zen jarduera (+% 85,4 eta +% 42,3). Nolanahi ere, Euskal Herriko lau aireportuetan covidaren aurretik baino baxuagoa izan zen bidaiari kopurua.

**226. koadroa Aireportuko trafikoaren hazkundea (2021/2020)***

| Aireportua | Bidaiariak | | Aireontziak | | Merkantziak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Mila | % Δ | Unitateak | % Δ | Tm | % Δ |
| Bilbo (Loiu) | 891 | 52,7 | 5.933 | 28,9 | 88 | 22,9 |
| Iruñea (Noain) | 28 | 34,5 | 1.703 | 48,1 | 2 | 5.043,2 |
| Donostia (Hondarribia) | 71 | 84,5 | 798 | 34,4 | 0 | 366,7 |
| Gasteiz (Foronda) | 83 | 184,4 | 2.360 | 22,9 | 8.195 | 12,7 |
| Euskal Herria | **1.074** | **56,4** | **10.794** | **29,4** | **8.285** | **12,8** |

*(*): 2021eko behin-behineko datuak.*
*Iturria: AENA.*

Kapituluarekin amaitzeko, Euskal Herriko aireportuetako berritasun nagusiak azalduko ditugu jarraian. Loiuko aireportuarekin hasita, pista nagusia eta beste segurtasun-elementu batzuk hobetzeko lanak amaitu zituzten 2021ean, ia 5 urteren ondoren. Horretarako, kalitate hobeko errodadura-geruza batez estali zituzten 166.000 metro karratu. Horrez gain, bigarren mailako pistaren zolaketa-lanak egin zituzten, inguruko lursailak hobetu zituzten eta pistetako argiztapen-sistema osoa ordezkatu zuten, LED argi berriak jarrita, horiekin energia gehiago aurrezten delako eta ikusgarritasuna hobetzen delako.

Donostiako aireportuari dagokionez, hura izan zen 2020ko kaltetuenetako bat, eragiketak ezeztatzearen eta bidaiari eskasiaren ondorioz. 2021ean jarduera berreskuratzen joan zen, pixkanaka. Hala, linea berriak gehitu zituzten Madril eta Bartzelonakoaz gain, azpiegituretan egindako inbertsioei esker. Izan ere, hegaldi gehiagorekin lan egin ahal izatea ahalbidetu dute inbertsio horiek. Halaber, nabarmendu beharrekoa da GPS satelitearen hurbilketa-sistema berri bat instalatu zutela, aireratzeko eta lurreratzeko maniobrak errazte aldera, hala, ikusgarritasun txarra dela eta hegaldiak beste gertuko aireportu batzuetara desbideratzeko arriskua gutxitzeko.

Bestetik, Foronda aireportuak urte errekorra izan zuen garraiatutako merkantziei dagokienez. DHL logistika-enpresak paper giltzarria izan zuen emaitza horietan, kokaleku garrantzitsua baitu Arabako hiriburuko aireportutik gertu. Bestalde, Gasteizko Udalak aireportua sustatzeko apustuari eutsi zion, VIA elkartearen bidez (Vitoria International Airport). Hala, 400.000 euroko ekarpena egin zuen merkantzien eta bidaiarien trafikoa indartzera bideratuta.

Noainen kasuan, 2021ean gailendutako ziurgabetasun handiak izugarri baldintzatu zituen aireportuaren emaitzak. Kanariak, Balearrak, Sizilia, Marrakex, Krakovia edo Pragaren gisako helmugen bultzada ez zen nahikoa izan aireportuaren jarduera birbideratzeko. Lufthansak uko egin zion Frankfurtekiko loturak berrezartzeari, eta aireportuak kolpe handia hartu zuen horrekin. Egoera horrek eta pandemiaren iraunkortasunak nahi baino gehiago atzeratu zuten aireportuko jarduera erabat suspertzea.

Gainera, testuingurua oso konplexua izan zen aireko sektorearentzat eta ohiko trafiko-bolumenaren berreskurapena atzeratzeak kaltetu egin zituen emaitza ekonomikoak. Gainera, Errusia-Ukraina gerra-gatazkak tentsio gehiago ekarri zuen. Oraingoz, gatazkaren inpaktu osoa neurtzeko dago, baina gauza jakina da gailendu den ziurgabetasunak eta inflazioak ez diela sektoreari onik ekarriko. Egoera horretan, erabateko suspertzea 2023-2024ra atzeratu da, dagoeneko.

## 4. TURISMOA

2020an jaitsiera historikoa izan zuen nazioarteko turismo-jarduerak, martxoan pandemia lehertu ondoren. 2021ean suspertu egin ziren sektoreko adierazleak, baina partzialki. Herritarren immunizazio gradualari esker, ostalaritzako neurri murriztaileak lasaitu ahal izan zituzten eta txertatutako herritarrek mugitzeko aukera zuten (COVID pasaportea), baina ondoz ondoko olatuek eta gailendu zen ziurgabetasun handiak sektoreko jarduera oztopatzen jarraitu zuten.

Hala, urteko lehenengo zatian bidaiarien fluxuak oso hazkunde txikia izan zuen. Uda garaian, berriz, nabarmen hazi zen mundu mailako turismoa, baina aurreikusitakoa baino erritmo motelagoan, eta modu ezberdinean eremu geografikoaren arabera. Hortaz, urteko hirugarren hiruhilekoan, pandemia-egoera nahiko kontrolatuta zegoenean, pilatutako eskaria esnatu egin zen, oporretan normaltasunera itzultzeko nahiarekin. Dena den, urtearen amaieran andui berri bat agertu zen eta horrek lausotu egin zuen egoera; izan ere, kutsatzeek eta ospitaleetako presioak hazkunde handia izan zuten eta, ondorioz, murrizketa berriak ezarri behar izan zituzten.

Hala ere, eta guztizko suspertzea 2022rako espero bazen ere, mehatxu berriak agertu zitzaizkion sektoreari. 2022an Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerra-gatazka hasi zen. Krisialdi humanitario izugarriaz gain, tentsio geopolitiko larriak eta ondorio ekonomiko garrantzitsuak ekarri zituen hark.

Turismoari dagokionez, honakoak izan ziren berehalako ondorioak: aireko espazioa ixtea, erregaien prezioen igoera edota Ekialdeko Europako turismoguneetako eskaria murriztea. Bestetik, horrek mesede egin diezaieke turismogune “seguruagoei”, hala nola Espainiari, Greziari edo Portugali.

Hala, zirkunstantzia berri horiek tentsio handiagoa gehitu zioten jarduera turistikoari. Batetik, espiral inflazionistak eragina du garraioaren eta ostatuaren kostuan. Bestetik, eskariak mesfidantza handia du berriz ere. Horrek guztiak, berriro gaiztotu du sektorearen etorkizuna.

## 4.1. NAZIOARTEKO EGOERA

Jarduera turistikoaren bilakaerari buruzko datuei dagokienez, eta Munduko Turismoaren Barometroan (TME) argitaratutako informazioaren arabera, 2021ean apur bat berreskuratu zen nazioarteko bidaiarien fluxua, 2020an jaitsiera historikoa izan ondoren. Hala, ekitaldian zehar 421 milioi iritsiera izan ziren, eta urte arteko hazkunde apal bat (+% 4,5), oraindik ere 2019ko mailatik oso urrun (-% 72; 1.047 milioi bidaiari gutxiago).

Bilakaera horrekin bat, nazioarteko turismotik etorritako diru-sarrerek ere gora egin zuten 2021ean (+% 9,7, 2020arekiko), 700.000 miloi dolarrera iritsi arte. Diru-sarrera horiek, hala ere, pandemiaren aurretik erregistratutako balioetatik oso urrun daude (-% 58,9).

Egoera ezohikoa izan arren, nazioarteko turisten eskualde hartzaile nagusia izaten jarraitu zuen Europak 2021ean, 281 milioiko bolumenarekin (guztizkoaren % 66,8). Hauek izan ziren hurrengoak, distantzia handira: Amerika (82 milioi; % 19,6), Asia eta Pazifikoa (21 milioi; % 5,0), Afrika (19 milioi; % 4,4) eta Ekialde Ertaina (18 milioi; % 4,3).

Halaber, urte arteko bilakaera ezberdina izan zen eremu geografikoaren arabera. Europan, Amerikan eta Afrikan % 18 inguru igo zen nazioarteko bidaiarien bolumena. Behera egin zuen, ordea, Ekialde Ertainean (-% 10) eta, neurri handiagoan, Asian eta Pazifikoan (-% 64,4). Dena den, pandemiaren ondorioek guztietan utzi zuen aztarna. Izan ere, eskaria % 62,3 (Europan) eta % 94,2 (Asia eta Pazifikoan) artean jaitsi zen, erregistratutako balioak 2019koekin alderatuz gero.

**227. koadroa Nazioarteko turistak**

*Turistak, milioitan*

| Eremua | 2019 | 2020 | 2021 | 2021eko merkatu-kuota (%) | % ∆ 21/19 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **1.468** | **403** | **421** | **100,0** | **-71,3** |
| -Europa | 747 | 237 | 281 | 66,8 | -62,3 |
| -Amerika | 219 | 70 | 82 | 19,6 | -62,4 |
| -Asia eta Pazifikoa | 360 | 59 | 21 | 5,0 | -94,2 |
| -Afrika | 68 | 16 | 19 | 4,4 | -72,9 |
| -Ekialde Ertaina | 73 | 20 | 18 | 4,3 | -75,1 |
| | | | | | |
| **Europa*** | | | | | |
| -Ipar Europa | 84 | 22 | 16 | 3,8 | -80,7 |
| -Mendebaldeko Europa | 204 | 80 | 72 | 17,0 | -64,8 |
| -Erdialdeko/Ekialdeko Europa | 155 | 48 | 55 | 13,1 | -64,4 |
| -Hego Europa/Mediterraneoa | 304 | 88 | 138 | 32,8 | -54,5 |
| *-Horietatik EB-27koak* | 540 | 180 | 204 | 48,3 | -62,3 |

*(*): 2021eko behin-behineko datuak.*
*Iturria: Turismoaren Mundu Erakundea*

Datuak eskualdeka aztertuta eta Europari dagokionez, aztertutako merkatu guztiek ez zuten portaera-eredu bera izan. Zehazki, Hego Europa/Mediterraneoak (turismogune nagusia) % 56,8ko urte arteko hazkundea izan zuen nazioarteko bidaiari kopuruari dagokionez; guztira 138 miloi turista zenbatu ziren. Hala ere, urrun dago oraindik 2019an erregistratutako 304 milioi turistatik. Erdialdeko/Ekialdeko Europak 55 milioi bidaiari jaso zituen eta kasu honetan ere igo egin zen bidaiarien fluxua (2020an baino % 14,6 gehiago), nahiz eta 2019an baino 100 milioi bidaiari gutxiago izan. Mendebaldeko Europak (72 milioi) eta Ipar Europak (16 milioi) bidaiariak galdu zituzten azken ekitaldian (-% 10 eta -% 27,3). Hala, areagotu egin zen 2019ko datuekiko aldea (84 milioi eta 204 milioi, hurrenez hurren).

## 4.2. TURISMOA ESPAINIAN

Estatu mailan, turismo-sektorea da ekonomiaren motor nagusietako bat, bai aberastasuna sortzeari dagokionez, bai enplegua sortzeari dagokionez. 2020an[1] turismo-jarduera 61.406 milioi eurora iritsi zen (2019an 154.738 milioi euro); hala, BPGaren % 5,5 ordezkatu zuen, 2019an baino ia zazpi puntu gutxiago. Sektoreko enpleguak, berriz, 2,23 milioi lanposturekin, Estatuko enpleguaren % 11,8 ordezkatu zuen.

[1] EIN Turismoaren Kontu Satelitea.

Sektoreko enplegua mantendu egin zen neurri handi batean, Aldi Baterako Enplegua Erregulatzeko Espedienteei (ABEEE) esker. 2021ean, Exceltur-ek[1] egindako kalkuluen arabera, badirudi sektoreak berreskuratu egin zuela 2020an galdutakoaren zati bat. Hala, sektoreko jarduerak 88.546 milioi euro sortu zituen, eta % 7 inguruko ekarpena egin zion BPGari.

Dena den, 2021ean oso aldakorra izan zen turismo-jarduera, pandemiaren ondoz ondoko olatuek gogor baldintzatua. Herritarren txertaketaren aurrerapenak eta neurri murriztaileen lasaitzeak ere eragin zioten. Hala, urte hasiera apala izan zen, maiatzera arte bidaiak geldi egon baitziren. Udan hazi egin zen bidaiarien mugimendua, bereziki, Estatukoena. Eta merkatu igorle nagusietako bidaiarien fluxuek nolabaiteko igoera izan zuten (Frantzia, Alemania eta Erresuma Batua). 2021aren amaieran, ordea, birusaren aldaera berri bat agertu zen eta murrizketak itzuli ziren. Hala, atzeratu egin zen hainbeste esperotako suspertzea.

### Eskari turistikoa

2020an pandemia iritsi zenean, jarduera bat-batean gelditu zen. Baina, horrez gain, eskari turistikoaren portaera aldatu egin zen, eta badirudi aldaketa hori finkatu egin zela 2021ean, ziurgabetasun handiko agertokiaren aurrean. Honakoek baldintzatu zuten sektoreko jardueraren emaitzen bilakaera: gertuko turismoaren bultzada, merkatuz kanpoko turismoaren bultzada (bigarren etxebizitzak edo familiakoen/lagunen etxebizitzak), establezimendu turistiko batzuk nahiago izatea (landa-ostatuak, etxebizitza turistikoak...) eta azken orduan erosteko joera, egoera epidemiologikoaren araberako aldaketen arabera.

Atzerriko segmentuari buruzko informazioarekin hasita, 2021ean atzerriko 31.177.741 bidaiari jaso zituen guztira Espainiak (-% 62,7 2019arekiko). Hiru merkatu igorle nagusiek jarraitu zuten iritsieren ia erdiaren erantzuleak izaten. Frantzia kokatu zen buruan, % 18,7ko partaidetzarekin (5,8 milioi turista; -% 47,8); hurrengoak Alemania (5,2 milioi bidaiari; -% 53,3) eta Erresuma Batua (4,3 milioi bisitari; -% 76,1) izan ziren. Gainerako herrialde igorleei dagokienez, jaitsierak izan zituzten guztiek, baina neurri ezberdinetakoak. Errusia (-% 90,0), Estatu Batuak (-% 76,0) eta Irlanda (-% 71,0) nabarmendu ziren, horietatik etorritako bidaiari kopuruak izan zuen jaitsiera handiagatik. Errusiako turismoak behera egingo duela aurreikus daiteke, azkenaldiko gertakari geopolitikoen ondorioz. Baina nabarmendu beharrekoa da jaitsiera hori ez dela oso erabakigarria izango Espainiarentzat, atzerriko segmentuaren gainean duen ekarpena oso txikia delako (2019an % 1,6). 2020 eta 2021 artean bidaiarien bolumena murriztu zuen herrialde bakarra izan zen, taulan kontuan hartu direnen artean.

---

[1] Irabazi-asmorik gabeko elkartea, 35 enpresa garrantzitsuk osatua. Enpresa horiek turismoaren balio-kate osokoak dira, eta azpisektore hauetakoak: aireko, tren bidezko, itsasoko eta lehorreko garraioa; ostatuak; bidaia agentziak eta tour operadoreak; ordaintzeko bitartekoak; autoen alokairua; ospitale turistikoak; eta erreserba-zentralak/GDS.

**228. koadroa Espainiara datozen bidaiariak[1], jatorriaren arabera**

| Eremua | 2019 | 2020 | 2021* | % ∆ 21/19 |
|---|---|---|---|---|
| Frantzia | 11.147.397 | 3.887.750 | 5.822.671 | -47,8 |
| Alemania | 11.158.022 | 2.391.437 | 5.208.894 | -53,3 |
| Erresuma Batua | 18.012.482 | 3.150.204 | 4.302.634 | -76,1 |
| Herbehereak | 3.684.260 | 918.361 | 2.048.854 | -44,4 |
| Herrialde eskandinaviarrak | 5.530.112 | 1.175.329 | 1.839.654 | -66,7 |
| Italia | 4.534.513 | 947.405 | 1.703.422 | -62,4 |
| Belgika | 2.525.887 | 743.411 | 1.464.092 | -42,0 |
| Portugal | 2.428.789 | 755.229 | 1.193.649 | -50,9 |
| Suitza | 1.811.867 | 397.073 | 945.709 | -47,8 |
| AEB | 3.324.870 | 403.438 | 797.842 | -76,0 |
| Irlanda | 2.177.592 | 328.629 | 631.314 | -71,0 |
| Errusia | 1.314.079 | 146.647 | 131.182 | -90,0 |
| Europako gainerakoak | 6.441.422 | 1.692.074 | 2.991.449 | -53,6 |
| Amerikako gainerakoak | 3.767.276 | 900.445 | 1.069.422 | -71,6 |
| Munduko gainerakoak | 5.650.584 | 1.061.493 | 1.026.953 | -81,8 |
| **Guztira** | **83.509.152** | **18.898.925** | **31.177.741** | **-62,7** |

*Iturria: EIN Herrialdeen arteko bidaiarien mugimenduaren estatistika (Frontur).*
*(*): 2021eko apirileko datuak eta ondorengoak behin-behinekoak dira.*

Eskari turistikoaren azterketarekin jarraituz, eta Hoteletako Okupazioaren Galdetegiari[2] (EIN) dagokionez –hoteletan, apartamentu turistikoetan, landa-ostatuetan, kanpinetan eta aterpetxeetan jasotako bidaiariak eta horien gaualdiak hartzen ditu kontuan– 2021eko emaitzek agerian uzten dute, batetik, apur bat hobetu zela urte arteko bilakaera; eta, bestetik, sektoreko jardueraren okertzeak iraun egiten duela, 2019ko balioekin alderatuz gero. Hala, 2021ean 80,4 milioi bidaiari zenbatu ziren guztira (2019arekin alderatuta, -% 40,4), eta 258,9 milioi gaualdi (2019arekiko, -% 44,9).

Azterketarekin jarraituz, eta bidaiarien jatorriari dagokionez, aurreko ekitaldian bezala, bilakaera okerragoa izan zuen atzerriko segmentuak (2019arekiko -% 63,6) –bidaiei ezarritako mugen ondorioz–. Estatuko osagaiak (-% 23,8), berriz, bilakaera hobea izan zuen, nahiz eta oraindik ohiko zifretatik urrun egon. Bidaiarien bilakaerarekin bat etorriz, gaualdiek % 63,4ko eta % 24,3ko murrizketak izan zituzten covidaren aurreko mailarekiko, atzerriko eta Estatuko segmentuetan, hurrenez hurren. Gauzak hala, Estatuko osagaiak protagonismo handiagoa eskuratu zuen jarduera turistikoan. Izan ere, Estatukoak izan ziren 2021eko bidaiarien % 66,4 eta gaualdien % 52,6.

[1] Frontur-ek (Atzerritarren mugimendu turistikoaren estatistika), garraiobideen eta bidaiatzeko motibazioaren arabera, Espainian bizi ez diren eta ostatu mota guztiak erabiltzen dituzten bidaiarien fluxua jasotzen du, honako hauek barne: bigarren etxebizitzak, etxebizitza partikularrak, eta horiez gain, hotel-sareak, landa-ostatuak, apartamentu turistikoak edota kanpinak. Horiek dira kapitulu honetako aztergai nagusia.

[2] Ez ditu plataformen bitartez (Airbnb, adibidez) eskainitako plazek eragindako mugimendua eta okupazioa kontuan hartzen, eskaintza hori legezko ostatu-sarean ez badago behintzat.

**40. grafikoa** **Bidaiari kopuruaren bilakaera, hilabeteka (Espainia, 2019-2021) Hotel-establezimenduak**




*Iturria: EIN Hoteletako okupazioaren galdetegia*

Halaber, jarduera turistikoaren hileko azterketak aukera ematen du ikusteko, egoera ezohikoa izan arren, eskariaren portaerak urtaroen araberakoa izaten jarraitu zuela. Hala, udako hilabeteetan pilatu ziren bidaiari eta gaualdi gehienak; osasun-egoerak ere bultzatu zuen hori. Aurrez aipatu dugun moduan eta grafikoan ikus daitekeenez, 2020ko maiatzaz geroztik aldatu egin da eskariaren osaera: aldi guztietan, gehiago izan dira Estatuko bidaiariak, atzerrikoak baino.

**229. koadroa** **Eskari turistikoaren bilakaera Espainian**

| Eremua | 2019 | 2020 | 2021 | % ∆ 21/19 |
|---|---|---|---|---|
| **Bidaiariak (mila)** | **135.007** | **45.613** | **80.404** | **-40,4** |
| -Hotelak | 108.716 | 34.589 | 60.532 | -44,3 |
| -Landa-turismoa | 4.421 | 2.083 | 3.352 | -24,2 |
| -Apartamentu turistikoak | 12.479 | 4.218 | 7.430 | -40,5 |
| -Kanpinak | 8.304 | 4.489 | 7.612 | -8,3 |
| -Aterpetxeak | 1.087 | 234 | 1.478 | 35,9 |
| **Gaualdiak (mila)** | **469.814** | **144.677** | **258.930** | **-44,9** |
| -Hotelak | 342.996 | 92.223 | 172.346 | -49,8 |
| -Landa-turismoa | 11.726 | 6.315 | 9.693 | -17,3 |
| -Apartamentu turistikoak | 71.383 | 23.819 | 38.959 | -45,4 |
| -Kanpinak | 40.721 | 21.565 | 34.982 | -14,1 |
| -Aterpetxeak | 2.988 | 755 | 2.950 | -1,3 |
| **Batez besteko egonaldia** | | | | |
| -Hotelak | 3,2 | 2,7 | 2,8 | -0,3pp |
| -Landa-turismoa | 2,7 | 3,0 | 2,9 | 0,2pp |
| -Apartamentu turistikoak | 5,7 | 5,6 | 5,2 | -0,5 pp |
| -Kanpinak | 4,9 | 4,8 | 4,6 | -0,3pp |
| -Aterpetxeak | 2,7 | 3,2 | 2,0 | -0,8pp |

*Iturria: EIN Hoteletako okupazioaren galdetegia*

Azterketarekin jarraituz eta informazioa establezimendu motaren arabera banakatuta, aipatzekoa da hotelen sareak hartu zuela eskariaren zatirik handiena, nahiz eta azken bi urteetan presentzia galdu. Hala, 60,5 milioi bidaiari jaso zituzten hotelek (guztizkoaren % 75,3; 2019arekiko -% 44,3) eta 172,3 gaualdi (% 66,6; -% 49,8). Hortaz, batez besteko egonaldia 3 egun baino apur bat baxuagoa izan zen (2,8).

Gainerako establezimenduei dagokienez, turismo-apartamentuetan 7,4 milioi bidaiari erregistratu ziren 2021ean (2019arekiko -% 40,5) eta ia 39 miloi gaualdi (-% 45,4). Hala, batez besteko egonaldia 5 egunetik gorakoa izan zen. Landa-turismoaren sareari dagokionez, 3,3 milioi bidaiari (-% 24,2) eta 9,7 milioi gaualdi zenbatu ziren (-% 17,3); batez besteko egonaldia ia 3 egunekoa izan zen. Kanpinetan, 2021ean 7,6 milioi bidaiari jaso zituzten (-% 8,3) eta ia 35 milioi gaualdi (-% 14,1) erregistratu zituzten; hala, batez besteko egonaldia 4,6 egunekoa izan zen. Aterpetxeek osatu zuten eskaintza. Ia milioi eta erdi bidaiari hartu zituzten (+% 35,9), eta ia 3 milioi gaualdi (-% 1,3). Hortaz, batez besteko egonaldia 2 egunekoa izan zen.

**Eskaintza turistikoa**

Eskaintza turistikoaren osaera aztertuko dugu orain. Hotel-establezimenduekin hasita, 2021ean 11.354 hotel zeuden irekita (urteko batezbestekoa), 2019an baino 3.543 establezimendu gutxiago. Agertoki hori gainerako kategorietara ere heda daiteke: landa-turismoko 15.047 ostatu egon ziren zabalik (2019an baino 2.170 gutxiago), eta 717 kanpin (57 gutxiago). Apartamentu turistikoen kasuan, 104.283 establezimendu egon ziren irekita, 2019an baino 28.256 gutxiago.

Bestetik, aterpetxeetan bestelakoa izan zen joera eta eskaintza hazi egin zen covidaren aurreko aldiarekiko, 788 establezimendura arte (+545). Neurri handi batean, naturarekin lotutako bidaiekiko, Donejakue bidearekiko... interesa hazi izanak lagundu zuen horretan.

Horren guztiaren ondorioz, eskainitako guztizko plaza kopurua nabarmen jaitsi zen aztertutako kategoria guztietan, aterpetxeetan izan ezik. Jaitsierak neurri ezberdinetakoak izan ziren, % 7,4tik hasi (kanpinetan) eta % 29,9ra artekoak (hotel-establezimenduetan).

Langileei dagokienez, argi islatuta geratu zen pandemiaren aztarna. Hala, guztira, 2021ean 178.197 pertsonak lan egiten zuten sektorean, 2019an baino % 36,9 gutxiagoak (104.362 pertsona gutxiagok). Establezimendu mota bakoitzak enpleguari egindako ekarpenari dagokionez, eta aurreko ekitaldietan bezala, hotel-sarearena izan zen sektoreko enpleguaren zatirik handiena: 10 langiletik 7. Hala, 2021ean 127.704 lanpostura iritsi ziren (2019an baino 91.771 pertsona gutxiago). Landa-ostatuek (21.558 langile) eta apartamentu turistikoek (19.684) sektoreko enpleguaren laurdena pilatu zuten; 2019arekin alderatuta, 3.954 eta 8.815 lanpostu galdu zituzten horiek 2021ean.



LABORAL kutxa

Kanpinek, bestalde, 6.518 enplegu sortu zituzten, 2019an baino 715 gutxiago. Aterpetxeetan bakarrik igo zen langile kopurua; 2.733 lanpostu izan zituzten, 2019an baino 893 gehiago.

**230. koadroa Espainiako eskaintza turistikoaren bilakaera (urteko batez bestekoa)**

| Eremua | 2019 | 2020 | 2021 | % ∆ 21/19 |
|---|---|---|---|---|
| **Establezimendu kopurua** | | | | |
| -Hotelak | 14.897 | 8.975 | 11.354 | -23,8 |
| -Landa-turismoa | 17.217 | 12.800 | 15.047 | -12,6 |
| -Apartamentu turistikoak | 132.539 | 77.342 | 104.283 | -21,3 |
| -Kanpinak | 774 | 527 | 717 | -7,4 |
| -Aterpetxeak | 243 | 127 | 788 | 224,4 |
| **Eskainitako plaza kopurua** | | | | |
| -Hotelak | 1.517.583 | 740.881 | 1.063.881 | -29,9 |
| -Landa-turismoa | 165.949 | 120.699 | 142.406 | -14,2 |
| -Apartamentu turistikoak | 507.816 | 306.271 | 404.299 | -20,4 |
| -Kanpinak (partzelaka) | 502.002 | 340.483 | 462.374 | -7,9 |
| -Aterpetxeak | 25.537 | 13.807 | 46.778 | 83,2 |
| **Langileak** | | | | |
| -Hotelak | 219.475 | 86.971 | 127.704 | -41,8 |
| -Landa-turismoa | 25.512 | 19.208 | 21.558 | -15,5 |
| -Apartamentu turistikoak | 28.499 | 14.402 | 19.684 | -30,9 |
| -Kanpinak | 7.233 | 4.601 | 6.518 | -9,9 |
| -Aterpetxeak | 1.840 | 1.024 | 2.733 | 48,5 |

*Iturria: EIN Hoteletako okupazioaren galdetegia*

Azterketarekin jarraituz, eskaintza turistikoari lotutako bi aldagaietatik abiatuta kalkulatutako ratioak aztertuko ditugu: eskainitako plaza kopurua eta lanpostuak dira aldagai horiek. Bi aldagaien kasuan, aintzat hartzen da establezimenduaren tamaina. Hala, kanpinak kokatu ziren buruan, horiek eskaini baitzuten plaza kopururik handiena, establezimendu bakoitzeko (644,9). Distantzia handira kokatu ziren hotelak (93,7), aterpetxeak (59,3), landa-ostatuak (9,5) eta apartamentu turistikoak (3,9).

**231. koadroa** **Eskaintza turistikoaren bilakaera Espainian**

| Eremua | 2019 | 2020 | 2021 | % ∆ 21/19 |
|---|---|---|---|---|
| **Plazak establezimendu bakoitzean** | | | | |
| -Hotelak | 101,9 | 82,5 | 93,7 | -8,0 |
| -Landa-turismoa | 9,6 | 9,4 | 9,5 | -1,8 |
| -Apartamentu turistikoak | 3,8 | 4,0 | 3,9 | 1,2 |
| -Kanpinak | 648,6 | 646,1 | 644,9 | -0,6 |
| -Aterpetxeak | 105,1 | 108,7 | 59,3 | -43,5 |
| **Enplegua establezimendu bakoitzean** | | | | |
| -Hotelak | 14,7 | 9,7 | 11,2 | -23,7 |
| -Landa-turismoa | 1,5 | 1,5 | 1,4 | -3,3 |
| -Apartamentu turistikoak | 0,2 | 0,2 | 0,2 | -12,2 |
| -Kanpinak | 9,3 | 8,7 | 9,1 | -2,7 |
| -Aterpetxeak | 7,6 | 8,1 | 3,5 | -54,2 |

*Iturria: EIN Hoteletako okupazioaren galdetegia*

Establezimendu bakoitzeko enplegu-ratioari dagokionez (enpresaren tamaina neur daiteke ratio horri esker), hotel-sarea kokatu zen buruan (11,2); dena den, beheranzko bilakaera argia izan zuen (-% 23,7). Jarraian honakoak kokatu ziren: kanpinak (9,1), aterpetxeak (3,5), landa-turismoko ostatuak (1,4) eta apartamentu turistikoak (0,2); horiek guztiek behera egin zuten aipatutako adierazlean, baina neurri ezberdinean.

### Okupazio maila eta prezioen bilakaera

Sektoreko zifra handien azterketarekin jarraituz eta okupazio mailari dagokionez, kanpinak eta hotelak jarri ziren buruan, batez besteko % 37 inguruko okupazioarekin. Kanpinek beherakada txiki bat izan zuten (ehuneko -2,1 puntu, 2019arekiko) eta, hotelek, beherakada nabarmena (ehuneko -21,3 puntu, 2019arekiko). Hala, pandemiak hotel-sarea gogorrago kolpatu zuela egiazta daiteke. Apartamentu turistikoetan (% 23,0), landa-turismoko ostatuetan (% 16,8) eta aterpetxeetan (% 14,2) ere behera egin zuen okupazio mailak, neurri handiagoan edo txikiagoan (ehuneko -14,1 puntu, ehuneko -1,9 puntu eta ehuneko -16,8 puntu, hurrenez hurren).

Prezio-indizeari dagokionez (2008=100), uda garaian izandako turismoaren hazkundearekin batera, prezioak igo egin ziren eskaintzaren zati batean. Hala, kanpinek (153,9) eta landa-ostatuek (145,3) pandemiaren aurreko prezioak baino altuagoak izan zituzten. Apartamentu turistikoek (140,5) eta hotelek (109,6), berriz, baxuagoak.

**232 koadroa Okupazio mailaren eta prezio-indizeen bilakaera Espainiako turismo-ostatuen sareetan (urteko batezbestekoa)**

| Eremua | 2019 | 2020 | 2021 | ∆ 21/19 |
|---|---|---|---|---|
| **Okupazio maila plaza kopuruko** | | | | |
| -Hotelak | 58,4 | 26,5 | 37,1 | -21,3pp |
| -Landa-turismoa | 18,7 | 13,4 | 16,8 | -1,9pp |
| -Apartamentu turistikoak | 37,1 | 16,9 | 23,0 | -14,1pp |
| -Kanpinak (partzelaka) | 39,7 | 32,0 | 37,6 | -2,1pp |
| -Aterpetxeak | 31,0 | 14,6 | 14,2 | -16,8pp |
| **Prezio-indizea** | | | | |
| -Hotelak | 112,2 | 103,1 | 109,6 | -2,6pp |
| -Landa-turismoa | 142,1 | 141,1 | 145,3 | 3,2pp |
| -Apartamentu turistikoak | 142,1 | 133,1 | 140,5 | -1,6pp |
| -Kanpinak | 150,4 | 140,2 | 153,9 | 3,5pp |
| -Aterpetxeak | daturik ez | daturik ez | daturik ez | -- |

*pp: ehuneko puntuak.*
*Iturria: EIN Hoteletako okupazioaren galdetegia*

Funtsean, badirudi txertaketaren aurrerapenak, pilatutako eskaria esnatzeak eta nazioarteko turismoaren suspertze progresiboak lagun lezaketela 2022an sektorearen suspertzea azkartzen. Dena den, ikusteko dago azken gertakari geopolitikoek eta inflazioak zer inpaktu izango duten turismoan. Faktore horiek berriro ere baldintza lezakete sektoreko jardueraren hazkundea.

## 4.3. TURISMOA EAEN

Jarduera turistikoak EAEn izandako bilakaerari dagokionez eta Eustatek argitaratutako informazioaren arabera, azken biurtekoan okertu egin dira sektoreko zifra nagusiak; hori hauteman daiteke datuetara lehen hurbilketa bat eginda. Hala, 2020an (eskuragarri dauden azken datuak) 2,9 milioi eurokoa izan zen EAEko gastu turistikoa (2019arekin alderatuta, -% 43,4), eta BPGaren % 4,0 ordezkatu zuen (2,4 puntuko jaitsiera 2019arekiko). Gipuzkoa mantendu zen turismoak efektu traktore handiena duen Lurralde Historiko gisa. Izan ere, Gipuzkoan, turismoak % 5,1eko ekarpena egin zion BPGari, Araban % 3,7koa eta Bizkaian % 3,4koa. Dena den, ekitaldia ezohikoa izan zen, pandemiaren eraginak markatua. Hortaz, 2021ean[1] emaitza horiek hobetu egingo direla pentsatzen da.

[1] Txosten hau idazteko unean datu horiek ez zeuden eskuragarri.

## Eskari turistikoa

Eskariaren bilakaera[1] aztertuz hasiko dugu jarduera turistikoaren analisia. 2021ean, 2 milioi turista baino apur bat gehiago izan ziren EAEn (2.172.927), eta 4 milioi gau baino gehiago pasatu zituzten bertan (4.178.716). Datu horiek pandemiaren aurrekoak baino baxuagoak dira (% 30 inguru).

**233. koadroa Jasotako bidaiari kopurua, gaualdiak eta batezbesteko egonaldia (EAE 2021). Jatorriaren arabera**

| Eremua | Bidaiariak | % | %∆ 21/19 | Gaualdiak | % | % ∆ 21/19 | Batez besteko egonaldia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **GUZTIRA** | **2.172.927** | **100,0** | **-31,8** | **4.178.716** | **100,0** | **-33,3** | **1,92** |
| **Guztira Estatuan** | **1.536.502** | **70,7** | **-16,4** | **2.996.608** | **71,7** | **-16,3** | **1,95** |
| -EAE | 361.900 | 16,7 | 12,7 | 620.871 | 14,9 | 14,1 | 1,72 |
| -Madril | 327.391 | 15,1 | -21,7 | 655.341 | 15,7 | -19,8 | 2,00 |
| -Katalunia | 231.851 | 10,7 | -13,0 | 469.345 | 11,2 | -11,5 | 2,02 |
| -Andaluzia | 97.214 | 4,5 | -23,8 | 217.504 | 5,2 | -25,6 | 2,24 |
| -Valentziako Erkidegoa | 82.956 | 3,8 | -19,5 | 184.188 | 4,4 | -19,8 | 2,22 |
| -Gaztela eta Leon | 81.136 | 3,7 | -29,3 | 153.924 | 3,7 | -28,4 | 1,90 |
| -Galizia | 58.203 | 2,7 | -24,1 | 126.701 | 3,0 | -19,4 | 2,18 |
| -Nafarroa | 53.997 | 2,5 | -16,8 | 85.633 | 2,0 | -14,8 | 1,59 |
| -Aragoi | 52.339 | 2,4 | -28,4 | 98.770 | 2,4 | -29,4 | 1,89 |
| -Asturias | 40.250 | 1,9 | -34,0 | 78.726 | 1,9 | -29,2 | 1,96 |
| -Gaztela eta Mantxa | 36.344 | 1,7 | -21,3 | 80.877 | 1,9 | -26,0 | 2,23 |
| -Beste autonomia-erkidego batzuk | 112.921 | 5,2 | -31,4 | 224.728 | 5,4 | -32,8 | 1,99 |
| **Atzerrikoak guztira** | **636.425** | **29,3** | **-52,8** | **1.182.108** | **28,3** | **-56,0** | **1,86** |
| -Frantzia | 199.133 | 9,2 | -26,6 | 311.544 | 7,5 | -24,9 | 1,56 |
| -Amerika | 95.380 | 4,4 | -62,2 | 199.272 | 4,8 | -64,3 | 2,09 |
| -Alemania | 47.445 | 2,2 | -61,8 | 95.595 | 2,3 | -63,8 | 2,01 |
| -Portugal | 35.788 | 1,6 | -29,6 | 63.181 | 1,5 | -36,4 | 1,77 |
| -Erresuma Batua | 32.278 | 1,5 | -74,0 | 60.543 | 1,4 | -75,8 | 1,88 |
| -Italia | 30.129 | 1,4 | -61,3 | 61.020 | 1,5 | -62,8 | 2,03 |
| -Belgika | 27.631 | 1,3 | -27,6 | 47.313 | 1,1 | -35,7 | 1,71 |
| -EBko gainerakoak (1) | 102.071 | 4,7 | -46,2 | 210.787 | 5,0 | -48,6 | 2,07 |
| -Europako gainerakoak (2) | 32.418 | 1,5 | -57,0 | 64.491 | 1,5 | -59,1 | 1,99 |
| -Munduko gainerakoak | 34.152 | 1,6 | -76,1 | 68.362 | 1,6 | -76,6 | 2,00 |

*(1): EBko gainerakoak Austria, Bulgaria, Zipre, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Finlandia, Grezia, Hungaria, Irlanda, Letonia, Lituania, Luxenburgo, Malta, Polonia, Txekiar Errepublika, Errumania, Suedia eta Kroazia.*
*(2): Europako gainerakoak: EBkoak ez diren Europako herrialdeak.*
*Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta.*

[1] Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta (EUSTAT)



LABORAL kutxa

Hala, 2021eko datuak 2020koak baino hobeak izan baziren ere, oraindik urrun daude ekitaldi ”normal” bateko datuetatik. Ondorioz, 2019ko zifrekin alderatuta, bidaiariak zein gaualdiak jaitsi ziren merkatuaren bi segmentuetan. Estatuko segmentuari dagozkio bidaiarien % 70,7 eta gaualdien % 71,7 (2019an baino ehuneko 10 puntu gehiago); segmentu hori covidaren aurreko balioetatik behera kokatu zen (-% 16,4 eta -% 16,3, hurrenez hurren). Dena den, atzerriko segmentuan are nabarmenagoa izan zen beherakada: bidaiarien eta gaualdien bolumena erdira murriztu zen, covidaren aurreko mailarekin alderatuta.

Informazioan sakonduta eta bidaiarien jatorriari dagokionez, Estatuan, EAE (% 16,7), Madril (% 15,1) eta Katalunia (% 10,7) mantendu ziren bidaiarien jatorri-merkatu nagusi gisa. Ondorioz, horiei dagozkie gaualdi gehienak (% 14,9, % 15,7 eta % 11,2, hurrenez hurren).

Atzerriko turisten kasuan, Frantzia izan zen lehen herrialde igorlea (% 9,2), hurrengo herrialde multzotik distantzia apur batera: Amerika (% 4,4), Alemania (% 2,2) eta Portugal (% 1,6). Halaber, espero zen moduan, gaualdien kasuan berdina izan zen sailkapena: Frantzia buruan (% 7,5) eta, jarraian, Amerika (% 4,8), Alemania (% 2,3) eta Portugal (% 1,5).

Arreta hiru Lurralde Historikoei eskainita, EAEri buruz azaldutako egoeraren antzekoa dute horiek ere. Atxikitako grafikoan argi ikusten da azken hamabi hilabeteetan suspertu egin dela bidaiarien zein gaualdien bolumena, baina oraindik ere pandemiaren aurreko mailatik oso behera daude.

**41. grafikoa** **Bidaiarien eta gaualdien bilakaera, EAEn eta Lurralde Historikoetan 2018-2021**




*Iturria: Eustat.*

Lurralde bakoitzak EAEko jarduerari egindako ekarpenari dagokionez, nahiz eta bizitako egoera ezohikoa izan, ez zen aldaketa nabarmenik hauteman haien ekarpenean. Hala, Bizkaiak 952.191 bidaiari eta 1.831.983 gaualdi jaso zituen guztira, hau da, EAEko jardueraren % 44 egokitu zitzaion. Antzeko pisua izan zuen Gipuzkoak (% 42 ingurukoa), 905.135 bidaiari eta 1.736.670 gaualdirekin. Arabak, bestalde, 315.601 bidaiari eta 610.063 gaualdi jaso zituen, eta % 14 inguruko partaidetza izan zuen.

Jarduera turistikoak lurralde bakoitzean izan zuen bilakaerari dagokionez, aztertutako gainerako adierazleen kasuan bezala, 2019arekin alderatuta beheranzko joera argia izan zen. Bidaiari kopurua % 24,2 murriztu zen Araban, % 27,6 Gipuzkoan eta % 37,3 Bizkaian.

Gaualdiak, berriz, antzeko proportzioan jaitsi ziren: % 22,6, % 31,6 eta % 37,6, hurrenez hurren. Horren guztiaren emaitza gisa, batez besteko egonaldia bi egun baino gutxiagokoa izan zen hiru lurraldeetan.

**234. koadroa Eskaera turistikoaren bilakaera EAEn**

| Kontzeptua | Bidaiariak | | | Gaualdiak | | | Batez besteko egonaldia | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | % | % Δ 21/19 | 2021 | % | % Δ 21/19 | 2021 | % Δ 21/19 |
| **Araba** | **315.601** | **14,5** | **-24,2** | **610.063** | **14,6** | **-22,6** | **1,93** | **2,1** |
| Estatuko egoiliarrak | 251.408 | 79,7 | -15,1 | 494.833 | 81,1 | -12,7 | 1,97 | 2,8 |
| Atzerriko egoiliarrak | 64.193 | 20,3 | -46,6 | 115.230 | 18,9 | -47,8 | 1,80 | -2,4 |
| **Bizkaia** | **952.191** | **43,8** | **-37,3** | **1.831.983** | **43,8** | **-37,6** | **1,92** | **-0,6** |
| Estatuko egoiliarrak | 696.365 | 73,1 | -21,7 | 1.343.825 | 73,4 | -20,7 | 1,93 | 1,2 |
| Atzerriko egoiliarrak | 255.826 | 26,9 | -59,3 | 488.158 | 26,6 | -60,7 | 1,91 | -3,4 |
| **Gipuzkoa** | **905.135** | **41,7** | **-27,6** | **1.736.670** | **41,6** | **-31,6** | **1,92** | **-5,6** |
| Estatuko egoiliarrak | 588.729 | 65,0 | -9,8 | 1.157.950 | 66,7 | -12,2 | 1,97 | -2,7 |
| Atzerriko egoiliarrak | 316.406 | 35,0 | -47,1 | 578.720 | 33,3 | -52,6 | 1,83 | -10,5 |
| **EAE** | **2.172.927** | **100,0** | **-31,8** | **4.178.716** | **100,0** | **-33,3** | **1,92** | **-2,2** |
| Estatuko egoiliarrak | 1.536.502 | 70,7 | -16,4 | 2.996.608 | 71,7 | -16,3 | 1,95 | 0,1 |
| Atzerriko egoiliarrak | 636.425 | 29,3 | -52,8 | 1.182.108 | 28,3 | -56,0 | 1,86 | -6,8 |

*Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta.*

Datuetan sakonduta eta atxikitako grafikoak jasotzen duen moduan, Estatuko segmentuak bidaiari kopuruari zein gaualdiei egindako ekarpena ia berdina izan zen Araban (% 16,4 eta % 16,5, hurrenez hurren) eta Gipuzkoan (% 38,3 eta % 38,6), eta oso antzekoa Bizkaian (% 45,3 eta % 44,8). Bestalde, atzerriko segmentuari begiratzen badiogu, Araban eta Gipuzkoan ekarpena apur bat handiagoa izan zen bidaiarien kasuan (% 10,1 eta % 49,7), gaualdien kasuan baino (% 9,7 eta % 49). Bizkaian alderantzizkoa gertatu zen: handiagoa izan zen gaualdien pisua (% 41,3), bidaiariena baino (% 40,2).

**42. grafikoa** **Bidaiariak eta gaualdien, lurraldeen eta merkatu-segmentuen arabera (%) 2021**




*Iturria: Eustat.*

Hala, bidaiarien eta gaualdien bilakaera denbora-tarte luzeago batean aztertuta, 2021eko ekitaldia trantsizio-urtea dela ikus daiteke, jardueraren suspertze partzialarekin.

Historikoki, euskal turismo-industriak urtaroen araberako profila izan du. Urtearen hasiera ez da oso dinamikoa izaten, eta hilabetez hilabete hobetzen joaten da, uda garaian gehieneko balioak eskuratu arte. Gero, urtearen amaieran, indarra galtzen du berriz. 2021ean zehar, jarduerak deskribatutako patroia jarraitu zuen, neurri batean, baina ñabardurekin eta, batez ere, arrazoi ezberdinengatik. Hala, urtearen hasieran oraindik ere indarrean zeuden murrizketek baldintzatu egin zuten egoera. Maiatzean erlaxatu egin zituzten neurriak eta, horri esker, udan gora egin zuen jarduerak, abuztuan pandemiaren aurreko erregistroak apur bat hobetzeraino. Dena den, udako berraktibatze nabarmen hori ez zen nahikoa izan ekitaldiko gainerako aldiak konpentsatzeko; eskuratutako bolumenak oso urrun kokatu ziren urte "normal" bateko balioetatik.

43. grafikoa Bidaiari kopuruaren bilakaera eta gaualdiak, hilabeteka (EAE, 2019-2021)




*Iturria: Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta (EUSTAT)*

## Eskaintza turistikoa

2021ean 2.309 establezimenduk osatzen zuten EAEko eskaintza turistikoa[1], hau da, 2019an baino 517 gehiagok; apartamentu turistikoen gorakada nabarmenak eragin zuen hori. Dena den, egunero eskainitako plaza kopuruak (35.487 plaza) behera egin zuen (2019arekiko, -% 3,6), baita sektoreari lotutako enpleguak ere (3.736 pertsona); enpleguaren balioak nabarmen okertu ziren (-% 25,7).

Hala, ekitaldia ezohikoa izan bazen ere, hotelen sarea buruan mantendu zen eskainitako plaza kopuruari dagokionez, 10 plazatik 8 hotelek eskaini baitzituzten 2021ean. Hotelak ez diren gainerako establezimenduek, hau da, apartamentu turistikoek eta landa-ostatuek, askoz ere partaidetza txikiagoa izan zuten (ez dira barne hartzen beste ostatu mota batzuk, hala nola Airbnb, oporretarako etxebizitzak...).

Hala, EAEko hotel-eskaintza 601 establezimenduz osatuta zegoen 2021ean (2019an baino 2 gutxiago). 137 establezimenduk hiru izar edo gehiago zituzten (2019an baino 9 gehiago) eta 464 establezimenduk izar bat edo bi zituzten, edo pentsioak ziren (2019an baino 11 gutxiago).

[1] Garrantzitsua da zehaztea, eskaintza dimentsionatzeko garaian, urtean, gutxienez, egun batez irekita egondako establezimendu guztiak hartzen direla aintzat.

**235. koadroa Hotel-establezimenduen eskaintzaren bilakaera EAEn eta lurraldeka 2019 -2021**

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | % | % ∆ 21/19 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Araba** | 70 | 68 | 71 | | 1,4 |
| -Hiru izar edo gehiago | 18 | 18 | 20 | 28,2 | 11,1 |
| -Izar bat edo bi eta pentsioak | 52 | 50 | 51 | 71,8 | -1,9 |
| **Bizkaia** | 231 | 233 | 231 | | 0,0 |
| -Hiru izar edo gehiago | 58 | 59 | 58 | 25,1 | 0,0 |
| -Izar bat edo bi eta pentsioak | 173 | 174 | 173 | 74,9 | 0,0 |
| **Gipuzkoa** | 302 | 299 | 299 | | -1,0 |
| -Hiru izar edo gehiago | 52 | 59 | 59 | 19,7 | 13,5 |
| -Izar bat edo bi eta pentsioak | 251 | 241 | 240 | 80,3 | -4,4 |
| **EAE** | 603 | 600 | 601 | | -0,3 |
| -Hiru izar edo gehiago | 128 | 136 | 137 | 22,8 | 7,0 |
| -Izar bat edo bi eta pentsioak | 475 | 465 | 464 | 77,2 | -2,5 |

*Oharra: Hotel-establezimenduen urteko totalak hautatutako urtean gutxienez egun batez irekita egon diren establezimenduen kopurua ematen du.*
*Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta.*

Hala, Bizkaian ez zen aldatu kategoria altuko eskaintza: 58 establezimendu zenbatu ziren guztira. Araban 20 establezimendu zeuden, 2019an baino bi gehiago. Eta Gipuzkoan handitu zen gehien sarea, 7 establezimendu gehiagorekin; hala 2021ean, hiru izar edo gehiagoko 59 establezimendu zeuden lurralde horretan.

Izar bateko edo biko kategoriari eta pentsioei dagokienez, hiru lurraldeetatik bitan okerrera egin zuen eskaintzak, baina neurri ezberdinetan. Araban 51 establezimenduk osatzen zuten eskaintza, 2019an baino 1 gutxiagok, eta, Gipuzkoan, 240 establezimenduk, hau da, 11 unitate gutxiagok. Bizkaian, berriz, sendotu egin zen eskaintza, 2021ean kategoria horretako 173 establezimendu zenbatu baitziren. Hala, kategoria baxuko eskaintzak Gipuzkoan jarraitu zuen ordezkaritza handiena izaten (% 80 baino zerbait gehiago).

Hotel-sarearen bilakaera aztertu ondoren, gainerako establezimenduei buruzko datuekin osatzen da informazioa, eta hor sartzen dira landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak. Araban, eskaintza handitu egin zen landa-ostatuetan (104; 2019an baino +5 unitate gehiago) eta apartamentu turistikoetan (268; +15). Bizkaian, bestetik, behera egin zuten landa-ostatuek (117; -5), baina areagotu egin ziren apartamentu turistikoak (396; +135). Gipuzkoan bi kategoriek egin zuten gora. Landa-ostatuen sarea apur bat hazi zen (184; +3) eta apartamentu turistikoena, aldiz, modu esponentzialean hazi zen (639; +366).

Lurralde bakoitzeko jarduerari egindako ekarpenari dagokionez, Arabak eskuratu zuen pisu erlatiborik txikiena erreferentziazko hiru adierazleetan: establezimendu turistikoen kopurua (% 19,2), egunean eskaintzen den plaza kopurua (% 17,0) eta sektoreari lotutako enplegua (%13,8). Bizkaiaren (% 32,2, % 43,6 eta % 43,2, hurrenez hurren) eta Gipuzkoaren (% 48,6, % 39,4 eta % 43,0, hurrenez hurren) ekarpenak askoz handiagoak izan ziren.

**236. koadroa EAEko eskaintza turistikoaren bilakaera Urteko batezbestekoa**

| Kontzeptua | Hotel-establezimenduak | | | | Landa-ostatuak | | | | Apartamentu turistikoak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2019 | 2020 | 2021 | % Δ 21/19 | 2019 | 2020 | 2021 | % Δ 21/19 | 2019 | 2020 | 2021 | % Δ 21/19 |
| **Araba** | | | | | | | | | | | | |
| Establezimenduak | 70 | 68 | 71 | 1,4 | 99 | 101 | 104 | 5,1 | 253 | 251 | 268 | 5,9 |
| Eskainitako plazak, egunetan | 4.187 | 2.898 | 4.122 | -1,5 | 969 | 715 | 967 | -0,2 | 932 | 816 | 934 | 0,2 |
| Langileak | 489 | 302 | 372 | -23,9 | 113 | 87 | 106 | -6,1 | 37 | 32 | 39 | 5,4 |
| **Bizkaia** | | | | | | | | | | | | |
| Establezimenduak | 231 | 233 | 231 | 0,0 | 122 | 117 | 117 | -4,1 | 261 | 324 | 396 | 51,7 |
| Eskainitako plazak, egunetan | 14.217 | 9.381 | 13.056 | -8,1 | 1.237 | 868 | 1.179 | -4,6 | 923 | 917 | 1.254 | 35,9 |
| Langileak | 2.057 | 1.188 | 1.407 | -31,6 | 140 | 106 | 126 | -10,0 | 69 | 57 | 80 | 15,9 |
| **Gipuzkoa** | | | | | | | | | | | | |
| Establezimenduak | 302 | 299 | 299 | -1,0 | 181 | 183 | 184 | 1,7 | 273 | 620 | 639 | 134,1 |
| Eskainitako plazak, egunetan | 11.530 | 7.821 | 10.665 | -7,5 | 1.931 | 1.462 | 1.993 | 3,2 | 870 | 754 | 1.318 | 51,5 |
| Langileak | 1.842 | 1.142 | 1.320 | -28,3 | 219 | 170 | 213 | -2,7 | 61 | 50 | 74 | 21,3 |
| **EAE** | | | | | | | | | | | | |
| Establezimenduak | 603 | 600 | 601 | -0,3 | 402 | 401 | 405 | 0,7 | 787 | 1.195 | 1.303 | 65,6 |
| Eskainitako plazak, egunetan | 29.933 | 20.101 | 27.843 | -6,9 | 4.137 | 3.046 | 4.139 | 0,1 | 2.724 | 2.486 | 3.505 | 28,7 |
| Langileak | 4.388 | 2.632 | 3.099 | -29,4 | 471 | 362 | 444 | -5,7 | 167 | 138 | 193 | 15,6 |

*(*): Irekitako establezimenduak.*
*Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta. Irekitako hotel-establezimenduak**

Datuetan sakonduta, eta hotel-establezimenduen okupazio mailari dagokionez, adierazle hau Bizkaiko % 35,9aren eta Gipuzkoako % 40,8aren artean mugitu zen. Hiriburuetan, lurraldeko batez besteko emaitzak baino apur bat hobeak eskuratu zituzten. Hala, Donostia kokatu zen lehen postuan adierazle honetan (% 43,8). Hurrengoak Gasteiz (% 39,5) eta Bilbo (% 37,1) izan ziren, baina urte "normal" bati dagozkion balioetatik oso urrun.

**237. koadroa Batez besteko egonaldia eta okupazio maila, establezimendu motaren eta zonalde geografikoaren arabera.**

| Kontzeptua | Hotel-establezimenduak | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Batez besteko egonaldia | | Okupazio maila (plazak) | |
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| **Araba** | 1,99 | 1,96 | 31,1 | 38,8 |
| Gasteiz | 2,08 | 2,04 | 32,1 | 39,5 |
| Arabar Errioxa | 1,54 | 1,77 | 29,4 | 39,3 |
| Arabako gainerako zonaldeak | 1,86 | 1,84 | 26,7 | 33,2 |
| **Bizkaia** | 2,00 | 1,89 | 29,4 | 35,9 |
| Bilbo | 1,89 | 1,83 | 30,2 | 37,1 |
| Bilboko metropoli-eremua (*) | 2,20 | 1,96 | 28,8 | 34,7 |
| Bizkaiko kosta | 2,28 | 2,17 | 30,4 | 36,7 |
| Bizkaiko barnealdea | 2,36 | 2,10 | 23,0 | 29,6 |
| **Gipuzkoa** | 1,87 | 1,84 | 33,9 | 40,8 |
| Donostia | 1,80 | 1,82 | 35,7 | 43,8 |
| Donostiako metropoli-eremua (*) | 2,09 | 2,03 | 30,5 | 36,9 |
| Gipuzkoako kosta (*) | 1,70 | 1,69 | 39,0 | 44,5 |
| Gipuzkoako barnealdea | 2,45 | 2,18 | 22,6 | 25,4 |

*(*): Hiriburuak ez dira sartzen.*
*Iturria: Eustat.*

Hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldiari dagokionez, Arabako ratioa (1,96) apur bat altuagoa izan zen Bizkaikoa (1,89) eta Gipuzkoakoa (1,84) baino. Gasteiz izan zen batez besteko bi eguneko egonaldia gainditu zuen hiriburu bakarra (2,04), Bilboren (1,83) eta Donostiaren (1,82) aurretik, baina hauen atzetik: Gipuzkoa barnealdea (2,18), Bizkaia barnealdea (2,10) eta Bizkaiko kostaldea (2,17).

Azkenik, errentagarritasun-adierazle moduan kontuan hartu beharrekoa da, hoteletako bidaiarien inguruko informazioaz, gaualdiez, establezimenduez, edukieraz eta okupazio mailaz gain, hileko batez besteko tarifa ere.

Ekitaldi “normaletan”, hileko batez besteko tarifaren gorabeherak turismo-jardueraren urtarokako osagaiaren araberakoak izaten dira. Balio altuenak abuztuan izaten dira eta, baxuenak, otsailean. Hala, aurrekoarekin lotuta, 2021ean abuztuan eskuratu zen baliorik altuena (108,04 €) eta otsailean baxuena (57,49 €). EAE osoa kontuan hartuta eta 2019arekin alderatuta, izar bat, bi eta hiruko hoteletan % 9 inguru jaitsi ziren prezioak. Lau eta bost izarreko establezimenduetan eta pentsioetan, berriz, aldakuntzak handiagoak izan ziren (-% 16,4 eta -% 13,4, hurrenez hurren).



LABORAL kutxa

**238. koadroa Hileko batez besteko tarifa (ADR) EAEko hotel-establezimenduetan, lurralde historiko eta kategorien arabera. Euroak**

| Kontzeptua | Hotel-establezimenduak | | |
|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | % ∆ 21/19 |
| **Araba** | **60,67** | **69,37** | **-2,2** |
| Hiru izar edo gehiago | 70,69 | 81,70 | -0,2 |
| Izar bat edo bi eta pentsioak | 48,32 | 53,75 | 3,2 |
| **Bizkaia** | **65,20** | **69,05** | **-17,8** |
| Hiru izar edo gehiago | 76,78 | 80,20 | -16,0 |
| Izar bat edo bi eta pentsioak | 49,22 | 49,82 | -13,6 |
| **Gipuzkoa** | **78,06** | **87,65** | **-14,7** |
| Hiru izar edo gehiago | 92,75 | 104,78 | -17,2 |
| Izar bat edo bi eta pentsioak | 61,27 | 65,59 | -9,7 |
| **EAE** | **70,28** | **76,71** | **-14,7** |
| Lau eta bost izar | 91,59 | 99,33 | -16,4 |
| Hiru izar | 63,96 | 66,18 | -9,1 |
| Bi izar | 60,65 | 65,07 | -8,5 |
| Izar bat | 61,20 | 61,27 | -9,3 |
| Pentsioak | 47,03 | 50,01 | -13,4 |

*Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta.*

Sektorearen aurreikuspenei dagokienez, sektorea suspertzeko bidean aurrera doa, eta nazioarteko segmentuaren bilakaera giltzarria da jarduera berriro bideratzeko. Baina gertakari geopolitiko berriek, garraioaren garestitzeak eta pakete turistikoen garestitzeak oztopatu egin dezakete hainbeste esperotako susperraldia. Dena den, gerra-testuingurua eta izugarrizko inflazioa izan arren, sektorea baikor mantentzen da eta 2022an covidaren aurreko mailak gainditzea espero du, eta sektorearen ezaugarria zen goranzko joera etengabera itzultzea.




# 6. FINANTZA SEKTOREA

# 1. IKUSPEGI OROKORRA

2021. urtea ere ez zen “normala” izan, eta agian, hori da bizitako egoera ongien laburtzen duen kalifikatzailea. Bata bestearen segidako kutsatze-olatuak nabarmendu ziren, eta herritarren txertaketa ere bai, huraxe izan baitzen tresnarik erabilgarriena covid-19ak sortutako pandemiak pertsonen osasunean eta osasun-sistemetan eragindako kalteei aurre egiteko.

Hala, 2021. urtean zehar, mugikortasuna berreskuratu eta pertsonen bilkurak mugatu egin ziren (neurri handiagoan edo txikiagoan), eta horrek baldintzatu egin zuen jarduera batzuen lehengoratzea (turismoa, aisialdia, ostalaritza, etab.). Bestetik, ”normaltasunerako itzulera” aldi berean egin zuten herrialde gehienek. Ondorioz, presio esanguratsua izan zen lehengaien prezioetan, hornidura-kateetan eta, orokorrean, nazioarteko merkataritza-fluxuetan. Funtsean, faktore multzo horrek, batetik, inflazioaren gorakada orokorra eragin zuen; eta, bestetik, hasiera batean esperotakoa baino apur bat txikiagoa izan zen suspertzea.

**44. grafikoa Kanbio-tasa: Euroa versus Dolarra***




*(*): Eguneko batez besteko balioen batezbestekoa*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.*

EB-27 eta AEBren artean aldea izan zen pandemiaren inpaktuari eta suspertze-erritmoei dagokienez[1]; gainera, AEBk independentzia energetiko handiagoa du. Ondorioz, urtean zehar, dolarraren posizioa indartu egin zen euroaren aurrean. Gainera, gaur egun, gerra -gatazkak eragindako ziurgabetasuna ere gehitu zaio euroari, eta horrek arrazoituko luke kapitalen irteera. Hala, euroaren balioa -% 8,6 jaitsi da 2021eko abendutik.

[1] AEBn, BPGaren urte arteko aldakuntza-tasa -% 3,4koa izan zen 2020an eta +% 5,7koa 2021ean. EB-27n, berriz, -% 6,4 eta +% 5,4.

Horrek mesede egiten dio Europako esportazioari, baina garestitu egiten du lehengaien erosketaren faktura (petrolioa, gasa), normalean dolarretan izendatzen baitira lehengaiak.

Bestetik, bi ekonomiek dute agertoki inflazionista[1], eta diru-agintaritzak erantzun ezberdinak ari dira ematen: 2022ko maiatzean Erreserba Federalak (AEB) oinarrizko 50 puntu handitu zituen interes-tasak; Europako Banku Zentralak, berriz, ez du mugimendurik egin (oraindik). Kasu honetan ere, ordainsariak hobeak izatea (eguneratuak eta esperotakoak) akuilua da inbertitzaileentzat, eta horretan AEBko merkatuak abantaila du Europakoarekin alderatua.

Burtsako indizeen bilakaerak islatzen du, nolabait, ekonomia amerikarraren ibilbidea hobea izan zela: Dow Jones (+% 18,7) eta Nasdaq Composite (+% 21,4) indizeek suspertze handiagoa erregistratu zuten FT-SE 100 (+% 14,3), Dax-Xetra (+% 15,8), Ibex-35 (+% 7,9) eta Nikkei (+% 4,9) indizeek baino; Eurostoxx 50 indizeak (+% 21,0), berriz, antzeko gorakada izan zuen. Aipatzekoa da Pariseko burtsaren indizeak erregistratu zuela 2021ean urte arteko hazkunderik handiena (+% 28,9).

**239. koadroa Burtsa-indize nagusien bilakaera**

| Urtea | Ibex-35 (Madril) | CAC-40 (Paris) | Dax-Xetra (Frankfurt) | FT-SE 100 (Londres) | Dow Jones (New York) | Nikkei (Tokio) | Eurostoxx 50 | Nasdaq Composite |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2019 | 9.549,2 | 5.978,1 | 13.249,0 | 7.542,4 | 28.538,4 | 23.656,6 | 3.745,2 | 8.972,6 |
| 2020 | 8.073,7 | 5.551,4 | 13.718,8 | 6.460,5 | 30.606,5 | 27.444,2 | 3.552,6 | 12.888,3 |
| 2021 | 8.713,8 | 7.153,0 | 15.884,9 | 7.384,5 | 36.338,3 | 28.791,7 | 4.298,4 | 15.645,0 |
| *Urte batetik besterako aldakuntza (%)* | | | | | | | | |
| 2019 | 11,8 | 26,4 | 25,5 | 12,1 | 22,3 | 18,2 | 24,8 | 35,2 |
| 2020 | -15,5 | -7,1 | 3,5 | -14,3 | 7,2 | 16,0 | -5,1 | 43,6 |
| 2021 | 7,9 | 28,9 | 15,8 | 14,3 | 18,7 | 4,9 | 21,0 | 21,4 |

*Oharra: Abenduaren 31n.*
*Iturria: Ekonomia Adierazleen datu-basea. Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.*

Bestetik, 2021ean zehar ez zen ia aldaketarik izan Espainian lan egiten duten gordailu-erakundeen egiturari dagokionez. Guztizkoak gora egin zuen apur bat (+3 erakunde), baina gutxitu egin ziren jatorri espainiarrekoak (-3 erakunde).

**240. koadroa Kreditu-erakundeak eta EFC**

| Kontzeptua | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Erakunde kopurua. Guztira** | **250** | **245** | **238** | **232** | **226** | **228** |
| Gordailu-erakundeak | 206 | 205 | 198 | 195 | 191 | 194 |
| Espainiako gordailu-erakundeak | 124 | 122 | 115 | 114 | 113 | 110 |
| EFC/ECAOL | 43 | 39 | 39 | 36 | 34 | 33 |

*Oharra: Erakunde kopurua. Guztizkora arteko aldea atzerriko sukurtsalei (gordailu-erakundeak) eta kreditu ofizialari (1 erakunde) dagokie.*
*Iturria: Espainiako Bankua.*

[1] Arrazoi ezberdinengatik: AEBn modu orokorrean igo ziren ondasunen eta zerbitzuen prezioak, pandemiatik irtetearen ondorioz; EB-27n, berriz, osagai energetikoa izan zen prezioak igotzearen faktore nagusia (lehenengo eta bigarren txandan).

2021ean murrizten jarraitu zuen bulego kopuruak. Hala, berriz ere behera egin zuen EAEn (-139 bulego), Nafarroan (-42 bulego) eta Estatuan (-3.284 bulego). Galera hori, aurreko urteetakoei batu zitzaien. Hala, 2016 eta 2021 artean sarearen herena galdu zuen Espainiak (-% 33,6). EAEn (-% 29,2) eta Nafarroan (-% 22,8) apur bat txikiagoak izan ziren galerak. Aldi berean, tresna digitalak hedatzen jarraitzen dute erakundeek; tresna irisgarriak, errazak eta seguruak. Dena den, badirudi agertoki honek "talka" egin duela gizarteko pertsona helduenekin. Horiek zailtasunak dituzte arrakala digitala gainditzeko, eta arreta pertsonala bermatzeko aldarrikatzen dute.

**241. koadroa Gordailu-erakundeak. Bulego kopurua**

| Urtea | EAE | Nafarroa | Espainia |
|---|---|---|---|
| 2016 | 1.426 | 531 | 28.643 |
| 2017 | 1.361 | 508 | 27.320 |
| 2018 | 1.314 | 485 | 26.011 |
| 2019 | 1.219 | 459 | 23.851 |
| 2020 | 1.148 | 452 | 22.299 |
| 2021 | 1.009 | 410 | 19.015 |
| *2021/ 2016,%* | *-29,2* | *-22,8* | *-33,6* |

*Iturria: Espainiako Bankua.*

Azkenik, bulego-sareak izandako bilakaera antzekoa izanik, finantza-jarduerekin lotutako enpleguak, aseguruak eta pentsio-funtsak kontuan hartu gabe (Gizarte Segurantzan afiliatutako pertsonak), aurreko ekitaldietan bezala, behera egin zuen EAEn (-% 6,7), Nafarroan (-% 4,9) eta Estatuan (-% 6,6). Hortaz, 2016arekin alderatuta, bulego kopurua heren bat murriztu zen, gutxi gorabehera, eta horri lotutako enplegua -% 10-15. Emaitza hori bat dator espazio fisikoaren egokitzapenarekin, jarduera birdimentsionatzearekin eta bezeroekiko harremana tresna digitaletan oinarritzearekin.

*Datu "historiko" gisa: finantza-erakundeetako enplegua 200.000 pertsonatik behera jaitsi da Espainian; 70eko hamarkadatik ez zen zifra hori izan[1].*

**242. koadroa Afiliazioa finantza-jardueretan**

| Urtea | Finantza- eta aseguru-jarduerak | | | Finantza-jarduerak, aseguruak eta pentsio-funtsak izan ezik | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | EAE | Nafarroa | Espainia | EAE | Nafarroa | Espainia |
| 2016 | 14.307 | 3.456 | 322.803 | 9.451 | 2.437 | 213.199 |
| 2017 | 13.696 | 3.358 | 320.856 | 8.889 | 2.372 | 209.215 |
| 2018 | 13.715 | 3.374 | 322.402 | 8.891 | 2.401 | 207.022 |
| 2019 | 13.585 | 3.254 | 319.956 | 8.730 | 2.265 | 203.334 |
| 2020 | 13.258 | 3.302 | 318.834 | 8.521 | 2.307 | 201.961 |
| 2021 | 12.808 | 3.276 | 312.246 | 7.946 | 2.193 | 188.449 |
| *2021/ 2016,%* | *-10,5* | *-5,2* | *-3,3* | *-15,9* | *-10,0* | *-10,7* |

*Oharra: Afiliazioa, urte bakoitzeko abenduaren 31n Erregimen orokorra*
*Iturria: Gizarte Segurantza eta SEPE.*

[1] Ez dago antzeko daturik eskuragarri. Baina, Espainiako Bankuaren arabera, 1992an 261.839 pertsonak lan egiten zuten Kreditu Erakundeetan eta Kreditu Erakunde Finantzarioetan. Bestetik, 1981ean 252.351 pertsonak lan egiten zuten gordailu-erakundeetan, eta 2020an, 175.185 pertsonak.

# 2. KREDITU-ERAKUNDEAK

## 2.1. KREDITUAREN BILAKAERA

### Kredituaren bilakaera Estatuan

2021ean, Estatuko kreditu-erakundeetako aktiboa ia 3 bilioi eurokoa izan zen (+% 4,1), eta 2008-2013 aldian erregistratutako mailara gerturatu zen. Hazkunde hori, lotuta dago kreditu-partiden bilakaera positiboarekin (+% 9,1). Igoera horrek konpentsatu egin zituen partida hauetan erregistratutako atzerakadak: akzioak eta partaidetzak ez diren balioak (-% 8,7), akzioak eta partaidetzak (-% 3,4) eta sektorizatu gabeko aktiboak (-% 6,9). Modu horretan, 2021ean zerbait hobetu ziren eragile publiko-pribatuen kreditu-posizioak, pandemiaren ondorio ekonomikoekin eta ondorengo suspertze-aldiarekin lotutako finantziazio-beharrekin lotuta.

Kreditu-jarduerarena izan zen aktiboaren partida nagusia, guztizko ekarpenaren % 71,5. Partida horren ekarpena handitu egin zen 2020arekin alderatuta (ehuneko +3,3 puntu). Gainerako segmentuen ekarpena txikiagoa izan zen, eta honela banatu zen: akzioak eta partaidetzak ez diren balioak (% 10,7), sektorizatu gabeko aktiboak (% 9,5) eta akzioak eta partaidetzak (% 8,2). Hiru partida horiek pisua mantendu eta/edo galdu zuten 2020arekin alderatuta (ehuneko + 0,1 puntu, ehuneko -0,8 puntu eta ehuneko -1,0 puntu), jarduera mailaren bilakaerarekin lerrokatuta (jaitsiera). Hala, kredituen partida 2,1 bilioikoa izan zen; akzioak eta partaidetzak ez diren balioen partida eta sektorizatu gabeko aktiboena izan ziren hurrengoak (0,3 bilioi euro, bi kasuetan); eta, azkenik, akzioekin eta partaidetzekin lotutako saldoa (0,2 bilioi euro).

**243. koadroa Kreditu-erakundeen aktiboaren osaera**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **2.646.981** | **2.652.154** | **2.575.633** | **2.612.781** | **2.822.182** | **2.937.620** |
| Kredituak | 1.718.815 | 1.766.467 | 1.726.181 | 1.740.034 | 1.926.930 | 2.101.591 |
| Akzioak eta partaidetzak ez diren balioak | 365.826 | 329.531 | 326.042 | 316.424 | 345.785 | 315.636 |
| Akzioak eta partaidetzak | 243.811 | 259.266 | 236.416 | 252.012 | 250.781 | 242.290 |
| Sektorizatu gabeko aktiboak | 318.529 | 296.890 | 286.994 | 304.311 | 298.686 | 278.103 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Kreditu-jarduera xehetasunez aztertuta, ikus daiteke ia bezero-segmentu guztiek egin zutela gora. Hala, hazi egin zen kreditu-sistemak (+% 37,8), Administrazio Publikoek (+% 5,6) eta beste sektore ez-egoiliar batzuek (+% 15,8) emandako kreditua. Beste sektore egoiliar batzuen segmentuak, berriz, behera egin zuen apur bat (-% 0,1). Hain zuzen ere, kreditu-jardueraren zatirik handiena (guztizkoaren % 58,2; 1,22 bilioi euro) familiei eta enpresei emandako kredituei (sektore pribatua) egokitu zitzaien.



LABORAL kutxa

Horien bilakaerak –2021ean jaitsi egin ziren, 2020ko gorakadaren ondoren– argi uzten du familiek eta enpresek finantza-egoera onarekin egin dietela aurre egungo egoerari.

Dena den, zuhurtzia izatea gomendatzen da. Izan ere, pandemian zehar sinatutako ICO[1] kreditu gehienen gabealdia 2022an amaitzen da. Horrek berankortasunaren igoera ekar dezake, eta horrek kreditu-erakundeen balantzeak okertuko lituzke. Gainera, Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerraren ondorio ekonomikoak arintzeko Espainiako Gobernuak hartutako neurri berrien[2] ondorioz, berriz ere igo egingo da kreditu-erakundeek emandako kreditua. Hala, 2007-2012 aldian erregistratutako mailara gerturatzea aurreikusten da –2,2-2,4 bilioi euro inguruko kreditu-bolumena–.

**244. koadroa Kreditu-erakundeak. Kreditua agenteen arabera**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **1.718.815** | **1.766.467** | **1.726.181** | **1.740.034** | **1.926.930** | **2.101.591** |
| Kreditu-sistema | 163.053 | 234.694 | 211.861 | 190.494 | 328.166 | 452.347 |
| AP | 88.471 | 78.110 | 68.956 | 66.922 | 77.198 | 81.491 |
| Beste sektore egoiliar batzuk | 1.276.140 | 1.253.944 | 1.208.315 | 1.193.526 | 1.224.440 | 1.223.700 |
| Beste ez-egoiliar batzuk | 191.151 | 199.719 | 237.049 | 289.092 | 297.126 | 344.053 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

### Kredituaren jomuga Estatuan

Beste sektore egoiliar batzuei (familiak eta enpresak) emandako kreditua hauen bidez bideratzen da: merkataritza-kreditua, eperako beste zordun batzuk[3] eta beste mailegu batzuk (ageriko zordunak, errentamendu finantzarioa eta kobrantza zalantzagarriko kredituak). Atxikitako taulan ikus daitekeen moduan, 2021ean sektore pribatura bideratutako kredituaren jaitsiera txikia (-% 0,1) eperako beste zordun batzuen segmentuak eragin zuen (-% 0,6). Merkataritza-kredituaren (+% 11,9) eta beste mailegu batzuen (+% 1,0) saldoak, berriz, gora egin zuen.

Aurreko ekitaldietan bezala, kredituaren zatirik handiena, 1,1 bilioi eurokoa, eperako beste zordun batzuena izan zen (guztizkoaren % 87,5), eta honako hauen ekarpenekin osatu zen: beste mailegu batzuk (% 8,6; 0,1 bilioi euro) eta merkataritza-kreditua (% 3,9; 47.169 milioi euro). Egitura hori nahiko egonkor mantendu zen.

[1] Kreditu Ofizialeko Institutuaren (ICO) abalarekin ematen diren maileguak dira, Espainiako Gobernuak bultzatzen dituenak, enpresei likidezia emateko helburuarekin, pandemiak sortutako krisialdiaren eragin ekonomikoak arintzeko.

[2] Gerraren Inpaktuari Erantzuteko Plan Nazionalak Estatuak abalatutako ICO kredituen beste 10.000 milioiko pakete bat hartzen du barne; pandemian zehar enpresen likidezia-arazoak arintzeko Gobernuak aktibatu zuen 100.000 milioi euroei gehitu behar zaie pakete hori.

[3] 2017az geroztik, Espainiako Bankuak ez du informazio bereizirik eskaintzen eperako beste zordun batzuen inguruan, berme erreal batean oinarritzen diren kredituei dagokienez eta, horien barruan, hipoteka modalitatearen pean sinatutakoak. Aldaketa hori Europar Batasuneko sailkapen-eredurako egokitzapena dela-eta gertatu da (Europako Banku Zentrala).

**245. koadroa Kreditu-erakundeak. Kredituak, motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **1.276.140** | **1.253.944** | **1.208.315** | **1.193.526** | **1.224.440** | **1.223.700** |
| Merkataritza-kreditua | 45.058 | 48.764 | 48.723 | 50.561 | 42.162 | 47.169 |
| Eperako beste zordun batzuk | 1.064.196 | 1.047.827 | 1.037.809 | 1.034.061 | 1.077.559 | 1.070.780 |
| Beste mailegu batzuk | 166.886 | 157.353 | 121.783 | 108.904 | 104.719 | 105.751 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Gordailu-erakundeek[1] 2020ko kredituaren saldoaren antzekoa izan zuten 2021ean (-% 0,1; 1,2 bilioi euro). Kredituaren helburuaren arabera, bilakaera ezberdina izan zen. Etxebizitzak erostera eta birgaitzera bideratutako kredituaren saldoak gora egin zuen (+% 1,2). Ekoizpen-jarduerетarako (-% 0,7), kontsumo iraunkorreko ondasunak erosteko (-% 0,1) eta beste kreditu batzuen (-% 5,0) saldoa, berriz, murriztu egin zen. Orokorrean, ehunekoen egitura mantendu egin zen; ekoizpen-jardueretara eta etxebizitzak erostera eta birgaitzera bideratutako kredituek pisu handia izan zuten (% 46,9 eta % 42,6, hurrenez hurren), eta kontsumo iraunkorreko ondasunak erosteko kredituen (% 4,2) eta beste kreditu batzuen (% 6,3) ekarpenak pixkanaka gora egiten jarraitu zuten.

**246. koadroa Gordailu-erakundeak. Kreditua, jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **1.222.541** | **1.199.079** | **1.150.231** | **1.135.590** | **1.174.945** | **1.173.435** |
| Ekoizpen-jarduerak | 582.060 | 570.220 | 523.942 | 512.107 | 554.073 | 550.342 |
| Etxebizitzak erostea eta birgaitzea | 524.780 | 511.355 | 508.235 | 500.474 | 493.951 | 500.045 |
| Kontsumo iraunkorreko ondasunak | 24.464 | 30.975 | 35.418 | 42.635 | 49.727 | 49.688 |
| Beste kreditu batzuk | 91.237 | 86.529 | 82.636 | 80.374 | 77.194 | 73.360 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

[1] Kreditu-erakundeen azpitaldea, bankuek, aurrezki-kutxek eta kreditu-kooperatibek osatua.

**45. grafikoa Gordailu-erakundeak. Kreditua, jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

### Kredituaren bilakaera EAEn eta Nafarroan

Gordailu-erakundeek EAEn, Nafarroan eta Espainian errotutako eragile ekonomikoei (publikoei eta pribatuei) emandako kredituaren bilakaera erakusten du atxikitako taulak, baita Lurralde Historikoaren araberako xehetasunak ere. 2021aren itxieran, emandako kredituaren saldo garbia mantendu egin zen EAEn (+% 0,1) eta behera egin zuen Nafarroan (-% 6,3). Hortaz, guztira, Euskal Herriko kreditu-zorroa murriztu egin zen (-% 1,1; 86.531 milioi euro). Dena den, pandemiaren aurreko saldoa baino handiagoa izan zen, eta kreditu-jarduera suspertzen ari dela erakutsiko luke horrek, 2020ra arte mantendutako joera hautsiz, ordura arte kreditu-saldo garbiaren beherakada gailentzen baitzen (desapalankamendu finantzarioa).

Sinatutako kredituen zenbatekoa 70.253 milioi eurokoa izan zen EAEn, eta 16.278 milioi eurokoa Nafarroan. Hala, EAEri Euskal Herriko guztizko kredituaren % 81,2 egokitu zitzaion, eta Nafarroak, berriz, aurreko ekitaldietan baino pisu erlatibo txikiagoa izan zuen (% 18,8). Biak batera aintzat hartuta, Estatuan emandako kreditu osoaren % 6,9 dagokio Euskal Herriari.

**247. koadroa** **Gordailu-erakundeak. Kreditua, agenteen eta lurraldearen arabera**

*(M euro)*

| Lurraldea | Urtea | AP | BSE | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| **Araba** | 2019 | 1.234 | 7.477 | 8.711 |
| | 2020 | 1.240 | 7.442 | 8.683 |
| | 2021 | 1.204 | 7.256 | 8.460 |
| **Bizkaia** | 2019 | 5.472 | 35.122 | 40.595 |
| | 2020 | 5.806 | 35.489 | 41.295 |
| | 2021 | 6.728 | 34.128 | 40.856 |
| **Gipuzkoa** | 2019 | 912 | 18.298 | 19.210 |
| | 2020 | 1.103 | 19.074 | 20.178 |
| | 2021 | 1.505 | 19.432 | 20.937 |
| **EAE** | 2019 | 7.618 | 60.897 | 68.515 |
| | 2020 | 8.149 | 62.005 | 70.154 |
| | 2021 | 9.437 | 60.816 | 70.253 |
| **Nafarroa** | 2019 | 982 | 15.082 | 16.063 |
| | 2020 | 1.327 | 16.044 | 17.372 |
| | 2021 | 1.028 | 15.249 | 16.278 |
| **Euskal Herria** | 2019 | 8.600 | 75.979 | 84.578 |
| | 2020 | 9.476 | 78.049 | 87.526 |
| | 2021 | 10.465 | 76.065 | 86.531 |
| **Espainia** | 2019 | 63.786 | 1.135.590 | 1.199.375 |
| | 2020 | 74.357 | 1.174.944 | 1.249.301 |
| | 2021 | 78.919 | 1.173.435 | 1.252.354 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Bezero-segmentu nagusia beste sektore egoiliar batzuena da, eta hari dagokio EAEko (% 86,6), Nafarroako eta Estatuko (% 93,7 bi kasuetan) kreditu ia osoa. Dena den, 2010az geroztik, pisua galdu du segmentu horrek (ehuneko -9,3 puntu; ehuneko -3,6 puntu eta ehuneko -2,3 puntu). Segmentu horren araberakoa da kredituaren bilakaera, neurri handi batean. EAEn, Nafarroan eta Estatuan behera egin zuen (-% 1,9, -% 5,0 eta -% 0,1), baina, kasu batzuetan, konpentsatu egin zuen segmentu publikoaren bilakaerak (+% 15,8, -% 22,5 eta +% 6,1).

EAEko emaitzak xehetasunez aztertuta, Lurralde Historikoen araberako bilakaera ezberdina izan zela ikus daiteke. Araban eta Bizkaian behera egin zuen kredituaren saldoak (-% 2,6 eta -% 1,1), eta Gipuzkoan gora (+% 3,8). Horiek baldintzatu zuten EAEko bilakaera orokorra (+% 0,1). Bezero-segmentuen arabera, Administrazio Publikoek sektore pribatuak baino bilakaera hobea izan zuten Bizkaian (+% 15,9 eta -% 3,8) eta Gipuzkoan (+% 36,4 eta +% 1,9). Araban, berriz, beherakada handiagoa izan zuen segmentu publikoak (-% 2,9 eta -% 2,5).

Hala, Bizkaiak egin zuen[1] EAEko kreditu-jardueraren ekarpenik handiena (% 58,2), eta Gipuzkoak (% 29,8) eta Arabak (% 12,0) ekarpen txikiagoa egin zuten. Aurreko urteekin alderatuta, egitura hori mantendu egin zen. Hala ere, ezberdintasunak ikus daitezke bezero-segmentuaren arabera. Izan ere, sektore pribatuak guztizkoaren antzeko bilakaera izan zuen (% 56,1, % 25,6 eta % 11,9). Segmentu publikoaren kasuan, berriz, Bizkaiaren ekarpena handitu egin zen (% 71,3), Gipuzkoaren (% 17,5) eta Arabaren (% 12,8) kalterako.

Atxikitako grafikoak, beste sektore egoiliar batzuetara bideratutako kredituaren bilakaera erakusten du, eta agerian uzten du azken hamarkadan erregistratutako desapalankamendu finantzarioa, 2020an amaitu zena, kreditu-jarduera haztearekin bat. 2021ean, ordea, moteldu egin zen hazkunde hori.

**46. grafikoa** **Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuei emandako kredituaren bilakaera**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*




*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

## Beste adierazle batzuk: hipoteken eraketa eta ibilgailuen matrikulazioa

Atal honek familien inbertsio eremu nagusietako bi aztertzen ditu: etxebizitzak erostea eta birgaitzea (horretarako, normalean bankuen finantzazioa behar izaten da, hau da, hipoteka) eta autoa erostea.

[1] Ezin da zuzenean lurralde bakoitzeko agenteek emandako kreditu gisa hartu. Izan ere, entitateek lurralde bakoitzari egindako esleipenean oinarritzen da (bulegoen finkapenaren eta jardueraren araberakoa). Egoitzarekin lotura duten faktoreek ere eragina dute. Kredituaren lurraldekako banaketa honetan badirudi Bizkaiak neurriz kanpoko ordezkaritza duela (% 58,2), BPGari egiten dion lurralde-ekarpena kontuan izanda (% 50,5). Gipuzkoak eta Arabak, berriz, kredituaren esleipen-kuota baxuagoak dituzte (% 29,8 eta % 12,0), BPGan duten partaidetzarekin alderatuta (% 33,7 eta % 15,8).

Hipoteka berriei buruzko informazioak erakusten duenez, 2021ean berriz aktibatu zen higiezinen merkatua, eta 2019ko maila gainditu zuen. Zehazki, Estatuan 418.175 hipoteka formalizatu ziren. Hala, urte arteko hazkundea handia zen (+% 23,8); zati batean, 2020an gauzatu ez ziren eragiketak hartzen ditu barne kopuru horrek[1]. EAEn[2] zein Nafarroan berreskuratu zen jarduera (+% 7,2 eta +% 20,6). 20.637 eta 5.065 hipoteka berri batu zituzten, hurrenez hurren. Dena den, aipatu beharrekoa da 2006an eskuratutako gehieneko baliotik behera jarraitzen duela jarduera mailak Estatuan, EAEn eta Nafarroan (-% 68,8, -% 52,4 eta -% 61,9, hurrenez hurren).

Formalizatutako hipoteken zenbatekoa ere asko hazi zen 2021ean, sinatutako hipoteken kopurua baino are gehiago. Estatuan, balio monetarioa 57.683 milioi eurokoa izan zen (+% 26,8), EAEn 3.244 milioi eurokoa (+% 13,9) eta Nafarroan 628 milioi eurokoa (+% 28,5); hortaz, urte arteko hazkundeak bi digitukoak izan ziren. Hala, hipoteken batez besteko zenbatekoa handitu egin zen, eta EAEn (157.175) Estatuan (137.939) eta Nafarroan (123.908) baino handiagoa izan zen.

**248. koadroa Etxebizitzen gaineko hipoteka berrien eraketa**

| Kontzeptua | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Espainia** | | | | | | |
| Hipoteka kopurua | 282.707 | 312.843 | 348.326 | 361.291 | 337.752 | 418.175 |
| Zenbatekoa guztira (milioi €) | 31.037 | 36.665 | 43.285 | 45.383 | 45.508 | 57.683 |
| *Batez besteko zenbatekoa (mila €)* | *109,79* | *117,20* | *124,27* | *125,61* | *134,74* | *137,94* |
| **EAE** | | | | | | |
| Hipoteka kopurua | 15.574 | 16.799 | 18.169 | 18.961 | 19.252 | 20.637 |
| Zenbatekoa guztira (milioi €) | 2.049 | 2.231 | 2.555 | 2.734 | 2.848 | 3.244 |
| *Batez besteko zenbatekoa (mila €)* | *131,59* | *132,83* | *140,63* | *144,20* | *147,93* | *157,17* |
| **Nafarroa** | | | | | | |
| Hipoteka kopurua | 3.990 | 4.069 | 4.739 | 4.508 | 4.201 | 5.065 |
| Zenbatekoa guztira (milioi €) | 405 | 430 | 514 | 519 | 488 | 628 |
| *Batez besteko zenbatekoa (mila €)* | *101,45* | *105,72* | *108,46* | *115,22* | *116,28* | *123,91* |

**2021eko behin-behineko datuak.*

*Iturria: Hipoteken Estatistika. EIN. Geuk egina.*

Estatuan sinatutako hipoteken bi herenek, interes-tasa finkoa zuten (% 62,9). Emaitza horrek baieztatu egiten du azken urteetan ikusitako joera-aldaketa. Eta, ziur aski, mota honetako interes-tasek gora egingo dutela aurreikus daiteke. 2022ko lehen zatian, dagoeneko, baieztatzen ari da joera hori.

[1] Pandemia kontrolatzeko ezarritako murrizketek (konfinamendua, pertsonen mugikortasunerako mugak), kasu askotan, zaildu eta atzeratu egin zuten eragiketa horien garapena.

[2] Aipatzekoa da EAEn, pandemiak inpaktua izan arren, 2020an sinatutako hipoteken kopurua hazi egin zela, urteko bigarren seihilekoan erregistratutako bilakaera positiboari esker.

Bestetik, nabarmentzekoa da 2021ean hipoteka askok aldaketa notarialak erregistratu zituztela[1]; hirukoiztu egin zen 2020ko datua. Hain zuzen ere 206.694 hipoteka aldatu zituzten Estatuan (+% 214,6): 3.209 hipoteka EAEn eta 816 Nafarroan (+% 121,6 eta +% 279,5). Hala ere, 2020. urtea berezia izan zela aintzat hartuta, 2022ra arte itxaron beharko da aldatutako hipoteken kopuruaren igoera baieztatzeko. Bestetik, aipatu beharrekoa da aldaketa gehienak nobazioarekin daudela lotuta, eta hainbat azalpen-argudio ematen dituzte, hala nola prezioen igoera, Euriborraren goranzko bilakaera, etab. Horiek ziurgabetasuna eragiten dute, eta aldaketen arrazoiak dira.

**249. koadroa** **Aldaketa notarialak erregistratu dituzten etxebizitzen gaineko hipotekak**

*(Hipoteka kopurua)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Espainia | 154.436 | 129.109 | 105.550 | 87.217 | 56.269 | 48.446 | 39.543 | 65.692 | 206.694 |
| EAE | 1.925 | 1.684 | 1.863 | 1.520 | 1.160 | 1.379 | 1.218 | 1.448 | 3.209 |
| Nafarroa | 681 | 583 | 616 | 477 | 371 | 305 | 184 | 215 | 816 |

**2021eko behin-behineko datuak.*
*Iturria: Hipoteken Estatistika. EIN. Geuk egina.*

Azkenik, antzeko zerbait gertatu zen 2021ean hasitako hipoteka-betearazpenekin[2], 2017ko antzeko mailara itzuli baitziren. Zehazki, 14.862 betearazpen hasi zituzten Estatuan (+% 53,3): 198 EAEn eta 84 Nafarroan (+% 75,2 eta +% 50,0).

Igoera horrek agerian uzten du pandemiak eragindako krisiaren inpaktua. Izan ere, krisiak, egoera zaurgarrian zeuden familiei edo beste eragile batzuei hipoteka-konpromisoaren betebeharrak betetzeko zailtasunak ekarri zizkien, eta, azken irtenbide gisa, prozedura judizial horiek martxan jarri beharra bultzatu zuen. Hala ere, zifra horiek oso urruti daude aurreko krisian eskuratutako gehieneko zifretatik[3], hein handi batean, krisiaren ondorioak arintzeko agintariek ezarritako neurrien ondorioz (luzamenduak).

[1] Zehazki, hauei egiten die erreferentzia: nobazioa (hipoteka kontratatu ondoren egiten den eta kontratua berriro negoziatzeko aldeen borondateen akordio berri bat eskatzen duen edozein aldaketa), hartzekodunaren subrogazioa (banketxez aldatzea, eta, beraz, kontratuak baldintza berriak izatea) eta zordunaren subrogazioa (hipotekaren titularra aldatzea, titular berriaren onarpenarekin; kontratuaren baldintzetan aldaketak egon daitezke edo ez). Hauek dira egindako aldaketen alderdi nagusiak: epea, zenbatekoa, erreferentzia mota eta/edo aplikatutako diferentziala.

[2] Hipoteka baten karga ezarrita duen ondasun higiezin baten salmenta agintzen duen prozedura exekutiboa, zordunak hipotekan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik.

[3] Eskuragarri dauden datuen arabera, 2014an 44.939 hipoteka-betearazpen hasi zituzten, eta 2015ean 39.151. EINek ez du lehenagoko informaziorik argitaratzen.

**250. koadroa** **Hipoteka-betearazpena hasita duten etxebizitza partikularrak**

*(Etxebizitza kopurua)*

| Kontzeptua | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Espainia | 39.151 | 27.189 | 14.422 | 9.041 | 7.382 | 9.692 | 14.862 |
| EAE | 261 | 193 | 170 | 89 | 72 | 113 | 198 |
| Nafarroa | 296 | 209 | 99 | 51 | 33 | 56 | 84 |

**2021eko behin-behineko datuak.*
*Hipoteka Betearazpenen Estatistika. EIN. Geuk egina.*

Ibilgailu berrien matrikulazioari buruzko informazioak baieztatu egiten du jarduera geldi dagoela Estatuan. Zifrak 2020koak baino hobeak izan arren (+% 1,0), oso urrun daude oraindik suspertzetik: 859.477 ibilgailu berri erregistratu ziren, 2019an baino askoz ere gutxiago; urte hartan milioi bat ibilgailu berri baino gehiago matrikulatu zituzten. EAEn eta Nafarroan 2020an baino erregistro okerragoak izan zituzten (-% 18,3 eta -% 13,7), eta gutxieneko historikoak eskuratu zituzten, 24.716 eta 7.229 matrikulazio, hurrenez hurren.

Asko dira suspertze ezdeus hori baldintzatzen ari diren faktoreak, hala nola osagai batzuen hornidura-arazoak, logistika arloko "botila-lepoak", neurri fiskalak eta motorizazio-sistema aukeratzeko ziurgabetasuna (elektrikoa?, hibridoa?), beste batzuen artean. Pandemiatik irtetearen ondorioek ere badute eragina (ziurgabetasuna enpleguan, pertsonen errentetan, etab.). Agertoki horrek asko zailtzen du autoa erosteko erabakia hartzea.

**251. koadroa** **Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera  Turismoak**

*(Unitate kopurua)*

| Kontzeptua | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Espainia | 1.147.007 | 1.234.932 | 1.321.437 | 1.258.251 | 851.210 | 859.477 |
| EAE | 38.547 | 39.622 | 41.701 | 39.763 | 30.262 | 24.716 |
| Nafarroa | 10.814 | 12.314 | 13.243 | 11.449 | 8.381 | 7.229 |

*Iturria: Anfac. Geuk egina.*

## Berankortasunaren bilakaera

Kobrantza zalantzagarriko kredituek behera egin zuten berriro ere 2021ean, eta 49.378 miloi euroan kokatu ziren (-% 5,4). Hain zuzen ere, emandako kredituaren saldoa (-% 0,1) baino gehiago murriztu ziren; hortaz, berankortasun-ratioak[1] behera egin zuen eta % 4,2an geratu zen. Hala, krisialdian egon arren, eta horrelako beste momentu konplikatu batzuetan ez bezala, kreditu zalantzagarriak bilakaera bereizgarria izan zuen, beheranzko joera mantendu baitzuen.

[1] Ordaindu gabeko edo kobrantza zalantzagarriko kredituen ehunekoa, emandako finantzaketa osoari dagokionez.

Martxan jarritako politika ekonomikoko neurriek eragin handia izan zuten emaitza horretan, familien eta enpresen ordaintzeko gaitasuna mantentzen lagundu baitzuten. Dena den, okertze-zantzu batzuk ikusten dira[1], eta baliteke kreditu zalantzagarriek gora egitea.

**252. koadroa Gordailu-erakundeak. Zalantzazkoen edo berankortasunaren guztizko tasaren bilakaera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(M euro)*

| Urtea | Zalantzazko kobrantzak | Kredituak | (Zalantzazkoak/Kredituak) x100 |
|---|---|---|---|
| 2016 | 112.275 | 1.222.511 | 9,2 |
| 2017 | 94.174 | 1.199.106 | 7,9 |
| 2018 | 67.196 | 1.150.228 | 5,8 |
| 2019 | 54.301 | 1.135.590 | 4,8 |
| 2020 | 52.224 | 1.174.945 | 4,4 |
| 2021 | 49.378 | 1.173.435 | 4,2 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Familien eta ekoizpen-jardueren segmentuan behera egin zuen berankortasun-ratioak, baina familiek mantendu zuten ratiorik txikiena (% 3,6; ekoizpen-jarduerek, berriz, % 4,8). Halaber, ezberdintasunak ikusten dira bezero-segmentu bakoitzaren xehetasunen artean. Izan ere, familien kasuan, etxebizitzak erostera eta birgaitzera bideratutako kredituen berankortasun-ratioa txikiagoa da (% 2,8), kontsumora bideratutako kreditu zalantzagarriarena baino (% 7,5). Ekoizpen-jardueren xehetasunek ere ezberdintasun handiak erakusten dituzte. Zalantzagarrien ratioa handiagoa da eraikuntzan[2] (% 8,4), industriari (% 4,5) eta zerbitzuen sektoreari (% 4,6) dagozkien tasak bikoizten baititu. Hala ere, aipatzekoa da lau ekoizpen-sektoreen berankortasun-ratioa jaitsi zela 2020arekin alderatuta.

Berankortasun-tasa handiena duten hirugarren sektoreko jarduerak ostalaritza eta merkataritza eta ibilgailuen konponketa dira (% 7,7 eta % 6,4); horiek oso baldintzatuta egon dira pandemiaren eraginengatik. Beste zerbitzu batzuetan (% 5,1) eta garraioan eta biltegiratzean (% 5,0) ere nabarmentzen da ratio hori. Finantza-jardueran, berriz, baxuagoa da berankortasuna (% 0,4). Bilakaerak erakusten duenez, ostalaritzari emandako kredituak behera egin zuen eta berankortasun-tasa modu argian igo zen 2020arekin alderatuta (ehuneko +2,3 puntu), baita garraioa eta biltegiratzearena ere (ehuneko +0,7 puntu). Hirugarren sektoreko gainerako jardueren kasuan, tasa horrek behera egin zuen 2021ean.

[1] Zaintza bereziko maileguek gora egin dute, eta horiek dira ez ordaintzeko probabilitaterik altuena dutenak; birfinantzaketa- eta egituratze-eragiketek ere gora egin dute, eta horiek ere ordaintzeko arazo posibleekin lotuta egoten dira, kreditua jaso duenaren aldetik (Espainiako Bankua).

[2] Sektore honek kalte handia jasan zuen 2008ko krisialdiaren aurreko kreditu-hedapenagatik eta jarduera horren ondorengo gainbeheragatik (aktiboen balio-galera, salmenten beherakada, enpresa-likidazioak, etab.).

Kobrantza zalantzagarriko kredituaren saldoaren bilakaerak aurreko krisialdiaz geroztiko doiketa-sekuentzia erakusten du; 2013an eskuratu zuen gehieneko balioa (191.748 milioi euro). Krisialdi honetan mantendu egin zen hobekuntza-ibilbidea, baina orain arteko doiketa-erritmoa moteldu egin zen. Familien eta ekoizpen-jardueren segmentuak ere bilakaera hori izan zuen. Horien kobrantza zalantzagarriko kredituaren saldoa murriztu egin zen (-% 6,1 eta -% 5,3) 22.356 eta 26.508 milioi eurora arte, hurrenez hurren. Eraikuntzak eta industriak izan zuten beherakadarik handiena (-% 11,0 eta -% 8,1). Zerbitzuen sektorean ez zen horrenbeste murriztu (-% 3,9); izan ere, kreditu zalantzagarriek gora egin zuten ostalaritzan (+% 33,8) eta garraioa eta biltegiratzean (+% 24,0).

**253. koadroa Gordailu-erakundeak. Zalantzazkoen edo berankortasun-tasaren bilakaera, kredituaren helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(Guztizkoaren gaineko % zalantzagarriak)*

| Kontzeptua | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Zalantzazkoak guztira** | **9,2** | **7,9** | **5,8** | **4,8** | **4,4** | **4,2** |
| **Ekoizpen-jarduerak** | **13,3** | **10,4** | **7,0** | **5,5** | **5,1** | **4,8** |
| Nekazaritza eta arrantza | 9,1 | 7,5 | 6,3 | 6,0 | 5,5 | 5,2 |
| Industria | 9,1 | 8,8 | 6,3 | 5,6 | 4,9 | 4,5 |
| Eraikuntza | 29,7 | 24,5 | 14,4 | 12,0 | 9,2 | 8,4 |
| Zerbitzuak | 13,0 | 9,9 | 6,7 | 5,1 | 4,8 | 4,6 |
| *Higiezinak* | *25,4* | *18,2* | *8,9* | *5,2* | *4,9* | *4,1* |
| *Finantzak (ez banka)* | *2,1* | *0,3* | *0,2* | *0,2* | *0,3* | *0,4* |
| *Merkataritza eta konponketak* | *11,5* | *10,5* | *9,2* | *8,5* | *7,0* | *6,4* |
| *Garraioa eta biltegiak* | *8,3* | *6,4* | *5,3* | *4,8* | *4,3* | *5,0* |
| *Ostalaritza* | *14,6* | *10,8* | *7,9* | *5,8* | *5,4* | *7,7* |
| *Beste zerbitzu batzuk* | *8,8* | *8,7* | *7,2* | *5,3* | *5,8* | *5,1* |
| **Beste helburu batzuk / familiak** | **5,4** | **5,3** | **4,8** | **4,1** | **3,9** | **3,6** |
| Etxebizitzak erostea eta birgaitzea | 4,6 | 4,6 | 4,0 | 3,3 | 3,0 | 2,8 |
| Beste batzuk | 10,0 | 9,2 | 8,9 | 8,0 | 7,8 | 7,5 |
| **Gainerakoak** | **7,0** | **13,2** | **7,5** | **6,0** | **3,8** | **5,2** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

**254. koadroa Gordailu-erakundeak. Zalantzazko kredituaren bilakaera, helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Zalantzazkoak guztira** | **112.275** | **94.175** | **67.196** | **54.301** | **52.224** | **49.378** |
| **Ekoizpen-jarduerak** | **77.335** | **59.493** | **36.725** | **28.302** | **27.986** | **26.508** |
| Nekazaritza eta arrantza | 1.706 | 1.506 | 1.310 | 1.275 | 1.217 | 1.170 |
| Industria | 9.407 | 9.121 | 6.397 | 5.473 | 5.169 | 4.749 |
| Eraikuntza | 11.304 | 8.053 | 3.932 | 2.914 | 2.408 | 2.143 |
| Zerbitzuak | 54.918 | 40.813 | 25.086 | 18.640 | 19.192 | 18.446 |
| *Higiezinak* | *30.275* | *19.759* | *8.299* | *4.559* | *4.023* | *3.340* |
| *Finantzak (ez banka)* | *1.690* | *274* | *162* | *136* | *185* | *217* |
| *Merkataritza eta konponketak* | *7.768* | *7.506* | *6.657* | *6.366* | *5.829* | *5.245* |
| *Garraioa eta biltegiak* | *2.278* | *1.920* | *1.582* | *1.432* | *1.513* | *1.876* |
| *Ostalaritza* | *3.881* | *2.889* | *2.014* | *1.545* | *1.885* | *2.523* |
| *Beste zerbitzu batzuk* | *9.026* | *8.465* | *6.373* | *4.601* | *5.757* | *5.244* |
| **Beste helburu batzuk / familiak** | **33.652** | **32.712** | **29.505** | **25.337** | **23.804** | **22.356** |
| Etxebizitzak erostea eta birgaitzea | 23.930 | 23.274 | 20.127 | 16.374 | 14.789 | 13.915 |
| Beste batzuk | 9.722 | 9.438 | 9.378 | 8.963 | 9.015 | 8.441 |
| **Gainerakoak** | **1.288** | **1.970** | **966** | **662** | **434** | **514** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Aurreikuspenen arabera[1], berankortasuna % 4,6ra igoko da 2022an eta % 4,5era jaitsi 2023an. Pizgarriak erretiratzeak eta politika monetarioa gogortzeak (interes-tasen igoera) eragina izango lukete berankortasunaren igoera horretan, baita tentsio inflazionistek ere. Gainera, kontuan izan behar da pandemian zehar emandako ICO kreditu gehienen gabealdia 2022an amaitzen dela. Egoera horrek eragina izan lezake kreditu-erakundeen balantzeen kalitatean.

[1] "European Bank Lending Economic Forecast", EY, Euroguneko banku-maileguen aurreikuspenak.

## 2.2. GORDAILUEN BILAKAERA

### Estatuko kreditu-erakundeetako gordailuak

Pandemiaren gisako agertoki ziurgabeetan zuhurtzia gailentzen da, eta gastuarekin lotutako erabakiak gelditu egiten dira. Ondorioz, eragile ekonomikoen aurrezkia areagotu egiten da. 2021ean, gordailuetako saldoa[1] 2,2 bilioi eurora igo zen (+% 5,7) eta sendotu egin zen 2020an erregistratutako hazkunde handia. Batetik, egoera ekonomikoa zela eta, aurreztu egin zuen jendeak, badaezpada. Bestetik, gastu-erabakiak gauzatu ezin zituztenez, aurrezki-poltsak sortu ziren ("aurrezki behartua"). 2021ean zehar ziurgabetasuna gailendu zen suspertze ekonomikoari eta enpleguari dagokienez eta, funtsean, eguneroko bizimoduaren normaltzeari dagokionez. 2022aren hasieran bi faktore berri gehitu dira, ezegonkortasuna ekarri dutenak: inflazioaren gorakada eta gerra-gatazka.

Eragile ekonomiko guztien kasuan handitu zen aurrezkia: beste sektore egoiliar batzuk (+% 4,1), kreditu-sistema (+% 10,7), Administrazio Publikoak (+% 20,1) eta kanpo -sektorea (+% 2,8). Gordailuen partida nagusia sektore pribatuari dagokio: 1,4 bilioi euro, guztizkoaren % 65,4. Kreditu-sistemaren segmentuaren (% 18,8), kanpo-sektorearen (% 11,3) eta Administrazio Publikoaren (% 4,5) ekarpenak txikiagoak dira. Egitura hori nahiko egonkor mantentzen da.

**255. koadroa Kreditu-erakundeak. Gordailua, eragileen arabera**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **1.866.552** | **1.866.973** | **1.836.493** | **1.848.536** | **2.059.571** | **2.177.660** |
| • Kreditu-sistema | 288.158 | 327.483 | 287.838 | 253.978 | 369.741 | 409.433 |
| • AP | 54.371 | 61.722 | 71.785 | 69.445 | 80.754 | 96.988 |
| • Beste sektore egoiliar batzuk | 1.242.580 | 1.202.893 | 1.212.837 | 1.259.938 | 1.369.548 | 1.425.055 |
| • Beste ez-egoiliar batzuk | 281.444 | 274.874 | 264.033 | 265.174 | 239.526 | 246.183 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Beste sektore egoiliar batzuek egindako gordailuak (familiek eta enpresek), batez ere, aurrezki erako edo ageriko posizioen bidez egin zituzten (guztizkoaren % 88,8); 1,3 bilioi euro batu zituzten horien artean.

[1] Kontuan izan behar da ez dagoela pasibo-posizioetako aurrezkiaren neurri osorik; hortaz, gordailu-figuretarantz bideratzeaz gain, beste inbertsio-xede batzuetara lekualdatu ahal izan dira, hala nola funtsetara, baloreetara edo beste forma batzuetara (higiezinak, esaterako).



LABORAL kutxa

Gainera, figura hori izan zen 2020arekin alderatuta saldoa handitu zuen bakarra (+% 8,6). Eperako gordailuek (-% 26,9) eta beste batzuen partidak[1] (-% 3,7) behera egin zuten, baina askoz ere ekarpen txikiagoarekin (% 8,2 eta % 3,0, hurrenez hurren). Epe luzerako gordailuek behera egitearen arrazoia horien erakarpena galdu izana da –errentagarritasun urria eta/edo ia hutsala dutelako–.

Horrek mesede egin die baliabideak eskuragarriago izatea ahalbidetzen duten posizioei, hala nola ageriko posizioei edo aurrezki-posizioei. Bestetik, aipatzekoa da beste batzuk partidak beheranzko profil jarraitua duela, eta haren pisua nabarmen jaisten ari dela 2007az geroztik (urte hartan % 20,9 eta 2021ean % 3,0).

**256. koadroa Kreditu-erakundeak. Gordailua, moten arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **1.242.580** | **1.202.893** | **1.212.837** | **1.259.938** | **1.369.548** | **1.425.055** |
| • Agerikoa edo aurrezkia | 753.624 | 857.135 | 931.257 | 1.021.213 | 1.164.411 | 1.264.798 |
| • Eperakoa | 403.567 | 286.365 | 231.450 | 196.656 | 160.440 | 117.220 |
| • Beste batzuk | 85.389 | 59.393 | 50.130 | 42.069 | 44.697 | 43.037 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

### Gordailuen bilakaera EAEn eta Nafarroan

Euskal Herriko gordailuen saldoa 116.834 milioi eurokoa izan zen, eta urte arteko hazkundea izan zuen (+% 4,4). EAEk zein Nafarroak izan zuten urte arteko hazkundea (+% 4,7 eta +% 3,1). Hazkunde hori 2020an erregistratutako igoerari batu zitzaion, eta Euskal Herriko gordailuetako saldoa oso maila altuan mantendu zuen (100.000 milioi eurotik gora). EAEri dagokio gordailuen bolumenaren zatirik handiena (% 82,3), 96.160 milioi eurorekin. Nafarroaren ekarpena txikiagoa izan zen (% 17,7), zehazki, 20.674 milioi eurokoa. Hala, Estatuko gordailuen % 7,9 ziren Euskal Herriarenak.

Bezero-segmentuen arabera, beste sektore egoiliar batzuen ekarpena nabarmendu zen, harenak baitziren gordailu ia guztiak (% 90 baino gehiago) aintzat hartutako lurralde eremuetan. Euskal Herrian 106.499 milioi eurora iritsi zen segmentu hori (+% 1,6), EAEren eta Nafarroaren bilakaerari esker (+% 1,2 eta +% 3,2); 86.815 eta 19.684 milioi euro batu zituzten horiek, hurrenez hurren. Dena den, aldeak izan ziren Lurralde Historikoaren arabera. Gipuzkoako saldoak gora egin zuen (+% 6,5), baina Bizkaikoak eta Arabakoak behera (-% 1,7 eta -% 0,2). Baina horien ekarpena[2] oso ezberdina izan zen (% 35,1, % 51,7 eta % 13,2, hurrenez hurren). Bestetik, aipatzekoa da Estatuko sektore pribatuaren gordailuen guztizko saldoaren gainean, Euskal Herriaren pisua txikiagoa zela (% 6,2).

[1] Barne hartzen ditu aktiboen aldi baterako lagapena, aktiboen transferentziagatik eratutako pasiboak, finantza-pasibo hibridoak eta mendeko gordailuak.

[2] Ikusi kredituari buruzko atalean jasotako azalpen-oharra.

Administrazio Publikoaren ekarpena txikiagoa izan zen (% 10 baino txikiagoa), baina urte arteko hazkunde handiagoa izan zuen. Zehazki, Euskal Herrian hazi egin zen haren jarduera (+% 45,8), batez ere, EAEren bilakaeraren ondorioz (+% 53,1); Nafarroaren hazkundea txikiagoa izan zen (% 0,4). Sektore publikoaren gordailuak igo egin ziren hiru Lurralde Historikoetan (+% 49,9, +% 19,0 eta +% 79,8, Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban), baina, banaketa kontuan hartuta, ekarpen erlatibo handiagoa izan zuten Bizkaiak eta Arabak (% 66,5 eta % 25,4), Gipuzkoak baino (% 8,1). Hala ere, Euskal Herriko sektore publikoaren gordailuetako saldoa 10.334 milioi eurokoa zen, Estatuko saldoaren % 9,7.

**257. koadroa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta administrazio publikoen gordailuak.**

*(M euro)*

| Lurraldea | Urtea | AP | BSE | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 2019 | 916 | 10.756 | 11.672 |
| | 2020 | 1.321 | 11.468 | 12.789 |
| | 2021 | 2.375 | 11.442 | 13.817 |
| Bizkaia | 2019 | 3.250 | 44.589 | 47.838 |
| | 2020 | 4.145 | 45.685 | 49.830 |
| | 2021 | 6.212 | 44.917 | 51.130 |
| Gipuzkoa | 2019 | 634 | 26.790 | 27.425 |
| | 2020 | 636 | 28.606 | 29.243 |
| | 2021 | 757 | 30.456 | 31.213 |
| EAE | 2019 | 4.800 | 82.135 | 86.935 |
| | 2020 | 6.102 | 85.759 | 91.862 |
| | 2021 | 9.344 | 86.815 | 96.160 |
| Nafarroa | 2019 | 867 | 17.519 | 18.386 |
| | 2020 | 986 | 19.067 | 20.053 |
| | 2021 | 990 | 19.684 | 20.674 |
| Euskal Herria | 2019 | 5.667 | 99.654 | 105.321 |
| | 2020 | 7.088 | 104.826 | 111.915 |
| | 2021 | 10.334 | 106.499 | 116.834 |
| Espainia | 2019 | 68.817 | 1.218.981 | 1.287.798 |
| | 2020 | 79.416 | 1.329.870 | 1.409.286 |
| | 2021 | 96.329 | 1.390.015 | 1.486.344 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Sektore pribatuak (familiek eta enpresek) hiru Lurralde Historikoetan, Nafarroan eta Estatuan egindako gordailuen bilakaera zehazten du atxikitako grafikoak. Batetik, 2011 eta 2012 artean aurrezkiak behera egin zuela ikus daiteke –krisialdia zen eta familiek eta enpresek zorpetze maila handiarekin egin zioten aurre, hortaz, horien aurrezkia murriztu egin zen–. Bestetik, ondorengo suspertze aldia ere ikus daiteke, 2020an goia jo zuena, ziurgabetasunaren eta pandemia kontrolatzeko ezarritako neurrien[1] ondorioz. 2021. urtean, nolabait, normaldu egin zen familien eta enpresen aurrezkia. Berriro igo zen, baina ez 2020an bezainbeste. Aintzat hartutako bost eremu geografikoek partekatu zuten bilakaera hori.

[1] Konfinamendua, itxiera perimetralak, jarduera ekonomikoaren gelditzea eta pertsonak biltzeko mugak; ondorioz, familien eta enpresen kontsumoa eta gastua murriztu egin ziren, ezin zituztelako gastu-erabakiak gauzatu (“aurrezki behartua”).

**47. grafikoa** **Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuen bilakaera**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*




*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

## Aurrezkiaren beste adierazle batzuk[1]

Kapitulu honetan egindako panoramika osatzeko, familien errenta gordin erabilgarriaren bilakaera ere txertatu dugu (Estatukoa), baita aurrezki gordina eta aurrezki-tasa ere. 2020an, pandemiak okertu egin zuen familien errenta (-% 4,9), baina 2021ean zehar, egoera hobetu zenez, errenta ere hobetu egin zen (+% 2,2). Dena den, ez zen hobetu pandemiaren aurreko mailara iristeko adina. Egia esan, 2021eko ekonomiaren eta enpleguaren suspertzea, azkenean, aurreikusitakoa baino zerbait txikiagoa izan zen, eta suspertzearen zati bat 2022ra atzeratu zen. Hala ere, 2022ko lehen lauhilekoko agertokia, dagoeneko, urteko aurreikuspenak baino okerragoa izan da. Hortaz, badirudi zaila izango dela errenta maila horretara iristea.

Aitzitik, aurrezkiaren ibilbidea asko indartu zen 2020an (+% 71,6), badaezpadako aurrezkiaren ondorioz, baina baita gastua egiteko ezintasunagatik ere. 2021. urtean jaitsi egin zen aurrezki gordinaren bolumena (-% 21,8); baina errenta gordin erabilgarriaren gaineko ehuneko tasa ezohiko maila altuetan mantendu zen (% 11,4). Estatu osoko emaitza horiek EAEko eta Nafarroako egoera ere erakusten dute; badirudi horietan pilatzen ari den aurrezki-poltsa ez dela epe laburrean zuzenean kontsumora igaroko.

[1] Ez dugu autonomia-erkidegoen arabera bereizitako informaziorik.

**258. koadroa Familien errenta gordin erabilgarria eta aurrezkia**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Errenta gordin erabilgarria | 700.591 | 722.935 | 743.555 | 780.898 | 742.538 | 758.724 |
| Aurrezki gordina | 49.249 | 41.767 | 41.250 | 64.507 | 110.694 | 86.547 |
| *Aurrezki-tasa (%)* | *7,0* | *5,8* | *5,5* | *8,3* | *14,9* | *11,4* |

*Iturria: Espainiako Kontabilitate Nazionala. Kontu ez-finantzarioak. Geuk egina.*

### Interes-tasaren, kostuaren eta ordainketaren bilakaera

2021ean zehar, Euriborraren (urtebetera) hileko bilakaerak sekuentzia negatiboa mantendu zuen, 2017az geroztik bezala. Hala, agerian geratu zen (ziur aski) finantza -merkatuen likidezia-egoera bikaina zela. Dena den, pandemiaren aurretik ere jada iragartzen ari ziren politika monetarioaren baldintzak aldatu egingo zirela, baina 2020an eta 2021ean bizitako egoeraren ondorioz interes-tasak apur bat igo ziren eta horrek atzeratu egin zituen aldaketak. Baina, inflazioaren gorakada orokorraren ondorioz, horri buruzko erabakiak hartu dituzte eta Erreserba Federalak igo egin du erreferentzia-tasa. Era berean, Europako testuinguruan, 2022ko apirilean Euriborrak balio positiboak eskuratu ditu, eta baieztatu egin da interes-tasen igoera progresiboa.

**48. grafikoa Euriborraren bilakaera (urtebetera)**

*(%)*




*Iturria: Europako Banku Zentrala. Geuk egina.*

Familiei eta sozietate ez-finantzarioei eragiketa berrietan aplikatutako interes-tasen bilakaerak erakusten duenez, finantzaketa-baldintzek oso onak izaten jarraitzen dute, 2020koak baino are hobeak. Hala, 2021ean jaitsi egin ziren etxebizitza erosteko, kontsumorako eta beste helburu batzuetarako emandako maileguei aplikatutako interes-tasak (% 1,38, % 6,10 eta % 2,44), baita enpresei emandako kredituen interes-tasa ere, zeina % 1,04 eta % 1,69 artean kokatu zen.

Gordailuei dagokienez, finantza-tresna horien errentagarritasuna igo egin zen, baina % 0ren inguruan jarraitu zuten. Horrek agerian uzten du gordailuen errentagarritasun eskasa[1]. Errentagarritasuna apur bat handiagoa da enpresen segmentuan eta, batez ere, epe luzerako posizioetan.

**259. koadroa** **Kreditu-erakundeak. Familietarako(2) eta sozietate ez-finantzarioetarako eragiketa berriei aplikatutako interes-tasak (TEDR)(1)**

*(%)*

| | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|---|
| FAMILIETARAKO MAILEGUAK ETA KREDITUAK(2) | | | | |
| – Etxebizitza(3) | 1,99 | 1,69 | 1,51 | 1,38 |
| – Kontsumoa(3)(4) | 6,92 | 6,66 | 6,32 | 6,10 |
| – Beste helburu batzuk(3) | 3,27 | 3,04 | 2,77 | 2,44 |
| SOZIETATE EZ-FINANTZARIOETARAKO MAILEGUAK ETA KREDITUAK | | | | |
| – Zorpekoak | 1,74 | 1,56 | 1,44 | 1,55 |
| – 250.000 €-ra arteko kredituak(3) | 2,05 | 1,87 | 1,87 | 1,69 |
| – 250.000 eta 1.000.000 € arteko kredituak(3) | 1,50 | 1,40 | 1,51 | 1,29 |
| – 1.000.000 € baino gehiagoko kredituak(3) | 1,53 | 1,23 | 1,37 | 1,04 |
| FAMILIEN GORDAILUAK(2) | | | | |
| – Agerikoak | 0,03 | 0,03 | 0,01 | 0,02 |
| – Eperakoak(3) | 0,05 | 0,04 | 0,02 | 0,06 |
| • 1 urte arte | 0,05 | 0,02 | 0,01 | 0,01 |
| • 2 baino gehiago | 0,17 | 0,18 | 0,15 | 0,03 |
| SOZIETATE EZ-FINANTZARIOEN GORDAILUAK | | | | |
| – Agerikoak | 0,08 | 0,07 | 0,01 | 0,03 |
| – Eperakoak(3) | 0,37 | 0,38 | 0,01 | 0,45 |
| • 1 urte arte | 0,39 | 0,36 | 0,01 | 0,45 |
| • 2 baino gehiago | 0,74 | 0,92 | 0,13 | 0,55 |

*(1) TEDR: Definizio mugatuko tasa efektiboa, hau da, komisiorik gabeko UTB.*
*(2) Familiak eta familien zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeak.*
*(3) Batez besteko tasa haztatua, produktu desberdinei dagokienez, epearen arabera. Abenduaren 31n.*
*(4) 2010eko maiatzetik, kreditu-txartelen bidez emandako kreditua ere sartzen da.*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

2022ko lehen hiruhilekoan joera-aldaketa bat ikusten da. Izan ere, kredituei aplikatutako interes-tasak handitu egin dira, eta aurrezkiei dagozkienak, murriztu. Bilakaera hori bat dator Feden politika monetarioaren gogortzearekin, eta Europako Banku Zentralera hedatuko da 2022an zehar. Aurreikuspenen arabera, urtean hiru aldiz haziko dira interes-tasak.

[1] Egoera horrek mesede egiten die inbertsio finantzarioko edo ez-finantzarioko beste modalitate batzuei (inbertsioa bigarren etxean eta/edo etxea inbertsio gisa erabiltzea, adibidez).

## 3. INBERTSIO KOLEKTIBOKO ERAKUNDEAK

2021ean, Inbertsio Kolektiboko Erakunde (IKE) gisa inskribatutako erakundeen kopuruak beheranzko bilakaera izan zuen; 3.815 instituziotan kokatu zen kopurua. Emaitza horrek erakusten duenez, urte arteko jaitsiera gertatu zen berriro (-% 5,1), eta erakunde aktiboen kopurua ia erdira etorri zen, 2008an eskuratutako gehieneko balioarekin alderatuta (6.354 erakunde). Dena den, IKEra atxikitako ondarea 357.578 milioi eurora igo zen (+% 15,3) eta 2020an galdutakoaren zati bat berreskuratu zuen.

Inbertsio-ibilgailu nagusia Inbertsio Funtsek (HIF) osatu zuten, ondarearen bolumenaren zatirik handiena haiek jarri baitzuten (guztizkoaren % 90,8). Ekarpen txikiagoa egin zuten Kapital Aldakorreko Inbertsio Sozietateek (% 8,0), inbertsio libreko IKE-ek (% 1,0) eta inbertsio libreko IKE-en IKE-ek (% 0,2). Bilakaerak erakusten duenez, aintzat hartutako figura guztiek lagundu zuten IKE-en ondarearen bolumena areagotzen (+% 15,3). Izan ere, hazkunde handia izan zuten Inbertsio Funtsek (+% 16,1), inbertsio libreko IKE-ek (+% 21,7) eta IKE-en IKE-ek (+% 27,3), eta SICAVek ere gora egin zuten (+% 5,7).

Aitzitik, erregistratutako erakundeen kopuruak behera egin zuen (-% 5,1), Inbertsio Funtsen eta SICAVen ondorioz (-% 4,2 eta -% 6,1). Inbertsio libreko IKE-ek (+% 5,8) eta IKE-en IKE-ek (+% 42,9) gora egin zuten, baina hobekuntza horrek ez zuen emaitza orokorra konpentsatu. Hain zuzen ere, erregistratutako erakunde gehienak SICAVak (% 59,8) eta Inbertsio Funtsak (% 38,1) izan ziren. Inbertsio libreko IKE-ren (% 1,9) eta IKE-en IKE-ren (% 0,3) ekarpena, berriz, oso txikia izan zen.

Hala, ekitaldian hazi egin zen IKE erakundeen batez besteko ondarea, entitate kopuru txiki bati dagokiolako ondarearen bolumen handiena. Zehazki, batez besteko ondare globala 93,7 milioi eurokoa izan zen (+% 21,4). Inbertsio Funtsenak ziren 223,6 milioi euro (+% 21,1), eta balio txikiagoak erregistratu zituzten IKE-en IKE-ek (83,1 milioi euro), inbertsio libreko IKE-ek (48,5 milioi euro) eta, batez ere, SICAVek (12,5 milioi euro).

**260. koadroa Finantza arloko Inbertsio Kolektiboko Erakundeen ondarea eta kopurua**

| Kontzeptua | Ondarea (M euro) | | Erakunde kopurua | |
|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| Inbertsio-funtsak[1] (IF) | 279.695 | 324.701 | 1.515 | 1.452 |
| Inbertsio-sozietateak (SICAV) | 26.960 | 28.502 | 2.427 | 2.280 |
| Inbertsio libreko IKE (ILIKE) | 2.913 | 3.543 | 69 | 73 |
| Inbertsio libreko IKE-en IKE | 653 | 831 | 7 | 10 |
| **Guztira** | **310.220** | **357.578** | **4.018** | **3.815** |

*[1] Kudeatzaile beraren finantza arloko beste inbertsio funts batzuetan inbertitutako inbertsio-funtsen ondarea 10.552,7 milioi euro ingurukoa zen 2021eko abenduan.*
*Iturria: CNMV. Urteko txostena.*

**HIF eta SICAVen ondarearen banaketa**

Higigarrietako Inbertsio Funtsak (HIF) honela banatu ziren: finantza-inbertsioen zorroa (% 92,2), diruzaintza (% 7,4) eta zordunen eta hartzekodunen saldo garbia (% 0,4). Egitura hori egonkorra da. Bilakaerak erakusten duenez, finantza-inbertsioen zorroa handitu zelako (+% 16,8) areagotu zen HIFen ondarea (+% 16,1). Izan ere, finantza-inbertsioaren zorroari dagokio ondarearen balantzearen zatirik handiena (299.435 milioi euro). Diruzaintzak (+% 7,9) eta zordunen eta hartzekodunen saldo garbiak (+% 6,6) ere gora egin zuten.

Finantza-inbertsioen zorroa xehetasunez aztertuta, ikus daiteke kanpoko osagaia asko hazi zela (+% 21,3), eta gutxiago estatuko segmentua (+% 0,2). Bi segmentuen ekarpena oso desberdina izan zen[1], eta nabarmentzekoa da HIFen guztizko ondarearen gainean kanpo-zorroak duen pisua gero eta handiagoa dela (% 75,4), barne-zorroaren kalterako (% 16,9). Orokorrean, kanpoko eta barruko zorroen posizio guztiak handitu ziren, eta honako hauek nabarmendu ziren: inbertsio kolektiboko erakundeak (+% 33,9 eta +% 26,7), ondare-tresnak (+% 10,4 eta +% 36,5), eta zorraren balio adierazgarriak; azken horiek portaera ezberdina izan zuten barne-zorroan eta kanpo-zorroan (-% 7,2 eta +% 10,4).

[1] Kontuan izan behar da bi zorro horien ekarpena aldatzen joan dela pixkanaka. Izan ere, 2011n inbertsio-zorro nazionalari zegozkion HIFen ondarearen bi heren, eta atzerriko osagaiak garrantzi txikiagoa zuen (% 68,3 eta % 16,9).

**261. koadroa Higigarrietako inbertsio-sozietateen eta -funtsen ondare-banaketa, balio eraginkorraren arabera**

*(M euro)*

| Kontzeptua | Inbertsio-funtsak(*) | | | Inbertsio-sozietateak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | %∆ 21/20 | 2020 | 2021 | %∆ 21/20 |
| **Ondarea** | **279.695** | **324.701** | **16,1** | **26.960** | **28.502** | **5,7** |
| **Finantza-inbertsioen zorroa** | **256.257** | **299.435** | **16,8** | **24.549** | **25.730** | **4,8** |
| Barne-zorroa | 54.588 | 54.716 | 0,2 | 3.420 | 3.525 | 3,1 |
| Zorraren balio adierazgarriak | 38.395 | 35.648 | -7,2 | 734 | 734 | 0,0 |
| Ondare-tresnak | 6.185 | 6.829 | 10,4 | 1.601 | 1.634 | 2,0 |
| Inbertsio kolektiboko erakundeak | 8.511 | 11.397 | 33,9 | 968 | 1.067 | 10,3 |
| Kreditu-erakundeetako gordailuak | 1.342 | 627 | -53,2 | 48 | 19 | -60,0 |
| Eratorriak | 141 | 168 | 19,4 | 3 | 0 | -112,5 |
| Beste batzuk | 15 | 47 | 222,6 | 66 | 71 | 7,9 |
| Kanpo-zorroa | 201.665 | 244.716 | 21,3 | 21.126 | 22.203 | 5,1 |
| Zorraren balio adierazgarriak | 86.152 | 95.132 | 10,4 | 3.243 | 2.684 | -17,2 |
| Ondare-tresnak | 33.886 | 46.254 | 36,5 | 6.548 | 7.158 | 9,3 |
| Inbertsio kolektiboko erakundeak | 81.358 | 103.090 | 26,7 | 11.297 | 12.335 | 9,2 |
| Kreditu-erakundeetako gordailuak | 0 | 0 | 0,0 | 0 | 0 | 3,0 |
| Eratorriak | 268 | 239 | -11,0 | 24 | 8 | -65,1 |
| Beste batzuk | 1 | 1 | 0,0 | 13 | 18 | 38,9 |
| Zalantzazko inbertsioa, inbertsio berankorra edo auzipeko inbertsioa | 5 | 4 | -23,9 | 3 | 2 | -43,8 |
| **Diruzaintza** | **22.203** | **23.951** | **7,9** | **2.219** | **2.476** | **11,6** |
| **Zordun/hartzekodun garbiak** | **1.234** | **1.315** | **6,6** | **191** | **296** | **54,4** |

*(*): Hortik kanpo daude inbertsio libreko IKEak (ILF eta ILIKEF).*
*Iturria: CNMV. Urteko txostena.*

SICAVen kasuan azterketa bera eginda, ondarearen banaketa antzekoa izan zela ikus daiteke. Finantza-inbertsioen zorroa aldiz, gailendu zen (% 90,3), eta pisu erlatibo txikiagoa izan zuen diruzaintzak (% 8,7) eta zordunen eta hartzekodunen saldo garbiak (% 1,0). Hiru segmentuek izan zuten eragina SICAVen ondarearen bolumenaren hazkundean (+% 5,7). Izan ere, hazkunde handiak izan zituzten diruzaintzak (+% 11,6) eta zordunen eta hartzekodunen saldo garbiak (+% 54,4), eta gora egin zuen finantza-inbertsioen zorroak ere (+% 4,8).

Barneko eta kanpoko zorroek egin zuten gora (+% 3,1 eta +% 5,1), eta horrek azaltzen du finantza-inbertsioen zorroaren bilakaera, baina oso ekarpen ezberdina egin zioten SICAVen guztizko ondareari (% 12,4 eta % 77,9)[1]. Bi zorro horiek xehetasunez aztertuta, ikus daiteke gora egin zutela inbertsio kolektiboko erakundeek (+% 10,3 eta +% 9,2) eta ondare-tresnek (+% 2,0 eta % 9,3). Zorraren balio adierazgarriek, berriz, behera egin zuten (% 0,0 eta -% 17,2), baina beherakada hori konpentsatu egin zen SICAVen emaitza orokorrean.

[1] SICAVen kasuan ere, bi zorro horien ekarpena pixkanaka aldatzen joan da, eta kanpoko segmentuak goranzko bilakaera argia izan zuen 2011 eta 2021 artean (% 47,6 eta % 77,9).



LABORAL kutxa

## HIFen tipologia

HIFak bost motatan bereizten dira, barne hartzen dituzten finantza-produktuen arabera –monetarioa, errenta finkokoa, errenta aldakorrekoa, beste funts batzuk eta funts orokorrak– eta hamasei aldaera bereizten dira, bakoitzaren inbertsio-orientazioaren arabera.

**262. koadroa Higigarrietako Inbertsio Funtsen (HIF)[1], partaideen eta ondarearen banaketa, zorroaren osaeraren arabera**

| Kontzeptua | Funts kopurua | | Parte-hartzaile kopurua | | Ondarea (M €) | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| Monetarioa | 2 | 2 | 96.349 | 82.730 | 4.572 | 4.459 |
| Errenta finkoa (euro) | 213 | 203 | 3.079.553 | 4.150.416 | 65.214 | 71.832 |
| Errenta finkoa (nazioartekoa) | 61 | 61 | 959.392 | 1.242.950 | 11.230 | 12.132 |
| Errenta finko mistoa (euro) | 70 | 71 | 496.523 | 569.001 | 16.523 | 17.761 |
| Errenta finko mistoa (nazioartekoa) | 104 | 110 | 706.757 | 890.003 | 26.678 | 33.109 |
| Errenta aldakor mistoa (euro) | 40 | 31 | 87.674 | 51.993 | 2.821 | 1.824 |
| Errenta aldakor mistoa (nazioartekoa) | 146 | 161 | 657.438 | 669.353 | 27.611 | 26.317 |
| Errenta aldakorra (euro) | 104 | 94 | 530.107 | 778.138 | 7.091 | 8.280 |
| Errenta aldakorra (nazioartekoa) | 276 | 307 | 3.043.542 | 3.882.184 | 37.723 | 51.222 |
| Kudeaketa pasiboa | 118 | 88 | 511.251 | 505.514 | 14.014 | 12.500 |
| Errendimendu finko bermatua | 55 | 43 | 135.320 | 77.430 | 4.177 | 2.347 |
| Errendimendu aldakor bermatua | 128 | 111 | 354.315 | 263.926 | 10.959 | 8.049 |
| Berme partziala | 5 | 3 | 2.124 | 1.117 | 78 | 46 |
| Itzulketa absolutua | 72 | 61 | 587.040 | 659.411 | 10.057 | 7.231 |
| Globalak | 248 | 263 | 1.409.759 | 1.989.428 | 40.945 | 67.591 |
| Bokaziorik gabe | 2 | 2 | 2.956 | 2.963 | 2 | 1 |
| **HIF, guztira** | **1.644** | **1.611** | **2.660.100** | **5.816.557** | **279.694** | **324.701** |

*Iturria: CNMV. Urteko txostena.*

HIFak 1.611 funtsek, 15.816.557 partaidek eta 324.701 milioi euroko ondareak osatzen dituzte. Bilakaerak erakusten duenez, partaide kopurua[2] eta ondarea hazi egin ziren (+% 24,9 eta +% 16,1). Funtsen kopuruak, berriz, behera egin zuen (-% 2,0). Horrek erakusten duenez, batez besteko birdimentsionatzea gorakorra izan zen. Funts bakoitzaren batez besteko ondarea 201 milioi eurokoa zen, eta partaide bakoitzeko batez besteko ondarea 20.529 eurokoa.

---

[1] 2019ko bigarren hiruhilekoaz geroztik, 1/2019 Zirkularrak ezarritako definizio berrietara egokitzen dira deierak. "Monetario" kategoriak Merkatu Monetarioko Funtsen (FMM) lau mota hartzen ditu barne, aipatutako zirkularrak definitzen dituenak; gaur egun, "Likidazio-balio aldakorreko merkatu monetarioko funts estandarra" motako funtsak bakarrik daude erregistratuta. "Errenta Finkoa Euro" kategoriak barne harten ditu Errenta Finkoa Euro berria eta Epe Motzerako Errenta Finkoa Euro; eta "Kudeaketa Pasiboko IKE" kategoriak barne hartzen ditu indize bati erantzuten dioten IKEak eta bermatu gabeko errentagarritasun-helburuak dituzten IKEak.

[2] Kontuan izan behar da partaide bera hainbat aldiz zenbatu daitekeela, zehazki, funts batean edo bestean dituen kontratuak adina aldiz. Hortaz, baliteke, kasu batzuetan, inbertitzaile berak funts gehiagotan dibertsifikatu izanak azaltzea erregistratutako igoera.

Inbertsioaren orientazioaren arabera, aipatu beharrekoa da HIFen ondarearen bolumenaren eta partaideen zatirik handiena errenta finkokoa zela (% 43,6 eta % 43,3). Funts kopuruari dagokionez, berriz, errenta aldakorrekoak nabarmendu ziren (guztizkoaren % 36,8). Zehazki, aintzat hartutako HIFen hamasei aldaerei dagokienez, esanguratsuenak hauek izan ziren: errenta finkoa eurotan (ondarean eta partaideetan) eta nazioarteko errenta aldakorra (funts kopuruan).

Atxikitako grafikoak aintzat hartutako HIFen bost talde handien bilakaera erakusten du, funts kopuruaren, partaideen eta ondarearen arabera. Errenta aldakorreko taldearen hazkundea nabarmentzen da, gora egin baitzuten funts kopuruak, partaideek eta ondareak (+% 4,8, +% 24,6 eta +% 16,5). Horiek gora egin zuten errenta finkoaren kasuan ere (-% 0,7, +% 30,7 eta +% 12,7). Aitzitik, behera egin zuten monetarioen taldeak (% 0,0, -% 14,1 eta -% 2,5) eta beste batzuen taldeak (-% 19,0, -% 5,2 eta -% 23,2). Baina beherakada horiek konpentsatu egin zituzten aintzat hartutako bi talde nagusietan izandako gorakadek (errenta finkoa eta errenta aldakorra).

**49. grafikoa** **Higigarrietako Inbertsio Funtsen lau taldeak bereizten dituzten hiru aldagaien urte arteko bilakaera**

*(urte arteko aldakuntza-tasa , 2021/2020)*




*Iturria: CNMV. Urteko txostena. Geuk egina.*

# 4. BURTSA-MERKATUA

2021ean, munduko burtsa-merkatuak suspertu egin ziren, eta 2020an izandako beherakadaren ondoren, pandemiaren aurreko balioetara iritsi ziren. Suspertze hori bat etorri zen munduko jarduera ekonomikoaren bilakaera positiboarekin[1] (+% 6,1). Ekonomia aurreratuen (+% 5,2) eta sortu berri diren eta garapen-bidean dauden ekonomien (+% 6,8) hazkundean oinarritu zen munduko ekonomiaren gorakada.

Baina burtsako indizeen suspertze maila ezberdina izan zen: IBEX-35 eta Erresuma Batuko FTSE oraindik ere ez ziren 2019ko mailara iritsi (-% 8,7 eta -% 2,1, hurrenez hurren). CAC-40 (+% 19,7), Dax-Xetra (+% 19,9) eta Eurostoxx 50 (+% 14,8) indizeek, berriz, aipatutako urteko erregistroa gainditu zuten. Ipar Amerikako merkatuek indartu egin zuten 2020ko bilakaera positiboa –urtean zehar hazi egin ziren–, eta Dow Jones (+% 27,3) eta Nasdaq Composite (+% 21,4) indizeen balioak asko igo ziren 2021ean. Azkenik, Japoniako Nikkei indizeak ere errentagarritasun oso positiboa izan zuen (+% 4,9).

**263. koadroa Burtsa-indize nagusien bilakaera**

| Urtea | Ibex-35 (Madril) | CAC-40 (Paris) | Dax-Xetra (Frankfurt) | FT-SE 100 (Londres) | Dow Jones (New York) | Nikkei (Tokio) | Eurostoxx 50 | Nasdaq Composite |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2019 | 9.549,2 | 5.978,1 | 13.249,0 | 7.542,4 | 28.538,4 | 23.656,6 | 3.745,2 | 8.972,6 |
| 2020 | 8.073,7 | 5.551,4 | 13.718,8 | 6.460,5 | 30.606,5 | 27.444,2 | 3.552,6 | 12.888,3 |
| 2021 | 8.713,8 | 7.153,0 | 15.884,9 | 7.384,5 | 36.338,3 | 28.791,7 | 4.298,4 | 15.645,0 |
| *Urte batetik besterako aldakuntza (%)* | | | | | | | | |
| 2019 | 11,8 | 26,4 | 25,5 | 12,1 | 22,3 | 18,2 | 24,8 | 35,2 |
| 2020 | -15,5 | -7,1 | 3,5 | -14,3 | 7,2 | 16,0 | -5,1 | 43,6 |
| 2021 | 7,9 | 28,9 | 15,8 | 14,3 | 18,7 | 4,9 | 21,0 | 21,4 |

*Oharra: Abenduaren 31n.*
*Iturria: Ekonomia Adierazleen datu-basea. Ekonomia eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioa.*

Pandemiaren bi urteetan zehar (2020-2021) burtsako indizeek izandako bilakaerak honako hauek erakusten ditu: batetik, 2020ko martxoan jarduerak izan zuen atzerakada, pandemiaren etorreraren ondorioz; eta, bestetik, ondorengo suspertze-aldia, batez ere, 2020aren amaieran gailendu zena, txertatze-prozesuaren hasierarekin. Txertaketa 2021ean zehar zabaldu zen gizarte osora. Halaber, suspertze ekonomikoari aurre egiteko erdietsitako akordioen inpaktu positiboa aipatu behar da (NEXTGeneration funtsak). Horiek, erakunde monetarioek aplikatutako hedapen-politikekin[2] batera, inbertitzeko konfiantza hobetzen lagundu zuten. Hala ere, 2022ko joera inflazionistak eta Errusia-Ukraina gerraren hasierak okertu egin dute ibilbide positibo hori. Testuinguru honetan, ziurgabetasuna orokorra da munduko ekonomia nagusietan.

---

[1] NDF, Munduko ekonomiaren aurreikuspenak (2022ko apirila).

[2] Baina 2022an gogortu egin dira politika monetario hauek, Fedek interes-tasak igo baitzituen (+50 oinarrizko puntu) maiatzean.

Azkenik, aipatu beharrekoa da 2021ean zehar burtsako indizeek izandako bilakaera askotarikoa izan zela. Elkarrengandik oso gertu egotetik (ia gainjarri egiten ziren 2020ko martxora arte), ibilbide ezberdinak erakusten hasi ziren, eta aintzat hartutako bi indizek (Dow Jones eta Nikkei) bilakaera hobea izan zuten. IBEX-35 indizea, berriz, grafikoaren beheko aldean geratu zen. Kontuan izan behar da bilakaeraren zati bat erreferentziazko ekonomian erregistratutako indarraren araberakoa dela. Beste zatia, berriz, indizearen osaeraren araberakoa da, hau da, bizitako une horretan gehien baldintzatutako jardueren pisua handiagoa edo txikiagoa izatearen araberakoa.

**50. grafikoa Burtsako indize nagusien bilakaera (Oinarria 100 = 2019/12/31)**




*Iturria: Ekonomia Adierazleen datu-basea. Ekonomia eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioa.*

## 4.1. IKUSPEGI OROKORRA

### Lehen mailako eta jaulkipeneko merkatuak

Estatuko lehen mailako merkatuaren jarduerak erakusten duenez, egindako jaulkipen garbien eta SEPen bolumena 105.392 milioi eurokoa izan zen. Emaitza hori 2020. urtekoa baino txikiagoa izan zen (140.963 milioi euro), urte hartan erregistratu baitzen 2009az geroztiko jardueraren bolumenik handiena, baina 2019an eskuratutako maila bikoiztu zuen (55.395 milioi euro). Jarduera-segmentuen arabera, akzio kotizatuen eta ez-kotizatuen dinamismoa nabarmendu zen (+8.892 milioi euro), baina hazkunde hori ez zen nahikoa izan akzioak ez diren balioek izandako beherakada (-44.463 milioi euro) konpentsatzeko. Azken horrek jarraitzen du osagai nagusia izaten (guztizkoaren % 86,3).

Zehazki, akzioak ez diren balioak osatzen dituzten hiru segmentuetatik bitan jaitsi egin zen negoziatutako bolumena: Administrazio Publikoetan (-33.054 milioi euro) eta finantza-erakundeetan (-13.652 milioi euro); sozietate ez-finantzarioen saldoa, berriz, handitu egin zen (+2.245 milioi euro).

Hala, Administrazio Publikoen pisuak (% 71,3) jarraitzen du egitura zehazten; sozietate ez-finantzarioek (% 14,4) eta finantza-erakundeek osatzen dute egitura (% 14,3).

Administrazio Publikoak xehe aztertuta, agerian geratzen da Administrazio Zentralaren garrantzia, 61.199 milioi euroko saldoarekin; 2021ean egindako jaulkipen garbien eta SEPen erdia baino gehiago dagokio. Egungo egoerarekin (pandemia) lotutako finantzaketa-beharrek eragin zuten emaitza hori. Izan ere, eragile publikoek egindako jaulkipenak areagotu egin ziren, ekonomia eta enplegua suspertzera bideratutako laguntza-paketeak finantzatzeko. Baina, aipatu beharrekoa da 2021an jaulkitako bolumena 2020koa baino txikiagoa izan zela (-39.519 milioi euro). Bestetik, finantza-erakundeen jarduera maila murriztu egin zen, bestelako finantza-bitartekari batzuen ondorioz[1] (-26.529 milioi euro). Finantza-erakunde monetarioen partida[2], berriz, hazi egin zen (+12.876 milioi euro).

**264. koadroa Akzioak ez diren baloreak, finantza-tresna deribatuak izan ezik. Inbertsio-funtsetako partaidetzak eta akzioak. Jaulkipen garbiak eta salmenta-eskaintza publikoak**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | Urte batetik besterako aldakuntza: Aldakuntza 20/19 | Urte batetik besterako aldakuntza: Aldakuntza 21/20 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Akzioak ez diren baloreak, finantza-tresna deribatuak izan ezik. Balore nominalak** | **44.452** | **135.457** | **90.994** | **91.005** | **-44.463** |
| – Finantza-erakundeak | 11.309 | 26.660 | 13.008 | 15.351 | -13.652 |
| • Finantza-erakunde monetarioak | 19.341 | 17.997 | 30.873 | -1.344 | 12.876 |
| • Bestelako finantza-bitartekariak | -8.033 | 8.664 | -17.865 | 16.697 | -26.529 |
| – Administrazio Publikoak | 18.762 | 97.958 | 64.904 | 79.196 | -33.054 |
| • Administrazio zentrala | 17.117 | 100.718 | 61.199 | 83.601 | -39.519 |
| • Autonomia-erkidegoak | 1.698 | -2.760 | 3.905 | -4.458 | 6.665 |
| • Tokiko udalbatzak | -53 | 0 | -200 | 53 | -200 |
| – Sozietate ez-finantzarioak | 14.382 | 10.838 | 13.083 | -3.544 | 2.245 |
| **Akzio kotizatuak eta ez-kotizatuak** | **10.943** | **5.506** | **14.398** | **-5.437** | **8.892** |
| – Kapitala zabaltzea. Funtsen ekarpena | 10.234 | 4.538 | 12.675 | -5.696 | 8.137 |
| • Finantza-erakundeak | 2.480 | 989 | 7.318 | -1.491 | 6.329 |
| • Sozietate ez-finantzarioak | 7.754 | 3.586 | 5.373 | -4.168 | 1.787 |
| – Salmenta-eskaintza publikoak | 709 | 968 | 1.723 | 259 | 755 |
| **Jaulkipen garbiak eta salmenta-eskaintza publikoa, guztira** | **55.395** | **140.963** | **105.392** | **85.568** | **-35.571** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.*

[1] Nagusiki, aseguru-konpainiak, pentsio-funtsak edo mutualitateak, higiezinen inbertsio-sozietateak, inbertsio-funtsak, hipoteka-kredituen sozietateak, leasing-erakundeak, factoring-ekoak, diru-merkatuko sozietate bitartekariak eta elkarrenganako bermeko sozietateak.

[2] Barne hartzen ditu kreditu-erakundeak eta egoitza eremuan duten finantza-erakunde guztiak. Horien jarduera honako hau da: FEMak ez diren erakundeen gordailuak eta etorriko diren gordailuen ordezkoak jasotzea, eta kredituak ematea edo balioetan inbertitzea beren kabuz. Azken talde hori, funtsean, merkatu monetarioko funtsek osatzen dute.

Akzio kotizatuen eta ez-kotizatuen segmentuak erakusten duenez, erregistratutako hazkundea (+8.892 milioi euro) honakoek baldintzatu zuten: kapitala zabaltzea (+8.137 milioi euro) eta salmenta-eskaintza publikoen hazkunde apalagoa (+755 milioi euro). Bi partida horien ekarpena, oso ezberdina izan zen (% 88,0 eta % 12,0, hurrenez hurren). Kapitalaren zabaltzearen xehetasunak aztertuta, finantza-erakundeek izandako hazkundea ikus daiteke (+6.329 milioi euro); horiek gehiago hazi ziren sozietate ez-finantzarioak baino (+1.787 milioi euro).

### Bigarren mailako merkatuak: Burtsak

Errenta aldakorreko bigarren mailako merkatuan, negoziatutako akzioen bolumenak atzera egin zuen berriro, eta 400.000 milioi eurotik beherako bolumenarekin amaitu zuen ekitaldia. Emaitza horrek esan nahi du urte arteko % 12,0ko jaitsiera izan zela. Hala, jarduerak behera egin zuen ondoz ondoko seigarren ekitaldian; 2015etik 2021era, % 62 murriztu zen (984.499 eta 378.141 milioi euro, hurrenez hurren). Espainiako Burtsa arteko Lotura Sistemaren (SIBE) ondorioz gertatu zen jaitsiera hori, aintzat hartutako ia sektore guztietan jaitsi baitzen negoziatutako bolumena: bankuen sektorea (-% 8,9), sektore elektrikoa (-% 17,9), eraikuntza (-% 26,1) komunikazioa (-% 42,9) eta gainerako jarduerak (-% 0,3).

Aitzitik, enpresa kotizatuen kapitalizazioak gora egin zuen (+% 14,2), eta bilioi bat eurotik gora kokatu zen berriro ere (1.082.048 milioi euro), 2019ko mailatik gertu (1.105.662 milioi euro). Bilakaera positibo hori bat etorri zen IBEX-35 indizearen balioaren gorakadarekin (+% 7,9), 8.713,80 punturekin itxi baitzuen 2021a indize horrek, eta munduko burtsako indize nagusiek ere gora egin zuten.

**265. koadroa Burtsa-merkatua Negoziatutako bolumenen balio efektiboa(akzioak)**

*(M euro)*

| Tituluak | 2019 | 2020 | 2021 | %∆ 21/20 |
|---|---|---|---|---|
| Akzioak (SIBE, Espainiako Burtsa arteko Lotura Sistema) | 469.635 | 429.358 | 377.661 | -12,0 |
| • Bankuak | 146.427 | 98.390 | 89.661 | -8,9 |
| • Elektrikoak | 71.272 | 79.190 | 65.043 | -17,9 |
| • Eraikuntza | 25.194 | 26.595 | 19.662 | -26,1 |
| • Komunikazioa | 51.040 | 49.846 | 28.448 | -42,9 |
| • Gainerakoak | 175.702 | 175.337 | 174.848 | -0,3 |
| Gainerako akzioak (Korro Sist. Kont.) | 480 | 480 | 480 | 0,0 |
| • Madrilgo burtsa | 360 | 360 | 360 | 0,0 |
| • Bartzelonako burtsa | 120 | 120 | 120 | 0,0 |
| • Bilboko burtsa | 0 | 0 | 0 | 0,0 |
| • Valentziako burtsa | 0 | 0 | 0 | 0,0 |
| **Akzioak, guztira** | **470.115** | **429.838** | **378.141** | **-12,0** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.*

Burtsa-merkatuaren lurrunkortasuna maila normalagoetara murriztu zen. Hala, VIBEX[1] indizearen arabera, 2021ean % 17,4koa izan zen urteko batezbestekoa; 2020an, berriz, % 26koa. Modu horretan, urrundu egin zen 2020ko martxoan erregistratutako lurrunkortasun altutik[2], eta 2018ko eta 2019ko antzeko mailara itzuli zen (% 15,0 eta % 13,7). Dena den, 2021aren itxieran erregistratutako igoera apala aipatu behar da, egoera epidemiologiko konplikatuaren ondorioz[3]. Egoera zail horri, 2022aren hasieran, Errusia-Ukraina gerra-gatazkaren inpaktua batu zitzaion, eta lurrunkortasun maila % 40tik gertu dago.

**51. grafikoa VIBEXen lurrunkortasun-indizea**




*Iturria: Espainiako Burtsak eta Merkatuak (BME)*

### Bigarren mailako merkatuak: Errenta Finkoa

Errenta finkoko bigarren mailako merkatuak hazkunde handia izan zuen 2021ean, eta negozio-bolumena 89.851 milioi eurokoa izan zen (+% 12,3); hala, 2007ko maila berdindu zuen (89.461 milioi euro). Honako hau izan zen bilakaera horren arrazoia: *"2021ean mantendu egin zen Administrazio Publikoak eta funtsen bolumen handiak dituzten enpresak finantzatzeko gaitasuna, interes-tasen eta epeen baldintza onekin, oraindik ere Europako Banku Zentralaren hedapen-politika monetarioen laguntzarekin"* (EBZ).

[1] Espainiako burtsa-merkatuaren lurrunkortasuna neurtzen du adierazle honek, MEFFen negoziatzen diren IBEX indizearen gaineko aukera likidoenak erabilita.

[2] Martxoaren 16an batez besteko lurrunkortasun inplizitua (% 76,6) maximo historikoetatik gertu kokatu zen. 2008ko krisian baino ez zen gainditu maila hori (% 79,2, 2008ko urriaren 27an).

[3] Omicron aldaeraren intzidentziak okertu egin zuen merkatuek erregistratutako hobekuntza-ibilbidea.

Zorraren negoziazioa hazi egin zen, batez ere, Altxorraren Letrak osagaian eta bonu eta obligazio bereizietan (% 52,4 eta % 25,7). Dena den, negoziatutako bolumenaren zatirik handiena bonu eta obligazio ez-bereiziei egokitu zitzaien (guztizkoaren % 79,5); azken horiek hazkunde erlatibo txikiagoa izan zuten (+% 6,2).

**266. koadroa Errenta finko publikoaren bigarren mailako merkatuan negoziatutako bolumenak: Estatuaren zorra (1)**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | %Δ 21/20 |
|---|---|---|---|---|
| **CADE sistema - ARCO sistema (2)** | **78.999** | **80.037** | **89.851** | **12,3** |
| – Bonu eta obligazio ez-bereiziak | 63.212 | 67.276 | 71.440 | 6,2 |
| – Bonu eta obligazio bereiziak | 3.887 | 3.877 | 4.872 | 25,7 |
| – Altxorraren Letrak | 11.900 | 8.884 | 13.539 | 52,4 |

*(1): Eskurako, eperako eta berrerosteko eragiketa-negoziazioen eguneroko zifren batez bestekoa. 2017az geroztik, araudi-aldaketa dela-eta, errenta finko pribatuko merkatuek ez dituzte argitaratu negoziazioaren gehiengoaren datuak (sistemako erabiltzaileen arteko salerosketa zuzenak).*

*(2):2017an, Espainiako Bankuaren Idazpenen Zentralaren (CADE) lehengo sistemaren kudeaketa Espainiako Burtsa eta Merkatuen Taldearen esku geratu zen, ARCO izenarekin, eta Europako T2S sistemarekin homologatu zen.*

*Iturria: Altxor Publikoaren hileroko estatistikak. Ekonomia eta Enpresa Ministerioa.*

Espainiako deribatuen merkatuak beheranzko joera jarraitua du 2009tik, eta 2021ean erregistratutako kontratazioa % 64 baxuagoa izan zen 2009koa baino (2021ean 32,2 milioi kontratu, eta 2009an 89,9 milioi kontratu). Urte arteko jaitsiera ere handia izan zen (-% 16,9), aukera finantzarioek (-% 28,7) eta, neurri txikiago batean, geroko finantza osagaiek (-% 1,6) izandako jaitsieraren ondorioz. Hazkunde bakarra, akzioen gaineko gerokoek izan zuten (+% 3,4), baina horien igoerak ez zuen konpentsatu jardueraren okertze orokorra, egungo ziurgabetasun-agertokiak baldintzatua.

**267. koadroa Geroko Finantzarioen eta Aukera Finantzarioen Espainiako Merkatua**

*(mila kontratu)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | %Δ 21/20 |
|---|---|---|---|---|
| Geroko finantzarioak, guztira | 21.264 | 16.874 | 16.607 | -1,6 |
| – Indizeen gaineko gerokoak (IBEX) | 5.966 | 5.906 | 5.261 | -10,9 |
| – Akzioen gaineko gerokoak | 15.298 | 10.968 | 11.346 | 3,4 |
| Aukera finantzarioak, guztira | 21.298 | 21.830 | 15.555 | -28,7 |
| – Indizeen gaineko aukerak (IBEX) | 3.806 | 2.437 | 1.489 | -38,9 |
| – Akzioen gaineko aukerak | 17.492 | 19.393 | 14.066 | -27,5 |
| **MEFF, guztira** | **42.562** | **38.704** | **32.162** | **-16,9** |

*(*): Egindako eragiketak*

*Iturria: BME (Espainiako Burtsak eta Merkatuak)*



LABORAL kutxa

## 4.2. BILBOKO BURTSA

Bilboko burtsak 1.397,35 puntu eskuratu zituen (abenduaren 30ean) eta pandemiaren aurreko kotizazio-mailara iritsi zen ia, burtsako indize nagusiek izandako hobekuntza -ibilbidearekin bat etorriz. Hileko bilakaerak baieztatu egin zuen joera hori. Izan ere, urtearen hasiera erdipurdikoa izan zen, baina ondorengo hilabeteetan hobetzen joan zen, 1.400 puntu inguruen bueltan finkatu arte. Hala, Bilboko Burtsa urrundu egin zen 2020ko martxoan eta urrian erregistratutako gutxieneko balioetatik.

**52. grafikoa Kotizazio Indize Orokorra Bilboko burtsa**




*Iturria: Bilboko Burtsa.*

**268. koadroa Bilboko Burtsaren Indize Orokorra (2000 indizea). Azken balioa, maximoa eta minimoa**

| Urtea | Azkena | Maximoa | Minimoa |
|---|---|---|---|
| 2013 | 1.658,57 | 1.660,80 | 1.231,66 |
| 2014 | 1.668,99 | 1.849,71 | 1.601,52 |
| 2015 | 1.578,45 | 1.941,39 | 1.530,92 |
| 2016 | 1.489,50 | 1.542,97 | 1.283,77 |
| 2017 | 1.577,50 | 1.748,99 | 1.479,05 |
| 2018 | 1.330,08 | 1.337,44 | 1.323,12 |
| 2019 | 1.485,36 | 1.488,93 | 1.481,62 |
| 2020 | 1.291,18 | 1.298,11 | 1.290,87 |
| 2021 | 1.397,35 | 1.399,37 | 1.390,08 |

*Oharra: Oinarria 2000, 1999ko abenduaren 31koa.*
*Iturria: Bilboko Burtsa.*

Bilboko Burtsaren kontratazioa 83.265 milioi eurokoa izan zen, 2020an baino baxuagoa (-% 13,8), baina pandemiaren aurreko aldiaren antzekoa (2019). 2015ean gehieneko balioa eskuratu zuenetik –180.000 milioi euro baino gehiago–, beheranzko joera garbia zuen.

Nabarmentzekoa da azkeneko hiru urteetan (2019-2021) kontratazio-bolumena 100.000 milioi eurotik beherakoa izan dela, eta 2021ean erregistratu zen serieko baliorik txikiena. Kontratazio osoa, errenta aldakorraren merkatuari dagokio eta, zehazki, SIBE merkatu jarraiari[1]. Errenta finkoaren merkatuak, berriz, ez du jarduerarik erregistratu 2017az geroztik.

**53. grafikoa** **Bilboko Burtsako kontratazio-bolumena. Balio efektiboak***

*(M euro)*




*(*): Erosketak + salmentak.*
*Iturria: Bilboko Burtsa.*

[1] Espainiako Burtsa arteko Lotura Sistema.